

Juan Bautista Agirre

**JESU-KRISTO,
ETA BIRJIÑA TXIT
SANTAREN MISTERIOEN,
ETA BESTE ZENBAIT
GAUZEN GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Eracusaldiac*, Juan Bautista Agirre (faksimilea).
Hordago, 1978

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=330>

**JESU-KRISTO,
ETA BIRJIÑA TXIT
SANTAREN MISTERIOEN,
ETA BESTE ZENBAIT
GAUZEN GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

Don Juan Bautista Agirre Asteasuko Erretore,
eta Gipuzkoako Arziprestazko Nagusian Diputadu
Jeneralak,
Kristau aziai Meza nagusietan egiñak

Eskeintzen diezte Apaiz Euskaldunai

Clama, ne cesses, quasi tuba exalta vocem tuam,
et annuntia populo meo scelera eorum. Isaiae 58.

Iruñeko gure apaiz nagusiaren baimenarekin

IRUGARREN LIBURUA

TOLOSAN:

Andres Gorosabelen moldetegian
1850garren urtean

ADVERTENCIA

El lector echará de menos algunos Sermones correspondientes á varios misterios y fiestas principales que celebra la Santa Madre Iglesia, y por lo tanto se advierte que entre los escritos del Autor no se han encontrado mas de los que se publican en esta obra.

**JESU-KRISTO,
ETA BIRJIÑA TXIT SANTAREN
MISTERIOEN GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

LENENGO ERAKUSALDIA

JESUSEN PIZTUERAREN GAÑEAN

Surrexit, non est hic. Marc. 16.

Poztu zaitezte egun andi onetan Jesus maite dezuen animak. Bukatu dira Jesusen odolezko izerdiak. Bukatu dira azoteak, eta gurutzeko neke, ta oñaze izugarriak. Ill da Jesus guri zigun onginei, eta amorio geyegiz, dio S. Paulok: *Propter nimiam charitatem*; baña irugarren egunean piztu da, berak esanzuan bezala. Piztuera au da gaurko pozaldi, edo festaren gaya. Au da festa guzien festa, dio S. Gregorio Nazianzenok: au da Jaunak egin, edo prestatu digun egun andia: poztu gaitezen egun onetan esaten digu Eliz Ama Santak: *Haec dies quam fecit Dominus, exultemus, et laetemur in ea*. Au bear dan eran guk egiteko, aditzera emango dizuet Misterio gozo-miragarri au. Urrena, ukituko det egun onetan egin bear gendukeana. Enzun arreta andiarekin, Kristaua.

Gure Jesus ona etorri zan Zerutik lurrera, Zeruko bidean gu ipintzera. Egin zan gizon, eta ogei, ta amairu urte igaro zituan bidean erakusten ala itzez, nola obraz. Gure erospen, edo Redenzioko obra andia egiteko gauza bearra zan gurutzean bere bizitza ematea, eta Adanen, eta gure bekatuen zorra ateratzea. Beñ baño geyagotan aditzera eman zien au Apostoluai; baño denbora berean esan zien piztuko zala. Asi ziran Juduen arteko lenenak Jesusi bizitza kenerazteko aitzakien billa, eta guziaren berri ziakianak bezala, esan zien beñ Jesusek Jerusalengo Elizan: ea, urraezazue Eliz au, eta nik iru egunen barrunbean berriro altxako det: *Solvite templum hoc, et in tribus diebus excitabo illud* (Joan. 2.º). Itz oetan aditzera eman zien, alperrik zebiltzala berari bizitza kendu nayer: zeren illerazten bazuen ere, iru egunen barrunbean piztuko zan.

Egin zuen Juduak asmo zuena. Milla txarkeri, eta bidegaberen ondoren illerazi zuen gurutze batean lapur biren erdian Jesus Munduaren Salbatzallea. Belzez janzi zan Zerua, asi zan dardaraka lurra: idiki ziran obiak, eta arriak berak, ekusirik beren egillea gurutzean zegoan eran, naigabez bezala erdiratu ziran.

Jose Arimateakoa, Juduen artean gizon andi, eta aberatsa, Jesusen ikaslea zan, baña isillik. Onek egiña zeukan aitz bizian obi berri bat, besterekin kutsatu gabea, eta Jesus il zanean, joan zan Pilatosegana eta eskatu zion aren gorputza bere obi berrian ipintzeko baimena, eta eman zion. Baimen onekin eraman zuan Jesusen gorputza bere obi artara: balsamoz, eta usai gozoko likurtaz ganzutu zuan, eta arlosa andi batekin itxi zuan obirako bidea. Oroitu ziran Juduak, nola Jesussek esan zuan, illerazten bazuen ere, iru egunen barrunbean piztuko zala, eta beldurtu ziran, Apostoluak gauaz ostuta, esan zezeen piztu zala. Orregatik joan ziran Pilatosegana, eta eskatu zioen, agin zezala, iru egun aetan gorde zedilla arretaz obia. Esan zien Pilatosek, badituzue zeren guardiak: zoazte, eta gorde ezazue obia. Ala egin zuen Juduak: obiaren arlosari ezarri zioen beren sillua: ipiñi zituen nai zituen begirale, edo guardiak, eta oek gau, ta egun egon ziran obia zaitzen.

Baña nor, edo zer da gizona Jaungoikoari eragozteko nai duana egitea? Esan zuan Jesusek, illeraziko zuela Juduak, baña irugarren egunean piztuko zala. Orregatik gauza bearra zan Jesusek agindu zuana egitea, alako eran, non edozeñek ezagutu zezakean, egia

garbia zala esan zuan guzia; ta ala egin zuan oraiñ ekusiko degun bezala. Igande goizean, eguna argitu baño len, edo argitzeko denboran piztu zan Jesus, berak aditzera eman zuan eran: au da biurtu zan anima gorputzera, eta egin ziran bat geyago, edo beñere ez iltzeko: eta obiaren sarrera arlosaz itxia bazegoan ere, irten zan andik. Nola gerta zitekean au? Nola? Txit erraz: guzialduna, edo Omnipotentea da alabaña Jaungoikoa, eta nai izate utsarekin egin zezakean au guzia, eta geyago.

Piztu zan unean bertan asi zan lurra ikaraz; jatxi zan Zerutik Aingeru bat: tximisten eran argi egiten zuan beraren aurpegiak, eta elurra bezeñ zuria zan aren soñekoa, edo jantzia: eta nork nai ekusi zezan, etzegoala Jesus obian, baizik piztu zala, kentzen du obia itxitzen zuan arlosa, eta esertzen da beraren gañean. Ekusten due au guzia Juduen guardia, edo begiraleak, eta beldurrez geratzen dira kordegabe. Berengana ziranean, joan ziran Apaiz nagusietara, eta aditzera eman ziezan gertatu zana. Sinistu ote zuen Jesusen piztuera? Ez etzuen sinistu, zeren gorrotoaren lañoak itsutuak zeuden: eta sinistu bearrean, ugari eman ziezan guardai dirua, esan zezeen aek lo zeudela, Apostoluak ostu zuela Jesusen gorputza. Aitzakia-

ren farragarria! Lo bazeuden guardiak, nola ekusiko zituen Apostoluak beren Maisua eramaten?

Asko, eta geyegi ere bazan au, Misterio au zenzua duan edozeñi sinisterazteko; baña etzan onenbesterekin kontentatu Jesus ona. Pazkoa goizean eguna argitu baño len, irten ziran Jerusalendik Santa Maria Magdalena, eta bere lagunak, Jesusen gorputza usai oneko likuriakin ganzutzera; denbora aetan alabaña Ejipton, eta Juduen artean berrogei egunetan balsamoz egiten zituen illen gorputzak. Joan ziran obira, eta arriturik geratu ziran, ekusirik, idikia zegoala, eta etzala an arkitzen Jesus: lasteregin zuen Apostolueta-
ra, eta esan ziezana gertatzen zana. Biurtu ziran obira, eta ekusi zituen bi Aingeru, eta oetako batek esan zien: Ez beldurtu: *Nolite timere*: badakit Jesusen billa zatoztela: ez dago emen, piztu da alabaña berak esan zuan bezala: *Surrexit enim sicut dixit* (Math. 28). Egun onetan bertan agertu zitzaten Magdalenari, S. Pedrori, eta Emausko gaztelura zijoazen ikasleai. Agertu zitzaten gañera Aposloluai jaten zeudela, eta janere zuan berakin. Aldi oetan etzegoan an Santo Tomas, eta beste Apostolui gertatu zana esan bazioen ere, ezin sinistu zuan: *Ezpadet nik ekusten*, esan zien: *ezpadet nik ekusten beraren eskuetan iltzeen siñalea,*

eta ukitzen ezpadet nere eskuakin beraren sayetsa, ez det sinistuko diozuena. Andik zortzigarren egunean Apostolu guziak ateak itxirik zeudela, sartu zan Jesus, eta esan zien: *Pakea zuekin: Pax vobis:* esan zion Tomasi: ekartzu zure beatza onara, eta ekusi itzatzu nere eskuak: ekartzu eskua, eta ukitu ezazu nere sayetsa, eta etzaitezela izan sinitsgaitza. Arrituaren eran geratu zan Tomas, eta esan zion Jesusi: Nere Jaun, eta Jaungoikoa! *Dominus meus, et Deus meus!* Itz oekin argiro agertu zuan Santo Tomasek, Jesus zala Jaungoiko, eta gizon egiazkoa. Zerbait geroago agertu zitzaten Jesus Galilean, S. Paulok dionez, bost eun, eta geyago laguni (1 ad Corint. 15). Zer geyago? Jesus piztu zanean, asko piztu ziran illen artetik: joan ziran Jerusalem, eta agertu zitzaizten beren ezagunai. Ainbesteraño zabaldu, edo barreatu zan Jesusen piztuera, non gizon jakintsu askok dioenez, Pilatosek gaztigatu izan zuan Erromara gertatu zana.

Orra, Kristaua, Eliz Ama Santak gaur aditzera ematen digun Misterio andia. Orra zenbat gisatan agertu zuan Jesusek, il bazan ere guri onginayez, piztu zala berak esan zuan bezala. Au ala ez agertzera, etzuan iñork ere sinistuko, Jesus zala Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, eta Munduaren Salbatzallea, eta alperrikako

gauza izango zan Jesusek esan, eta egin zuan guzia. Piztu ezpada Jesu-Kristo, alperrikako gauza da guk erakusten deguna, baita gure fedea ere, dio S. Paulok: *Si Christus non resurrexit, inanis est praedicatio nostra, inanis est et fides nostra*. Dakuskun oraiñ, zer egin bear gendukean egun andi onetan, eta gure aurrerako bizitzan.

§ II.

Il zan Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, gu bekatuaren mendetik ateratzeko, eta piztu zan beñere ez iltzeko. Au da egia bat gure fede Santak gaurko misterioan erakusten diguna. Au onela izan, eta ez ditugu utziko gaurdanik betiko bekatuaren bideak? Au onela izan, eta ibilli naiko degu amilka bekatuaren bideetan? Ea, sarritan sinistu ezazu, Kristaua, gaurko Misterioa, edo berbera dana sarritan egitzu *Akto fedekoak*.

Ill zan Jesus, guri betiko bizitza, eta atseginkontentuak emateagatik, eta piztu zan agindu digun guzia emateko. Nolako uste, edo esperanza ez degu iduki bear bada Jesus onagan, bera giari, eta, laguntzalle degula, iristeko Zeru eder orietan bizitzea? Egitzu

bada Akto esperantzakoak. Atozea, emengo atsegin lotsagarriakgatik galdu naiko dituzu Zeru eder ori, eta zere burua amildu nai dezu beti-betiko su, eta garren artera?

Il zan Jesus guganako onginai, eta amorio geyegiz, dio S. Paulok: *Propter nimiam charitatem*; baña piztu zan gurekin beti bizitzeko, eta gure animen janari izateko. Zeñ on, eta maitagarria ez da izango gure Aita au, guretzat alakoa bada? Egitzu bada, Kristaua, sarritan *Akto karidadezkoak*, eta bera onratzeko aldegizu bekatutik, eta lagun, eta etxe gaiztoetatik. Onela egingo dezu Eliz Ama Santak gaur aditzera ematen diguna, eta iritsiko dezu betiko bizitza doatsua. Amen.

BIGARREN ERAKUSALDIA

PAZKOETAKO BIGARREN JAYEAN

Adirazten da, nolakoa izan zan Jesusen piztuera eta nolakoa izan bear lukean gure animen piztuerak. Urrena, nolako piztuera izan oi dan Kristaurik geyenena Pazkoetako denbora onetan.

Surrexit vere: Luc. 24.

Pazkoa goizean piztu zan Jesus, ta agertu zitzaten Magdalenari, S. Pedrori, eta Emausko gaztelura Jerusalemendik irten ziran Jesusen bi ikasleai. Biurtu ziran oek Jerusalemara Apostoluak zeuden etxera, eta arkitu zituen oek piztuera beraren gañean itzegiten: Piztu da egiaz, zioen, eta agertu zayo Simoni, edo Pedrori: *Surrexit vere, et apparuit Simoni*. Emaustik biurtu ziranak ere esan zuen gertatu zitzatena, eta guziak poz-tutzen ziran beren Maisuaren berri onakin. Atzo itze-gin nuan Misterio onen gañean. Jesusen piztuerak aditzera ematen digu, S. Paulok dionez, gure animen piztuera: orregatik gaur itz bi esan nai dizkitzuet onen gañean. Aditzera emango det lenengo lekuan: nola-

koa izan zan Jesusen piztuera, eta nolakoa izan bear lukean gure animen piztuerak. Urrena, nolakoa izan oi dan Kristaurik geyenena Pazkoako denbora onetan. Enzun, Kristaua, arretaz.

* * *

Jesu-Kristo ill zan egiaz gorputzaren aldetik, eta iru egun igaro zituan obian. Era berean gure animak, Jesusen anzera piztuko badira, ill bearrak dira bekaturako, eta bekatu diran gauza guzietarako. Au aditzera ematen digu batayoko Sakramentuak, batezere Elizaren lenengo denboretan eman oi zan eran, batayoa artzen zuana alabaña osotoro sartzen zan urean, adirazteko, ill zala, eta obiratu gizon zarra, bere bekatu, eta griña gaizto guziakin. Au bera aditzera ematen digue batayoko egunean eman ginduan itzak. Urليا, esan zizun Elizak, gaurdanik betiko uzten dituzu Satanas, eta Satanasekin batean beraren lagun, eta langilleak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak? *Abrenuntias Sathanae?* Bai, beti-betiko uzten ditut, eranzun zenduan: *Abrenuntio*. Urليا, esan zizun berriz, gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen lan, eta obra

guziak, nola diran bekatua, eta bekatuaren bideak? *Et omnibus operibus ejus?* Bai, betiko uzten ditut, esan zenduan: *Abrenuntio*. Urlia, esan zizun irugarren aldian: gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegiñ, eta jolasetan? Bayetz, eranzun zenduan: *Abrenuntio*. Eta orra nola batayoko egunean illa geratu ziñan, Kristaua, bekatu diran gauza guzietarako: beraz gisa berean ill bearrak gera, Pazkoetan piztuko bagera Jesu-Kristoren anzera. Illak, eta illak ezezik obiratuak geratu giñan Jesu-Kristorekin batayoa artu genduan, esaten digu S. Paulok: *Consepulli enim sumus cum illo per baptismum in mortem* (Ad Galat. 8). Jesu-Kristo piztu zan egiaz, eta añ ariña geratu zan noranai ibiltzeko, non begien itxidiki batean joan zitekean lekurik urrutienara. Gisa berean Jesu-Kristorekin pistutzen dan anima alaitzen da beraren Lege Santa gordetzeko, eta beraren izenean edozeñ neke igarotzeko: ez du ikaritzen, ez goseak, ez egarriak, ezerk ere. Jesu-Kristo piztu zan egiaz, eta aldegin zuan obitik. Eta era onetan bekatutik graziaren bizitzara piztu nai duan animak aldegin bear du bekatuaren obitik, edo bideetatik, etxe, eta lagun gaiztoetatik: aldegin bear du munduko zorakeri,

ta perilletatik: bestela bekatuen obian geratuko da. Atzenezan piztu zan Jesus egiaz, eta piztu zan beñere ez iltzeko: eta gisa berean bekatutik graziaren bizitzara egiaz piztutzen danak, ez du biurtu bear bekatuaren obira. Ez det esan nai, ez ditekeala erori mundu onetan dagoan bitartean; baizik esan nai det, artuko dituala grazian irauteko neurri egokiak, eta jarraituko diola bizitza eder, ta garbi bati. Au ez egitera ez da egiaz piztutzen bekataria. Orra Kristaua, nolakoa izan bear lukean gure animen piztuerak. Dakuskun oraiñ, nolakoa izan oi dan denbora onetan Kristaurik geyena.

* * *

Iru piztuera-motaren berriak ematen dizkigu Eskritura Santak. Piztuera bata da Jesu-Kristorena, eta ekusi degu, nolakoa izan zan au, eta onen anzekoa izan bear lukeala gure animen piztuerak ere. Baña asko ote dira Pazkoako denbora onetan Jesusen anzerara piztutzen diranak? Asko ote dira bekatuakoko illak bezala geratu diranak? Asko ote dira batayoko egunean emandako itzak gorde nai dituenak? Asko ote dira bekatuaren obia betiko utzi nai duenak, eta bizi-

tza onean irauteko neurri egokiak artu nai dituenak?
Ez noski.

Ekritura Santak dakarren beste piztuera-mota da Lazarorena. Ill zan Lazaro, eta obian usteldurik, edo ustelzen arkitzen zan. Piztu zuan Jesu-Kristok egiaz, baña ez betiko baizik gero illtzeko. Era onetan piztutzen dira ez gutxi Pazkoako denboran. Aditzen ditue, fedeak erakusten dizkigun egia izugarriak: ezagutzen due, beren bizitza gaiztoarekin galdu duela Jaunaren adiskidetasun, eta grazia, eta arkitzen dirala beti betiko su eta garren artera erortzeko zorian. Asitzen dira bekatutik irteteko neurriak artzen, eta damuz, eta negarrez biurtzen dira beren Aita Zerukoagana. Orra esaten dio orduan onelako bekatariari: piztu zera, sendatua zaude; ez geyago bekatu egin: *Noli amplius peccare*. Baña zer gertatzen da? Garizuman lo bezala zeuden gura, eta griña txarrak asitzen dira pazkoa ondoan esnatzen: badabil bekataria beldur gutxirekin, eta arkitzen ditu milla perill leneko bekatuetara biurtzeko: perillak etxean, perillak auzoan, perillak bideetan, eta perillak lagun artean: iltzen, edo oztutzen zaizka bizitza onari jarraitzeko egin zituan asmo andiak, eta ez dauka sarritan Sakramentuak artzeko gogorik. Atzenean biurtzen da bekatuara: eta bear

bada len baño ere gaizkiago bizi da, eta amilka dijoa infernura: *El fiunt novissima hominis illius pejora prioribus*. Ala esaten digu Jesu-Kristok bekatuaren berrizkaturaren gañean.

Eskritura Santak dakarren irugarren piztuera-mota da Samuelena. Saul Erregeren kontra altxa ziran Filisteoak, eta prest arkitzen ziran gudan edo pelean asitzeko. Ekusi zituan Saulek, eta izutu zan. Jakin nai zukean, zer egin bear zuan estutasun artan, eta galdetu zien Apaizai, eta Profetai; baña ordurako aserretua zedukan Jauna, eta etzion eranzun nai izan, ez Apaizen, ez Profeten bidez. Bere adiskide andia izan zuan Samuel Profeta, baña lentxeago ill zan au. Estu zan Saul, eta billatu zuan andre azti, edo sorgintzat zeukeena eta erregutu zion piztu zegiola Samuel. Agertu zan Samuel, eta aditzera eman zion, zeñ gaizki irtengo zan gerra artan. Etzan Samuel egiaz piztu geyenak erakusten duenez, baizik aren animak artu zuan beraren gorputzaren anz, eta iduria, Jaunak ala nai izanik, ez aztiaren alegiñaz. Itz batean Samuelen piztuera etzan egiazkoa, baizik iduri utsa. Eta onelakoak izan oi dira Kristaurik geyenen piztuerak Pazkoandenboran, iduri utsak. Sarritan negar egiten due askok garizuman: bearbada berritzen ditue konfesioak, eta

dioe ez geyago, ez bekatirik. Edozeñek uste izan dezake, bekatari oek piztu dirala egiaz bekatuen obitrik; eta alaere gutxi dira onela piztutzen diranak. Zergatik au? Zeren biotzik ez duen betiko uzteko bekatuaren bideak, etxeak, eta lagunak: zeren biotzik ez duen, urratzeko beren oitura gaiztoak, lagun urkoari berea emateko, eta obra onai jarraitzeko. Orregatik onelako bekatarien negarrak izan oi dira anzuak, eta obretan agertzen ez diranak. Ez ote gera noizbait bekatuen obitrik irtengo?

Nere Kristaua, ez gaitezen engañatu: piztu gaitezene Jesu-Kristorekin, ez nolana, baizik egiaz, piztu gaitezene, eta jarraitu degiogun bizitz eder bati. Piztu bazerate Jesu-Kristorekin, billa itzatzue Zeruko ondasun, eta atsegin-kontentuak, esaten digu S. Paulok: *Si consurrexistis cum Chto, quae sursum sunt quaerite* (Ad Colosens. c. 3). Onela iritsiko degu betiko bizitza doatsua. Amen.

PAZKOAKO IRUGARREN JAYA

Egun au jai. erdia da, eta gure errietan goizean Meza enzunda, joaten dira geyenak lanera. Emendik

dator Arzayarentzat nekea, zer egun oetan egin deza-
kean, ezagutzen. Asko aldetara sayatu naiz, eta atze-
nean autu det modo bat jayerdi guzietarako, eta da;
Meza nagusian, eta al baliz goizekoan ere bai, egitea
goizeko, (edo arratseko) jayera. Nik (edo nere orde-
bestek) esaten du liburutik, edo paperetik, eta nik dio-
dana bera eranzuten due Mezatan daudenak. Gisa
onetan denbora berean erakusten da dotrinaren parte
bearrena, eta bekatutik aldegitiko, eta obra onak egi-
teko bidea: eta uste det, modo onek gañerako Sermoi
guziak baño on geyago ekarri duala. Emen ipiñiko dira
jayera biak.

GOIZEKO JAYERA

Jauna adoratzea.

Nere Jaun Jaungoikoa! Zu zera gauza guzien Asie-
ra, eta Iturburua, guzien Iraupena, eta Muga, edo Fiña,
eta ni naiz nerez ezereza, eta dedan izate au zure
esku ongilleak emana da. Ala ezagutzen, eta aitortzen
det, eta adoratzen zaitut umiltasun, eta errespeto
guziarekin.

Jaunari eskerrak ematea.

Milla esker Jauna oraindano egin dizkidatzun mesede guziakgatik. Milla esker zeren ezerezetik egin ninduzun, eta egin zu emen ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko, eta gero betikotasun guzian zurekin batean Zeruan doatsu izateko. Milla esker, zeren zure Seme Jesusen odol preziotsuarekin Adanen bekatua-ren mendetik atera, eta zure Elizaren ume batayoan egin nazun. Milla esker atzenean, zeren, igaro dan gau onetan bizitza gorde didazun.

Jaunari pensamenlu, itz, eta obrak eskeintzea.

Eskeintzen dizkitzut, Jauna, gaurko nere pensamentu, itz, eta obrak. Betor, Jauna, zure lagunza, eta grazia, egin ditzadan nik gaurko nere lanak, zuk nai dezun eran, eta zure onra, ta gloriarako.

Examina, eta egun guzirako asmo onak.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea: argi ezazu nere adimentua, nik

nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen gañean damutzeko.

Gogora ekartzu oraiñ denbora piska batean, lenengo lekuan, bartdanik, edo azkeneko konfesiotik, oraindaño Mandamenturen bat autsi dezun, edo ez?

Urrena, arako Mandamentu geyena autsi oi dezun ura gorde dezun?

Irugarren lekuan, orrako zure griña, edo pasio txar nagusien ori eskuratzeko, eta ezitzeko sayatu zeran, edo ez?

Arrezazu asmo oso bat, arako geyena autsi dezun Mandamentu ura ez autsitzeko, eta zure griña, edo pasio txar nagusien ori ezitzeko, eta eskuratzeko...

Arrezazu zure bitartekotzat Birjiña txit Santa, Aingeru goardakoa, S. Jose, eta zure izeneko Santua...

Egitzu oraiñ fede, esperanza, karidade, eta kontriziozko afektoak.

IRUGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da Jesusen Zerurako igoera, eta zeñ gutxi diran berarekin ara nai duenak.

Asitzen zaku gure deyez Eliz Ama Santa, eta esaten digu: egizue txalo txalo: *plaudite manibus*: eta atsegin-kontentuz lauda ezazue Jauna: *Jubilate Deo in voce exultationis*. Zergatik onela? Zeren gaurko egunez Zerura zan gure Aita, eta Salbatzalle Jesus maitagarria, eta idiki zituan, ainbeste mende, edo sekuletan guretzat itxiak egon ziran, ango atea. Orregatik aditzera emango dizuet Misterio andi au, poztu, eta alaitu ditezen Jesus amatzen duen anima onak. Aditzera emango det urrena, zeñ gutxi diran Jesus onarekin Zerura nai duenak. Enzun arretarekin.

§ I.

Egin zuan Jaunak gizona bera ezagutzeko, amatzeko, eta gero berarekin batean Zeruan bizitzeko. Galdu genduan Adanen bekatuarekin eskubide, edo

deretx au, eta itxi ziran Adan, eta bere umeentzat Zeruko atea. Utsegite au desegiteko, erabaki zuan bidaltzea lurrera bere Seme bakarra; baña ez bereala; andia zan alabaña, gizonak egin zion bidegabea, eta gizonaren aldetik eskatzen ziran ezaguera, eta erregu andiak, eta onetarako ere etzan gai gizona berez.

Bazetozen, eta bazijoazen mendeak, edo sekulak sekulen ondoren, eta oska zegozkan Jaunari anima onak, bidal zezala agindu zuan Salbatzallea. Lau milla urteren buruan etorri zan Trinidadeko bigarren Persona, esan nai det, egin zala gizon Birjiña txit Santaren sabelean Espiritu Santuaren obraz, eta graziaz. Ogei, ta amairu urte igaro zituan gizonen artean, erakusten ziela ala itzez, nola obraz Zerurako bidea: eta bere Aitaren, eta gizonen artean pakeak egiteko, eman zuan gurutzean bere bizitza; baña irugarren egunean piztu zan berak esan zuan bezala.

Au guzia egin da ere, itxiak zeuden Adanen umeentzat Zeruko atea, eta andik deserrituak zeuden munduaren asieratik Jaunaren grazian ill ziranen animak. Nork idikiko zituan Zeruko atea? Nork Jesussek baizik? Etzan Jesus piztuta bereala Zerura igo, baizik igaro zituan lurrean berrogei egun. Denbora onetan sarritan agertu zitzaten Apostolui, eta erakutsi

zietzen Elizaren gobernari zegozanean asko gauza. Berrogeigarren egunean sartzen da Apostoluak zeuden tokira: atelekatzen ditu, baña txit gozotoro, zeren beraren piztuera sinisteko atzera zeuden lenengoan. Agindu zien, zabaldu zitezela mundu guzian, eta aditzera eman zezeela beraren Lege Santa. Sinisten, eta batayoa artzen duena Zerurako da, esan zien; aditzen da sinisteari dagokan eran bizi bada. Baña sinisten ez duana galdua izango da betiko. Sinisten duenak egingo ditue mirari oek: *Nere izenean ayenatuko ditue gaizkiñak*: itz egingo ditue izkunza berriak, eta len beñere aditu ez dituenak: illko ditue suge mota guziak, eta puzoiren bat edanerazten badieza ere, ez die kalterik egingo. Zabaldu, eta ipiñiko diezteza eriai eskuak burugañean, eta oek sendatuko dira bereala. Orduan, edo lentxeago esan zien, etzituala utziko ume zurtzen eran. Zuekin nago eta egongo naiz munduaren bukaeraraño: *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem saeculi* (Math. 28). Agindu zien, bidalduko ziela Espiritu Santua, eta bera Zerura igotzen zanetik Espiritu Santua zetorren artean zeudela Jerusalenen. (Luc. 24). Esan det, nola mirariak egiteko eskua eman zien beragan sinisten zuenai, zeren Elizaren asieran gauza bearra zan doai au,

fedea zabaltzeko. Orain ez da mirarien premiarik, eta ez dira egiten anziñako denboran bezeñ sarri. Alaere Jesu-Kristoren Elizan beti izan da eta izango da mirarien doaya, eta egiten ditu Jaunak onelako gauzak ongi deritzan denboran. Ala erakusten, eta sinisten due katolikoak, eta ez da denbora asko, ala aitortu duala hereje batek.

Gauz oek esan ondoan, eraman zituan Jesusek bere Apostoluak Olibeteko mendira. An guziak begira zeudela, altxa zituan begiak Zeruronz: asi zan ara igo-tzen gutxika, ekusi zezeen an arkitzen ziran guziak, gertatzen zana. Zabaldu zituan eskuak Apostoluen alderonz, eta eman zien bere bendizioa. Nork esan, nola egongo ziran Apostoluak, eta beste an begira zeudenak une artan? Alde batetik naigabetuko ziran, zeren zijoakien eren artetik beren Maisu, eta Ongille andia; baña beste aldetik atsegin, eta poz andia artuko zuen, zeren onra andiarekin zijoan bere erreñura, garaiturik etsai guziak. Arriturik onela zeudela, agertu zan odei eder-argi bat, inguratu zuan Jesus, eta gutxika ezkutatu, eta igo zan bere Aitaren eskuyera. Igo zan diot, bere-berezko birtutez; zeren alde batetik zan Jaungoiko egiazkoa, eta beste aldetik gizona zan bezanbat ere doatsua zan, eta doatsuaren doayetatik

bat da nora-nai igotzeko, eta ibiltzeko erraztasuna. Esan det gañera, igo zala bere *Aitaren eskuyera*, ez zeren Aita Jaungoikoak eskuya eta ezkerra dituan, baidarik adirazteko, Jesusek Jaungoikoa danez Aitak adinbat gloria duala, eta gizona danez bestek iñork bañogeyago.

Igoera au etzuan egin Jesusek bakarrik. Errege batek, bere Erreñura dijoanean, berekin daramazki etsaiak kendu diezten katibuak, edo etsaiak katiberioan zeduzkanak, eta Jesusek berekin Zerura eramanzituan, munduaren asieratik orduraño il ziran on guzien animak. Oek alabaña geratuak egon ziran Abrahamanen linboan Jesus piztu zan artean, eta geroko berrogei egunetan egon ziran Jesusen Zerurako igoe-rari itxedoten, eta guziak igo ziran Jesusekin batean gaurko egunez Zerura. Ala aditzera ematen digu S. Paulok: *Christus, ascendens in altum, captivam duxit captivitatem* (Ad Heb. 4). Zer edertasuna izango zan. Adan, Eba, Patriarkak, Profetak, eta ainbeste anima on, beren Errege, eta Salbatzallea onratzen, eta laudatzen zuela, Zerura berarekin igotzea? Baña etzuen oek bakarrik onratu Jesusen igoera. Jatxi ziran Jesusen bidera Zeruko Aingeru guziak. Orregatik otsegiten die Dabidek: idiki itzatzue Zeruko atea, idiki itzatzue, eta

sartuko da orko Erregea: *Atollite portas principes vestras....et intrabit Rex gloriae* (Psalm. 23). Orra, nola igo zan gure Salbatzallea bere Aitaren eskuyera. An dago gure Aita Santu, edo Apaiz nagusia, eta gure alde erakusten diozka Aitari eskuoñetako, eta sayetseko siñaleak, eta eskeintzen dio, gugatik igaro zuan gurutzeko eriotza. Zeñ egun andia egun au Jesus ametzen duen animentzat! Baña goazen aurrera.

Jesus Zerura igo zan, aditu dezuen eran, eta Apostoluen begietatik ezkutatu bazan ere, arrituak bezala zeuden oek Zeruronz begira. Agertzen dira bi Aingeru, eta esaten dieza. Zergatik zaute orrela Zerura begira? *Quid statis aspicientes in Caelum?* Zuen artetik Zerura igo dan Jesus au, era berean jatxiko da munduaren bukaeran: *sic veniet quemadmodum vidistis eum euntem in Caelum*. Orduan biurtu ziran Apostoluak Jerusalem, Jesusek aditzera eman zien bezala, eta egon ziran ezkutatuak Espiritu Santuaren etorreraraño. Zerura igotzeko denboran Jesus egon zan tokian geratu ziran beraren oñarrastoak, eta jayera andiarekin eraman oi zituen Kristauak ango autsak, eta alaere ez omen ziran desegiten oñ arrasto aek, S. Jeronimok dionez. Santa Elenak leku artan bertan egin zuan Eliz eder bat, eta gertatu ziran bi mirari. Lenengoa: estali

nai izan zuan Jesusen oñak egon ziran tokia arri ede-
rrez, baña bereala ayenatzen zituan toki ark an ipin-
tzen ziran arri guziak. Asi ziran gero Elizari gañeko
estalkia ipintzen, baña ezin estali izan zuen oñarrasto-
en pare; zeren nai zuan Jaunak, agirian egotea Jesu-
sek Zerurako eraman zuan bidea. Orra, Kristaua,
gaurko Misterio andiari dagozkan gauzak. Apostoluen
denboratik egindu Eliz Ama Santak egun onetan bere
pozaldi, edo festa, eta S. Bernardok dionez da Jesusi
dagozkan festa guzien muga, eta betegarria: *Finis
earum, et adimpletio est*. Dakuskun oraiñ, zeñ gutxi
diran Jesus onarekin Zerura nai duenak.

§ II.

Ekusten dezu, Kristaua, zenbat neke, eta arazo
artu zuan gure Salbatzalleak, guri Zeruko atepak idiki-
tzeko? Jesus Zeruan sartu zanetik gau, ta egun idikiak
daude ara nai duan guziarentzat: eta gauza negarga-
rria! alaere gutxi dira ara Jesusekin igo nai duenak:
gutxi dira alabaña bekatuaren bide, eta perillak, oitu-
ra gaiztoak, eta atsegin lizunak utzi nai dituenak, eta
oek utzigabe ez dago an sartzerik. Ala esaten digu S.

Juanek: *Non in trahit in eam aliquid coinquinatum* (Apoc 21). Erri onetatik kanpoan geratuko dira, dio Santuak, zakurrak: *Foris canes*. Oek dira bekatuaren berrizkaturan bizi diranak, eta zakurrak gora bota duana atzera jalen duan bezala, leneko bekatuak berriro egiten dituenak. Erri onetatik kanpoan geratuko dira beren begiratze, itzegite, losentxa, eta janziera gaiztoakin animak lilluratzen, txoratzen, eta bekatuan amilderazten dituenak: *Foris venefici*. Erri onetatik kanpoan geratuko dira zikiñak, edo desonestoak dala beren buruakin, dala besterekin. *Foris immundi*. Erri onetatik kanpoan geratuko dira, dio S. Juanek berak, gaiztakeriz aurrak galtzen, edo galeraztea dituenak, baita lagun urkoari eriotza opa dioenak ere: *Foris homicidae*. Erri onetatik kanpoan geratuko dira idoloen serbitzariak: oek dira ez bakarrik arriz, zurez, urrez, edo zillarrez egindako Jainko gezurrezkoak, baita Jainkoaren lekuan emengo onrak, ondasunak, eta aragizko idoloak adoratzten dituenak ere: *Idolis servientes*. Erri onetatik kanpoan geratuko dira, dio atzenean S. Juanek, gezurra amatzen, eta egiten, edo moldatzen duenak: onelakoak dira gezurraren gañean juramentu egiten duenak, eta beren erausiakin lagun urkoaren onra, eta izen ona gutxitzen, edo beztutzen

duena: *Omnis qui amat, et facit mendacium* (Apoc. 22). Atozea oraiñ, Kristaua: au onela bada, dan bezala, asko ote dira gaurko egunean Jesusekin Zerura nai duenak? Beldur naiz ezetz, gutxi dira alabaña bekatua, eta bekatuaren bideak utzi nai dituenak, eta nola Zerura joango gera oek utzi gabe? Zentza gaitezen noizbait, eta jarrai degiogun Jesusen lege ederrari, berarekin bizitzeko betiko bizitza doatsuan. Amen.

LAUGARREN ERAKUSALDIA

Espiritu Santuaren etorreraren gañean.

Atsegin, eta poz andi bat agertzen du Espiritu Santuaren egun onetan Eliz Ama Santak, eta deitzen digu Espiritu bera onratzera, eta adoratzera. *Alleluia* dio: Jaunaren Espirituak bete du lur guzia: atozte, adora dezagun: *Alleluia*. Pozaldi, edo festa au da gañerako festa guziena koroa, eta betegarria bezala, eta batzuen iritzian da guziena artean andiena. Onen gañean itze-
gin bear degu bada gaur. Aditzera emango det lenen-
go lekuan, Espiritu Santuaren etorrera, eta oni dagoz-
kan gauza miragarriak. Urrena, nola guk ere iritsi
ditzakegun beraren doayak. Enzun arretarekin.

§ I.

Espiritu Santuaren etorrerako egunean aditzera eman, edo barreatu zan Jesusen Lege berria, eta orduan gertatu zanaren anz eder bat arkitzen degu Lege zarrean. Egon ziran Israeltarrak denbora luzean

Ejipton katiberio gogorrean. Jaunak atera zituan andik egiten zituala mirari andiak, eta asko. Irten ziran aurreko egunean egin zuen Jaunaren agintez Pazkoako festa, jaten zuela bildots errea etxe bakoitzean. Berrogei ta amargarren egunean eman zien amar aginte, edo Mandamentuon Legea, orain esatera noan eran. Agindu zien Sinai zeritzan mendira etzitezela igo eriotzaren penan: gorde zezeela, ezkonduak ere, garbitasun, edo kastidatea, eta zeudela soñeko garbiakin. Legea adirazi zan iru egunez lenago asi ziran Israeltarrak beren prestaera onetan. Irugarren egunean Sinaiko mendia jarri zan sua, ta garra alde guzietatik zeriola. Odei lodi batek inguratu zuan, eta aditzen ziran turmoi ots izugarriak, eta ekusten ziran tximistak tximisten gaiñ. Asi zan Aingeru bat tronpeta batekin amar Mandamentuak adirazten, añ sendoro, non aditzen zituen Israeltarrak, Aingeruak esaten zituan gauza guziak, eta baziran mendiaren inguruan iru milloi gizon. (Vide Exodum a cap. 15). Egun andi onen oroipena egiten zuen Israeldarrak urte oro, beren Pazkoatik, berrogei, ta amargarren egunean, zeren egun onetan eman zien Jaunak bere Lege Santa Sinaiko mendian, eta festa oni deitu zioen *Pentecostes*, esan nai du berrogei, ta amargarren eguneko

festa: eta fest au izan zan bada gaurkoaren anz, eta iduri ederra, orain ekusiko degun bezala.

Etorri zan Salbatzallea, munduaren asieratik Jau-nak agindua zedukan eran. Egin zan gizon, eta gugatik gurutzean eman zuan bere bizitza. Ainbesteraño maite izan ginduan Aita Zerukoak, non eman zuan bere Seme bakarra, dio S. Juanek: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret.* Etzan kontentatu gure Jesus ona gugatik bizitza ematearekin: ipiñi zituan gañera zazpi iturri, edo Sakramentu, gra-ziaren ur gozoa beti ematen ari, etan beñere agortzen ez diranak. Au guzia eginda ere, gauz asko bear ziran gure Erospen, edo Redenzioko Obra Andia-osotoro bukatzeko. Aditzera eman bear zan Jesus beraren Lege berria: Lege bat, debekatzen zituana, mundua-ren alde guzietan adoratzan ziran idolo, edo Jainko gezurrezkoak. Lege bat gure gura, eta griña txarren kontra dijoana. Autuak zeduzkan onetarako bere Apostoluak, baña oek ziran gizon jakinezak, leunduga-beak, eta beldurtiak. Gañera, ekusten zuan Jesus onak, bere odol preziotsuaren kostuz, eta Sakramen-tuakin Zerurako bidean gu ipiñita ere, beti geratzen giñala argalak, gaitzera makurtuak, eta onerako gogo gutxirekin, eta nai zuan Zerurako bidean gu ibiltzea

alaitasun, eta atsegin andiarekin. Orregatik erabaki zuan, bere Aitagana igo bear bazuan ere, bidaltzea Espiritu Santua Apostoluetara, eta bere Elizara gure Erospen, edo Redenzioko obra osatzera. Ala esaten digu S. Agustiñek: *Ut quae Salvator inchoaverat, Spiritus Sancti virtus consummet.*

Aditzera eman zien Apostoluai, nola joan bear zuan Aitagana, baña etzituala utziko ume zurtzen eran: erregutuko ziola Aitari, eta bidalduko ziela Espiritu Santua: *Et alium Paracclitum dabit vobis* (Joan. 14): eta Zerura igotzeko zegoala, agindu zien, zeudela Jerusalemenean, Aitak agindu zuan Espiritu Santua etorri artean. (Acta Apost. c. 1.^o).

Igo zan Jesus Zerura: biurtu ziran Apostoluak Jerusalemenean, eta dirudianeaz, ezkutaturik egon ziran ostegun santuko aparta egin zuen etxe artan bertan. Aen orduko Jan guzia izan zan beren biotzak prestatzea, Espiritu Santua artzeko. Pazkoatik berrogei, ta amargarren egunean, goizeko bederatzietan bezala asi zan turmoyaren anza zuan ots bat. Agertu ziran suzko miak Apostoluak zeuden lekuan, eta jarri ziran aen, eta beste an arkitzen ziranen burugañean.

Jaunaren graziaren apaindura ederrarekin arkitzen ziran Apostoluak; baña suzko mingañoak aen buruga-

ñean egon ziran bitartean, guk esan al baño geyago, ugaritu zien Espiritu Santuak graziaren doai ura, baita fede, esperanza, eta karidadearen birtuteak ere. Gañera ugari ixuri zituan aen biotzetan bere zazpi doayak, eta utzi zituan, Jaunak nai zuan guzirako ederki prestatuak. Len Apostoluak ziran gizon moldakaitz, ez jakin batzuek, eta Espiritu Santuaren doayak artu zituen ezkerro, geratu ziran Zeruko jakiundez beteak, ainbesteraño non aditzen zituen Eskritura Santak erakusten dizkigun gauzarik ezkutatuena ere. Aditzen zituen gañera izkunza guziak. Len Apostoluak ziran gizon argal batzuek, ostegun santu arratsean beren maisua utzirik igesi joan ziranak; baña Espiritu Santuaren doayakin geratu ziran añ alai, ta sendoak, eta ainbesteraño Jaunaren amorioz beteak, non prest arkitzen ziran Jesusen Lege Santa mundu guzian barreatzeko, eta beren bizitzak beragatik emateko. Zer geyago? Eman zien gañera Espiritu Santuak gaizkiñak ayenatzeko, eriak sendatzeko, illak pistutzeko, eta beren izkunza norinai aditzera emateko doaya.

Aditu zuen Jerusalendarrak, eta orduan Jerusalemen arkitzen ziran, arrotz askok ere turmoyaren otsa, eta igerri zuen, non izan zan gutxi gora bera ots au. Zer gertatzen zan jakin nayez, joan ziran Apostoluan

etxeronz, ez Jerusalendarrak bakarrik, baita arrozeta-
tik ere, asko eta baziran oen artean izkunza guzieta-
koak; zeren *Pentecostes, edo berrogei, ta amargarren*
eguneko festa artara munduaren lau aldeetatik joan oi
ziran Jerusalena Jauna adoratzera. Ekusirik Aposto-
luak, beren etxearen inguruan gizatalde ura guzia,
irten ziran oetara beldurrik batere gabe, eta asi ziran
adirazten Jesu-Kristoren Misterio miragarriak, eta
Legea, añ ederki, eta gozotoro, non aditzen zeuden
guziak, arrituen eran arkitzen ziran. Ekusten zuen,
Apostoluak ziralara gizon leundugabe, ta jakiunde gutxi-
koak. Ekusten zuen doidoia jakingo zuela beren erri-
ko izkunza, eta alaere guziz ederki itzegiten zuela
Jesusen Legearen gañean. Ekusten zuen, Apostoluak
itzegiten zuena aditzen zuela enzuten zeudenak, Erre-
ñu, eta izkunz askotakoak izan arren. Miretsiak zeu-
den guziak, ta galdetzen zioen elkarri: Zer da au? Zer
aditzera ematen du orain dakuskunak? *Quidnam vult
hoc esse?* Baziran batzuek isekaz zioenak: ardoz
beteak, edo ordiak zeudela Apostoluak: *Musto pleni
sunt* (Acta Apost. c. 2).

Orduan asi zan S. Pedro itzegiten Lege berriko Aita
Santua bezala, eta esan zien: Judatar Jaunak: *Viri
Judaei*: zuek uste dezue, ordiak daudela gizon oek;

baña utsegiten dezue uste orretan. Badakizue, goizeko bederatzietan gaudela, eta onelako jayetari eguerdiraño ez dala ezer jaten, ez edaten. Jakizue, anziñatik aditzera eman zuala Jaunak Joel Profetaren autik, gizon oetan ekusi dezuena. Aditzera eman zien gero, nola Jaunak bidaldu zuan Jesus, anzinatik agindu zuan bezala, Adan, eta bere umeak Zerurako bidean ipintzeko: nola illerazo zuen gurutzean, eta piztu zan. Guk gerok geren begiz ekusi degun gauza da au: *Cujus nos testes sumus*. Jakin bezee bada Israeldar guziak, gurutzean illerazo duen Jesus bera dala Munduaren Salbatzallea. Gauz arrigarria! Pedro gizon jakiunde añ gutxi-koa, eta Juduen beldurrez iru bider bere Maisua ukatu zuana! eta alaere gizon onek Juduai, eta mundu guziari era onetan itzegin die! Zer egiñ ez dezake batek Espiritu Santuaren doayakin? S. Pedroren lenengo itzaldi onekin sinistu zuen Jesu-Kristogan iru millak bezala, eta batayatu ziran. Eta asiera onelakoa izan bazan, zer egingo etzuen gero ala Pedrok, nola beste Apostoluak? Zabaldu zuen Jesusen Legea munduaren lau aldeetan: alperrik altxa ziran Luzifer, eta bere lagun guziak Apostoluen kontra. Alperrik munduko Errege, eta jakintsu guziak: etzuen utzi Apostoluak beren lan andi hau, eta egiaren alde ixuri zuen beren

odola. Orra, nere Kristauak, nola aditzera eman, edo barreatu zan gure Lege Santa Espiritu Santuaren etorrerarekin: eta orra gaurko Misterio andiak aditzera ematen diguna.

§ II.

Espiritu Santua jatxi zan Apostoluetara, aditu degun bezala: bete zituan bere doayakin, eta geratu ziran beraren onran bizitza emateko prest. Etzan Espiritu Santua jatxi Apostoluakgatik, edo aen onagatik bakarrik, baizik Kristau guzien onagatik, eta geratu zan Elizan betiko, esan nai det, Kristau fededunen bilkui, batzarre, edo kongregazioan. Ala agindu zien Jesu-Kristok berak Apostoluai (Joan. 14) Gerta diteke, eta gertatzen da asko bekatuan loituak arkitzea, baño beste asko daude Jaunaren grazian: eta oen biotzetan dago Espiritu Santua, bere doayez betetzeko, ela bear duen lagunza guzia emateko, artarako bear dan pres-taera ipintzen duela. Orregatik S. Paulo Apostoluak deitzen dio Jaunaren grazian bizi danari, Espiritu Santuaren *jauregui*, edo *Eliza: Templum Spiritus Sancti* (1 ad Corinth. e. 3 et 6.^o).

Beraz zu, Kristaua, Jaunaren grazian bizi zeran bitartean, zera Espiritu Santuaren Eliza bezala eta zu ongi prestatzen bazera, zure biotzean ixuriko ditu bere doayak. Au onela izan, eta ez gera prestatuko alik ongiena? Eta zer ote da guk egin bear deguna? Ara zer. Lenengoa: gure biotzak garbitzea bekatuaren loyetatik; bekatuan bizi dana alabaña da Satanasen zulo nazkagarria, eta ezin artu ditzake Espiritu Santuaren doayak. Bigarrena: bekatuaren bide, eta perilletatik betiko aldegitia. Au ez egitera, ez dago, ez, bekatutik irteterik. Irugarrena bizitz on, eta garbi bati benaz, eta biotz osoz jarraitzea, eta Sakramentuak sarritan artzea. Atzenean Espiritu Santuari bere doayak umilki eskatzea, Jaunaren grazian, edo bizitz onean irauteko. Esan degiogun oraiñ Eliz Ama Santarekin:

Atoz, o Espiritu Santua: eta bidal ezazu gure animetara zure argiaren erreñu bat bederik, bekatuaren illuntasunak ayenatzeko. *Veni Sancte Spiritus, et emitte lucis tuae radium.*

Atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea, atoz gure biotzetako argia: *Veni Pater pauperum, veni dator munerum, vent lumen cordium.*

Atoz, gure Konsolatzalle guziz ona, gure animen arrotz, eta inz gozoa: *Consolator optime, dulcis hospes animae, dulce refrigerium*. Onela bizitz onean irauteko, eta iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Espiritu santuak animan isurtzen duan graziaren doai miragarriaren gañean.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum (Jerem. 2.)*

Uitzi dezue zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta zu zere Aita onagana biurtzeko, alegiñ asko egin bada ere, etzera esnatu bekatutik aldegitiko. Jakizu bada, esaten dizue Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum*. Atzo itzegin nuan Espiritu Santuaren etorreraren, eta oni dagozkan gauza miragarrien gañean; eta denbora berean aditzera eman nuan nola guk ere iritsi dezakegun beraren doayak. Espiritu Santua jatxi zan Jesu-Kristoren Elizara, edo berbera dana Apostoluetara, eta aekin batean anima onetara, eta arreizkerok ez du utzi, eta ez du utziko Jesu-Kristoren Eliza, Jesu-Kristok berak Apostoluai esan zien bezala (Joan.

14). Bete zituan bere doyaez, eta gertatu ziran atzo aditu zinduen gauza miragarriak. Espiritu Santu ura bera dator gure animetara, Sakramentuak ongi artzen ditugunean, eta ixurtzen ditu bere doayak bakoitzaren prestaeraren neurrian; baña doai oen artean andiena, eta guzien sustraya da grazia: esaten diogun doaya. Onen gañean izango da gaurko Erakusaldia: eta doai onen berriak eman ondoan ukituko det, zeñ gauza gaizto, eta,samiña dan, doai miragarri au ematen digun Jauna guk utzitzea. Enzun arreta andiarekin.

* * *

Graziaren izenez batzuetan aditzen degu edozeñ ontarte, eta mesede, eta era onetan guk ditugun gauz on guziak dira Jaunaren grazia; guziak dira alabaña beraren esku ongilleak emanak; baña ez degu emen graziaren izenez aditzen edozeñ mesede. Beste batzuetan graziaren izenez aditzen ditugu, bekatutik irteteko, edo aldegiteko obra onak egiteko, eta oei jarraitzeko Espiritu Santuak bidaltzen dizkigun, gogorazio onak, eta biotzeko ukierak. Oek dira Zeruko mandatari batzuek, animari mandatua egiñ ondoan, gudan gelditu gabe, aurrera igarotzen diranak. Espiri-

tu Santuaren mandatu oekin batzuetan esnatzen da anima, bekatutik irteteko, beste batzuetan ez. Atozea, Kristaua, etzatzu au gertatu askotan, Jaunaren Itza enzuteko denboran? Etzatzu au gertatu Pazkoetik oraindaño aditu dituzun egiakin? Zeruko mandatu oek gabe ez genduke gogorazio, edo pensamentu on bate-re egingo betikotasun guzian, S. Paulok erakusten digun bezala (2.^a ad Coriut. 3): orregatik mandatu oek aditu bear ditugu biotz umill batekin; baña ez degu gaur oen gañean itzegiten. Atzenean graziaren izenez aditzen da arako Espirituak animari Sakramentuen bidez ematen dion doai, edo apaindura eder ura. Doai, edo janziera eder au geratzen da animan, eta ez da gaitzen bekatu larri, edo mortalarekin baizik. Lenengo aldian artzen du animak doai au batayoan; gero konfesio ona egiten duanean, eta ugaritzen zayo gañerako Sakramentuakin.

Beraz zuk, Kristaua, batayoko egunean, eta ongi konfesatu zeranean, zere animan bertan artu dezu graziaren doai, eta janziera ederra. Ay! eta baziñaki zeñ miragarria dan doai au! *Si scires donum Dei!* Doai onek animan sartzen dan unean bertan egiten du gizona Jaungoikoaren beraren seme, ez bere *izatez*, baizik *aintzakotzat* Jainkoak artzen dualako. Gizona

bere izatez ez da, eta ezin izan diteke Jainkoaren Seme; onetarako alabaña izan bearko luke Jaungoiko, eta ezin dateke au. Era onetan Jesu-Kristo bakarrik da Jaungoikoaren Semea. Baña ainbesteraño maite izan ginduan, non onratu gaituan bere Semeen izenarekin, eta aintzakotzat artu gaituan, graziaren doaya ematean. Demagun Españako Erregek seme bat bakarra duala, eta onez gañera semetzat artu nai duala beste bat. Eragiten du janziera guziz eder bat, eta agintzen du, janziera au daramana onratu, eta ezagutu dedilla Erregeren semetzat. Atozea, janziera au Erregegandik iristen duana ez da izango Erregeren seme? Berez, eta bere izatez ez, esango didazu, baña bai *aintzakotzat artua, eta onratua*. Au bera gertatzen da bada graziaren soñeko ederra daukanarekin. Ez da, eta ezin izan diteke bere izatez Jainkoaren seme, zeren Jainkotasunik ezin izan dezakean, baña graziaren soñeko ederra daukan bitartean bere semetzat dauka, eta aintzakotzat onratzen du Jaunak. Orregatik esaten digu S. Juanek: ekusi ezazue, nolako onginei, eta amorioa guganonz agertu duan Jaunak: *Videte, qualem charitatem dedit nobis*, bada eman digu bere semeen izena, eta izatea: *Ut filii Dei nominemur, et simus* (Joan. 3).

Graziaren doayak, gizona Jainkoaren Seme egiteaz gañera, denbora berean egiten du Zeruaren jabe-gai, edo heredero. Semea Aitaren ondasunen jabegaya da, edozeñek dakian bezala: beraz graziaren doayak, gizona Jainkoaren Seme egiten duan ezkerro, denbora berean egiten du, dio S. Paulok, bere jabegai (Ad Rom. c. 8). Ni nerau izango naiz zure animaren sari, eta betegarria, esan zion Jaunak berak Abrahani: *Ego merces tua magna nimis* (Genes. 15).

Egiten ere du graziaren doayak gizona Jainkoaren beraren adiskide, Jesu-Kristoren senide, eta Espiritu Santuaren bizileku, eta Eliza bezala. Jaungoikoaren adiskide; Anima bat bekatuan dagoan bitartean nazkagarria da Jaunaren begietan; baña graziaren apaindura artzen duan bezala egiten da Jaunaren adiskide, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala: eta au aditzera eman zigun Jesu-Kristok berak, esan zienean Apostoluai, emendik aurrera ez dizuet deituko: nere serbitzariak, baizik nere adiskideak (Joan. 5). Miretsitzen da S. Gregorio onenbeste onra Jaunak guri eman nai izateaz, eta dio, ez gera serbitzarien izenaren diña, eta onratzen gaitu adiskideen izenarekin: *O mira Divinae Bonitatis dignatio! servi non sumus digni nominari et amici nominamur!* Egiten du Jesu-Kristo-

ren señide; Aita baten umeak alabaña senideak dira: orregatik dio S. Paulok, Jesu-Kristo dala senide askoren artean lenik jayoa: *Primogenitum in multis fratribus* (Roman. 8). Esan det, graziaren doayak gizona egiten duala Espirituaren bizileku, eta Eliza bezala; bada S. Paulok dio, doai onekin batean animari ematen zayola Espiritu Santua: eta an bizi da bere gogo, ta gustoko jauregian bezala. Alako eran nai du Espiritu Santuak graziaren apaindurarekin dagoan animan bizitzea, non an egon naiko lukean, leku guzietan Jaungoikoa ezpalego ere. Orregatik esaten digu S. Paulok: eztakizue zuen gorputzak dirala Espiritu Santuaren Eliza? *An nescitis, quoniam membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?* (1^a ad corint. 6). Au onela izan, eta alaere zure gorputz ori loitu dezu ainbeste bider, atsegin lotsagarrien ondoren zabiltzala? zenbat bider bakarrik? Zenbat bider besterekin? Atozea, izango ote zenduke ausardia, Aldareko Sakramentua dagoan onzia esku zikiñakin erabiltzeko? Eta eztakizu, onen anzeko gauz itsusi bat egiten dezula, zure gorputz ori bekatuz zikintzen dezunean? Baña goazen aurrera, eta ekusi ditzakun, graziaren doai miragarriari dagozkan, beste alabantzak.

Baziñaki, Kristaua, zeñ andi, ta miragarria dan animako graziaren doaya! *Si scires donum Dei!* Au da doai bat, bekatuan illak, eta ustelduak dauden animak ere piztutzen dituana. Anima bat, bekatuan erortzen danean, dala itzez, dala gogoz, edo pensamentuz: dala obraz, illa geratzen da, Ezekiel Profetak dion bezala: *Anima, quae peccaverit, ipsa morietur* (cap. 18). Orduan animari gertatzen zayo gorputz illari gertatzen zayona. Gorputz illak baditu eskuak, eta ez da gai, edo gauza beatz bat ere altxatzeko. Baditu oñak, eta ezin jaso ditu. Baditu begiak, eta ez du ezer ekusten. Baditu belarriak, eta ez du ezer aditzen. Eta orra animari bekatu mortalarekin gertatzen zayona. Bekatutik ezin berez irten diteke, eta irteten dan bitartean ez da gai Zerurako irabazirik txikiena ere egiteko; eta onela bekatuan datzala usteltzen da, eta kiratza dario begiratzean, itzegitean, ibilleran, eta modu guzietan. Zoaz festa batera: ekusiko dezu arako gizon, eta mutili ura alik ongiena janzia, eta norknai begiratu degiokean bezalakoa; baña animaren aldetik illa, eta usteldua, zeren bekatuaren bideetan dabillan. Ez da kontentatzen bere burua galtzearekin, beste asko galtzen ditu. Ekusiko dezu arako emakume, edo neskatx ura, nornai lilluratzeko eran apaindua; baña begira anima-

ren aldetik, eta arriturik geratu zera... ekustean, ustel-
dua dagoala guzia bekatuan, eta bere kirartzarekin,
edo moduakin dala askorentzat bekaturako sarea.
Alaere añ miragarria da graziaren doaya, non bekata-
ri usteldu oek ere piztutzen dituan, animan sartzen
dan unean bertan. Ala gertatzen da beñ baño geyago-
tan, onelako zenbait bekatari ezagueran ongi eror-
tzen, eta biotz osoarekin Jaunagana biurtzen dira-
nean.

Graziaren doaya añ miragarria da, non munduan
gertatu diran bekatuak itsusienak ere animan sartze
utsarekin ayenatuko litukean, eguzkiak gauaren illun-
tasunak ayenatzen dituan eran. Au aditzera ematen
digu isaias Profetak, dionean, elurra bezeñ zuri egingo
dirala gure bekatuak, grana bezalakoak balira ere: *si
fuerint peccata vestra, ut cocinum, quasi nix dealba-
buntur* (cap. 1). Zer esango det, doai onek animari
ematen dion edertasunaz? Demagun, Kristalezko onzi
garbi batera biltzen dala eguzkiak, eta izarrak, berje-
retako loreak, urreak, zillarrak, perlak, eta diaman-
teak duen edertasun guzia. Ateratzen due eguzkitara
onzi ura, zeñ ederra agertuko litzake? Alaere ederta-
sun au guzia ezer-ez izango litzake graziaren doayak
animari ematen dion edertasunaren aldean. Santa

Katalina Senakoari agertu zion beñ Jaunak, grazian zegoan, anima baten edertasuna, eta arriturik geratu zan, eta esan zion konfesoreari: O aita! eta ekusiko balu grazian dagoan anima baten edertasuna! Uste det, pozik beñ, ta berriz jarriko lizakeala eriotzaren perillean, anima bat alako edertasunean ipintzeagatik.

Graziaren doaya da Espiritu Santuak animan ixurtzen duan ur bizia, Jesu-Kristok deitzen dion bezala. *Aquam vivam*. Ur au, animak galtzen ezpadu bere zabarkeriaz, egiten da iturri, eta iturri onen ura igozten da Zeruraño: *Fons aquae salientis in vitan aeternam* (Joan. 4).

Doai au da Espiritu Santuak animan ipintzen duan Zeruko zepa, eta sustrai bat, birtute, eta doai guzien mentuak berekin dituana. Anima bat batayoan, edo konfesioko Sakramentuarekin grazian jarri dediñ artean, da arbola makatza bezala, eta ez du Zeruko frutu gozorik ematen; baña batayo, edo konfesiorekin ipintzen dio graziaren zepa, edo sustraya. Sustrai onetan daude fede, esperanza, eta karidadearen, eta beste birtute, eta Zeruko doayen mentuak. Mentu oek, animak ongi gordetzen baditu, asiko dira beren alsuma ederrak botatzen: loratuko, eta obra onen fru-

taz beteko dira. Onela egiten da arbola bat guziz ederra, uda, ta negu loretan, eta frutaz betea dagoana, arbola bat lurretik Zeruraño azitzen, eta igotzen dana.

Atzenean graziaren doaya añ balio andikoa da, non obra on txikienari ere Zeruko erreñuaren balioa ematen dion. Kristauak, bekatuan dagoan bitartean egiten dituan obrak, berenez onak, eta laudagarriak izan arren, illak dira, zeren graziaren sustraya galdu zan. Zabaldu bitza batek bere ondasun guziak bear-tsuen artean, irabazi bitza Zerurako, Apostoluak irabazi zituen baño ere, anima geyago: piztu bitza illak, alda bitza batetik bestera mendiak. Obra oek guziak, berenez andiak, eta miragarriak izan arren, ezer ez dira Zerurako, zeren graziaren zepatik ez datozen. Ala erakusten digu S. Paulok (1 ad Corint 13). Baña Jaunaren grazian arkitzen bada anima bat, onen obra on txikienak ere, ongi egiñak, badira, balioko due Zeruko Erreñua; zeren graziaren doayak ala balio duan. Gauza txikia da egarri danari ur piska bat ematea, eta alaere balio du Zeruko Erreñua. Ala erakusten digu S. Paulok: *Quod in praesenti est momentaneum, et leve... aeternum gloriae pondus operatur* (2.^a ad corint. 4).

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ miragarria dan animako graziaren doaya? Egizu kontu, zure baratzan, edo berjeran agertzen dala iru orriko lore guziz eder bat. Begirutzen diozu, eta ekusten dezu, orri bakoitzean ezarriak daudela urrezko letra batzuek. Lenengo orriko letrak dioe: *Illak pistutzen ditut*. Bigarren orriko dioe: *gaitz-mota guziak ayenatzen ditut*. Irugarren orriko dioe: *gorde ni ongi, eta etzera gaisotuko, eta ez illko*. Arriturik geratzen zera, letra oek dioena irakurririk. Aditzen dezu, ill dala zure adiskide bat; kentzen diozu lenengo orriari piska bat; ipinizen diozu adiskideari ezpañetan, eta piztutzen da. Nork esan, noraño-koa izango lizakean orduan zure poza? Aditzen dezu, zure auzoan dagoala norbait etsia, eta azkeneko asna-setan bezala. Artzen dezu bigarren orritik piska bat, eta ematen diozu eritari ardo, edo saldan: eta bereala geratzen da sendatua. Arriturik, eta zer gertatzen zatzun ez dakizula geratzen zera. Artzen dezu irugarren orria: sartzen dezu kutun batean, eta zerekin darabiltzu: geroztik etzera gaixotzen, zartzen, eta iltzen. Atozea, zer ezluke balioko lore miragarri ark? Kristaua, eta ez dakizu lore au dala, Jesu-Kristok bere

odolaren kostuz zuretzat irabazi zuan, graziaren doaya? Eztakizu, Espiritu Santuak batayoko egunean, eta ongi konfesatu zeranean lore eder au ipiñi zuala, eta duala zure animan? Atozea, eta ezta gauza gaizto, eta samiña, doai añ miragarri arekin apaindu zinduan, Jauna utzitzea? Ea, bekataria, biur zaite noizbait zure aita onagana: bizi zaite alako Aitaren umeari dagokan eran: eta zuk iritsiko dezu betiko bizitza. Amen.

SEIGARREN ERAKUSALDIA

Irutasun, edo Trinidade txit Santaren gañean.

Gure fede santak erakusten dizkigun Misterio guzien artean andiena, eta ezkutatuena da gaurko Erakusaldiaren gaya. Misterio au da Irutasun, edo Trinidade guziz Santa. Au da Misterio bat Jaunak agertu etzuana Lege zarrean, Abrahamek argitasun piskaren bat izan bazuan ere. Misterio bat ez gizonaren, ez Aingeruen adimentuak iritsi dezakeana, eta alaere Zerura nai duen guziak sinistu bear duena. Orregatik gauza bearra da gai onen gañean zuei zerbait esatea begiramentu, eta beldur andi batekin. Aditzera eman-go det lenengo lekuan, zer sinistu bear degun Misterio onen gañean. Urrena, nolako ontarte, eta mesedeak zor diozkagun Trinidade guziz Santari, eta nola onratu bear degun. Enzun arretaz.

§ I.

Irutasun, edo Trinitate txit Santa da Jaungoikoa bera, Aita, ta Semea, eta Espiritu Santua, iru Persona distinto edo bana, eta Jainko egiazko bakar bat. Misterio au aditzera eman zuan Jesu-Kristok, esan zienean Apostoluai: Zoazte munduaren lau aldeetara, aditzera eman ezazue nere Lege berria, eta nigan sinisten duenai eman zayezue nere batayoa Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean (Math. 38). Au bera erakusten digu S. Juanek dionean: Iru dira Zeruan egiaren testiguak, Aita, Semea, eta Espiritu Santua, eta iru oek bat dira: *Tres sunt, qui testimonium dant in Coelo, Pater, Verbum, et Spiritus Sanctus, et hi tres unum sunt* (1 Joan. 5). Orregatik Eliz Ama Santak S. Atanasiorekin dio: Katolikoen sinistea, edo fedea da Jaungoiko bat iru Personetan, eta iru Persona Jaungoiko bakar batean onratzea, eta adoratzea: *Fides autem Catholica hae est, ut unum Deum in Trinitate, et Trinitatem in unitate veneremur* (Symbolum S. Athanasij). Siniste au beraz guziz bearra da Zerurako.

Gure Jaungoikoa da bat bakarra, eta ez dateke besterik: ala ez izatera, ez litzake izango Jaungoiko egiazkoa, edo esan, eta gogora al ditekean gauzarik garayen, edo exzelente, ta miragarriena: Jaun bat fin-

gabe ona, Poderoso, jakintsu, justua: gauza guzien Asiera, ta fin, edo bukaera. Birjiña txit Santa Andre guzien artean onena, eta miragarriena da, baña ez lizake ala izango, besteren bat baliz beraren pare ipiñi ditekeana.

Jaungoiko bakar au da iru Persona, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: iru Persona distinto, edo bana, eta Jaungoiko egiazko bakar bat. Zure anima da iru potentzia, edo kemen, *oroipena, adimentua, eta borondatea*: iru potenzi oek bana dira, baña ez dira iru anima, baizik anima bat bakarra.

Trinidadeko lenengo Persona izendatzen da, Aita, eta egiaz da izendatzen dan bezala, zeren betikotasun guzian bere adimentutik sortzen duan seme bat Aita berarekin guzian berdiña, eta Aitaren anz ederra. Jarri zaite spillu garbi batean zere burua ekusten: bereala agertuko da zure iduri, edo anza. Begiratu zion bada Aita betikoaren adimentuak bere izate ederrari, eta betiraundetik sortu zan, eta sortzen da Aitaren anz ederra. Trinidadeko lenengo Persona edo Aita ez da *sortua, ez da jayoa, eta ez dator bestegandik*, baizik berez da betiraunde guzian: eta Juduak, ta herejeak berak ere aitortzen due dala Jaungoiko egiazkoa.

Trinidadeko bigarren Persona da Semea, eta esan degun bezala jayo zan Aitaren adimentutik betiraunde, edo eternidadean. Au da nere Seme maitea, betiraunde, edo eternidadetik nere atsegin-kontentua, esan zuan Aita Zerukoak Taboroko mendian. *Hic est filius meus dilectus in quo mihi bene complacui* (Math. 17). Aita betikoaren seme au egiaz Jaungoikoa da. Ala erakusten digu S. Juanek, dionean: Jaungoikoa zan, eta da beraren itza, edo Semea: *Deus erat verbum*, eta argiro aitortu zuan egia au San Tomas Apostoluak Jesus piztuta ondoren beraren eskuetako iltze siñaleak, eta sayetsa ekusi zituanean: Nere Jaun, eta Jaungoikoa esan zion: *Dominus meus, et Deus meus*. Semearen Jainkotasuna ukatu zuan Arriok, eta bere seta onetan iraun zuan ill arteko denboran, eta bukatu zan Konstantinoplan leku zikin batean. Herejia au izurriaren eran zabaldu zan leku askotara, eta ez gutxiena Españara. Leobijildo Españako Erregea, Arrioren herejiarekin zikindua zegoan, San Leandroren arrebarekin ezkondua bazegoan ere. Leobijildoren Seme S. Hermenejildo Katolikoa zan, eta bere osaba S. Leandrok erakutsi zion bezala, sendoro sinisten zuan, Aita betikoaren Seme-bakarra, Trinidadeko bigarren Persona zala Jaungoiko egiazkoa. Leobijildok

egin zuan alegiña galerazteko semeari siniste au, baña alperrik, eta aserratu zitzayon S. Leandroren, eta Semearen kontra, alako eran, non erbestetu zuan osaba, eta illerazo zuan Semea. Damutu zitzayon gero, baño ez bear bezala. Gaixotu zan, eta iltzeko zegoala, deitu zion San Leandrori, eta erregutu zion, begira zegiola bere bigarren Seme Rekaredori Herme-nejildori bezala. Baña zeñ gauza negargarria! Berak etzuan izan herejia uzteko biotzik Erreñuari aditzera ematen ziola nola sinistu bear zan, eta sinisten zuan Jesus zala Jaungoiko, eta gizon egiazkoa. Onela il zan bear zana egin gabe. Rekaredok bere osabaren lagun-zaregin artu zuan gure Fede Santa, eta berarekin batean Erreñu guziak utzi zuan Arrioren herejia.

Trinidadeko irugarren Persona da Espiritu Santua. Ala esaten digu Jesusek berak, eta ala sinisten degu guziok. Irugarren Persona, edo Espiritu Santua ere da Jainko egiazkoa. Ala erakusten digu S. Juanek (1.^o Joan. c. 5). Ukatu zuan egia au Mazedonio zeritzan hereje batek, baña eskomikatu zuan Elizak. Espiritu Santua dator Aitaren, eta Semearen borondatetik, *asiera batetik bezala*. Aitak betikotasun guzian amaten du bere seme bakarra, eta Semeak amaten du bere Aita, ta biak elkarri dioen amorio baztergabeko

onetatik dator Espiritu Santua. Diot dator, eta ez diot, sortzen, edo jayotzen dala, zeren jayoa izatea Semea-ri bakarrik dagokan, eta bi seme izango lirake Trinidadean, jayoa baliz irugarren Persona. Esan det gañera, Espiritu Santua datorrela Aitagandik, eta Semeagandik asiera batetik bezala. Demagun iturri batetik datorrela erreka, eta gero erreka onetatik ainzira, edo putzu andi bat. Iturria ez dator ez erreka-gandik, ez putzutik: erreka dator iturritik, eta putzua bietatik. Ez dira gauz oek esaten osotoro egokiak diralako, Trinidadeko Misterioa adirazteko, baizik zeren laguntzen duen, zer sinistu bear degun jakiteko. Emendik atera dezakegu, Aita Betikoa ez datorrela bestegandik, baizik berez dala betiraunde guzian: semea sortzen dala Aitagandik, eta Espiritu Santua datorrela Aita eta Semeagandik. Ala erakusten digu Eliz Ama Santak, eta kantatzen da Kredoan: *Qui ex Patre, filioque procedit*. Aita Jaungoikoa da, Semea Jaungoikoa da, Espiritu Santua Jaungoikoa da, eta ez dira iru Jaungoiko, baizik Jaungoiko egiazko bakar bat. Aita ez da Semea, eta Espiritu Santua ez Aita, ez Semea da, zeren Personak distinktoak, edo bana diran, izan arren Jaungoiko egiazko bakar bat. Emen Aldarean dagoan ostia kon-sagratua Kristo da, eta Larraulen, eta Alkizan dagoana

ere bai: alaere emen dagoan ostia konsagratua ez da Larraulen dagoana, eta Alkizan dagoana ez emen, ez Larraulen dagoana da; zeren ostia konsagratuak distintoak, edo bana diran, izan arren Kristo bat bakarra Zeruian, eta Sakramentuan dagoana. Itz batean Jaungoikoa bat bakarra da, baña Personak iru.

Aita, ta Semea, eta Espiritu Santua berdiñak dira edertasun, eta perfekzio guzietan. Aita ez da Semea baño lenagokoa, eta ez bata, ez bestea dira Espiritu Santua baño lenagokoa, irurak dira alabaña betikoak. Eguzkiagandik sortzen da argitasuna, eta alaere eguzkia ez da lenagokoa, edo zarragoa, zeren batetan biak asi ziran izaten. Aita Guzieldun, edo Omnipotentea da, eta era berean Semea, eta Espiritu Santua ere. Aitak egiñ zituan Zeru-lurrak, eta gauza guziak, eta era berean Semeak, eta Espiritu Santuak. Aitak egiten ditu egiten diran gauza guziak, baña ez bakarrik, baidarik iru Personak. Alaere Eskritura Santak aditzera ematen dizkigu zenbait gauza, Aitak bakarrik egin balitu bezala. Ala Kredoan esaten da: *sinisten det Jaungoiko Aita guziz Poderoso Zeruaren, eta lurraren Kriadoreagan*, iru Personak Zeru-lurrak egin bazituen ere; zeren Aita dan indar, eta podere guziaren iturburua. Beste gauza batzuek aditzera ematen dira

Semeari bakarrik balegozka bezala, nola diran jakiunde andia agertzen duen gauzak; Semea da alabaña Aitaren Jakiundea, asieratik bukaeraraño gauza guziak argiro ekusten, sendoro egiten, eta gozotoro prestatzen dituana: *Attingit ergo a fine usque ad finem fortiter, et disponit omnia suaviter* (sap. 8). Azkenean beste gauza batzuek adirazten dira Espiritu Santuak bakarrik egiñak bezala, Trinitadeko iru Personak egiñak izan arren. Onelakoak dira onginei, eta amorio andi bat agertzen duenak, zeren Espiritu Santua dan Aitagandik, eta Semeagandik betiraunde guzian datoarren amorioa. Orregatik ukitzen danean Kredoan, nola Trinitadeko bigarren Persona gizon egin zan, esaten da *sortu zala Espiritu Santuaren obraz, eta graziaz*. Orra nere Kristauak, Trinitadeko Misterioari dagozkan, gauzen gañean zerbait esan dizuet, errazago sinistu ditzatzuen gai onetan sinistu bear ditugun gauzak. Dakuskun oraiñ, nolako ontarte eta mesedeak zordiozkagun Trinitade guziz Santari.

§ II.

Baldin fedeak erakusten digunari begiratu nai badiogu, arriturik geratuko gera, Trinitadeko iru Personak guri ongi nayez egin duena ekustean; bada dirudi, Munduaren asieratik oraindano Trinitade txit Santaren egiteko guzia izan dala guri on egitea, eta gu ontartez betetzea. Zer egin ez du gure alde Aita Betikoak? Egin ginduan ezerezetik bera ezagutzeko, amatzeko, eta betikotasun guzian berarekin Zeruan bizitzeko. Ederki prestatu zituan gizonak, emen bizi zan bitartean, bearko zituan gauza guziak: eta gerorako egin zuan Zeruko erri eder ori. Baña galdu zuan Adanek ala beretzat, nola guretzat Zerurako esku guzia; galdu zuan alabaña Jaunaren adiskidetasun, eta grazia, eta geratu giñan bekatuaren mendean, eta betiko galeran: urrikaldu zan guzaz Aita Zerukoa, eta erabaki zuan lurrera bidaltzea bere Seme bakarra, gizonaren utsegitea desegiteko, eta gu Zerurako bidean ipintzeko. Eta nola erabaki, ala bidaldu zuan. Ainbesteraño maite izan ginduan, non eman zuan bere Seme bakarra, dio S. Juanek: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret.* Ekusten dezu, Kristaua, zenbat zor diogun Trinitadeko lenengo Personari, edo Aita Betikoari ?

Zoaz aurreraxeago, eta begira, zenbat zor diogun bigarren Personari, edo Seme Jaungoikoari. Seme Jaungoikoa jatxi zan Zerutik lurrera, au da egin zan gizon Birjiña txit Santaren Sabelean Espiritu Santuaren obraz. Arriturik geratzen da Eliz Ama Santa, gogora ekarririk, Seme Jaungoikoa aur biurtu ta bizitu zala Birjiña txit Santaren Sabelean. *Et tu non horruisti Virginis uterum.* Ogei, ta amairu urte igaro zituan Zerurako bidea erakusten gizonari ala itzez, nola obraz, eta Jaunari gizonak egin zion bidegabeari eranzuteko, eta Aita Zerukoarekin pakeak egiteko, eman zuan gurutzean bere bizitza. Ipiñi zituan bere Elizan zazpi Sakramentu, graziaren ur gozoa gure biotzetan ixurtzeko, eta besteen artean ipiñi zuan Aldareko Sakramentu guziz miragarria, gurekin, eta gure artean bizi-tzeko, eta guri emateko bera dan guzia. Arrituaren eran dio S. Agustiñek. Izanik gure Jaungoikoa Guzialdun, edo Omnipotentea eziñ alaere eman digun baño geyago eman zezakean: *Plus dare non potuit.* Izanik guziz jakintsua, etzuan jakin zer eman geyago: *Plus dare nescivit:* eta izanik guziz aberatsa, etzuan izan zer eman geyago: *Plus dare non habuit,* eman zigun alabaña bera dan guzia, eta zer geyago eman dezake, bera danguzia ematen duanak? Atzenean Zerura igo

zanean idiki zituan guretzat, ainbeste milla urtean Adanen umeentzat itxirik egon ziran ateak, eta agindu zuan, ez ginduala utziko ume zurtzen eran, baizik gurekin egongo zala, eta gañera bidalduko zuala, Espiritu Santua, gure nekeak arintzeko, eta jakin bear diran gauzak erakusteko. Aditzen dezu, Kristaua, zer eta zenbat zor diogun Trinitadeko bigarren Personari?

Begira atzenean, zer zor diogun irugarren Personari, edo Espiritu Santuari. Jesus Zerura igo zanetik amargarren egunean jatxi zan Espiritu Santua, Salbatzalleak asi zuan obra andia, edo gure Erospen, edo Redenzioko egitekoa osotoro bukatzera. Bete zituan Apostoluak bere doayez: edertzen, ta apaintzen ditu animak batayoan, eta gañerako Sakramentuetan. Geratu zan Elizan, edo fededunen batzarre, bilkui, edo Kongregazioan, eta berak giatzen du emengo ekaitz guzien artean.

Orra nolako ontarte, edo mesedeak zor diozkagun Trinitade txit Santari. Eta nola onratu bear ote degu? Onratu bear degu lenengo lekuan, sarritan oroitzen gerala, batayoko egunean egin zigun mesede andiaz; bada beraren izenean izan giñan batayatuak eta egin ginduan Aita betikoaren ume, eta Zeruaaren jabegai. Nondik guri onenbeste onra, eta mesede? Mesede

onen eskerrak ematen dira goizeko jayeran. Onratu bear degu bigarren lekuan, batayoko egunean eman ginduan itzak berritzen ditugula, eta leyalki eranzuten diegula. Au nola egin ederki erakusten du lenbiziko Komunioko liburuak, dala konfesioa egin ondoko Era-kusaldian, dala lenengo Komunioa egin bear danean. Onratu bear degu irugarren lekuan, begiramentu, eta jayera andiarekin esaten degula Aitaren, ta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean; bada itz oekin aitortzen da Trinitade guziz Santa, eta gurutzea ongi egiten bada, aitorzen degu, nola Semea gizon egin zan, eta gugatik gurutzean eman zuan bizitza. Egin dezagun bada alegiña Trinitade txit Santa onratzeko batayoan agindu giñukan eran bizitz onari jarraitzeko, eta era onetan emango digu betiko bizitza doatsua. Amen.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

Korpus Kristi, edo festaberri egunerako.

Aldareko Sakramentu guziz miragarrian Jesus onak agertu, ta agertzen digun amorio bazter gabeari nolerebait eranzuteko, ipiñi zuan Eliz Ama Santak gaurko pozaldi, edo festa, eta deitzen diogu *Korpus Kristi-eguna*, zeren Jesusen gorputza onratzeko autua, eta siñalatu dagoan: eta euskaldun-erri askotan deitzen dioe: *Besta, edo festa berri*; zeren, ostegun santuz Sakramentu miragarri orren festa egiten bada ere, ipiñi nai izan duan gañera Eliz Ama Santak gaur egiten dana: eta ez da festa guzien artean ederkiago, eta anditasun geyagorekin egin oi danik. Eliz Ama Santak nai duana guk ongi egiteko, itzegin nai dizuet gaur fest onen gañean. Aditzera emango dizkitzuet lenengo lekuan festa onen berriak. Urrena, zer dan guk Jesus onratzeko egin bear deguna, Asi gaitezen bertatik.

Jesus, Aita Zerukoaren Seme bakarra, Trinitadeko bigarren Persona, jatxi zan Zerutik lurrera, edo egin zan gizon Birjiña txit Santaren sabelean, gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko, eta Aita betikoaren, eta gizonaren artean pakeak egiteko. Onetarako eman bear zuan gurutzean bere bizitza, eta alderatu zitzaion obra andi au bukatzeko, eta bere Aitagana biurtzeko ordua. Ostegun santu arratzean, gurutzean bizitza eman bear zuan bezperan, gañez egin zion guganako onginei, eta amorioak, eta ume zurtzen eran gu ez uzteagatik, asmatu zuan, bere Aitagana joanda ere, denbora bertan gurekin, eta gure artean bizitzeko, eta bere ondasun guziak gure biotzetan ixurtzeko bidea. Bide au izan zan ipintzea Aldareko Sakrametu guziz miragarria, eta Sakramentu onetan geratzea munduak dirauen bitartean. Berak, Lege berriko Aita Santu, eta Apaiz Nagusiak bezala esan zuan lenengo Meza, eta eman zien Apostolui lenbiziko Komunioa. Gañera Meza esateko, eta Sakramentua emateko eskua utzi zien Apostolu berai, eta oen ondorengo Oibispo Jaun, eta Apaiz guziai. Nik oraiñ egin dedana, esan zien, egizue zuek ere gero, nizaz oroitzen zerate-la: *Hoc facite... ineam. Commemorationem* (1 ad

Corint. 11). Itz oek emandako eskuarekin Lege berriko Apaizak egiten due, eta ematen Sakramentu miragarri ori.

Nork esan, eta nork ezagutu ere norañoko ongina, eta amorioa agertu, eta agertzen digun gure Jesus onak Sakramentu orretan? Ez da erraz. Alaere zerbait igerriko dezu, begiraldi bat ematen badiezu iru gauz oei: zeñ gauza miragarriak egiten dituan Sakramentu orretan: zer ematen digun: eta nolako txarkeri, eta bidegabeak pairatzen, eta ekusten dituan. Zer ote da Sakramentu miragarri orretan Jesus onak egiten duana? Lenengo lekuan, Apaizak konsagrazioko itzak esaten dituan unean bertan, jartzen da Sakramentuan Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Katolikoa, naiz herejea. Gauz arritze-koa! Gizon baten otsera jatxitzen da Jesus Zerutik lurrera, eta jatxitzen da Apaizak nai duan denboran, eta adiñatan. Bigarrena: ezin konta al Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesus, Zeruko bere jarlekua utzi bage. Irugarrena, Konsagrazioko itzak esaten diranean, len ogi zana biurtzea Jesu-Kristoren gorputz, eta len ardo zana bere odol. Laugarrena, konsagrazio-ko itzak esan ezkeroz, ez geratzea Sakramentuan ogirik, eta ardorik, baba bai ogi-ardoen anz, eta iduriak.

Bostgarrena, ogiaren eta ardoaren iduriak ainbeste indar izatea, nola duen ogi-ardoak. Seigarrena, ostia batek duan bezeñ toki txikian jartzea, ta egotea Jesu-Kristo Jainko, ta gizon egiazkoa. Zazpigarrena, ostia erdiratzen, eta puskatzen danean, ez puskatzea Jesu-Kristoren gorputza, eta puskatu ordean osorik arkitzea puskarik txikienean ere. Zortzigarrena, Jesus ona bizi-rik, eta Zeruan dituan doai, eta edertasun guziakin jartzen bada ere, illaren eran egotea Sakramentuan, ezkututzen dituala bere doayak ogiaren, eta ardoaren iduriakin odei batekin bezala. Ekusten dezu, Kristaua, zeñ gauz andi, eta miragarriak egiten dituan Jesus onak Sakramentu orretan? Orregatik ederki dio Santo Tomasek, Sakramentu au dala mirari guzien artean andiena, eta esan diteke mirari guzien miragarritasuna berekin duala. Eta au guzia guri ongi nayez egiten duan Jesusen onginei, eta amorioa norañokoa izango da?

Zoaz orain, Kristaua, aurreraxeago, eta begira zer ematen digun Jesusek Sakramentu orretan. Zer ematen digula, uste dezu? Jaungoiko Guzieldun batek eman dezakean guzia; ematen digu alabaña Jesus onak bere gorputza, bere odola, bere anima, bere Jainkotasuna, itz batean bera dan guzia, eta ezin

geyago eman dezake, S. Agustinek esan zuan eran: *Plus dare non potuit*. Zer ongina, eta amorioa ez da Jesus onari au guzia eragiten diona?

Eta zer esango dezu, zer txarkeri, ta bidegabeak Sakramentu orretan ekusi, ta ekusten dituan begiratzzen badezu? Arriturik geratuko zera, Jesus onari gurekin gertatu zayona, ekustean. Ez det itzik esan nai Juduen, jentil, eta herejeen gañean, zer alabaña oetatik itxedon, edo uste izan zezakean Jesus onak, bidegabeak baizik? Baña bere adiskide, eta senidetzat autu zituanetatik ekusten duan adiña txarkeri ekustea? Au da gauza bat, ekusi, ta ekusten ezpaliz ezin sinistu litekeana. Gau, ta egun, gurekin egon nayeiz Sakramentu orretan arkitzen da Jesus, baña gutxi dira beragana agertzen diranak, eta esan dezake, tellatuko zuloan bakarrik dagoan txoria bezala dagoala: *Factus sum sicut passer solitarius in tecto* (Psalm. 101). Sakramentu orretan dago gure animen janari, eta edari biurturik, guri emateko bere ondasun guziak, eta bera dan guzia; baña asko dira beragandik igesi dabiltzanak: asko bekatuz loituak dijoazkionak. Eta bekatu larri, edo mortal gabe arkitzen diranak ere, asko bizi dira epeldasun andian, eta Jesus onaren Zeruko janaria artzeko gose gabe. Epeldasun oni, goragalea ema-

ten duan gauzari bezala, begiratzen dio, Obispo Jaun bati S. Juanekin gaztigatu zion eran. Alaere, nola bere atsegiñ, eta kontentuek dituan anima onakin, oei begiraturik ez gaitu utzi, eta or dago Sakramentu orretan, eta egongo ere da munduaren bukaeraraño. Nork oraiñ ez du ezagutuko, Aldareko Sakramentuan Jaunak agertzen digun onginei, eta amorioa dala bazterrik, neurri, eta mugarik ez duana? Orregatik esan zuan S. Juanek, ezin geyagoraño amatu ginduala: *In finem dilexit eos*: eta S. Zirilo Alexandriakoak deitzen dio: onginei, ta amorioaren miraria: *Miraculum amoris*.

Jesusen onginei, eta amorio baztergabe oni alik ongiena eranzuteko, eta onratzeko Sakramentu miragarri ori, ostegun Santu egunean anziñatik egiten dio Eliz Ama Santak bere oroipena, eta festa. Baña alde batetik Jesusen neke, oñaze, eta gurutzeko eriotza gogoan darabill orduan eta bestetik agertu ziran hereje batzuek, Sakramentu miragarri ori ukatzen zuenak, oen artean Berengario, Angers deritzan erri andi bateko Arzedianoa, eta zirudian gauz egokia egun bat berezitzea, ta siñalatzea Sakramentu miragarri orren onran. Ala Jaunak aditzera eman zion, Juliana zeritzan, Liejako monja birtutetsu bati: Agertu zitzayon illargi bat alde aldean betea, baña ez osotoro: illargi onek

aditzera ematen zuan Eliza, eta akatsak egun berezi baten gabea, edo falta, Sakramentuari onra andiak emateko. Etzuan Julianak aditzen, zer esan nai zuan ikuskarri onek, eta sarritan agertzen bazitzayon ere, denbora luzean etzion iñori ere esan gertatzen zitzaiona. Aditzera eman zion Jaunak, zer esan nai zuan illargiaren akatsak. Agertu zion Julianak, zer igarotzen zitzaion, Kanonigo jakintsu bati, eta onek itzegin zien Liejako Obispo Jaunari, eta beste gizon andi askori, eta asi zan alde aetan *Korpus-Kristi, edo festa berria* esaten diogun au, oraiñ bost eun, eta irurogei, ta sei urte, eta andik urte batzuetara Aita Santu Urbano laugarrenak agindu zuan, egin zedilla festa au Eliza guzian; baña onetara nolerebait beartu zuan Aita Santu au, Bolsenan denbora artan gertatu zanak. Meza esaten ari zan Apaiz bat, eta ezin sinistu zuan, Sakramentu orretan jartzen dala, eta dagoala Jesus maitagarria. Ordurako esan zituan konsagrazioko itzak, eta ostia ekusi zan odola zeriola, eta mantxatu ziran *Korporalak*. Joan zan Aita Santua Bolsenara; ekusi zituan *Korporalak*, eta agindu zuan, egin zedilla urte oro *Korpus Kristi* deritzan festa.

Eztakigu, Aita Santu onek beronek, edo ondorengoren batek ipiñi zuan egun onetako prozesio ederra;

baña badakigu, anziñatik egiten dala Eliza guzietan eta onra andian erabiltzen dala kale, eta plazetan Sakramentua, herejeen ausardi zentzugabea lotsaturik gera dedin. Karlos bostgarrenaren denboran gertatu zan Bienan orain esatera noana. Karlos prozesioan zijoan argi erazekiarekin: Sakramentua zeraman Magunziako Kardenalak, eta Palioa Prinzipe, edo Inperioko lenenak txandaka. Andi oen artean baziran Luteroren setari jarraitzen zioenak, eta etzuen Palioa eramana izan beren txandan. Naigabe andia artu zuan Karlosek, eta barreatu zan gertatu zana. Orregatik, dirudianez, Trentoko Konzilioak eskomikatu zituan, Sakramentu orretan onratu, edo prozesioan erabilli bear ez dala Jesus, daraustenak: *Anathema sit*. Gaur ezezik beste egun batzuetan ere egiten dira Sakramentuarekin prozesioak eta oetatik bat da *Minerba* esaten zayona. Bada Erroman toki bat *Minerba* izendatzen dana. An arkitzen da Santo Domingoren ordenakoen Eliza bat, *Santa Maria Minerba* gañekoa deritzana, eta Eliz onetan ipiñi zan *Kofradia bat* Sakramentua onratzeko, eta ill oro lenengo igandeetan egiten zan Sakramentuarekin Prozesioa. Emendik etorri zan, ill oro Elizetan Sakramentuarekin egiten dan prozesioari, *Minerbaren* izena ematea. Erri oetan *Minerba*

egiten da irugarren igandeetan, zeren lenengoetan egiten dan Arrosarioko prozesioa. Orra nere Kristaua, Korpus Kristi eguneko Pozaldi, edo festaren berriak. Dakuskun oraiñ, egun onetan, eta beste onen anzekoetan Jesus onratzeko guk egin bear deguna.

§ II.

Egun onetan, gure Salbatzalea onratzeko, egin bear degun lenengo gauza da, gure biotzak ongi garbitzea, eta prestatzea Sakramentu miragarri ori artzeko. Ala adirazten digu Aita Santu Urbano laugarrenak. Au bera aditu bear da Minerba egunetarako ere. Erri askotan itzaliz omen dijoa jayera eder au: eta ez da zer miretsi aituz badijoaz Jesusen adiskide, eta maitatzalleak, eta Kristaurik geyenak bizi badira bekatuaren bideetan oatuak bezala. Zu, nere Kristaua, etzaitzela egin zenzugabe oetatik bat, eta onra ezazu biotz osoz zure Jesus ona, prestaera ederrarekin sarritan arizen dezula. Bigarrena, Sakramentuarekin *Prozesioa* egiten danean, zabilta begiramentu, eta modesti andiarekin. Irugarrena: Eliza garbitu, eta apaindu bear da alegiñean: bideak estaltzen dira usai-

belarrez, eta leyo, ta pareteak ere apaintzen dira al dan eran. Leku batzuetan prozesioan joan oi dira bi gazte ederki janziak, arrosa ostoz zareak beterik, Jauna dabillen bidean botatzeko, baña ez dira loreak bota bear prozesioan dijoazenen aurpegira, edo bizkarrera, baizik bidera. Gizonak joan bear due kandela erazekiakin eta ezkillak jotzen dira prozesioa bukatu dedin artean. Laugarrena: ekusten duenak Jauna naiz egun onetako prozesioan, naiz erietara dijoanean belaunikatzen dira, ala oñezkoak, nola zaldizkoak, baita kotxean dabiltzanak ere. Ala agintzen due Españañoako legeak.

Era onetan onratzen bagendu guk gure Salbatzailea, zer ontarte, eta mesedeak ez lituke ixuriko Kristau guzietara? Baña ay! gerraren aitzakian, oztu, edo itzali da askoren siniste, edo Fedea: igesi dabilta Jau-naren itzagandik, eta Sakramentuetatik: eta ez due gogorik Jesus maitagarria onratzeko, Eliz Ama Santak prestatzen dizkigun, bide ederretan ibilliaz. Badakizue erri batzuetan noraño galdu, eta okertu omen diran asko? Igerri due, indargabe arkitzen dala Eliza, Sakramentua arrerazteko bear dan denboran, eta beldurgabe geratzen dira Pazkoetan ere konfesio, eta komuniorik artu gabe, bearbada urteetan. Badakit, txit

gutxi dirala emen doakabe oetatik; baña itsaskorra da gaitz au, eta egin dezagun alegiña Jesus onratzeko Sakramentu miragarri orretan, dala prozesioak egiten diranean beraren onran, dala sarritan Sakramentuak artuaz, eta bera adoratzera etorriaz. Emendik etorriko diran ontarteak ezagutzeko, enzun, Kristaua, testamentuko kutxarekin Jerikoren inguruan egin zan prozesio batekin gertatua.

Israelitai agindu ziezten Jaunak berentzat Kanaan-go lur gizenak. Arako sarreran zegoan Jeriko zeritzan erria, murallaz inguratua. Jerikotarrak ziran gudari, edo gerrari sendoak, eta Israeltarrak aronz abiatzen ziraneko, prestatuak arkitzen ziran aen kontra pelea-tzeko, eta erria gordetzeko. Josue zan Israeldarren buru, eta agintaria, eta Jaunak aditzera eman zion, artuko zuela Jeriko, baña egin bear zuela Jaun berak esango ziena. Zazpi egunetan, beren armak janzirik, zure gerrariak inguratuko due erria, prozesioan dijoa-zenak bezala. Gerrarien ondoren joango dira zazpi Apaiz jubileoko tronpetakin soñua jotzen duela (tron-pet oekin aditzera ematen zan, noiz sartzen zan jubi-leoko urtea). Zazpi Apaiz oen ondoren beste Apaizak eramango due testamentuko arka, edo kutxa, eta gero gañerako jendea, baña lenengo sei egunetan ez

du iñork ere itzik esan bear, erriaren inguruan zabil-
tzaten bitartean; baña Apaizak soñua joko due zazpi-
garren egunean, besteetan bezala joango dira ala
gerrariak, nola gañerakoak: tronpetariak joko due
soñua beste egunetan baño indar geiagorekin: eta
armadun, eta armagabeak oju egingo due al duen
indarrarekin. Orduan desegingo, ta lurrerako dira
murallak: sartuko dira errian zuen gerrariak, eta ilko
ditue arkitzen dituen erritarrak, zarrak, eta gazteak,
gizon, eta emakumeak, bai ta bizia duen beste gauzak
ere. Au, ta geyago esan zion Jaunak Josueri. Egin zuen
Israeldarrak Jaunak esana zazpi egunetan; azkeneko
egunean erori ziran murallak, sartu ziran Israeldarrak,
eta bukatu zituen Jerikotarrak. Ekusten, edo aditzen
dezu, Kristaua, Jerikoren inguruan testamentuko
kutxarekin gertatua? Zer ote zan kutxa au? Kutxa au
zan Legeko bi olak, eta mana gordetzeko, egin zan
kutxa eder bat. Kutxa au zan Aldareko Sakramentu-
aren anz, eta iduria. Eta kutxa au prozesioan Jerikoren
inguruan erabiltze utsarekin lurrera baziran ango
murallak, eta desegin etsayak, zer egingo ez du
Sakramentuak berak, onratzen badegu prozesioetan,
sarritan etortzen bagera bera adoratzera, eta prestae-
ra onarekin artzen badegu? Egin dezagun au arretaz,

bizi gaiten Jesus onak erakusten digun eran, eta onela emango digu betiko bizitza doatsua. Amen.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Aldareko sakramentu guziz santuaren desagrabioen
festibidadearen gañean.*

Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est potus.
Joan 6.

Gure fedeko misterio guzien artean goyena, miragarriena, ta Jainkoaren guganako amorioa guziena agertzen duana da, nere Kriastauak, Aldareko Sakramentu guziz beneragarria. Sakramentu onetan arkitzen da gure Jesus ona gurekin egoteagatik, guri bere ondasunak emateko, ta atzenean gure janari, ta edari egiñik. Au onela izanik, dan bezala, nork uste izan zezakean Sakramentu orretan ekusi bearra zala ezin konta al eskergabekeria, txarkeri, ta bidegabe? Etzan egiaz erraz onelakorik gogoratzea ere, baña ala gertatu da. Elizaren asieratik asi ziran hereje batzuek misterio andi au ukatzen, S. Ignazio Martiriak Esmirnakoai gartzigatzen dienaz, ta geroztik beti beregandik bialdu ditu infernuak Sakramentu oni gerra egiteko batzuek, edo batzuek. Anziñako denboran Berengario, ta geroago Wiklef, Karolostadio, Zuinglio, Ekolonpa-

dio, ta Juan Kalbino. Egungo egunean zenbatek jarraitzen dioe Juan Kalbinori Franzian, zenbatek Inglateran? Izan due oen jarraikiñak ausardia Sakramentua ganibetaz ebakitzeko, iltzez urkabeen josteko, Sakramentuar odola zerion bezala, ta alaere odol preziotsua kasorik egin gabe: izan due ausardia Sakramentua Elizetatik arturik zaldiai zaldaletzat janerazteko. Arriturik, ta ezin sinisturik bezala gauz oek aditzean arkitzen zerate bearbada zuek, baña adiezazue Tillemont deritzan Brabanteko erri batean gertatu zana orain eun da ogeita amalau, edo amabost urte bezala. Erri onetan sartu zan Mos de Txatillon Franziaiko Erregeren jenerala Españaren kontra, bere mendeko soldaduekin. Jeneral Kalbinista onek etzien barkatu donzellai, etzien barkatu Relijioan gorderik arkitzen ziran Birjiñai, etzien barkatu Elizai. Zer geyago? etzion barkatu Aldareko Sakramentu guziz beneragarriari ere, bada Elizetan arkitu zituan forma konsagratuak jan-erazi ziezten bere zaldiai! Ekusten dezue nere Kristauak, zer bidegabe, ta txarkeri izugarriak eramán dituan Jesusek Sakramentu orretan? Oen orde z bada, guk berari zor zaizkan esker onak, ta adorazioak emateko, egiten da Espaiñian leku askotan gaur zuek egiten dezuen festibidade *Desagrabioen* izenarekin. Argatik

asmoarekin nator zuei begien aurrean ipintzeko onetarako zenbait bide egoki. Lenago agertuko degu Sakramentu oni dagokan doktriñako puntua.

Aldareko, edo Komunioko Sakramentua da zazpietatik bata, ta au aditzen degu *Laugarrena Komunioa* esaten degunean. *Komunioko Sakramentu txit Santua zertako da*, galdetzen du doktrinako liburutxoak; ta erantzuten du: *Guk* bear bezala artu, ta gure animen janari *izan dedin*, ta grazia ugaritu, ta geitu diezagun. Komunioko Sakramentuan zer artzen da? Jesu-Kristo Jainko, ta gizon egiazkoa, Aldareko Sakramentuan egiaz dagoana. Ongi komulgatzeko zenbat gauza bear dira? iru gauza. 1.a zer artzen, edo errezibitzen dan jakitea. 2.a barau naturala, edo ezer artugabe egotea. 3.a bekatu larri, edo mortalik batere gabe, ta Jainkoaren grazian egotea. Ona zuek gauz onen gañean gutxien gutxiena jakin bear dezuena. Goazen orain agertuaz gauz oek berak.

Komunioko Sakramentua guk bear bezala artu, ta gure animen janari izan dedin, ta grazia ugaritu, edo geitu diezagun. Gorputzak janaririk gabe ezin iraun dezake, ta ezin egingo ditu bear diran gauzak. Gisa onetan gure animak ezpadu noizean beiñ bederik bere janaria, motelduaz joango da Zeruko bidean, ta atze-

nean ilko da igaro bear duan bidea igaro gabe. Argatik Jesus onak utzi digu gure animen janaritzat bere gorputza, ta edaritzat bere odola. *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est polus*. Janari, ta edari au ongi prestaturik, ta biotz garbiarekin artzen ditugula, ugaritzen due animako grazia, uzten due anima indar berriz betea Zeruko bidean aurrera joateko: gutxitzen dira gaitzera griña gaiztoen bizitasuna, ta askotan gorputzeraño ere zabaltzen dan atsegiñ, ta kontentuak uzten ditu Jesusek bera ongi artzen duanaren animan. Jauna: Apaizak artzen due Jesusen odola, baña Apaiz ez diranak ez due artzen esandezake orain gauzen berri ongi ez dakianen batek. Elizaren asieran guziak artu oi zuen Jesu-Kristo orain Apaizak bezala ogiaren, ta ardoaren antz, edo espezien azpian, ta gaurko egunean ere ala artzen due dio Benedikto XIV. Orienteko Elizan, edo artzen due forma konsagratua Jesu-Kristoren odolean bustirik kutxarean. Baña emen ez due Apaiz ez diranak aspaldiko denboretan Jesus artzen ogiaren akzidenteen azpian baizik. Alaere nola ostian arkitzen dan Jesusen odola komulgatzen dan guziak artzen du au gorputzarekin batean.

Apaizak Konsagrazioko itzak esan artean ostia ez da ogi piska bat besterik, baña konsagrazioko itzak esaten dituan bezala, lenago ogi zan ostia gelditzen da Jesu-Kristoren gorputz egiñik, izan dedilla Apaiza naiz ona, naiz gaiztoa baldin egiaz Apaiza bada. Konsagrazioko itzen birtutez jartzen da ostian Jesu-Kristoren gorputza, baña ez gorputz illa, piztu zan alabaña beñere ez iltzeko, baizikan bizia, ta nola gorputz biziari dagokan odola, jartzen da odola ere gorputzarekin Jesu-Kristoren gorputzari itsatsirik, ta uniturik arkitzen da beraren anima, ta jartzen da au ere ostian gorputzarekin batean. Atzenean Jesusen gorputz animai uniturik arkitzen da Jesusen Jainkotasuna, ta nola Semea, Aita, ta Espiritu Santuarekin Jainko bat dan, Trinitez guziz Santua arkitzen da ostia konsagratuan. Au obeto adituko dezu gogora ekartzen badezu katea batekin gertatzen zatzuna. Eldu giozu, ta tira katea baten aurreneko mallari. Zuk bati eltzen diozu, ta tiratzen, baña guziak zeregana ekarriko dituzu, zeren aurrenekoari itsatsirik arkitzen diran besteak. Eta au bera gertatzen da Aldareko Sakramentuan era miragarriago batean. Esaten ditu Apaizak konsagrazioko itzak ostiaren gaiñ: puntu artan bertan an dago Jesu-Kristoren gorputza. Itzen birtutez gorputza baka-

rrik jarriko lizake, baña nola Jesusen gorputzari ditxeozkan gauzak diran odola, anima, ta Jainkotasuna, gorputzarekin batean an dira gauz oek guziak.

Kalizan Apaizak itzak esan artean, ez dago ardoa, ta ur piska bat besterik, baña Konsagrazioko itzak esaten dituan bezala, lenago ardo zana egiten da Jesu-Kristoren odol, ta odolarekin batean jartzen da gorputza, anima, Jainkotasuna, ta Trinitade iru personak. Itz batean guzia esango det: ostian arkitzen da Jesu-Kristo guzia Zeruan duan edertasun guziarekin, ta Kalizan ere bai: Jesu-Kristo guzia hostia guzian, ta guzia hostiaren puskarik txikienean: Jesu-Kristo guzia Zeruan, ta guzia Aldareko Sakramentuan: ostia erdiratzen da, ta ez da erdiratzen Jesu-Kristo. Gauza miretsitzekoak egiaz, baña errazak Jainko Guzialdunarentzat!

Jauna ongi dago ori guzia, baña esan begit, Apaizak ostia goora jatorik erakusten duanean, zer ekusten degun. Batzuek esaten due, au dotrinan galde-tzean, ekusten duela beren Jauna, edo ekusten duela Jesu-Kristo. Baña engañatzen dira, Jesu-Kristo alabaña gorderik, ta ezkutaturik arkitzen da, ta ala ez izatera nola animatuko giñake beraren aurrean jartzera? Beste batzuek eranzuten oi due ekusten duela ogia, ta au gaistoago da. Au da alabaña nolere bait uste izatea

ostia Konsagratuan oraindik badala ogia, Luterok esaten zuan bezala, ez da bada ekusten Sakramentua erakusten danean ogirik, zeren ya ez dagoan. Ekusten dana da ogiaren antza, ogiaren kolorea, edo zuritiesuna, biribiltasuna, ta luze zabala, ta ogiaren soñeko, ta akzidente oen azpian sinisten, ta adoratzten degu Jesu-Kristo Jainko, ta gizon egiazkoa. Asko degu onenbesterekin, ta gutxi esan badegu ere itzegiteko gai onentzat, geyegi bear bada askorentzat. Goazen oraiñ agertzera Jesusi zor zaizkan esker onak, ta benerazioa emateko zenbait bide eder, ta egoki. Eta onetarako eskatu degiogun Birjiña guziz Santari bere laguntza Aingeruarekin esaten diogula. *Abe Maria.*

Caro mea vere est cibus, et Sanguis meus vere est potus.
Joan. 6.

Aldareko Sakramentuan Jesus onak gure amorioz ekusi dituan txarkeri, ta bidegabeen orde zor diozka-gun esker onak, ta adorazioak emateko bide asko dira. Baña guzien artean zuentzat egokienak izango dira oek. 1.a maiz siniste, edo fede bizi batekin bisitaztea Jesus ona Sakramentatua. 2.a maiz bera artzea, baña artzea ongi prestaturik.

§ I.

Jesus onak, gugatik gurutzean bizitza emanik igarotzen zuala gurutzeko eriotza gogorra, nai izan zuan gure artean gelditu; ta milla ta zortzi eun, ta geyago urte onetan Aldareko Sakramentuan arkitzen da beñere gu utzi gabe. Atsegin poz andia Jesus onarentzat bere umeakin egotea, berak adierazirik daukan bezala. *Deliciae meae esse cum fuis hominum*. Emendik gauza txit ederra, ta Jesusen gogokoa da maiz gu bera bisitatzera joatea. Bisita oek bear bezala egiteko gogora ekarri bear dezu benik beiñ nora zatozen, ta norekin itzegitera. Baldin sinistea galdu ezpadezu eza gutuko dezu zoazela Errege guzien Erregea, Aingeruz, Serafin, ta Txerubinez inguratua dagoana bisitatzera bere Elizan, edo etxean. Ekarrri bear dezu gero gogora Jesusek Sakramentu orretan daramana; bada igarotzen ditu denborarik geyenak azturik, ta bakarrik; ta atzenean gauz oen damu, ta atsakabe andia artzen dezula, milla esker eman, milla agur egin bear diozkatzu. Au da, nere Kristauak bide guziz ederra Jesus desagribaturik uzteko. Baña bide au zenbatek artzen due? Zenbat etortzen zaizka Jesusi bisitak egitera?

Betor nondik nai gizon aberats bat, aren etxean izango dira bereala ongi etorri egitera errian zerbait dirala deritzen guziak. Betorkio nori nai urrutitik adiskide bat; etorri berria aditu orduko anda adiskidea ekustera, ta nekez edo ezin bestez alde egingo du aren ondotik. Edozein ongille aberats guziak edo asko joan oi zaizka eskerrak ematera, ta maiz ekustera, batezere zerbaiten ustea bada. Baña etorririk gure Jesus ona Zerutik lurrera, izanik Jesus ona gauza guzien jabea, ta ezin geyagoraño aberatsa, izanik atzenean ezin geyagoraño ongillea nor etortzen zayo ekustera, ta berarekin itzegiten ordu laurden bat bederik igarotzera?

Argatik espadasun andiak esaten digu Sakramentu artatik gaur: Zuek badezue denbora egunak, ta asteak igarotzeko erausian, zuek badezue denbora edanean, ta jokuan zeren animak galtzeko: Zuek badezue denbora zeren gogokoakin egoteko. Ta izanik ni zuen egillea, zuek-gatik gizon egin ta gurutzean bizitza eman nuana, ta zuekin egotera, ta ondasunez beterik uztera etorririk nagoana *azturik ni; oblivioni datus sum; bacarric ni, ego autem relictus sum solus*. Nonda, nonda, nere Kristauak, gure fedea? orren bakarrik usten degunean gure Jesus ona?

Etortzen zerate, egiaz, Jai egunetan Meza enzute-
ra. Baña nola egoten dira geyenak? Egoten dirade
Errege guzien erregeren aurrean daudela sinisten
duela? ez, ez geyenak beintzat, baizik Jesusi iseka egi-
tera etorri balira bezala; batzuek begiak armatu bate-
ra, ta bestera begiratuaz; besteak itzegiten; batzuek
auzabalka, bezteak ordu erdi bat ezin igarorik. Au da,
nere Kristauak, Jesusi zor diozkagun esker onak, ta
adorazioak ematea? Au da desagrabiatzea? ez baizik
herejeak baño bidegabe andiagoak egitea!

§ II.

Ez al gera, nere Kristauak, emendik aurrera orain-
daño bezala egongo Jesus ona bakarrik utzirik! ta etor-
tzen geranean siniste, ta arreta obeagoarekin egongo
al gera! onela Jesus onari zor diozkagun esker onak, ta
benerazioak emateko. Baña badegu beste bide bat
onetarako aurrenekoa baño ere egokiagoa, au da
maiz, ta bear dan eran artzea Jesus ona Komunioko
Sakramentu Santuan. Bazekusen Jesusek onak neke,
ta tentu lanak garaituaz igaro bearrak zirala beraren
umeak Zeruko atsegin kontentuen artean bizitzeko.

Neke oek batzuek datoz etsaiaren aldetik. Tentatzen du etsaiak anima gaixoa andik, ta emendik, batzuetan tristuraz, besteetan aserrearen suarekin: batzuetan kutiziaz, besteetan aragiaren gura gaistoakin. Ta etsai amorratuaren aldetik datozen neke ok gutxi balira bezala, tentatzen ere due anima gaixoa bere lagun urkoak ere: tentatzen du batzuetan errierta, ta ateleka gaistoakin, besteetan itz bidegabekoakin, edo asmazio gaistoakin.

Beste nekerik ez danean berekin izango du animak nork nekatu, beti izango du alabaña bere burua, ta aragi gaitzerako griñaz betea, ta onez gañera nekea beti du Jainkoaren Legeko gauza guziak zuzen egitean. Neke oen guzien azpian gu illik ez gelditzeko zer egin zuan Jesus onak? zer? Jainko ezingeiagoraño ongilleak baizik ezin egin zezakean gauz arrigarri bat, edo Aldareko Sakramentuan gure janari, ta edari egiñik gelditzea, onela janari Zeruko onen indarrarekin aisa eramateko Zeruko bidean degun neke guzia. Nere gorputza janaria da egiaz, ta nere odola edari, esaten digu berak. *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est polus*; gorputz au jaten, ta odol au edaten duanak izango du betiko bizitz doatsua. *Habet vilam aeternam*. Ta atozte, deitzen digu Sakramentu

artatik, atozte nere umeak: *venite ad me*: atozte nere Legearen kargarekin neketan zautenak, nik emango dizuet, zuek karga ori aisa eramateko bear dezuen indar guzia. *Venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos*. Begira orain, Krista-
taua, nolako bide ederra dan Jesus ona Komunioko Sakramentuan maiz artzea, berari atsegin egiteko ta zor diozkagun esker onak emateko.

Baña egiten dezu au anima bekataria? etzera zu aspaldiko denboretan pazkoatik pazkoara egon oi Komunioko mayera gabe, ta orduan ere zere Artzaya-
ren edo Justiziaren beldurrez? Etzabiltza igesi bezala, ta beti atzera Jesus ona artzera etorzeko? Ah triste zere galgarria! Baziñaki zenbat ondasun Zeruko gaitzen dezun! bazinaki zer naigabea ematen diozun zere Jesus onari! ta zer sententzia izugarria Aldare artatik ematen duan! Adiezazu zer esaten dizun, zuri, ta guziai. Egiaz, egiaz esaten dizuet: *Amen amen dico vobis*: espadezue nere gorputza jaten, ta odola edaten, ez da zuetan izango graziaren bizitza ederra, ta gero Zeruko bizitza doatsua. *Nisi manducaveritis carnem filii hominis, et biberilis eius sanguinem*. Baña ez da aditu bear maiz Jauna artzea diodanean edozein gisatan artzea, baizik ongi prestaturik, ta biotz garbia-

rekin onela ongi prestaturik dauden animetan jarririk bere ondasun guziak eman nairik arkitzen da Jesus ona; ematen duala duan guzia, bada ematen du bere gorputza, odola, anima, ta Jainkotasuna. Beldurgabe diot, esaten du S. Agustiñek: izanik gure Jainkoa, dan bezala guzialduna, eman degun baño geyago ezin eman zegikegun. *Dicere audeo, quod Deus cum sil omnipotens plus dare non potuit.* Izanik gure Jainkoa Jakiunde utsa, etzuan jakin zer geyago eman. *Cum sit sapientissimus plus dare nescivit.* Izanik atzenean gauza guzien Jabea, ta ezin geyagoraño aberatsa, etzuan izan zer geyago eman. *Cum sit ditissimus plus dare non habuit.* Au guzia ematea da Jesusen atsegin kontentu andia bere umeai, oek ongi prestaturik arkitzen diranean, baña bekatuaren loyez beterik dijoan biotzean? Onela dijoanak Jesus onari berriz bere alegiñean gurutzeko eriotza ematen dio esaten du S. Pablok. *Rursum sibimelipsis crucifigentes filium Dei: bere gain artzen du Jainko biziaren Semearen odola: reus erit corporis, et sanguinis Domini: jaten, ta edaten bere kondenazioko sententzia *juditiun sibi manducat et bibit.**

Ta oek dira gure arteko askok, Sakramentu orretan Jesusek ekusi dituan eskergabekeri, txarkeri, ta

bidegabeak desegiteko ematen diozkeen esker onak, adorazio, ta atsegin kontentuek, herejeak baño ere bidegabe andiagoak egitea, gaizki Jauna artuaz. Ala artzen dezu zuk gizon edo emakume birauen oitura madarikatu ori uzten ez dezuna. Ala zuk zere lagun urkoarekin itz egin naigabe, zer esana ematen dezula bizi zerana. Ala zuk gizon edanean, jokoan, alferkerian zabiltzana. Ala zu zerekiko lizunkerien oitura edo bekatuaren perillak utzi nai ez dituzuna. Konfesatzen zera, ta bear bada maiz, baña bekatua uzteko asmoen iduripen uts batekin eta onela zoaz gerotik gerora geyago berrituz Jesusen neke oñazeak zeregan danez. *Rursum sibimetipsis crucifigentes filium Dei.* Ay! nere Kristauak ta zein premiazkoa dan gaurko festibidadea! bada onenbeste ekusten du, onenbeste darama ez herejeetatik bakarrik baita gugandik ere.

Ta alaere zu Jesus ona isill isillik Sakramentu orretan guzia ekusten dezula! Zu zere Justiziaren ezpata zorrotza magitik atera nai gabe! Zu nondik mugituko gaituzun bizitza eder bat egitera, ta biotz eder garbiakin zugana etortzera! Bedeikatua izan bedi Jauna zure Miserikordia, ta pazientzia gurekin izandezuna. Orain ezagutzen ditugu ongi zure ontasunari egindako txar-keri eta bidegabeak. Lotsaz beterik arkitzen gera gure

esker gabekeri oni begiraturik. Urrikaldu zaitetz arren
guzaz: ukitu itzatzu biotz oek, damuz desegin ditezen;
iguzu arren zure lagunz ugaria, emendik aurrera zu
biotz garbiarekin artuaz birtutez birtute joateko, zure
Sakramentu orrek guretzat dakartzian ondasunak ez
galtzeko, eta onela iristeko betiko bizitza doatsua.
Amen.

BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da, nola Birjiña txit Santa, Jaungoikoaren, eta gure Ama maitagarria Zerura jaso, edo altxatua izan zan gorputz, eta anima.

Urrena, zer guk egin bear degun bera onratzeko.

Gero ere eldu, edo etorri zaku arako egun andi ura, zeñean mundu onetatik jaso izan zan Zerura Birjiña txit Santa Jaungoikoaren, eta gure Ama maitagarria. Festa onek garaitzen ditu Santuen beste festa guziak, dio S. Agustiñek. S. Jeronimok esaten digu, ez dala munduan ekusi egun andiagorik. Orregatik Eliz Ama Santak nai du, Kristau guziak postutzea egun andi onetan! Postu gaitezen guziok egun onetan, dio Mezaren sarreran: *Gaudeamus omnes*. Au guk ongi egiteko, begiraldi bat eman bear diogu gaurko Misterioari, eta Misterio oni dagozkan gauzai. Urrena ukitu-ko det, zer egin bear degun Birjiña txit Santa onratzeko? Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Gure Salbatzaliea, piztuta berrogei garren egunean, igo zan Zerura, eta beraren Ama maitagarriak jarraitu nai zion biotz osoz; baña nola zan Kristau guzien laguntza, eta atsegin-kontentua, Semeak nai izan zuan emen geratzea Ama, Eliz Ama Santari laguntzeko bere nekeetan.

Askoren iritzian, ogei ta iru urte igaro zituan eta bitarte onetan izan zan Apostoluen, eta Kristau guzien Erakuslea, giari, eta Bitarteko andia. Urtebatzuetan bizitu zan Jerusalem; baña Juduak ekusirik, nola Apostoluak zabaltzen zuen Jesusen legea, altxa zuen Elizaren kontra ekaitz izugarri bat: Apostoluak zabaldu ziran mundearen lau aldeetara, eta Birjiña txit Santa joan zan S. Joanekin Efeso zeritzan erri andira. Gutxitu zan ekaitz ura, eta S. Juan Damaszenok dionez, biurtu zan Jerusalem, eta an bizitu zan ill arte guzian. Ez da gizonaren mingaña gai, adierazteko, noraño birtute, eta Santutasunera igo zan Ama miragarri au, mundu onetatik irten zaneke. Sortua izan zan Adanen bekatuaren mantxarrik gabe, eta ainbeste doayekin edertu, eta apaindu zuan ordutanik Espiritu Santuak, non beraren edertasunak garaitzen zuan Aingeru, eta

Santu guzien edertasuna. Bere sortzetik ezaguera osoarekin arkitzen zan, eta asi zan Jauna amatzen, eta amorio au unetik unera andiagoa zan, animako grazia, ta doayak andiagoak ziran eran. Nork esan, eta nork ezagutu ere, noraño ugarituko ziran Birjiña txit Santaren birtute, eta Santutasuna egun bakoitzean? Eta noraño igoko zan emen lurrean bizitu zan urteetan? Bizitu zan alabaña, geyenak erakusten duenez, irurogei, ta amabi urtetan.

Alderatu zitzayon Birjiña txit Santari deserri onetatik Zerura igotzeko denbora, eta Aingeru batek aditzera eman omen zion noiz au gertuko zan. Zabaldu zan berri au, eta naigabe andia artu zuen Kristauak, zeren Ama maitagarri au zan guzien atsegin, eta poza, eta laster au gabe ekusiko ziran; baña arintzen, eta gozatzzen zitzaten neke, ta naigabe au, oroiturik, bere Semeagana zijoala, eta izango zala beraren aldean gure bitarteko, eta laguntzalle andia. Leku guzietatik elkarren leyan bezala, joan bide ziran Kristauak beraren azkeneko bendizioa artzera. San Juanek, Jesusek gurutzetik aditzera eman ziona egiteko, ezin utzi zezakean, Birjiña txit Santa azkeneko ordu oetan. Beste Apostoluak urrutietan zebiltzan Jesusen berriak ematen, eta askoren. iritzian mirariz arkitu ziran, Santo

Tomas ez besteak, Jerusalemen. Aditzera eman ziezten Elizaren gobernuari zegozkan asko gauza: alaitu zituan beren egitekoan ari zitezen gogo, eta biotz andiarekin eta agindu zien Kristau guziaz bere laguntza. Erazeki ziran argiak, eta negar egiten zuen guziaz. Irten ziran Aingeru guziaz Zerutik, Birjiña txit Santari arako bidean laguntzera. Ekusi zituan, nola zetozen; orduan, lenaz gañera, erazeki zitzayon Jau-naren amorian: eta aldegin zuan erbeste onetatik. Bereala bete zuan gela, eguzkiak baño geyago distia-tzen zuan, argi batek. Etxe artan zeuden guziaz, eta era berean Jerusalemen, eta inguruan bizi ziran Kris-tauak onratu zuen Ama maitagarri onen gorputza, Jaungoiko-gizonaren denbora bateko bizilekua bezala. Ara joan ziran, eri guziaz sendatu ziran, eta S. Juan Damaszenok dio, Juduak berak ere etzirala geratu Bir-jiña txit Santaren ontarte, eta mesedeak dastatu, edo progatu gabe. Elizako gurasoetatik batzuek ezin sinis-tu zuen, il zala Birjiña guziz Santa, eta oetatik bat izan-zan S. Epifanio: zerren eriotza dan bekatuaren saria, S. Pablok dion bezala, eta Birjiña txit Santak etzuan izan bekatuak, ez jatorrizkorik, ez berak egiñik, ez andirik, ez txikirik. Gañera, izanik Birjiña au Jaungoiko beraren Ama, nola sinistu diteke eriotzaren mendean

utzi naiko zuala bere Semeak? Alaere Elizaren iritzia da, egiaz il zala; baña Elizaren gurasoak dioe, Maria-ren eriotza etzala izan, gurearen eran, bekatuaren ondorena, eta pena; etzuan alabaña izan bekaturik: baizik il zala, zeren Jaunaren naya zan Adanen ondorengo guziak eriotzaren nekea igarotzea. Il zan Jesus bekaturik ezin izan bazezakean ere: eta era berean il zan beraren Ama ere; baño etzan il eritasun, edo gaitzen bategatik, baizik Jaungoikoaganako ongi nai, eta amorioaren indarrez. Orregatik esan zuan S. Ildefonso: edo ezuala il bear Birjiña txit Santak, edo il bear zuala Jaunaren amorioz.

Ez dago erabakia, non obira zuen; baña S. Juan Damaszenok dio, Jerusalenen il zala, len esan dedan bezala, eta Getsemanin obiratu zuela. Eraman zuen obira, eta an ipiñi zuen Aingeruak, eta Apostoluak kantantzen zuela beraren onran. Iru egunez aditu ziran an Aingeruen soñu, eta kantak, eta Apostoluak gau, ta egun txandaka gorde zuen obia. Irugarren egunean geratu ziran osotoro Aingeruen kanta, eta soñuak eta denbora artan agertu zan an Santo Tomas. Oni erakusteko Birjiña txit Santaren gorputza, kentzen due obia estaltzen zuan arria, eta ekusirik, an zeudela, ipiñi zitzaizkan zapiak, eta oek usai gozoa alde

guzietara zabaltzen zuela, baña etzegoala gorputzik; arrituen eran geratu ziran, eta sinistu zuen, etzuala nai izan Jesusek bere Ama maitagarria geratzea obian usteltzen, eta arren bazkatzat, baizik piztu, eta eraman zuala beregana. Au da Elizako gurasoen iritzia, eta Eliza guziarena ere bai. S. Agustiñek dio: izutzen naiz, Birjiña txit Santa arren mendean geratu zala gogoratze utsarekin: *Perhorresco*.

Baña nork adirazi, Birjiña txit Santa, piztuta Zerura jaso, edo altxatua izan zanean, nola onratua izan zan? Irten ziran Zeruko Aingeruak, S. Bernardok dienez, Birjiña txit Santari Zerurako bidean laguntzera: irten zan Jesus bera ere, eta eman zion bere besoa Ama maitagarriari, eta Semearen besoan berea ipiñirik asi zan Zerura igotzen. Añ ederki apaindua, eta alako eran argi egiten zuala zijoan, non arriturik elkarri galdetzen zioen Aingeruak: Nor ote da munduko basotik, Jesusen besoan berea ipiñirik, onenbeste onra, eta atseginegin igotzen dan andre au? *Quae est ista, quae ascendit de deserto, deliciis affluens, innixa super dilectum suum?* (Cantic. 8). Aingeruetatik milloyak, eta milloyak zijoazen Manaren igoera onetan, batzuek aurretik, besteak beraren inguruan: elkarren leyan jotzen zituen soñu gozoak, eta kantatzen zituen

Birjiña Mariaren alabanzak. Atrebituko naiz esatera, dio S. Pedro Damianok: *Audacter dicam*: igoera au Jesusena baño ere askoz onra, ta gloria geyagokoa izan zala; zeren Jesusen besoan berea ipiñirik igo zan Maria, baño Jesus igo zanean Aingeruak bakarrik bidera irten zitzaizkan. Au aditzen da, uzten degula alde bat Jesusek Jaungoiko-gizonak bezala berekin duan, onra, eta gloria: *Salva filii majestate*.

Eta Zerurako igoeran gisa onetan onratua izan bazan, zer izango zan zori oneko erri artara igo ezke-ro? S. Pablok an egon ondoan, etziakian, zer esan, eta arriturik zegoanak bezala, esan zuan: ez begiak ekusi, ez belarriak aditu, ez gizonak iritsi du, nolako ondasu-nak prestaturik dauzkan Jaunak bere adiskide, ta ser-bitzarientzat. Eta ondasun añ miragarriak prestatu bazituan, bera amatzen duen guzientzat, zer etzuan egingo bere Ama maitagarriarentzat? Ama onek baka-rrik Aingeru, eta doatsu guziak baño geyago amatu zuan Jaunak, nolako onrak, eta ondasunak etzitan bada prestatuko Ama onentzat? Il zan unean bertan, atsegin-kontentuen sari añ ugaria eman zion beraren animari, non doatsu guziena bat eginda ere, ezer ez dan Ama miragarri onen animak artu zuanaren aldean: eta animak artu zuan sari oni zegozkan beza-

lakoak izan ziran piztuta Zerura igo zanean izan zitu
onrak. Jaso zuan, doatsu, eta Aingeru guzien tokiak
baño askoz gorago, S. Agustiñek dion bezala: eta bere
Semearen eskuyean ipiñi zion bere Trono, edo jarle-
kua. Trinitade guziz Santak egin ziozkan agur, eta
ongi etorriak nork adirazi bear bezala? Aita betikoak
begirutzen dio bere alabarik maiteenari bezala:
Semeak bere Ama guziz maitagarriari bezala: eta
Espiritu Santuak bere jauregi, eta bizileku beste
guzien artean ederrenari bezala. Atoz, esaten dio Tri-
nidade txit Santak; atoz zure goyende, edo dignida-
deari, eta zure santutasunari dagokan koroa artzera:
Veni, coronaberis (Cantic. 4). Izan zaite Aingeruen, eta
gizonen Erregiña: zure santutasunaren modu ederra-
kin gia-itzatzu gauza guziak, eta betiraunde guzian
erregiña-ezazu Aingeruetan, eta gizonen biotzetan:
*Specie tua, et pulchritudine tua intende prospere pro-
cede, et regna* (Psalm. 44). Eman zion, dio S. Ansel-
mok, esku guzia Zeruan, eta lurrean: ta ez da Birjiña
onek ez dezakean gauzarik: alaitu ditzake alabaña
gogaiturik bizi diran bekatariak berak ere, eta piztu
dezake oen biotzetan Zeruarien uste, edo esperanza:
*Nihil impossibile, cui possibile est relevare in salutis
spem desperantes*. Eta S. Pedro Damianok dionez,

Manaren eskuetan ipiñi zituan Jaunak bere Urrikaltasun, edo Miserikordien gordairuak. Orregatik esaten dio S. Agustiñek: Zu zera pekatarien uste, edo esperanza bakarra: zure bidez uste degu bekatuen barkazioa, eta zugar ipintzen degu geroko sariaren esperanza. Orra, nere Kristaua, gaurko Misterio andia, eta oni dagozkan gauzak. Au guzia aditu, eta ez gera esnatuko Ama maitagarri au onratzeko? Baña zer ote da guk onetarako egin bear deguna? Au da orain ekusi bear deguna.

§ II.

Aditu dezu, Kristaua, Birjiña txit Santa, Jaungoikoaren, eta gure Ama maitagarria, il bazan ere Jaunaren naya egiteko, etzala obian geratu usteltzen, baizik laster piztu zala, eta bere seme, ta Zeruko Aingeru guziakin igo zala Trinitade guziz Santaren aldera. Aditu dezu nola onratua izan zan. Egin zuan Aingeruen, eta gizonen Erregina: eman zion Zeruan, eta lurrean esku guzia, eta beraren eskuetan ipiñi zituan Jaunak bere, Urrikimentu, edo Miserikordien ondasunak. Sinisten degu au, eta Ama maitagarri au ez degu onratuko?

Onetarako lenengo lekuan jayera andiarekin deitu bear diogu gure premietan. Bigarrena era berean esan bear da Errosario Santua, bada berak erakutsi zion Santo Domingori, herejeak, eta bekatariak Zerurako bidean ipintzeko. Irugarrena, beraren onran sarritan artu bear dira Sakramentuak, eta enzun bear da Jaunaren itza. Jaungoikoarena danak, enzuten du Jaungoikoaren itza, dio Jesu Kristok: argatik ez dezue zuek enzuten, zeren Jaungoikoarenak etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis* (Joan 8). Laugarrena, aldegin beraren onran bekatutik, batezere garbitasunaren kontrako itzegite, eta modu lotsagarrietatik. Atzenean, beraren onran utzi bear ditugu bekaturako bide, eta perillak; bestela zer onra eman-go diogu Birjiña txit Santari, baldin gudan danez berriro gurutzean ipintzen ari bagera beraren Seme maitagarria, S. Pablok dion bezala?

O Ama guziz maitagarria! Berandu bederik, erabaki degu zu era onetan onratzea, eta zugana gatzogure otoiz, edo erregu umillak Eliz Ama Santarekin egitera.

Agur Aingeruen, eta gure Erregiña, Misericordiazko Ama! *Salve Regina, Mater Misericordiae*. Zeruko Erregiñak bezala guzia dezakezu, eta zure eskuetan

ipiñi ditu ondasun guziak: eta Ama Urrikaritsu, edo Miserikordiazkoak bezala, gure alde egin nai dezu, al dezun guzia, nolako uste, edo esperanza ez degu zugaran ipiñi bear?

O! Birjiña guziz Santa! zure aurrean gaude gaur, gure eskergabekeri, eta bekatuen lotsaz beteak alde batetik, baña alaitzen gaitu zugaran artu degun uste, edo esperantzak, eta Elizarekin diogu: *Agur, vicitza gozo, eta esperanza gurea! Vita, dulcedo, et spes nostra: salve.*

Gu gera Ebaren ume deserrituak: galdu ginduan gure lenengo ama onek, eta erbeste onetan bizi gera, aren bekatuaren ondoren samiñak aunatzen gaituela; baña zu zera Jaungoikoaren beraren Ama, eta denbora berean gurea ere bai, eta eman dizu Jaunak, gure nekeak arintzeko esku guzia. Zuri deyez gaude bada Ebaren ume deserrituak negarrez, eta adiaz zugarana suspiratzen degu negarrezko ibar onetan: *Ad te clamamus exules filii Evae: ad te suspiramus gementes, et flentes in hac lacrymarum valle.*

Norgana joan al gaitezke, zugarana baizik, o Maria! Ea bada bitarteko gurea, zure begi urrikaritsu oriek biurtu itzatzu gugarana: *Eja ergo, advocata noslra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte.*

Emengo neke, eta gurutzeak, ta emengo premiak arintzea, ta gozatzea, nai degu, baña askoz geyago, gure egunak ongi bukatzea, eta zure Seme Jesus mai-tagarria betiraunde guzian ekustea, eta zurekin batean alabatzea. Erakuskuzu bada deserri onen ondoren Jesus zure sabeleko frutu bedeikatua: *Et Jesum benedictum fructum ventris tui nobis post hoc exilium ostende.*

O guziz beraa! o Piadosa! o Maria Birjiña gozoa! erreguezazu, gugatik, Jaungoikoaren Ama Santa, zure Seme Jesusek agindu digun betiko bizitza iritsi dezagun. Amen.

AMARGARREN ERAKUSALDIA

Birjiña kuit santaren jayotzaren gañean.

*Jacob autem genuit Joseph, virum Mariae
de qua natus est Jesus, qui vocatur Cristus. Mathei 1.*

Iru jayotzari bakarrik pozaldi, edo festibidadea egin oi die Eliz Ama Santak. Egiten dio lenbizia Jesus maitagarri Jainko-gizonaren Jayotzari, guzior Salbatzallearen jayotzari dagokan bezala. Egiten dio urrena Jesusen etorreraren berri onak ematera Jesusen aurretik etorri zan S. Juan Bautistaren jayotzari. Egiten dio irugarrena, eta egiten dio S. Juan Bautistaren jayotzari baño askoz bide geyagorekin zori oneko Jesusen Ama maitagarriaren jayotzari. Jayotza onetan atsegin pozez beterik Eliz Ama Santa deyez asitzen zayo Birjiña txit santari, esaten diola: Zure jayotzak, Birjiña Jainko beraren Ama, atsegin pozez bete du mundu guzia. *Nativitas tua Dei Genitrix Virgo, gaudium annuntiavit universo Mundo.* Jayotza onen gañean bada nere enzunleak zeña zuek beneratzen, eta alabatzen dezuen atsegin pozez beterik itzegin biar dizuet gaur; baño lenago, Aita Santu Benedikto XIII agintzen digun

bezala doktriñako puntutxobat ukitzera noa. Izan bedi bada, gaurko gure doktrina Birjiña txit Santari zor zayon benerazioaren gañean.

Iru benerazio mota erakusten ditue Teologoak. Lenbizikoa da Jaungoikoari bakarrik ematen diogun benerazioa, Teologoak S. Agustiñekin *Latria* deitzen dioena. Benerazio au ematen diogu Jaunari gauza guzien Egille andi, ta Jauna dalako ezagueran. Bigarren benerazio mota da Santuai ematen diogun benerazioa, *Dulia* Teologoak deitzen dioena. Benerazio au ematen diegu Santuai Jainkoaren adiskideai bezala, gure bitartekoai, eta Espirituaren tenploai bezala. Argatik benerazio au Jaunari ematen diogun benerazioa baño askoz txikiagoa da; beneratzen degu alabaña Jainkoa gauza guzien Egille andia, eta Jauna bezala; eta Santuak, ez Jainkoak balira bezala, baizikan Jaungoikoaren adiskideak, gure bitartekoak, eta Espiritu Santuaren tenploak bezala. Irugarren benerazio mota da Birjiña txit Santari ematen diogun benerazioa, *Hyperdulia* Teologoak deitzen dioena. Benerazio au aurreneko bien bitartean arkitzen dan benerazioa da, alde batetik alabaña askoz, eta askoz txikiagoa da Jainkoari ematen diogun benerazioa baño, bestetik andiagoa da beste Santuai ematen zaten benerazioa

baño. Badakit Birjiña txit Santari, eta berebat Santuai ematen diogun benerazioaren kontra asko daraustela herejeak, eta Birjiña, eta beste Santuak Jainkotzat adoratzeko bagindu bezala, idolatrak guri deitzerañoko ausardia duela. Nolabait engañatu bear beren ikasleak.

Baña guk aitortzen diegu biotz osoz Jainko bakar bat dala: aitortzen diegu Santu guziak, eta Birjiña txit Santa bera ere ezpalira bezala dira Jaunaren anditasun baztergabekoaren aurrean. *Omnes gentes quasi non sint, sic sunt coram eo*: aitortzen diegu S. Agustinekin, Jainkoari ematen diogun benerazio andi *Latria* deitzen zayona Jainkoaz osterontzean iñori eman bear etzayola. *Illo cultu, qui graece Latria dicitur, nec colimus, nec colendum docemus, nisi unum Deum*. Baña diogu S. Agustin berarekin, diogu Eliz Ama Santarekin beneratu bear dala Birjiña txit Santa, ez ekiaki Jainkoa baliz bezala, (au litzake alabaña anziñako hereje Kolidianoen herejia) baizikan Jainkoaren Ama bezala, baizikan Santa guzien Erregiña bezala, baizikan Jesu-Kristoz ozterontzean gure Bitartekorik andiena bezala. Benera dezagun Jainkoaren Ama, dio Nizeako Konzilio II, ez Jainkoa bezala, baizikan Jainkoaren Ama bezala.

Sanctam quoque Genitricem adoremus, non tanquam Deum, sed tanquam Dei Mater, secundum carnem.

Benerazio au ematen diogu Birjiña txit Santari lenbizia: gerengan aitortzen degula, ta sinisten Jainkoaren Amatzat; Santu guzien, ta Aingeruen Erregiñatzat: Bigarrena, beste Santuetan baño uste geyago degula beraren bitartekotasunean. Irugarrena, beraren Letaniak esanaz, eta berari gure bitarteko andiari bezala erregutzeaz. Laugarrena, beraren imajiñai agur, ta erreberenzia egiñaz. Baña kontu emen Trentoko Konzilioak erakusten digun dotriñarekin. Beneratu bear dirala dio Konzilio onek Birjiña txit Santaren imajiñak, (baita beste Santuenak ere): imajinai ematen zaten benerazioa igarotzen da alabaña, edo zuzentzen da Birjina beragana. Baña Konzilio berak erakusten digu ezdala uste izan bear, askok bear bada uste duen bezala, Mariaren imajiñetan arkitzen dala mesedeak egiteko esku, edo birtuteren bat. Imajiñak alabaña, ez dira beste gauzatarako, ezpada Zeruan dagoanaz oroi gaitezen.

Jauna, esango dit norbaitek, ni oraindaño uste orretan bizitu naiz, eta uste onekin nik, eta beste askok lenago promesak egiten diozkagu Ama Birjiña Aranzazukoari, beste imajiñai baño. Baldin ustea ipiñi

badezu Aranzazun arkitzendan imajiñan, gaizki ipiñia da; eta jakin bear dezu, bestea (baldin gauzen zerbait berri badue) Ama Birjiña Aranzazukoari, edo besteren bati promesak egiten diozkeenean, ez duela bere ustea imajiña edo bulto artan ipintzen, baizik Zeruan argitzen dan Birjiña beragan. Jauna; beraz diona egia bada; edo imajiñak ezpadue mesedeak egiteko esku, edo birtuterik batere, alferrik da, edo obeto esateko, zorakeria da, Aranzazuko, edo beste tokiren bateko imajiñai promesak egitea. Ez orrelakorik. Zergatik Birjiña txit Santak imajiña bataren bitartekotz askotan mesedeak egiten ditu, beste imajiñen bitartekotz egiten ez dituanak. Zergatik egiten duan au, ori ez da gure kontuko gauza.

Bigarrena; Trentoko Konzilioak erakusten digu, Birjiña txit Santaren imajiñai, eta orobat beste Santu guzientz, etzateela erregutu bear, etzateela ezer eskatu bear; imajiñak alabarria ez due gure erreguak aditzeko belarrik. Jauna, esango du arriturik norbaitek; Jauna, nola izango da, baldin guziok Mariaren imajiñai erregutzen, eta mesedeak eskatzen egoten bagera? Guziok egoten gera erregutzen, egia da, imajiñen aurrean, baña ez diogu erregutzen imajiñari, edo bultuari, bazik Zeruan arkitzen dan Birjiña txit Santari,

zeñaz imajiñak oroi erazten gaituan. Au da Konzilio Trentokoak gauza onen gañean erakusten digun dotriña; doktriña bear bada zenbaitentzat premiazkoa. Goazen orain Birjiña txit Santaren jayotza doatsuaren gañean itzegitera. Birjiña guziz Santa! indazu zure grazia, ta laguntza neretzat goyegia dan lan onetarako, bada eskatzen dizut zuk ainbeste nai dezun Aingeruaren agur andiarekin *Abe Baria*.

Jacob autem genuit Joseph, virum Mariae de qua natus est Jesus, qui vocatur Christus. Mathei 1.

Jakob izan zan Joserren Aita, Jose Mariaren esposa, zeñagandik jayo zan Jesus, Kristo deritzana, dio gaurko Ebanjelioak. *Jacob autem genuit Joseph virum Mariae de qua natus est Jesus, qui vocatur Christus.* Au da Ebanjelistak Mariaren jayotzaren, eta bizitzaren gañean itzegiten duen guzia. Zer da au, Ebanjelista Santuak? esaten die S. Tomas de Villanuevak Mariaren jayotzako sermoyan; zergatik Mariaren jayotzako gauza miragarriak aditzean artuko gendukean atsegin kontentu andia ukatzen diguzue? Zergatik gauza onen atsegin pozgarriak, ainbeste ansiaz deseatuak isillik uzten dituzue? *Cur tanto nos gaudio privatis? Cur ha tan laecta; et desiderata conticuistis?*. Alaere, dio San-

tuak, isillik uzten dituen gauza guzien ordain da (eta askoz geyago), Mariari Jesusen Ama dala esatean, ematen dioen alabanza. *De qua natus est Jesus*. Zeren baldin Maria bere jayotzan bada Jaunak berak bere Amatzat eternidadetik auturikako aur doatsu ura, zeñagandik jayo bear zuan, eta jayo zan Jesus, zer nolakoa izango da jay otza au? Zenbat santidadez, graziaz, doayez, birtutez betea? Zein atsegin poz andikoa Mundutar gaixoentzat? Zuek, uste det, nere enzunleak, ansia andiarekin gauza oek aditu naiko dituzuela, eta nik, gauza oek berak nolaere bait zuei adirazteko, diot: *Mariaren jayotza da: Jaicoarentzaco guciz Santa; Manduarentzat guciz atseguin pozgarria*. Ona emen, gaurko nere itzegiteko gai guzia.

§ I.

Mariaren Jayotza da lenbizia Jainkoarentzako, eta Jainkoaren begietan guziz Santa; au da, Jaunaren graziaz, birtutez ta doayez betea. Birjina txit Santa ezin geyagoraño Zeruko graziaz, doayez ta birtutez betea, ta edertua izan zala ezin ukaditekean, eta Elizako Doktoreak argiro erakusten diguen gauza da. Ezin

asma diteke, dio S. Anselmok, Jaunarenaz osterontzean, edo Jainkoarena ezpada Birjiña onen Animako edertasuna baño ederragorik. Ondorik ez duan itsasoa adinakoa da Mariaren grazia, dio S. Juan Damaszenok; eta S. Epifaniok, numero, ta neurri guziak baño andia goa. Aingeruari, eta Santuai, dio S. Buenabenturak S. Jeronimorekin batean, Aingeruari, ta Santuai, ta beste gañerako guziaz puskaka eman die Jainkoak bere grazia, baña Jesusen Amari eman zion zegokanari bezala, graziaren betetasun guzi-guzia. *Ceteris per partes praestatur, Mariae vero simul se tota infudil gratiae plenitudo.* Doktore Santu oek, egia da, ez duela izendatzen Mariaren jayotza, sortzea, edo beste denborarik, baña oen esan oriek Mariaren jayotzari dagozkanak dira; graziaren betetasun edo ugaritasun au guzia Mariari ematen diok, zeren Jainkoaren Ama izateari ala dagokion, edo zeren Maria dan arako Jainkoaren egitura eder-miragarri ura, zeñagandik jayo zan Jesus Jainko gizona, *Maria, de qua natus est Jesus,* eta Birjiña txit Santa bere jayotzako puntuan ere zan Jaunak bere Amatzako eternidadetik autu zuan aur eder-miragarria: zan Jainkozko imajiña eder ura, zeñagandik jayo bear zuan, eta jayo zan Jesus. *Maria, de qua natus est Jesus.*

Gauza au, bear dan eran sinisteko, edo beintzat zein sinisgarria dan ezagutzeko, jakin bear da, gure Jainkoak norbait autzen duanean karguren baterako, ez diozkala ukatzen karguari dagozkan grazia, doai, eta birtuteak. Jainkoak zerbaitetarako autzen dituanak, prestatzen ditu, dio S. Tomas Aingeruak, autzen dituan kargurako egokiak egiten dituan moduan. *Quos deus ad aliquid eligit, ita praeparat, ac disponit, ut ad id quod eliguntur, invenientur idonei.* Argatik S. Juan Bautistari bere jayotzatik eman ziozkan ainbeste grazia, doai, eta birtute, zeren autu zuan bere prekurso-retzat. Argatik S. Pedrori ainbeste konstanzia, zeren autu zuan Eliza guziaren burutzat. Argatik ainbeste Fedearen zelo S. Pablori, zeren autu zuan Fedearen zabaltzalletzat. Emendik, baldin Birjiña txit Santa bere jayotzan (baita bere sortzean ere) auturik arkitzen bada Jainko beraren Amatzat, ezin ukatuko diozka Jau-nak dignidade, ta exelenzia oni dagozkan grazia, doai, ta birtuteak. Baña, nork, nere enzunleak, nork adiera-zi, nork ezagutu ere zein andiak, zein ugariak izan bear duen Jainkoaren Ama izateari dagozkan Zeruko grazia, doai, eta birtuteak? Galde bekie Doktore San-tuai zer dignidade zer exelenzia dan Jainkoaren Ama izatea? Batzuek erantzungo due miragarri guzien

artean miragarri andiena, ta berriena dala. *Miraculum miraculorum omnium*; besteak, Jainkoaz osterontzean asma al ditekean goitasun, eta exzelenzia guziak igarotzen eta garaitzen dituala. *Hoc unum, quod Dei Mater est, excedit omnem altitudinem, quae post Deum cogitari potest.* Galde bekie zenbait Teologori, eta ardura gabe erantzuten due: Jainkoaren Ama izatea dignidade ta exzelenzia baztergabekoa dala. Galde bekio Teologo guzien buru S. Tomas Aingeruari ere, eta erantzungo digu, eraren batera bazterrik, edo mugarik ez duan dignidadea dala Amatasun au. Birjiña doatsuak, dio Santuak, Jainkoaren Ama danez, nolerebait bazterrik ez duan dignidadea du; zeren bazterrik gabeko on, edo ontasuna dan Jainkoa, zeñaren Ama dan: eta alde onetatik ezin egin diteke gauza obe-goyago, ta miragarriagorik. *Beata Virgo, ex hoc, quod est Mater Dei, haber quamdam dignitatem infinitam, ex Bono infinito quod est Deus, el ex hac parte non potest aliquid fieri melius.*

Ongi: eta Jainkoaren Ama izatea dignidade, eta exzelenzia onen goi miragarria bada: eta beste aldetik S. Tomas Aingeruak dion bezala, Jainkoak karguren baterako aututzen dituanak prestatzen baditu karguari dagozkan grazia, doai eta birtuteakin, izanik Birjiña

txit Santa dignidade, ta exzelenzia onetarako autua eternidadetik, zenbat santidade, zenbat grazia, zenbat doai, eta birtute izango zituan bere jayotzan? Gogora ekartzue zuek, nere enzunleak, eta zuek au gogoan darabiltzuen bitartean, nik uste det Aita Suarez jakintsuarekin: Mariak bere jayotzan, ta lenagotanik ere zituan Santutasun, grazia, doai, ta birtuteak geyago, ta ugariagoak zirala izan diran, ta izango diran Santu, ta Santa guzien Santutasun, grazia, doai, eta birtuteak baño: geyago, ta ugariagoak Zeruko Serafin, Tronu, eta Aingeru guzienak baño. Zeren oek guziak batean ipiñi arren Jainkoaren Ama izateak duan exzelenzia ta dignidadeagandik urruti arkitzen dira.

Ipiñi hitez alde batetik Lege zarrean, ta berrian izan diran Santu, eta Santa guziak. Ipiñi bitez arako Sara aek, Jael aek, Judith aek, Ana aek. ipiñi arako Abraham leyal aek, Jose konstante aek, Dabid urrikalsu aek. Ipiñi Erriak, ta erreinuak, España, Italia, Frantzia, Grezia, India, Jaunaren Legera zituen Apostoluak. Ipiñi Jesu-Kristogatik mundua beren odolez umandu duen Martiri guziak. Ipiñi, Jauna osotoro serbitzeagatik, mendi urruti, ta bakardadeetan bizitu diran eremutar guziak. Ipiñi paret artean Aingeruen erako bizi-tza eder garbi bat egin duen Birjiña guziak. Ipiñi Reli-

jioen fundadoreak beren seme guziakin, S. Benito, S. Agustin. Santo Domingo, S. Franzisko, S. Bruno, S. Ignazio ta beste guziak. Altxa orain animaren begiak Zeru Enpireoraño, ezin konta al dira Aingeruak, eta dan txikienak santidade, grazia, doai, ta birtute geyago du Santurik andienak baño. Ipiñi bitez Aingeru beenekoak, erdikoak, eta goyenekoak. Nork adierazi, zein andia izango dan ainbeste Santu, ainbeste Aingeruen Santidadea? Nork adierazi norañoakoak izango diran oen guzien grazia, doai eta birtuteak? Baña ipiñi bedi beste aldetik arako Jaunak bere Amatzat eternidadetik arturik jayotzen dan aur eder miragarri ura. Ez ote da aur au bakar bakarrik Santuen eta Aingeruen eskuadra oriek guziak baño ederrago? Ez ote du, oriek guziak baño Santidade, grazia, doai eta birtute geyago ? Egiaz ni erraz engañatu naiteke, baña uste det asko gizon jakintsurekin, Santu guziak, Aingeru guziak, dignidade, ta exzellenzian garaitzen dituan bezala, era berean garaitzen dituala animako edertasunean, grazia, doai, ta birtuteen ugaritasunean. Uste det, Jaunak ederrago deritzala bere Ama izateko mundura agertzen dan aur eder miragarri oni, Santu guziai, ta Aingeru guziai baño. Ezin konta al dira nere serbitzari oek guziak, dio Jaunak. *Adolescentularum*

non est numerus; baña au bakarrik da nere ederra, dio aur onegatik; au bakarrik santidadez, graziaz, doayez ta birtutez osotoro betea. *Unica est columba mea: perfecta mea*, Emendik, izanik Jaunaren begietan aur zori oneko au onen ederra, onenbeste graziaz, doayez, ta birtutez betea, aur au, edo Mariaren jayotza da Jainkoarentzako, edo Jainkoaren begietan guziz Santa. Au da aurrena adierazteko artu genduan gauza.

§ II.

Mariaren jayotza Jainkoaren begietan guziz ederra guziz Santa, izateaz gañera, da mundu guziarentzat guziz atsegin pozgarria. Gure jayotzak, baldin fedea-ren begiak in begiratzen badiegu, ez dira ez atsegin pozgarriak, baizikan negargarriak: jayotzen gera alabaña Adanen bekatuan irabiotuak: jayotzen gera gaitzerako griñaz geran guziok beteak; jayotzen gera Jainko beraren etsayak, eta etsai galgarriaren mendeko anima galduak. Ez da egiaz ez, Mariaren jayotza gisa onetako jayotza doakabe-negargarria; jayotzen da alabaña Adanen bekatuaren loyak batere ukuitu gabe, jayotzen da ekusi degun aina graziaz, doayez,

eta birtutez edertua. Eta, au ez da biderik asko Maria-
ren jayotza mundu guziarentzat atsegin pozgarria iza-
teko? Biderik asko da, bai, munduak ondo ezagutzen
balu zer gauza dan Adanen bekatuaren loyak ukuitu
gabe jayotzea: eta jayotzea ainbeste Zeruko graziaz,
doayez, ta birtutez edertua, eta apaindua. Baña nola
ongi ezagutzen ez ditugun gauz oek, ez da guretzat
ain atsegin poz andikoa alde onetatik. Guziz atsegin
pozgarria da mundu guziarentzat, zeren munduak ain-
beste sekulan ansi andiarekin uste zuan Salbatzallea-
ren Amaren jayotza dan.

Bai, nere enzunleak, bay; Mariaren jayotza guziz
atsegin pozgarria da mundu guziarentzat, zeren Sal-
batzallearen Amaren jayotza dan. *De qua natus est*
Jesus. Adan, gure lenbiziko gurasoak Jaunarekikoa
galdu zuanetik Mariaren jayotzara lau milla eta geya-
go urteren arrastoa zan. Denbora onetan guzian Sal-
batzallearen berria izan zuen munduan askok; izan
zuen Patriarkak, izan zuen Errege askok beintzat. Izan
zuen Profetak ere; eta Munduak oen ezpañaz ansia
guziz andiarekin deitzen zion bere Salbatzalle oni.
Adan gizagajoak beti begien aurrean zeuzkala bere
zorakeriaz bere buruari, ta ondorengo guziai egin ziez-
ten kalte arrigarriak, oek guziak erremediatu nayaz,

deituko zion egiaki guzien ordez, deituko zion bein da berriz, ta askotan ere, deituko zion egun oro goiz arrats, da, nork taki zenbat aldiz? Deituko zion bere bat Abrahamek ere, deituko zion, eta deitu zion Jakob, onen semeak ere. Salbatzallea ekusteko ansiaz noa ni mundutik Abrahamen Linbora esaten zien Jakobek bere umeai iltzeko puntuan; an egon bear det nik, eta egon bear due ongi ill guziak, Salbatzalle au datorkigun artean. *Salvatorem meum expectabo*. Noiz artean, Jauna, esaten zion Dabid Santuak ere Jaungoikoari, noiz artean egongo zera geldirik, ta gugana etorri gabe? Egizu Jauna, gaurdanik, ta luzatu gabe, egiteko zauden zere lan andia: esnazazu zure Eskuguzialdun ori, eta atoz, atoz guzien Salbatzallea. *Excita potentiam tuam, et veni*. Era onetan bertan Jaunari agertu ziozkan Munduak bere Salbatzallea ekusteko ansia arrigarriak Profeten ezpañaz. Oen artean Isayasek adierazi zuan, izango zala denboren buruan Birjiña bat aur dun gizonik gabe. Birjiña au erdiko zala, eta izango zuala seme bat Birjiña gelditzen zala. *Ecce Virgo concipiet, et pariet filium*. Au era askotara adierazirik, asitzen zate Zeruai otsez, esaten diela: zertan zaute, Zeruak, orren legorrak? Noiz urtu bear due zuen odehyak? Noiz Espiritu Santuak odei egiñik egin-

go du Birjiñ Amaren lur garbian bere birtutez egiteko dagoan lan andia? Aitu bedi, aitu bedi noiz ere bait, Zeruak, zuen legortasua ori. *Rorale Caeli desuper*. Bial ezazue odehyak, guk ainbeste ansiaz uste degun gure Salbatzallea. *Et nubes pluunt justum*. Ansi oekin, nere enzunleak, igaro zituan mundu doakabe onek lau milla eta geyago urte gure Salbatzallearen ustean. Orain, nork adieraziko du onenbeste ansiarekin bere Salbatzallea uste zuan munduarentzat, zein atsegin pozgarria dan Salbatzallearen Amaren jayotza? Ez egiaki nik beintzat; ni kontentu gelditzen naiz esatearekin, Mariaren jayotza guziz atsegin pozgarria dala mundu guziarentzat; zeren ainbeste sekulan ansia andiarekin uste zuan Salbatzallearen Amaren jayotza dan. *De qua natus est Jesus*.

Egia au are obeto ezagutuko degu, zer gisatan deitzen Eskritura Santak Jesus gure Salbatzalleari, eta zer gisatan Mariari kontuz begiratzen badegu. Jesus gure Salbatzalleari deitzen dio Eskritura Santak Eguzki alde guzietara argi egiten duana; *Sol illuminans per omnia*. Salbatzallearen Amari bere jayotzean deitzen dio Eskriturak, edo Aingeruak; Eguzki Jainkozko onen aurretik agertzen dan argia edo eguantza. Zein ote da, ekiten dioe elkarri Aingeruak ekusirik Salbatzallea-

ren Ama jayotzen; zein ote da onako eguantzaren eran agertzen dan au ? *Quae est ista, quae progreditur quasi aurora consurgens?* Emendik naita ez guziz atsegin pozgarria izan bear du Salbatzallearen Amaren jayotzak mundu guziarentzat. Au ongi ezagutzeko gogora ekartzue zein era negargarrian arkitzen zan mundua Mariaren jayotzan; bekatuaren illuntasun izugarriak zein estalia. Israel-darrak ez besteak geyenak Jainkoa utzirik fedegabetasunaren gau illunean bizi ziran. Guziak atera ziran, dio Dabid Santuak, Zeruko bidetik; guziak galdu ziran Jainkoarentzako, ta Zerurako; etzan guzien artean gauz on bat egiten zuanik, bear bezala beintzat. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt; non est qui faciat bonum, non est usque ad unum.* Argatik zabaldu zuan bai, ta ongi alaere, infernuak bere eztarritzar izugarria, dio Isayas Profetak; idiki zituan ezin geyagoraño bere ortzak, eunka, ta milloika irintsitzeko animak. *Propterea dilatavit infernus animam suam, et aperuit os suum absque ullo termino.* Zein era negargarrian arkitzen zan mundua Salbatzallearen Ama mundura agertzean! Bekatuaren gau beltz, eta illuntasun izugarriak guzia artua, ta estalia. Bai, dio Isayas Profetak, gauak, ta illuntasunak estalia arkitzen zan mundua, eta itsuturik

jende guziak. *Tenebrae operiebant terram et caligo populos.*

Esan gidazue oraiñ, nere entzunleak, onenbeste illuntasunen artean arkitzen bada mundua Mariaren jayotzan, eta onenbeste illuntasunen artean agertzen bada Maria eguantzaren eran berekin dakarrela Jesus eguzki Jainkozkoa, ez da guziz atsegin pozgarria Mariaren jayotza mundu guziarentzat? Egin dezagun kontu, mudaturik gure Zeru onen, eta Eguzkiaren mugimentua, oraiñ zenbait orduko gaua degun bezala, sartzen zakula, ez sei illabetekoa Groelandian bezala, baizikan berrogei, edo geyago urteko gau luze ikaragarri bat. Esan gidazue, baldin denbora oen guzien buruan agertuko balitzaku eguantz ederra, berekin ondoren duala Eguzkia, zeñ atsegin pozgarria izango litzake? Ez giñake egiaz Groelandian bezala kontentu geldituko eguantzari Musikaz ongi etorri egi-tearekin; igaroko giñake noaski, fedeak besterik ez erakustera, Jainkotzat adoratzeraño ere. Eta, zer luke zer ekusi zenbait urteko illuntasun oek Mariaren jayotzan mundu doakabe au estaltzen zuen illuntasunen aldean? illuntasun oek bekatuaren illuntasun ikaragarriak ziran; eta ziran ez berrogei urtean, baizikan berrogei sekulan, eta geyagoan iraun zuen illuntasu-

nak. Illuntasun ikaragarri oen artean, bada, agertzea Maria eguantz guziz eder baten eran, *quasi aurora consurgens*, bere ondoren duala guzien Salbatzalle Jesus eguzki Jainkozkoa, zeñ atsegin pozgarria izango da? Nai ta ez guziz atsegin pozgarria. Guziz atsegin pozgarria Aingeruentzat; guziz atsegin pozgarria Linboko guraso santuentzat; guziz atsegin pozgarria Purgatorioko anima gaixoentzat; guziz atsegin pozgarria guzientzat; itz batean, guziz atsegin pozgarria mundu guziarentzat; zeren munduak ainibeste sekulan ansia andiarekin uste zuan Salbatzallearen Amaren jayotza dan. *De qua natus est Jesus*. Au da bigarrena, ta atzena adierazteko artu genduan gauza.

Poztu bitez bada gure biotzak, dio S. Pedro Damiano; *Exultemus*; eta Jesus maitagarriaren jayotzan atsegin kontentuz bete oi diran bezala gure animak, bete bitez Jesusen Amaren jayotzan ere: *et sicut gaudere solemus in Nativitate Christi, ita etiam et gaudeamus in Nativitate Matris Christi*. Baña, zer probetxu aterako degu atsegin-poz onetatik, aztutzen bage-ra Mariaren santidadea imitatzeaz? Probetxurik bate-re-ez, edo obeto esateko, probetxuaren orde z kalte andiak. Argatik alferrikako gauza izan ez dedin Mariaren jayotzaren gañean predikatzea, eta festibidade au

egitea, ez degu kontentu gelditu bear zori oneko jayotza onetan poztutzearekin, ez nere enzunleak. Sayatu ere bear degu guziok Mariaren santidadea imitatzer. Mariak bere jayotzan zuan bere dignidade, ta exzelenziari zegokion santidadea; eta guk ere Mariari imitatzan diogula, gure indar, ta alegin guziakin sayatu bear degu Jaunak eman digun kargu, ta enpleoari dagokan santidadea iristera. Au da Mariak bere jayotzan erakusten eta eskatzen diguna guzioi; au eskatzen die donzellai; au ezkonduai; au gurasoai; eta errietako buruai. Gisa onetan sayatzen gerala guziok, prest arkituko degu bai Mariaren bitartekotasuna, prest beraren eskua Jaunak eskatzen digun bizitza onera igotzeko; eta prest atzenean bizitza onaren saria beti betiko glorian. Amen.

AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

Zeñ gauza gaizto, eta samiña dan, guk gure Jauna utzi izan degun eran utzitzea: eta gaurko Erakusaldi onetan adirazten da: Jaunak gizona egitean, zertako egin zuan, eta nolako doayakin ornitu zuan. Urrena, nota bekatuan erori zan, eta zeñ ondoren samiñak etorri ziran, eta datozen bekatu artatik.

*Dereliqüisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.^o*

Eliz Ama Santak ama urrikaritsuak bezala, egin da garizuma onetan, eta lenago ere alegiña gu Zerurako bidean ipintzeko: eta Pazkoaz aditzera eman digu, nola piztu zan Jesus egiaz, eta beñere ez iltzeko, zertako ote? gu esna gaitezen, eta piztu bekatutik graziaren bizitzara, egiaz, eta beñere bekatu ez biurtzeko. Alaere Kristaurik geyenak ez oi dira piztu graziaren bizitzara, eta geratzen dira bekatuan illak, batzuek, zeren biotzik ez duen bekatuaren bide, eta perillak, etxe, eta lagun gaiztoak utzitzeko; besteak, zeren lagun urkoari, edo erriari eman, edo biurtu bear zitza-

yona biurtzen ez dioen; batzuek zeren oitura gaiztoak desegiteko neurririk artzen ez duen; besteak zeren duen karguaren egin-bideai eranzuteko sayatzen ez diran. Onela dautza bekatuen obian Zeruaz etsiak bezala. Zer egin al dezakegu bekatari oekin? Zer, ezpada Birjiña txit Santa *Doloreetako*a bitarteko degula, aditzera ematea, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan gure Jaun, eta Jaungoikoa utzitzea, eta bekatuaren bideai jarraitzea. Gaur asiera sustrayetiek artzeko, aditzera emango dizut, bekataria, gizona egitean, zertako egin, eta nolako doayakin ornitu zuan Jaunak. Urrena, nola bekatuan orori zan, eta zeñ ondoren samiñak etorri ziran, eta datozen bekatu artatik. Birjiña txit Santa, gugatik penaz, eta naigabez betea, bizitza berri-on bat artu nai duen bekatari guzien Bitarteko, eta Ama gozoa, nai onekin Zugana etorri nai nuke; baña loturik naukee nere bekatu, eta griña txarrak. Lagun zaikizkit oek urratzen, eta bizitz eder bat artzen. O Ama guziz beraa! Zu zera nere bizitza, eta atsegin kontentua: zu nere esperanza. Ez gaitzatzula arren utzi. Esperanza onekin ekin degiogun, bekataria, gure egitekoari.

Gure Jaungoikoak, doatsu izateko etzuan, ez Aingeruen, ez gizonaren bearrik, beregan du alabaña doatasun guzia, eta betiraunde, edo betikotasun guzian izan da eziñ geyagoraño doatsua Aingerurik, eta gizonik gabe. Denboraz egin zituan Aingeruak, espiritu eder, eta garbiak; apaindu zituan doai miragarriakin, eta eman zien beti-beti zori onekoak izateko era guzia. Baña Luzifer buru zuela, altxa ziran asko Jaunaren Aginteren baten kontra, eta bota zituan betiko su, eta garren artera, eta an egon bearrak dira betikotasun guzian. Aingeru gaizto oek dira gure animen etsayak.

Aingeruen ondoren egin nai izan zuan gizona, eta onetarako era miragarrian prestatu zituan gizonarentzako bear ziran gauza guziak. Lenengo egunean egin zituan Zeruak, eta lurra, eta nola arkitzen ziran illunbean, egin zuan argitasuna. Egin bedi, esan zuan, argia, eta bereala agertu zan egiña. Bigarren egunean egin zuan begien aurrean dakuskun Zeru au: Irugarren egunean bildu zituan leku batera lurraren gañean zabaldurik zeuden urak, eta eman zien itsasoen izena. Agindu zion lurrari, eman zitzala loreak, belarrak, arbolak, eta bereala agertu ziran gauz oek: eta diru-

dianez irugarren egun onetan egin zuan Paradisuko berjera ederra. Laugarren egunean egin zituan eguzkia, illargia, eta izarrak. Bostgarren egunean egin zituan arrayak, egaztiak, abere, eta ganaduak. Era onetan, gizona egin baño len prestatu zituan eraz bizi-tzeko ark bearko zituan gauzak. Emen lurrean igaro bear zituan egunetarako zan Paradisua, non bizi zitekean nekerik gabe, eta era guziakin: eta emengo egunak bukatzen zituaneke, prestatu zuan Zeruko jauregi guziz ederra. Seigarren egunean esan zuan: *egin dezagun gure antzera gizona*: eta lur piska batekin moldatu zuan Adanen gorputza: ezerezetik egin zuan anima, eta emanik au gorputzari, agertu zan egiña lenengo gizona, eta deitu zion Adan. Lo zegoala, atera zion sayets.ezur bat; onekin moldatu zuan Ebaren gorputza, eta ezerezetik egin zuan anima. Eman zion au gorputzari, eta geratu zan egiña lenbiziko emakumea, eta eman zion izena Eba. Oek dira lenengo gizona, eta emakumea, eta bi oetatik due beren jatorria munduan izan, eta izango diran gizon, eta emakume guziak.

Zertako egiñ ote zuan Jaunak gizona? Egin ote zuan emengo ondasunen ondoren ibiltzeko? Ez; zan alabaña lurreko gauza guzien Jaun, eta jabe, eta etzuan ezeren billa ibilli bearrik. Egiñ ote zuan aragia-

ren atsegiñ lotsagarrien ondoren bere burua aunatze-ko, eta zikintzeko? are gutxiago. Zertako egin zuan bada? Egin zuan bera ezagutzeko, amatzeko, eta berarekin batean Zeruan doatsu izateko. Au da gure siniste, edo fede onak erakusten diguna, eta siniste onek kuturtzen ditu asko anima, mundu doakabe au utzirik paret artean eren buruak ezkutatzera.

Eta nork aditzera emango ditu, Jaunak Adani, eta Ebari eman ziezten doai miragarriak? Etzuen jateko; eta edateko bear zuenaren kezkarik; zeren Paradisuak emango zien onetarako bear zana. Etzuen gaitzen, eritasunen, eta eriotzaren beldurrik; Paradisuko arbo-
len artean alabaña bazan bat *bizitzaren arbola* zeritzana. Onen frutak añ miragarriak ziran, non gordeko zuen gizona eritasun guzietatik, zartze, eta eriotzatik. Eman zien Jaunak animaren aldetik graziaren apaindura ederra. Eman zien gañera *Zuzentasun*, edo *Justizia orijinala* deitzen zayon doai *miragarria*. Doai onekin adimentua zegoan argia gauzak ezagutzeko: borondatea zegoan prest Jaunak nai zuana egiteko; idurimendua, edo imajinazioa etzan oraiñ bezala zoroaren eran ibiltzen noranai adimentuaren, eta borondatearen baimena gabe. Zer geyago? Doai miragarri ura bekatuarekin galdu zuan bitartean, gizonaren gura,

edo griñak pakean zeuden guziak: etziran asaldatzen, eta etzuen etxean gerrarik ematen. Prest arkitzen ziran borondateak agintzen ziena egiteko, baña etziran altxatzen, borondateak agintzen ezpazien. Atze-nean Adani, eta Ebari eman zien Jaunak mundu guziko agintea. Ez da izan eta ez da izango Errege añ andirik, nola zan Adan. Orregatik esaten dio Dabidek Jaunari: gure Jaun, eta Jaungoikoa! Zeñ miragarria dan zure izena mundu guzian! Zer da gizona, zu arzaz oroitzeko? onraz bete eta zure eskuetako obren gañean ipiñi dezu: *Et constituisti eum super opera manuum tuarum* (Psalm. 8). Orra, zertako egin zuan Jaunak gizona, eta nolako doayakin bete zuan. Dakuskun oraiñ zer gertatu zan gero.

* * *

Paradisuko arbolen artean bazan bat onaren eta *gaitzaren jakiundeko arbolaren* izena ematen zayona. Deitzen zayo onela, zeren gezurraren Aitak, edo Demonioak agindu zien Adani, eta Ebari, izango zirala Jaungoikoaren eran, onaren, eta gaitzaren berri ziakienak. Deitzen zayo *gañera onaren eta gaitzaren jakiundeko arbola*; zeren arbola onen fruta janda ikasi zuen

zer ondasunak galdu zituen, eta zer gaitzak beren gañera erakarri zituen. Debekatu zien Jaunak arbola bakar onen fruta jatea esaten ziola Adani: *Noizerenai jan dezazu!*a orren fruta, illko zera: *Morte morieris*, illko zera ez gorputzaren aldetik bakarrik, baita animarenetik ere. illko zera, ez zu bakarrik, bai ta zure ondorengoak ere. Luziferrek ezin begi onez ekusi zuan gizonaren ainbeste onra, eta asi zan bekatuan amildezteko bidea prestatzen, baliatzen zala Ebaz. Bazebillen Eba Paradisuan, eta etsayak itzegin zion suge baten autik: *zergatik ez dizue Jaunak eman fruta guzietatik jateko eskua?* esan zion: Eranzun zion Ebak: Paradisuaren erdian dagoan arbola baten frutatik jatea debekatu digu Jaunak, ill ez gaitzen, baña jan dezakegu beste guzietatik. Orduan esan zion etsai gezurtiak, *etzerate*, ez, orregatik illko: eta arbola aren fruta jaten dezuen unean bertan idikiko dira zuen begiak, eta izango zerate Jainkoa bezala, eta jakingo dezue onaren, eta gaitzaren berri. Jarri zan Eba arbolarari begiratzen: ekusi zuan, jateko sasoi onean zeuden frutaz betea, eta begietarako guziz ederra: *Pulchrum oculis, aspectuque delectabile*. Artu, eta jan zuan aren frutatik. Gaitz erdi izango zan au, onenbesterekin kontentatu baliz; baña eman zion Adani ere, eta jan zuan.

Gisa onetan autsi zuen Jaunaren Agintea. Adanen bekatu au da jatorrizkoa edo orijinala deitzen dioguna, zeren ondorengoetara jatorriz igarotzen dan.

Nork oraiñ aditzera eman, zeñ ondoren samiñak etorri ziran eta datozen bekatu onetatik? Len etzuen jateko, eta edateko gauzen kezkarik, zeren Paradisu-
suan zuen, nekerik gabe, bear zuena; baña erbestetu zituan, edo bota andik Jaunak, eta bakoitzak, ala lenengo gurasoak, nola aen ondorengoak beren neke-
izerdiarekin billatu bear izan zuen, eta due jateko eta edateko bear dana. Len etzuen soñeko bearrik, zeren zuzentasun, edo justizia orijinalaren doaia galdu zuen artean, etzan lotsatzeko gauza soñekorik gabe ego-
tea; baña ozta erori ziran bekatuan, lotsatu ziran, eta pikostoakin nolerebait estali ziran. Len etzuen erita-
sun, zartze, eta eriotzaren beldurrik; zeren bizitzaren arbolaren fruta jatearekin biziko ziran gaitz, edo erita-
sunik gabe, eta denbora zetorrenean bizirik joango ziran Zerura; baña gero ezin konta al gaitz ekusi bear ditu gizonak, eta atzenean ill bearra da: *Autsa zera, eta auts biurtuko zera*, esan zion Jaunak Adani. Len argia zegoan adimentua jakin bear diran gauzak eza-
gutzeko;baña oraiñ neke andiarekin ikasten dira. Len borondatea prest arkitzen zan Jaunaren naia egiteko;

gero nagia geratu zan. Len idurimendu, edo imajina-
zioak etzuan asaldatzen gizona, gero gerra andia
ematen du. Len gura guziak pakean, eta borondatea-
ren mendean zeuden; baña gero ezin ongi adirazi dite-
kean adiña neke ematen due, eta mundu guzia dara-
bilte sosegurik gabe: gerra eta iskanbilla etxean eta
gerra erreñuetan: emendik ainbeste eriotza. Egizu,
Kristaua, kontu, presa bat urratzen dala. Ekusiko
dezu, len soseguz zijoazen urak gero indar andiarekin
abiatzen dirala eren bidean: eta orra gizona bekatuan
erori zanean gertatu zana. *Zuzentasun edo justizia
orijinalaren doayak* lotuak bezala zeduzkan gizonaren
gura guziak; etziran altxatzen borondateak agindu
gabe; baña *justizia orijinalaren* doai andia galdu zuan
bezala, gura guziak asi ziran beren bidean, eta geroz-
tik ez due pakerik eman nai. Gizonak onraz beterik
zegoanean, etzuan ezagutu bere zori ona: gero egin
zan zentzugabeko abere, edo astoen anzeko, dio
Dabidek: *Homo cum in honore esset, non intellexit:
comparatus est jumentis insipientibus, et similis fac-
tus est illis* (Psalm. 48). Atzenean, Adanek bekatuan
erori zan unean bertan, galdu zuan Zerurako eskubide
guzia, ez beretzat bakarrik, bai ta bere ume, eta ondo-

rengo guzientzat ere: guziak dira alabaña bekatuan sortuak.

Ekusten dezu, bekataria, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jauagoikoa bekatuarekin utzi-tzea? Sagar, edo fruta bat dastatzea, edo proгатzea añ gauza gaiztoa izan bazan, eta ondoren añ samiñak etorri baziran, eta badatoz bekatu artatik, begira zer izango dan guk egin ditugun adiña bekatu egitea. Eta ezaguturik au ez ote zera, bekataria, bekatuaren lo astun orretatik esnatuko? Ea, esna zaite, irten zaite bekatuaren obi orretatik: zoaz zere Aita onagana, eta bizi zaite beraren Lege ederrak erakusten digun eran. Onela iritsiko dezu betiko bizitza doatsua. Amen.

AMABIGARREN ERAKUSALDIA

Zeñ gauza gaizto, eta samiña dan bekatua, adirazten digu Trinitadeko bigarren Persona, Aita Betikoaren Seme-Jaungoikoa Zerutik jatxita gizon egiteak. Misterio miragarri au da oraingo Erakusaldiaren gaya.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.*

Utzi dezu zuk, bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa: eta garizuman asko egia izugarri aditu badituzu ere, etzera bekatuaren lo astun orretatik esnatu. Jaki-zu bada, esaten dizu Jeremiasek, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea. Ekusi zenduan azkeneko igandean, Jaunak gizona egin zuanean, zertako egin zuan, eta nolako doayak eman ziozkan. Ekusi zenduan, nola bekatuan erori zan, eta zeñ ondoren samiñak etorri ziran, eta datozen bekatu artatik. Jan zuan Adanek Paradisuko arbola baten fruta debekatua, eta bereala bota zuan Jaunak Paradisutik, eta len eritasun, eta eriotzaren beldur gabe bizi zana,

geratu zan ezin konta al gaitz, neke, eta eriotzaren mendean. Atzenean galdu zuan Jaunaren grazia, eta zuzentasun orijinalaren doai miragarria, baita Zerurako eskubide guzia ere. Eta nork eztakus, ondoren oek dakartzian bekatua dala gauza guziz gaizto, eta samina? Eta ondoren oek ekarri zituan sagar, edo fruta debekatu bat dastatze, edo progatzeak, ez Adanentzat bakarrik, baita guretzat ere, fedeak erakusten digun bezala.

Egia au bera adirazten digue, gizona Zerurako bidean berriro ipintzeko Jaunak artu zituan neurri miragarriak. Oen artean lenengoa da Trinidadeko bigarren Persona, Aita betikoaren Seme-Jaungoikoa gizon egitea. Misterio au izango da gaurko Erakusaldiaren gaya. Enzun bada arreta andiarekin, Kristaua.

* * *

Autsi zuan Adanek Jaunaren Agintea, len esan dezun eran, jakiundeko arbolaren fruta debekatu jaten zuala. Ozta Adanek egin zuan bekatu au, igerri zuan Jauna zetorkiola, eta ezkutatu zan arbolen ostar-tean. Deitu zion Jaunak Adani, esaten ziola: non zera? *Ubi es?* Eranzun zion Adanek: aditu det, Jauna, zure

otsa, eta lotsatu naiz, zeren soñekorik gabe arkitzen nintzan: orregatik ezkutatu naiz. Esan zion Jaunak: eta nork aditzera eman dizu, soñekorik gabe, edo larru gorrian zeundela, debekatu nizun fruta jateak baiziç? Eranzun zion Adanek: laguntzat eman didazun emakumeak eman dit, eta jan det. Orra noiz danik asi zan gizona bere utsegitea edertu, edo gutxitu nayez. Orduan esan zion Ebari: zergatik egin dezu au? Eranzun zion Ebak: sugeak engañatu nau. Orra Ebak ere besteri egozten dio bere bekatuaren oben, edo kulpa guzia. Biurtzen da Jauna sugearen, edo obeto esateko Demonioaren kontra, eta esaten dio: Madarikatua izango zera: nik gerra bizia ipiñiko det zure, eta andre baten artean: gerra zure ume, eta andre aren semearen artean: andre ark bere semearen bidez zapalduko du zure burua: *Inimicitias ponam inter te, et mulierem, et semen tuum, et semen illius: ipsa conteret caput tuum* (Genes. 3). Itz oetan Jaunak aditzera eman zuan, etsai galgarriak gure lenbiziko gurasoak galdurik utzi bazituan ere, bidalduko zuala Munduaren Salbatzallea, eta onek zapalduko ziola etsayari burua. Zeñ ona, eta Urrikaritsua gure Jauna! Aserre zegoan gizonaren kontra, zeren autsi zuan ipiñi zion Agintea; baña ekusten zuan, Adan eta Eba, eta oetatik etorriko

ziran ondorengo guziak geratuko zirala Zerutik erbes-
tetuak betiko, eta joan bearrak zirala betiko su, eta
garren artera. Ekusten zuan Adanek, eta Ebak ezin
desegin zezakeela egin zioen bidegabe izugarria,
zeren gizonaren alegin guzien gañetikakoa zan. Beste
aldetik etzuan nai, Luzifer berearekin irtetea. Zer
asmatu zuan Jaunaren ontasun, eta urrikimentuak?
Asmatu zuan bide bat berak bakarrik asma zezakea-
na; au zan Trinidadeko bigarren Persona Zerutik lurre-
ra jatxitzea, gizon egitea, eta Adanen, eta ondorengo
bekatuen zorra pagatzea. Ainbesteraño amatu gin-
duan Jaunak, dio S. Juanek, non eman zuan bere Seme
bakarra: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum uni-
genitum daret* (cap. 3).

Baña gisa onetan Jaunak bere Semea bidaltzea
agindu bazuan ere, etzuan bereala bidaldu; nai zuan
alabaña gizonak ezagutzea, zeñ gauza gaizto, eta
samiña dan bere Egille, eta Aita ona utzitzea bekatua-
ren atsegin-apur bategatik. Alaere ez uste izan, Kris-
taua, munduaren asieratik Salbatzallea etorri artean
ill ziran guziak galdu zirala: ez, zerren Jaunak begiratu-
rik Jesusek denboraz igaroko zuan gurutzeko eriotzari,
eman zien Adan, eta Ebari baita ondorengoai ere
bekatutik irteteko, eta bizitza ona egiteko bear zuen

Zeruko lagunza, eta grazia, baña Jaunaren grazian iltzen ziranak ere etzijoazen Zerura, baizik Abrahamen linbora: an egoteko Salbatzalleak atera zitzan artean. Etziran Zeruko atea gizonarentzat idiki Jesusek Zerura igotzean zabaldu zituan artean.

Bitarte onetan anima onak, Patriarka, eta Profetak oska zegozkan Jaunari, bidal zezala agindu zuan Mesias, edo Salbatzallea. Esan zien beiñ Jaunak Isayasen autik. Enzun ezazu Dabiden etxea: *Audite ergo domus David*: Birjiña bategandik sortu, eta jayoko da Seme bat, eta deituko zayo Manuel: *Ecce virgo concipiet, et pariet filium, et vocabitur nomen ejus Emmanuel* (Isaiae c. 7). Bazetozen, eta bazijoazen era onetan mendeak mendeen edo sekulak sekulen ondoren; baña gero ere lau milla urteren buruan bete ziran Jaunak beregan markatuak zeduzkan denborak. Orduan Trinitade guziz Santak bidaldu zion Birjiña txit Santari bere Aingeruetatik bat Nazaret zeritzan Galileako erri batera, eta Aingeru au zan S. Gabriel. Sartu zan Aingerua Birjiña txit Santa zegoan gelara, eta itz egin zion era onetan S. Lukasek dionez: Agur graziaz betea, Jauna da zurekin, bedeinkatua zera andre guzieren artean: *Ave gratia plena, Dominus tecum*. Arri-turik geratu zan Birjiña txit Santa agur añ onragarria

Aingeruagandik aditu zuanean: nastu zan beregan dio S. Lukasek, eta gogoan zerabilen, zer esan nai ote zuan agur onek: *Turbata est in sermone ejus, et cogitabat, qualis esset ista salutatio.* Argatik esan zion Aingeruak: Ez beldurtu Maria: *Ne timeas Maria:* Zu zera andre guzien artean autua, eta Jaunari agradatu: zuk sortuko, eta egingo dezu Seme bat, eta deituko diozu *Jesus*. Seme au Jaunaren begietan izango da Andia, eta *Jainkoaren Seme* izendatuko da, eta egiaz izango ere da. Emango dio Jaunak Dabiden jarleku, edo tronua. Errege izango da beti Jakoben etxean, eta etxe onek, edo beraren erreñuak ez du bukaerarik izango. *Et regni ejus non erit finis.* Dabiden jarlekuaren, eta Jakoben etxearen izenez aditzera ematen zuan Aingeruak Jesu-Kristok bere odol prezio-tsuaekin altxako zuan Eliza, eta Eliz onetan beti izango zuan agintea. Erantzun zion Birjiña txit Santak: Nola izango da ori, ezpadet nik ezagutzen gizonik, eta garbitasuna gordetzea Jaunari agindu badiot? *Quomodo fiet istud, quoniam virum non cognosco?* Orduan esan zion Aingeruak: Nik esan dizudana ez da aditzen gizonaren obraz, eta zure garbitasunaren kaltearekin. Espiritu Santua jatxiko da zugana, eta berak egingo du Misterio au nai izate utsarekin: *Spiritus Sanctus*

superveniet in te, et virtus Altissimi obumbrabit tibi. Zugandik jayoko dan Santua, *Jaungoikoaren Seme* izendatuko da. Orra zure aide Isabel, adiñean aurrera-tua badago ere, aurdun arkitzen da: anzua dala uste due, eta alakre sei illabeteko Semea sabelean dauka: jakin dezazun, ez dala Jaungoikoak ez dezakean gau-zarik: *Quia non erit impossibile apud Deum omne verbum.*

Alaitu zan Birjiña txit Santa Aingeruaren itz oekin. Triñidade guzia beraren baimenaren zai, edo begira zegoan *Enkarnazioko* Misterioa egiteko: Orregatik S. Bernardok itzegiten dio era onetan: Aditu dezu, Birjiña txit Santa, Aingeruak ekarri dizun mandatua, eta ekusten dezu, zure baimenari itxedoten dagoala; ez arren luzapenik ipiñi. Au eskatzen dizue Adanek, eta beraren ondorengoak: au Abrahamek, Dabidek, eta zure aurrekoak; au mundu guziak. O! andre guzien artean ederrena! Itzegizu, eta aditu dezagun zure otsa. Zergatik zaude ixilik ? Baña itzegitera dijoa, enzun dezagun zer erantzuten dion Zeruko mandatua-ri. Ona ni, esaten dio umiltasun andiarekin; ona ni Jau-naren serbitzaria; egin bedi nigan zuk diozuna, eta zuk diozun eran: *Ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum.* Ozta aditu zan arako egin bedi ura

Mariaren autik, orduan bertan egiña geratu zan Enkar-nazioko Misterio miragarria, Espiritu Santuaren obraz. Misterio au da, Trinidadeko bigarren Persona, Aita betikoaren Seme bakarra Birjiña txit Santaren sabe-lean gizon egitea, edo aragiz janzitzea Espiritu San-tuaren obraz. Uzten ditut, geyegi luzatu ez nadin, gañerako Misterio oni dagozkan gauzak.

Esan zadazu oraiñ Kristaua, zertako artu ditu Jau-nak arazo, eta egiteko oek guziak? Zertako beeratu zan gizonaren janzia artzeraño? Jaungoiko Guzialduna aur biurtu zan, eta bizitu Birjiña txit Santaren sabe-lean! Au guzia egindu Jaunak, gizona bekatuaren mendetik ateratzeko. Orra zeñ gauza gaizto, eta sami-ña dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoa utzitzea, Jere-miasek esaten digun bezala: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum*. Kristaua, eta ezaguturik au guzia, ez ote degu negar egingo, Jauna ainbeste bider bekatuarekin utzi degun bezala utzitzeaz ? Egin dezagun au, nere Kris-taua, biur gaitezen gure Aita onagana, onela iristeko gure bekatuen barkazioa, eta gero betiko bizitza. Amen.

AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

Zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoa bekatuagatik utzitzea, ederki adirazten digue Jesusek Pasioko denboran igaro zituan neke izugarriak, ala barrengo aldetik, nola kanpotik. Barrengo nekeak izango dira gaurko Erakusaldiaren gaya.

*Dereliquisli Dominion Deum tuum...
scito, et vide quia malum, et amarum est,
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem 2.*

Utzi dezu, Kristaua, utzi dezu zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta ez dezu oraindano aldegin nai izan bekatutik; etzera biurtu zere Jaun, eta Aita onagana. Jakizu bada, eta ekusi ezazu gauza gaizto, eta samiña dala, zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum.* Ala esaten digu Jeremias Profetak. Adu dezu len, nola gure lenengo gurasuak bekatuan erori ziran, Paradisuko arbola baten fruta debekatua jaten zuela, eta zeñ ondoren

samiñak etorri ziran, eta datozen bekatu artatik. Adu dezu, zer asmatu zuan Jaunaren Ontasun, eta Urriki-mentuak, gu Zerurako bidean berriro ipintzeko, eta zan Trinitadeko bigarren Persona Aita Betikoaren Seme bakarra Zerutik lurrera jatxitzea, gizon egitea, eta Adanen, eta gure bekatuen zorra pagatzea. Eta gu bekatutik ateratzea, eta Zerurako bidean ipintzea ain-beste kosta bazitzayon Jaunari, zeñ gauza gaizto, eta samiña izango ez da bekatua? Ez dezu, bekataria, egi au ongi ezagutzen? Atoz bada nerekin, eta begiraldi bat eman degiogun, Jesus onak Pasioko denboran gure bekatuakgatik igaro zituan nekeai, bada oek argiro adirazten digue; zer dan Jauna utzitzea, edo bekatuari leku ematea. Jesusek Pasioko denboran igaro zituan nekeak batzuek dira barrengoak, besteak kanpokoak: eta barrengoak izango dira gaurko Erakusaldiaren gaya. Asi gaitezen bertatik.

* * *

Trinitadeko bigarren Personak edo Aita Betikoaren Seme bakarrak bere gañ artu zuan Adanen, eta gure bekatuen zorra; eta denborak bete ziranean jatxi zan Zerutik, edo egin zan gizon Birjiña txit Santaren

sabelean Espiritu Santuaren graziaz, azkeneko Erakusaldian aditu zenduen bezala. Arriturik geratzen da Eliz Ama Santa, begiratzen duanean, Jaungoiko Guzialduna aur biurtu, eta Birjiña txit Santaren Sabelean egon zala, jayo arteko denboran: *Et tu non horruisti Virginis uterum!* Jayo zan, eta ogei, ta amairu urte igaro zituan gizonen artean, Zerurako bidea erakusten, ala itzez, nola obraz. Alderatu zan, gugatik bere bizitza emateko denbora. Ostegun Santu arratsean egin zuan Apostoluakin, legeak agintzen zuan aparia: gañez egin zion naigabeak, ekusirik, bere Apostoluetako batek saldu, eta bere etsayen atzaparretan ipiñiko zuala: garbitu ziezten oñak, eta eman zien Aldareko Sakramentu miragarria. Irten zan Jerusalemetik Getsemaniko baratzara, Pasioko neke izugarriai ekitera: eta guri ongi nayez igaro zituan, benik-beñ, bere biotzean; eta au da gaur ekusi bear deguna.

Getsemaniko baratzaren sarreran esan zien Apostoluai: *Zaute emen, nik nere Aitari otoiz, edo orazio egiten diodan bitartean. Sedete hic donec orem.* Sartu zan aurreraxeago, S. Pedro, Santiago, eta S. Juan berekin zituala. Bereala asi zan, bere barrengo nekea arindu nayez dabillen baten eran, eta esan zien iru Apostoluai: Illuntasun, eta tristurak inguratua dago

nerre biotza, alako eran, non iltzeko zorian nagoala deritzadan: *Tristis est anima mea usque ad mortem*. Zaute zuek emen, baña zaute ernai: *Sustinete hic, et vigilate*.

Badijoa barrenago, eta bere iru Apostoluetatik ez urruti jartzen da auspez lurraren gañean. Ay, nere Kristaua! Nork esan eta nork ezagutu ere, zer nekeak daramazkian Jesusen biotzak une onetatik aurrera! Ekusten ditu bere animako begien aurrean munduaren asieratik orduraño egin ziran, eta munduaren azkeneraño egingo ziran bekatu guziak. Ekusten du guzien, eta bakoitzaren itsustasuna, eta guziak bere gañean dauzkala. Nastu, eta asaldatu zion barren guzia bekatuen pilla izugarri onek, edo Dabidek deitzen dion bezala bekatuen ujolak: *Torrentes iniquitatis conturbaverunt me*. Ekusten du Juduen arteko Jaunak, eta Judas, gorrotoaren sua dariezala, zeñ ernai dabil-tzen armadunen billa Jesus artzeko: Inguratu naue zezen sendo, edo gizenak: *tauri pingues obsederunt me*: Nigana datoz, beren autzarrak zabaldurik, eta leoi baten eran orroaz izutu nai ditue bazter guziak: *Aperuerunt super me os suum, sicut leo... rugiens*. Ekusten du, Judas doakabea, bere mayean ainbeste denboran iduki, eta bere Apostolu egin duan gizona,

gogortu dala bekatuan, eta lenago urkatuko duala bere burua, ezen ez utzi bere bekatua. Ekusten du, Juduak, Salbatzallearen itxedoten, eta Jaunari oska bizitu baziran ere, banakaren batzuez kanpora, gañerakoak ez duela beren Mesias, edo Salbatzalletzat ezagutu nai izan: eta itsumen onetan iraungo duela munduaren azkeneko denboretaraño. Ekusten ditu, Birjiña txit Santaren, Martiri, eta anima onen neke, eta naigabeak. Ekusten du, gure animen onerako utziko zituan Sakramentuak biurtuko ginduala gure animen puzoi, eta Sakramentu miragarri orretan ekusi bearra zala bidegabe guziz itsusiak, ez Judu, hereje, eta fedegabeen aldetik bakarrik, baita Kristauetatik ere. Ekusten du, gu Zerurako bidean ipiñi nayez, ainbeste neke, eta gurutzeko eriotza igaro arren, gutxi Zerurako ziralala: eta au zan naigabe guzien artean samiñena, eta izugarriena.

Nola geratuko zan Jesusen biotza, ainbeste gauz izugarri ikusi ondoan? Ay! Jaungoiko guzialduna bazan ere, gizona zan bezanbat ikaratu zan: *Caepit pavere*. Inguratu zuan berriro illuntasun, edo tristura andi batek: *Caepit contristari*. Len Pasioko neke, eta oñaze guziak egarri andi batekin nai zituan eta atsegin andia artu zuan alderatu zanean denbora: *Desiderio deside-*

ravi; baña oraiñ ezin gogoan sartu zayo Pasioko kaliza: *Caepit taedere*. Neke izugarri onetan nori deituko dio? Deituko ote dio bere Jaungoikotasunari? Baña Jaungoikotasunak utziko du bere nekean, zeren bere gañ artu zuan gure bekatuen zorra, eta oni eranzun bear dion. Onetan egin zuan Jaungoikotasunak mirari andi bat; Jesusen gizatasunak alabaña, Jainkotasunarekin bat egiña zegoanak bezala, berez ezin ekusi zezakean onelako beldur, illuntasun, eta nekerik, baña neke oen artean utzi zuan Jainkotasunak gure bekatuen zorra atera zezan. Nori deituko dio bada Jesus onak, neke oek arintzeko? Deituko ote die Apostoluai? Deitu zien beñ, ta berriz, baña lo zeuden, eta esnatuta ere arriturik, eta zer esan etziakiela geratu ziran. Begiratu nuan, dio Dabiden autik; begiratu nuan alde guzietara, eta etzan neretzat laguntzallerik: *Circumspexi, et non erat auxiliator*: ez nuan arkitu nere nekea arindu nai zuanik: *Sustinui, qui consolaretur, et non inveni*.

Ekusirik Jesus onak bere burua estutasun onetan, asi zan bere Aitari otoiz edo orazio egiten, eta egin zuan iru aldiz. Nere Aita, esaten dio; *Pater*: al bada igaro bedi Pasioko kaliz samiñ au nik edan gabe: *Si possibile est, transeat a me calix iste*: baña egin

bedi, ez nere gizatasunak berez nai lukean eran, baizik zuk nai dezuna, eta zuk nai dezun bezala: *Verumtamen non sicut ego volo, sed sicut tu*. Etzion Aitak bere erregua aditu, pasioko kaliza ez igarotzea eskatzen zuan aldetik. Jarri zan bigarren aldian lengo erregua bera egiten; estutzen, eta nekatzen zuan alabaña bere biotzeko illuntasun, eta tristura izugarriak; baña etzion Aitak aditu bigarren erregua ere. Jarri zan irugarren aldian, eta luzaro egon zan Aitari erregutzen. Aita nerea, esaten dio: *Pater*: al bada, igaro bedi Pasioko kaliza samiñ au, nik edangabe: baña egin bedi, ez nik nai dedan eran, baizik zuk nai dezun bezala. Ainbesteraño erazeki zitzayon Jesusen biotzari Jau-naren, eta guganako amorioan, non geratu zan argizagi urtua bezala, Dabidek dionez: *Factum est cor meum tanquam cera liquescens*. Zer geyago? burutik oñetaraño jarri zan odolezko izerditan: *Et factus est sudor ejus, sicut guttae sanguinis decurrentis in terram* (Lucae 22). Iltzeko zori, edo agonian jarri zan; orduan Aitak bidaldu zion Aingeru bat, arindu zion bere nekea, eta alaitu zuan Pasioko neke izugarriak igarotzeko.

Ekusten dezu, Kritaua, zer nekeak igaro zituan Jesusen biotzak Adanen, eta gure bekatuen zorrak

ateratzeko? biotzetik joyotzen dira bekatu-mota guziak: eta Jesusek bere biotzean igaro nai izan zituan lenengo lekuan bekatu-mota guziai dagozten nekeak: eta esan diteke, Jesusen barrenge nekeak andagoak, eta geyago izan zirala kanpotik igaro zituanak baño.

Atozea oraiñ bekataria: au onela izanik, zeñ gauza gaizto, eta samiña izango ez da guk gure Jauna utzi-tzea, eta beraren kontra bekatu egitea? Eta ez ote zera oraiñ ere biurtuko zure Aita onagana? Ea, erabaki dezagun noizbait benaz, bekatutik betiko aldegitea, eta bizi gaitezen Jesusen lege Santak erakusten digun eran. Onela iristsiko degu betiko bizitza. Amen.

AMALAU GARREN ERAKUSALDIA

Zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoa utzitzea, ederki adirazten digue Jesusen Pasioko neke-oñazeak, ala barrendik, nola kanpotik igaro zituanak. Barrengoen gañean itzegin zan azkeneko aldian; eta gaurko Erakusaldian izango dira kanpotik igaro zituanak.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est,
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiae 2.*

Utzi dezu bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta etzera biurtu beragana. Jakizu bada, esaten dizu Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Egia au azaltzeko, azkeneko aldian itzegin nizun, Kristaua, Jesus onak Getsemaniko baratzen bere biotzean igaro zituan neke izugarrien gañean: gaur itzegin bear dizut kanpotik igaro zituanen gañean, baña ez det ukitzea

bestarik egingo; zeren, dagoten eran adirazteko guziak urte guzia ere gutxi izango lizakean. Asi gaitzen bertatik.

* * *

Getsemaniko baratzan Jesus ona, bere Aitari otoiz, edo orazio egiten egon zan denboran, izutu zan ekusirik bere animaren begien aurrean gure eskergabeke-ri, ta bekatuak. Illuntasun, eta tristuraz bete zan eza- guturik alperrak izango zirala geyenentzat beraren nekeak, eta gurutzeko eriotza. Zer protxu aterako det, dio Dabiden autik, nere bizitza ematearekin, ezpadi- tue bekatariak utzi nai bekatua, eta bekatuaren bideak? *Quae utilitas in sanguine meo?* (Psalm. 29). Barrengo neke oekin estutu zan Jesusen biotza tola- reko ardazpean dagoan matsa bezala: jarri zan odolez- ko izerditan, eta illa zan, bere Aitak bidaldu zion Ain- geruak alaitu ezpalu. Alaere zu bekataria, etzera bate- re bigundu, eta zure biotz gogor ori bekatuari itsatsia arkitzen da. Dakuskun bada, Jesusek kanpotik igaro zituan nekeakin gozatzen ote dan, bere Aita onagana biurtzeko.

Bukaturik Getsemaniko otoiz, edo orazioa, altxa zan Jesus auspez zegoan tokitik eta esnatu zituan Apostoluak. An zan bereala Judas armaz, eta soldaduz ongi prestatua, eta adiskidearen idurian saldu zuan bere Maisua, eta eman zien Juduai. Itsasi zioen oek, eizari atzaparra egozteko zai dagoan, leoi baten eran, dio Dabidek: *Sicut leo paratus ad praedam*.

Lotu, eta eraman zuen Jesus Jerusalem, eta erabili zuen etxez etxe, eta kalez kale. Iges egin zuen Apostoluak; iru bider ukatu zuan S. Pedrok: eta Judas doakabeak, ezagaturik bere gaizki egiña, urkatu zuan bere burua. Eraman zuen Anasen etxera; andik Kaifas Apaiz nagusiaren aurrera. Bildu zan Juduen batzarre andia, eta blasfemaritzat eman zuen. Eriotzaren pana dagoka, deadar egiten zuen: *Reus est mortis*. Arrats artan utzi zuen an zebillen jende txar-zirzillaren mendean, eta Jesusek berak baizik eztaki nolako bidegabeak ekusi zituan. Egin zioen istuka bere aurpegira: estali ziozkeen begiak zatar batekin, eta asi zitzaizkan masallekoka, esaten zioela: ea, Kristo, asma ezazu, nork jo zaituan: *Profetiza nobis Christe, quis te percussit*. Nork sinis zezakean, Aita betikoaren Seme eta Jaungoiko egiazkoak ekusi zitzakeala bide gabe oek? Etzan erraz, baña au guzia bear zan guri adirazteko,

zeñ gauza gaizto, eta samiña dan bekatua. Bigaramon goizean bildu ziran Judu Jaunak, eta bidaldu zioen Jesus Pilatosi, gurutzean illerazo zezan. Etzuan arkitu onetarako biderik batere; bidaldu zion Herodesi, eta onek eman zuan zorotzat Jesus, Aita Betikoaren Jakiundea bazan ere. Baña etzan Juduen amorrua onenbesterekin itzali. Erriak altxatzen ditu, deadar egiten zuen: eta bere burua errege egin nayer dabil; baña etzuen alegin guziakin ere arkitu gezur oen testigurik, eta igerri zuan ere.

Igerri zuan Pilatosek, bidegabe zebiltzala Juduak Jesusen kontra. Orregatik etzukean bere burua zikindu nai oben, edo kulparik etzuan Jesus gizonaren eriotzarekin. Pazkoako denboran atera oi zuan karzelan zeudenetatik bat, eta zegoan Barrabas zeritzan gizon gaizto, ta erallea. Esan zien Juduai: ea, Jaunak ordago karzelan Barrabas, eta emen dago Jesus: aukera ematen dizuet, eta bietatik zuek nai dezuena utziko dizuet libre. Zeñ nai dezue? Uste zuan Pilatosek, etzuela autuko gizon gaizto, eta eralle bat, nola zan Barrabas; baña engañatu zan; bada Juduak deadarka eranzun zioen, etzuela nai Jesus, baizik Barrabas: *Non hunc sed Barabbam*. Asma diteke bidegabe itsusiagorik? Ekusirik, etzuala ezer atera lenengo bide onetatik,

gogoak eman zion Jesus azotatzea, onela bederik gutxitu, edo itzali zedin Judu gogorren gorrotoa: eta ala agindu zien bere soldadu batzuei. Kentzen diozke soñekoak, eta larru gorrian lotzen dioe koloma bati eta zeatzen due gogortasun andiarekin. Atozea bekatari gogor-eskergabea, ez ote da zure biotz ori biurtuko bere Aita onagana? Gisa onetan zauriturik iduki nai dezue zure Salbatzallea? Ez digu Eskritura Santak esaten, zenbat azote eman ziozkeen; eta nola nik esan al dezaket? Nik esan dezakedana da, lege zarrean debekatu zuala Jaunak, berrogei azote baño geyago iñori ematea (Deutero. 25); baño Jesusen borreroak etziran Juduen legekoak, eta egingo zuen gogoak ematen ziena. Askoren iritzian bost milla azote baño geyago eman ziozkeen, eta nolana, eziñ ukatu diteke gogortasun andiarekin urratu zuela Jesusen gorputza. Kontatu ditue, dio Dabiden autik, nere ezur guziak: *Dinumerauerunt omnia osa mea* (Psalm. 21). Etziran onetan geratu Jesusen borreroak: aditu zuen, Juduen errege egin nai izan zuala bere burua, eta emendik artu zuen bidea Jesusi iseka, eta bidegabe guziz itsusiak egiteko: kendu ziozkeen soñekoak, ipiñi zioen soñeko gorri bat, eta eskuetan kañabera, Erregeren anz, edo iduria emateko: ezarri zioen buruan aranzazko koroa:

eta asi ziran istuka beraren aurpegira: belauniko aurean jarri, eta esaten zioen: Agur Juduen Erregea: *Ave Rex Judaeorum*. Neke oen guzien ondoren Pilato-sek ipiñi zuan Jesus Juduak ongi ekusi zezakeen toki batean, eta esan zien: *Ecce homo*: esaten bazien bezala: begira, Jaunak, gizon urrikgarri oni: Errege izan nai bazuan, zuek diozuen bezala, ekusi ezazue, nolako Errege izan ditekean, eta nola dagoan guzia urratua, eta zauri bat egiña: baderitzat, apendu zera-tela asko adiña, eta utziko diozuela onenbesterekin. *Ecce homo*. Engañatu zan Pilatos, bada Juduak amorru andiarekin deadar egiten zuen, ill bearra zala Legeak agintzen zuan bezala: *Secundum legem debet mori*. Beldurtu zan Pilatos, Enperadorearekikoa galerazo zeguloen: eta beldur onekin, garbitu zituan eskuak, eta eman zuan Jesus gurutzean illerazteko sententzia. Zer diozu oraiñ zuk, bekatari sor, eta gorra? *Ecce homo* esaten dizu Elizak: Begira Jesus onari pauso onetan: ori da gizona ezezik Jaungoiko egiazkoa, eta Errege guzien Erregea: ori da, zu Zerurako bidean ipintzeko gizon egin zana, eta zugatik neke oek guziak igaro dituana. Begira, nolakoa utzi duen gure bekatuak: guzia zauri egiña dago: *vulneratus est propter*

iniquitates nostras: eta ez dauka gizonaren anzik. *Non erat aspectus*: ez ote da biotz ori Jesus nekatzez ase?

Ipiñi zioen gurutzea bizkarrean Salbatzalleari. Asi zan Kalbarioko bidean; baño nola joan zitekean, baldin alde aldean odol ustua bazegoan? Beldurtu ziran Juduak, Kalbariora baño len ill zekien, eta laguntzat eman zioen Simon zeritzan gizon bat. Igo zan noizbait Kalbariora: kentzen diozkee soñekoak, eta uzten due mundu guziaren aurrean era txit lotsagarrian. Iltzez josten diozkee bere esku, eta oñak gurutzean, eta ipintzen due gurutzea zutik. Agertu zan Munduaren Salbatzallea airean lapur biren erdian. Iru ordu bezala igaro zituan bizirik gurutzean, oñazez inguratua alde guzietatik. Orregatik deitzen dio Isayasek: Oñazeko gizona: *virum dolorum*. Denbora onetan erregutu zion Aitari, barka zegiela neke aetan ipiñi zuen etsyai, zeren etziakien ongi, zer egiten zuen. Agindu zion lapur onduari Paradisua. Begiratu zion bere Ama mai-tagarriari, eta bere ordeztu zion Semetzat S. Juan; begiratu zion S. Juani, eta utzi zion Amatzat Birjiña txit Santa. Agertu zion Aitari bere neke izugarria. Aditzera eman zuan egarri andi bat, eta eman zioen ozpiña. Biurtu zan bere Aitagana, eta esan zion: bukatu dira Profetak nere gañean aditzera eman zituen nekeak:

Consummatum est. Egin zuan ots andi bat, esaten zuala: Aita nerea, zure eskuetan uzten det nere bizitza, eta anima: *Pater in manus tuas commendo spiritum meum*: Onela ill zan Munduaren Salbatzallea, gure Aita, eta Ongille ezin Ongilleagoa.

Ekusten dezu, bekataria, zer kosta zayon Jesus onari Adanen gure bekatuen zorra? Ekusten dezu, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jaungoikoa utzitzea, eta bekatuari leku ematea? Eta au guzia eku-sita ere etzera biotz osos biurtuko zure Aita onagana? Ez ote dezu negar egingo zure bizitza lotsagarri orren gañean? Jesus gurutzean zegoan denboran gauza guziak agertu zuen beren eran naigabe andia. Janzi zan Zerua beltzez, ukatzen zituala eguzkiak bere argi ederrak: lurra asi zan dardaraka: obiak leku askotan berenez idikiak geratu ziran, eta arriak ere erdiratu ziran. Eta zu, bekataria arriak baño gogorragoa izango ote zera? Biur zaite, bekataria, biur zaite zure Jesus onagana: barkatuko dizu oraindañokoa, eta bizi zaite beraren lege Santak erakusten dizun bezala. Onela iri-tsiko dezu betiko bizitza doatsua. Amen.

AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

Bekatuak berekin ekarri oi dituan ondoren gaiztoen artean, lenengoetatik izan oi da bekatuan erortzeko oitura, eta onen gañean izango da Erakusaldi au. Adirazten da lenengo lekuan, zeñ minanze gaiztoa dan bekatuan erorteko erraztasuna, edo oitura. Adirazten da urrena, nolako arreta ipiñi bear duan bekatariak miñanz onetan ez erortzeko.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse le Dominum Deum tuum. Jerem. 2.*

Utzi dezu; Kristaua, zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta beraren ontasun baztergabea era askotara adirazi bazatzu ere, etzera beraganonz asi, eta ala asi bearran, geroago eta sorrago zaudela, dirudi. Gauza bearra da beraz Erakusaldiak garraztutzea, eta samin-tzea zerbait: Orregatik ekitera noa, bekatuak berekin ekarri oi dituan, ondoren samiñai. Oen artean lenengo bezala da bekatuan erortzeko erraztasuna, eta oitura: eta au izango da gaurko itzaldiaren gaya. Adi-

tzera emango det lenengo lekuan: zeñ miñanze gaiztoa dan bekatuan erortzeko erraztasuna, eta oitura. Urrena, nolako arreta ipiñi bear duan batez ere gazteak miñanz onetan ez erorteko. Enzun, bekataria, gaitz onetatik aldegiteko gogo, eta asmo sendo batekin.

* * *

Bekatuan erorteko oituraren izenez ez degu aditzen bekatuan nolana erortzea; baizik sarritan eroriaz batek bere buruari erantsitzen dion griña gaiztoa. Asitzen da urlia juramentuak gezurraren gañean egiten; sandia, birauak lagun urkoari botatzen: berendia ordikerietan. Asitzen da urlia atsegiñ lizunetan bere buruarekin, edo besterekin; sandia beste bekaturen batean: lenengo bekatu oek ez dira oitura; baña baldin bekatariak jarraitzen badio asi duan lan gaiztoari, eta sarritan erortzen bada, laster erantsiko dio bere buruari bekatuan erortzeko erraztasun, eta oitura. Askotan gertatzen da Konfesoreak galdetzea bekatariari, len izan ote duan bekatu onetan, edo artan erortzeko oitura? eta orduan aitortu bear da, dana dan bezala; eta naiz galde dezala, naiz ez, baldin oraingo

bekatu orietan erortzeko oitura izan badezu; eta desegin, edo garaitu gabea bada, esan bear diozu konfeso-reari: *Jauna bekatu onetan erori naiz onenbeste bider azkeneneko konfesiotik oraindaño; eta lenagotik det bekatu au egiteko oitura, ongi garaitu gabea*. Begira dezaun oraiñ, nolako miñanzea dan oitura au.

Bekatuan erortzeko oitura da, batek bere buruari erantsitzen dion, griña bat, berez, eta sortzetik bertatik dituan griñen anzekoa, S. Agustiñek dion bezala: *Quasi secunda et affabricata natura*. Emendik dator oitura gaiztoa bekataritari utzierazteko nekea. Otsoak berez dakar ardietarako, azariak olloetarako, eta arranoak sarraiskiaganako griña, eta nekez galerazoko zate au: eta onen anzekoa da oitura gaiztoa.

Bekatuan erortzeko oitura, batezere zarra bada, da miñanze bat eziñ sendatu ditekeana. Sendatu liteke, baldin Jaunaren lagunzarekin egingo balu bekatarriak egin lezakeana; baña ez oi du izan biotzik onetarako. Asiko da bearbada Konfesioko Sakramentua sarritan artzen, eta aspertzen da bereala: asiko da lagun gaiztoetatik aldegiten, eta ezin dago aetara joan gabe, eta biurtzen da leneko bekatuetara. Ala egun oro ekusten da birauak botatzeko, juramentu gezurrezkoak egiteko, ordikeriarako, keñada, eta

ukiera lotsagarriak egiteko, itz desonestoak esateko oitura zarra duenakin. Orregatik esaten digu Jaunak Eskritura Santan: Etiopiako beltz bat zuritzen danean, eta katamotzak uzten dituanean bere nabardurak, edo mantxak, utziko dituzue zuek ere artu dituzuen aztura, edo oitura txarrak: *Si Aethiops mutare potest pellem suam, et pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere, dum didiceritis malum.*

Bekatuan erortzeko oitura da miñanze bat, anima uzten duana itsua, sorra, eta gorra. Aditzen, edo irakurtzen bada zerbait, bekatuak berekin dakartzian, betiko su, eta garren gañean, bereala itzutzen ditu animaren begiak, agradatzen zaizkan gauzetara. Aditzen baditu, Jaunak bere adiskide, eta serbitzarientzat prestaturik dauzkan, atsegin-kontentuak, geratzen da Indietako ondasunen berriak adituko balitu bezala, ezeren uste, edo esperanza gabe. Onela bizi da bere oitura gaiztoan oatua bezala, eta ez du bizitza ontzeko neurrik artzen.

Bekatuan erortzeko oitura da miñanze bat bekatariaren biotza gogortzen duana, mallukaria ari zayon ingudea gogortzen dan eran. Bidaltzen badiozka Jauanak nekeren batzuek, zentza dediñ, Jaunagana biurtu bearrean, emendik artzen du bidea, birau, eta beste

bekatu berriak egiteko. Orregatik onelako bekatariak itzegiten duala, Jaunari esaten dio Jeremiasek: Jo dituzu eta ez due beren gaiztakerien damurik artu: *Percusisti eos, et non doluerunt*: zeatu dituzu, eta ez due bizitza ontzeko neurririk artu nai izan: *Attrivisti eos, et renuerunt accipere disciplinam* (Jerem 5). Baldiñ gurasoak, edo arzak zer bait esaten badio, utzi ditzan lagun, eta etxe gaiztoak, eranzungo du: *ekusi nai ez naue zeinbaitek, eta oetakoren bat izango zan berri oen ekarlea: enbidia da guzia, eta eztanda egingo badue ere, miñ onekin egon bearrak dira*. Ez da bate-re lotsatzen bere bizitza gaiztoaz, eta lotsatu bearrean, emakume gizakoyaren aurpegia erakusten du, Jeremiasek dion bezala: *Frons mulieris meretricis facta est tibi* (cap. 1). Gertatzen da onelako bekatariarekin buztiñari eguzkiarekin gertatzen zayona: atera bitez eguzkitara argizagia, eta buztiña: bidaltzen diezte eguzkiak bere berotasuna, eta argi ederrak: argizagia gozaten, eta biguintzen da; baña buztiña? elkor-tzen, eta gogortzen da: eta ona bekatuaren oitura gaiztoan dagoanarekin gertatzen dana: asko Jaunaren Itza adituaz, Sakramentuak artuaz, eta Jaunak bidaltzen diezten nekeakin biguintzen, eta benaz sartzen dira Zerurako bidean; baña bekatuaren oitura zarrean

bizi dana geroago eta elkorrago egiten da, ala Jaunaren Itzarekin, eta Sakramentuakin, nola emengo neke, eta gurutzeakin.

Bekatuaren oitura da minanze bat, bekatuen neurriaz kanpora amilderazo oi duana anima gaixoa. Au zuk ezagutzeko, jakizu, gure Jaunak gauza guziaz ipiñi diela beren neurria, Espiritu Santuak esaten digun bezala: *Omnia in mensura, et numero, et pondere disposuisti* (Sap. 11). Emendik markatua dago Jaunagan, gutatik bakoitzari barkatuko diozkan bekatuen neurria. Iru bekatu barkatuko dieztet Damaskoarrai, zion Jaunak Amos Profetaren autik; baña lautara igarotzen badira, ez diet barkatuko: *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non convertam* (Amos c. 1) Jakizu gañera, neurriaz kanpora egiten dan bekatu ura dala zauri bat beñere ongi sendatuko ez dana, eta garranga bat betiko eriotzaren puzoya berekin duana: eta garranga au irinsi duana arkitzen da betiko su, eta garren arterako prestatua. Atozea oraiñ, Kristaua, bekatuaren oituran bizi dana ez dijoa eyaka, edo lasterka bezala bekatuen neurri, eta muga igarotzera? Atozea, eta alaere etzera esnatzen, bekatutik aldegitteko, eta Jaunagana biurtzeko?

Bekatuaren oitura da atzenez miñanzen bat, beartzen duana Jesu-Kristo, uztera bekataria bere gura txarren mendean, eta beragandik betiko aldegitara: banoa ni, esan zien Juduai, banoa ni, eta nere billa ibilliko zerate, baña alperrik: illko zerate zeren bekatuan: *Ego vado, et quaeretis me, et in peccato vestro moriemini* (Joan 8). Au bera esango dio Jesu-Kristok bekatariari, bekatuen mugatik igarotzen danean. Ay! eskergabea! esango dio, Zerurako egin zindudan, eta egin det ainbeste alegiña, arako bidean zu ipintzeko. Egin nintzan gizon, eman nuan gurutzean nere bizitza: ipiñi nituan Sakramentuak, eta geratu nintzan Aldareko Sakramentuan, zuri emateko nere ondasun guziak, eta zu giatzeko Zerura. Baña guzia izanda zuretzat alperra. Deitu dizut, eta ez dezu aditu nai izan nere deya: gera zaite bada zure griña, eta oitura gaiztoen mendean: banoa ni zugandik betiko: *Ego vado*. Ordu-tanik aldegingo du bekatariagandik Aingeru goardakokak: aldegingo du Birjiña txit Santak, eta geratuko da doakabea Zeruko inz, eta euri gozoak ukitzen ez duan ur elkorra bezala, eta illko da bekatuaren oitura gaiztoen atzaparretan. Badira itsasoak neguan ormatzen, edo jeltzen diranak: orduan ango arrayak daude sortuak; eta illak bezala; baña andik aterata surtan ipin-

tzen dituenean, esnatzen dira. Arrai oea eran sortua bezala bizi oi da bekataria oitura gaiztoakin; baña emengo itsaso onetatik irteten, eta su, eta garren artean bere, burua dakusanean, esnatuko da doakabea.

* * *

Ekusten dezu bekataria, nolako minanza dan bekatuan erortzeko oitura? Minanz onetan eroriko zera, ezpazera esnatzen bekatutik irteteko, eta zere Aita onagana biurtzeko; bekatuak alabaña, ezpada biotzetik ayenatzen damu egiazkoarekin, bere karga-rekin amilderazten du bekataria beste bekatuetan, S. Gregoriok dion bezala: *Peccatum, quod paenitentia non deletur, mox suo pondere aliud trahit*. Onela bekatua bekatuari eransiaz erortzen da oitura gaiztoaren miñanzean.

Zer egin bear ote du bada gazteak miñanz onetan ez erortzeko? Egin bear duan lenengo gauza da lenbait len bere Jaunagana biurtzea: ala egin zuan seme ondatzalleak: joan zan bere Aita onagana, eta esan zion damu andiarekin: Aita egindet bekatu zure aurrean, eta zure kontra: ez naiz zure semearen ize-

narekin onratua izateko diña. Ala egin zuan Magdale-
nak ere. Bekatariak egin bear duan bigarren gauza da,
bekaturako bide, eta perilletatik, etxe, eta lagun gaiz-
toetatik aldegitea; bestela bekatuaren berrizkaturan,
eta oitura gaiztoaren miñanzean ororiko da. Irugarre-
na da bizitza eder, garbi bati jarraitzea, Sakramentuak
sarritan artzen dirala. Era onetan bizi zaitezke bekata-
ria oitura gaiztoan erori gabe: gazteak alabaña, gazte
dala, artzen duan bidea ez du zartzen danean ere utzi-
ko, dio Espiritu Santuak: *Adolescens juxta viam suam,
etiam cum senuerit, non recedet ab ea* (Prov. 22).
Jauna, esango dit norbaitek: berorrek dion au guzia
ongi dator, bekatuen oituran osotoro sartu ez diranen-
tzat; baña ni oitura onetan bizi naiz aspaldiko urtee-
tan, ez ote da neretzat miñanz onetatik irteteko sen-
dagairik? Bai, eta asko, ta onak, eta zuk leyalki artzen
badituzu, sendatuko zera: baña ez ditu artu nai oitura
zarra duanak sendagai egokiak, eta berekin darama
obira oitura gaiztoaren lorra. Nai dituzu zuk sendagai
egokiak artu? Zoaz bada Konfesore on bategana, eta
egizu arretaz esaten dizun guzia, eta sendatuko zera.
Au da S. Bernardok ematen dizun, sendagaya. Egin
dezagun, nere Kristauak, denbora degun bitartean

alegiña bekatutik aldegitako, eta Jaunaren grazian
irauteko: onela iritsiko degu betiko bizitza. Amen.

AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

Bekatuak berekin ekarri oi dituan ondoren gaiztoen artean bigarrena izan oi da lagun urkoai bekatuako bidea, edo eskandaloa ematea. Eta bekatu au izango da gaurko Erakusaldiaren gaya.

Adirazten da lenengo lekuan, zer dan, eta zeñ izugarria eskandaloa diritzan bekatua.

Adirazten da urrena, zer egin bear degun, Jaunagandik bekatu onen barkazioa iristeko.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est,
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiae 2.*

Utzi dezu bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta ez dezu beragana biurtzeko neurririk artu nai. Jakizu bada, esaten dizu Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu, gauza samiña dala zuk zure Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea: Szito, et bide, kia malum, et amarum est relkisse te Dominum Deum tuum. Amaikagarrren Erakusaldia da gaurkoa gai onen gañean: eta azkenekoan aditu zenduan, nola, bekatuak ekarri oi dituan, ondoren gaiztoetatik lenengoa bezala dan

bekatuan erortzeko erraztasuna, eta oitura, eta zeñ miñanze gaiztoa dan au. Aditu zenduan gañera, nola-ko arreta ipiñi bear dan minanz onetan ez erortzeko; baña au da gauza bat, bekatari gutxik egin nai duena, eta asko erori oi dira oitura gaiztoetan. Gaitzerdi litza-ke bere burua galtzearekin geratuko baliz bekataria, baña gertatzen dana da beste askori ematea bekatu-rako bidea, edo eskandaloa: eta au da hekatuaren beste ondoren gaizto, eta samiña. Onen gañean izan-go da gaurko Erakusaldia. Aditzera emango det lenen-go lekuan, zer eta zeñ izugarria dan, *eskandaloa* deritzan bekatua. Urrena, zer egin bear degun, bekatu onen barkazioa Jaunagandik iristeko. Asi gaitezen bertatik.

* * *

Eskandaloa deritzan bekatua da lagun urkoari bekatu-rako *bidea, oña, edo laguntza ematea*: bekatu larrirako bidea ematen bada, eskandaloa ere izango da larria, bestela izango da beniala. Baña begira, bekatu larri, edo mortala egin diteke, obraz ezezik, itzez, eta gogoz ere.

Gerta diteke batek lagun urkoari gaitzerako biderik ez ematea, eta ark bere gaiztakeriaz bidea artzea; eta orri deitzen zaio *Fariseoen eskandaloa*; oek alabaña Jesusen obra onetatik artzen zuen gorrotorako bidea. Ez da onelako eskandaloaren beldurrez utzi bear egin bear dana. Gerta diteke gañera, batek lagun urkoari bekaturako biderik ez ematea, eta alaere ark artzea, ez gaiztakeriaz, baizik argaltasunez, edo sasoi txarrean dagoalako. Eskandalo au izendatzen da argalena. Emakume, edo gizon bat dagokan eran janzita Elizara etortzea gauz ona da, eta berez ez dio iñori bekaturako biderik ematen: alaere artu lezake bide au urliak, edo sandiak bere argaltasunez. Eskandalo onen gañean geyenak erakusten diguena da oraiñ esatera noana. Elizara etortzea, naiz jai eguna izan, naiz ez, utzt diteke, eta utzi bear da, urlia, edo sandia- rentzat bekatuan erortzeko perill andia danean: utzi bear da diot iñoiz, edo berriz: ez ordea askotan: zeren askotan utzitzea izango lizake neke andiegia. Au bera diot beste gauz onak, edo bekatu ez diranak egitearen ganean.

Bekaturako bidea, batzuetan ematen da, bekatu eragiteko asmorik gabe. Au gertatzen da, esaten, edo egiten bada, lagun urkoarentzat bekaturako perill

andia ekarriko duan gauzaren bat. Ala gertatu oi da itz loi-desonestoak esateko oitura duenakin: *denbora igarotzeko unore onean, esaten dituela*, darauste onelakoak; baña ez dira ontzat emango Jaunaren aurrean aitzakia oek. Atozea, unore ona igarotzeko da lagun urkoari bekatuaren puzoya prestatzea? Unore ona igarotzea da gazteai bekatuak moduak erakustea? Epañako lege batek agintzen du, ez dedilla, ez gauaz, ez egunaz esan, edo kantatu izt desonestorik: eta lege au autsitzen duanaren kastigua da eun azote, eta urte betean erritik kanpoan bizitzea. Lege au gordeko baliz, zenbatek bizi bearko luke basoetan mosalakin? Eta zer esango degu, keñada lotsagarriak egiteko oitura duenaz? Añ lasayak, eta aberekiak dira zenbait, non, obrazko bekatuaz osteronzeko guziak, ezertan artzen ez dituen: *ez det Jauna ezer seigarrengoan*, esango due. Atozea, eta ez ote dira izan keñada lotsagarriak, eta aragien izendatzea? Ez ote dira izan musu, laztan, eta goyetako ukierak? Oriek, bai Jauna, baña ez; ditugu gauz oek ezertan artzen: *unore ona besterik ez da izan?* Unore onaren aitzakian bada egizu edozeñ gauza. Atozea, ori da Kristauari dagokan itzegitea, eta bizitza? Bekatu eragiteko asmorik gabe ematen due gaiñera askok bekatuak bidea, onesti-

dadeak eskatzen duan, modu ona gorde gabez. Au gertatzen da, batzuetan mutillak igeri egiten duela, emakumeak dabiltzan tokian, edo begira daudela; besteetan, emakumeak gobada jotzeko jartzen dirala era lotsagarrian gizonezkoen aurrean, edo arbola gañetan dabiltzala, mutillak begira daudela. Zer esango det, goyak salgai ipintzen, eta erakusten dituenaz, edo, zatarrezko metak altxatzen dituen, eroaz? Zer esango det, dituen era, eta mallari begiratu gabe, ezin irozo dezakeen adiña soñekoetan gastatzen duen txoraskaz?

Bekaturako bide, edo eskandaloa beste batzuetan ematen da, laguntzen zayola lagun urkoari gauza debekatuetan. Era onetan *eskandaloa* deritzan bekatua egiten du, nagusiari, etxekoandre, edo lagunari lapurretan laguntzen dionak: ezkontzeko dauden estalki jartzen danak, egon ditezen aek bakarrik, eta nai duen eran: era berean etxeetako seme, edo alabai arto, edo garia erosten diezanak, dakiela, ostua dala: edanean igarotzeko laguntzen duenak brindiska: sagardoa, ardoa, edo edari bizia, orditzeko perillean daudenai, ematen diezanak: eta oro bat ordu jakiñaz kanpora gazteak, edo zarrak idukitzen dituenak jokoan, eta bear bada eziñ emendik esan nitzakean, modu

itxusietan. Zer esango det, arako etxe aez, non jai egunetan biltzen diran gazteak, ala mutillak, nola neskatxak, eta non gertatzen diran onestidadeari ez dagozkan gauzak? Eta onelako etxeetako buru, edo gurasoak, Katolikoan artean ere badira?

Atzenean bekaturako bide, edo eskandaloa ematen da zenbait aldiz, baldin bat, bere karguaren eginbideai eranzuteko, zabarra bada. Ez da asko erriko buru, eta kargudunak, edo gurasoak gauza gaiztorik ez egitea: gauza bearra da gañera karguari arretarekin eranzutea, eta au ez egitera, asko gazte eta zar eroriko dira bekatuetan, eta bekatu oek izango dira kargudunaren gañean. Ay! eta alde onetatik ongi begiratzen badiegu geren buruai, eztakit, nola arkituko geran gai onetan! Eta zabarkeria utsarekin eskandalo, edo bekaturako bidea eman baditeke, zer izango da asko guraso bizi diran bezala bizitzea? Zer, errieta-kargudunak bide ez egokietan ekustea? Baña goazen aurrera, eta dakuskun, zeñ izugarria dan eskandaloa deritzan bekatu au.

Lagun urkoari bekaturako bide, edo eskandaloa ematea da Jaungoikoa utzirik Satanasen alde altxatzea, eta onen gerrari, eta serbitzari jartzea. Satanasmunduaren asieratik ari da Jainkoari gerra egi ten, eta

animak infernura amilderazten: eta beragatik eskandaloa ematea da Satanasen gerrari jartzea, animak infernura bidaltzeko. Au da, nere Kristaua, batayoko egunean eman genduan itza? Lagun urkoari bekaturako bide, edo eskandaloa ematea da Jesu-Kristori, ainbeste neke kostatzen zaitzaizkan, animak kentzea, eta etsai gaigarriari ematea. Norena da, nere Kristaua; norena da zuk bekatura amilderazo dezun anima ura? Jesu-Kristorena da alde guzietatik. Jesu-Kristorena, zeren, Jaungoikoa danez, ezerezetik egin zuan. Jesu-Kristorena gañera, zeren Jaungoiko-gizona dan bezanbat bere odol preziotsuaren kostuz erosi, eta beretu zuan: *Etzerate zerenak*, esaten digu S. Paulok, *non estis vestri*, baizik Jesu-Kristorenak: *vos autem Chti* (1^a ad Corint. 3, et ad Ephes. 6). Zeñ bidegabe izugarria izango ez da bada kentzea Jesus onari ainbeste nekerekin beretu zitan animak; eta ematea Satanasi?

Lagun urkoari bekaturako bidea, edo eskandaloa ematea da Zerurako Jaunak egin zuan anima alegiñean amilderaztea betiko su, eta garren artera. Asma diteke gogortasun itsusiagorik? Idi, edo bei bat karobi batera botatzea gogortasun andia izango lizake, zer izango da Zerurako Jaunak egindako anima betiko infernura bota nai izatea?.

Lagun urkoari bekaturako bide, edo eskandaloa ematea da golpe batean iru eriotza izugarri egitea; illtzen du alabaña lenengo lekuan bere anima, Ezekiel Profetak dion bezala: *Anima quae peccaverit, ipsa morietur* (c 18). Illtzen du urrena lagun urkoaren anima, eta animarekin batean arteraño egin zituan obra on guziak. Illtzen du gañera bere alegiñean Jesus S. Paulok dion eran.

Atzenean: lagun urkoari bekaturako bide, edo eskandaloa ematen diona beartua dago animetan egin dituan kalteak alegiñean desegitera, baña nola au egingo du, ezpadaki, norañokoak diran egindako kalteak? Bekaturako bidea ematearekin gertatzen da gari soro baten erzeko lasto igarrai su emanda gertatzen dana, edo gertatuko litzakeana. Erzeko lastoetatik erraz igaroko lizake sua urrengo lastoetara, oetatik soro guzira. Eta zer beste gauzarik gertatzen da, bekaturako bidea ematen danean? Urliak eman dio sandiari bekaturako bidea: sandiak beste askori, oek besteai eta bearbada su au ez da itzali, urte askoren buruan ere: bearbada asko ill dira, eta infernuan daude; eta besteak aurrera dijoaz bekatuaren moduak erakusten...

(Erakusaldi au arkitzen da geyago segitu eta akabatu gabe Agirre Jaunaren paperetan).

AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

Bekatuaren ondoren gaiztoen artean irugarrena izan oi da bekaturako bide, eta sareetan anima nasturik, eta katrabillaturik geratzea. Orregatik bekaturako bideen gañean izango da Erakusaldi au.

Aditzera emango da lenengo lekuan, zer, eta. zenbat gisatara izan oi dan bekaturako bidea.

Aditzera emango da urrena, zeñ gauza bearra dan bekaturako bideetatik aldegitia.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.*

Utzi dezu, bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta alperrak izan dira, zu Zerurako bidean ipintzeko, oraindañoko nere alegin guziak. Jakizu bada, esaten dizu Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran uztitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Asi giñan bekatuak berekin ekarri oi dituan ondoren gaiz-

toak ukitzen, eta azkeneko aldian ekusi zenduan, Kristaua, zer dan, eta zeñ izugarria *eskandaloa* deritzan bekatua, au da alabaña bekatuaren ondoren samiñetatik bat. Ekusi zenduan urrea, zer egin bear degun bekatu onen barkazioa iristeko. Ez du bekatariak aditu nai, bere onerako esaten zayona; aurrera dijoa gaiztakerian, eta dabillen tokian eotzen ditu bekaturako sareak, eta nonnai geratzen da nasturik, eta katrabilaturik. Au izan oi da bekatuaren irugarren ondoren samiña. Orregatik gaur itzegin nai dizut, bekataria, bekaturako bide, edo perillen gañean. Aditzera emango dizut, lenengo lekuan, zer, eta zenbat gisatara izan oi dan bekaturako bidea. Aditzera emango dizut urrea, zeñ gauza bearra dan bekaturako bideetatik alde-gitea. Enzun arretarekin.

* * *

Bekaturako *bide* eta *perillaren* izenez aditzen da artarako bidea ematen digun edozeñ gauza; baña ez dira berdiñak bide, eta perill guziak. Bata da *urrutikoa*, eta onela deitzen zayo, zeren beregandik urruti daukan bekatua, eta gutxitan amilderazo oi duan artan. Bazatoz Elizara, eta ekusten dezu gizon, edo emaku-

me bat ongi janzia. Ekuste au uts-utsik, edo beste sal-sagarririk ez duala, bekaturako bide, eta perill *urrutikoa* da, eta etzaude onelako perilletatik iges egitera beartua; bestela irten bearrak giñake mundu onetatik.

Bekaturako beste bide, eta perilla da *urkoa*, zeren bide, eta perill onetan dagoana, edo jartzen dana sarritan erori oi dan bekatuan, edo beintzat erortzeko perill andia dan, sayets guzietara begiratu ezkerro. Demagun arako etxe artan jai egunetan biltzen dirala mutillak, eta neskatxak: aritzen dira denbora puska batean karta jokoan, eta bitartean, edo ondoren izan oi dira izketa desonestoak, keñada lotsagarriak, eta beste modu itsusiak. Batzarre onetara joatea da bekaturoko bide, eta perill *urkoa*. Alaere izango dira etxeetako buruak onelako batzarreak beren etxeetan idukitzen dituenak. Badaki urliak, Tolosara gurasoa gabe dijoanean, sartu oi dala an, edo emen bere Aingeru goardakoarekin: edaten da poliki gurgurren sendagaitik, eta ondoren an, eta bidean gertatu oi dira itzegite, eta modu itsusiak. Nork eztakus, zuretzat gis-orretan Tolosara joatea, izango dala bekaturako bide, edo perill *urkoa*? Badaki sandiak, erriz erri festen aitzakian ibiltzea, oraindaño arentzat izan dala bekatu askotan erortzeko bidea: onekin ukiera zikiñak; arekin musu,

eta laztanak; onekin itz aragizkoak, arekin zerbait geyago. Eta nork igerriko ez du, sandiarentzat erriz erri orrela ibiltzea dala bekaturako bide, eta perill urkoa? Badaki berendiak, arako ezkutari arekin baka- rrik egotea dala arentzat bide, eta perill andia atsegin lizunetan, edo beintzat gogorazio gaiztoetan goisatze- ko: ekusia dago beraz, egoera ori berendiarentzat dala bekaturako bide, eta perill urkoa.

Bekaturako bide, eta perilla izan diteke urkoa, obrazko bekaturik izan ez arren, baldin itzez, gogoz, edo beste moduz erortzeko bide, edo perill andia hada. Emendik atera dezakezu, zenbait gazte, gaitze- ronk kolokatzen diranetik, zentza ditezen artean, bizi dirala bekaturako bide, eta perill andi, eta urkoan. Nola ori, esango didazu? Zeren itzez, gogoz, eta eskuz erortzen diran kezka, ta ardurarik gabe. Galde bekie onelakoai: *Seigarrengoan badezu ezer? Ez Jauna*, eranzungo due. Galde bekie gero: *izanda onelako gauza? Bai, Jauna. Eta alako gauza? bai Jauna*. Nola bada esan dezu, *ez dezula seigarrengoan ezer? Jauna, orrelako gauzak ez ditut ezertan artu*. Emendik ez da zer miretsi, baldin onelakoak bekaturako bide, eta perill urkoan kezka andi gabe bizi badira, bada arau-

rreneko bekatuaz osteronzekoak ezertan artzen ez ditue.

Bekaturako bide, eta perilla izan diteke *urkoa* edozeñ mandamenturen kontra. Uste due batzuek, seigarren mandamentuari dagozkan gauzetan bakarrik izan oi dala bekaturoko bide, eta perill *urkoa*; eta engañatzen dira; bada seigarren Mandamentuaren kontra ezezik besteen kontra ere bekatu egin diteke, eta askotan andiagoa. Orregatik bekaturoko bide, eta perilla izan diteke *urkoa*, edozeñ Mandamenturen kontra. Ala izan oi da batzuentzat edaria saltzen dan etxera joatea, zeren edo orditzen diran, edo lagun arteko, eta etxeko pakea galerazten duen: besteentzat jokoa; batzuentzat gauzen saltze, eta erosketa, besteentzat beste gauzaren bat.

Bekatuaren bide, eta perill *urkoa*, batzuetan da *borondatearen kontrakoa*, esan nai det, nai ta ere ezin batek utzi dezakeana, beintzat kalte andi gabe. Badijoa bat itsasoan, eta onzian arkitzen du bere burua seigarren Mandamentua autsitzeko bide, eta perill *urkoan*: deitzen zayo bide, eta perill oni *borondatearen kontrakoa*, zeren naita ere ezin aldegin dezakean onzian dijoanak. Au bera gerta diteke kartzelan dagoan batekin. Gertatzen da batzuetan *bekaturako bidea*

utzi litekeana izatea, baña kalte andiarekin, edo onran, edo beste ondasunetan. Onelako bide, eta perillari ere *borondatearen kontrakoaren* izena eman oi zayo, utzita etorriko lirakean kalteakgatik. Demagun Erretore batentzat bekaturako bide, eta perill andia dala duan kargua: utzi lezake kargu au; baña uzten badu geratu bearra da zerekin bizi ez duala: bekaturako bide, eta perill au borondatearen kontrakoa da, kalte andi gabe eziñ utzi ditekealako. Zer egin bear du onelako bekatarriak? Alako neurriak artu bear ditu bekatuan ez erortzeko, non garaitu dezakean duan perilla Jaunaren lagunzarekin: eta ezin badu, aldegin bear du perill artatik, datorrena datorrela, naiz galdu ditezela ondasun guziak, naiz bizitza: kalte oek baño andiagoa da alabaña anima galtzea betiko.

Gerta diteke, gauza bat berez gaiztoa ez izatea, eta alaere askorentzat bekaturako bide, eta perillurkoa izatea. Eguzkiaren, eta izarren edertasuna ez da gauza gaiztoa, baizik ona: alaere anziñako denboran askorentzat izan zan idolatriarako bidea. Ona da ezkonza, errietako kargudun izatea: baña askorentzat dira anima galtzeko bidea. Orregatik aldegin bear dezu, zuretzat bekaturako bide, eta perilla dakarten gauzetatik, berenez gauza gaiztoak ez izan arren:

aldegin bear dezu arako lagun, etxe, jolas, itzegite eta festa aetatik, baldin zuretzat bekaturako bidea bada-karte. Ez dezazula osan, askok osan oi duen bezala: *bezteak badiioaz, zergatik joango ez naiz ni?* bada aek ez due bear bada zuk dezun adiña perill, edo ez due igerritzen: eta nolana: zu beartua zaude zuretzat bekaturako bide, eta perilla diran gauzetatik aldegi-tera. Añ gauza bearra da au, non bekaturako bide, eta perill urkoan borondatez jartze utsa bekatu dan, perillari dagokan bekatu ura egitea zerbaitek eragotziko balu ere. Demagun, zuretzat jai egunetan ostatura, edo edaria saltzen dan etxera joatea dala orditzeko, edo beste bekatuetan erortzeko bide, eta perill urkoa: bazoaz jai batean, eta biurtzen zera etxera ardorik ukitu gabe, zeren aitu dan. Etzera ordi, eta alaere ordi baziña bezala bekatu egin dezu, zeren zere naye artarako bidean jarri zeran.

Bekaturako bide, eta perilla *urkoa* izateko ez da sarritan bekatuan erori bearrik, baldin era danean erortzen bada bat. Urtean beñ izan oi da iñuteria, eta urtean beñ erri bakoitzeko festak: alaere askorentzat egun oriek dira bekaturako bide, eta perill urkoa, zeren erortzen diran edo gogoz, edo itzez, keñadaz,

edo bestela. Baña nork ezertan artzen ditu bekatu-
ko perill oek?

Atzenean bekaturako bide, eta perilla izan diteke *urkoa*; bekatuan erori baño lenago ere, baldin alde guzietara begiraturik, erortzeko perill andia bada. Jose anziñakoa, Jakoben seme ederra, etzan bere etxeko-andrearekin bekatuan erori, baña orpoz-orpo zerrai-kion emakume gaiztoa, eta aren atzaparretan utzirik kapa iges egin zuan etxetik. Nork eztakus, bekatu-rako bide, eta perill urkoa izango zala Joserentzat etxe artan aurrera egotea? Au bera gerta diteke serbitzen dabilzan zenbaitekin. Suerteak ematen dio bati nagu-si ollakoi, edo txoraska bat guzia dastatu nai duana: ekiten dio beñ, ta berriz, eta askotan gaizki dirudien moduakin: ayenatzen eta botatzen du beregandik ordu gaiztoan, eta ez dio beregan bekatuari lekurik eman. Alaere alako etxean, eta alako nagusiarekin bizitzea izango litzake gizon jakintsu askoren iritzian, bekatu-rako bide, eta perill andi, eta urkoa. Orra, Kris-taua, zer, eta zenbat gisatara izan oi dan bekatu-rako bide, eta perilla. Dakuskun oraiñ, zeñ gauza bearra dan bekatuaren bideetatik aldegitia.

Espiritu Santuak esaten digu, perrilla nai duana perillean bukatuko da: *Qui amal periculum, in illo peribit* (Eclesiastici 3^o v. 27): esan nai du, perillean eroriko dala. Ala gertatu da beti, eta aurrera ere gertatuko da. Zer gertatu zitzayon Ebari? Bazebillen Paradisuko berjera zoragarrian: etsai galgarria asi zitzayon galdeka, zergatik *jakiundearen* arbolatik jaten etzuen? Eranzun zion: Paradisuan diran arbolen frutatik jaten degu; baña agindu digu Jaunak, ez dezagula jan Paradisuaren erdian dagoan arbola baten fruta, eta ez dezagula ukitu ere, ill ez gaitezen. Esan zion etsayak: etzerate ez illko orregatik; badaki alabaña Jaungoikoa, arbola aren fruta jaten dezuen bezala, idikiko dirala zuen begiak, eta izango zeratela, bera bezala, onaren, eta gaitzaren, eta gauza guzien ezaguera dezue-nak. Ezagutu zezakean Ebak, etsayak ematen ziola Jaunaren aginte ausitzeko bidea, eta aldegin bear zuala artarako perilletik. Ez ordea ori egin: eta ala egin lekuan joan zan arbola zegoan tokira, jarri zan begira, eta zeritzan, txit ona izango zala jateko, eta zaletu zan: beste aldetik arbola bere frutakin añ ederra zegoan, non lilluratu, eta txora zezakean: *Pulchrum oculis, aspectuque delectabile*. Zer gerta al zitekean onetara

ezkero? Zer, bere nayez perillean jartzan danari gertatzen zayona baizik? Artu zuan sagar bat, eta jan zuan: artu zuan beste bat, eta eman zion Adani, eta onek ere jan zuan, eta onela galdu zuen mundu guzia (Genes. 3). Zer gertatu zitzayon Dabidi? Bazkal ondo batean, lo eginda, bere jauregiaren gañeko ibiltokian zebillela, ekusi zuan Betsabe, Uriasen emazte ederra, bañuan, edo urean bere burua garbitzen ari zala. Igerri zezakean Dabidek, zer gertatuko zitzayon, kentzen ezpazituan begiak perill artatik; baña zabartu zan, eta erori bekatuan, eta illerazo zuan Urias. Zer gertatu zitzayon Salomoni ? Ezkondu zan, Jaungoiko gezurrezkoak adoratzan zituen, emakume goi mallakoakin, eta gizon añ jakitsua amildu zan idolatrian. Orra nola perilla nai duana perillean eroriko dan. *Qui amat periculum, in illo peribit.* Baña zer diot nik eroriko dala? Bere borondatez perillean dagoana, egoera utsarekin eroria dago, eta eroriaz dijoa ala dagoan bitartean. Orregatik esaten digu Jesusek: zure eskuyeko begia zuretzat bekatuako bidea bada, atera eta bota ezazu zeregandik: eta eskuyeko eskuak ematen badizu bekatuako bidea, ebaki, eta bota ezazu zeregandik: esan nai du, kendu, edo utzi bear dala bekatuako bidea, begia, edo eskua bezeñ bearra baliz ere: *Si ocu-*

lus tuuns dexter scandalizat te, erue eum, et projice abs te... et si dextera manus tua scandalizat te, abs-cinde eam, et projice abs te (Math. 5).

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ gauza bearra dan bekatuaren bideetatik aldegitia? Baña nola aldegingo dezu gogortuaz bazoaz bekatuan? Nola aldegingo dezu, utzi badezu zure Jaun, eta Jaungoikoa? eta bera-gana biurtzeko biotzik ezpadezu? Aldegin bearrean, zalbiltzan erri, eta tokietan eoko dituzu sare berriak, eta nonnai nastuko zera bekatuako biskan. Etzaiteze-la engañatu: deitzen dizu etsayak betiko su, eta garren artera, eta ara eramateko zorian zauzka, eta ari jarraitu nai diozu? Deitzen dizu zure Aita Zerukoak, eta ez dezu adituko beraren dei gozoa? Ea, biurtu zaite beragana, onela iristeko zure bekatuen barka-zioa, eta gero betiko bizitza doatsua. Amen.

EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

ETA BEKATURAKO BIDEEN GAÑEAN BIGARRENA

Adirazten da lenengo lekuan, nolako aitzakiak billatzen dituan bekatuaren bideetan nasturik bizidanak, andik ez irteteko.

Adirazten da urrena: zeñ negargarriak diran, emendik bekatariari etorri oi zaizkan ondorenak.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum, Jerem. 2.*

Utzi dezu zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta añ esker-gabea zera zure Aita onarentzat, non, biurtu etzeran beragana, aditu dituzun ainbeste egia gozorekin ere. Jakizu bada, esaten dizu Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu gauza gaizto, eta samiña dala zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum*. Egia au ongiena ezagutzen da bearbada,

bekatuak berekin dakartzian, ondoren gaizto, eta samiñai begiraturik, eta oen artean irugarren lekuan aitatu genduan bekatuaren bide, eta perilletan anima nastua, eta katrabillatua geratzea. Azkeneko aldian aditzera eman nizun, Kristaua, zer, eta zenbat gisatarra izan oi dan bekaturako bidea, eta zeñ gauza bearra dan bekaturako bideetatik aldegitia. Gaur ekusi bear degu, lenengo lekuan, nolako aitzakiak asmatzen, edo billatzen dituan bekatoriak, bekatuaren bideak ez uzteko. Urrena, zeñ negargarriak diran, bekatariari emendik etorri oi zaizkan ondorenak. Enzun arretarekin.

* * *

Anima bat, bekatuaren sare, eta bideetan nasturik bizi danean, alde batetik arkitzen da gerokoaren ar ozkariarekin, eta bestetik sorra dago bear lukeana egiteko, eta billatzen ditu al dituan aitzakiak, bekatuaren bideak ez uzteko. Ara aitzakia oetatik batzuek.

Lenengoa: ez det ukatzen, urlia nere etxean egoitea, edo onara etorri oi dan bezala etortzea, neretzat dala bekaturako bide, eta perill andia; baña ez daukat nik eskurik ura etxetik botatzeko, edo aren etorrerak

eragozteko. Zer nai du nik egitea? Aitzakia onek ez dizu ezer balioko Jaunaren aurrean; eta badakizu, ezin bekatuari lekurik eman degiokezula, ez munduaren beldurrez, ez bizitza ez galtzeagatik ere. A tozea, zu iltzera baletor urlia ori, zer egingo zenduke? Etzenduke iges egingo? Ala bear izatea, etzenduke deadar egingo? Egizu bada ori bera, animaren bizitza kendu ez degizun. Iges egizu, al badezu: eziñ iges egin badezu, egizu deadar. Atzenean pakerik eman nai ezpadizu, esan zayozu, aditzera emango diozula gurasoari gertatzen dana. Jauna, gurasoari esaten badiot, galduko du urliak bere onra, eta izen ona, eta ekusi naiko ez du gurasoak. *Galduko du bere onra, eta izen ona*, gurasoari esanda? Noren kulpa izango da? Berarena; bada zuk aditzera eman ziñukan, gurasoari esango zeniola, uzten ezpazizun pakean. Baña asko ote dira au leyalki egingo duenak? Ez noaski, eta gertatuko dana da bekaturako bide, eta perilla bere oñean gertzea, eta gero? Betiko su, eta garren artean erortzea, ezpadira garai onean zentzatzten.

Bigarren aitzakia: aitortzen det, oraindaño bizitu naizala bekaturako bideetan, eta egin ditudala ezin konta al bekatu. Denbora puska batean jai arrasaldee-tan joan oi nintzan etxe batera; biltzen giñan mutillak,

eta neskatxak, eta gertatzen ziran jotas, eta ibillera lotsagarriak, ala bertan, nola etxerako bi dean: eta beste onenbeste gertatu oi zitzatan iñuterian eta festa denboran. Onenbeste urtez gutxi gora bera bizitu naiz lagun gaiztoen modu, eta ibillera jarraituaz, naiz gabaz, naiz egunaz. Berandu etxeratzen giñan, eta naigabetzen ziran gurasoak: elkar artzen genduan urlia, sandia, ta berendia bekatuan amilderazteko, eta gero elkarri esan oi giñuzkan igarotzen ziran gauzak. Onenbeste denboran izan det adiskidetasun gaiztoa urlia batekin: era izan ezkerro, gertatu oi ziran bekatu mota guziak, eta oraindaño iraundu, eta badirau perill onek. Askotan agindu didee Konfesoareak, utzi ditzadala nere lagun gaiztoak: utzi ditzadala arako etxe aek, non bildu oi diran mutill, eta neskatxak: utzi ditzadala adiskidetasun limuri oek; baña beren oñean daude batzuek beintzat. Atozea, eta eztakizu, oriek utzitzea dala zuretzat, Jaungoikoagana biurtzeko lenengo lana? Ongi esaten dit, eta erabaki det sendoro, ori egitea; baña gaur absoluzioa eman bear dit. Zer diozu, bekataria? Lenago utzi bear dituzu bekaturako bide oriek: gero presta zaite gaizki bizitu zeran denborako konfesio guziak berritzeko, eta orduan egongo zera absoluzioa artzeko sasoi onean, baña arteraño ez.

Jauna: egingo det ori guzia; baña gaur Komunio Santua artu bear det: bestela zer esango litzake nizaz? Komunio Santua artuko dezu, sasoi onean jartzen zeranean: eta etzaitezela leyatu gai onetan. *Jauna, zer esango due?* diozu. Ezer ez, zeren bakoitzak badu bere buruarekin zer egin, zuri begira egongabe ere. Gañera egun oro berritzen dira konfesioak, eta gauzak ongi bukatu artean uzten da Komunioa: eta ez du orregatik ezerere galtzen bekategoriak. Utzi itzatzu bada aitzakia oriek, eta egizu bear dana.

Irugarren aitzakia: *joango naiz arako etxe artara, arako lagun aetara, baña ez det ezergatik bekaturik egingo lenago lepoa eman.* Atozea, oraindano etxe, eta lagun oriek ez dira zuretzat izan bekatuan erortzeko bide, eta perill andiak, edo gogoz, edo itzez, edo bestela? Eta alaere diozu, joango zerala perill orietara, eta ez dezula bekaturik egingo? Ez dezu ekusten, oridala, bekaturako bide eta perill urkoak uzteko, biotzik ez izatea? Zuk nai zenduke bi gauza, denbora batean ezin elkarrekin izan ditezkeanak, oek dira bekaturako bide urkoan borondatez egotea, edo jartzea, eta bekaturik ez egitea. Eztakizu, orrelako perillean egote, edo jartze utsa bekatu dala? Perilla nai duana, perillean eroriko, edo galduko da, dio Espiritu Santuak: *Qui*

amat periculum, in illo peribit. Zu bezala dabillenari gertatu oi zayo mitxirrikari, edo ingumari gertatzen zayona. Badabil mitxirrika argiaren inguruan: begiratzten dio, eta lilluratzen, eta txoratzen du argiaren edertasunak: alderatzen zayo, eta erretzen zayo egoa baten erza: badijoa berriz, eta erretzen zayo zanko txar bat. Alaere ez da zentzutzen, eta atzenean iltzen da txoraska argiari darraikala. Ay! zu gizon, edo emakume inguma, edo mitxirrika guziak baño txoroago biurtu zerana! Zenbat bider esan zatzu, utzi bear dirala bekaturako bide, eta perillak, bekatuan ez erortzea nai badegu? Alaere joango naiz, diozu, *eta ez det bekaturik egingo*: itsumenaren andia!

Laugarren aitzakia: joango naiz etxe artara: *joango naiz lagun gaizto aetara, baña uste det, Jaunak emango didala bekatuan ez erortzeko lagunza; ala eskatu diot benaz Birjiña txit Santari*. Bekatari zentzugabea: au da bekaturako bidea utzi nai ez izatea, eta Jainkoaren laguntza, eta Birjiña txit Santaren bitartekotasuna zure bekaturen estalkiñ ipintzea. *Uste det diozu, Jaunak emango didala bekatuan ez erortzeko lagunza*: engañatzen zera; Jaungoikoak alabaña ematen dizkigu, bekatuaren bideetatik aldegitoko laguntzak, baña ez, geren nayez bekaturako perillean jarri

nai badegu. Atozea, zere nayez sartzen bazera karobi erazeki batean, naiko, edo usteko dezu, Jaunak gordeko zaituala mirari andi batekin, erretzen etzerala? Ez dezu ekusten, au izango litzakeala zentzu, gabekeri andi bat? Gañera esana dago, bere nayez bat bekaturako bide, eta perill urkoan egote, eta jartze utsa bekatu dala. *Eskatu diot benaz, diozu, Birjiña txit Santari, gorde nazala bekatutik* Au da beste zenzugabeke-ri andia. Atozea, zere nayez joan nai badezu bekatura-ko bidera, eta joatea bera bekatu bada, nola bekatu-tik gordeko zaitu Birjiña txit Santak?

Bostgarren aitzakia: *Joaten naiz* ni urliaren etxiera, baña ez gauza gaiztorik egitera: besteak ere joan oi dira nai duen lekura. Au da ematen dituzun esanme-sak kentzeko biotzik ez izatea. Demagun, etzoazela ara gauza gaiztotara, baizik errosarioa esatera: baña munduak badaki, urlia dala ergel bat, eta zu zerala Jaunaren beldur gutxikoa: munduak ekusten zaitu ara zoazela gauaz, eta egunaz, eta ezagutzen du, ez dezula an egitekorik batere: emendik badaraus zure ibilleraren gañean, eta dio: Oriei orrela utzi bear zate? Ez da Alkaterik, ez Erretorerik? Jauna, besteak ere joan oi dira nai duen lekura. Ongi: demagun, besteak ez duela ongi egiten: eta zeren besteak gaizki egiten

duen, zuk ere egin bear dezu? Munduak badaki zure berri, eta mirua dabillen toki guzian miru dala: eta oker edo zuzen badaraus zure kontra: besteaz ori bera egingo du, miruak dirala igerritzen duanean. Orregatik beartua zaude jayera ori utzitzera; S. Paulok dio alabaña, utzi bear ditugula, gauza gaiztoak ezezik gaiztoen anza duenak ere: *Ab omni specie mala abstinete vos* (1 ad Thesal. 5).

Seigarren aitzakia: urliaren etxera joaten naiz, edo sandiarekin egoten naiz, baña aspaldi ez da gauz andirik gertatu. Au da beartua, eta artarako bidea gañtxuritzea, leneko perillean geratzeagatik. Atozea, eta urliarekin zaudenean, ez oi dira gertatu izketa lizunak? keñada lotsagarriak, musu, eta laztanak? Oriek bai, Jauna; eta alaere gauz andirik ez da gertatu diozu, eta orietan erortzeko perill urkoan iraun nai dezu? Badira bekatari batzuek añ leundugabeak, basati, eta moldakabeak, non, araurreneko bekatuak baizik, ezertan artzen ez dituen.

Zazpigarren aitzakia: *al banu utziko nuke bekatu-rako bide, eta perill au, baña zertan nago ni urliareki-koa galtzen badet?* Au da munduaren, edo munduko-en beldurrez bekatuan, eta bekatu-rako bidean bizi nai izatea. Atozea, etzenduan batayoko egunean Jaungoi-

koa gauza guzian gañetik amatzeko itza eman? Ez dezu dotrinan esaten, *Jaungoikoa* gauza guzien gañean amatzea dala guziak galtzea nayago izatea bera ofenditzea baño? *Zertan nago ni*, diozu, eta zertan zaude, zere anima galtzen badezu betiko? Zer aterako dezu, mundu guzia irabazita ere, galtzen badezu zere anima, esaten dizu Jesu-Kristok: *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur?*

Zortzigarren aitzakia: zer esango due etxe onetatik irteten banaiz, edo etxe artara joaten ezpanaiz? Au ere bekaturako bidean geratu nai izatea da geyenetan. Atozea, badakie auzoan, eta inguruetan zure bizitza gaiztoaren berri? Ezpadakie, ez due ezer esateko biderik batere, zeren etxe batetik irteteko, edo baste batera ez joateko non nai izan oi dira milla modu, eta ez da orregatik ezer esateko biderik. Baña baldin badakie auzoan, eta inguruan, poztuko dira dakienak, bekaturako bidetik aldegiten dezula, dakustenean. Eta uste dezu, ez dakiela? Galde giezue iturriai, labeaurrai: galde sukaldeetako laratzai, eta oek esango dizue, nola zure bizitzaren gañean itzegin dan.

Bederatzigarren aitzakia: *Jauna, bekaturako bide, eta perillurkoa utzitzea aiñ gauza bearra bada esan-*

*go diot urliari, bukatu dirala gure kontuak, egin deza-
la konfesio on bat. Atozea, eta onenbesterekin geratu
nai dezu bekaturako bidean? eta uste dezu, zuk ori
esatearekin onduko dala urlia? Demagun, itotzeko
zorian iduki duela otsoak ardiren bat. Andik laster
badijoa ardi txoroa otsoagana, eta esaten dio: *Otso
Jauna, gauza bat zuri esan bearrean nago: etzaitezela
izan oraindano bezeñ ardikoya: gaizki itzegiten da
zuzaz, ondu zaite.* Uste dezu, orrenbesterekin onduko
dala otsoa? Ondu bearrean, ortzak egotziko diozka
airdi txoroari, eta arzaz egingo du nai duana. Au bera
gertatuko zatzu zuri ere, bekataria, aitzaki oekin gera-
tzen bazera bekaturako bidean. Orra, nolako aitzakiak
billatzen dituan bekataria, bekatuaren bideak ez
uzteko. Dakuskun orain zeñ negargarriak diran emen-
dik etorri oi zaizkan ondorenak.*

* * *

Lenengo ondorena da, Jaunak ukatzea, bekatuan
ez erortzeko bear dituan, Zeruko lagunzak. Ez dizu
Jaunak agintzen, bekataria, Zeruko indar, eta lagunza
bekatuan ez erortzeko, zere nayez jartzen bazera, edo
bazaude bekaturako bidean. S. Pedro bere nayez jarri

zan izketan, eta surtan berotzen Jesusen etsayakin, eta erori zan bekatuan, ukatzen zuala iru aldiz bere Maisua, eta S. Pedrori utzi bazion Jaunak bekatuan erortzen, zeren bere nayeaz perillean jarri zan, zer gerta al diteke besteakin?

Bigarren ondorena: Sakramentuak, eta Jesu-Kristok gure onerako ixuri zuan odol preziosua bere animaren puzoi biurtzea; bekatuaren bide, eta perillurkoan bere nayeaz dagoanak alabaña ezin artu deza ke absoluziorik, eta artzen badu, izango du bere kaltetan, eta au bera gertatuko zayo beste Sakramentuakin.

Irugarren ondorena: geyenetan eriotza negargarria: zeren edo batetan, edo prestaera txarrarekin ill oi diran onelakoak. Ala gertatu zitzayon Toledoko inguruan ezkutari bati; izan zuan noizbait Birjiña txit Santaren jayera andia; baña adiñean zerbait sartu zanean, oitu zan gaiztakerietara, eta bizitu zan bekaturako bidea bere etxean zuala. Bazan erri artan anima birtutetsu bat, eta egun batean otoiz, edo orazioan zegoala, agertu zitzaizkan Jesu-Kristo Birjiña txit Santa, eta Aingeru asko. Asi ziran ezkutariaren gañean itzegiten, eta JesuKristok eman zuan batetan bizia kentzeko sententzia; baña Amaren erreguz utzi

zion ogei, ta amar egunean. Birjiña txit Santak esan zion begira zegoan anima birtutetsuari zijoala onelako erlijiosogana, eta aditzera eman zegiola ekusi, eta aditu zuana. Ala egin zuan ark, baña erlijiosoak etzion sinistu. Anima on ark lenengo aldian ekusi zuana bera ekusi zuan berriz, eta irugarren aldian ere. Orduan sinistu zuan Erlijiosoak, eta onek aditzera eman zion ezkutariari gertatzen zana. Ezkutariak aitortu zuan bere bizitza gaiztoa: prestatu zan konfesio on bat egiteko, eta egin ere zuan damu andiarekin. Baña etxapean arkitzen zan urlia, eta ezkutariak etzuan eskurik au botatzeko. Agindu zion, alda zedilla beste gela batera, eta barrendik itxi zezala atea, eta ala egin zuan. Urliak eragin zuan gitza berri bat: idiki zuan atea, eta kuturtu zuan ezkutaria bekatura. Berriro konfesatu zan, eta konfesoreak agindu zion, atea barrendik itxitzen zuanean, atean bertan utzi zezala giltza; baña urlia gaiztoak, idikirik atea, eta eragin zion nai zuana. Konfesatu zan irugarren aldian, eta konfesoreak eman ziozkan penitenzia sendo, eta samiñak: aspertu zan oekin, eta esan zion konfesoreari, utzi zegiola pakean: atsoen ipuyakin zebillela. Etorri zan ogei, ta amar garren eguna, eta gau erdian otsegin zioen konfesoreari. Joan zan lasterka, eta arki-

tu zuan bekatari doakabea bizirik. Ay! deadar egiten zuan: *ay! arpoi batekin igaro didee biotza!* Egin zuan konfesoreak alegiña, bekatari ura Jaunagana biurre-razteko; baña alperrik: ill zan damu egiazkoaren siñalerik gabe.

Ekusten dezu, bekataria, zeñ negargarriak diran, bekatuaren bide, eta perillak ez uztetik datozen ondorenak? Ez du bekatariak biotzik sare oek urratzeko, eta billatzen ditu milla aitzakia bekatuaren bideak ez uzteko: eta etsai galgarriak berekin darama betiko su, eta garren artera. Emendik atera ezazu, Kristaua, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jaungoikoa utzitzea, eta beragana biurtu nai ez izatea. Bekataria! eta orain ere ez aditu egingo diezu Jaunaren deiai? Ea urra itzatzu bekatuaren sare oriek: bizi zaite Jesusen lege ederrak erakusten digun eran, eta emango dizu betiko bititza. Amen.

EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

Bekatuaren ondoren gaiztoen artean laugarrena izan oi da Konfesio gaiztoak egitea. Au era askotara ger-tatzen da, len luzaro aditzera eman izan dedan beza-la; baña ez naiz guzien gañean itzegiten geratuko, asi dedan lana guyegi luzatu ez dedin. Gaur ukituko dira, bekatuak lotsaz konfesatu gabe utzirik, egiten diran, konfesio gaiztoak.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est,
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiae 2.*

Utzi dezu bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa eta amairu Erakusalditan egin da alegiña, zu zauden perill izugarritik ateratzeko; baña alperrik: etzera esnatu bekatuaren modorra, edo lo astun orretatik. Jakizu bada esaten dizu Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Egia au zuri adirazteko, azkeneko Eraku-

saldietan ukitu ditut, bekatuak berekin dakartzian, ondoren samiñetatik batzuek. Beste ondoren gaiztoa izan oi da konfesio gaiztoak konfesio gaiztoen gañean egitea. Au era askotara gertatzen da: baña ez det guziaz ekiteko asmorik, zeren gai onetan luzaro itzegin izan dedan lenago. Askotan gertatzen da bekatariak lotsaz, edo beldurrez bekatoren batzuek konfesatu gabe utzitzea, eta konfesio gaiztoa egitea. Au norekin, eta nola gertatu oi dan adiraztea izango da gaurko itzaldia, eta ondoren ukituko det, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan era onetan gure Jaun, eta Jaungoikoa utzitzea. Enzun, Kristaua, arretarekin.

* * *

Gure Salbatzalleak batayoko Sakramentuarekin barkatu zigun bekatu etorkia, jatorrizko, edo orijinala: au da, arako lenengo gurasoetatik datorkigun bekatu ura. Apaindu ginduan graziaren soñeko ederrarekin: ornitu ginduan fede, esperanza, eta karidadearen birtuteekin: eman zizkigun gañera Espiritu Santuaren doayak. Konfirmazioko Sakramentuarekin indarrez bete ginduan, beraren gudari, edo soldadu alayak bezala, animaren etsayak garaitzeko. Aldareko Sakra-

mentu miragarrian geratu zan gurekin bizitzeko, guri bere ondasunak emateko, eta Zerurako bidean laguntzeko. Gu nor izatera, etzan Konfesioko Sakramentua-ren bearrik, baña ekusten zuan Jesus onak, txit gutxi izango zirala, etsayaren kontra bear bezala peleatuko ziranak: ekusten zuan alde aldean guziak galduko zuela graziaren bizitza, eta geratuko zirala bekatuan illak. Orregatik ipiñi nai izan zuan Konfesioko Sakramentua, batayoa ezkerro egindako bekatuak barkatze-ko. Zerura igo zan baño lentxeago, sartu zan Aposto-luak zeuden tokira eta esan zien: Arrezazue Espiritu Santua: *accipite Spiritum Sanctum*: zuek barkatzen dieztezuen bekatuak barkatuak izango dira, eta orain-danik barkatzen zaizte: *Quorum remisseritis peccata, remittuntur eis*: eta zuek barkatu gabe uzten diezte-zuenenak barkatu gabe geratuko dira: *Et quorum reti-nueritis retenta sunt* (Joan. 20). Baña Sakramentu onek ez ditu nolana barkatzen bekatuak, baizik egiten duala bekatariak bere aldetik egin bear duana: eta beste gauz askoren artean gauza bearra da bekata-riak bekatuak Konfesoreari aitortzea, bere biotzean arkitzen dituan bezala, larriak beintzat. Ala erakusten digu gure sinistreak. Baña zer gertatzen da? Bekata-riak badu ausardia bekatu egiteko, baña garbiro aitor-

tzeko, edo konfesatzeko txit beldurtia da, eta asko dira, gizon jakintsuen iritzian, lotsaz, edo beldurrez bekatuak konfesatu gabe uzten dituenak; emendik konfesio, eta komunio gaiztoak egitea, eta betiko su, eta garren artera amiltzeko zorian bizitzea. Eta zu, aditzen zauden bekataria, ez ote zera oetatik bat? Au ezagutzeko, begiraldi bat eman degiogun zure bizitzari.

Zuk, Kristaua, gaztetxoa ziralara, ikasi zinduan gaiztakeri batzuek, edo senide, edo auzokoren batzuekin: askotan gogora etorri zaizkitzu dotrinaren bat aditzean, edo konfesioko egunetan; baña lotsaz utzi dituzu konfesatu gabe, zeregan esaten dezula: txikia nintzan orduan. Atozea, eta zenbat urte zinduan orduan? Jauna, zazpi, zortzi, edo geyago. Atozea, eta etzinateen ezkututzen gauz oriek egiteko? Bai, Jauna: beldur naiz bada, gaiztoak izan ote ziran zure konfesioak.

Zuk, amar, amabi, edo geyago urte zinduanean, egin zinduan ibillera itsusiak: ukitu zinduan zaurian dotrinaren batek, edo konfesorearen galdeak: konfesio batean aitortu zinduan bekatu oriek, baña, zere burua edertzeko, esan zenduan: *Jauna, artean ez nituan bost, edo sei urte besterik*. Auxe da bekatua osotoro ukatzea bezala; zeren konfesoreak usteko du

ibillera oriek gertatu zirala, onaren, eta gaitzaren eza-
guerarik etzenduman adiñean. Orregatik zure konfesioa
izan zan gaiztoa.

Zu askotan egon zera zeregan garbitasun, edo
kastidadearen kontrako gogorazioetan, len igarotako
gauza gaiztoak gogora ekartzen zinduala: batzuetan
poztutzen ziñan, besteetan goisatzen, orduan bertan
gertatzen balira bezala; besteetan gaitzerako gura
esnatzen zan. Alaere lotsatu ziñan zeregan igaro
zitzatzuna garbiro esateko, eta esan zenduman, *etzen-
duala ezer seigarren Mandamentuaren kontra*, edo
esan zenduman etzeniela lekuri eman gogorazio gaiz-
toai. Au da bekatua gañtxuritzea, eta konfesio gaiztoa
egitea. Gogorazio gaiztoak etortzea naiz fedearen,
naiz karidade, eta garbitasunaren kontra, ez da beka-
tu, baldin guk, oartzen geranean, bereala egiten
badegu alegiña gogorazio gaiztoak ayenatzeko, dala
pensamentua beste gauzetara aldatuaz, dala esturan
Jesus, Maria, ta Jose esanaz, dala Birjiña txit Santari
biotza altxatuaz; baña askotan gertatzen da bekata-
ria, oartuta ere, lilluraturik eta txoraturik egotea
gogora datorkion gauza gaiztoetan poztutzen edo goi-
satzen dala, eta askotan leku emateko perill andian.

Zuk zere buruarekin, aur denboran ezezik, gero ere egin dituzu eskuz, edo bestela bekatu itsusiak. igerritzen zenduan, modu oriek etzirala izango onak, edo beintzat bazenduan ar bat, esaten zizuna, ez dira gauz oek ongi dirudienak. Ala ere ez dituzu konfesatu. Noizbait esnatu ziñan dotrinaren batekin, eta konfesatu zinduan modu itsusi aek, baña edertu zinduan esaten zenduala: *ez niakian bekatu zirala*. Beldur naiz, zure konfesioak izan dirala gaiztoak. Badira gizon, edo mutill batzuek añ basatiak, eta abereak, non uste duen, ez dala bekatu mutillak mutillakin edozeñ gauza egitea; baña jakin bezee oek, emakumeakikoa baño itsusiagoa dalagizonezkoak gizonezkoakin zikinkerian ibiltzea: eta au bera esan bearko lizake, egingo balitue emakumeak emakumeakin gauza debekatuak. Sodomatarrak oitu ziran lizunkeri oetara, alako eran, non erri artara zijoazen gizon arrotzak ere bortxatu nai zituen ibillera nazkagarrietarako. Aserratu zitzaion Jaunari, eta Lot, bere emaztea, eta bi alaba ez, beste guziak erriarekin batean auts biurtu zituan bidaltzen zuala sufre erazekizko euri ugaria.

Zuk, bekataria, an, eta emen zabiltzala, ederetsi diozu edari biziari, eta askotan jarri zatzu *lausoa begietan*: moteldu zatzu mihia: asi dira etxeak jiraka;

itz batean, atxitu dezu arako aditzen dezun gauzatxo ura. Alaere ez dezu garbiro aitortu konfesioan zure bekatua, baizik esan dezu: *berotuse nintzan: alegertuse ginan: bear baño geyago edan nuan*. Onelakoen konfesioak askotan izan oi dira gaiztoak. Eta gizonezkoakin au gerta baditeke, zer izango lizake, emakumeak oituko balira edari bizi eta goisoetara, eta atxituko balue polita baño andixeagoren bat? Onelako emakumeak gutxitan berez aitortuko luke gertatua garbiro.

Zu, bekataria, etzera osotoro orditzen; baño sarritan, edo era dezun guzian bazarraizka edanari; emendik dator zorrai ez eranzutea; umeak gaizki azitzea, eta emaztea gosea iltzeko, eta umeak estaltzeko, bear danaren billa ibiltzea. Atozea, eta edanerako zure oitura orren ondoren oek garbiro esan dituzu konfesioan? Oriek ez jauna; zeren oriek garbiro esan ezkerro, nortaki zer aginduko ziran? Eta ez dezu ekusten zure konfesioak gaiztoak izan dirala? Urليا ez da osotoro orditzen, baño arekin dira suak, eta garrak, eta botatzen ditu lagun urkoen kontra birauak galarazten du pakea etxean, eta lagun artean, eta agertzen ditu besteren tatxa ixilik zeudenak. Atozea urليا, eta garbiro esan dezu konfesioan, zer ondorenak

datorkizun edanetik? Ez, Jauna; galdua nintzan alabaña oriek garbiro esanda. Gaiztoak izan dira beraz zure konfesioak. Sandia ere ez da osotoro orditzen, baña era danean badarrayo goisoari, edo biziari, eta gauza jakina du, ongitxo edaten duanean, lasaitzen, eta erraztutzen dala aragiaren atsegin loyetarako: ezer ez bezala dira arreizkero itz desonestoak, ukiera, eta keñada lotsagarriak: orregatik esan zuan S. Bizente Ferrerek, illak piztutzea baño mirari andiagoa dala onelakoak garbitasuna gordetzea. Atozea oraiñ gizon, edo emakumea, garbiro osan dezu konfesioan, zer bekatutan erori zeran edanagatik batezere garbitasunaren kontra? Ez, Jauna; beldur nintzan alabaña, debekatuko zidala edariari diodan jayera. Orra bada, nola beldur orregatik egin dituzun konfesio gaiztoak. Emen gazteai itz bat: mundu gaiztoan bizi zerate, eta edanerako griñagandik iges egizue, bestela galduko zerate, ala munduaren, nola Jainkoaren aurrean.

Zuk, Kristaua, noizbait egin zinduan bekatu itsusi batzuek, eta bear bada abere, edo ganadu, edo egaztiren batekin, eta konfesioan esan zinduan pensamentu utsak bezala. Egin zenduan konfesio gaiztoa. Badi-ra batzuek, bekatuak diran bezala esateko, biotzik ez duenak, baldin konfesorearen galdeak zaurian bertan

ukitzen ezpaditu. Ostu omen zuan mutil batek anzu-
meren bat: galdetu zion konfesoreak: *ostu dezu arku-
merik?* Eranzun zion: *ez Jauna: eta gero zion, arku-
mearen lekuan esan balit antxumea galdua nintzan.*
Kristaua, edo konfesoreak galdetu, edo ez, zuk beka-
tuak aitortu bear dituzu, zeregan arkitzen dituzun
bezala.

Zuk, bekataria, urliarekin, edo sandiarekin egin
zinduan bekatu batzuek; ura zan aldea, ezkondua,
edo beste estadutakoa. Esan zenduan konfesioan
bekatua, baña ez zer estadutakoa zan, edo aidea zala.
Egin zenduan konfesio gaiztoa.

Zuk egin zenduan bekatu urliarekin, eta ez dezu
konfesatu, zeren ark eragin, eta esan zigun, kezkarik
ez idukitzeko: *berak kon fesatuko zuala guzia.* Atozea,
eta orrenbesterekin konfesatu gabe daukazu beka-
tua? Eztakizu, bakoitzak berak esan bear dituala bere
bekatuak?

Zuk denbora batean utzi zenduan konfesatu gabe
lotsaz arako bekatu ura: gero garizumaren batean
berritu zinduan konfesio guziak; baña etzenduan izan
biotzik esateko, arako bekatu ura utzi zenduala lotsaz
konfesatu gabe. Ause da, konfesioak berritzeko egin
dezun lan guzia galtzea, eta berriro egin bearrean

geratzea. Zuk asieratik esan baziñuka konfesoreari: *jauna onenbeste urte dira onelako bekatu lotsaz utzi nuala konfesatu gabe: arreizkero urtean egin ditut onenbeste konfesio*. Era onetan erraz, eta ongi egin zentzakean zere konfesioan berritzea, eta au egin gabez geratu zera len baño gaizkiago.

Zuk egin zenduan urliarekin, edo sandiarekin arako bekatu itsusi ura: konfesioan, zere burua edertu nayez, esan zenduan: *bortxaz, eta nai ez nuala eragin zidan, Jauna*. Bortxaz? Balizake, baño gutxitan au gertatzen da. Bortxaz? Atozea, etziñan gustoz egon urliarekin aura begira, eper-zakurra eizari dagokan eran? Atozea, eta deadar egin zenduan? Jauna, esaten nion, utzi zegidala pakean. Orise da ardiak otsoari esatea: *otsoa utzi gidazu pakean*

Zuk gizon, edo emakume ezkondua, egin dituzu zere bizilagunarekin, Jaunaren legeak debekatzen dituan, asko gauza, batzuetan, aur asko izan ditza-tzun, beldurrez; besteetan aragizko atsegin zikiñ berriak arkitu nayez. Igerritzen zenduan, etziruditela ongi modu nazkagarri oriek: askotan gogora zatzu, konfesoreari gauz oek esatea, baño lotsatu zera esateko, eta aurrera joan zera zere modu itsusietan, zeregan diozula: *ezkonduen artean zillegi dira gauz onela-*

koak. Kristaua, zure konfesioak gaiztoak izan dira, zeren beldur, eta kezka oriek kentzeko arretarik izan ez dezun, eta jarraitu diezu zere modu itsusiai. Jauna, ez da bada emaztea gizonarena, eta gizona emaztearena? Bai, baña ez, Jaunak debekatzen dituan gauzak egiteko. Zurea da zatoan, edo bonbillan daukazun ardo ona, ez ordea zere burua, edo besterik orditzeko. Sararen lenbiziko zazpi gizonak ezkonduak ziran; alae-re Sararen gelara sartzean, zazpiak urkatu zituan Demonioak. Judas Patriarkak ezkondu zuan bere Seme nagusi *Her* zeritzana Tamarrekin, eta Seme nagusi oni bizia kendu zion Jaunak, zeren gaiztoa zan beraren begietan. Ez digu Eskriturak esaten, zer gaiztakeria zan Herrek egiten zuana; baña jakintsu askoren iritzia da, egiten zituala loikeria nazkagarriak. Patriarkak eman zion alargunari bigarren seme, *Onan* zeritzana (au zan alabaña orduko usanza Seme nagusia aurrik gabe illtzen zanean). Bigarren Seme onek ere egiten zituan lizunkeri itsusiak, eta kendu zion Jaunak bizia. Ekusten dezu, nola ezkonduen artean ere gerta ditezkean asko bekatu? Orregatik gauzaren batzuek kezka ematen badizue, galdetu bear diozu konfesoreari, bekatu diran edo ez.

Era onetan, nere Kristaua, gure animak sendatze-ko, eta Zerurako bidean ipintzeko, gure Salbatzalleak utzi zigun sendagai miragarria biurtzen du bekatariak bere animaren puzoi, eta amilka dijoa bekatuaren bideetan. Orra zer datorren gure Aita ona uztetik: eta orra zeñ egia andia dan Jeremiasek diona: gauza gaizto, eta samiña dala guk gure Jaun, eta Jaungoikoa utzi degun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum*. Noiz artean bada, bekatari zere galgarria, noiz artean igesi ibilliko zera zure animaren jabe, eta arzai onagandik? Aspaldi zure billa dabill, eta deyez dagokizu: biur zaite bada beragana; baña biur zaite osotoro: aztuko da zure eskergabekeri guziaz, eta emango dizu betiko bizitza. Amen.

OGEIGARREN ERAKUSALDIA

Azkeneko Erakusaldian ukitu dira, bekatuak lotsaz konfesatu gabe utzita, egiten diran, konfesio gaiztoak. Orain aditzera emango dira, bekatua ez aitortzeko, etsayak bekatariari gogora ekarri oi diozkan iduripen, eta zorakeriak: eta ondoren ukituko da, nolako ondorenak emendik datozkion animari: eta zeñ gauza gaizto eta samiña dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoa utzi degun eran utzitzea.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.*

Utzi dezu bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta zenbat ere andiak, eta asko diran, zu zere Aita onagana biurrerazteko, aditzera eman diran gauzak, ez da batere bigindu zure biotz ori: olagarroa arkaitzari itsatsia dagoan eran itsatsia dago zure biotza bekatuaren bideai, eta dirudianez eyaka, edo lasterka zoaz, etsayak zuretzat prestatua daukan, suzko ainzira izugarria: jakizu bada esaten dizu Jeremiasek: jakizu, eta ekusi ezazu gauza gaizto, eta samiña dala, zuk zure

Jaun, eta Jaungoikoa utzi dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum*. Egia au nork nai ezagutzen du, bekatuaren ondoren samiñai begiratu ezkerro: orregatik ondoren oen gañean zerbait itzegin det Erakusaldi batzuetan: eta azkenekoan ukitu nituan, lotsaz, edo beldurrez bekatuak konfesatu gabe egin oi diran konfesio gaiztoak; oek alabaña dira bekatuaren ondorenetatik bat. Gaur ukitu bear ditut, benik beñ, bekatua ez aitortzeko, etsayak bekatariari gogora ekarri oi diozkan, iduripen, edo zorakeriak. Urrena, emendik animari datozkion kalte negargarriak. Oek ongi ezagutu ezkerro, erraz igerriko du bekatariak zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jaungoikoa utzi izan degun eran utzitzea. Asi gaitezen bertatik.

* * *

Lotsaz, edo beldurrez konfesatu gabe utzi dituzu, bekataria, zenbait bekatu, eta bizi zera bekatuaren arauzak gau, ta egun estutzen, eta aunatzen zaituela. Badakus ori etsai galgarriak, eta iges egin ez degiozun konfesio onaren bidez, gogora ekarriko dizkitzu asko

iduripen, eta zorakeria. Ara zenbaiti ekarri izan diez-
ten batzuek.

Lenengo iduripen, eta zorakeria: *ez dago neretzat barkaziorik*. Ez dago, ez, zuretzat barkaziorik, ezpadezu aitortzen, edo konfesatzen bekatua damu egiazko, eta bizitza ontzeko asmo osoarekin. Nola izango da zuretzat barkazioa, egin nai ezpadezu, zere aldetik egin bear dezuna? berekin eramango zaitu etsai galgarriak betiko su, eta garren artera, eta emen aitortu nai ez dezuna, an aitortuko dezu adiaz, eta negarrez. Baña baldin zuk egindako bekatuen damu egiazko, eta bizitza ontzeko asmo osoarekin aitortzen badituzu zure bekatuak, jakizu, zure Aita Zerukoa dala guziz ona, eta urrikaritsua: *ez det nai, dio, bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea*: nigana biurtzen dan uean bertan aztuko naiz, egin dizkidan eskergabeke-
ria guziaz: *Omnium iniquitatum ejus, quas operatus est, non recordabor* (Ezechiel. 18). *Ala egin zuan seme ondatzallearekin*.

Bigarren iduripen, eta zorakeria: *Bekatu oek esaten badiozkat konfesoreari, ez dit absoluziorik eman-
go*. Anziñako denboran leku batzuetan ez omen zuen eman nai zenbait bekatoren barkaziorik, ez eta erio-
tzako orduan ere: baña Erromako Elizak etzuan ontzat

eman beñere onelako gogortasunik, eta bear bezala prestatua dagoan edozeñi pozik emango dio konfeso-reak barkazio edo absoluzioa. Demagun aitortzen dan bekatuaren barkazioa ematea dagokala Obispo Jaunari, edo Aita Santuari: buldarekin edozeñ konfesorek eman dezake herejiaz osteronz diran bekatuen barkazioa. Demagun, zure bekatua dala herejia: alaere konfesoreak ekarriko du, bekatu orren barkazioa zuri emateko, eskua. Orregatik zorakeri andia da esatea: *ez dit absoluziorik emango*. Badakizu, nori ezin eman degiokean absoluziorik ez emengo konfesoreak, ez Obispo Jaunak, ez Aita Santuak? Jakizu bada bekatari au dala, konfesio onak eskatzen duan prestaera egin ez duana: bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegin nai ez duana; baña presta zaite ongi, eta esaitzu zure bekatuak, zere biotzean arkitzen dituzun bezala, eta atsegin andiz emango dizue absoluzioa. Badira bekatari batzuek añ lakatzak, leundugabe, eta basatiak, non absoluzioa, eta komunioa bereala artu nai duen, artarako prestatuak ezpadaude ere: eta aditu det, zenbait aldiz konfesoari errosarioak utzita, esan dioela: *nerre anima berorren gañean: ez naiz geyago etorriko konfesatzera*. Ez da emen onelako gauzarik gertatzen: badaki alabaña bakoitzak, absoluzioa, eta

komunio Santua artu bear ez dirala, artarako sasoi onean jarri artean: badaki konfesioa eginda ere, askok ez duela absoluziorik artu nai, bear dan damu, eta asmoa obeto sortzeko.

Irugarren iduripen, eta zorakeria: *zer esan, edo beregan igaroko luke konfesoreak, esango baniozke bekatu oek?* Atozea, eztakizu, konfesoera ere, zu bezala dala gizona, eta bere utsegiteak izango dituala Mandamenturen batean? eta bear bada zureak baño andiagoak? eta izan ezpalitu ere, jakin bear du, Adanen umea zerala, griña txarrez inguratua, eta erraz dala irristada batean erortzea, zer esango du beregan? Bitatik bat edo ongi prestatua zaude, edo ez? Prestatua ezpazaude bertatik Sakramentuak artzeko, esango du beregan, gauza bearra da bekatari au alaitzea, biur dedin Jaunagana; eman bear zayo denbora, gaizki bizitu dan denborako konfesioak berritzeko: au esango, eta erakutsiko digu, zer, eta nola egin bear dezun. Atozea, eta zer neke da au, zuk gau ta egun zeregan igarotzen dituzun kezka orien aldeari. Baña ekusten badu, bear dan prestaera egiña daukazula: garbiro aitortzen dituzula egin dituzun bekatuak, zer esango du orduan ? Esango du: *gudari, edo soldadu ona zerala, pelea batzuetan zauriz betea geratu baze-*

ra ere. Diemagun gerrari, edo soldadu bat, etsayarekin pelean dabillega, artzen ditu zauri andiak, eta asko. Deitzen dio sendatzalleari, eta esaten dio: ona nolako geratu naizan nere pelean: ona beso au zinzilika, eta burua zuloz betea: ona aztala balaz igaroa; egin beza sendatzeko al dana, naiz erreaz, naiz ebakiaz, bestela ezin senda ditekeana. Atozea, zer esango du sendatzalleak, gerrariaren autik au aditzen duanean? Esango du, biotz andikoa dala. Au bera esango du zuzaz konfesoreak, baldin zuk garbiro, eta umilki aitortzen badituzu zure animako zauriak, edo bekatuak.

Laugarren iduripen eta zorakeria: *nork esango diozka konfesoreari bekatu añ itsusi, eta nazkagarriak? Ez det uste, bestek egin duala añ itsusirik. Atozea, Santo Kristoren bat zeatu ote dezu? Aldareko Sakramentua oñ-pean erabilli ote dezu? Norbaiti bizia kentzeko puzoya eman ote diozu? Ez det uste, eta au guzia gertatu balitzatu ere, jakizu, ori, eta geyago igaro dala munduan. Ez da zer esan ezer seigarrengo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean: zeren gertatu diran gauza nazkagarriak aitatze utsak zikindu litzakean zuen gogo, eta biotzak. Munduaren asieratik Noeren denborarako ainbesteraño zikindu ziran*

gizonak, non damutu zitzayon Jaunari gizona egin zualako: eta Noe, ta beraren etxeok ez, beste guziak, gizon, eta emakumeak, ala zarrak, nola gazteak bukatu zituan, bidaltzen zituala mundu guzia estali zuen ujolak, zergatik bada diozu, edo uste dezu, ez duala bestek egin zureak, bezeñ itsusirik? Eta ala baliz ere, jakizu, mundu guziaren aurrean agertuko dirala bekatu oriek, eta ongi konfesatzen badituzu, edertuak, eta lotsarik emango ez dizuen eran geratuko dira. Agertuko dira Dabiden, eta S. Pedroren bekatuak; agertuko dira Santa Maria Magdalenaren utsegiteak, baña ez dieza lotsarik batere emango.

Bostgarren iduripena, ta zorakeria: *izutuko lizake Konfesoarea, bekatu itsusi oek esango baniozkake*. Au da zorakeri farragarri bat. Konfesoareak zure bekatu oriek baño andiagoak irakurtzen ditu bear, bada Eskritura Santan, eta ez da konfesio-lekuan esertzen birtuteak aditzeko. Badakizu, zerk ikaratuko duan Konfesoarea? Ikaratuko du ekustekak, ez dezula zuk biotzik bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitoko, eta alaere Sakramentuak artu nai dituzula.

Onenbesterekin ezagutu dezakezu, Kristaua, iduripen, eta zorakeri utsak dirala, zure bekatuak ez aitoritzeko, etsayak buruan sartu dizkitzun beldur oriek: eta

beragatik lenbait len utzi bear dezu lotsa anima galgarriri ori; bestela zure gañera etorriko dira, askori elorri zaizkan, kalte negargarriak. Oek dira oraiñ ukituko ditudanak.

* * *

Lenengo kaltea izan oi da egunetik egunera azitzea, bekatua aitortzeko, beldur, edo lotsa. Askotan gogora datorkio bere bekatua: ekusten du, nora dijon, ezpadu konfesatzen: badabill ar ozkari onekin gogaitzeko zorian; batzuetan jartzen da bekatua garbiro esateko asmoan, baña konfesioko denboran ez du biotzik onetarako: gertatzen zayo, Isayas Profetak erdi nai, eta ezin erdi dagoan emakume batez diona: etorri ziran semeak jayotzeko zorira, baña etziran jayo, zeren etzuan amak indarririk: *Venerunt filii usque ad parturn, et virtus non est pariendi* (c. 37). Ala gertatu zitzayon inguru onetan neskaxa bati: gaixotu zan, eta artu zituan Sakramentuak, baña etzitian esan, lotsaz konfesatu gabe zeduzkan, bekatu batzuek. Iltzeko izerdi otzak eman zioen: deitu zion lagun bati, eta esan zion: *illtzera noa: onelako, eta alako bekatu*

lotsaz konfesalu gabe utziak dauzkat: eta zuk nere ordez esan giozkatzu Konfesoreari. Era onetan ill zan.

Bigarren kaltea bizitza guzia igaro bearra barren-go pake, eta atsegin-kontenturik gabe. Alperrak dira soñuak, eta triska guziak bekatuaren barren-go aranza ura ateratzeko: atsegin, eta jolasen erdian, inguratuko dio biotza illuntasun, eta tristura andi batek. Irugarren kaltea da bizitza gogaikarri onen anzeko eriotza. Ala gertatu zitzayon Balenzian dama bati. Geratu zan au guraso gabe: asi zitzayon ezkutari bat milla losentxa egiten; sarritan zijoakion itzegitera, eta atzenean kuturtu nai izan zuan bekatura. Denboren buruan erori zan. Sarritan konfesatzen zan, len oi zuan beza-la; baña etzan atrebitzen gertatu zitzayona esatera. Iru urte joan ziran gisa onetan konfesio, ta komunio gaiztoak egiten zituala: eta Jaunak bidaldu zuan erri artara Misionari andi bat. Asi zan au Jaunaren Itza adirazten: etzuan damak sermoirik galtzen, eta bakoitzak, arpoi baten eran, igarotzen zion biotza. Eziñ ase zan negar egitez, eta zion beregan: *Betiko zere burua galdu naiko dezu? Etzenduan lotsarik izan bekatu egiteko, eta lotsatzen zera aitortzeko? Baldin lotsatzen bazera, batekin konfesatzeko, zoaz beste bategana: orra nondezun Misionaria, eta ordu erdi batean irten*

zaitezke neke orretatik. Egun batean añ sendoro ukitu zion biotza Jaunaren Itzak, non osotoro erabaki zuan aitortzea bere bekatua. Egin zuan gaixoaren iduria, eta deitu zion Misionariari. Joan zan au lagun batekin: aditu zion bere konfesioa: eta ekusirik negar andiakin esan zituala bekatuak, atsegín andiarekin eman zion absoluzioa, eta biurtu zan bere Kolejio, edo Konbentura. Eria konfesatzen zegoan denboran, Misionariaren laguna arkitzen omen zan igarotzen zana ekusteko eran, ezer ezin aditu bazezakean ere: eta onek konfesioko denboran ekusi zuan oyaren bazterretik noizzean beñ agertzen zala atzapar beltz itsusi bat, eta estutzen zuala eriaren eztarria alako eran, non zirudian itoko zuala. Esan zion Misionariari ekusi zuana: biurtzen da au eriaren etxera, eta gauza negargarria! Eria, edo eriaren iduria egin zuana ill zan Misionaria ara zaneke. Kezka, eta naigabe andiarekin joan zan bere Kolejiora: jarri zan Sakramentuaren aurrean, anima argatik Jaunari erregutzen. Gau erdiko denboran aditu zituan kateen otsak, eta adia izugarriak: andik laster agertu zan emakume doakabe ura garrez inguratua, eta esan zion konfesoari: *Ni naiz, zurekin konfesatu naizan emakume ura. Atozea,* esan zion Misionariak: Etzera ongi konfesatu? Ez, eranzun zion,

ez naiz osotoro konfesatu: asi nintzan txikienetatik, andienak uzten nituala azkenerako, oen artean oraiñ iru urte gertatu zitzatan seigarrengo bekatu bat, eta ondorengo konfesio, eta komunio gaiztoak. (Esan zuan, seigarrengo bekatuan nola erori zan). Ay! zion: *andienetatik asi banintz!* Baña lotsatu nintzan, eta gerotik gerora andiagoa zan lotsa au, eta etsayak gogora ekarri zidan, beste edozeñi esanda baño geyago galduko nuala zuri nere bekatua esatearekin: osasunarekin nengoala, eta gaixotzen nintzanean guzia konfesatuko nuala. Zu nere etxetik irten ziñanbezala, *geratu nintzan itz gabe, eta andik laster illa*. Atozea, esan zion Konfesariak: *eta orai a zerk ematen dizu penarik andiena? Ekusteak, eranzun zion, Jaunak bidaldu zinduela zu urrutietatik, nere anima Zerurako bidean ipintzera, eta galdu dedala era añ ederra*. Au esan da, ondatu zan betiko su, eta garren artera. Orra, zer dakarren bekatuak lotsaz, edo beldurrez konfesatu gabe utzitzeak.

Au guzia, eta geyago dator guk gure Jaun, eta Aita ona utzitzetik, eta beregana biurtzeko degun zabarke-riatik. Emendik atera ezazu, Kristaua, zeñ bide andiarekin esan zuan Jeremiasek, gauza gaizto, eta *samiña dala guk gure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan degun*

eran utzitzea. Szito, et bide, kia malum, et amarum est relikisse te Dominum Deum tuum. Atozea, bekataria, eta au guzia argiro ezagutzen dezula, oatuaren eran bekatuan bizi nai dezu? Ea, zoaz zure Aita onagana, egizu konfesio on bat, eta bizi zaite Kristauari dagokan eran: zuk ekusiko dezu, zeñ gauza gozoa dan zure Jauna serbitzea, eta emango dizu atzenean betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI TA BATGARREN ERAKUSALDIA

Bizitza ontzeko asmo oso, eta eragillea sortu gabez egiten diran konfesio gaiztoen gañean.

*Dereliquisti Dominum Deum tuum...
Scito, et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum, Jerem. 2.*

Utzi dezu, Kristaua, zure Jaun, eta Jaungoikoa, eta beragana biurtzeko neurri egokiak artu lekuan, ez dituzu ezertan artu nai zure Aita onaren deiak. Jakizu bada, esaten dizu Jeremiasek; jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum*. Egia au begien aurrean ipintzen digue, beste gauz askoren artean, bekatuari darraizkion ondoren samiñak. Oen artean laugarren lekuan ipiñi ginduan konfesio gaiztoak, eta azkeneko bi erakusaldietan itzegin det, lotsaz, edo beldurrez bekatuak konfesatu gabe utzita, egiten diran konfesio gaiztoen gañean. Baña askoz geyago dira, bizitza ontzeko

asmo oso, eta eragillea sortu gabez egin oi diranak. Orregatik gaur aditzera emango det, benik beñ nor diran bizitza ontzeko asmo osorik gabe konfesatzen diranak. Urrena, emendik aterako degu, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jauna utzitzea. Enzun arretarekin.

* * *

Konfesioko Sakramentuarekin gure bekatuen bar-kazioa iristeko, aitortu bear ditugu gure bekatuak; eta au ere ez da asko; baizik gauza bearra da egindako bekatuen damu egiazkoa aurrera bekaturik beñere ez egiteko asmo oso eragillearekin. Asmo au da bekatu guzietara, larrietara beintzat zabaltzen dana, eta eragillea. *Asmo osoa*, esan nai dei, biotz guzitik jayoa, eta alako sasoyan ipintzen duana bekataria, non prest jar-tzen dan, ezergatik ere aurrera bekaturik ez egiteko, ez eta bizitzagatik, edo eriotzagatik ere. Asmo, beka-tu guzietara, larrietara beintzat zabaltzen dana; emendik ez da asko bekatu au, edo ura ez egiteko asmoa, baizik bear da, bekatu larririk beintzat batere, eta beñere ez egiteko asmoa. Atzenean, Konfesioko Sakramentuak eskatzen duan asmoa, da *eragillea*, au

da asmo bat, bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Emendik bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik beñere ez egiteko asmo oso-eragille gabe konfesatzen diranak, egiten ditue konfesio gaiztoak. Goazen, nor diran oek, ekustera.

Bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe konfesatzen dira benik-beñ dotrina, eta ongi konfesatzeko prestaera ikasi nai ez duenak. Kristauak, gaitzaren, eta onaren ezagueran sarizen danetik, artu bear du Zerurako bidea, fede, esperanza, eta karidadearen birtuteaz baliatzen dala. Artu bear ditu Sakramentuak, eta atzenean eranzun bear die bere *estadu*, eta karguen egin-bideak. Eta nola au egingo du, ezpadu arretarik ipiñi nai dotrina ikasteko, eta bere *estadu*, eta karguak dituan egin-bideak ezagutzeko? Zenbat, eta zenbat onelako ez dira arkituko *estadu* bakoitzean? Zenbat errietako kargudunen artean? Onelakoak bada konfesatu oi dira bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe. Jauna, edozeñ *estadu*, eta errietako karguetan bear dira *estadu*, ta karguaren artzalleak, bestela bereala bukatako lizake guzia. Ala da, baña *estadu* eta karguren bat artzen duanak ikasi bear ditu bekatu larriaren azpian bere eginbideak. Ala erakusten digu

Santo Tomasek: eta au egin gabez, asko bizi dira gaizki.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso-eragille gabe konfesatzen dira bigarren lekuan, bekaturako bide, eta perill urkoak uzteko biotzik ez duenak. Ala erakusten digue Teologoak, eta Espiritu Santuak dio: perilla nai duana, perillean bukatuko da: *Qui amat periculum, in illo peribit*. Alaere asko dira bekaturako bide, eta perillak utzi gabe bizi diranak, ala konfesioaren aurretik, nola ondoren. Urliarentzat bekaturako bide, eta perill urkoa izan zan etxean, edo auzoan duan mutill, edo neskatx ori: era berean arako etxe artara joatea, bizi dan lekuan bizi-tzea, lagun gaiztoakin biltzea. Sandiarentzat bekaturako bide, eta perill urkoa izan da erriz erri erakerian ibiltzea: ezkontzeko itza eman zionarekin egotea. Alaere ez due izan biotzik perill oetatik aldegitoko: eta aditzera eman due, konfesatu dirala bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe.

Bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe konfesatzen dira iaugarren lekuan, besteri bekaturako bidea ematen dioen itz loi, edo modu gaiztoak utzi nai ez dituenak. Batek bere anima galtzea gauza izugarria da: zer protxu aterako du gizonak mundu guzia ira-

baztearekin, galtzen badu bere anima? *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum paliatur?* Anima bat bakarra du, eta au galtzen badu, non arkituko du aren ordaña, dio Jesu-Kristok: *Quam dabit homo commutationem pro anima sua?* Baña bere anima galtzeaz gañera lagun urkoarena ere galdu nai izatea, au da Jesu-Kristok bere bizitzaren kostuz irabazi zituan animak saltzea Satanasi, eta Jesusen odol preziotsua alperrikako gauza biurtzea. Añ gauz itsusia da au, non Jesusek berak dion: Ay! bekaturako bidea ematen duanaren zori gaiztokoa! *Vae homini illi per quem scandalum venit!* Bekatu au ez du ezertan artzen munduak, eta ezertan artu lekuan, zenbat eta anima geyago bekatuan amilderazten diran, anbat, atsegin geyago artzen due bekatariak. Begira ezperen, zer gertatzen dan leku guzietan. Zoaz soroetara, bideetara, plazetara, zer ekusiko dezu? keñada itsusiak, jolas gaiztoak, ipui zikiñak. Zoaz etxeetara, batezere jai arratsetan? Eku-siko dezu, gauetan geratzen dirala zenbait edanean, jokoan, eta gertatzen dirala modu itsusiak. Era onetan lagun urkoari bekaturako bidea ematen diezanak, ez oi due izan biotzik modu gaizto oek osotoro uzteko,

eta beragatik konfesatzen dira bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe.

Bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe konfesatzen dira laugarren lekuan, lagun urkoari onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegiteko, edo jabeari bere gauza biurtzeko arretarik ez duenak. Onelako bekatariak beñ baño geyagotan adituko zuen beren arzai, edo konfessoreagandik, desegin bear dirala osan ditudan kalteak, eta gauza biurtu bear zayola jabeari, baño ez due izan biotzik au egiteko, egin zezakeela. Beraz oek, konfesatu diranean ez due izan, bizitza ontzeko asmo oso-eragillerik, ez dira alabaña esnatu artarako neurri egokiak artzera. Orregatik S. Franzisko Jabierrek, S. Karlos Borrormeok, eta Ritualak berak erakusten dige, ez dakiela eman onelakoai absoluziorik. Eta zenbat era onetako Kristau arkituko dira erri bakoitzean? Batzuek kalte egiten dioe lagun urkoari onran, aurpegira eranzuten diozkeela bere, edo aurrekoen tatxaren batzuek; besteak izen on, edo faman, egozten diozkeela ez dituan utsegiteak, edo agertzen dituela barreatuak ez diranak. Eta ez ote dira arkituko anima añ galdu, ta galgarririk, non lagunai esaten diezan besteri eragindako bekatua? Noiz onelakoak desegingo ditue kalte oek?

Badira beste batzuek erriari kalteak eginda, bekatu oek ezertan artzen ez dituenak: badira zorrak leku askotan izan arren, arretarik ipintzen ez duenak oei erantzuteko. Oek guziak konfesatu oi dira; bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe.

Asmo au gabe konfesatzen dira bostgarren lekuan bekaturako oitura garaitzeko sayatzen ez diranak. Gerta diteke bizitza ontzeko asmorik sendoena artu arren, gero alako tentazioak ekitea, edo alako perillan ustekabeen batek bere burua ekustea, non erraz irristatu litekean; baña konfesatuta, tentazio txit esturik gabe, edo perillera borondatez joanda, lenekora biurtzen bada, aditzera ematen du, bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe konfesatu zala. Demagun, urliak duala etxe galant bat, ala lurrez, nola basoz; baña bere alperkeriaz galdu du guzia: ez du urtearen erdirako artorik: eta billa dabil auzoetan: baña nola biurtzen ez dakian ematen zayona, ez dioe ezer eman nai. Ekusirik bere burua gisa onetan, jartzen da bere soroai begira eta dio: *ay soroak, soroak!* nere alperkeriaz galduak. Laster beste modutan jarri bearrak zerate, eta ez gera arto gosearen beldur izango. Au guzia esan arren, ezpadu arretarik lurak maneatzeko, simaurtzeko eta iñaurkiñak biltzeko, zer esango degu

onelako nekazari alperraz? Esango degu, ez duala artoa ugari izateko asmo oso-eragillerik, baizik iduri utsa. Eta au bera esan bearrak gera bekatariaz, baldin konfesatu ondoan sayatzen ezpada arretarekin, bere oitura gaiztoak garaitzeko. Alperrik ibilliko gera gure nagitasuna gañ txuritzen, au da egia bat ezaguera zuzenak nori nai begien aurrean ipintzen diona.

Bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe konfesatzen dira seigarren lekuan, beren estadu, eta karguaren egin-bideai eranzuteko arretarik ez duenak. Izan dedilla Erretore, Alkate, Diputadu, guraso bat zintzoa, amar mandamentuak, eta Elizaren bostak ez autsitze-ko: baldin bere karguari dagozkan gauzetan arduraga-be bizi bada, ez da konfesatuko bizitza ontzeko asmo oso-eragillearekin.

Azkenean bizitza ontzeko asmo oso-eragille gabe konfesatzen dira lagun urkoaganako gorroto, edo gorrotoaren siñaleak utzi nai ez dituenak; ez due alabaña Salbatzallearen lege Santa gordetzeko asmo osorik. Zer agintzen digu gure Salbatzalleak? Agintzen digu, maite izan ditzakula gure etsayak: *Diligite inimicos vestros*: on egin zayezue, dio, gorrotatu zaituenai: *Et benefacite his, qui oderunt vos.*(Math. 5). Onginai ta amorio au, egiazkoa ba da, agertzen da obretan:

laguntzen dio lagun urkoari, premiak ala eskatzen duanean bederik, eta ez du erakusten gorrotoaren siñalerik: barkatzen dio etsayari biotz osoarekin. Onginai, ta amorio au gabe bizitu diranak ez due izan, konfesatu diran aldietan, bizitza ontzeko asmo oso-eragillerik. Eta zenbat arkituko ez dira oetatik erri bakoitzean? Badira etxeak lagun urkoaganako gorrotoa jatorriz bezala gordetzen duenak, eta su au itzali gabe igarotzen da gurasoetatik umeetara, eta beste ondo-rengoetara. Badira, azaria olloaren zai egon oi dan bezala erari itxedoten daudenak lagun urkoari txarke-ria egiteko. Badira etsayaren berri onak aditzean nairagabetzen, eta berri gaiztoak enzutean poztutzen diranak. Badira, era datorrenean lagun urkoaren kontra itzegiteko, ozka, ta aginka bezala asiko diranak, aren onra, ta izenari utsiki egiten dioela. Ez da oentzat janari añ gozorik, nola dan etsayaren utsegiteak esatea, eta aditzea. Badira etsayari diosala ukatzen, edo muzinka egiten dioenak. Oek guziak konfesatzen dira bizitza ontzeko asmo-eragille gabe. Orra, nere Kristaua, nor diran asmo oso-eragille gabe konfesatu oi diranak.

Ekusten dezu, zeñ ondoren samiñak datozen, guk gure Jaun ona utzi degun eran uztetik? Ekusten dezu,

zeñ egia garbia dan Jeremiasek esaten diguna? Au da gauza gaizto, eta samiña dala guk gure Jauna utzitzea? *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Atozea, eta orain ere etzera zere Jaunagana biurtuko? Ez dezu ekusten, zer galtzen, eta zer irabazten dezun eskergabekeri itsusi orrekin? Ay! galtzen dezu zere Jaungoikoa: galtzen dituzu betiko atsegin kontentuak. Zer irabazi dezu bizitza lotsagarri orrekin? Zer, ezpada Satanasekin infernuan erretzen, eta gogaitzen egotea? Zentza zaite noizbait, biur zaite zure Aita onagana, eta bera amatzen, eta serbitzen dezula, zuk iritsiko dezu betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI TA BIGARREN ERAKUSALDIA

KOMUNIO GAIZTOEN GAÑEAN

*Adirazten da lenengo lekuan,
zeñ bekatu itsusia dan Komunio gaiztoa.*

*Urrena, emendik aterako degu, zeñ gauza gaizto, eta
samiña izango dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoa
utzitzea, eta beragana biurtu nai ez izatea; bada
emendik dator komunio gaiztoak egitea.*

*Dereliquisti Dominum Deum tuum....
Scito, et vide, quia malum, et amarum est,
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiae 2.*

Utzi dezu, bekataria, zure Jaun, eta Jaungoikoa,
eta seta izugarri batekin iraun nai dezu bekatuaren
bideetan, datorrela datorrena. Jakizu bada, esaten
dizu Jeremiasek: jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto,
eta samiña dala zuk zure Jaun, eta Jaungoikoa utzi
dezun eran utzitzea. *Scito, et vide, quia malum, et
amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Non-
dik nai begira dedilla, gauza gaizto eta samiña da guk

gure Jauna utzitzea, eta beragana ez biurtzea; baña au ezagutzeko biderik errazena da, bekatuak berekin dakartzian ondoren gaiztoai begiratzea. Ondoren oen artean laugarren lekuan ipiñi ginduan konfesio gaiztoak, eta oen gañean itzegin det zerbait. Konfesio gaiztoai darraite komunioa, eta ekusia dago, nolakoa izan ditekean konfesio gaiztoaren ondorengo Komunioa. Orregatik gaurko Erakusaldia izango da Komunio gaiztoaren gañean. Aditzera emango det lenengo lekuan, zeñ bekatu itsusia dan Komunio gaiztoa? Urrena, emendik aterako degu, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoa utzitzea, eta beragana biurtu nai ez izatea. Enzun bekataria arreta andiarekin.

* * *

Zuk, bekataria, galdu dezu zure Jaungoikoa, eta zure anima: eta ez dituzu utzi nai bekatuaren bideak: ura bezala edaten dituzu konfesio, eta Komunio gaiztoen bekatuak. Ay! eta baziñaki zeñ bekatu itsusia dan Komunio gaiztoa! Nai dezu au aditu? Zaude bada arretaz.

Bekatu itsusi asko gertatu dira, eta gertatzen dira munduan, eta oen artean agitz itsusia izan zan Judasen Jesus saltzea. Judas zan Jesus onak auts-artetik atera zuan gizon bat. Altxa zuan onra andietara: artu zuan bere ikasleen artean, eta bere mayan iduki zuan denbora luzean. Zer geyago? Egin zuan bere Apostolu, eta Elizako kargudun andi. Eta nola eranzun zien Judasek onra, eta mesede andi oei? saldu zien Juduai bere maisu, eta Ongille andia, eta ipiñi zuan aen atzaparretan adiskidearen idurian. Bekatu au orduraño munduan gertatu zan bekaturik itsusiena zan, dirudiaz, eta S. Leonek dio, gaiztakerien artean aurreko lekua dagokala: *Privilegio perfidiae obtinet in facinore primum locum*. Añ itsusia iritzi zion Judasek berak ere, non izaturik urkatu zuan bere burua. Ipintzu oraiñ, Kristaua, Judasen bekatuaren aldean zure Komunio gaiztoen bekatua. Zeñ ote da itsusiagoa? Askoz itsusiagoa da zure bekatua: Judasek alabaña beñ bakarrik saldu zuan bere Ongille andia; baña zuk saldu dezu sarritan, edo Komunio gaiztoa egin dezun aldi guzietan. Judasek saldu zuan Jesus, argatik bere bizitza eman etzuen denboran; baña zuk saldu dezu, zugatik bere bizitza eman ezkeru. Judasek salda zuan Jesus ogei, ta amar dirutan; baña zuk saldu dezu atsegin

lotsagarri bategatik, edo obeto esateko ezer ezean. Judasek saldu zuan Jesus, jakin gabe, Jesus zala Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, eta Munduaren Salbatzallea; baña zuk aurtasunetik dakizu, eta sinisten dezu, Jesus dala Aita betikoaren Seme bakarra, Trinitadeko bigarren Persona, eta Jaungoiko egiazkoa: eta alaere izan dezu ausardia, bekatuz loitua zaudela beraren mayan jartzeko, eta saltzeko. Nork eztakus oraiñ Judasen bekatua baño askoz itsusiagoa izan dala zurea? Baña zoaz aurreraxeago, ipintzu zure bekatua Juduak Jesus illeraztean egin zuenaren pare, eta ekusiko dezu, Juduena baño ere itsusiagoa dala zurea.

Juduak Judas Patriarkaren odolekoak ziran, eta odol onetatik jayotzekoa zan Salbatzallea. Denborak bete ziranean, etorri zan, eta ogei, ta amairu urte igaro zituan oen artean: sendatu zituan eriak, argitu itsuak, eta piztu illak. Alaere etzuen ezagutu nai izan beren Salbatzalletzat, eta aintzakotzat iduki bearrean, munduan dan gizonik gaiztoenari bezala begiratu zioen, eta atzenean illerazo zuen gurutzean. Guziz izugarria, eta itsusia izan zan Juduen eskergabekeri au, baña ongi begiratzen badezu, Kristaua, bekatu askoz itsusiagoak dira zure Komunioak. Juduak artu zuen Jesus Getsemaniko baratzen: lotu, eta eraman zuen

Jerusalena, eta egin ziozkeen bidegabe andiak. Ato-
zea, eta zuk ez dezu askotan artu Jesus bera zure
ortzen artean? Ezdezu loturik sartu infernuko drago-
yaren lizean, edo bekatuz zikindua zendukan barrun-
be orretan? *Loturik*, diot, sartu dezula, zeren ipiñi
dezun, egin nai zizkitzun ontarte, edo mesedeak ezin
egin zitzakean eran. Juduak azotez urratu, eta aranzaz
koroatu zuen Jesus, eta zuk zukan danez, ez diozu
egin ori, eta geyago? Doña Santxa Karrillori agertu
zitzayon Jesus zauriz betea, eta odola zeriola: eta esan
zion: *orra zertako diran Komunio gaiztoak*. Juduak
Jesus baño nayago izan zuen Barrabas, gizon gaizto,
eta erallea: *Ill bedi Jesus gurutzean*, deadar egin zuen:
eta zuk nayago izan dezu zure biotzean bizitzea Sala-
nas, ezen es Jesus. Juduak beren gañean artu zuen
Jesusen odola, etorri al zitezkean neke, eta ondoren
guziak ezertan artu gabe: eta arreizkero badarraite
leku guzietan Jaunaren aserre, ta madariakazioa: eta
zuk zere gañean artu dezu odol ura bera, dakizula
emendik datorrela animaren betiko galera. Juduak ille-
razo zuen Jesus; eta au bera egin dezu zere alegiñean,
S. Paulok dionez; eta egin dezu ez beiñ bakarrik, bai-
zik askotan. Juduak atzenean etziakien ongi, Jesus
zala Aita Betikoaren Semea, eta Jaungoiko egiazkoa.

Au aditzera eman zuan Jesusen berak gurutzean zego-
ala, bere Aitari esan zionean: *Aita, barkagiezu, ez
dakie alabaña zer eguzten duen* (Luc. 23): eta S. Pau-
lok dio, etzuela gurutzean illeraziko, nor zan ezagutu
balue (1.^a ad Corint. c. 11); baña zuk, Kristaua, guzia-
ren berri dakizula, Komunio gaiztoak egin dituzu, eta
zure Aita, ta Ongille andia ainbeste bider illerazo dezu
zere alegiñean. Ez dezu ekusten oraiñ, Juduen beka-
tua baño izugarriagoa dala, zuk Komunio gaiztoarekin
egin dezuna? Orregatik esan zuan S. Agustiñek bigu-
ñaok izan zirala Juduak. *Milius peccaverunt Judaei.*

Baña gutxi da oraindano esan dedan guzia S. Pau-
lok dionaren aldean. S. Pauloren iritzian batayoa ezke-
ro bekatu egiten duanak, beregan danez berriro guru-
tzean ipintzen du Jesus, eta kentzen dio bizia bere ale-
giñean, eta kentzen ezpadio, ori da, zeren piztu zan
beñere ez iltzeko, eta ezin ill ditekean: *Rursum cruci-
figentes sibimetipsis filium Dei? Eta zer ote dio Komu-
nio gaiztoa egiten duanaren gañean?* Dio benik beñ,
Jesusen gorputza, ta odola gaizki artzen dituanak, bizi-
za kentzeko alegiña egitea gutxi baliz bezala, ekiten
diela Jesusen gorputz, eta odolari, eta oben, edo kul-
padun ekiten dala oen kontrako bidegabe itsusiarekin:
Quicumque manducaverit panem hunc, vel biberit

calicern Domini indigne, reus erit corporis, et sanguinis Domini (1 ad Corint. c. 11). Itz oetan aditzera ematen digu Komunio gaiztoaren itsustasuna alako eran, non bekataririk gogorrena ere arriturik gera ditekean. Au guk ongi ezagutzeko, demagun Aita batek, bere semeari dion amorioagatik, igarotzen dituala ezin konta al neke, ta naigabe, eta atzenean semeak egin dituan gaiztakerien barkazioa iristeko, ematen duala urkamendian bere bizitza. Aditzen du semeak au guzia, eta bere gaiztakerien damuz korde gabe geratu bearrean alako amorruan jartzen da bere Aitaren kontra, non ill ezpaliz, berak ilko lukean. Laster ekiten du Aitagana ateratzen du obitik; askatzen du gañibetaz gorputza, eta jaten diozka errayak. Esan zadazu: asma diteke Seme onen eskergabekeri, eta gogortasuna bezeñ itsusirik? Ezetz esango didazu. Atozea, eta ez dakizu, au bera egin dezula Komunio gaizto bakoitzean? Jesus da gure Aita maitagarria, guri ongi nayezerutik lurrera jatxi zana. Gu bekatutik atera, eta Zerurako bidean ipintzeko, igaro zituan ainbeste neke, eta oñaze, eta eman zuan gurutzean bere bizitza. Guganako onginai, eta amorio geyegiak eragin zion au, dio S. Paulok: *Propter nimiam charitatem*. Egia onen berri aurtasunetik izan zenduan, eta siniste one-

tan bizitu zera; baña zer egin dezu? Zere bekatuen damuz negar egin bearrean, berriro gurutzean ipiñi, eta ill nai izan dezu, eta ill dezu zere alegiñean, S. Paulok dion bezala. Ekusi dezu, eziñ ill dezakezula, eta amorratuaren eran egin diezu beraren gorputz, eta odolari ozka, eta sartu dituzu bekatuz loitua daukazun barrunbe orretan, edo Satanasen lizean. Arritu zaitezte Zerua, eta desegin Zeruko ateak, esan dezakegu Jeremiasekin: *Obstupiscite Caeli, et portae ejus desolamini*. Orra, zer aditzera ematen digun lenengo lekuan S. Paulok Komunio gaiztoaren gañean. *Reus erit Corporis, et sanguinis Domini*. Zer geyago ote dio Apostolu Santuak gai onetan? Dio, Komunio Santua gaizki artzen duanak jaten, eta edaten duala bere betiko galera: *Qui enim manducat, et bibit indigne, judicium sibi manducat, et bibit* (1.^a ad Corint. C. 11). Gauz arrigarria! Izan Sakramentu ori animaren bizitza ugarizten duan janaria: izan betiko bizitzaren arbola! eta alaere Komunio gaiztoa egiten duanak jaten du betiko eriotza, eta galera! *Judicium sibi manducat, et bibit!*

Ondoren au beste askorekin dator, guk gure Jaun ona utzi degun eran, utzitzetik. Emendik atera ezazu, Kristaua, zeñ gauza gaizto, eta samiña dan Jaun au

utzita beragana biurtu nai ez izatea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Zer egiñ al dezakegu kalte oek desegiteko, eta Zerurako bidean jartzeko? Ez dago beste biderik, ezpada egindako bekatuen damuz; gure Aita onagana biurtzea, seme ondatzallearen eran eta aurrera aldegitea bekatuaren bideetatik. Andiak dira gure bekatuak, baña andiagoa da gure Aitaren ontasuna. Egin dezagun au guk bertatik, eta ez digu ukatuko gure bekatuen barkazioa: eta emango digu betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da lenengo lekuan, zeñ sendagai
miragarria dan Jaunaren itz Santua.*

*Bigarren lekuan, zeñ minbera dan Jauna beraren
itza ongi entzutearen gañean.*

*Atzenean, nola bere animaren puzoi biurtu oi duan
bekatariak Jaunaren itza.*

*Scito et vide, quia malum, et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. C. 2.*

Gauza gaiztoa, ta samiña da zuk zure Jaun Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea, esaten digu Jeremias Profetak; bekatariak alabaña bekatuaren atsegin zirzilla bategatik utzitzea du ontasun baztergabekoa, ta edertasun paregabekoa dan bere Jaungoikoa; galzten du Jaun beraren adiskidetasuna, ta grazia, eta grazia onek ematen zion Zerurako eskua; ta irabazten ditu betiko suak, eta garrak. Eta gaitz erdi lizake, bekatuan lenengo erorten dan bezala, ezagutuko balu, zer egin duan, eta artuko balu bere Aita onaganako bidea. Baña au egiñ ordean amilduaz dijoa

mallatik mallara, ta ez oi da geratu geyenean betiko su, eta garrren artera bere burua sartu dezan artean. Izugarriak dira bekatuaren ondorenak; eta oei begiratzeari izan da gure zazpi illabete onetako lana. Ederretsitzen dio bekatariak bekatuari, ta artzen du bekatuan aisa erorteko oitura; au da lenengo ondorena. Dabilen leku guzietan prestatzen ditu bere anima galtzeko sareak, lazoak, ezaguera, ta adiskidetasun limuriak; au da bigarren ondorena. Ezta kontentatzen bere burua galtzarekin; berekin batean galdu nai oi ditu beste asko ere, ematen diela bekaturako bidea; au da irugarren ondorena. Gaitz oen guzien sendagai miragarriak utzi zizkigun gure Salbatzalleak Konfesioko, ta Komunioko Sakramentuan; baña bekatariak biurtzen ditu oek bere animaren puzoi bere aldetik egin bearlukeana egin gabez; au da bekatuaren laugarren ondorena. Ondoren, eta malla oek ekusi ditugu, nere Kristauak. Eta onetara ezkerro aurrera dijoa bekatari bere galgarria infernuko bere bidean. Eri batek bere kaltetan biurtzen baditu sendagairik onenak; zer esango degu aren biziaz? Zer, denbora gutxian iraungo duala baizik? Alaere utzi zion Jaunak bere Elizari beste sendagai eder, eta indartsu bat, au da Jaun beraren *Itz Santua*; baña au ere biurtu oi du bekata-

riak bere kaltetan, eta ona bekatuaren bostgarren ondoren ikaragarria. Gaur itzezin nai dizuet Jaunaren itz Santuaren gañean. Aditzera emango dizuet lenengo lekuan: *zein* sendagai miragarria dan Itz au. Aditzera emango dizuet bigarren lekuan: *zeiñ* minberaa dan Jauna beraren itza ongi entzutearen gañean. Aditzera emango dizuet atzenean: nola bere animaren puzoi biurtu oi duan bekatariak Jaunaren itza. Gaurko dotriaren gai au norinai illuntasunez, eta penaz beterik utzi dezakean gaya da; baña alaere eziñ utzi diteke ukitu gabe, zeren asko dijoakion Kristauari gauz au ongi ezagutzean. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Jaungoikoaren izt andia da Jaungoiko beraren Semea, Trinidadeko bigarren Persona Aitaren betiko Jakiundea, ta antz ederra, ta Aitarekin guzian berdiña; baña gaur itzegiten degu, ez itz andi onen, baizik Jaunak gizonai berez, edo bestez aditzera eman izan dien izaren gañean. Lege zarreko Patriarkai askotan itzezin zien Jaunak berez; eta lege bereko jendeari itzezin oi zion Profeten autik. Lege berrian lenengo Kristauai

itzegin zien Jaunak Apostoluen aotik, eta gerokoai itzegiten die Obispo Jaunen eta oek bidaltzen dituenen bidez. Munduaren lau bazterretara zabaldurik aditzera emangiezue guziaz Ebanjelioa, edo nere Lege Santa, esan zien Jesu-Kristok Apostolui: *Euntes in mundum universum, praedicate Evangelium omni creaturae* (Marc. 16). Ala egin zuen Apostolu Santuak; eta gero-ko denboretan leku guzietara bidaltzen ditu Eliz Ama Santak bere predikariak; eta Katolikoek erri guzietan aditzera ematen da Jaungoikoaren itza.

Itz au ezta predikatzen duanaren aotik irteten dan otsa; otsa alabaña geyenez ere iristen da aditzallearen belarriak ukuitzeraño, baña Jaungoikoaren itza ongi aditzen bada igarotzen da barrena edo biotzera. Predikatzen duanaren itza da karroza bat, non dijoan Jaungoikoaren itza; karroza geratzen da enzunlearen belarriak ukitzean, eta Jaungoikoaren itza aurrera dijoa, ongi artzen bada. Argatik doktrinak, eta sermoyak aditzen ditugunean ez ditugu aditu bear gizonaren itzak bezala; eta onela aditzen baditugu ez degu fruturik aterako; baizik aditu bear ditugu Jaungoikoaren gastiguak bezala, pres ipintzen ditugula gure biotzak Jaunak aditzera eman nai diguna enzuteko, ta egiteko. Jaungoikoaren itza da argi bat ayenatzen

dituana gure ez jakiteak, ez oroitzeak, uste okerrak, eta iritzi gaistoak. Argi onek erakusten dio animari, zein on-maitagarria dan gure Jaun Jaunoikoa, ta zein andi miragarriak diran Jaun onek bere maitatzalleentzat prestaturik dauzkan ondasunak. Argi onek erakusten dio animari, zer nekeak, zer suak, eta garrak irabazten dituan bekatu egiten duanak; baita nola oetatik alde gin dezakean ere. Jaungoikoaren itza, adimentuaren argia ezezik, da gañera biotzarentzat sua; ongi enzuten danean alabaña desegiten, eta urtutzen ditu bekatuaren jelak, eta berotzen du bekataria Zerurako bidea artzeko. Zer, ez dira nere itzak suaren eran? dio Jaunak Jeremiasen aoaz. *Numquid non verba mea sunt quasi ignis?* (Jer. 25). Jaunaren itzada atzean gaistakerietan lo dagoan bekataria esnatzen duan ots andi-indartsu bat. *Vox Domini in virtute, vox Domini in magnificentia* (Psalm. 28). Edo da Jeremiasek dionez arrien antzeko biotzak ere puskatzen dituan mallua. *Numquid non verba mea... Sicut, malleus conterens petras?* (Jerem. 23).

Eta ona, zergatik Jaunaren itza dan sendagai guztiz miragarria, naiz gure animak bekatuaren sare, ta lazo oetatik gordetzeko, naiz obra onak gogo obearekin eragiteko, naiz bekatua, ta bekatuaren bideak

utzierazteko. Zenbat, eta zenbat zar, eta gaztek diraue Jaunaren grazian, eta adiskidetasunean, zeren, Jaunaren itza biotz onarekin aditu ta, ekusi zituen Munduak bekaturako zabaldurik dauzkan sareak, eta lazoak? eta gorde ziran oetan sartzetik? Zenbat, obra onetan, eta Zerurako bidean zabartzera, ta nagitzera egin zuenak, esnatu izan dira Jaunaren itzarekin? Zenbat, eta zenbat bekatari, Sakramentuetatik fruturik batere ateratzen etzuenak; edo frutu atera ordean Sakramentuak bere animen puzoi biurtzen zituenak, atzenean Jaunaren itzak atera ditu bekatutik, eta bekatuaren bideetatik? Ezin konta al dira, nere Kristauak. era onetan Jaunak beretu izan dituan animak; eta esan diteke, biotz umill, eta ongi prestatuarekin Jaunaren itza aditzen duan bekatariak laster desegin-go dituala bekatuaren kateak, eta biurtuko dala Jaunagana. Zergatik bait esan zuan Jesu-Kristok: Jaungoikoarena danak enzuten ditu Jaungoikoaren itzak. *Qui ex Deo est verba Dei audit* (Joan. 8). Eta are obeto ezagutu dezazun Kristaua nolako sendagaya dan Jaunaren itza, begira ezazu itz onek Elizaren asieran Mundu guzian eman zituan frutu miragarrietara. Jesu-Kristo etorri zan denboran Juduak ez, beste Mundu guzia bizi zan Jaungoiko egiazkoaren ezaguera gabe. Bizi zan

idolatriaren gau illunean, ta bakoitzak, bere griña txarrai ongiena zegoten, idoloa adoratzeko zuala. Etorri zan Mundura Jesu-Kristo, eta etorri zan ez Juduen onerako bakarrik, baizik Mundu guziari erakustera Zerurako bidea, ta bere lege Santa; lege bat debekatzen duana Jainkoaz ostera beste gauzarik adoratzeko; lege bat debekatzen duana etsairik andienari ere gaitz opazitea, ta gaitzari gaitzez erantzutea; lege bat debekatzen duana Munduko onra, ondasun, eta atsegin-kontentuetan biotza ipintzea; lege bat atzenean debekatzen dituana aragiaren atsegin loyak, usurak, eta tratuzikiñak. Lege au Munduari ar-eraztea zan lan guziz andia, bere kontra zituan alabaña Munduaren oitura, ta usadio zarrak; bere kontra zituan gizonaren griña, ta pasio guziak; bere kontra munduko Erregeak eta Enperadoreak, gizon andiak, eta txikiak, jakintsuak, eta jakinezak. Egiteko andi onetarako autu zituan Jaunak ez Munduko andiak, ez jakintsuak, eta aberatsak, baizik arrantzale batzuek, jakiñezak, eta pasioko denboran beldurrez Jesu-Kristogandik aldegin, edo iges egin zuen gizonak. *Infirma mundi elegit Deus, ut fortia quaeque confundat.* Alaere oen aotik itzegiten zuala Jaunak urte gutxiren barrunbean ayenatu zituan idoloak; zabaldu zuan Mundu guzian Jaungoiko egiaz-

koaren ezaguera, ar erazo zien gizon andi, eta txikiak bere lege eder garbia, eta ekusi zan gurutzea Enperadore, ta erregeen koroetan, onra anditzat ipiñia. Ekusten dezu, Kristaua, zeñ sendagai miragarria dan Jaungoikoaren itz Santua? Nolako umiltasunarekin bada, nolako begiramentuarekin, eta biotzeko prestaerarekin aditu bear ez genduke itz au? Izan dira Santuak Eskritura Santa irakurtzen etzuenak belauniko, ta buru utsean baizik, zeren Eskritura Santan itzegiten duan Jaunak; baña guk itz Santu au aditu izan degu, askotan beintzat, nola nai, ta geratu gera, atera gintzakean frutuak atera gabe. Ta nortaki, zenbat kalte emendik etorri litezkean gugana, ezpagera noizbait noizbait zentzutzen? Askotan dotrina bat ongi aditzean dago baten betiko bizitza doatsua; aiñ da minberaa Jauna bere itz Santua ongi aditzearen gañean, oraiñ ekusiko degun bezala.

§ II.

Jaungoikoaren itza berez guzi-alduna da, Eskriturak deitzen dion bezala: *Omnipotens Sermo*; baña nola egin zuan gizona bere eskuko, edo onerako, ta

gaitzerako eskuarekin; gertatzen da askotan, eta iñoiz ere baño geyago egungo egunean, gizonak edo aditu nai ez izatea Jaungoikoaren itza, edo bear dan eran ez aditzea, eta itz Santu au *fruturik gabe geratzea*. Eta ain da sentikorra, edo minberaa Jauna alde onetatik, non aserraturik utzi oi dituan Probinzia, ta Erreñu osoak bere itzaren intz gozo edo euria gabe. Zoaz, Kristaua, lege zarreko jendeetara. Etzuen Israeltarrak aditu nai izan Jaunak bere Profeten auaz esaten zienik, eta utzi zituan Jaun berak Profetarik gabe; bere itza gabe, eta atzenean idolatrian ondatuak. Etzuen Juduak ere aditu nai izan Jesu-Kristok berak berez eta beste Profeten aotik esaten ziena; ta utzi zituan Profetarik gabe, fede gabe Probinziarik, eta Erreñurik gabe, eta onela bizi dira ardi erratuen eran milla zazpi eun eta geyago urte onetan. Zoaz, Kristauakin ere gertatu danari begiratzera. Zoaz goizaldera, edo Orienteko bazterretara. Ekusiko dezu Ejipto, denbora batean Erlijosoen bizilekua zan bazter ura, S. Athanasioren, eta beste gizon andiaskoren autik Jainkoaren itza aditu izan zuan ura, Mahomaren zorakeriai darraitela. Ekusiko dezu Jerusalem, Zesarean, Antiekian, Konstantinoplan denbora batean Jainkoaren itza entzuten zala Jaunaren Ministroen aotik; ta nolako Ministroen

aotik? S. Zirilo, S. Basilio, S. Gregorio Nazianzinoa, S. Juan Krisostomo, eta beste gizon andi asko izan ziran bazter aetan Obispo, eta Jaunaren itzaren erelle. Baña utzi zituan Jaunaren itzak bazter aek, eta arkitzen dira Mahomaren lege zatarrarekin. Zoaz Afrikara. Ekusiko dezu, denbora batean Jaunaren lege Santa, ta itza frutu andiarekin predikatzen zuela an S. Ziprianek, S. Agustiñek, ta beste askok; ta gaur arkitzen dira leku aek guziazere; kendu zien alabaña Jaunak bere itzaren argia, eta geratu ziran Mahomaren legearekin. Atoz Europara, zer ekusiko dezu? Zoaz Prusiara, Suezia, ta Dinamarkara; zoaz Olandara, zoaz Inglaterrara; leku oetan guzietan nozbait erein zan frutuarekin Jaunaren itza; baña gaistotu zan gero lurra; etzan aditzen Jaunaren itza zegokan eran, eta utzi zituan Jaunak bazter oek guziak herejiaren lañopean. Baña zertarako nekaturko gera gauza zarrai begiratzen, begien aurrean daukagula Franziako Erreñuarekin gertatzen daña orain bertan? Franzia ogeita lau, edo bost milloi anima zituan Erreñua; Franzia *Christianissimo*, edo *txit Kristauaren* izenarekin onratzen zan Erreñua: Franzia, arako erreñu ura, non Jaunaren *itza* aditzera ematen zan ain sarri, ain kontuz, ain leun, eta gozotoro, gaurko egunean arkitzen da itz Santu au gabe, legeko

ministro gabe, Sakramenturik gabe: eta an geratu diran Katoliko gaixoak arkitzen dira fedea galtzeko perill andian. Nondik etorri ote zayo Franzinari ondoren izagarri au? Ay! ederetsi zien jendeak bere griña, ta pasio txarrai; etzan Elizaren aginteaz kezka andirik, etzuen Jaunaren itzak frutu andirik ematen; eta Jaunaren aserreak utzi du Erreñu aiñ andia guziok dakuskun eran. Ezta oraindik berrogei urte deadar egiten ziola Autore batek Franzinari: Ah! Franzia! Zein aberatsa zeran zerorrek ezagutzen ez dituzun ondasunetan! Jaunaren itzaren azia ugari ereiten da zure erri andietan, eta txikietan! Itz onen ale bakoitzak Indian, Japonen, edo beste bazter askotan ereinda, erro ugariak botako zituan; baña oiñpean dabill emen azi au, eta ezta errotzen. Eta zer? Ez ote da gurekin gertatuko Juduakin gertatua? Itz onen faltaz fedearen argi gabe bizi diran jendeak deadar egingo due Jaunaren aurrean, eta eskatuko due kastigua gure kontra. Ay! ene! eta logratuko due! Onela deadar egiten zuan Franziake autore batek, oraindik urte asko ez danean; eta ekusten degu bidezkoak zirala beldur oek, eta gure egunetan gertatu dira gauzak ura beldur zan eran. Ekusten dezu, Kristaua, zeñ minberaa dan gure Jaun Jaungoikoa bere itz Santa ongi entzutearen

gañean? Au aditzera emana dauka anziñatik Eskritura Santan beiñ, ta berriz. Bai au aditzera eman zuan benikbeñ Isaiasen autik mastiaren ipui, edo parabol-
lan. Ipiñi zuan Jaunak mastia, dio Isayasek, itxi zuan; eta altxa zion erdian torre bat bere tolareakin. Egon zan aren mats gozoen ustean; baña oen orde z eman ziozkan mats gaziak, basamatzen antzekoak. *Expectavit ut faceret uvas, et fecit labruscas* (Isai. c. 5.) Orain, dio Jaunak, orain nik esango det zer egingo diodan nere masti eskergabe oni. Kenduko diot esia, sartu dedin edozeñ eta artu dezan nai duana; botako ditut egin niozkan pareteak, eta erabilliko due oñen azpian. Utziko det etze; ez da moztuko, edo iñausiko; ez eta ondeatuko ere. Estaliko due sasiak, eta arantzak, eta aginduko diet odeiai, ez dezeela aren gañean euririk egiñ. *Nubibus mandabo, ne pluant super eam imbrem*. Parabola onetan aditzera eman zuan Jaunak len Juduai gertatua, eta geroz Erreñu askori gertatu zayena, eta gertatuko zatena, ezpadue ezertan artzen Jaun beraren itz Santua. Au bera aditzera eman zuan gañera Jaunak berak Amos Profetaren autik. Badatoz egunak, dio Jaunak: *Ecce dies veniunt dicit Dominus*. Nik bidalduko det lurraren gañera gosea: *Miltam famem in terram*. Ez ogiaren gosea, eta ez uraren

egarria, baizik Jaungoikoaren itzaren gosea. Ibilliko dira batetik bestera itz onen billa, ta ez due arkituko. *Circuibunt quaerentes verburn Domini, et non invenient* (c. 8). Amos Profetak itzegiten zien Israeldarrai, baña ez oei bakarrik; itzegiten zien gañera beste Erreñu, ta jende guziaz ere eta guzietan gertatuaz dijoa Profeta Santuaren esana. Zer? eztegu ekusten gaurko egunean, aldegin duala Jaunaren itz Santuak, eta fedea alde aldean Europa guzitik? Ay ene! Ta ez ote da au bera gertatuko Españarekin ere? Guk dakiguna da, Jaunak gauza guziaz ipiñi diela numero, neurri, ta pisu jakiña. Ala esaten zaku Eskritura Santan. Lau bekatu barkatuko dieztet Damaskoarrai, baña andik aurrera ez diet barkatuko, esaten zien Jaunak. *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non convertam*. Guk dakiguna da lau saltoan bezala goazela bekatuaren bideetan, eta Jaunaren itz Santuak frutu gutxi ematen duala Españan, oraiñ bertan eskribitzen duenak dioenez; eta beragatik gañez egiten duenean gure eskergabekeriak, etorriko da Amos Profetak dion gosea, eta geratuko gera Jainkoaren itz gabe, fede gabe, Sakramentu gabe. Erakutsi zion bein Jaunak Doña Marina Eskobarri ontzi, edo botella bat osotoro bete gabea. Botella onek esan zion aditzera ematen

du España, botella onen barrunen dagoana dira Españako bekatuak: eta botella au betetzen danean emendik aldegingo du fedea beste lekutara. Au guzia gogora ekarri ta, nor egon diteke, nere Kristauak, negar egin gabe? Egizue bada negar zuek ondorengok utzitzen dituzuen, gurasoak; egizue negar zarrak; egizue negar gazteak, ta egin dezagun negar guziok; eskatzen diogula Jaunari, gera ditzala bekatuaren ujaldeak; eta ez dezala arren bere eskutik utzi Jaun beraren Amak ainbeste maite izan duan Erreñu au.

Baña utzirik pensamentu ikaragarri oek, dakus-kun, nola bere animaren puzoi biurtu oi duan bekatariak Jaunaren itz Santua.

§ III.

Jaunaren itza da sendagai miragarria, ekusi degun bezala; baño askotan, eta askotan biurtzen du bekatariak bere animaren puzoi, edo iges egiten duala Jaunaren itza aditzetik, edo adituta ere biotzean lekurik ematen ez diola, edo atzenean bere bide okerretara biurtzen dala. Iru bekatari mota oek markatuak arkitzen dira Deabruaren artaldeko markarekin, S. Grego-

riok dionez. *Non audientium, non acceptantium, recidivantium*(Hom. 18 in Evang.) Bai, nere Kristauak, bere animaren puzoi biurtzen du askotan bekatariak Jaungoikoaren itza, zeren enzun lezakeala, iges egiten duan entzutetik. Egizu kontu Kristaua, Errege batek bidaltzen duala Errege beraren kontra altxa dan Probinzia batera gizon aditu bat, gertatu diran okerrak desegitera, eskeintzen dituala pakea, ta mesede andiak. Baña zer gertatzen da? Berri oek atsegin-kontentu andiarekin aditu ordean, uzten du jende errebes esker gabe ark Erregek bidaltzen dien gizona, zer dakarren aditu ere gabe. Atozea, Kristaua, ez lizake eskergabekeria au izango leneko oker eta errebeskeria guziak baño gauza askoz itsusiagoa? Au bera bada esan bear degu Jaungoikoaren itza gandik igesi dabilenaren eskergabekeria. Bidaltzen dio Jaunak itz Santu onekin bere Enbajadorea, egin dituan utsegi-teak desegiteko. Eskeintzen diozka pakea, eta betiko ondasunak; ta bere Jaunaren itza ongi enzun ordean, iges egiten du au entzutetik, eta eskergabekeria onekin, biurtzen du bere kaltetun ondasun andiak dakartzian Jaunaren itza. Esan gidazue, nere Kristauak, esan gidazue arren: zenbat bizi dira egungo egunean goizeko meza bat enzunda urte guzian Jaunaren itza

zunzun gabe bizi diranak? Zenbat Meza nagusi, Bespera, ta errosarioko denboran zuloetan, edanean, edo munduko gauzetan egoten diranak? Zenbat bider mutillak plean, edo jokoan Besperetako denboran? edo bullan? Zenbat izango dira oen artean eztakienak dotrina, ta are gutxiago nola prestatu bear duen ongi konfesatzeko? Zenbat oatuak bezala bizi diranak bekatuaren oituran? Oek guziak Zerurako bidean nekez sartu ditezke Jainkoaren itza aditu gabe, eta alaere igesi dabilta onza argiaren igesi ibilli oi dan eran.

Beste batzuek entzuten due Jainkoaren itza belarriaekin, baña ez dioe utzitzen biotzera igarotzen. *Non acceptantium*. Batzuek zeren entzuten duen gizonaren itza bezala, besteak zeren biotzeko sasoi txarrarekin.

Emendik dator egiarik argienak ere ezin sinisturik geratzera, zeren gure oitura, ta griña txarren kontra diran, eta biotzik ez degun oek ezitzeko. Emendik Jainkoaren itza barrena samintzen, eta asaldatzen asitzen danean gogoia beste gauzatara eramatea. Emendik Jainkoaren itza ez aditzea aditzera eman dan eran, edo adituta ere tatxa billa ibiltzea. Gertatzen da Jainkoaren itzarekin eguzkiari argizagiarekin eta buztia-

rekin gertatzen zayona. Eguzkiak bidaltzen ditu bere argi ederrak, ta berotasuna: argizagia gozaten, eta beratzen da; baña buztiña, zenbat eta eguzkiak berotasun geyago bidaltzen dion, anbat geyago elkortzen da. Ay! au bera ekusten da bekatariakin. Bekatari sasoi onekoa gozatuaz, ta berotuaz dijoa Jaunaren itzarekin, eta atzenean mugitzen da bekatua utzitzerara; baña beste asko are geyago elkortzen eta gogortzen dira, txingudea malluarekin gogorrago egiten dan bezala. Atzenean beste batzuek Jainkoaren itza aditzean asitzen dira mugitzen Zerurako bilera; baña ozta irteten dira Elizatik sartzen dira leneko perilletan, eta biurtzen dira bekatuta. *Recidivantium*.

Ona nola bekatariak bere animaren puzoi biurtzen duan Jainkoaren itza. Eta zer? onela bizi bear ote degu aurrera ere ? Gure zori gaistokoak ezpagera zentzatzten! Oraindañokoa egiña egin. Jaunari eskatu degiogun barkazioa egin ditugun utsegiteaz; ta aurrera enzun dezagun Jaunaren itza bear dan eran. 1.a ezin bestean baizik ez degu utzi bear Jaunaren itza enzutea. 2.a Enzun bear degu ez gizonaren, baizik Jainkoaren itza bezala. 3.a Enzun bear degu frutu ateratzeko nai andi batekin, eta au Jaunari eskatu bear diogu. *Itzegizu Jauna, eta ona ni prest zuk aditzera eman nai*

didazuna entzuteko, ta egiteko. 4.a Jaunak aditzera eman diguna ongi biotzean gorde bear degu, eta gero obraz egin. Lurren azia botatzen dezunean ez dezu agirian utzitzen, estaltzen, ta gordetzen dezu lurrean, egaztiak eraman ez dezeen. Au bera egin bear degu Jaunaren itzarekin. Jaun berari nai daikiola itz onek frutu ugaria ematea, eta bekatuaren ujaldeak gertzea, era onetan Zerurako bidean gu ibiltzeko ongi, ta iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI TA LAUGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da, nola bekatariak egiaz Jaunagana biurtu gabe, bere egunak bukatzen dituan.

Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum, Jerem. c. 2.

Gauza gaiztoa, ta samiña da zuk zure Jaun Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea esaten digu Jeremias Profetak. Egia au ezagutzeko diña bider aditu zentzakean, Kristaua, egin diran aspaldiko dotrinetan, eta ez gutxiena atzenean. Denbora egokian Jaunagana biurtzen ez dan bekataria, erori oi da animako itsumenean, eta biotzaren gogortasunean; eta Jaunak utzitzen du bere eskutik bekatari eskergabea. Urrengo ondorena da bekatariak egiaz Jaunagana biurtu gabe bere egunak bukatzea. Au da ondoren bat egunoro gertatzen dana munduan, eta gertatzen dana iru uste, edo esperantza zororen koloreren azpian. Au aditzera eman nai nuke gaur. Guztiz ikaragarria da gaya, eta ongi adierazten badet, ausardiarik andieneko bekatari-

ria ere beregan sar erazoko duena. Enzun nazazue kontuz.

§ I.

Bekataria, bere Jaunagana biurtu ordean, lilluratzzen, eta txoratzen da munduko gauzetan, eta Jaun berak berez, liburu, Predikari, eta Konfesoreen bidez ematen diozkan golpe, edo ukituai ez oi die lekurik eman. *Emango dit Jaunak denbora beragana biurtzeko*, esan oi du beregan, *eta emango dit*, onekin zabartzzen da denbora egokian, eta atzenean iltzen da bekatuaren atzaparretan. Ezagutu dezazun, Kristaua, zeñ zoroa dan uste au, begira ezazu, benik beiñ, zein dan uste au duana? Au da bere egille, ta Aita onaren kontra ainbeste altxa izan dan bekatari eskergabea. Au da, Jaunak bere onerako utzi ziozkan Sakramentuak bere animaren puzoi biurtzen dituan bekataria. Au da Jaunaren itzaz, lagun urkoen ejemplo onaz, eta Zeruko gaztiguaz iseka egin izan duana. Au da atzenean, Jaunak Zerua irabazteko eman diozkan urteak gaistakerian, eta bekatuaren bideetan gastatu dituana. Eta onek alaere du ausardia esateko: *Emango dit Jaunak*

denbora beragana biurtzeko? Orain ematen dio denbora au; orain esaten dio S. Pauloren ezpañaz: ona denbora egokia: *Ecce nunc tempus acceptabile*: orain deitzen dio, eta esaten: gaur entzuten badezu Jaunaren deia, edo otsa, ez dezazula gogortu zure biotza: *Hodie si vocem ejus audieritis nolite obdurare corda vestra*. Eta orain enzungor egiten badio Jaunari, nola uste izan dezake, gero emango diola Jaun berak denbora? Begira gañera, zertarako eman bear dion Jaunak bekatari eskergabeari denbora au. Ez ditu bekatariak orain utzi nai bere bide okerrak; ezin aspertu da bekatzuz, eta gaiztakeriaz; eta Jaunak eman bear dio denbora Jaun beraren kontra ibiltzeko aspertu dedin artean? Eman bear dio denbora, aspertzen danean Jaunagana biurtzeko? Ustearen zoroa, eta ausardia ikaragarria! Ta are obeto ezagutuko dezu egia au oroitzen bazera, Kristaua, gure Jaun Jaungoikoak erabakia daukala beregan, zenbat egun, zenbat aste, hill, eta urte emango diozkan gutatik bakoitzari, eta muga oetatik ez gerala igaroko. Au aditzera ematen digu Job Santuak dionean: laburrak dira, Jauna, gizonaren egunak; eta zuk bakarrik dakizu zenbat illean iraungo duan aren bizitzak. *Breves dies hominis sunt, numerus mensium ejus apud te est*. ipiñi diozkatzu gizona-

ren emengo bizitzari muga zerorrek dakizkitzunak, eta ezin igaroko da aetatik. *Constituisti terminos ejus, qui praeteririron poterunt* (c. 14). Ongi: ta Jaunaren gogon ipiñia arkitzen bada gure egunen, asteen, hillen, eta urteen muga: ta muga aetatik ezin igaro bagaitezke, nola diozu bekataria: *Emango dit Jaunak denbora noiz bait beragana biurtzeko?* Izan diteke uste zoroagorik? Zure oraindañoko bizitza izan da dituan sayets guzietatik dongea. Zure mingaña loitua dago birauakin, juramentuakin, itz desonesto, kanta, ipui, eta lagun urkoaren kontrako erausiakin. Zure eskuak zikinduak keñada, ta ukiera lotsagarriakin, lapurreta, ta litxarrerriakin. Zure biotza arkitzen da kutizia, ira, enbidia, gorroto, ta lujuriaren sutegi biurtua. Alferrak dira zu Zerurako bidean sar erazteko Sakramentuak, eta Jaungoikoaren itza; baña alaere zeregan diozu: *urrengo misioan onduko naiz: emango dit Jaunak denbora beragana biurtzeko*. Egizu gañera kontu, aurten, eta bear bada egun gutxiren barrunbean, betetzen dala Jaunak zure bizitzari ipiñi zion neurria. Atozea, Kristaua, zer izango da zure animaz? Alferrik esango dezu: *Emango dit Jaunak denbora; ez ditu muga ipiñiak aldatuko; oek ukitzean ilko zera, eta sasoi orretan bazaude orduan, ilko zera bekatuaren azaparretan.*

Ala il dira uste zoro onekin infernuan erretzen dauden Kristau guziak, edo geyenak. *Emango dit Jaunak denbora*, esaten zuen; baña nola denbora oek neurtuak dauden Jaunagan, usterik gutxiena zuenean aitu zitzaizen egunaren argia, eta artu zituan eriotzaren gau illunak, ta ill ziran egiaz Jaunagana biurtu gabe. Enzun ezazu usura, ta tratu zikiñetan ziardun bati gertatua Juan Algrino Kardenalak kontatzen duanez. Gizon tratalari au bizi zan irabazira itsutua, eta etzuan begiratzten irabazia garbia, eta legezkoa zan edo ez. Bere arzayak esan zion bein ta berriz begira zegiola bere animari, eta oroitu zedilla betiko ondasunaz; baña alferrik. *Emango dit Jaunak denbora*, zion, *nere tratuak utzitzeko, eta barkatuko dizkit nere utsegiteak*. Onela bizi zan bekatua bekatuari erantsiaz eta noizbait gaixotu zan iltzeko gaitzarekin. Joan zitzayon bere Arzaia. eta berriro esan ziozkan ordu artan ongi zegozkan gauzak; baña alferrik. Bada, zion, *oraindik denbora*. Artzen due iltzeko izerdiak, ezagutzen du au, eta deadar andi batekin esaten du; *O! penitenzia! non zera? bada etzera agiri*. Onela eman zion bere anima etsayari. Ekusten dezu, bekataria, nola denbora izango dalako uste zoro onekin betiko galtzen diran animak? Oroi zaite bada emendik aurrera, nola Jaunak

beregan markatuak dauzkan gure egunen mugak, eta ezin oetatik igaro gaitzkeala, Job Santuak dion bezala. *Constituisti terminos ejus, qui praeteriri non poterunt.* Oroi zaite, betiko galduak izango generala, ezpage-ra Jaunagana egiaz biurtzen Jaunak onetarako ematen digun denboran; eta eztakigu, orain bertan ematen digunaz osterontzean besterik emango digun. Ematen ezpadigu, zer izango da guzaz? Beste askoz izan dana, eta izango dana.

§ II.

Bekatariaren bigarren uste zoroa izan oi da beregan esatea: *Emango dit Jaunak bere grazia, ta laguntza noizbait beragana biurtzeko.* Bere uste zoro onekin eztu zentzatu nai: ez ditu ezertan artzen liburuak, konfesoreak, eta predikariak aditzera ematen diozkeen egia ikaragarriak; eta Jaunak bidaltzen diozkan gaztiguak desegiten dira aren biotz gogorraren kontra itsasoaren bagak arkaitzen kontra desegiten diran eran. Onela gaizki gastatzen ditu bekatariak, berarentzat Jaunak neurri jakin batean prestatu zituan Zeruko grazia, indar, eta laguntza ugariak, eta geratzen da

modu negargarri batean, edo Jaunaren eskutik utzia, Zeruko laguntza ugarien inz gozoa gabe; eta atzenean iltzen da bekatuan. Goazen ekustera au guzia.

Graziaren izenez aditzen da batzuetan arako gure animak *justu, Santu, Jaungoiko beraren ume, eta Zeruairen jubegai egiten dituan* doai miragarri ura. Doai au da animaren bizitza, eta Zerurako jantzi ederra, eta au ixurtzen du Espiritu Santuak animan bata-yoko, ta konfesioko Sakramentuarekin, baita onezko damuarekin Jaunagana biurtzen danean ere; eta doai eder au eztu galtzen animak bekatu larriarekin baizik. Baña ez degu gaur onen gañean itzegiten. Beste batzuetan graziaren izenez aditzen dira, bekatutik irteteko, eta obra onak egiteko Jaunak ematen dizkigun Zeruko indarrak, eta laguntzak. Grazia oek ez dira geratzen gugan; baizik, beren agertua eginda, igarotzen dira, eta kontu egin bear du animak grazia oek deitzen dioenean, ongi enzuteko dakarten gaztigu, edo mandatua, eta egiteko Jaunak nai duana. Atozea, Kristaua, doktrinak, edo sermoyak ongi aditu dituzunean; liburu onak irakurtzean, adiskideren bat il zatzunean, ez dituzu bat batean izan bekatutik irteteko argi batzuek, edo pensamentuak? Etzatzu gogora, zein zir-zillak diran gure emengo izatea, emengo ondasunak,

atsegin-kontentuak, onrak? Zein izugarriak infernuko penak? Etzatzu gogora, zein omaitagarria dan gure Aita Zerukoa? Bada gogargi oek guziak dira Jaunak zu esnatzeko, bekatutik kenerazteko, eta Zeruko bidean sarrerazteko bidaltzen dizkitzun Zeruko grazia, indar, eta laguntzak. Atozea: eta laguntza oek ongi artu dituzunean, eztezu zeregan ezagutu, zure biotza gozatzan, eta bekatutik irteteko gogoz betetzen dala? Bada biotza gozate au, eta bekatutik irten nai au dira Zeruko laguntzak. Atozea gañera; eta gogo oni dagoan era irteten bazera bekatutik, lan onetan guzian eztizu laguntzen zure Jaunak? Laguntza au bada da Zeruko laguntza, ta indarra. Atzenean, bekatutik irten ondoan, ez dituzu zeregan izan gogargi berriak, biotzeko mugimentu onak Jaunaren lege Santa gordetzeko, eta bekatura ez biurtzeko? Oek ere bada dira Zeruko grazia, laguntzak, eta indarrak. Laguntza oek batzuetan dira aiñ ugariak, non bekataririk gozakaitzenak ere illeetatik artuta bezala kenerazten duen bekataria bekatutik, eta bekatuaren bideetatik: ala ekusten da, misio batean ongi, ta kontuz aditzen hada, ateratzen dituala Jaunak asko bekatari infernua- ren eztarritik, zeren jasaz bezala bidaltzen dituan alako denboran Jaunak Zeruko laguntzak. Laguntza

ugari oek bidaldu oi diozka Jaun berak bekatariari, ez nolana, baizik berak ongiena deritzan neurrian. Beste batzuetan, edo geyenean laguntza oek ez dira ain ugariak, ta indartsuak; baña bai asko adiña bekataria bekatutik kenerazteko, baldin ongi laguntza berak ongi artu, ta bere aldetik alegiña egin nai balu. Etzi-gun guri gure Jaunak zor laguntza oetatik batere, zeren Adan bekatuan erori zanetik galdu genduan oetarako deretxo, ta esku guzia; baña irabazi zituan guretzat Jesu-Kristok bere bizitzaren kostuan; eta one-gatik Zeruko laguntza oei deitzen zate Jesu-Kristoren grazia. Zenbat zor eztiogu gure Salbatzalleari!

Zeruko grazia, laguntza, ta indar oek ain dira bea-rak bekatutik bekataria irteteko, non oek gabe ezin irten ditekean betiraunde, edo betikotasun guzian bekatuaren azpitik; bekatua da alabaña lize ikaragarri bat, non erori gaitezkean, eta nondik ezin atera gai-tezkean, ezpagaitu Jaunak bere ontasunez, eta urriki-mentuz ateratzen. Gertatzen da onetan Sansoni ger-tatu zitzayona. Eman ziozkan Jaunak Sansoni indar guztiz andiak, eta oen sustraya zuen buruko illean. Izutuak zeuzkan Sansonek Filisteoak, eta etziakien zer asmatu Sanson beren mendean artzeko; baña atze-nean irten ziran berenarekin emakume baten bidez

era onetan. Sansonek adiskide zuan Dalila zeritzan emakume bat, eta elkar artu zuen onek, eta Filisteoak ager-erazteko Sansoni, nondik, eta nola zituan ainbeste indar? Ez beingoan, baña betiko galdez ariarekin ager erazo zion Dalilak Sansoni misterio guzia, eta kontu emanik erakarri zituan Filisteoak bere etxearen ingurara. Sansoni, lo zegoala, kendu edo ebaki zion illea; otsegin zien Filisteoai; eta oek bereala lotu zuen Sanson; atera ziozkeen begiak, eta kartzelan iduki zuen beren farragarritzat. Zer egiten zuan bada Sansonek kartzela urratugabe? Zergatik ayenatzen etzitzuan Filisteoak? Zeren illean zuan bere indarra, eta ebakia daukan illea. Au azi zitzayonean Filisteoz betarik zegoan Eliza bat, lurrera bota zuan, eta an illik geratu ziran asko Filisteo, eta oekin batean bera ere bai. Eta bekatuaren lizean erori danari gertatzen zayona; izan dedilla au Salomon bera baño jakintsuagoa; izan dezala Sansonek baño indar geyago; ezta betiraunde, edo eternidade guzian andik irtengo, Jaunaren ontasun, eta urrikimentuak bidaltzen ezpadio bere graziaren laguntza, eta indarra. Ez gera gerok alabaña gai pensamentu on batere egiteko, ez eta bear dan eran Jesus esateko ere, dio S. Paulo Apostoluak. *Nemo potest dicere Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto* (1.^a

ad Corinth. c. 12). Eta ematen ote diozka noiz nai, eta nola nai Jaunak bekatariari Zeruko grazia, ta laguntza oek? Ez, ez nere Kristauak. Zeruko grazia, ta laguntza, batezere laguntza andiak, indartsu, ta ugariak dira kontatuak, eta Jaunak berak bakarrik dakian neurrian; gauza guziak egiten ditu alabaña jakiunde utsa dan gure Jaungoikoak neurri, numero, eta pisu jakiñean Eskritura Santak esaten digun bezala. *Omnia in mensura, numero, et pondere disposuisti* (Sap. 11). Au da, Kristaua, egia bat iñork ere Katolikoan artean ukatzen eztuana. Ongi. Eta Jaunak zuri bekatutik irteteko emango dizkitzun laguntza, gaztigu, eta indarra ipiñi badie, ipiñi dien bezala, neurri, numero, eta pisu jakiña; nola diozu: *Emango dit Jaunak bere grazia, ta laguntza, noizbait beragana biurtzeko?* Egizu kontu orain biotzera bidaltzen dizkitzun golpe oriekin iristen dezula Jaunak zuretzat prestatu dituan Zeruko laguntzen neurria. Atozea, zer izango da zuzaz, ezpazera orain laguntza oriez baliatzen? Ay! egia ikaragarria da, baña egia ezin ukatu ditekeana: zuk zure egunak bukatuko dituzu bekatuaren atzaparretan. Ala gertatu zate ezin konta al bekatariri, eta oen artean Judasi. Nork esan, nolako gaztiguak biotzera bidalduko ziozkan Jesu-Kristok bere ikasle, ta Saltzalle gaistoari,

oñak garbitu ziozkan bitartean? Baña etzan alaere Judas eskergabea zentzatu orduan; eta era onetan gaizki gastatu zituan Jesu-Kristok berarentzat prestatu zituan Zeruko laguntzak; geratu zan bere gaistakerian gogortua, eta il zan guziok dakigun eran, gogaitua, eta bere burua urkaturik. Era berean eriotza negargarri batekin bukatu zituan bere egunak Saul Erregeak ere. Saul Jainkoak berak Israelko erregetzat autua, eta Samuel Profetak ganzutua Erregeakin egiñ oi dan eran. Etzuan egin Jaunaren esana Amalezitakin zuan gerra batean; utzi zuan Jaunak bere eskutik; gastatu zituan alabaña Jaunak prestatu ziozkan laguntzak, eta zenbat erregu, eta zenbat negar egin zion Samuelek Jaunari Saulen alde, etzuan ezer iritxi Profeta Santuak. *Noiz artean negarrez egongo zera, Samuel...* neregandik ayenatua, eta botaa daukadan onegatik? *Usquequo tu luges Saul, cum ego proiecerim eum?* (Lib. 1. Reg. c. 16). Ona, bekataria, zein uste zoroa dan esatea: *Emango dit Jaunak bere grazia, ta laguntza noizbait beragana biurtzeko;* ta ona uste onekin nola bekatariak bukatzen dituen eren egunak egiaz Jaunagana biurtu gabe. Eztago, Kristaua, bekatutik irteteko, eta Zerurako beste biderik, Jaunak bidaltzen dizkigun gaztigu, eta laguntzai dirauen denboran ongi eustea

baizik. Agor ola batek neguko euriakin burnirik egiten ezpadu: nola egingo du agortzen diranean erreka? eta ezpada bekataria bekatutik irteten orain Jaunak Zeruko euri gozoak bidaltzen diozkanean, zer egingo du euri oek aitutzen diranean? Zer ezpada bekatuan oatua bezala geratzea? Zer ezpada eriotza negargarri baten ortzetara joatea?

§ III.

Bekategoriaren irugarren uste zoroa izan oi da esatea: *Andia da Jaunaren ontasuna, eta barkatuko dizkit nere bekatuak*. Uste zoro, edo obeto esateko aitzakia animagalgarri onekin badarraye bekatari gaixoa bere griña, ta gura txarrai, eta atzenean irintxitzen bekatu bat arpoyparen eran errayetaraño igarotzen zayona, bekatu bat beti-betiko eriotzaren puzoya, eta garranga berekin duana; bekatu bat besteakin batean neurria betetzen duana, eta onela iltzen da bekataria bere Aita onagana egiaz biurtu gabe. Enzun ezazu, Kristaua, egia au zuri adierazteko esatera noana.

Andia da Jaunaren ontasuna, eta ontasun onek mugiturik guretzat prestatu ditu ondasun ain andi

miragarriak, non ezin aditzera eman ditezkean. Andia da Jaunaren ontasuna, eta ontasun onek mugiturik jatxi zan Zerutik lurrera, egin zan gizon, eman zuan gurutzean bere bizitza, eta utzi zion bere Elizari gure bekatu guziak barkatzeko eskua. Baña denbora berean da, ezin geyagoraño; *zuzena, ela justua*, eta beregan artuak dauzka gauza guzieren neurriak, jakintsuak Eskrituran dion bezala. *Omnia, in mensura, numero, et pondere disposuisti*. Eta emendik beregan erabakia dauka, zenbat bekatu, ta nolakoak barkatuko diozkan bakoitzari. Ala erakusten due Elizako gurasoak, eta oen artean S. Agustiñek. Bekatuen neurri au ezta guzientzat berdiña; batzuenzat da laburra, besteentzat txit andia; eta nork galdetuko dio *zuzentasuna* bera dan Jaunari zergatik au egiten duan? Pentsamentuzko bekatu bat asko izan zan Aingeru gaistoe-tan neurria betetzeko. Bost urteko aurra bere amaren besoetatik eraman zuen Deabruak bekaturen bat eginta, S. Gregoriok dionez. Valladolidko ibaian ito zan zortzi urteko aur bat, eta D.^a Marina Eskobarri agertu zitzayon suz, eta garrez inguratua, eta esan zion nola kondenatu zan juramentu gezurrezko bategatik. Jau-nak bakoitzari ipiñi dion neurria betetzen duan bekatu auere barkatu ditekeana dana berez; baña ezta beiñe-

re osotoro barkatzen, zeren neurria betetzen duanetik bekataria geratzen dan Jaunaren eskutik utzia. Argatik neurriaren betegarria dan bekatu oni deitzen dio S. Gregoriok erraietaraño sartutako bekatua: *Peccatum invisceratum*. Jeremiasek: *sendatu ezin ditekean zauria. Insanabilis fractura tua, pessima plaga tua... curationum utilitas non est tibi* (c. 30). Job Santuak deitzen dio Infernuraño geratzen ez dan bekatua: *Usque ad inferos peccatum illius* (c. 24), eta S. Joanek: betiko eriotzaren puzoia dakarrena. *Peccatum ad mortem* (1 c. 5). Jarri zan bein Jeremias Profeta Jaunari erregutzen bere jendeakgatik, eta esan zion Jaunak, etzegio-la erregutu, zeren adituko etzuan. *Tu ergo noli orare pro populo hoc... quia non exaudiam te* (c. 7). Jarri zan Birjirña guziz Santa bi bekatariaren onerako erregutzen, baña etzuan iritxi eskatzen zuana; zeren neurria beterik zeukeen. Bekatariak bere neurria betetzen duanean esango du Jaunak Jeremiasek diona: eman diozkagu Babiloniari, edo bekatari eskergabe oni sendatzeko prestatu niozkan laguntzak, baña alferrik; utzi dezagun bada bere gura txarren atzaparretan. *Curavimus Babilonem, et non est sanata, derelinquamus eam* (c. 51). Edo esango du Jesu-Kristok Jerusaleni, eta Juduai esana. Begiratu zion bein Jerusaleni, eta ekusi-

rik onen gañera etortzeko zeuden ondoren izugarriak, malkoa zeriola esan zuan: Ezagutu izan bazindu zure onerako nik egin ditudan, eta egin nai nituan gauzak! *Si cognovisses et tu, et quidem in hac die tua, quae ad pacem tibi* (Luc. 19). Atzenean esango dio: Ni banoa zugandik, eta banoa betiko. *Ego vado*. Asiko zera nere billa, baña zere bekatuen neurria bete dezun, eta bekatuan ilko zera. *Quaeritis me, et in peccato vestro moriemini*. Au onela igarotzen da egun oro, eta egunean askotan, baña nola begiak in ekusten ez degun, ez degu zentzatu nai, eta aurrera goaz geren animak galtzeko bidean, eta gertatzen zayo bekatari bere galgarriari sulla, edo txarro bati urean gertatzen zayona. Badabill sulla urean, makurtzen da alde batera, eta edaten du ur piska bat; makurtzen da beste aldera, eta edaten du beste piska bat; baña nola oraindik ondatzeko diña edan ezduan, badabill uraren gañean. Badijoa era onetan alde batera, eta bestera makurtuaz, eta ura artuaz, eta neurrira iristen dan puntuan, ondatzen da. Ay! zu Jaunaren deya z iseka egiten dezun bekataria! Ay! zu guraso zabarra! Ay! zu beranduraño jendea edanean, eta jokoan idukitzen dezuna! Ay! zu neskatx ergel, atsegin loyen biska prestatzen dezuna! Ay! zu mutil zentzugabea, zure itzegite, ibille-

ra, ta modu gaistoakin animak galerazten dituzuna! Ay! zu usura, ta tratu zikiñetan bizi zerana, edo beste-rena biurtzeko biotzik ez dezuna! Ay! zu lagun urkoaren kontra nola nai itzegiten dezuna! Bazabiliza munduko itsaso onetan, edaten dezu ura bezala bekatua; baña neurria betetzean geratuko zera infernuan, edo infernurako bidean eta etzera geroz zuzenduko. Eztezu iñoiz ekusi, Kristaua, nola amorrai andiskoren bat erortzen dan arrantzalearen atzaparretan? Botatzen du arrantzaleak zurda garranga txikiarekin, eltzen dio amorraiak, eta autsten dio garranga. Erantsitzen dio zigorrari zurda sendoagoa, ta garranga andiagoa, ta lumaz, edo txitxarearekin estalirik botatzen die. Uste du amorraiak len bezala iges egingo duala; irintsitzen du garranga, eta geratzen da arrantzalearen mendean. Zer besterik gertatzen zayo bekatariari? Eten ditu bein ta berriz, eta bear bada askotan etsayaren zurdak, eta garrangak, edo irten da askotan bekatutik, ezta zentzatu, eta dabillen dabillen irintsitzen du neurri betetzen duan bekatuaren garranga ikaragarria, eta geratzen da betiko infernuko arrantzalearen mendean. Argatik esana dago Eskritura Santan: gizonak atxituak izten dirala denbora gaistoan arraiak zurda, ta garrangarekin atxitzen diran bezala. *Sicut pisces*

capiuntur hamo... sic capiuntur homines in tempore malo (Ecclesiastes c. 9). Ta au guzia asko ezpada, bekataria, zuk egia au ongi ezagutzeko, atoz nerekin Zakariak, eta Amos Profetak aditzera emanik daukeenaz enzutera.

Zakarias Profetari agertu zitzayon beiñ Aingeru bat, eta esan zion: *Altxa begiak*. Begiratu zuan, baña etzuan zer zekusan ezagutzen. Au da, esan zion Aingeruak, au da kantaro, edo neurri bat. *Haec est amp-hora*. Ekusi zuan gero Zakariasek kantaro arganonz zetorrela berun puska andi bat. Ekusi zuan gañera, etorri zala emakume bat bekatu, ta gaistakeria guzien antza, eta imajiña zana, eta au jarri zala kantaroaren erdian. Ekusi zuan emakume au kantaroan barruna sartzen, eta orduan Aingeruak len esan degun berun puska andi arekin itxi, eta estali zuan kantaroaren aoa. Atzenean agertu ziran bi emakume miruaren egoaz jantziak; artu zuen kantaroa, ta eraman zuen Senaar deritzan lurrera, edo sufrea, ta betuna darion bazter batera. (c. 5). Au da Zakarias Profetari Aingeruak erakutsi ziona; eta au da bekatariari, bekatuen neurria bete ezkeru gertatzen zayonaren antza. Zer aditzera ematen Au Zakariasek ekusi zuan kantaro ark? S. Gregorioren iritzian bekatariaren biotza, eta S.

Agustiñek dionez bekatuen neurria. Zer aditzera ematen du, emakume gaisto ura kantaroan sartzeak? Aditzera ematen ditu bekatariak bere gaiztakerien ontzi, ta neurrira biltzen dituan bekatu guziak. Zer aditzera ematen du berun puska andi ark? Aditzera ematen du neurria betetzen duan bekatu ikaragarri ura. Zer aditzera ematen ote due miruaren egoakin agertu ziran emakume aek? Aditzera ematen due, bere gaistakerien neurria bete duan bekataria eramango duela Demonioak betiko su, eta garren artera. Au da Zakarias Profetak ekusi zuana. Baña argiroago itzegiten du Amos Profetak, edo obeto esateko Jaunak berak Profeta onen autik. Iru bekatu barkatuko dieztet Damasko-arrai, dio Jaunak, baña laugarrena ez diet barkatuko. *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non convertam.* Iru bekatu barkatuko dieztet Gazakoai, baña laugarrena ez diet barkatuko. *Super tribus sceleribus Gazae, et super quatuor non convertam.* Iru bekatu barkatuko dieztet Tyrokoai, baña laugarrena ez diet barkatuko. *Super tribus sceleribus Tyri, et super quatuor non convertam.* Iru bekatu barkatuko dieztet Edongoai, baña laugarrena ez diet barkatuko. *Super tribus sceleribus Edom, et super quatuor non convertam.* Iru bekatu barkatuko dieztet Amonen

ondorengoai, baña laugarrena ez diet barkatuko. *Super tribus sceleribus filiorum Ammon, et super quatuor non convertam* (c. 1). Ekusten dezu, Kristaua, nola Jaunak bakoitzari ipiñi dion barkatuko diozkan bekatuen neurria? Ta au onela izanik ala ere ain arduragutxirekin ura bezala edan degu bekatua, ta gaistakeria? Alaere ez ditugu bertatik, eta betiko utzi nai bekatuaren bideak, eta perillak? Esango degu: *Andia da Jaunaren ontasuna, eta barkatuko dizkit nere bekatuak?* Andia da bai Jaunaren ontasuna, baña denbora berean andia da beraren zuzentasuna, ta justizia, eta beragatik bekatuen neurria betetzen badezu, galdua zera betiko. Ala dijoaz bekatariak beren neurria beteaz, eta amilduaz betiko su, eta garren artera. Zenbat izango dira neurria bete duenak? Zenbat neurri betetzeko bekatu bat bakarra falta duenak? eta alaere egun oetako zalagardak, bekaturako bide, eta perillak utziko ez dituenak? Baña badator kontuen denbora; badator betikotasuna, eta gaur esan diran egia oek izango dira bekatari zentzatzan ez danarentzat ar ozkari bat beñere bukatuko ez dana. Baña asko da.

Ona nere, Kristauak, zein ondoren samiñak, eta garratzak diran bekatuaren ondorenak. *Scito, et vide,*

quia malum et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Eta miretsitzen zera, Kristaua, ondoren oen gañean egiten diran dotrinak samiñak irteteaz? Ojala aditzera eman al baledi bekatuaren samintasuna dan eran! Ez lituke orduan dituan adiña jarraikiñ izango. Sinistu ezazu, Kristaua; ezdagoala Zerurako beste biderik bekatua betiko utzita bizitza berria egi-tea baizik, eta egin bear da artarako denbora egokia galtzen ez dala; bestela gertatuko zaku bekatuen neurria betetzea, eta betiko galtzea. Jaunari nai dakiola gu betiko beragana biurtzea, eta guk gure egunak bukatzea beraren grazian, eta pakean. Amen.

OGEI TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Baña gure fiñ-goi-miragarriaren gañean lenengoa.

*Ecce nunc tempus acceptabile,
ecce nunc dies salutis. 2 ad corrint. c. 6.*

Noiz artean, bekataria, noiz artean izango zera aiñ pisua, eta nagia zure animari dagozkan gauzetan? noiz artean usarrean, eta muturka ari bear dezu lurra-
ren gañean, zertarako zure egille onak egin zaituan begiratu ere gabe? Zergatik aunatzen zera, gezurra, engañoia, ta iduripen utsa besterik ez diran, gauzen billa? Zeri zagozkala amatzen dituzu Munduko gauza uts-zirzillak, eta atsegin lotsagarriak? Era onetan dea-
dar egiten zuan denbora batean Dabid Santuak. Ta zer? Dabidek bere denboran ziona, ez ote da egiaz, eta bidez esango, Kristaua, zuzaz, eta geyen geye-
naz? Zenbat, eta zenbat izango dira alabaña gaistake-
ria, ta bekatuen oituran urte asko oetan oatuak beza-
la arkitzen diranak? Zenbat bekatuaren berrizkaturen mendean bizi diranak, len konfesioan bota zituen gais-
takeriak berriro zakurraren eran jaten dituenak? Zen-

bat bekatuaren bide, ta perilletan begi bietaraño ondatuak daudenak? Zenbat, edanerako griña gaistoa utzi nai ez duenak? Zenbat, birau, edo madarikazioak botatzen dituenak? Zenbat guraso, ume, ta mirabeai dotrina, ta Zerurako bidea erakusteko konturik, eta arretarik ez duenak? Zenbat gazte errebesak, eta gogorrek eren guraso, ta nagusi, edo etxekoandreakin? Zenbat, litxarrerria, losentxa, gezurra, eta tranpa beste gabe bizi diranak? Zenbat beren itzegite, begiratze, ta keñada lotsagarriakin animen eralle, ta etsayaren miru biurtu diranak? Zenbat, eta zenbat lagun urkoaren izen on edo famari beti ozka, ta aginea ari zaizkanak? aren gauza guziak beztutzen, okertzen, alde gaistora botatzen dituenak? Zenbat, eta zenbat esaminarik ongi egin gabe, damurik, eta ontzeko asmo oso gabe konfesioko Sakramentura, ta Jaunaren mayera etortzen diranak? Esan diteke alde aldean Dabidek ziona: *Aldegin due guziak Jaunagandik, ia galdu dira denbora berean Jaunarentzat. Ezta arkitzen gauz onik bear bezala beintzat egiten duanik. Non est usque ad unum.* Badakus au guzia Eliz Ama Santak; badakus bere umerik geyenak, mendi gaiñ batetik amilka datorren arkaitzaren eran, amilduaz dijoazela betiko su, eta garren osiñera; ta Ama onak bezala,

pena, samintasun, eta naigabez beterik, otsegiten die bere ume errebesai S. Paulorekin batean. Ona, dio, ona, Jaunak bere urrikimentuaren ondasunak ixuri oi dituan denbora. *Ecce nunc tempus acceptabile*. Ona zuen animak garbitzeko, sendatzeko, ta Zerurako bidean ipintzeko eguna. *Ecce nunc dies salutis*. Enzun itzatzu bada, Kristaua, zure Ama on Elizaren deyak. Presta zaite zure Jaunaren grazia, ta adiskidetasuna iristeko denbora Santa onetan; ta lan andi onetan zuri laguntzeko begien aurrean ipiñiko dizkitzut, gure siniste onak erakusten dizkigun, zenbait egia indartsu. Ekingo diot saill oni, Birjiña txit Santa gugatik naigabez, eta penaz betea bitartekotzat aututzen dedala, ta uste det, Kristaua, etortebazera kontuz, eta Jaunagana biurtzeko nai andiarekin, begiratuko dizula bekatarien Ama maitagarri onek urrikimentu andiarekin. Gaur itz egingo det gure Fin goi-miragarriaren gañean, ta begien aurrean ipiñiko dizkitzut pensatzeko gai oek. Lenbizia: Norgandik dezun, ta zertarako dezun izate ori? Bigarrena; zer neurriak artu dituan zure Jaun Jaungoikoak zuk zure fin, eta betiko doatasuna iritxi dezazun. Irugarrena, zer neurriak artu dituan Jaun berak gerorako. Atoz, Espiritu Santua; atoz beartsuen gurasoa; atoz doayen emallea: argi

itzatzu gure adimentuak, ezagutu ditzagun gure eskergabekeriak. Mugi itzatzu gure biotzak oen gañean negar egiteko, ta bizitza on bat artzeko. Ta zu Birjiña txit Santa, gugatik ainbeste pena, ta samintasun ekusi, ta ekusten dezuna, zu zera munduko baga, ta perillen artean gure Norte izarra; zu Aingeruen Erregiña, ta illuntasun, ta atsakabez inguraturik arkitzen diranen argi ederra, ta atsegin-kontentua. Zu ondunai duen bekatarien bitarteko andi, ta Ama gozoa. Izan zaite bada arren gure giari, ta laguntzalle asitzera goazen lan andi onetan. Au da guk umilki eskatzen dizugun ontarte, edo mesedea, Aingeruarekin diogula.

ABE MARIA

*Ecce nunc tempus acceptabile,
ecce nunc dies salutis.* 2 ad corrint. c. 6.

§ I.

Gure fede Santak erakusten dizkigun egietatik bat da, Kristaua, dezun izate ori ez dezula zerez, ez eta ustekabeen sortua ere. *Begira ezazu bada lenengo*

Iekuan Norgandik dezun, ta zertarako? Orain sei milla urte etzan Jainkoaz osteronzean ezer ere. Etzan oraindik mundurik, etzan izarrik, illargirik, eguzkirik, Zerurik. Etzan lurrik, eta lurrean arkitzen diran gauz oetatik batere. Etzan gizonik, eta emakumerik. Nork egin ote ditu gauz oek guziak, galdetzen digu Isaias Profetak? *Quis creavit haec.* Ta galdu ezpadezu zuk, Kristaua, zure sinistea, ta zentzua, nai ta ez aitortu bear dezu, gauz oek ez dira berak berenez agertu; ezin alabaña ezereza atera diteke berez bere ezerezetik. Aitortuko dezu, gauzen asieran guzia egin zuala Jaunak, Eskritura Santak dion eran. Aitortuko dezu atzeanean edozeñ gizon sortzen danean ezer ezetik egiten duala bakoitzaren anima. Ta zuk aitortuko ezpazenduen egia au, gauza guziak deadar egiten due: Jauna egiñak dirala, ez berenez sortuak. *Ipse fecit nos, et non ipsi nos.* Nork gañera dauka gauz oen guzien, eta zure kontua? Nork gordetzen die eren izatea? Nork ezpada Jaunaren esku guzi-aldunak? Nola Jauna iraun lezake ezerk ere zuk nai ez izatera? dio Eskritura Santak. *Quomodo posset aliquid permanere, nisi tu voluisses?* Jaunagandik dezu beraz, Kristaua, dezun izate ori? Jaunaren eskutik beraz beti itxikirik, eta txintxilik arkitzen zera, iraungo badezu zure izate apur

orretan? Ta, Zertarako eman ote dizu zure Jaun Jaungoikoak izate ori? Eman ote dizu ezer ezaren ondoren zere egunak igarotzeko? Eman ote dizu munduaren losentxa, ta gezurrai jarraitzeko? Eman ote dizu munduko idolo engaigarriak, onrak, arrotasunak, izanak adoratzeko? Eman ote dizu gorputzaren atsegin-kontentuen ondoren lau oñekoen eran, edo are zikiñago bizitzeko? Ez, Kristaua, ez. Zirzillegiak dira gauz oek guziak zuretzat. Gauz andiangoetarako egin zinduan Jaunak; bada egin zinduan bera ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko; ta betikotasun, edo eternidade guzian doatsu berarekin batean Zeruan izateko. Au erakusten digu gure fede garbiak, au sinisten degu Kredoko misterioak sinisten ditugunean.

Aditzen dezu, Kristaua, zertarako eman dizun Jaunak, dezun izate ori? Aditzen dezu, zein dan zure fiña, ta zure biotzaren muga? Baria nork esan, Kristaua, zein fin prestua, zein goi, eta miragarria dan gure Jaun Jaungoikoa ezagutzea, amatzea, ta serbitzea? Jaungoiko bat ezin geyagorano eder, on, eta maitagarria? Jaungoiko bat, bere edertasuna agertze utsarekin betiko doatsu egiten dituana Zeruko Aingeruak, eta ango anima guziak? Jaungoiko bat atzenean, begien itxi-idiki batean agertuko balitzate infernuan arkitzen

diran Deabru, ta anima galduai atsegin-kontentuetan biurtuko litukeana aen neke-oiñazeak, aen suak, eta garrak, aen samintasunak. Nork esan, diot berriz, zein fin prestua, zein goi, ta miragarria dan Jaun au ezagutzea, amatzea, serbitzea? Ay! Kristaua! Ez due Zeruko Aingeruak, Kerubin, eta Serafinak zuk dezun baño fin goyagoa, ta Jaungoikoak berak ezin eman zegikezun fin goyago, eta egiteko prestuagorik. Ezpadezu nere esana sinisten, galde giezu Elizako guraso, ta jakintsuai, ta eranzungo dizue ezerezak dirala munduko Erregeen koroak, erak, eta onrak, zure Jaun Jaungoikoren serbitzari izatearen pare. Eranzungo dizue Jaungoikoa serbitzea dala egiaz Errege izatea. *Servire Deo regnare est.*

Au onela izan, Kristaua, eta alaere bizitu zera oraindaño zertarako munduan zauden begiratu gabe? Au onela izan, eta alaere zure oraindañoko urteak igaro dira zuk dakizun eran? Arkituko ote dezu, urte orien guzien artean bat bederik zure Jauna ezagutzen, eta serbitzen igaroa? Baña zer diot nik urte bat? Arkituko ote dezu egun bat bakarra ere bear bezala zure Jaungoikoa serbitzen igaroa? Zein gauza lotsagarria! Ezaguerarik, eta zentzurik ez duen gauza guziak izaten asi ziran une, edo puntutik beti ari dira beren Egi-

Ille onak eman zien egitekoan; beti darraizka Egille berak ipiñi zien finari. Ez dira beren lan, eta egiteko onetan aspertzen. Sei milla une aldean da egin zitua-la Jaunak Zerulurrak, eta oetan arkitzen diran gauzak, ta bakoitza ari da nor bere lan, eta jardueran. Eguzkia, illargia, ta izarrak ez dira beñere aspertu beren argi ederrak ematez. Lurra ari da arbolak, loreak, frutuak, urrea, zillarra, ta beste ondasun asko bere errayetatik bidaltzen; eta au bera gertatzen da gu ez beste gauza guziakin. Ta zu, Kristaua, ezaguerarik, eta zentzurik ez duen gauzak baño beerago jetxi zera? Ez dezu ezagutu zure Jaungoikoak egin dizun onra; egin dezu zere burua zentzugabeko animaliak bat; eta aen anzeko biurtu zera. *Homo, cum in honore esset, non intellexit; comparatus est jumentis, et similis factus est illis.* Ta zerbait lizake zentzugabeko animalien antzeko izatea: ezagutzen du alabaña idiak bere jabea; ta astoak bere Jaunaren trisipua, dio Isayas Profetak; baño zuk, eskergabe gaistoa, ez dezu ezagutzen, ez dezu amaitzen, eta serbitzen zure Jaun Jaungoikoa; ta ez dezu begiratu ere zertarako eman dizun Jaunak dezun izate ori.

§ II.

Andia da, ta goi-miragarria, Kristaua, Jaunak zuretzat nai izan duan fiña; ta jakiñ ezazu fin oni dagozkan bezalako lagunzak prestatu zituala zuretzat Jaun berak. Prestatu zituan benikbein gorputzaren aldetik emen bearko zinduan lagunza guziak. Zu jayo baño len egiña zeukan zuretzat munduko etxe eder galant au. Etxe onen tellatuak izarrez beteak dauden, Zeruak dira. Etxearen azpia oñpean daukazun lurra. Emengo argia egunaz eguzkia da, ta gauaz illargia, ta izarrak. Ez dira beñere urratzen tellatuak; eta ala oek nola beste emengo gauza guziak Jaunaren kontura daude. Etziñan etxe utsean sartu mundu onetara etorri ziñanean. Baziakian zure Egille onak, etxearen ezezik beste gauz askoren premia izango zenduala emen bizitzeko; ta ongi ziakianak bezala, ornitu zuan etxe au gauza guziaz. Egin zituan lurpean urrea, zillarra, diamante, eta arri fiñak. Egin zituan lurraren gañean ardiak, beyak, egaztiak. Egin zituan iturriak, ibayak, itsasoak. Egin zituan oetan nortaki zenbat arrai-mota. Egin zituan arbolak, fruta gozoak, eta ezin konta al lore eder. Ta au guzia ezer ezpaliz bezala, eman zien lurrari, aizeari, suari, ta urari bear adiña indar bere-

nez, edo laguntzen zayela zure jan-edanak, soñak, eta beste premiak eskatzen duena egiteko. Norentzat egin ditu, Kristaua, zure Jaunak gauz oek guziak? Norentzat zuretzat baizik? Arriturik geratzen zan Dabid Erregea Jaunak guretzat prestatu zituan gauzai begira jarririk, «Gure Jaun Jaungoikoa, zion: zein miragarria dan mundu guzian zure izena! Zer da gizona, zu gizonaz era onetan oroitzeke? Gloriaz, eta onraz bete dezu, ta zure eskuetako obra miragarrien gañean ipiñi dezu. *Constituisti super opera manuum tuarum*». Gerta diteke, Kristaua, zu bearrean arkitzea, baña ori izango da, zeren zure aldetik egin bear zendukeana egiten ez dezun, edo zeren ori dan zuri ongiena dago-kizuna Zerurako bidean. Au da egia bat sinistea galdu ez duanak, ezin ukatu dezakeana. Egia bat Jaunak Eskritura Santan ezarri, eta denbora guzietan obraz agertu diguna. Ez kezka geyegitan ibilli, jan edanera-ko, ta janzirako bear dezuenaren gañean. *Nolite solliciti esse*. Begira airean dabiltzan egaztiai. Ez due oek ereiten ezer, ez eta biltzen ere aletegi, edo graneroe-tara. Ta alaere zuen Aita Zerukoak bazkatzen ditu bear duen jana emanaz. Begira, kanpoetan jayotzen diran lirioak nola azitzen diran. Ez dira batere neka-tzen soñerako bear duenaren billa, ez due onetarako

ardatzean ere egiten. Alaere etzan oek bezeiñ ederki apaindu izan Salomon bera bere jakiunde, ondasun, eta alegin guziakin. Ta gaur bai, eta bigar ez dan, edo surtara botatzen dan belarra onela janzitzen, eta apaintzen badu Jainkoak, zenbatez andiagoa izango da Jaun berak zuez daukan kontua? Ez bada kezketan ibilli esanaz: *Zer jango, ta edango degu, edo zerekin estaliko gera?* Galde oek guziak federik ez duen jendeen galdeak dira. Badaki zuen Aita onak, gauz oen guzian bear zeratena. Billa ezazue lenengo lekuan Jaungoikoa; kontuz egin ezazue beraren Lege Santak agintzen duana; eta animako ondasunaz gañera emango zaizkitzue gauz oek guziak. *Haec omnia adjicientur vobis.*

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ lagunza eder-andiak prestatu dituan zure Jaun Jaungoikoak, zure emengo premia guziak estaltzeko? Ta eztakizu laguntza oek dirala zuk errazago, ta gogo obearekin Jaun bera amatzeko, ta serbitzeko? Badakigu, dio S. Paulok, Jaungoikoa amaten duenai gauza guziak laguntzen diezala onerako. Ta zure kaltetan, eta zere animaren puzoi biurtu ez ditzatzun emengo laguntza oek, artu zituan Jaunak neurri guztiz miragarriak. Debekatu dizu lurreko onra, ondasun, eta beste edozeñ gauzetan biotza

ipintzea; ta bakarrik gauz oezaz baliatzea nai du bera amatzeko, eta serbitzeko laguntzen duen bezanbat. Gañera eman zizun zori on, eta doatasunaren eresi andia, ta egarri bat Jaungoiko beraren edertasun paregabeak bakarrik ase, ta bete dezakeana. Alferrik nekatuko zera emengo onra, losentxa, ta goimallen ondoren. Alferrik erkiturik ibilliko zera ondasunak ezin bildurik. Alferrik desegingo zera munduak eman ditzakean atsegin billa. Alferrik aunatuko zera munduko era, estimazio, adiskidetasun, eta zorakeriai jarraitzen lilluraturik, eta itsuturik. Gauz oek guziak iritxiko bazindu ere zure biotza geratuko lizake len bezeñ utsa, ta zori on, edo doatasunaren egarria ase gabe; zeren Jainkoa bakarrik dan biotz orren *betegarria*. Au beregan ekusi zuan Salomonek. Ezta izan munduan Errege onen pare ipiñi ditekeanik jakiundean, ondasunetan, onra, eta izen andian, eta alaere utsa izan zan au guzia beraren biotza betetzeko. Asi zan eguzkiaren azpian gertatzen diran gauza guzien ezaguera iristen, ta neke onen ondoren dio: guzia dala ezereza. *Ecce universa vanitas*. Asi zan Jauregi ederrak, berjerak, loreak, arbolak ipintzen; ta ekusi zuan oek utsa zirala biotza betetzeko. Asi zan ondasunak biltzen, eta beste Erregek ez adiña bildu zituan. Asko da esatea aren

denboran zillarrari, ezer balio etzuan gauzari bezala begiratzen zitzayola. Baña etzuan oetan ere arkitu utsa, ta barrengo kezka, ta nekea besterik. *Vidi in omnibus vanitatem, et afflictionem animi.* Asi zan musika, ta kantariak bere jauregian ugari ipintzen, eta orobat gertatu zitzayon. Ekin zion atzenean gorputzaren beste atsegin ez garbiak billatzeari. Ez nien begiai ukatu gura izan zituen gauzetik batere, dio berak; eta ez nion eragotzi nere biotzari prestatu niozkan gauzetan nai zituan atsegin guziak artzea. Nork izango ditu, dio, nik adiña atsegin, eta kontentu? *Quis... deliciis affuet ut ego?* Inguruko Errege, ta Prinzipeen alabak. beregana zituan: eta nornai arriturik utziko duan gauza da Eskritura Santak diona, zazpi eun emazte izan zituala Erregiñen izenarekin; eta irureun beagoakoak. Ta munduko atsegin-mota guziak era onetan dastaturik, zer atera zuan Salomonen biotzak? Zer ezpada betiko bere burua, ta bere izen andia biur-tzea? Zer ezpada emakumeen losentxen goisoakin lli-lluratzea, itsutzea, ta farragarri biurtzea? Zer, ezpada betiko galdu zalako beldur andi bat utzitzea. Aitortu zuan Errege onek guzia zala utsaren utsa, eta ezer eza. *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas.* Ona, Kristaua, zeñ neurri ederrak artu dituan zure Jaun onak,

munduan zure onerako prestatu dituan laguntzak, zere puzoi biurtu ez ditzatzun. Atozea orain, Kristaua; egiñik zure Jaun Jaungoikoak zuretzat munduko etxe eder galant au; orniturik, eta apaindurik etxe au zuk bear dituzun gauza guziaz, laguntza oezaz baliatu ote zera zure Egille ona ezagutzeko? bera amatzeko, ta serbitzeko? Zure animaren zori on, eta doatasuna billatzeko? Esan beza zure oraindañoko bizitzak. Zer egin dezu zure artasunean? Zer errebeskeria, ta ibille-ra gaiztoa besterik? Zer gaztedasunean? Ay! zure adiñ au zikinkeria, itz loi, eskuka, keñada, ta gauz are itsusiagoen ainzira, edo osin bat bezala izan da! Zer egi-ten dezu zartasunean sartu ezkeror? zentzatu bea-rraan, ekin diezu irabazi naspillaz beteai, tratu gaizto-ai, kutiziari; ta era onetan zure onerako Jaunak eman-dizkitzun emengo gauza, ta lagunzaz baliatu zera Jaungoiko beraren kontra altxatzeko. Ez ote zera noiz erebait zentzatuko?

§ III.

Orain adirazi dizkitzudan lagunza oek gorputzari dagozkan laguntzak dira, geyenak beintzat. Ta izanik

oek diran bezeñ andiak, eta miragarriak, zer izango dira, Kristaua, zure animari Zerurako bidean laguntzeko prestatu dituanak? Adan zure lenbiziko gurasoa bekatuan erori zanean, galdu zuan berekin bere ondorengo guzientzat Jaunaren grazia, ta adiskidetasuna. Galdu zuan grazia onek ematen zion Zeruko ondasun, eta atsegin kontentuen esku, ta deretxa guzia. Gelditu zan bere animan elbarritua bezala; ta denbora berean gelditu zan Jainkoaren aserre, ta madarikazioaren azpian, eta etsai galgarriaren mendean. Ta nola Adanen bekatua, eta bekatuaren ondorenak jatorriz igarotzen diran Adanen ondorengo guzietara, zu ere zere sortzetik geratu ziñan Jaunaren madarikazioaren azpian, bekatuaren loiez betea, ta Zerurako gauz onik batere ezin egin zentzakean eran. Urrikitu zan guzaz gure Aita ona; eta ainbesteraño maite izan ginduan non eman izan zuan bere Seme bakarra gizon egiteko; gizon egin da gurutzean bizitza emateko; ta era one-tan Jaungoikoaren, eta gizonaren arteko pakeak egiteko. Ala dio S. Paulo Apostoluak. *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret mundo.* Eman zuan bada, Kristaua, zure Salbatzalleak zugatik bere bizitza; prestatu zuan zuretzat zure zori ona, doatasuna, edo betiko Zerua iristeko bidea. Prestatu zuan

gañera Salbatzalle berak batayoko Sakramentuan, bere eriotzaren frutu gozoak, eta ondasunak zure animan ixurtzeko bidea; ta deitu zinduan Sakramentu onetara, ta denbora berean bere fede, ta lege Santarra. Ay! ta ezagutu bazentza zein ontarte, ta onra andia dan au! Zer dira munduko onra guziak utsa, ta ezer eza baizik onen pare ipintzen badituzu? Zer dira munduko ondasunak? Zer dira munduko jatorri, eta alde-tasun andien izena duenak? Zer atzenean emengo lekurik altxatuenai zuk batayora deitua izatean dezun onra, ta mesedearen aldean? Ozta artu zenduan batayoko Sakramentua, puntu berean geratu ziñan Adanen bekatuaren loietatik garbitu, ta Zeruko graziaren doai, eta birtuteen soñeko ederrarekin apaindua. Ordutanik artu zinduan Jaunak bere adiskide, ta seme-tzat, eta egin zinduan Zeruko Erreñuaren, eta ango atsegin kontentuen jabegai, edo heredero. Ta auguzia zugatik, ta bera zuk ezagutzeko, ta amatzeko egin duan Jaunak, zer gañera ez du egin? Eman dizkitzu bere lege Santaren Ministroak, zuri Zerurako bidea erakusteko. Eman dizu bere Aingeruetatik bat, zure sortzetik asita zu ill artean kontu egin degizun edo zaitu zaitzan. Eman dizkitzu ainbeste Zeruko grazia, ta laguntza bekatutik aldegiteko, ta Zerurako bideari

jarraitzeko; ta grazia, ta laguntza berriak, eta ugari izan ditzatzun, utzi dizkitzu Sakramentuen iturri beñere agortzen ez diranak; oen artean Aldareko Sakramentu guztiz miragarria. Sakramentu orretan gorderik dago, zuri zure premia guzietan laguntzeko; zurekin biotzez biotz itzegiteko; ta zurekin bizitzeko. Sakramentu orretan dago zure biotzean issurtzeko bere ongina, amorio, ta gozotasunaren ondasunak, Zeruko grazia, eta laguntzak; ta guzia batean esateko, Sakramentu orretan dago zure Salbatzalea, bera dan guzi guzia zuri emateko. Arritzen da S. Agustin Jaunaren ongina, ta amorio onezaz, eta dio: izanik gure Jaungoikoa dan bezala *Guzialduna*, ezin alaere eman digun baño geyago eman izan zuan. Izanik ezin geyagoraño jakintsua, etzuan alaere jakin zer geyago guri eman. Ta izanik ezin geyagoraño aberatsa, ta gauza guzian jabea, etzuan izan zer geyago eman. *Plus dare non habuit*. Ona, Kristaua, zein lagunza miragarriak prestatu dizkitzun zure Jaun onak, Jaun bera zuk amatzeko, ta serbitzeko; ta era onetan betiraunde, edo eternidade guzian doatsu zu izateko. Baña esan gidazu, Kristaua, esan gidazu arren: Jaunaren ongina, ta amorio baztergabekoak prestatu dizkitzun lagunlza oek guziak zertan geratu dira zurekin? Zer frutu atera

dezu? Ay! eskergabekeriaren itsusia! Zenbat eta onginai, ta amorio geyagorekin begiratu dizun zure Aita onak; zenbat eta era, ta laguntza geyago prestatu dizkitzun bera serbitzeko, ta betiko bizitza doatsua iristeko; anbat geyago aztu zera zere ongille andiaz, eta animaz, eta zori onaz! Etzaitu, doakabea, mugitu zure Jaun Jaungoikoa serbitzera, ez Jaun bera gizon eginda zure billa etorteak, ez beraren gurutzeko eriotza gogorrrak; ta artara mugitu ordean zere alegin guziakin aritu zera zure Salbatzallea berriro gurutzean josten. Batayoko Sakramentua artu zenduanean, deitu zinduan bere fede, ta lege Santara; utzirik beste ezin konta al fedearen argirik ez duen jendeen artean: artu zinduan bere adiskide, ta semetzat; ta ozta ezagueran sartu ziñan, ausi zenduan, eta ausiaz zoaz orduan artu zenduan lege Santa. Zer esango degu egin dituzun konfesio, ta komunio gaistoaz? Zer, ezpada Jaunak zure onerako prestatu dituan lagunza guziaz baliatu zerala beraren kontra altxatzeko, ta bekatua bekatuaren gain egiteko? Zer, ezpada Jaunaren lagunza guziak desegin dirala zure biotz eskergabearen kontra itsasoaren bagak bazterraren kontra desegin oi diran eran ? Ta, zu sendatzeko Jaunak ipiñi dituan gauzak, zere kalterako biurtzen badituzu. Zer perillean etzau-

de Kristaua? Baña ez gaitzen geyegi geratu emen. Goazen aurrera.

§ IV.

Baldin zure Jaun Jaungoikoak egin bazaitu, Kristaua, bera ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko, ta betiraunde, edo eternidade guzian doatsu berarekin Zeruan izateko: baldin emen bizi bear dezun denbora piska onetarako prestatu badizkitzu ainbeste laguntza, ta ondasun ta zure onerako artu baditu aiñ neurri andi, ta miragarriak; zer neurriak etzitan artuko zu iltzen zeraneko? Zer ondasunak, eta atsegin-kontentua etzitan zuretzat prestatuko? Deserri, ta negarren ibar onetan ainbeste ondasun zuretzat prest ipiñi duan zure Jaunak, zer egingo etzuan Zeruko zure erri doatsuan? Baña emen bizi geran artean ezin au ongi ezagutu dezakegu. Eraman zuan beiñ Jaunak S. Juan Ebanjelista Zerura, ta Santuak dionez utsak dira emengo urre zillarrak, emengo diamante, ta arri fiñak Zeruko erriaren edertasunaren pare ipintzen badira O! Israel, dio Baruk Profetak: zeñ andia dan Jaunaren etxea, ta beraren doatasunaren lekua! Andia da, ta ez

du bukaerarik; goya da ta ez du mugarik, edo bazterrik. Eraman zuan Jaun berak S. Paulo ere erri aren ekustera; ta andik etorri ondoan itzegiten du, arriturik zer esan ez dakian baten eran: Ez ditue, dio begiak ekusi; ez ditue belarriak aditu; ta ez dira gizonaren gogora ere, Jaunak bere maitatzalleentzat prestatu dituan ondasunak. *Oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit, quae praeparavit Deus iis, qui diligunt adventum ejus.* Ta sinistu diteke, Kristaua, ondasun onen miragarriak, ondasun betikoak, ta zuretzat Jaunak prestatu dituanak, doarik, edo atsegin zirzill lotsagarri bategatik ainbeste bider saldu dituzula? Begira ondo, Kristaua, begira arren nora zoazen. Zure Jaun Jaungoikoa amatzea, ta serbitzea da zure lan, eta egiteko guzia. Ezin asma diteke egiteko gozogarrik, eta onragarriagorik, ta au egitearekin zori onekoa zu betikotasun, edo eternidade guzian. Zu igoko zera zuretzat prestaturik, eta ederki apaindurik dagoan Erri eder orretara. Zuk iritsiko dezu Jaunak bere maitatzalleentzat gorderik daukan saria, ta zu biziko zera atsegin-kontentuen artean nekeren, pena, ta nagaberen beldur gabe. Zure Jaunaren jarleku, edo Tronutik irtengo da atsegin miragarrien ibai, edo itsaso bat, eta edango dezu edan al guzia, ta beti edango

dezu edatez beñere aspertu gabe. *Inebriabuntur ab ubertate domus tuae, et torrente voluptatis tuae potabis eos.* Baña baldin zure Jaun Jaungoikoa amatu, ta serbitu ordean Jaun beraren kontra bizi nai badezu. Baldin zure zori on, eta doatasuna billatzen badezu oraindaño bezala emengo onra, arrotasun, atsegin, eta ondasunetan, gertatuko zatzu Salomoni gertatu zitzayona, edo ezer ez, eta utsaren ondoren zere burua galtzea. Gertatuko zatzu ipuyetako zakurrari gertatua bera, edo okelaren gereiz utsari ortzak egozte. Gertatuko zatzu atzenean betiko su, eta garren osiñean zere burua ondatzea. Nai ta ez, Kristaua, edo betiko doatsu izango zera, edo betiko doakabe; eta bioetatik.bat autu dezakezu. Ta autu naiko ote dezu betiko doakabe izatea? Ez arren, Kristaua, egin onelako zentzugabekeriarik. Zentza zaite noiz ere bait, begira zertarako egin zaituan zure Jaun onak; ta biur zaite beragana. Ona denbora egokia guzirako. *Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis.*

Aditu dezu Kristaua, zertarako egin zaituan zure Jaun Jaungoikoak; edo egin zaituala, Jainko berak eman zegikezun fiñik goyen, eta miragarrienerako. Aditu dezu, zer laguntzak prestatu dituan Jaunak, zuk zure egitekoan jarduteko, ta zere fiña iristeko. Aditu

dezu atzenean, zer neurriak artu dituan Jaun berak zu iltzen zeraneko, nor bazera zu. Emendik atera bear dituzun frutuak asko, ta andiak dira; baña bearrenak, oraiñ aditzera emango dizkitzudan, oek. Lenengo frutua da: kontuz eta zere Jaun onagana biurtzeko asmoarekin etortzea egun oetan Jaungoikoaren itza aditzera. Jainkoaren itza aditu nai ez duanak berekin darabil etsayaren marka. Bigarren frutua, konfesio on bat egiteko, ta gaizki egiñak berritzeko prestatzea. Zerurako bidean jarri nai badezu, egin bear dezu zure animaren lurlean, nekazari batek, sasiz, larrez, arantzaz josia dagoan, lur bat soro biurtzeko egiten duena. Ez du etze dagoan lurlean azirik ereiten; kentzen ditu lenago sasiak, larrak; ondeatzen du, eta garbitzen sustrai gaistoetatik, ta gañera, karea, edo simaurra emanaz, ipintzen du azia ereiteko aro, ta sasoyean. Ta au bera da, Kristaua, zure animaren lur ori soro biurtzeko zuk egin bear dezuna. Etze daukazu lur ori ainbeste denbora onetan; bekatuen sasiak, ta arantzak estali due guzia oitura gaistoan, bekatuako bide, ta perillen, griña, ta jenio txarren erroak, eta zañak josia daukee; ta Zerurako labore gozoak or egin nai badituzu, lanberritu bear dezu kontuz, garbitzen dezula lar, eta arantza orietatik; ondeatu bear dezu esaminaren, eta

damuaren atxurrarekin; erre, edo ebaki bear dituzu bekatuaren sustrai, eta bideak; eta au egin artean beti etze geratuko da zure anima; beti izango dira zure konfesioak iduripen, eta zarata utsak. *Novate vobis novale, nolite serere super spinas.* Ez da asko au ere Kristaua, zure animaren soroak frutu, ta labore onak emateko. Etze egon dan lurrari frutu onak eman-erazteko, larrak, arantzak, eta sustrai gaistoak erretzeaz gaiñera egin bear zaizka beste gauz asko; inguratu bear da esiz, paretez, edo lubakiz; erein bear da azi ona, ta bere denboretan eman bear zaizka bere jorrak, eta beste maneaturak. Era berean egin bear dezu, Kristaua, zure animaren lur orrekin. Bekatuaren loyak, bideak, sustrayak kentzeaz gañera inguratu bear dezu Jainkoaren beldur Santuaren, lagun onen, eta ongi bizitzeko asmo sendoen esiz, edo paretez; erein bear dezu gero obra onen azia, kontuz eranzuten diezula zere bizimoduari dagozkan gauzak, eta leyalki gordetzen dituzula Jaunaren, eta Eliz Ama Santaren Mandamentuak. Itz batean ezin zure animaren soro orrek frutu onik eman dezake ezpadezu zuk biotzik bizitz on batean neurri sendoak artzeko: eta ezin artean kontesio onik ere egin dezakezu. Ta au da Kristaurik geyen geyenakin igarotzen dana. Garizuman,

Misioetan, eta beste denboretan aditzen ditue gure fedeko egia izugarriak ekusten ditue bere biotzak guztiz loituak, eta bekatu mota geien zapoz, sugez, piztiz beteak; izutzen dira, ta bear bada negar andiak in aitortzen ditue beren gaistakeriak, eta alaere ez dira garbitzen, eta bekatutik irteten. Zergatik, uste dezue? Zeren ongi miratzen bada oen barrenak, ez duen biotzik osotoro, ta betiko utziko, bekatura amilderazten dituen, bideak, itzegiteak begiratzeak, keñadak, batzarre, edo billera gaistoak, adiskidetasunak; festak, dantzak, ta beste onelako ibillerak. Zeren biotzik ez duen osotoro, ta betiko ukatzeko bekatuaren berrizkaturaren azpian darabiltzan griña, oitura, ta jenio txarra. Argatik egun oro ekusten da, irauten duela oitura, ta jenio gaistoak obiraño. Zeren atzeanean biotzik ez duen bizitza onaren neurri egokiak, indartsuak, eragilleak artzeko. Jan-edanera geyegi itsutu dan bat artzen duanean gotaren kolpe gogor batek; deituko dio sendatzalleari, artuko ditu sendagayak, utziko ditu janean geyegiak; baña esaten bazyo osotoro, ta betiko utzi bear dituala, illuntzen da, ta ez du biotzik onenbeste bere buruari ukatzeko. Ta ona, Kristaua, zuri oraindaño gertatua. Eztago Jaungoikoagana egiaz biurtzerik; eztago bekatutik irtete-

rik, ezpadagu biotzik betiko utzitzeko bekatua, ta bekatuaren bideak; eta artzeko bizitza onean irauteko bear diran neurriak. Jaunari nai dakiola zuen, eta nere biotzak bere grazia indartsuarekin ukuitzea, egiaz beragana biurtzeko. Jaunari nai dakiola bera amatzen, eta serbitzen degula guk gure egunak bukatzea. Era onetan doatsuak izango gera beti beti iraungo duan, Zeruko glorian. *Ad quam &*.

OGEI TA SEIGARREN ERAKUSALDIA

Baña gure fin goi-miragarriaren gañean bigarrena.

*Desolatione desolata est terra,
et nullus est qui recogitet corde. Jer. 12.*

Galtzez galdua dago mundua, eta ezta arkitzen beregana biurtu nai duanik, deadar egiten du Jeremias Profetak. Ona bekatuaren ondoren izugarria. Aurrenean beldurtzen da ezaguera ona duan edozeñ anima bekatuaren izen, eta gogorazio utsarekin; lotsatzen da beregan, utsegiteren bat gertatzen bazayo; baña bekatutik bekatuta dabilhela, ederetsitzen dio bekatuari; itsutzen, ta gogortzen da bere gaistakerian; eta geroztik ez oi dioe mallarik egin ez Zeruaren galtzeak, ez betiko su, eta garren artera joan bearrak, ez eta asma al ditezkean neurririk sendoenak ere. Ala gertatu zan Noeren denboran munduan bizi ziranakin. Aztu ziran beren egille onaz; oitu ziran bekatuaren atsegin loyetara, ta egin ziran zentzugabeko abereak baño abereago, ta zikiñago. Ainbesteraño galduak, ustelduak, ta zikinduak zeuden, non beartu zuen Jauna,

mundu guzia, Noe, ta bere etxeakoak ez besteak ujolaz itorik uztera. Ala gertatu zan Sodomako bekatari zikiñakin. Ala gertatu zan Juduakin, eta ala gertatzen da egungo egunean ere edozeñ munduaren bazterretan. Badakus gorrotoan bizi danae, birauak, eta juramentuak nolainai egiteko oitura duanak, zer bide daraman. Badakus guraso zabar bere ume, ta mirabeai kontu artzen ez dienak, nora dijoan bizimodu onekin. Badakus edanerako oituran itsutua dagoanak, badakus kutizian bere biotza ipiñi duanak. Badakus onra, ta arrotasunen ondoren bere anima galtzen duanak. Badakus aragiaren atsegin lizunetan dabillenak, betiko su, eta garren artean amiltzera dijoala. Ta alaere gutxi dira berengana biurtu, ta betiko galtzeko perilletik irten nai duenak benaz. Llilluratzen, ta sortuak uzten ditu bekatuaren izurriak. Alaere sendatu ditezke bekatari oek denbora egokian eskatzen badira, ta Jau-naren laguntza, ta graziarekin alegiña egiten badue. Onetarako bada, nere Kristauak, eta denbora berean presta ditezten guziak, gure bekatuak kentzen dituen, Bildots Jesus maitagarria Pazkoetan artzeko, ipiñi du Eliz Ama Santak garizuma; ta sarritan aditzera ematen dizkigu, bekataririk sorrena ere esnaerazteko gai diran egiak. Egia oetatik asko begien aurrean ipiñi diz-

kitzuet lenagotik; eta sail berari ekitera noa gaurdanik, Birjiña txit Santa gugatik damuz, eta penaz betea bitarteko dedala. Gaur itz egingo det gure Fiñ goimira-garriaren gañean. Atoz Espiritu Santua; atoz beartsuen gurasoa; atoz doayen emallea: argi itzatzu gure adimentuak, ezagutzeko guk gure utsegiteak; ukuitu itzatzu gure biotzak, damuz, eta negarrez bekatuaren loyetatik garbi ditezen. Ta zu, Birjiña txit Santa dolorez betea, bekatari ondu nai duen guzien Ama gozoa, izan zaite arren gure bitarteko, ta laguntzalle, orain zure onran asitzen degun, lan onetan. Ez arren begiratu gure oraindañoko eskergabekeriai: baizik gure onerako igaro zinduan pena, naigabe, ta samintasunai. Au eskatzen dizugu gaur bekatuitik irteteko nayez, eta asmoz beterik, Aingeruarekin batean diogula:

ABE MARIA

*Desolatione desolata est terra,
et nullus est qui recogitet corde. Jer. 12.*

Egin zinduanean, Kristaua, zure Jaun Jaungoikoak, fiñen baterako egin zinduan. Ezin alabaña egin deza-ke Jaunak ezer ere ustekabean, alferrik, edo gauza

bakoitza zuzentzen ez duela ongien deritzan mugara. Zertarako egin zinduela, uste dezu, Kristaua? Egin ote zinduan negarrezko ibar onetan beti arrastaka, ta neketan bizitzeko? Egin ote zinduan emengo onra, arrotasun, eta txorakeriai jarraitzeko? Egin ote zinduan emengo izan, eta ondasunen billa aunaturik, eta erkiturik ibiltzeko? Egin ote zinduan, zentzugabeko abereen eran, gorputzaren atsegin zikiñen ondoren eiaka, ta irrinziaz joateko? Egin ote zinduan, zure gorputz ori ezin apaindurik, zere urterik onenak galtzeko? Edozeñ moda, ta jantzi lotsagarri artzeko? Egin ote zinduan Jaunak beraren orde zure gura, ta griña txarrak serbitzeko, ta adoratzeko? Ez, Kristaua, ez. Etzinduan gauz onen zirzill, edo ezer-ezen ondoren nekatzeko egin, baizik bera amatzeko, ta serbitzeko, ta betiraunde, edo eternidade guzian doatsu berarekin batean Zeruan izateko. Au da zure fin guztiz goi-miragarria. Au zure zure mira, nai, ta gogo guzientzat Jaunak ipiñi duan muga. Au zure lan, ta egiteko andia. Beste gauzetan desberdiñak dira gure mallak; batzuek jayotzen dira agintzeko, besteak oen aginduak egiteko; batzuek leku altxatuetan egoteko, besteak lurraren aldean arrastaka ibiltzeko; batzuek izango dira aberatsak, besteak beartsuak; batzuek jakin-

tsuak, besteak ez jakiñak, baña guziak dira, ta guziak daude munduko etxe andi onetan Jaungoikoa ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko; ta betikotasun guzian doatsu berarekin batean Zeruan izateko. Guziak gera berdin Jaunak guretzat autu zuan fiñ eta muga onetan: guziok degu lan, eta egiteko bat, au da gure betiko zori on, eta bizitza doatsua billatzea, ezagutzen, amaten, eta serbitzen degula gure Jaun Jaungoikoa. Au da, Kristaua, gure siniste onaren zimendua dan egia, baña denbora berean zuk oraindanoan ezertan artu ez dezun egia. Au gerta eztakizun emendik aurrera, biur zaite zeregana, ta begira ezazu lenengo lekuan: zeñ andia dan betiko doatasuna billatzeko lan, eta egiteko au.

§ I.

Munduko etxe andi onetan gizonen eskutartean dabilzan, gauzai begiratzen badiezu, Kristaua, ekusiko dituzu, nortaki zenbat lan, eta egiteko andien izena duenak. Zoaz Erregeen Jauregietara, eta ekusiko dituzu ango serbitzariak jan edanaz, ta loaz azturik zer asmatu eztakiela Erregeren, eta Erregiñaren gogora

gauzak egiteko; ta au guzia emengo onra, edo ondasun zirzillen uste apur bategatik. Zoaz Erregeren urrengo gizon andietara, ekusiko dituzu ezertarako pakerik, eta sosegurik gabe nekez, arazoz, eta kezka beteak, batzuek gerrako gauzetan, besteak Erreñuko ondasun, gobernu, eta oek berekin dakazten lanetan. Zoaz beste errietara, ta ekusiko dituzu ezin konta al arazo, eta egiteko andien artean makurtuak, eta doi doya beren buruaz oroitzeko diña leku duela. Ala itze gin oi due berak. Baña zer dira, Kristaua, egiteko oek guziak zure betiko doatasunaren egiteko andiaren pare ipintzen badituzu? Zer, ezpada utsaren utsa, edo ezer eza, Salomonek zion eran? *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas?* Zer, ezpada aurren jolasak, S. Agustinek dionez? *Majorum nugae negotia vocantur?* Munduko egiteko guziak, izan ditezela andiak, edo txikiak, eta irten ditezela nola nai, laster aituko diranak dira; baña zure animaren egitekoa? Zure animaren doatasuna? Au da betikotasun, edo eternidade guzirako egitekoa. Ezpadezu oraindik ongi ezagutzen egiteko onen anditasuna, Kristaua: galde giezu Apostolu Santuai, eta Martiriai, zergatik igaro nai izan zituen, igaro zituen, nekeak, eta oñaze izugarriak? Batzuek gurutzean josirik, besteak ezpatari lepoak emanik; batzuek

parrilletan erretzen zituela; besteak labe gorietan sarturik. Batzuek leoi, eta artzen atzaparretan puskatuak geratzen zirala, besteak azotez, eta burniazko kakoa-kin urratzen zituela. Galde giezu Elizako konfessore Santuai, zergatik artu nai izan zituen ainbeste neke, eta gurutze? Batzuek gau, ta egun nekean, orazioan, barau, azote, ta ildura izugarrietan; besteak, eremuetan ezkutaturik, mendiko belar utsakin igarotzen zirala? Galde, mundua utzirik, paret artean ezkutatu, edo gorde diran ainbeste donzellari. Zenbat, eta zenbat oen artean era andiakin aziak? Zenbat, munduan onrak, ondasunak, ezkontzak izan zitzakeenak? Zenbat, Errege, gizon andi, edo etxe txit prestuetatik beren jatorria zekartenak? Galde giezu bada, zergatik utzi dituen beren etxeak, aldeak, adiskideak, ondasunak, ezkontzak, itz batean, munduan geyena nai izan oi diran gauza guziak? Eta guziak erantzungo dizue S. Eukeriok ziona: gure egiteko guzia, gure neke, eta alegiñak dira animaren doatasuna, eta betiko bizitza billatzea. *Negotium, pro quo contendimus, vita aeterna est.*

Ez dezu, oraindik ere ezagutzen, zeñ andia dan zure animaren egitekoa? Oroi zaite bada, zer egin duan zure Jaun Jaungoikoak, zuk zure betiko zori on,

eta doatasuna iritxi dezazun. Zertarako egin zituan munduko etxe eder au, ta emengo gauza guziak? Zertarako urrea, zillarra, perlak, diamanteak, arri fiñak? Zertarako ardiak, beyak, egaztiak? Zertarako iturriak, ibayak, itsasoak, arrayak? Zertarako belarrak, loreak, arbolak, eta ainbeste fruta gozo? Zertarako Zeru eder oriek, eguzkia, illargia, eta izarrak? Egin zituan guziak zuri zere animaren egitekoan laguntzeko; ta ala laguntzen dieza Jaunaren maitatzalleai, dio S. Paulok. *Omnia cooperantur in bonum.* Zertarako Aita eternoak bidaldu zuan bere Seme bakarra mundura? Zertarako, betiko doatasuna iristeko bidean zu ipintzera baizik? Ainbesteraño maite izan gaitu, non eman izan digun bere Seme bakarra, dio S. Juanek. *Sic Deus dilexit Mundum, ut filium suum unigenitum daret Mundo.* Zertarako gizon egin zan Jaungoikoaren Seme-Trinidadeko bigarren Persona; ta gizon egiñik gurutzean eman zuan bere bizona? Zertarako Espiritu Santua jatxi zan bere doayakin Eliz Ama Santagana? Zertarako eman dio Jaunak gizonari laguntzat bere Aingeruetatik bat? Zertarako ipiñi ditu bere legeko Ministroak, Sakramentuak, zeremoniak? Zertarako ipiñi du gure bitarteko, eta Amatzat Birjiña txit Santa Jaungoiko beraren Ama? Zertarako atzenean geratu nai izan du

Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriak Aldareko Sakramentuan? Ta geratu ekusten dituala ainbeste txarke-ria, ta bide gabe? Ay! Kristaua! zure sinistek erakus-ten dizuna ukatu nai ezpadezu, aitortuko dezu zure Jaun Jaungoikoak egin dituala gauza miragarri oek guziak, zuk zure doatasuna iritxi dezazun! Ta nai ta ez ezagutuko dezu zure animaren egitekoa dala ez nola nai andia, baizik Jaungoiko beraren obrarik miragarrie-nen-artean ere miragarria.

Au onela da, Kristaua, ta alaere bizitu zera orain-dañoan, zertarako munduan zauden, begiratu ere gabe? Au onela da; ta alaere dituzun urte guzien artean ez dezu bat arkituko, Jauna serbitzen, eta ani-maren egitekoan igaroa! eta zer diot nik urte bat? Arkituko ote zenduke egun bat bakarra ere osotoro zure egite andi onetan igaroa? Zein gauza lotsagarria! Zentzurik ez duen gauza guziak gau, ta egun ari dira beren egille onak eman zien egitekoan. Ez dira beñe-re aspertzen eren jarduera onetan; ta zu, Kristaua, arturik Jaunagandik dezun adimentua, ta borondatea beste ezin konta al ontarterekin batean, aztu zera guziaz! eta egin dezu zere burua zentzurik ez duen gauzak baño ezer-ezago! Zentza bazendi orain bede-rik! Onetarako begiraezazu bigarren lekuan. Zenbat

dijoakizun, edo zer galduko dezun, zure animaren egi-
teko onetan gaizki irteten bazera.

§ II.

Zer galduko dezula, uste dezu, Kristaua, era orre-
tan bizi zerala? Galduko dezu benik bein zure anima
bakarra, ta galduko dezu betiraunde, edo eternidade
guzirako. Eman zizun Jaunak anima, edo espiritu bat
bere antzera egiña, ta beti beti iraungo duana zure
obrai dagoten lekuan. Eman zizun Jaun bera ezagutze-
ko, amatzeko, serbitzeko, ta gero betikotasun guzian
doatsu izateko, Zeruan. Zer balio eztu anima orrek,
egin bazuan Jaunak Zeruko bere Jauregi ederrean
berekin idukitzeko? Egin bazan gizon, eta gurutzean
bizitza eman bazuan anima ori galdu etzedin! Ta
anima ain balio andikoa galduko dezu, Kristaua, ezpa-
dezu osotoro utzi nai bekatua! Ta non arkituko dezu
anima orren ordaiñ ipiñi ditekean gauza, esaten dizu
Jesu-Kristok? *Quam dabit homo commutationem pro
anima sua?* Bazalbiltzateke munduaren ondoren. Txit
zekoitza, zekena, gogorra, ta eskergabea da bere ser-
bitzariakin; baña demagun zurekin izan nai duala bes-

teakin ez bezala, ta issuri nai dituala zure alde bere ondasun guziak. Iristen dituzu gogora al ditezkean onra guziak, leku andiak goimallako ezkontzak, aidentasun, eta bernajerik bieañenak. Iristen dituzu, urean, lurraren azpian, eta gañean arkitzen diran, gauz, edo ondasun guziak, urrea, zillarra, perlak, diamanteak, zelayak, basoak, berazeak, ganaduak; eta besteak ezer izateko, lenago etorri beardue zugana baimenaren eske. Iristen dituzu atzenean zure begiak, belarriak, eskuak, gorputzak eskatzen dizkitzuen atsegin-kontentu guziak. Au guzia iritxita ere zer protxu izango dezu; galtzen badezu betiko zure anima bakarra, esaten dizu Jesu-Kristok? *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur?* Au ongi ekusi zuan beregan Salomonek. Ezta izan «munduan Errege onen pare ipiñi ditekeanik jakiundean, ondasunetan, onran, eta izen andian. Asizan eguzkiaren azpian gertatzen diran gauza guzien ezaguera iristen; ta neke onen ondoren dio: *guzia da utsa, ta ezer-eza. Ecce universa vanitas.* Asizan jauregi ederrak, berjerak, loreak, arbolak ipintzen; ta oek ere utsa zirala. Asizan ondasunak biltzen, eta beste Erregek ez adiña bildu zituan, Asko da esatea aren denboran zillarrari ezer balio etzuan gauzari bezala

begiratzan zitzayola. Baña etzuan ondasunetan ere kezka, ta nekea besterik arkitu. *Vidi in omnibus vanitatem, et affetionem animi.* Asi zan musika, ta kanta-riak bere Jauregian ugari ipintzen, eta oro bat gertatu zitzayon. Ekin zion atzenezan gorputzaren beste atsegin ez garbiak billatzeari. Ez nien, dio berak, ez nien begiai ukatu gura izan zituen gauzetatik batere; eta ez nion eragotzi nere biotzari prestatu niozkan gauzetan nai zituari atsegin guziak artzea. Nork izango ditu, dio, nik adiña atsegin-kontentu? *Quis... deliciis affluet, ut ego?* Inguruko Errege, ta Prinzipeen alabak bereganatu zituari, idoloen serbitzariak baziran ere: ta nornai arriturik utziko duan gauza da Eskritura Santak diona, edo zazpi eun emazte izan zitala Salomonek Erregiñen mallakoak: eta irureun beagokoak». Ta zer protxu atera zuan Errege onek munduko onra, ondasun, eta atsegin mota guziakin, galdu bazuan bere anima? Illundu zuan eta beztu betiko bere izen andia, ta utzi zuan betiko galdu zalako beldur andi bat, eta berak aitortu zuan: utsaren utsa, ta ezer-eza zirala munduko gauza guziak. *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas.* Etzitzayon gutxiago gertatu Ebanjelio-ko aberats kutiziatsuari. Izan zuan kutiziatsu onek abuztu guztiz ugari bat, ta Jainkoari eskerrak eman

ordean, eta beartsuai laguntzeko kontuak atera lekuan, kezka andiakin asi zan pensatzen, zer egingo ote zuan ainbeste fruturekin, zeren nora bildu etzuan. Esan zuan orduan: *desegingo ditut nere aletegiak, eta egingo ditut beste andiago batzuek*: ara bilduko ditut nere ondasunak; eta esango diot nere animari: *Ea nere anima orra non dauzkatzun prest urte askorako ondasunak. Etzaitzela nekatu; jan ezazu, edan ezazu, erregala zaite. Requiesce, comede, bibe, epulare*. Zer protxu atera zuan kutiziatsu onek bere ondasun guzietatik? Ay! kontu oek ateratzen zegoela, aditu zuan Jainkoaren ots ikaragarri bat esaten ziona: *Zentzugabea!* Gau onetan bertan zure gorputz orretatik irten bearra da zure anima: norentzat geratuko dira bildu dituzun ondasunak? Iltzan, eta ondatu zan betiko su, eta garren artean. Alferrik beraz, Kristaua; alferrik zabilta munduari jarraitzen; alferrik nekazten zera emengo onra, ondasun, eta atsegin loyen billa. Ez dezu zure neke guziakin zure anima bakarria betiko galtzea beste protxurik aterako.

Zer geyago galduko ote dezu, Kristaua, zabiltzan eran bazabilta? galduko dezu zure Jaun Jaungoikoa, ta galduko dituzu Jaun berak zuretzat prestatu dituan betiko ondasunak, eta atsegin-kontentuak. Ta zer egin

al dezakezu, zure Jaun onak utzi ezkeru betiko? Ay!
bekataria! Ezta geroztik zure gañean eroriko Jaunaren
graziaren inz, eta euri gozorik; baizik betiko suak, eta
garrak. Ezta geroztik zure biotzean izango Zerua-
ren, eta ango ondasunen usterik; baizik illuntasun, eta tris-
tura, edo gogaizio bat beti beti ozka, ta aginka ariko
zatzuna. Au izango da ar bat beiñere ilko, edo bukatu-
ko ez dana. Enzun-ezazu, Kristaua, zer dion Jesu-Kris-
tok gizon aberats jan-edanean, eta oek dakazten
bekatuetan bizi zan batez. Janzitzen zan gizon au gra-
naz, eta tela eder preziotsuakin; eta egunoro jaten
zuan mai ugari, edo naroro ornituan. Denbora berean
bizi zan gizon gaixo beartu bat Lazaro zeritzana. Au
egon oi zan gizon aberatsaren arteetan illaren, bizia-
ren baño antz geyago zuala: goseak igaroa, zauriz
betea, ta aberatsaren mayetik erortzen ziran apurra-
kin bederik gosea iltzeko ongi zaletua. Baña etzion
gaixoari iñork ezer ematen. An zetzan iltzeko zorian,
zakurrak etorrita bere zauriak miazkatzen ziozkeela.
Ala ere bere neke guzien artean etzuan birau, ta
madarikaziorik botatzen, baizik eskeintzen zion Jauna-
ri bere biotza, bizitza, ta bera zan guzia. Il zan Lazaro
beartsua: eta eraman zuen Aingeruak Abrahamen lin-
bora, edo Jesu-Kristok Zeruko atea idiki zituan arteak

anima onak joan oi ziran lekura. Il zan aberatsa ere, eta jatxi zan betiko su, eta garren artera. Bere neke, eta oñazeen artean ekusi zuan, Jaunak ala nai izanik, urruti batean Abraham bere atsedean lekuan; eta Abrahamekin batean Lazaro eskalea ere bai. Asi zitzayon otska Abrahami, *Aita Abraham, urrikitu zaite arren nizaz. Misserere mei.* Bidal-ezazu Lazaro, beatz baten punta urtan bustita nere mingaña ezatu dezan: erretzen nago alabaña su, eta gar oen artean. *Crucior in hac flamma.* Aditurik urrutira adia oek, erantzun zion aberats doakabeari: *Ene seme, oroi zaite, bizitzan artu zinduala ondasun, eta atsegin-kontentuak; eta Lazaro nekeak: baña orain au pozez beterik dago, ta zu neke oñazez lertzen. Gañera zurekin gure artean arkitzen da lize ikaragarri bat Jainko beraren agintez egiña, eta onek eragozten du ortik onera, ta emendik orrera igarotzea.* *Aita Abraham,* esan zion berriz aberats doakabeak: erregutzen dizut, bidal-dezazula Lazaro nere Aitaren etxera, (baditut alabaña bost anai) aditzera eman degiezen nere nekeak, nere pena, ta oñazeak, eta amildu ez ditezen aek ere zori gaiztoko leku onetara. Erantzun zion Abrahamek: *Badi-lue Moyses, eta Profetak; aditu bitzee oek. Ez Aita Abraham,* ez due Moysesen, eta Profeten esan-etara

begiratuko; baña ildakoren bat agerturik emen gertatzen danaren berriak ematen badiezte, biurtuko dira Jaunagana, ta utziko due beren bizitza gaistoa. Eranzun zion berriz Abrahamek: Moysesen, edo Profeten esanak aditzen ezpaditue; ez lukee sinistuko or agertzen dana, ildakoren bat piztuko balitz ere. Au da Jesu-Kristok aberats doakabe onen, eta Lazaro eskalearen gañean diona.

Ekusten dezu, Kristaua? Ekusten dezu, zer dijoakizun, edo zer galduko dezun, animaren egitekoan gaizki irteten bazera? Esangidazu orain zuk, biraugillea; zuk guraso zabar zere ume, ta mirabeai bekaturako bidea erakusten diezuna; zuk, gizon edanean zere etxea galtzen dezuna; mutil arro nondik zure, ta beste askoren animak galduko dituzun zabiltzana; neskatz ergel zere arinkeria, ta ibillera lotsagarriakin animen sare, edo lazo biurtu zerana; zuk saldu-erosi zikiñak, litxarreriak egiten dituzuna; lagun urkoaren onra, fama, izen ona utsikitzen ozka, ta aginka beti ari zerrana, esangidazu arren, nola begiratzen ez dezu, zer galtzera zoazen? Eta galtzera betiko? Non da zure sinistea? Norako asmoan zabilta, zere animaren galgarria? Ez ote diozu noiz ere bait zure animaren egiteko oni benaz ekin bear? Begira, Kristaua! etzaitezela

denbora egokian zabartu. Ta zure zabarkeriaren mendean elbarrituaren eran egon etzaitezen, begira ezazu irugarren lekuan. Zein perill andian arkitzen dan zure animaren egitekoa, eta betiko doatasuna.

* * *

Zure Jaun Jaungoikoak egin zinduan doatsu izateko betikotasun, edo eternidade guzian; baña doatsu izateko ez doarik, ez bortxaz, eta zure borondatearen kontra; baizik zerorrek nai dezula benaz, eta artarako egin bear dana kontuz egiten dezula. Zure doatasunak beraz ez du beiñere utsegingo Jaunari dagokan aldetik. Baña zure aldetik? Ay! Kristaua! Ongi begiratzten bazenio gauz oni, arrituko ziñake, beti betiko galtezko zorian arkitzen zerala, ekustean! Atoz ezperen nerekin, eta agertuko dizut, zein egia garbia dan orain diodana.

Edozeñek dakus, edo beintzat ekusi dezake, alde guzietatik perillez inguratuak arkitzen gerala guziok. Perillak eta lazoak zabaldurik daude leku guzietan guri betiko doatasuna gal-erazteko. Perillak errietan; perillak bakardadean; perillak itsasoan, perillak lurrian; perillak Demonioaren, eta munduaren aldetik; perillak

gerengan; perillak aurtasunean; perrillak gazte denboran, eta perillak zartzean. Argatik ongi bizi danak ere ez du zer zabartu bere bidean; baizik ernai; ta kontuz jarraitu bear dio bere nekeari, gerta ez dakion beste askori gertatu zayona, edo betiko galtzea. Jaunaren beldur santuaz beterik ari zaitezte zuen animen egitekoan, esaten digu S. Paulo Apostolua. *Cum melu et tremore vestram salutem operamini*. Baldin Aingerua Zeruan; baldin Judas Jesu-Kristoren aldean galdu bazan: baldin S. Paulo Apostolua, eta Santu guziak galtze unen beldur andi batekin bizitu baziran, nor ezta izutuko? Ta nork eztu ezagutuko betiko galtzeko perill au?

Ta guziak onenbat perillean badaude, zer esango degu zuzaz, ainbeste denbora onetan bekatuaren berrizkaturetan, eta gaistakeriaren bideetan bizi zeran Kristaua? Zer, ezpada arkitzen zerala beti betiko galtzeko zorian, eta infernuaren erzean? Ez dezu zuk alabaña biotzik, zure salbatzalleak agintzen dizuna osotoro egiteko; ez dezu biotzik Salbatzalle bera amatzeko, ta serbitzeko bear diran neurriak artzeko. Ez, Kristaua; ez dezu biotzik, benik bein zure Jaunaren lege Santa osotoro gordetzeko, bayetz, konfesioko Sakramentura zatozenean, esaten badezu ere. Esan

dezakezu zuk, guraso dongea, zere zabarkeria, zere berandu etxeratze, zere oitura txarrakin ume eta mirabeai infernurako bidea erakusten diezuna, egin nai det Jainkoaren lege Santak agintzen dizuna; baña ongi miratzen badezu zere barrena, igerriko dezu ez dezula biotzik mirabeai ukatu bear zaizten ibillerak, itzegiteak, eta sartu irtenak ukatzeko, edo gal-erazteko, ejemplo ona emateko; goiz etxeratzeko, edanerako oitura utzitzeko. Esan dezakezu zuk, gazte arro zentzugabea, ez dezula nai geyago bekaturik egin, ta biurtu nai dezula zere Jaungoikoagana; baña itzegin beza ez mingañoak baizik barrenak; eta onek esaten dizu, ez dezula biotzik osotoro eta betiko utzitzeko adiskidetasun, jolas, ibillera, ta beste zure anima galtzeko izan diran lazoak. Esan dezakezu zuk, zere ipui, ta naspillakin etxeetako pakea galerazten dezuna, zuk, zere mingaiñ madarikatu orrekin lagun urkoaren izen, eta fama beztutzeko oitura dezuna, zuk, litxarre-rian, tratu zikiñetan lagun urkoaren odola edaten dezuna: esan dezakezu, diot, gorde nai dezula zure Jaun Jaungoikoaren lege Santa; engañatu dezakezu zere burua, ta konfesoarea, baña zuk oraindañoakoan ez dezu biotzik izan bekatu-mota oek osotoro, ta betiko utzitzeko.

Ez dezu gañera biotzik zure Salbatzalea amatzeko, ta serbitzeko bear diran neurriak artzeko. Zer neurri ote dira oek? Neurri oek dira etsai galgarriaren, eta mundu galduaren usadio oker ta iritzi gaistoak betiko utzitzea, ta zere gure, griña, naikunde, ta jenio txarrak ukatzea, ezitzea, ilduratzea, edo mortifikatzea; ta zuk, Kristaua, ez dezu oraindano neurri oek artzeko asmo oso, edo biotzik izan. Atozea, ezperen, Zenbat bider utzitzen diezu zure ume, ta mirabeai festara, dantza zikiñetara, lagun zentzugabeen artera, ezagutzen dezula zeregan, gauz oriek ez oi dakardela animen kaltea besterik? Atozea, zenbat bider joaten zera neskatxa-mutillen batzarre, naspilla, ta zalagarda zikiñak izan oi diran lekuetara, dakizula, ez dezula zere anima loitu gabe andik aterako? Atozea, zenbat bider zure auzoari gaitz opa izan diozu, edo aren gaitzaz poztu zera, edo onaz naigabetu, zeren arekin aspalditxo otx bizi zeran? Atozea, zenbat bider zure onran, edo zure giar-giarrean ukuitu zaituela iduritzean, asi zera zora-tuaren eran edozeñ gauza esaten, diranak, eta ez diranak barreatzen; eta prest egon zera alde orretatik ukuitzen zaituanari ez barkatzeko? Atozea, zenbat bider laudatzen dituzu zerbaiten ustea danean, urlia- ren okerrak, arrotasunak, bengantzak? Zenbat bider

batzarre orietan itzegin bear zendukean gauzetan isillik egon zera urliaren, edo sandiaren beldurrez? edo bear dan eran karguetarako botoa eman dezu, *auzotasuna*, edo *odola ezin* ukatuko dezula esanaz? Ekusten dezu, nola oraindaño biotzik izan ez dezun mundu galduaren usadio, uste, ta iritzi gaistoak betiko utzitzeko? munduaren usadio gaistoak amilderazten ditue bein baño geyagotan anima on-sendoetatik ere ez gutxi; baño biotzik ez duanak ez du amildu bearrik; beti dago amildua. Amatzen badu batek mundua, ezta argan Jaunaren amorio, adiskidetasun, eta graziarik, dio S. Juanek. *Si quis diligit Mundum, non est charitas Patris in eo.* Au bera gertatzen da bere gura, griña, naikunde, ta jenio txarrak ukatzeko, ezitzeko, ta ilduratzeko biotzik ez duanarekin. Jesu-Kristorenak diranak ilduratu, ta gurutzefikatu due jorputza bere gura, ta naikunde txarrakin, dio S. Paulok. *Qui sunt Chti. carnem suam crucifixerunt cum vitiis, et concupiscentiis.* Niri jarraitu nai didanak uka beza bere burua, edo bere griña, ta naikundeak, dio Jesu-Kristok berak. *Abneget semet ipsum.* Baña zuk, Kristaua, ez dezu biotzik Jesu-Kristoren agindu au egiteko. Onran, eta puntuan biotza ipiñi duanak nekez txit ukatuko du griña au, ta orobat gertatzen da kutizian, astseg

loyetan, ezkontzeko gogoan biotza itsatsia daukana-
rekin. Ekusten dezu, Kristaua, zein perill andian arki-
tzen dan zure animaren egitekoa, eta betiko doatasu-
na? Ekusten dezu, nola arkitzen zeran beti-betiko gal-
tzeko zorian? Au onela da: ta zuk alaere ez dezu zen-
tzatu nai? Au onela da; ta alaere ez dezu begiratu ere
nai, zer galtzen dezun, eta nora amiltzera zoazen?
Galtzez galdua dago mundua, ta ezta arkitzen bere
kalteari begiratu nai dionik, dio Jeremiasek. *Desolatio-
ne desolata est terra, et nullus est qui recogitet corde.*
Edo betiko doatsu, edo betiko doakabe izan bearra
zera, Kristaua! Eztago muga onen artean bestetarako
lekurik, eta biderik; ta zure bizitza guztiz makurtua
dago, eta amatzeko zorian betiko su, eta garren arte-
ra. Esna zaite, Kristaua; begira arren nora zoazen:
gera zaite, ta ar ezazu zure betiko doatasuna iristeko
bidea. Baña ez gaitezen geyegi luzatu.

Aditu dezu, Kristaua, zure Jaun Jaungoikoak egin
zinduala bera amatzeko, eta serbitzeko: ta betiraun-
de, edo eternidade guzian doatsu berarekin batean
Zeruan izateko; ta zein andia dan zure lan, eta egite-
ko au. Aditu dezu, zenbat dijoakizun, edo zer galduko
dezun, egiteko onetan gaizki irteten bazera. Aditu
dezu atzenean, zein perill andian arkitzen dan zure

egiteko au, eta betiko doatasuna. Emendik atera bear dezun frutua da lenbizia: zure animaren zori on, eta doatasuna iristeko nai andi, eta egarri erazeki bat. Santo Tomasi galdetu omen zion bere arreba batek: *Nola iritxi zezakean salbatzea?* Eta Santuak erantzun zion: *Nai dezula*. Nai oso au iritsi artean beti ibilliko gera iduripen utsetan, beiñere Zerurako bidean ongi jartzen ez gerala. Gertatzen da nai erdi, edo laurdenekin alferraren nai, edo deseokin gertatzen dana. Nai luke alferrak etxean artoa, ta garia, urtea ongi igarotzeko-diña bederik; nai lituke ardiak, beyak, idiak, zeziña, urdaya; ta baditu bear bada gauz oek guziak eskatzen dituen lurrak, belarrak, eta ostoak; ta alaere alferra deseo aen guzien artean goseak bukatzen dago; zeren deseo antzuak, eta dagokan eran sayatzerak, eta nekatzerak mugitzen ez duenak diran. Nai du, eta ez du alferrak, dio Jakintsuak Eskritura Santan. *Vult, et non vult piger*. Egiatzko nai oso au iristen badezu, Kristaua, ta leyalki berari jarraitzen badiozu, zuk ederki egingo dezu zure animaren egitekoa, ta artuko dituzu betiko doatasuna ez galtzeko neurriak. Zori onekoak zuzentasun, eta bizitza onaren gose-egarri diranak, zeren oek aseak izango diran, dio Jesu-Kristok. *Beati, qui esuriunt, et sitiunt justitiam, quoniam*

ipsi saturabuntur. Baña emen gogoan ar ezazu, Kristaua, nai oso au dala Jaunaren ontarte, ta mesede andi bat; ta beragatik umilki eskatu bear diozu Jaun berari, eta ez dizu ukatuko bear dan eran eskatzen badiozu. Baldin zure biotzaren ateetan biotza ukuituaz ari bazatzu, berak dion bezala: *Ecce sto ad ostium, et pulso:* baldin eska dezazula, ta emango zatzula, esaten badizu; nola ukatuko dizu bera amatzeko, serbitzeko nai osoa? Gaurko egia oetatik atera bear dezun bigarren frutua egun oetan kontuz, eta Jaungoikoagana osotoro biurtzeko asmoarekin etortea Jainkoaren itza aditzera. Jainkoaren itza aditu nai ez duanak ez du Zerurako gogorik, eta berekin darabil etsayaren marka. Jaungoikoarenak diranak aditzen due Jaungoikoaren itza; argatik zuek aditzen ez dezue, zeren Jaungoikoarenak etzeraten, esan zien beiñ Jesu-Kristok Judu eskergabeai. *Propterea vos non auditis quia ex Deo non estis.* Gaurko egia oetatik atera bear dezun irugarren frutua da, zure anima bekatuaren loyetatik garbitzeko, ongi prestatzea. Sasiz, larrez, eta belar gaistoz beterik dagoan lur baten eran arkizen da, Kristaua, zure animaren soro ori, eta or Zerurako obra onen frutu gozoak egiteko, lenengo lana da ongi garbitzea zakarreria orietatik. Baña kontu emen; ez

dago anima garbitzerik, ez dago konfesio onik zureztzat bekaturako bidea dakarten ibillera, itz egite, sartu-irten, eta beste perillak betiko utzi nai ezpadituzu. Aztenean emendik atera bear dezun frutua da Jau-naren serbitzen bizitzeko neurri egokiak artzea. Era onetan ederki egingo dezu emen zure animaren egiteko andiari dagokana, eta iritxiko dezu zureztzat Jaunak prestatu-rik daukan Zeruko gloria. *Ad quam &*

OGEI TA ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

Baña gure fiñ-goi-miragarriaren gañean irugarrena.

Porro unum est necessarium. Lucae capite 10.

Gure Jaun Jaungoikoak egin zituan gauza guztiak, gizona ez bestea, beren sortzetik asi ta beñere nekatu gabe ari dira bakoitza bere fiñari dagokan egitekoan. Eguzkia, illargia, izarrak, lurra, sua, ura, aizea, ta beste gauza guziak gau ta egun egiten due, ta munduak dirauen artean egingo due beren Egille Andiak eman zien lana. Ta gauz arritzekoa! Zentzurik ez duen gauzak aiñ leyalki, ta zuzen beren fiñari jarraitzen dioe: ta izanik gizona, bere Jaun Jaungoikoak adimentuaren arkitasunez edertu, ta apaindu zuan gauza: gizona alaere da bere Egille Andiaz aztu, ta zertarako egiña dan ongi begiratu-gabe, egunak, asteak, urteak ezer-ezaren, edo munduko aukeria, ta atsegin zirzilla ta lausoen ondoren igarotzen dituana: txit gutxi dira alabaña gizonen artean beren fin goi, ta andiari kontuz jarraitzen dioenak. Gizonaren eskergabekeria itsu-

si au aditzera ematen du gizon birtutetsu batek ipui onekin. Usatu zion bein gizon bidez zijoan bati Unikor-nio, edo Adarbakoitza deritzan animalia aserre batek. Ekin zion bidezkoak lasterrari, baña alaere Adarbakoitzak denbora gutxiren barrunbean atxitzeko zorian jarraituko zion. Estu, ta larri zan bidezko gajoa, ta bere estutasunaregin salto egin zuan bide ondoan ekusi zuan leize izugarri batera, ta an beera zijoala eldu zion leizearen alde batetik zegoan lertxun baten adarrari, ta geratu zan aidean itxikirik. Begiratzen du goora, ta an zegoan Adarbakoitz aserrea noiz igoko dan zai. Begiratzen du beera, ta ekusten du dragoitzar izugarri bat aoa zabaldurik, beera erortzen dan puntuan irintsitzeko txintxilik dagoan gizon tristea. Begiratzen du lertxunaren sustrayera, ta ekusten ditu bi sagu, txuria bata, beltza bestea, sustraya gutxika janaz ari dirala. Zer pena, zer kezka, ta naigabeak etzuan gizon au inguratuko, bere burua era onetan ekustean? Ala gertatuko zala uste izan zitekean, baña engañatzen gera. Gure bidezkoa perill aiñ andian zegoalarik, arkitzen zan alaere kezka, ta ardurarik batere-gabe, lertxunaren orrietatik erortzen ziran ezetasun goiso baten tantoai aoa zabaldurik: Ez da au zentzugabekeria eskar-gea? Gizon bat alde guzietatik perillen artean ingura-

tua, goyen Adarbakoitza aren zai: bean dragoitzarra eztarria zabaldurik gizon onen begira: lertxun medar baten adar txarretik itxikirik leizean ondatzeko zori zorian: ta lertxunaren sustrayari gau ta egun janaz ari zaizkala bi saguak! ta tranze onen estuan gure gizona arkitzen da lertxun-ostoetatik erortzen zaizkan tanto goisoai aoa zabaldurik, eta txoraturik! O itsumen izugarria! Ongi Kristaua, ta ipui onek zer aditzera ematen digu, ezpada gurekin egun oro gertatzen dana? Bidez dijoan gizona da jayo dan gizon, ta emakumea. Adarbakoitza, edo unikornia da, gure sortzetik asi ta beti orpoz orpo darraikigun eriotza. Leize da mundu galdu au, ta leize onetan sarturik gizona itxikirik arkitzen da, edo txintxilik lertxun baten, edo bizitzaren adar mee batetik. Gure bizitzari beti ari zaizka puska kenduaz bi sagu, txuria bata, belza bestea, au da gaua, ta eguna, ta beera begiratzen badegu ekusten degu dragoi bat, edo infernua bere eztarritzar izugarria zabaldurik, gu irintsi nairik. Ta alaere gu bizi gera lertxunaren orrietatik, edo gure bizitzaren ostoetatik erortzen diran zenbat tanto goisori aoa zabaldurik, txoraturik, ta arkitzen geran perill andiari begiratzen ez diogula, ta zertarako gure Egille on maitagarriak emen ipiñi gaituen aztuak. Ez ote gera, nere Kristauak noizbait noizbait

zentsatuko? Nai dakiola Jaunari, noiz ere bait gu biotzetik Zerurako bide zuzen garbian sarturik ipintzea. Nai onekin adiraziko det: Zeiñ fin goi, ta andirako egin gaituan gure Jaun Jaungoikoak.

Porro unum est necessarium.

Egin zinduan zu, Kristaua, ta egin ninduan ni gure Egille onak ezer-ezetik, ta egin ginduan bere antzera, edo gure animan ezartzen zuela Trinitade guztiz Santuaren imajiña ederra. Egin dezagun gizona gure antzera, esan zuan Jaunak, gizona egitean. *Faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram* (Genes. c. 1.^o). Ekusten zuan, Jaunak, zein eskergabeak izango giñan berarekin. Ekusten zuan gure biotz gogorraren kontra desegingo zirala berak emango zizkigun laguntza, argitasun, ta mugimentu on guztiak, itsas bazterrean dagoan arkaitzaren kontra bagak urratzen, ta ausitzen diran bezala. Ekusten zuan, Jaunak, bizi on batekin lagun urkoari Zerurako bidean lagundu bearrean, zure asmo, zure gogo, ta zañezurrak aspertuko etzirala lagun urkoari bekaturako bidea ematez. Ta ekusten zuan atzenean Jaun berak, bere Semearen odol prezioso, ta Sakramentuak alferrak izango zirala gutatik askorentzat, ta alaere egin

ginduan, ainbeste ta ainbeste egin gabe uzten zitua-
la! *Faciamus hominem ad imaginem et similitudinem
nostram.*

Egin gintzakean gu emen bizitzeko, baña ez du nai
izan gure Jaunak mundu onetan gu beti izatea, ta are
gutxiago munduko gauza oen mendean bizitzea, ta au
nai izan ordean, gauza oek guztiak egin zituan gizona-
rentzat. Begira munduaren lau bazterretara, ta ekusi-
ko degu oetan guztietan arkitzen diran gauzak serbi-
tzen due gizona. Mundua da gizonarentzat emen bizi
dan arteko Jauregia: Zeruko Eguzki eder ori da egunaz
gizonaren argia, ta illargia, ta izarrak arratsean.
Lurrak, itsasoak, ibayak, suak, aizeak, ta beste gauza
guziak prest daude gizonaren serbitzeko. Jauna, esa-
ten dio Dabid Santuak: *gauza guziak ipiñi dituzu gizo-
naren mendean. Omnia subiecisti sub pedibus ejus.*

Zein ote da bada, ta nolakoa gure Jaunak guretzat
autu duan fiña, edo zertarako egin gaituela, uste dezu
Kristaua? Fin guztiz goi, ta miragarria da fin au nere
Kristauak: au da alabaña emen bizi geran artean Jaun
bera ezagutzea, ta biotz on batekin maite izatea, ta
gero, Jaungoikoa bera bere ondasun, ta edertasun
guztiarekin beti beti ekustea, amatzea, ta beraren
atsegin kontentuz beterik bizitzea Zeruan.

Ezagutzeko zuk, Kristaua, zein gauz andietarako egin zaituen zure Egille onak, edo berbera dana zein goi ta miragarria dan zure fiña, oroi zaitetz, zerala Zeruko Erreñu eder artako Prinzipe, edo Prinzesa izateko egiña, ta Jaungoiko beraren semearen senide izateko autua. Ala esaten diz Dabidek: *Ego dixi Dii estis, et filii Excelsi omnes*. Oroi zaitetz: zuk galdu ez dezazun Jaunak zuretzat nai izan zuen fin miragarria au, etorri dala Zerutik lurrera, ta gizon egiñik emandu bere bizitza gurutzean. Ekusten dezu orain, Kristaua, zein dan, ta nolakoa zure fiña? Ekusten dezu zertarako egin gaituan gure Egile onak? Ekusten deku au? baña oroitu zera zu, ta oroitu naiz ni fin miragarri au gogo, ta biotzean erabiltzeaz? O! Itsumen ta eskergabekeria izugarria!

Egin gaitu jaunak ezer-ezetik, ezin konta al egin gabe uzten dituala: baña oroitu gera gure jaunari onetan zor diozkagun amorio, ta ontarteai erantzuteaz? Non ziñan, esaten dizu, Jaunak, Job santuaren aoaz, non ziñan lurraren zimenduak ipintzen ari nintzanean? *Ubi eras quando ponebam fundamenta terrae?* Non ziñan orain milla, orain bosteun, edo orain eun urte? *Ubis eras?* Atozea orain Kristaua, baldin atzo, esateko eran, ezer ezpagiñan: baldin degun izate piska au

gure Egille onak prestatuz bezala eman badigu, nola izan degu ausardia Egille beraz aztutzeko? Beraren kontra altxatzeko? Argatik espadasun andiak agertzen dizkigu Jaunak Isayas Profetaren ezpañaz, esaten digula: «Idiyak ezagutu du bere jabea, ta astoak bere nagusiaren trisipua: baña Israelgo jendeak ez nau ezagutu, ta nere erriak ez nau aditu». Ay! dio, Ay! bekatuaren bidean dabillen jendearen zori gaiztokoa! *Cognovit bos posesorem suum, et asimus praesepe Domini sui: Israel autem me non cognovit, et populus meus non intellexit: vae genti peccatrici* (Isai. C. 1).

Ezgaitu egin gure jaunak, aditu degun bezala, munduko gauz oen mendean bizitzeko, ta gauza berak serbitzeko baizik gauz oezaz Zerurako bidean bear adiña baliatzeko. Ongi, ta nola erantzun diozu zuk, ta nola nik jaunak egindako ontarte andi oni? Esan beza zure aurtasunak, zure gaztedasunak, ta atzenean zure zartzeak. Aurtasunean etzan zuretzat aurkeria beste Jaungoikorik: gazte denboran arinkeria, atsen loyak, adiskidetasun anima galgarriak, ta zartzean kutizia, ta onra nai, ta antustea izan da zure Jaungoikoa, ta zure biotz, ta zure alegin guzien Jabea. Ona! Munduko gauzen Jabe egiñik gu gure jaunak,

gauz oen zerbitzari, ta esklabo egin ditugu geren buruak. O! Zentzugabekeriaren andia!

Altxa bada Kristaua, zure animaren begiak, ta begira ondo zein gauz andietako egiña zeran. Zeru eder oriek zure bizi leku izateko egiñak dira, an zuk beti beti edo eternidade guzian Jauna bere ondasun guztiakin gozatzeko. Izan zaitezke emen beartsu, ta ekusi ditzaketzu zure nekeak, gurutzeak, lagun urkoen desleyaltasun, saltze gaizto, txarkeria, ta bidegabeak, baña alaere, zuk ongi begiratzen badezu zein fin andi, goi, ta miragarria dan zure fiña; baldin fin oni dagokan eran moldatzen badezu zure bizitza: Zori onekoa zu! Zu izango zera Zeruko Erreñu eder artan Zeruko Prinzipe, ta Zeruko Erregeren Semearen senide.

Ay baña! Zuk ez oraindañokoan begiratu ere zertarako jayoa zeran! Ibili zu oraindaño aurkeriaz aurkeri, bekatzuz bekatu ganaduen artean irabiotzeko egiña bazin bezala! Zentza zaite bada noiz ere bait, ta presta zaitez lenbizia zure anima loitu ori garbitzeko, konfesio humill, ta egiazko bat egiten dezula. 2.a Emen-dik aurrera ezi itzatzu orrako zure griña txar ainbeste aldetara galdu zaituen, ta galtzen zaituen oriek. 3.a Arrezazu, Jaungoiko beraren Seme Zeruan izateko

jayo danari dagokan bizi modu bat. Au da Jaunari eskatu bear dioguna, ta guziontzat deseatzan dedana. Nai dakiola Jaunari gure erregu au aditzea. Amen.

OGEI TA ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

Baña gure fin goi-miragarriaren gañean laugarrena.

Porro unum est necessarium. Luc. 10.

Ekusi genduan atzo gure Jaun Jaungoikoak egin gaituala, ez munduko txorakerietan gure egunak igarotzeko, ez aragiaren atsegin lizunetan zentzugabeko animalien eran loitzeko, ez munduko izan, edo ondatsun lausoetan biotza ipintzeko, baizik emen Jaun bera maitatzeko, ta gero Zeruko erri eder artan Prinzipe izateko. Au da beraz, nere Kristauak, gure fin goi, andi, ta miragarria? Au da gure egitekoa, ta onetarako ipiñi gaitu gure Egille onak mundu onetan? Ezin ukatu dezakegun egia da au. Jesu-Kristo gure Jaunak jaten zuan bein batean Lazaroren etxean, ta Lazaroren arreba bata Marta zeritzana txit kontu, kezka, ta arreba andiarekin zebillen Jesu-Kristori jana emateko bear ziran gauzak prestatzen. Maria Magdalena beste arreba geldi geldirik zegoan animako gauzetan bere gogo, ta biotza zerabiltzkiala, ta Martak egin zuan zer-

bait samintzera bere aizpak laguntzen etziola ekusirik. Esan zion Jesu-Kristok Martari: *Marta Marta kezkaz beterik zaude*, ta arazo askorekin asaldatzen zera. *Solicita es, et turbaris erga plurima*. Baña zaude jakiñik, egiteko bat bakarra dala egiteko bearra. *Porro unum est necessarium*. Elizaren gurasoak itz oek artzen ditue guri agertzeko gure animak salbatzeko egitekoa, zein egiteko andia bearra ta bakarra dan, ta au nolere bait agertzeko adirazi nai dizuet 1.a Egiteko au dala Kristauaren egiteko guzien artean bearrena, andiena, edo obeto esateko bakarra. 2.a Ta egia au onela izanik ere, egiteko au dala beste guzien artean gutxiena begiratzen, ta ezertan artzen dana: ta emendik atera dezakegu zein gutxi salbatzen diran. Birjiña txit Santa! argi itzatzu gure biotzak, ta iritsi ezazu gure biotzak mugituko dituan laguntza andi indartsu bat, bertatik guk gure animen egiteko andi oni ekiteko.

§ I.

Ezagutzeko zuk, Kristaua, nolakoa dan zure anima salbatzeko egiteko au, ez dezu begiratu besterik zer

egin duan gure Jaun Jaungoikoak, zer Jesus maitagarriak, zer Zeruko Santuak egiteko oni dagozkala. Ta au gutxi bada, begira ezazu, egiteko onetan dagoela edo betiko zorionekoa, edo betiko zori gaiztoko izatea: edo betiko ondasunak, ta atsegin kontentuak, edo betiko nekeak, betiko ayak! betiko su, eta garrak.

Zer egin ez du gure Jaun Jaungoikoak gure animak Zerurako bidean ipintzeko? Eternidadetik bere gogoan artu zuan traza au, ta ekusirik Adanen bekatuarekin galdurik gizona, bidaldu zuan mundura bere Seme bakarra, emen guri erakustera zer ta nola egin bear degun, gure animak Zeruratzeko, ta atzenean egiteko onek mugitu zuan bere Seme bakarra Judu gogorren atzaparretan uztera. Atozea Kristaua: zer egitekoa bada, zein andia izango da zure anima salbatzeko egiteko au, Jaungoikoa egiteko onek mugitu duanean, bere Seme bakarraren bizitzari ez barkatzera?

Zer egin ez du zure Jesus onak egiteko oni dagozkala? Zer odolezko izerdiak, zenbat oñaze, zenbat bidegabe etzuan igaro, gure animak salbatzeko, gu bekatuaren loyetatik ateratzeko? Begira giozu bere esku-oñetara, buru Sagradura, bere kostadu, ta gorputz guztira, ta ekusiko dezu guztia urraturik, ta zauribat egiñik, zure anima ori salbatzeagatik.

Zer egiteko da bada gure animen egiteko au, Jainko beraren Seme Jesus ona era onetan ipiñierazo duanean? Nai ta ez, nere Kristauak, egituko guztien artean andiena, bearrena, edo obeto esateko, gure egiteko bakarra. Ezaguera onek sar erazi ditu ainbeste Donzella eder, eremuetan, ta pareteen artean, ta igaro ditue beren egunak beren gorputzak azotez, baraez, ta beste neke askorekin ezitzen dituela. Ezaguera onek bidaldu ditu ainbeste gizon andi, jakintsu bakardadeetara, an beren bizitza guztia animari dagozkan gauzetan igarotzera. Ezaguera onek ipiñi ditu ainbeste milla martiri karzeletan, kateen artean, labe gorietan, gurutzeetan, ta leoyen artean, ta ezaguera onek neke oek guztiok gozatu, ta arindu diezte. San Ignazio Martiriak, iltzeko zegoala, martirioa igarotzeko ansiaz esaten zuan: «oraintxe bai, oraintxe asitzen naiz Jesu-Kristoren diszipulu, edo ikasle izaten»: *Nunc incipio Chti esse Discipulus*. Sua, gurutzea, animalia aserreak, ezurak ausitzea nere gorputzaren zatiak, ta gorputz guztia zeatzea; ta atzenean Deabruaren neke-oñaze guztiak, atozte, zion Santuak, atozte neregaiñ, Jesu-Kristorekin izateagatik bakarrik. *Tantum ut Chto. fruar.*

Ekusten dezu Kristaia, edo aditzen dezu zer nolako dan gure animak salbatzeko egiteko au? Ezpadezu oraindik ongi ekusten, ta aditzen, atoz nerekin gauz oni beste alde batetik begiratzera. Gure siniste onak erakusten digun egia da, edo izango zerala betiko zori onekoa Zeruan, edo betiko zori gaistokoa infernuan. Ez dago emen bi gauz oetatik iges egiteko biderik. Zure animaren egiteko oni ongi jarraitzen badiozu, beste egiteko ta gauza guztiak oker irteteak ez du ezer esan nai: ill bitez aldeak, aitu bitez adiskideak, ta ongilleak; eraman bitza urak zure lurak, ganadu, ta ondasunak, gera zaitez larru gorrian: gutxi esan nai du onek, baldin anima salbatzen badezu; zureak dira alabaña orduan Zeru eder oriek, zureak ango zelai ederrak, zureak ango ondasunak, itz batean: zurea da Jaungoikoa, ta Jaungoikoagan gauza guztiak. Baña ay! baldin zure anima salbatzeko egiteko oni ongi begiratzeten ezpadiozu, zer esan nai du beste egiteko guztietan ongi irteteak? Irabazi bitez erriak, Probinziak, Erreñuak, bildu bitez Indietan diran urre, zillar, perla, diamanteak: egin bitez etxe eder berriak, zer aterako dezu, Kristaia gauz oetatik, baldin zure anima galdua badaukazu? Zer? ezpada, emen nekeak, kezak, arantzak, ta gero beti betiko suak, ta garrak? Zer probetxu

du gizonak mundu guztia beretzearakin, baldin galtzen badu bere anima? esaten digu Jaunak berak. *Quid prodest homini si mundum universum lucretur animae vero suae detrimentum patiatur?* Erraz bada emendik atera dezakezu, ta erraz sinistu dezakezu, zure anima salbatzeko egiteko au dala beste egiteko guztien artean andiena, bearrena, edo obeto esateko gure egiteko bakarra, ta gañerako guztiak aurkeriak, edo ezer ez. *Porro unum est necessarium.*

§ II.

Egia au ain argiro agiri, ta ekusten dana izanik, nork sinits lezake, mundu guztia edo beintzat Kristau guztiak egiteko andi oni ez dagozkala gau ta egun? Baña ahi! txit gutxi dira lan onetan nekatzen diranak. Nekazaria arto, ta gariaren billa nekatzen da gogotik; auzitaria badabil etxez etxe bere auzia irabazteko paper, ta argi billa, eguraldi ona, edo gaistoa dan begiratu gabe. Komerziantea bada, zer kontuak ez ditu ateratzen bere bizimodua galtzeko beldurrez? Itsasoan dabiltzanak zenbat neke, zenbat ikara, zenbat perilligarotzen ditue emen beren buruak zerekin

bizi ez duela ekusi ez ditzaten? Baña, non, ta nor da, nere Kristauak, egungo egunean, bere anima salbatzeko egiteko andi onetan onenbat kezka, ta izerdi artu nai duena? Zoaz gazteetara, begira giezu oen asmoai, ta ezagutuko dezu zartzerako uzten duela lan au. Zoaz zarretara, ta ekusiko dezu oetatik batzuek gazteak baño gaizkiago bizi dirala batzuek, besteak arkaitzari lapa baño itsatsiagoak arkitzen dirala kutiziari, ta kutizia bazkatzen duen irabazbide, ganadu, diru, grano, edo onelako kontuai, ta animako egiteko au dala gerorako, edo umeak ongi ipintzen diranean, edo beste egiteko andirik ez danean asitzeko uzten dana. Esan dezakegu noaski Dabid Santuak bere denboran ziona. *Doi doya* arkitzen dala gauz onik egiten duanik bear bezala beintzat. *Non est qui faciat bonum, non est usque ad unum.* Ain da andia gure itsumena, gure nagitasuna, edo zorakeria animari dagozkan gauzetan. Ah! nere Kristaua, ta gu nekatzen bagiña betiko Zerua irabazteko, betiko nekeak, ta betiko su, eta garrak irabazteko nekatzen geran adiña! Zenbat neke, kezka, ta naigabe igarotzen ez du aragiaren atsegin loyen ondoren dabillenak? Zenbat kezka, zenbat neke kutiziosoak bere ondasunak aurreratzeko? Zenbat neke lagun urkoari txarkeria egiteko

deretxa billa dagoan biotz zimurrak? Galtzen da loa, ta ez da begiratzen nekeetan bakoitza bere asmoarekin irteteko. Atozea, Kristaua, atozea era onetan bizi zeran anima, betiko su, eta garrak irabazteko artu dituzun neke oriek guztiak artu izan bazindu Zerua irabazteko, zeñ santidade andian jarririk egongo etziñan gaurko egunean?

Ona, nere Kristaua, zer nolako arduragabetasunarekin begiratzen diogun gure animak salbatzeko egiteko andiari. Zer dator emendik? Zer? Geyeñak erio-tza negargarri bat izatea. Alferrik engañatu nai ditugu geren buruak, nere Kristauak, gero gerorako utziaz gure animaren egiteko andia. Zerbait sayatzen danak ere arkitzen ditu bere aldapak, sasiak, ta larrak, ta nekatu bear du aldapa goora dijoan baten eran. *Regnum Coelorum vim patitur*. Indarka ari bear du bere griña ta pasio animagalgarriak eskuratzeko, ta ezitze-ko. Baña neke oek guztiak arintzen ditu, ta gozatzen Espiritu Santuaren graziak, betiko ondasunen usteak, ta barrengo pakeak. Jaunari nai dakiola gu bertatik asitzea gure salbazioko lan andi onetan biotz osoarekin. Eskatu degiogun onetarako bere laguntza Birjiña Maria txit Santa bitarteko degula.

OGEI TA BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da Jaunak bere fede, ta lege Santara deitzean Kristauari egin dion ontarte edo mesede andiaren gañean.

Desolatione desolata est omnis terra, quia nullus est qui recogitet corde. Jer. 12

Zer da au, Kristaua? Etzaitu zure Jaun Jaungoikoak egin bera ezagutzeko, amatzeko, ta serbitzeko? Etzaitu egin betikotasun guzian doatsu berarekin batean Zeruan izateko? Zer egiñ eztu zure Egille onak zu betiko doatsu izan zaitezen? Ta alaere mundua azturik bizi da Jaunak guretzat prestatu, ta ainbeste nekeren kostuan Jesu-Kristok irabazi zigun betiko zori onaz! Munduko atsegin zirzillen ondoren Ililluratuak, edo txoratuak dabilta Adanen umeak! Amilka dijoaz betiko su, eta garren artera, ta alaere ezta arkitzen, dio Jeremiasek, bere onari dagozkan gauzen pensamentuak egin nai dituanik. *Desolatione desolata est omnis terra, quia nullus est qui recogitet corde.* Aurreko egunean itzegin nizun, gu doatsu izateko Jau-

nak artu dituan neurri miragarrien gañean. Gaur itze-
gin nai dizut Jaunak bere fede, ta lege Santara, edo
bere Elizaren ume izatera deitzean egin dizun ontar-
te, edo mesede andiaren gañean. Onetarako begien
aurrean ipiñi nai dizkitzut bi pensamentu.

LENENGO PENSAMENTUA

*Nolako ontarte, edo mesedea dan, Jaunak bere fede,
edo lege Santara deitzean egin dizun, ontarte, edo
mesedea.*

Nolako ontarte, edo mesedea dala, uste dezu
Kristaua, ontarte au? Ote dakizu, edo jakiteko alegi-
ñarik egiñ ote dezu? Ez noaski oraindanoan bein-
tzat. Alakoa da alabaña animari dagozkan gauzetan
gure nagitasuna, ta itsumena. Jakin ezazu bada,
ontarte edo mesede au dala Jaunaren ontarte, ta doai
guzien artean andiena; au dala onra, ta ondasun
guzien zimendua, ta asiera; ta au dala atzenean, Jau-
naren ontasunez, eta urrikimentu utsez dezun ontar-
te, edo mesedea. Bai, Kristaua, bai: Jaunak bere fede,
ta lege Santara deitzean egin dizun, ontarte, edo

mesede da benik beiñ Jaunaren ontarte, ta doai guzien artean andiena. Andia da ezerezetik ateratzea. Andia da Zerurako egitea. Andia da gugatik gizon egin ta gurutzean bizitza ematea. Andia da Sakramentuak ipintzea, ta guganako amorioz Aldareko Sakramentu guztiz miragarrian geratu nai izatea; baña ontarte, edo mesede oriek guziak alferrak ziran zuretzat, bere fede, ta lege Santara deitu ezpazindu zure Jaunak, edo bataioko Sakramentuarekin egin ezpazindu berekin bere Elizaren ume. Ala gertatzen da fedearen argi gabe bizi diran jende guziakkin. Ala gertatzen da Turkoakkin, Rusiatarakkin, Prusian, Alemanian, Olandan, Inglaterran, Franzian bizi diran fede gabeakkin. Ez ditu Jaunak deitu bere fede, ta lege Santara, edo deitu bazituan ere oetatik asko, aldegin due fede Santagandik, eta Eliz Ama Santaren barrutietatik, ta ez due protxurik Jaunak gure onerako egin dituan ontarte, edo mesede guziaz; oek alabaña betiko bizitza doatsuarekin batean prestaturik dauzka gure Jaun Jaungoikoak, Jaun beraren umeen izatea, duenentzat, ez besterentzat. Eta izate miragarriri onetara deitu zinduan, eta altxa bere fede, ta lege Santara, edo berbera dana bataiora deitu zinduan. Ontarte, ta doai onek garaitzen ditu gañerako

guziak, dio S. Leonek. *Omnia dona excedit hoc donum.*

Ontarte, edo mesede au da gañera onra, ta ondasun guzien asiera, ta zimendua. Oroi zaite, Kristaua, zein urrikarria, ta doakabea arkitzen ziñan, Jaunak bataioko Sakramentuarekin bere fede, ta lege Santara ekarri zinduan artean. Loitua zeunden Adanen bekatuarekin. Arkitzen ziñan Zerurako esku guzia galdurik, Jaunaren aserre, ta madarikazioaren azpian, eta etsai galgarriaren mendean. Oroi zaite era berean bataioko Sakramentuarekin zugana etorri ziran onraz, ta ondasunaz. Garbitu zinduan Adanen bekatuaren mantxatik. Gainzutu zinduan olio, ta balsamoarekin Erregeen eran, aditzera emateko Zeruko Erreñuaren jabegai ziñala. Eman zizun graziaren soñeko ederra. Aita Eternoak artu zinduan bere umetzat, Jesu-Kristok artu zinduan bere senidetzat, eta Espiritu santuak bere Esposatzat, ta jarri zan zure biotzean zure giari. Aditzen dezu, Kristaua, noraño onrak, eta ondasunak zugana etorri ziran bataioko Sakramentuarekin? Zer da au, Kristaua, zuri, ta niri onenbeste onra ta ondasun eman gure Jaun onak, eta gu ain eskergabeak gure ongille andi onentzat! Zu Jaungoiko beraren Seme, ta adiskidearen goiendean

jarria? Ala erakusten digu S. Joanek. Zu Jesu-Kristoren senide egiña? Ala dio S. Paulok. Zu Espiritu Santuaren Esposa, bizileku, eta Eliza izateko edertua, ta apaindua? Ala dio S. Paulok berak. Ta zu alaere bizitu zera dakizun eran? Baña ez gaitezen geiegi onetan geratu. Esan ditugun ondasun oek ezezik beste geiagore etorri zazikitzu bataioko Sakramentuarekin. Bataioan bertan apaindu zinduan Espiritu Santuak bere doaiakin, eta zugan ixuri zituan fedea, esperanza, karidatea, eta beste birtuteak; eman zizun beste Sakramentuak artzeko eskua; ta zuri Zerurako bidean laguntzeko ipiñi zituan legeko Ministroak, bere itz Santua, Ejenplo onak, eta atzenean, zuk zure emengo deserri au uzten dezuneko, zuretzat prestatua dauka betiko bizitza doatsua, betiko ondasunak, eta atsegin kontentuak. Ona nola Jaunak zu bere fede, ta lege Santara deitu zaituan eran deitzea dan onra, ta ondasun guzien zimendua, ta asiera.

Ta nondik zuri, nondik niri onenbat ontarte, edo mesede? *Unde hoe mihi?* Ez egiaz zure aurrekoetatik, oetatik ez dezu alabaña bekatuan sortua, ta zikindua izatea beste gauzarik, Dabidek zion bezala. *Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum, et in peccatis concepit me mater mea.* Ez dezu onra, ta mesede au

zure obra onakgatik; etziñan alabaña gai, ta etzen-
duan ezaguerarik-ere obra onak egiteko bataioa artu
zenduanean; ta ezaguera izan bazendu-ere nola obra
onak egin zintzakean fedearen argirik gabe, ta beka-
tuz loitua zeundela? Ez dezu onra, ta mesede au Kris-
tau-errian jaio zeralako, asko, ta asko alabaña jaio
izan dira, ta jaiotzen dira Kristau-errietan, eta iltzen
dira bataioa, ta bataioarekin datozen ondasuna iritxi
gabe. Nondik bada, Kritaua, nondik zuri, ta niri onen-
beste onra, ta mesede? Ezin konta al dira Jaunak
onra, ta mesede egiten ez dienak, eta betiko galtzen
diranak. Ta zuri, ta niri egin digu onra, ontarte, ta
mesede au? Nondik ote ditugu bada ondasun oek? Ez
gaitezen nekatu, Jaunaren ontasunez, eta urrikimen-
tu utsez degu au guzia. Esan dezakegu S. Paulorekin:
Jaunaren graziaz, ta doaiez naiz naizana. *Gratia Dei
sum id quod sum*. Ekusten dezu, nolako ontarte, edo
mesedea dan, Jaunak bere fede, ta lege santara dei-
tzean egin dizun, ontarte, edo mesedea? Ai! au guk
ongi ezagutu bagendu, besterik izango zan gure bizi-
tza! Zer egin al dezakegu? Zer S. Joanek diona baizik.
Oroi zaite, esaten digu, nondik erori, edo amildu
ziñan, biur zaite zere Jaunagana. *Memor esto ilaque
unde excideris, et age paenitentiam*.

BIGARREN PENSAMENTUA

Nola artu zinduan Jaunak bere fede, ta lege santara?

Ezta erlijioko ordenetan iñor ere artzen, agintzen ezpadu, autu duan ordenako egin bideai kontuz erantzutea; ta era berean eztu Jaunak, edo Jaunaren Elizak bere fede, ta Lege Santara iñor-ere artzen, agintzen ezpadu Lege onek eskatzen duan eran bizitzea, ta dituan egin-bideai ongi erantzutea. *Urlia* esaten dio bataioa artzera dijoan bakoitzari Eliz Ama Santak, zer eskatzen diozu Elizari? *Quid petis ab Ecclesia?* Zure ordezkari erantzun zuan Aita-ponteak, *fedea* eskatzen zenduala. Galdetu zizun berriz: Fedeak zer ematen dizu? Erantzun zenduan: *Bizitza betikoa*. Orduan esan zizun Elizako Ministroak: nai badezu bada betiko bizitza doatsuan sartzea, gorde itzatzu aginte oek: *amatuko dezu zure Jaun Jaungoikoa zure biotz guziaz, zure anima guziaz ta zure adimentu guziaz; ta amatuko dezu zure lagun urkoa zere burua bezala. Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo, et ex tota anima tua, et ex tota mente tua, et proximum tuum*

sicut te ipsum. Bi Aginte oetara biurtzen dira Kris-tauaren egin bide guziak; oek gordetzea eskatu zizun Eliz Ama Santak, ta etzizun Elizan sartzen utzi au agindu artean.

Baña nola ezin gorde ditezkean Jaunaren lege Santako egin bideak, aldegiten ezpada, Demonioak, eta onekin batean munduak, eta aragiak prestatzen dituen, bekaturako bide, eta perilletatik, galdetu zizun Elizak: *Urlia, itza ematen dezu gaurdanik betiko ukatzeko, ta utzitzeko Santanas? Abrenuntias Sathanae?* Bai ala agintzen, eta itza ematen det, erantzun zenduan. *Abrenuntio.* Galdetu zizun bigarren aldian: *urlia, itza ematen dezu betiko utzitzeko Satanasen lan, gaiztakeria, ta bekatuak? Et omnibus operibus ejus?* Baietz erantzun zenduan. *Abrenuntio.* Galdetu zizun irugarren aldian. *Itza ematen dezu betiko utzi-ko dituzula, ta orain bertatik utzitzen dituzu Satanasen zorakeriak bekaturako bidea, ta perilla dakarten gauza guziak? Et omnibus pompis ejus?* Baietz erantzun zenduan. *Abrenuntio.* Era onetan betiko adio egin zenien Deabruari, munduari, ta aragiari, edo oen atsegin lizun guziai, *S. Anbrosiok dionez. Renuntiasti Diabolo, et operibus ejus, renuntiasti mundo, luxuriae, ac voluptatibus ejus.* Aditzera guri emateko

eman ginduan itz oen indarra illakkin bat egiten gaitu S. Paulok. Illa dagoan batek eztu begirik zabaltzen bekatuak bidea ematen duen gauzak ekusteko; eztu mingaña itz loiakin zikintzen; ez du eskurik, oñik, ta gorputzik mugitzen gaitzerako: eta auxe bezala geratzen da Kristaua, bataiorako agindu zuanez. Ill ziñaten Jesu-Kristorekin, dio S. Paulok; ta ill ezezik obiratuak geratu giñala gañera, esaten digu. *Conse-pulti enim sumus com illo per baptismum in mortem.* Au guzia agindurik, ez bestela, artu zinduan, Kristaua, zure Jaunak bere fede, ta lege Santara, edo bataiora; ta bataioko ura eman ta bereala ipiñi zizuen zapi zuri bat esaten zizuela: ar ezazu soñeko zuri au: eraman-go al dezu bekatuaren loiez zikindu gabe Jesu-Kristo-ren jarlekuaren aurrera, iritxi dezazun betiko bizitza. Ipiñi zizuen atzenean argi erazeki bat, aditzera emateko Jaunaren aginduak, ta obra onak egiñaz argi egin, ta exemplo ona eman bear dezula lagun urkoen artean.

Ona, Kristaua, nola artu zinduan Jaunak bere fede, ta lege Santara. Ona zer agindu edo zer itz eman zinduan. Ongi: ta zure, ta nere bizitza izan ote da eman ginduan itzai dagoten bezalakoa? Agindu zenduan, amatuko zenduala zure Jaun Jaungoikoa

zure biotz guziaz, zure anima, ta adimentu guziaz, ta bizitu zera Jaunaren aginduak egin naigabe, ta Jaungoikoarik ezpaliz bezala. Agindu zenduan zure lagun urkoari ongi nai izatea. zere buruari bezala, ta au egin ordean egin dituzu, nortaki, zenbat txarkeria, ta bidegabe lagun urkoen kontra dala itzez, dala obraz, dala gogoz. Agindu zenduan, kontuz gordeko zinduala Jaunaren, eta Elizaren Mandamentuak, eta ezta guzien artean batere autsi ez dezunik. Agindu zenduan Deabruaren, munduaren, eta aragiaren lan, eta lazoetatik betiko aldegitea, ta oei jarraitzea izan da zure atsegin-kontentu guzia. O! itsumenarn izugarria! Pensa dezagun gutxi bat gauz oen gañen.

Lenengo pensamentua: nolako ontarte, ta mesedea dan, Jaunak bere fede, ta lege Santara deitzean egin dizun, ontarte, edo mesedea. Au da Jaunaren ontarte, eta doai guzien artean andiena. Au da onra, ta ondasun guzien zimendua, ta asiera. Ta au da atzenen, Jaunaren ontasunez, ta urrikimentu utsez dezun ontarte, edo mesedea.

Bigarren pensamentua: nola artu zinduan zure Jaunak bere fede, ta lege Santara? au da, zer itz eman bear izan zinduan onetarako? Apaiz bat, Erliijoko ordenaren batean bizi dan bat, ekusten badezu,

edo aditzen, lizunkerietan dabilhela, arritzen zera, eta bidez alaere. Zergatik ote? Zeren Apaizak, eta erlijiosoak eren bizimodua artzean agindu zuen beti betiko aldegitia gauz orietatik. Eta ezta arritzeko gauza, bataioan agindu zenduana agindurik, zu fedegabeen eran, eta are gaizkiago bizitzea? (Emen gutxi bat egon bear da ixilik gauz oen gañean pensatzen).

FRUTUA

Bi pensamentu oetatik atera bear dituzu frutu oek. Lenengo frutua. Lotsa gaitezen Jaunaren aurrean gure eskergabekeria izugarriaz, eta egin dezagun negar gure oraindañoko bizitza gaiztoaz. Bigarren frutua, ar ezazu bertatik konfesio on bat egiteko, ta aurrera bekatutik, ta bekatuaren bideetatik betiko aldegitiko asmo osoa. Irugarren frutua: ongi konfesatzeko, ta aurrera ez biurtzeko grazia iritxi dezazun ar ezazu zure bitartekotzat Birjiña guztiz Santa dolarez betea. Atoz Birjiña beraren onran, atoz kontuz bederatzi urren onetara. Goazen oraiñ ongi konfesatzeko prestaera ikastera, ta egitera.

OGEI TA AMARGARREN ERAKUSALDIA

Atzeneko erakusaldiko gaiaren beraren gañean.

*Benedictus Deus, et Pater Domini nostri
Jesu-Chti, qui secundum*

*Misericordiam suam magnam regeneravit nos in spem
vivam. 1. Petri cap. 5*

Egin zuan gure Jaungoikoak Adan, egin zuan Eba ta biak egin zituan bere Zerurako. Egiñ orduko eman zien biai lurrean bizi ziran artean ongi izateko bear zuena; bada eman zien lurreko Paradisua, ta Zeruko inozentzia, justizia orijinala, ta grazia. Bazuen Paradisuan, doarik alaere, Adanek, eta Ebak, jateko, edateko, ta gauza guzietarako nai adiña, baita askoz geiago ere. Etzuen gaitzerako makurtasunik batere, ta gauz onak aisa, ta erraz egin zitzakeen beren inozentzia, ta zuen graziarekin batean. Era onetan bizitzera gure lenengo Gurasoak, jaunak ongi zeritzanean, eramango zituan bere Zerura eriotzaren atzaparretan erori gabe, ta emango zien betiko atsegin-kontentu ta gloria. Ta au bera gertatuko zan Adanen ondoren-

goakin, oek ongi bizitzen baziran, ta kontatuak izango ziran oen artean gaitzerako ziranak. Zori onekoak gu baldin Adan ta Ebak egin izan balue beren Jaunaren esana; baña utsegin zuen gure lenengo guraso oek Jaunak debekatu zien fruta jaten zuela: galdu zuen Jaunaren adiskidetasuna, ta justizia orijinala: galdu zuen Zerurako zuen esku, ta deretxa, ta bera-tik asaldu ziran len lo, edo illak zeuden gaitzerako griña, ta pasio anima galgarriak. Geratu ziran Zeruko atea, bekatu jatorrizko onekin itxiak, Adanentzat, ta onen ondorengoentzat.

Baña onegia da gure Jaungoikoa gaitz onen andia sendatzeko bidea ukatzeko. Gizonaren oker andi au zuzentzeko bidaldu zuan mundura bere Seme bakarra, ta Seme onek gizonaren jantzia arturik, ta gurutze batean ainbeste nek-oñaze ta pena igarotzen zuela, ta atzenean bere bizitza ematen zuela, egin zituan bere Aitaren, ta gizonaren arteko pakeak, ta idiki zituan lau milla ta geiago urtean itxirik egon ziran Zeruko atea beragan sinistu, ta beraren lege garbi-zuzena gorde nai duenentzat. Jaunak siniste onetan ta bere lege garbira deitu izan gaitu nere Kristauak, ta onetan egin digun ontarte andiaren gañean izango da nere gaurko itzaldia. Adiraziko dizuet

aurrena, zer nolakoa dan ontarte, edo mesede au. Bigarrena: Jaunaren siniste on, ta lege garbia artzean zer agindu degun; ta atzenean ze egin bear degun gure Jaunaren guganako onginei, ta amorioari erantzutzeko.

§ I.

Zure Jaun Jaungoikoak bere ontasan, ta miserikordiari begiraturik deitu zaitu, Kristaua, bere fede Santara, ta lege eder garbira. Ta badakizu, Kristaua, zeñ andi, ta miragarria dan zuri onetan zure Jaunak egin dizun ontarte, edo mesedea? Badakizu zer onginei, ta amorioa zor diozun Jaun berari? Edo oroitu zera zure ongille on Jesus maiteari alik umilkiena eskerrak emateaz, ontarte au zere gogoan darabiltzula? Nork sinits lezake ozta ozta oraindaño zure zor onezaz oroitu zerala? Au bera emendik aurrera gertatu ez dakigun begira ezazu Jesu-Kristoren sinistean ta lege garbian egotea zein gauza bearra, ta dignidade andia dan. Begira-ezazu gero ontarte au ukatu diela Jaunak ezin konta al Anima zu baño askoz leialago izango ziranai. Begira ezazu atzenean ez dezula zori on andi au zere

irabaziz, edo zure gurasoakgatik, baizik zure Jaunaren miserikordia, ta graziaz. Au guzia ekusi ezkerotz izango degu biderik asko Jaunaren aurrean lotsatze-ko.

Idiki zituan Jesu-Kristok, egia da, idiki zituan bere eriotzarekin Zeruko ateak, baña idiki zituan bere siniste, ta lege garbi ederra artu ta Jesus beraren markarekin arkitzen diranentzat. Ez dago Zerurako biderik, ta ez dago Zerurako irabazirik Jesu-Kristoren siniste, ta lege gabe; galdu zuan alabaña gizonak bekatu jatorrizkoarekin Zerurako esku guztia, ta graziaren izate ederra, ta esku, ta izate au iristeko berriro jaio bear du bataioko Sakramentuan, ta Sakramentu onekin biurtzen zaizka Zerurako eskua, ta graziaren izate ederra. Salbatuko da dio S. Markos Ebajelistak, sinisten ta bataioko Sakramentua artzen duena; baña betiko galdua izango da, sinisten ez duena. Berriro jaiotzen ez dana, dio S. Juan Ebanjelistak, uretik, ta Espiritu Santuagandik, ezin sar diteke Zeruko Erreñuan. Ez dago salbatzerik ezpada Jesu-Kristoren izen Santuan, siniste, ta legean. *Non est in alio aliquo salus* (Actor. 4). Ekusten dezu zein gauza bearra dan Jesu-Kristoren siniste, ta legean egotea Zerura nai duanarentzat? Ta ote dakizu zein dignidade andi, ta

goia dan lege onetako izatea? Da Kristaua dignidade bat, zuri ematen dizuna Jaungoiko beraren Semearen izena, ta izatea S. Juanek dionez: *Ut filii Dei nomine-mur et simus*. Da Jesu-Kristoren beraren senide izatea, ta Jesu-Kristorekin berarekin Zeruko Erreñuaren heredero geratzea. *Haeredes Dei cohaeredes Chti*. Ta izanik Kristauaren izate au onen andi-miragarria, gu alaere deitzea dignidade onetara! Zer ontarte, edo mesedea ez diogu onetan zor gure ongille eziñ ongilleago Jesus maitagarriari?

Ontarte au ukatu die ezin konta al bataiorik gabe iltzen-diranai. Zenbat aur iltzen dira munduaren lau bazterretan bataioko Sakramentua gabe? Zenbat Kristau errietan beretan? Oraindaño onela ill, ta aurrera illko diranak izango dirala gutxiena, dio Alapide gizon jakintsuak, milla milloi. Nondik datorkizu bada, Kristaua, zuri, nondik niri oetako bat ez izatea? nori zor diozu, ezpada zure Jaunaren miseriardiari? Ta bataiorik gabe ill diran ta illko diran aurrak onen-beste gutxienean izango badira, zenbat, ta zenbat milloi izango ote dira federik gabe oraindaño ill diranak, ta munduaren azkenearaño illko diranak? Zenbat Asian, Afrikan, Amerikan, ta European bertan? Zenbat aen artekoak izango ziran Jaunarentzat gu baño leia-

lagoak, kontu obearekin birtutearen bide eder garbiamari jarraituko zioenak? Ta alaere aek utzi zituan Jaunak, ta uzten ditu bere siniste, ta legera ekarri gabe, ta guri, nere Kristauak, guri eman digu izate, ta dignidade miragarri au? Ekusi ezazue, dio S. Joanek, ekusi ezazue nolako onginai, ta amorioa agertu digun Jaunak, ematen digula Jaungoiko beraren Semeak deitzea; ta ez deitzea bakarrik, baita izatea-ere. *Videte qualem charitatem dedit nobis Pater, ut filii Dei nominemur et simus* (Cap. 13). Begira ezazu ongi Kristaua, zer ontartea zor diozun Jaunari, zeren Jesu-Kristoren siniste, ta lege garbira deitu zaituan.

§ II.

Baña ontarte aiñ andi, ta dignidade onen goiak nai ta ez, esan oi dan bezala, berekin ekarriko ditu bere egin bear andiak. Ote dakizu zuk Kristaua, zer egin bear diran oek? Ote dakizu zer agindu zenion Eliz Ama Santari Zeruaren, ta lurraren, Aingeruen, ta gizonen aurrean? Oroitu ote zera, zure bataioko egunean emandako itzaz? Ez noaski zure oraindañoko bizitzak dionaz. Jakin dezazun bada zer agindurik

arkitzen zeran egun artatik ekusi ezazu benik bein zer gisatan, ta nolako zeremonia Santuakin artu zinduan Eliz Ama Santak bere umeen artean. Ekusi ezazu gero bataioan agindu dezunari erantzuteko zertara bear-tua arkitzen zeran, eta arriturik noaski esango dezu: ez dala zugar oraindañokoan Kristauaren antzik izan zure bizimodu, ta azturetan.

Lenengo zeremonia Santua izan zan Aita, ta Ama Pontekoak zurekin batean Elizara etortzea, zure orde z erantzuteko egiten diran galdeai, ta zure ize-nean agintzeko agindu bear dan guztia. Emendik Aita, ta Ama Pontekoak beartuak geratzen dira aurrai gurasoen faltan dotrina erakustera, dio Santo Tomas-ek. Bigarren zeremonia da izena ipintzea, ta onela bataiatua geratzen da Jesu-Kristoren Soldadeskan sartua munduaren, Deabruaren, ta aragiaren kontra gerra egiteko. Irugarren zeremonian galdetu zizun Eliz Ama Santaren izenean Apaizak: *Zer eskatzen diozu Elizari?* Zuk orduan ezin erantzun zentzakean, baña zure ordean erantzun zuan zure Aita ponteak: *eskatzen zenduala fedea*, ta fedea ematen duala *bizitza betikoa*. Laugarren zeremonian *aizeman* zuan Apaizak zure aurpegira aienatzeko zure biotzetik etsaia, Espiritu Santuaren jarleku, ta Eliza bat egiñik

gera zindezen. *Irten adi*, agindu zion Apaizak etsaiari, *irten adi onegandik* Espiritu enas zikiña ta egin giok leku Espiritu Santu konsolatzalleari. *Exi ab eo immende Spiritus, et da locum Spiritui Sancto Paraclyto*. Bostgarren zeremonia izan zan zure bularrean gurutze Santuaren siñalea egitea, lotsa etzaitzen, Kristaua izateaz, ta Kristauak gerala agertzeaz. Seigarren zeremonia da: gatz *bedeikatua* zure aoan sartzea, oroi zindezen Jaunak bataioan egin zizun ontarteaz, ta oroipen onekin kontuz ikasi zenezan Zeruko jakiundea, edo zure bizitza gordetzea bekatuaren usteldasun guztietatik. Zazpigarren zeremonia izan zan estola bat gañean zuri ipintzea, ta onela Elizan sartzea, aditzera eamten zatzula, Kristauak izan bear duela Jaunaren bizileku, ta Etxe. Zortzigarren zeremonia izan zan txistuarekin egitea zure sudur, ta belarriak, aek idikiak iduki ditzatzun Jaunaren itza, ta Zerurako gauzak aditzeko, ta zure bizitza onarekin birtutearen usai gozoa zabaltzeko. Bederatzigarren zeremonian, bataioa emateko aurrean, galdetu zizun Eliz Ama Santak zere izenez: *Urlia*: ta ukatzen dezu Satanas? *Abrenuntias Sathanae*? Bai, ukatzen det, zure izenean erantzun zuan Aita ponteak, edo an zeudenak. *Abrenuntio*. Ukatzen, ta betiko

uzten dituzu Satanasen egiteko guztiak? *Et omnibus operibus ejus?* Ukatzen ditut, erantzun zenduan. *Abrenuntio*. Ukatzen dituzu, ta betiko uzten Etsaya-
ren zorakeria, ta ponpak? *Eta monibus pompis ejus?* Ukatzen ditut, erantzun zenduan. *Abrenuntio*. Amar-
garren zeremonian gainzutu zinduen bularrean, ta
espaldetan Kristaua, ta olio Santuarekin, onetan adi-
razten zala zure Anima bataioko Sakramentuan gain-
zutzen zala Jaunaren grazia, ta Zeruko doaiakin, ta
Espiritu Santuaren presenziarekin. Amaikagarren
zeremonian ipiñi zizuen buruaren gañean eun txuri
bat, aditzera ematen zitzatzula Adanen jauntzi
zarrak, ta bekatuaren zatar puska guztiak utzirik,
jauntzitzen dezula graziaren soñeko zuri ederra, jaun-
tzi berarekin mantxarrik gabe agertzeko kontuetako
egunean Jesu-Kristoren aurrean. *Accipe vestem can-
didam, quam immaculatam perferas ante Tribunal
Domini Jesu-Chti*. Atzenan galdetu zizuen: *Vis bap-
tiziari?* Urlia: era onetan, ta Kristauari dagozkan eginbi-
de oekin nai dezu bataioko Sakramentua artzea?
Baietz, esan zenduan. *Volo*.

Ona, Kristaua, nola zer gisatan artu izan zinduan
Eliz Ama Santak bere umeen artean. Baña zeñ gutxi
oroitu zeran zu zer agindu zenduan Kristauaren izate

ta dignidade andi au artu zenduanean! Enzun nazazu gutxi bat arreta andiarekin, ta ezagutuko dezu zein gauz andiak agindurik zauden. Agindu zenduan benik beiñ Jesu-Kristo gure Maisu, ta Erakuslea gurutzean arantzaz, ta iltzez josirik iltzan eran, zu ere bekatu diran gauza guzietarako biziko ziñala gurutzean josia, ta illa bezala. Illa aragiaren atsegin loiak dakaizten itzegite, begiratze, ukuitze, jauntzi arro guzietarako. Illa birau, juramentu, lagun urkoari bekaturako bidea emate, ta jan edan geiegietarako. Illa besteri kalte egiteko dala bizitzan, dala ondasunetan, dala honra, edo faman. Adi ezazu zer dion S. Paulo Apostoluak Jesu-Kristoren ume egiazko diranak gurutzefikatu due beren aragia bere griña makur, ta gura gaiztoakin: *Qui autem sunt Chti carnem suam crudifixerunt cum vitiis, et concupiscentiis suis* (Cap. 5 ad Galat). Jesu-Kristorekin gurutzean josirik nago, dio Apostolu berak: bizi naiz, baña ez naiz ni nerau bizi, bizi da nigan Kristo. *Chto. confixus sum cruci: vivo jam non ego, vivit vero in me Chtus* (Cap. 2 Ad Galat). Ta oraindik are geiago dio Apostolu berak, esaten duanean: bataioko Sakramentuan geratu gerala Jesu-Kristorekin batean obian sartuak illak bezala izateko munduaren, Demonioaren, ta aragiaren gauzetarako.

Consepulti enim sumus cum illo per baptismum in mortem (Ad Romanos cap. 6). Ongi: ta non dira egun-go egunean Kristau oek? Non dira Jesu-Kristorekin gurutzean josiak, ta obian sartuak ta illak bezala bizi diranak munduaren, etsaiaren, ta aragiaren gogaeta gaiztoetarako? Atozea zu biraugillea, edo juramentuak erraz egiten dituzuna: atozea zu gizon zere ume, ta familiari naigabez beterikako bizitza ematen diozuna, zure alferkeria, zure edan, ta berandu etxeratzearekin: atozea zu neskatx zere jauntzi arro, zere ibillera arin, ta modu gaiztoakin Demonioaren beraren maisu izan zaitezkeana: atozea zu gazte edo zar zere itzegite loialakin lagun urko askori bekaturako sarea zabaltzen diezuna: zure bizimodu ori da bataioko Sakramentuan agindu zenduana? Zertan igerriko zatzu Kristaua zeran, edo jentil fedegabekoa?

Agindu zenduan gañera bataiatu ziñanean, zere griña, ta pasio txarrak ukatzea. Etzenduan agindu griña makurrik ez izatea: zeren oek bekatu jatorrizkoaren ondoren gurekin jaio, ta gurekin bizitzen dira, ta bataioko Sakramentuak bekatu jaiorrizkoa kentzen badu ere, uzten du gugan gaitzerako makurtasuna, ta gauz onetarako nagitasuna. Zer agindu zenduan bada bataioan? Agindu zenduan griña txarrak illdura-

tzea, ta beti kontra egiñaz, eskatzen duena ukatuaz, eskuratzea, ta ezitzea. Nere ondoren etorri nai duanak, ukatu beza bere burua, esaten digu Jesu-Kristok, ta jarrai begit. *Quicumque vult post me venire, abneget semetipsum, et sequatur me.* Mira ezazu, Kristaua, miratu ongi zure bizitza, ta galde giozu zere buruari: Urlia: non, ta zertan arkituko det nik zugan Kristauaren siñalerik, edo arrastorik txikiena-ere? Arkituko ote det, nere griña, ta pasio gaiztoak garaitzeko arreta, ta kontu zintzoan? Ah! baldin alde onetatik nere buruari begiratzen badiot, ez da nigan arkitzen Kristauaren antzik! Nik alabaña nere griña makurrak eskuratzeko kontu egin bearrean ez det deretxarik galdu oek gura duena egiteko, oek bazkatzeko, ta nere Anima, ta beste askorenak galtzeko!

Agindu zenduan gañera, Kristaua, agindu zenduan bataioko Sakramentuan biotzez ukatzeko, ta uzteko munduko ondasun, atsegin, onra, ta gauza guziak, berenez gaiztoak ez izan arren, kontentu bizi zerala zure Jaun Jaungoikoa zurea izatearekin. Ez digu eskatzen gure Jaunak, ondasunik ez izatea, atsegin-kontenturik batere ez artzea, onrarik gabe bizitzea. Ez; baizik agintzen digu gure biotzak ez ipintzea gauz oetan, baizik ontasun neurrigabea dan gure Jau-

nagan. Ala erakustn digu gure Salbatzalleak. *Omnis ex vobis qui non renuntiat omnibus quae possidet, non potest meus esse Discipulus* (Luc. c. 14). Bataioko Sakramentuan eman zenduan itz oni ongi erantzuteko alako sasoiean gorde bear dezu zure biotza, non prest egon bear dezun ondasun guztiak, atsegin-kontentu guztiak, itz batean guztia uzteko zure Jaunaren legea ez ausitzeagatik. Biotzeko sasoi au, ta era one-tan prest bizitze au adirazten digu San Paulo Apostoluak, esaten digunean: Emazteak dituenak, izan bitez ezpalitue bezala: *Qui habent uxores tanquam non habentes sint*. Nekez, ta negarrez bizi diranak, negar gabe bizi balira bezala, ta atsegin-kontentuen artean bizi diranak atsegiñik artzen ezpalue bezala. *Et qui fient tanquam non flentes, et qui gaudent tanquam non gaudentes*. Eta erosturak egiten dituenak, gauzarik ezpalue bezala, ta munduko gauzaz usatzen duenak usatzen ezpalue bezala. *Et qui emunt tanquam non possidentes, et qui utuntur hoc mundo, tanquam non utantur* (1. Ad Corint. cap. 7). Ekusten dezu, anima, nolako sasoiean iduki bear dezun zure biotza berenez bekatu ez diran gauzetan ere? Ta nekatu zera iñoiz aginte au zein andia dan ezagutzen? Ondasunen artean bizi, ta oei biotza ez itsastea: atsegin-

kontentuen artean egon, ta oetan biotza ez ipintzea: onra, ta estimazioak izan, ta ezpalira bezala oen artean igarotzea, da nere Kristauak gauza guztiz andia, ta miragarria: da gauza Jaunaren laguntza ta grazia gabe iristen ez dana: ta da Kristau gutxik bear dan eran egiten duena.

Adirazi ditugun gauza oezaz gañera agindu zenduan Bataioko Sakramentua artu zenduanean zure Jaun Jaungoikoa biotz osoz, ta guztitik maite izatea, ta Jaunaren ontasun onegatik zure lagun urko guztiak, baita oen artean etsaiak-ere. Agindu zenduan zure Jaunaren aginte guzti guztiak leialki gordetzea. Biotz guztitik Jauna amatzeko, ez da asko aoaz esatea amaten dezula Jaun bera. Ainbesteraño Jaungoikoaren ontasunagana jarri bear due gure biotzak non prest egon bear duen Jauna ez uzteko, ta ez ofenditzeko ez Zeruagatik ta ez lurragatik, ez goiagatik ez beagatik, ez bizitzagatik, ta ez eriotzagatik. Mira ezazu Kristauak zure biotz ori, ta ekusi ezazu era onetan egiaz bere Jaunagan jarria egon ote dan oraindanoan, ta arkitzen ote dan oraiñ bertan ere. Ai! nere Kristauak, nola egongo ziran sasoi eder onetan, ta onenbesteraño Jaunaren ontasunagana etziñak gure biotzak: baldin dan aserrerik txikiena, bekaturako itz,

edo begiratze bat, iñor aintzat artze bat, erregalotxo bat asko izan bada zure biotza bere Jaunaz aztutzkeo, ta edozein gauza makur esateko ta egiteko? Ez da ez ezpata bularrean ekustearen bearrik izan zuk zure anima, ta zure Jaun Jaungoikoa utzirik gogoak eman dizuna egiteko.

Ona, nere Kristau onak, zeñ gauz andiak agindu ditugun Kristauaren dignidade goia artu degunean. Andiak dira berenez, baña baldin begiratzen badegu kontuz: gerala Jaungoiko beraren Semeak, Jesu-Kristoren senideak, ta Zeruko Erreñuaren herederoak: baldin oroitzen bagera Kristauaren dignidadea artzean, geratu giñala Espiritu Santuaren graziaz ta doaiez gaintzutuak, ta Espiritu Santuaren bizileku izateko konsagratuak; au guztia ongi begiratzen badegu, nork eztakus, zein bizitza garbia, ta zein santidade andia eskatzen digun Kristauaren dignidadeak, ta nik adirazi ditudan gauza guziak ez dirala geiegi oni erantzuteko? Eztakizue, esaten digu San Paulok, ez dakizue, zuek zeratela Espiritu Santuaren Eliza, edo Tenploak? *Nescitis quia membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?* Au onela da, Kristaua? Ta au onela izanik, bizitu zera zuk dakizun eran? Au onela, ta zure konfesio ta komunio oriekin, ara ona ibiltzea-

rekin, uste zenduan Kristaua ziñala, ta Kristauaren eginbide guztiai erantzun zenuela? Ezaguezazu bada orain asko badira-ere Kristauaren izena duenak, gutxi dirala Kristau izatea zer dan ongi begiratzen duenak.

§ III.

Nere Jaun Jaungoikoa! zeñ on, ta ongille maitagarria zeran zu neretzat! Milla esker Jauna zeren zure odol preziotsuarekin erosi, ta zure siniste on, ta lege garbira deitu nazun. Nondik niri nere Jaun Jaungoikoa-aren Seme, Zeruko Erreñuaren heredero, ta nere Jesus maitagarriaren senide izateraño altxatze au? Nondik niri onenbat dignidade ainbeste milloi uzten dituzula fedegabetasunaren gau illunean? Zer egin al nezake nik Jauna, zure ontasun, ta Misericordia geiegi oni erantzuteko? *Quid retribuam DOMINO pro omnibus quae retribuit mihi?*

Jauna gutxi da nik egin al guztia, zugaran dedan zor andi oni erantzuteko, baña alaere egin uste det emendik aurrera zure laguntzarekin bat, zuk nigandik nai dezun gauza bat. Egingo det Jauna bertatik alegiña nere oraindañoko eskergabekeriak Penitenziako

Sakramentuan desegiteko. Garbituko det Jauna, nere biotz au, ta prestatuko det Espiritu Santuaren jarleku izan dedin: ta bizi naizan gau egunetan aztu ez nadin nere zor andi onezaz, artuko det, Jauna, urtean egun bat bataiatu nintzanean egin zenidan ontarte andiaz oroitzeko, ta ill arte guzian zor dizudan amorioari erantzuteko egingo det zure lege Santak eskatzen duan bizitza garbi, eder bat. Amen.

OGEI TA AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da asko edo gutxi ote diran
salbatzen diran kristauak.*

Domine, si pauci sunt, qui salvantur? Luc. 13.

Ekusi dezu, Kristaua, aurreko egunetan, zein gauza andietarako egin zinduan zure Jaun Jaungoikoa; edo egin zinduala bera ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko, ta gero betikotasun guzian berarekin batean doatsu Zeruan izateko. Ekusi dezu, zein neurri miragarriak artu dituan Jaunak zuri billaerazteko zure betiko zori ona, ta bizitza doatsua. Au guzia egin gure alde gure Jaun onak! ta alaere Adanen umeak bizi dira bizi diran eran? Ai! Aldegin due guziak, esan dezakegu Dabid Santuarekin, aldegin due betiko zori onaren bidetik, eta galdu dira Jaunarentzat. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt.* Begirautrik munduari egin diteke bein batean Jesu-Kristori egin zioen galdea: Jauna, esan zion batek, gutxi ote dira Zeruratzen, edo salbatzen diranak? *Si pauci sunt, qui*

salvatur?. Galde oni nagokala begien aurrean ipiñi nai dizkitzut bi pensamentu.

LENENGO PENSAMENTUA

Asko, edo gutxi ote diran Adanen ondorengo guzien artean salbatu, ta salbatzen diranak?

Gure Jaun Jaungoikoak egiaz nai du, dio S. Paulok guziok salbatzea: *Deus omnes homines vult salvos fieri*. Zer egin eztu bere nai onekin guziok Zerurako bidean sar-erazteko, ta guziok Zerua irabazi dezagun? Baña nola gizonari eman zion gaitzerako, ta onerako eskua, etzion kendu nai izan esku au, dio S. Agustiñek. Emendik dator gizon eskergabeak, bere Jaun Jaungoikoa amatu, ta serbitu ordean, Jaun bera utzitzea, bere gura txarrai jarraitzea, ta bekatura dabilela, galtzea betiko bizitza doatsua. Baña gizonak leialki gordetzen baditu Jaunaren aginteak, ta kontuz jarraitzen badio Jaun beraren lege Santari, onek iristen du betiko zori ona. Era onetan betiko zori ona iristen duenak, edo salbatu, ta salbatzen diranak asko, ta asko dira Adanen ondorengo guzien artean.

Au aditzera eman zuan Dabidek esan zuanean: kon-
tatuko ditut, eta ondar-aleak baño ugariago izango
dira. *Dinumerabo eos, et super arenam multiplica-
buntur.* Au bera aditzera emango zigun S. Juanek zio-
enan: ekusi nuan talde andi bat jende-mota guzieta-
tik, eziñ iñork-ere konta zezakean adiñekoa. *Vidi tur-
bam magnam, quam dinumerare nemo poterat ex
omnibus gentibus.* Baña asko, edo gutxi ote dira beti-
ko galdu, ta galtzen diranen aldean? Txit gutxi, nere
Kristauak, txit gutxi, eta egia au ezagutzeko asko da
munduari bere jaiotzatik onera begiraldi bat ematea.
Nola bizitu ote zan mundua lenengo milla sei eun, eta
berrogeita amasei urteetan, edo ujalderaño? Seten
ondorengoak zenbait denboran ongi, Kainenak gaizki.
Asi ziran ezkontzaz elkarganetzen, eta mundu guzia
zikindu zan bekatuz, idolatriaz ta lujuriaz ainbestera-
ño, non esan izan zuan Jaunak: *Kenduko det lurraren
gañetik egin nuan gizona;* eta ez gizona bakarrik,
baita onekin batean abereak, edo animaliak berak-
ere, lurrean arrastaka dabilzanetik asi ta aidean
dabilzan egaztietaraño guziak; damutu zat alaba-
ña oek egiñaz: *Paenitet enim me fecisse eos.* Eman
zioskan munduari eun ta ogei urte bere gaiztakeriaz,
eta bekatu nazkagarriaz damutu zedin; baña alferra

izan; ta guziak bukatu zituan, mundu guzia estali zuan, ujalde batekin. Bakar bakarrik gorde ziran Noe, ta bere emaztea, iru seme, ta iru errañarekin, Jaunak esan zien eran arka, edo kutxa batean sarturik. Zenbat milloi anima etziran itoko ujalde artan? Eta guziak betiko galdu ziran zenbaiten iritzian. Egia da asko gizon jakintsuak uste duela, ito ziranen artean batzuek biurtuko zirala Jaungoikoagana.

Ta kastigu izugarri onen ondoren nola bizitu ote zan mundua? Nola? len bezala gutxi gora bera, laster alabaña zabaldu zan idolatria, ta loikeria-mota guzia, Sodoma, Gomorra, ta beste iru errirekin gertatuak aditzera ematen duan bezala. Ezin esan diteke, zertaraño loitua, ta usteldua arkitzen zan erri oetako jendea aragiaren atsegin zikiñetan. Asko da esatea, beartu zuala Jauna sufre, ta betunezko su ikaragarri batekin, Lot, onen emaztea, ta bi alaba ez, beste erri aetan bizi ziranak, eta erriak berak auts biurtzera. Eta jende oek guziak amildu ziran betiko infernura. Ordu-tanik Jesu-Kristoren etorreraño zuzendu ote zan mundua? Batere. Israeltarren artean ezagutzen, eta adoratzan zuen gure Jaun Jaungoikoa, ta gañerako mundu guzia jainko gezurrezkoen itsumenean bizi zan. Argatik Dabidek deadar egiten zuan. Guziak

aldegin due Jaunagandik, eta galdu dira. Eta Isaias Profektak zion zabaldu du infernuak bere kolkoa, ta neurririk gabe idiki du bere eztarritzar izugarria. *Dilatavit infernus animam suam, et aperuit os suum absque termino.* Etorri zan munduaren salbatzallea, ogei ta amairu urtean bizitu zan gizonen artean itzez, eta obraz Zerurako bidea erakusten, eman zuan gurutzean bere bizitza, ta ipiñi zuan bide bera ederki prestatua. Ta alaere munduaren lau bazterrak fedea- ren argi gabe bizi dira, Katolikoen erriaz osteron- tzean, eta oetan-ere bekatuarn lloloa errotu, ta zabaldu da nortaki zenbateraño. Adanen ondorengo guziaz begiratzen badiegu beraz txit gutxi dira salba- tu, ta salbatzen diranak galtzen diranen aldean. Zein gauza negargarria au gertatzea ainbeste Jesu-Kristo- ri kosta zaizkan animakkin! Aita Santu Inozentio iru- garrenari esan zion bein gizon Santu batek: ekusi zituala animak infernura amiltzen, elurra ugari ari danean elur-maloak lurrera erori oi diran eran.

BIGARREN PENSAMENTUA

Kristauen artean aso, edo gutxi ote diran salbatzen diranak, galtzen diranen aldean.

Salbatzen diran Kristauak berenez asko dira, eta aurtasunean iltzen diranak barrunen sartzen dirala, geiago izango dira salbatzen diranak galtzen diranak baño; jaiotzen diranetatik asko, edo alde aldean irugarren parte iltzen dira zortzi, edo amar urteetarako. Baña Kristau aziaz itzegiten dala, salbatzen diranak gutxi dira galtzen diranen pare ipintzen badira. Au aditzera eman digue S. Basiliok, S. Agustiñek, S. Juan Krisostomok, S. Gregoriok, eta S. Bernardok. S. Juan Krisostomok Antiokiako erri andian predikatzen ari zala esan zuan: zenbat uste dezue erri onetan dirala salbatuko diranak? *Quot esse putatis in civitate ista, qui salvi fiant?* Gauz illun, edo samiña da esatera noana, baña esango det. Doi doia arkituko dira ainbeste millaren artean eun salbatuko diranak, eta oez-ere dudan nago. *Vix in tot millibus inveniri centum possunt, qui salvi fiant, quin et de his dubito.* S. Gregoriok dio: asko dira fede Santara datozenak, eta gutxi Zerura dijoazenak. *Plures ad fidem veniunt, et ad Caeleste Regnum pauci perducuntur.* Eta ez dira gutxiago ikaratzeko gauzak S. Bizente Ferrerrek,

Hugo Kardenalak, Agreda beneragarriak esaten dizki-guen gauzak. Baña zertarako nekatuko gera gizonen esanak aitatzen baldin Salbatzalleak berak esan bazuan: asko dira deituak, baña gutxi autuak? *Multi sunt vocali pauci vero electi?*

Ta oraindik-ere ezin sinistu badezu gutxiago dirala Kristau azien artean salbatzen diranak galtzen diranak baño, begira alde batetik gure fede Santak erakusten duanari, ta besteti gizonen bizitzari. Gure fede Santak erakusten digu, ez dala Zeruan sartuko gauza loirik, edo berbera dana bekatuarekin zikindua dagoanik. *Non intrabit in eam aliquid coinquinatum.* Emen-dik Zerura nai duanak edo garbi gorde bear du bataioan Jaunak eman zion graziaren soñeko ederra, edo penitentiarekin, au da damuz, eta negarrez gar-bitu bear du bere anima. Eta nork eztaki, zein gutxi diran bataioan artu zuen graziaren soñeko ederra garbi gordetzen duenak? Nork eztaki, Adanen umeak ozta gaitzarekin onaren ezagueran sartzen dira, gaitzera dijoazela lasterka, atearen umeak urtara dijoa-zen, eran? Gutxi dira beraz bekatuz loitu ez diranak, eta inozenziaren bidetik salbatzen diranak. Eta ugari ote dira egiaz eta biotzetik Jaungoikoagana damuz, eta negarrez biurtzen diranak, bekatuan erori ezke-

ro? Geiago dira bekatuan oatuak bezala bizi diranak Jaunagana biurtzen diranak baño, geiago gaizki konfesatzen diranak ongi konfesatzen diranak baño, gizon jakintsu askok esaten diguenez, ta neke da bestela izatea gure usadio, gure zabarkeria, ta bizimoduari begiratzeko badiegu. Zenbat, eta zenbat arkituko dira ongi konfesatzeko nola prestatu eztakienak? Zenbat alaere Jaunaren itzagandik iges egiten duenak? Zenbat nola nai Pazkoa igarotzearekin urte guziko ongi daudela, uste duenak? Zenbat bekatua, ta bekatuak bideak, etxeak, lagunak osotoro utzitzeko biotzik ez duenak? Zenbat eren oitura, griña, ta genio txarrak garitzeko neurriak artu nai ez dituenak? Zenbat lotsaz bekatuak edertzen, edo ixilik gordetzen dituenak? Aita Frai Luis Granadakoak begiraturik Kristauen bizimoduari dio: Kristauen talde, ta gorputzak oñetik asita bururano alde aldean ez daukala osasuna osoarekin dagoan puska, edo parterik.

Baña egin dezagun kontu, bekatariak geienak biurtzen dirala Jaunagana egiaz. Gure fede Santak erakusten digu gañera, ez dala asko salbaziorako nola nai Jaunagana biurtzea; baizik iraun bear dala bizitza onean, eta bekatutik aldegiten dala. Ill artean irauten duana salbatuko da dio Jesu-Kristok. *Qui per-*

severaverit usque in finem hic salvus erit. Zenbat, eta zenbat Kristau betiko su, eta garren artean arkitzen dira noiz bait ongi asi ziranak? baña galdu ziran, zeren iraun etzuen. Zenbat garizuma edo Misioren batean ongi konfesatu ziranak? ta alaere beti erretzen egon bearrak dira, zeren iraun etzuen onean. Esan gidazu orain, Kristaua, Pazkoetan, edo Misioetan Jaunagana biurtzen diran bekatarietatik asko ote dira bekatuta biurtu gabe dirauenak? Izango ote dira irutatik bi? Ez. Izango ote dira erdiak? Ez. Izango ote dira irutatik bat? Ez eta orrenbeste-ere, gizon jakintsuen iritzian. Oetatik batek dio: *Poztuko nintzake ni, baldin Misio batean Jaunagana biurtzen diranetatik eunetatik ogei ta amarrak iraungo balue bekatuta biurtu gabe; baña nik esan degikezuet, ozta dirala ogei.* Au letraz ezarria utzi zuan Aita Kalataiud'ek. Ta au onela bada, zer da zer miretsi gutxi izateaz salbatzen diran Kristauak galtzen diranen aldean?

Gure fedea erakusten digu Zeruko erreñua irabazten dala bortxaz, au da gure gura, griña, ta jenio errebesak eskuratzeko, zuzentzeko, edo ezitzeko, saiatzen gerala, eta obra onak egiteari kontuz jarraitzen diogula. *Regnum Coelorum vim patitur.* Eta nork eztakus, Kristaurik geien geienak ez duela konturik

beren griña txarrak eskuratzeko? Gazteak gaiztakeriari ederretsi ezkeru, lenago utziko du larrua bere bide okerrak baño: eta zarrak ez oi due biotzik bere jenioai kontra egiteko. Esana dago: *antz azturak obiraño*. Atzenean Eskritura Santak esaten digu, bekatarien eriotza izan oi dala guztiz gaiztoa: *Mors peccatorum pessima*. Ez zergatik, bekataria osotoro Jaunagana biurtzen bada, barkazioa ukatzen dion Jaunberak, baizik zeren neke dan, ta gutxitan gertatzen dan eriotzako denboran bekataria bear bezala Jaunagana biurtzea. Gaitzak alde batetik, bere bizitza gaiztoak, eta infernuaren beldurrak bestetik, utzi oi due alabaña bekatari tristea ezertako ez dala. Emendik atera dezakegu erraz Kristauen artean-ere gutxiago dirala salbatzen diranak, eta gertatzen dala Salbatzallearen esana. Asko dira deituak, baño gutxi autuak. *Multi sunt vocati, pauci veri electi*. Goazen oraiñ gai onen gañean gure zerbait pensatzera.

Lenengo pensamentua: Asko edo gutxi ote diran Adanen ondorengoan artean salbatu, ta salbatzen diranak.

Bigarren pensamentua: Kristauen artean-ere asko, edo gutxi ote diran salbatzen diranak galtzen diranean aldean? Gure Salbatzalleak dio asko dirala

deituak, baña gutxi autuak. *Multi sunt voacti, pauci vero electi.* Egizue alegiñak bide, edo ate estutik sartzeko. *Contendite intrare per angustam portam.* Ai! ta ni salbatuko diran orietakoa, edo besteetakoa ote naiz? Emen ixilik egon bear da gutxi batean gauz oetan pensatzen.

FRUTUA

Emendik atera bear degun lenengo frutua da: Jau-naren aurrean ongi damutzea oraindañoko gure bizi-tza anima-galgarriaz. Bigarren frutua, bertatik ar ezazu konfesio on bat egiteko, bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitako asmo osoa. Au da, Jesu-Kristok esaten digun bezala, ate estutik sartzeko alegiña egitea. *Intrate per angustam portam.* Irugarren fruta ongi konfesatzeko, ta aurrera bekatura ez biur-tzeko bear dezun grazia iritxi dezazun, ar ezazu zure bitartekotzat Birjiña guztiz Santa doloz betea. Atze-nean Birjiña beraren onran atoz bederatzi urren onetara, ta oitu zaite Jainkoaren itz Santura, bezpera, ta errosariora etortzera. Goazen oraiñ ongi konfesatzeko prestaera ikastera, ta egitera.

OGEI TA AMABIGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da kristaua asko dirala deituak,
baña gutxi autuak.*

Multi sunt vocati, pauci veri electi. Math. 20

Asko dira deituak Jesu-Kristoren fede, ta lege Santara, ta alaere gutxi dira autuak Zeruko erreñurako. Au aditzera eman zigun Jesu-kristok esan zuanean: asko dira deituak, baña gutxi autuak. Gauza negargarria! Ainbeste neurri eder artu gure Jaun onek guri betiko bizitza doatsua eman naiez; ta alaere gutxi izan Zeuratzen diranak galtzen diranen aldean! Ta zu, Kristaua, ni, eta emen arkitzen geran guziok norako ote gera? Eztakigu. Guk dakiguna da denbora, edo urte gutxiren barrunen izango gerala edo betiko zori onekoak, edo betiko zori gaiztoakoak. Guk dakiguna da Eliz Ama Santaren barrutian nastuak dabiltzala onak, eta gaiztoak, baña bere denboran bereziko ditu Jaunak, eta ipiñiko ditu onak alde batean, gaiztoak bestean; lastoa, ta belar gaiztoak alde batean, ale

garbia bestean. Alaere Elizaren barrutian nastuak badabiltza-ere onak, eta gaiztoak, baditue eren marka, ta siñaleak, norenak diran, ta norentzako dauden, aditzera ematen duenak; batzuek markatuak arkitzen dira Zerurako markaren batekin, besteak infernurakoarekin. Nai dezu zuk, Kristaua, jakin norako siñale, edo markarekin arkitzen zeran? Ori zu bada onetarako bi pensamentu.

LENENGO PENSAMENTUA

Arkitzen ote da zugar zerurako marka, edo siñaleetatik batere?

Baldin zu, Kristaua, bekatu larriren batean eroria bazaude, ta aren mendetik irtenkizun, ezta bitarte orretan zugar arkitzen Zerurako marka, ta señale egiazkorik batere; bekatuan zauden bitartean alabaña zera Jainkoaren etsaia, eta etsai galgarriaren umea. S. Benitoren ordenan bizitu zan Pelaio zeritzan Erlijos bat, eta aren bizimoduari begiratuta nork nai esan zezakean Zerurako markatua zegoala. Alaere iltza laster aren gorputza irten zan obiaren gañera sua,

ta garra zeriola; aitortu zion bere agintari, edo buru zuanari, nola betiko infernura zan, zeren erlijioan sartu baño len abereren batekin egin zuan bekatu bat konfesatzeko biotzik izan eztuan. Ezin dateke beraz Zeruko marka, ta siñale egiazkorik bekatutik bat irten dedin artean. Gañera bekatutik irtete utsa ezta oraindik batek Zerura bear duala, aditzera ematen duan marka, ezpadakar berekin beste siñalerik, asko dira alabaña, edo geienak noizbait bekatutik irten zue-nak, baña gutxi bekatura biurtzen ez diranak. Enzun itzatzu bada oraiñ, Kristaua, Zerurako marka, ta siñaleetatik zenbait, eta begira-ezazu oekkin arkitzen ote zeran.

Elizako guraso, ta gizon jakintsuak asko marka, ta siñale ukitzen ditue gai onetan, eta oetatik bata da Jaunaren itz Santua, sermoiak, ta dotrinak umilki, ta Zerurako bidean aurreratzeko egarriarekin entzutea. Erbesteturik dagoan batek gogoz entzuten ditu bere erriko berriak. Ardiak entzuten du bere artzaiaren deia, ta jarraitzen dio. Ala egiten due Jesu-Kristok beretzat autuak dauzkan animak. Marka au Jesu-Kristok berak aditzera eman zigun. Jaungoikoarena danak esan zien Juduai Jainkoaren itza enzuten du. *Qui ex Deo est verba Dei audit.* Arkitzen ote zera,

Kristaua, marka onekin? Zerurako autuen bigarren marka da Jainkoaren beldur santu bat. Beldur au duan animak, alde batetik amatzen du bere Jaungoikoa, bere Aita, ta ontasun guztiz maitagarria bezala, bere ustea, ta esperantza ipintzen du beragan; baña beste aldetik ezagutzen du zeñ gauza gaiztoa, ta samiña dan Jaun au utzitzea, ta emendik sortzen zaio Jaun beraren kontra bekatu egiteko beldur santu bat, eta ongi baño-ere obeto gorde nai lituke Jaunaren Aginteak. Marka au aditzera emana dago Eskritura Santaren asko lekutan. Zori onekoa Jaunaren beldurra iritxi duan gizona! Au duana noren pare ipiñiko, edo noren antzeko egingo da, dio Eskritura Santak. *Beatus homo, cui donatum est habere timorem dei! Qui tenet illum, cui assimilabitur?* Zori onekoak Jaunaren beldurtiak, ta Jaunaren lege Santa kontuz gordez bizi diranak, dio Dabidek. *Beati omnes, qui timent Dominum, qui ambulant in viis ejus.* Atozea, Kristaua, zukan ekusten ote da bigarren marka au? Zerurako autuen irugarren marka da etsairik andienak-ere biotzetik amatzea, ta txarkeriarik egin ezpalue bezala ongi artzea dala itzegitean, dala gure bear diranean. Marka au Jesu-Kristok asko bider aditzera eman zuan, et bein batean esan zuan: nik esaten

dizuet: *Ego autem dico vobis*: ama-itatzue zuen etsaiak; on egin giezue zuei gaitz nai izan dizuenai, ta erreguezazue zuei atsakabeak emanaz, ta ez diran gauzak altxatuaz dabiltzanak-gatik zuen Aita Zerukoaren Semeak izan zaitezten. *Ut sitis filii Patris vestri, qui est in Caelis*. Ekusten dezu, nola Jainkoaren semeen marka dan etsaiak amatzea? Adiskideak amatzea geiena da, baña etsaiak amatzea Kristauna bakarrik, esan zuan Tertulianok. *Amicos diligere omnium est, inimicos autem, solorum Christianorum*. Arkitzen ote da marka au zugaran, Kristauna?

Zerurako autuen laugarren marka da lagun urkoen neke, ta premiaz urrikaldutzea, ta alegiñean berai laguntzea. Marka au-ere Jesu-Kristok aditzera eman zigun. Zori onekoak urrikimentua duenak, dio. *Beati misericordes*. Zerurako autuen bostgarren marka da, utsegiteren batean erortzen diranean, umilki Jaunaren aurrean beren utsegitea ezagutzea, lenbait len barkazioa iristeko neurriak artzea, eta Zerurako bideari len baño ere arreta geiagorekin ekitea. Soldadu batek, zauri andi bat pelean dabillega artu, edo atera badu, ta zauria estuta bereala ekiten badio etsaiari len baño-ere gogorkikago, nork nai esango du, biotz andikoa, ta pijoa dala soldadu au; eta au

bera esan diteke utsegiteren bat gertatu ondoan len-
bait len Jaunagana biurtuta bizitza onari kontuz eki-
ten dion Kristauaz. Ala egin zuan Dabidek. Zerurako
autuen seigarren marka da Jaunagandik, lagun urko-
agandik, edo nondik datorkien neke, ta gurutzeak
Jaunaren izenean ongi artzea, ta igarotzea.

Marka au, ez bein bakarrik, aditzera eman zuan
Jesu-Kristok, eta Tobiasi esan zion S. Rafaelek: zeren
Jainkoaren gogokoa ziñan gurutze, ta nekearekin pro-
gatzea gauza bearra zan. *Quia acceptus eras Deo,
necese fuit, ut tentatio probaret te.*

Zerurako autuen zazpigarren marka da sarritan,
eta ederki prestaturik Sakramentuak artzea, Meza
nagusi, bezpera, errosario, ta gauz onetara kontuz
etortzea. Bidez dijoanak kontu egiten du bere ordue-
tan artzeko bear duan jana, ta edana; ta era berean
Zerurako bidea daramanak, aunatu ez dedin, kontuz
artzen ditu Sakramentuak, ta ezin bestean baizik ez
ditu utzitzen Jaunaren etxean, edo Elizan egiten diran
gauz onak; badaki alabaña era onetan ematen ditua-
la Jaunak bere laguntzak ugariena. Zerurako autuen
zortzigarren marka da Birjiña guztiz Santaganako
jaiera, edo debozio andi bat, beraren onran aldegiten
dala bekatuaren bideetatik, ta egiten dirala obra

onak. Ala esaten digu S. Juan Damaszenok. Ala S. Anselmok. Bederatzigarren marka Zerurakoa da, bekatura biurtu gabe irautea, ta au da beste marka, ta siñale guzien koroa. Ill artean irauten duana salbatuko da, dio Jesu-Kristok. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Begira ondo, Kristaua, marka oekin arkitzen ote zeran, eta oekin arkitzen bazera, zoaz aurrera zere bidean kontuz, Jaunak deitu zaitzan artean.

BIGARREN PENSAMENTUA

Zerurako marken ordean arkitzen ote diran zugaran, etsaiak bereai ipintzen diezten markak?

Jesu-Kristok beretzat autuak dauzkan animak markatuak dakartzi Elizaren barrutietan aditzera eman ditudan marka oekkin.

Eta Deabruak-ere beretzat dauzkan bekatariak markatzen ditu ber gisara; ipintzen ditu unai kontuzkoakkin, eta darabiltzki nai duan eran, nai duan lekuan, eta nai duan lagunakkin. Ai! ta nolako taldeak! zein ugariak! Infernurako marken artean lenen-

goa bezala esan diteke Jaunaren itz Santua aditzetik, dotrina, sermoi, bezpera, errosario, Sakramentu, ta gauz onetatik igesi ibiltzea. Argatik zuek aditzen ez dituzue Jainkoaren itzak, zeren arenak etzeraten, esan zien bein Jesu-Kristok Juduai: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis*. Eta marka au infernurako marka bada, begira, Kristaua, zenbat, eta zenbat markatuak egongo diran arako egungo egunean? *Infernurako bigarren marka* da Jaunaren legeko Ministroen, eta Erlijioko ordenetan bizi diranen kontra nolana itzegitea, oni, edo ari utsegiteren bat gertatzen bazaio guzien onra, ta izena oiñpean erabiltzea, al dan txarkeria estadu onen kontra egitea, ta egiteko moduak, eta bideak prestatzea. Jakiña da, zein kastigu andiak egin zituan Jaunak Israeliten kontra, zeren gaizki itzezin zuen Moisesen, eta Aaronen kontra. Jakiña da, nola Moisesen arreba Maria egon zan ezkabiz, edo lepraz betea, ta besteen artetik botarik, zeren bear etzan bezala erausian egon zan anaiearen kontra. Jakiña da, nola dion Eskritura Santak: honra ezazu zure Jaungoikoa zure anima guziaz, eta onra itzatzu Apaizak: *Honora Deum ex tota anima tua, et honorifica Sacerdotes*; eta berriz dio: zuek ukitzen zaituenak, ukitzen du nere begiko ninia: *Qui tangit*

vos, tangit pupillam oculi mei. Ta lege zarreko Apaizak gatik au bazion Jaunak, zer izango da lege berrikoak ezertan ez idukitzea? Lege zarreko Apaiztasuna alabaña etzan Jesu-Kristoren legekoaren erruñu, ta gereiza besterik. Elizaren asieratik gaurdaño ari dira herejeak ala Apaizen nola Erlijiosoen kontra beren puzoia zabaltzen. Arrioren ondorengoak, Luterok, Kalbinok, Wiklef, ta beste hereje asko aritu dira Elizako Ministroen, ta Erlijiosoen kontra bata alde batetik, bestea bestetik, ta oetatik zabalduaz joan da izurria Katoliko askotara, batezere ogeita amar urte oen barrunbean. Zer etorri da emendik? Gutxitu da Eliz Ama Santari, Jaunaren Ministroai, Erlijiosoai zor zaten onra, ta errespetoa; gaiztotu dira oitura, edo kostunbreak; ondatu dira erriak, eta amilka dijoaz bekatariak dagoten lekura. O! denbora illunak! denbora negargarriak! Zertan geratu bear ote dezue? *Infernurako irugarren marka* da, Jaunaren beldur Santua galdurik, ardura gabe bekatua bekatuaren gañean egitea, era onetan bizi danak alabaña aditzera ematen du, ez daukala ezertan bere Jaun Jaungoikoa, ta naiago duala bere gogora ibilli Jaunak agintzen diozkan gauza, edo atsegin-kontu guziak baño. *Infernurako laugarren marka* da, iñoiz bizitza onaren

bideari ekinda, bereala aspertzeta, eta leneko bizitza gaiztora biurtzea. Eri, edo gaixo dagoan bat gaitzaren berrizkaturak sarritan artzen duanean, etsitzen degu aren osasunaz. Ta au bera gertatzen da geienean bekatuaren berrizkaturarekin. *Infernurako bostgarren marka* da atsegin zikiñetara oituztea, ta itsutzea. Ez due oek parterik Zeruko erreñuan, dio S. Paulok. S. Jeronimok esaten digu, griña lizun onen bukaera dala infernua. *Cujus finis gehena. Infernurako seigarren marka* da, munduko izan, edo ondasunetan biotza ipintzea, ta lagun urko beartsuai gogortasunarekin begiratzea. Non dira urrea, ta zillarra gordetzen zuenak? Au da oetan biotza ipintzen zuenak? *Ubi sunt... qui argentum thesaurizat, et aurum?* Jatsi ziran infernura, dio Baruk Profetak. *Ad inferos descenderunt.* Zoazte nigandik betiko surtara, esango die Jaunak azken kontuetan. *Discedite a me maledicti in ignem aeternum.* *Infernurako zazpigarren marka* da munduko onrari itsatsia idukitzea biotza, eta prest egotea alde onetatik ukitzen gaituanaren kontra edozein gauza egiteko, aren faltak agertzeko, eta edozeñ erausi egiteko. Oek alabaña ez due biotzik eren buruak ukatzeko, ta Jesu-Kristoren aginduak egiteko. *Infernurako zortzigarren marka* da munduari, edo

gure aide, adiskide, auzo, ongille, edo laguntzalleai
atsakabe emateko beldurrez, prest bizitzea ezaguera
zuzenak, eta Jaunaren lege Santak debekatzen dituan
gauzak egiteko, edertzeko, edo estaltzeko edertu,
edo estali bear ez diranean. Tranze batean nori nai
gerta dakikeo argala izatea, ta utsegitea, baña era
onetan prest bizitzea munduaren beldurrez Jaunaren
lege Santa autsitzeko? Ez ain erraz; eta au da etsaia-
ren umeen siñale, ta marka txit agiria, ta nabarbena.
Atzenean infernurako marken artean txikiena ezta
etsaiari barkatu nai ez izatea, itzegitea, ta diosala
ukatzen zaiola bizitzea. Mira ezazu orain, Kristaua,
zure bizitza zutean eta zearrean, eta begira norako,
ta norentzat markatua zauden. Arkitzen ote zera
Zerurako markarekin? edo arkitzen ote zera infernu-
rakoarekin? Eta zer egin ote dezake infernurako
marka beregan dakusanak? Zer? lapurraren markare-
kin bere ardia dakusanak egiten duana. Kentzen dio
lapurraren marka, ipintzen dio berea, eta aurrera
kontu obeto egiten dio. Au bera egin bear dezu zuk-
ere bekataria; kendu bear dezu konfesio on batekin
zeregandik Deabruaren marka ori, eta ipiñi bear dezu
bizitza onari jarraituaz Zerurako marka. Ezpazaude
Zerurako autua, egizu, izan zaitezela autua, esan

zuan S. Agustiñek. *Si non es praedestinatus, fac ut praedestineris*. Goazen orain gai onen gañean gutxi batean pensatzera.

Lenengo pensamentua: arkitzen ote da zugan Zerurako marka, edo siñaleetatik batere? Arkitzen bada, zoaz aurrera zure bidean zabartu gabe.

Bigarren pensamentua, baña Zerurako marken ordean ez ote dira zugan arkitzen infernurako markak? Emen isilik gutxi batean egon bear da gauz oetan pensatzen.

Pensamentu oetatik atera bear dituzun frutuak dira oek. Lenengo frutua: egin dezagun negar gure oraindañoko bizitza anima galgarriaz. Bigarren frutua: bertatik artu dezagun konfesio on bat egiteko, bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitako asmo osoa. Era onetan desegingo degu infernurako marka. Irugarren frutua, ongi konfesatzeko, ta aurrera bekatuta ez biurtzeko grazia iritxi dezazun, ar ezazu zure bitartekotzat Birjiña guztiz Santa doloz betea. Atzenean Birjiña beraren onran zoaz obra onai jarraituaz. Goazen oraiñ ongi konfesatzeko prestaera ikastera, eta egitera.

OGEI TA AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da zein gauza gozoa eta ariña dan Jesusen
lege Santa gordetzea.*

Jugum enim meum suave est, et onus meum leve. Math.

11

Mundu galdu-doakabeak egiten du gurekin, Moisesek Kanaango bazterrak ekustera, ta miratzera bidaldu zituan zelatariak egin zuena. Israeldarrak bizitu ziran denbora luzeetan Ijitarren mendean, ekusten zituela nork daki zenbat neke, pena, eta gogortasun. Urrikitu zan Jauna Jakob Patriarkaren jatorria era onetan ekusirik; eta Moises giari, ta buru ematen ziela, atera zituan katiberio gogor artatik. Agindu zien Jaunak bere Israeldarrai Kanaango, ta inguruetako lurra: ta lur ain gozoa, zoroa, ta ugaria, non, *esnea, ta eztia* darion, lurra Eskritura Santak deitzen dion. Alderatu ziran Israeldarrak bazter artara; ta an sartu baño len, bidaldu zituan Moisesek Jaunaren agintez amabi zelatari, Kanaango lekuen, eta gauza guztien berriak eramateko. Egin zuen zelata-

riak Moisesek agindua; ta guztiai begien aurrean ipintzeko, zein bazter zoroak ziran ekusi zituen bazterrak, artu zuen mats adar bat mordo elduz beterik zegoana, ta aga batean ipiñirik eraman izan zuen bi lagun artean. Zelatari oek, ekusia ekusirik-ere, Josue, ta Kaleb ez, besteak Ejipton zeuden beren gogoz, ta ez Jaunak agindurikako lurrean; ta asi ziran Israeldarren artean asko gezur barreatzen, eta ipiñi zituen oek Ejiptora biurtzeko zorian. Lur ark irintsitzen ditu, zioen gezurti aek, irintsitzen ditu an bizi diranak. *Devorat habitares*. Andiak, eskergabeak, ikaragarriak dira ango gizonak; ta arkitu degu jiganteen mota, edo jatorri bat ain andia, non larapoak, edo langostak baizik ez giñala zirudian aen aldean. *Quasi locustae videbamus*. Israeldarren mandatari gezurti oen eran erausi oi due munduaren adoratzalleak Jesu-Kristoren lege santaz, bizitza on, ta birtutearen bidez. Illuntasun, eta tristuraz erkituak, eta bukatzeko zorian bizi dirala, esango due, gure lege santa benaz, eta biotz osoz gorde nai duenak; eta au dala ona eremuetan, edo erlijiotako paret artean ezkutaturik daudenentzat; ez jendeen artean bizi diranentzat. Itz batean, munduaren jarraikin oen iritzian Jesu-Kristoren Lege Santa arantzatz, elorritz, eta larrez guztia

josirik arkitzen da. Oituak daude oek munduaren bazka loietara, eta eztakie ezcurraren, eta ezcurraren antzeko gauzen berririk baizik. Ez due biotzik janari oek uzteko, eta gure Salbatzalle Jesus maitagarriari jarraitzeko; ta badarauste edozein zorakeria, ta edozein gezur Salbatzalle berak agintzen digunaren kontra. Ta gauz arrigarria! izanik, mundua esaten diogun, Momo, edo idolo au beren griña, ta pasioen zorabioz beterikako jende utsa, alaere munduaren adortzalleak zabalduarik arkitzen dira bazter guztietan, erri andietan, bitarteetan, txikietan, gizonetan, emakumeetan, zarretan, gazteetan, eta estadu guztietan. Doi doia arkitzen da, Jesu-Kristo utzirik, eiaka, ta lasterka munduaren ondoren ez dijoanik, naiz kosta osasuna, onra, ondasunak, eta bizitza bera; naiz begien aurrean ekusi infernuaren eztarritzar izugarria zabalduarik, eta gu irintsitzeko prest. Esan diteke alde aldean Dabid Santuak bere denboran ziona: Aldegin due guztiak Jaunagandik, eta galdu dira, ta ezta arkitzen gauz onik, bear bezala beintzat egiten duanik. Biur gaitezen, nere Kristauak gerengana, ta enzun dezagun gure Salbatzalleak esaten diguna: Nere legearen uztarria gozoa, ta leuna da. *Jugum enim meum suave est.* Ta nik ipintzen dedan karga ariña.

Et onus meum leve. Itz oei nagotela begien aurrean ipiñi nai dizuet. 1.a zein gauza gozoa dan Jesusen Lege Santa gordetzea. 2.a Zein gauza erraza, ta ariña. 3.a Aditzera emango dizuet egun oroko jaiera bat, txit asko laguntzen duana Jaunaren legea gordetzen. Enzun nazazue kontuz.

* * *

Ezagutzeko zuk, Kristaua, zein gauza gozoa dan zure Salbatzallearen legea, ta lege berak agintzen duana gordetzea, begira ondo nor dan lege au ipintzen diguna? Noren onerako ipintzen duan; zer ondatsun, ta zer atsegin kontentuak prestaturik dauzkan bere maitatzalleentzat Jaunak, ala emen nola Zeruko Jauregi ederrean? Nor dala uste dezu, Kristaua, zure Salbatzalle Jesus maitagarria? Au da gure Jaun Jaungoikoa bera, guza guzien egille andia, ta gu ezer ezetik atera ginduana, utzirik beste asko, edo ezin kontal, beren ezer ezean. Au da munduko etxe eder galant au guretzat prestatu zuana, guk bear ditugun gauza guztiakin. Au da gau, ta egun gure bizitza gorde duana, ta gure perill, eta premia guztietan guri laguntzeko prest egon dana. Au da, bekatuaren, eta

etsaiaren mendetik gu ateratzeko, gizon egin ta gurutzean bere bizitza eman zuana. Au da, gu bataioko Sakramentuarekin Adanen bekatuaren mantxatik garbitu gaituana, ta Eliz Ama Santaren ume egin, utzirik beste asko edo bataio gabe, edo federik ez duen jendeen artean. Au da, guganako ongina, ta amorioak gañez egiñik, Aldareko Sakramentuan geratu nai izan zuana, gurekin, eta gure artean egoteko, guri emateko bere gorputza, bere odola, bere anima, bere biotza, bere Jainkotasuna, itz batean, bera dan guztia. Izanik Jaun au Guzialduna, ezin alae-re eman digun baña geiago eman zegikegun, izanik eziñ geiagoraño jakintsua, etzuan jakin zer geiago eman; ta izanik guztiz aberatsa, ta gauza guztien Jabea, etzuan izan zer geiago guri eman, esan zuan S. Agustiñek. Au da atzenean izate ezin geiagoraño eder, on, eta maitagarria. Ta munduko Errege, Prinzi-pe, ta gizon andiak serbitzea gauza gozoa, ta atsegin-kontentu andiarekin egiten dana bada: zer izango da gure Salbatzalle Jesus maitagarria serbitzea, ta bera-ren Lege Santa gordetzea, izanik dan bezalakoa Jaun au? Ta alaere, Jaun au utzirik, jarraitu izan diogu munduari, munduko ezerezari, iduripenai, losentxa, eta gezurrai? Ausi degu ainbeste bider Jaunaren lege

Santa? Altxa gera beraren kontra, ta esan degu ez degula serbituko? *Confegisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti: non serviam.*

Noren onerako ote dira gure Salbatzalleak bere legean agintzen dizkigun gauzak? Noren ezpada gure onerako? Ez du Jaunak betiraunde guzian, edo bere eternidadean gu bezeñ serbitzari zirzillen bearrik izan, eta era berean oraiñ ere ez da gure bear neurri-rik, eta mugarik gabe doatsua beregan izateko. Ta baldin bere lege Santan agintzen badizkigu gauzaren batzuek, eta debekatzen besteak: ori guztia da gure onra, ta onerako. Artu gaitu alabaña, Jaungoiko bera- ren Semeen artean, egin gaitu bere senide, ta Zeru- ko Erreñuaren jabegai; ta nai du gu bizi gaiten, onra onen goi, ta andia ez galtzeko eran. Eta ez da gauza gozoa Jaun bat onen ongillea serbitzea? Ezta, dio S. Ambrosiok, Jesu-Kristo serbitzea baño onra ta dignida- de andiagorik.

Ta zer esango degu, Jaunak bere maitatzalleen- tzat prestaturik dauzkan, ondasun, atsegin-kontentu, ta gozotasunai begiratzen badiegu? Ondasun, eta atsegin-kontentu oek ematen diezte batzuek berta- tik, eta besteak agintzen diezte deserri au bukatzen daneko. Emen Jaunak bere serbitzariai ematen diez-

tenak dira, ez kanpokoak, eta azalekoak, baizik barrengoak, eta biotzean artzen diranak. Ematen die benik beiñ biotzeko pakea bat, munduko gurutzeak, penak, samintasunak gozatzin, eta arintzen dituana. Ala gertatzen zitzaion S. Paulori, ala beste anima onai. Eztakie munduaren adoratzalleak barrengo atsegin-kontentu oen berririk, ta ez dira berak egiaz beñere poz, eta kontentu. Egon ditezke algaraz, ibilli ditezke nai duen eran, eta nai duen lekuetan, baña biotza geratuko zate beti utsa. Galde ezperen S. Agustiñi, eta Salomoni. Progatu zituan S. Agustiñek Jaungoikoagana biurtu zan baño len, munduko atsegiñak, progatu zituan gero animari dagozkanak, eta dio: ez dirala bekatariak beñere egiaz poztutzen, baizik egiten dituela pozaren jestuak, eta iduripenak. *Peccatores non proprie gaudent, ses gestiunt.* Ez dio gutxiago Salomonek, munduan arkitu al ditezkean atsegin guztiak progatu, ta dastatu ondoan. Progatu zituan ondasunetan gorderik daudela uste dan, atsegin-kontentuak. Eta ekusi zuan etzekartela barrengo kezkek, arantzak, eta arazoak baizik. Progatu zituan munduaren laudarioak, onrak, eta losentxak, eta gertatu zitzaion oro bat. Progatu zituan berjera ederrak, musikak, eta jauregi apainduak begiai, ta belarriai,

eman oi diezten kontentuenak. Progradu zituan gorputzaren atsegin lizunak, inguruetako Errege, ta Prinzipen alaba ederrak deitzen zituala. Ez nien ukatu nere begiai gura zuen gauzarik; eta ez nion eragotzi nere biotzari, nai zituan atsegin, eta gustoetan gozatzeari, dio berak. Dastaturik gisa onetan, gogora zitzaizkan, munduko atsegin mota guztiak, esan zuan: utsa da, ezereza, ta iduripena guztia. *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas*. Baña bere Jaun Jaungoikoa leialki serbitzen, eta biotz osoz amatzen duan anima, neke, ta gurutzeak inguraturik dagoanean ere, arkitzen da barrenen pake gozo batean, naigaberik andienetan ere Jaunaren naiari, edo borondateari begiratzen diola, itsas-orratzak norte-izarrai beti begiratzen dion eran. Gauza batek bakarrik samindu, eta naigabez bete dezake Jauna amatzen duan anima, eta au da igarotako bizitzan egindako utsegi-teaz oroitzea. Oroipen onek umill erazten du bere Jaunaren aurrean: onek eragiten dio ugari negar, eta suspirio; baña negar oek alde batetik samiñak badira, bestetik munduan diran kontentu guztiak baño gozoagoak dira. Ala dio S. Agustiñek ongi gauz onen berriakianik bezala. *Dulciores sunt alcrymae paenitentium quam gaudia theatrorum*. Gozoagoak ziran

Santa Maria Magdalenak Jesu-Kristoren oñetan ixuri zituari malkoak, lengo bizitza limurian artu zituari atsegin guztiak baño. Betor edozeiñ bekatari egiaz Jaunagana biurtu dana, itzegin beza, ta agertu beregan igaro zaiona, ta au bera esango du. Pakea gozo onezaz gañera badu Jauna serbitzen duanak beste doai preziosu bat ere, ta da bere Jaunaren Letart, edo probidenziaren besoetan uste oso, ta sosegu andiarekin atsedetea, naiz gauaz, naiz egunaz, naiz osasunan, naiz eritasunetan, naiz eriotza bera datorrenean. Ez ditugu guk ondasun gozo oek ongi ezagutzen; baña zergatik? zeren biotz osoz jarraitu ez diogun oraindanoan gure salbatzalle Jesus maitagarriari, ta zeren munduaren ta geren griña, ta pasio txarrak eskatzen dituen atsegiñ zirzillak utzi nai ez ditugun.

Atsegin-kontetu, ta gozotasun oek emen bertatik eman oi diezte Jaunak bere serbitzariari; ta negarrezko ibar onetan onen ongi begiraten badie zer ondasunak; zer atsegin kontentuak izango dira, deserri onen ondoren emango dieztenak? Jaungoikoa bera izango da anima onaren saria. Jaungoikoaren doatasun miragarriagandik irtengo da atsegin, kontentu, ta gozotasunen ujola, edo ibai bat anima ona osotoro

bete, ta bete ezezik guztia inguratuko duana. *Inebria-buntut ab ubertate domus tuae, et torrente voluptatis tuae potabis eos.* Ezin guk ongi ezagutu ditzakegu, nere Kristauak, ango atsegin-kontentuak. Ez ditue, dio S. Paulok, begiak ekusi, ez ditue belarriak aditu; ez gizonaren adimentuak iritxi, Jaunak bere maitatzalleentzat prestaturik dauzkan ondasunak. Esan gida-zu orañ, Kristaua ez da gauza gozoa, ta atsegin-kontentuz betea gure salbatzalle Jesus maitagarriaren lege Santa gordetzea? Ta alaere naiago izan degu munduaren zentzugabekeria, usadio, ta iritzi animagalgarriai jarraitzea? naiago, ganadu beltzen eran, bazka loietan, ozalean, ta ezkurtean bizitzea? Zentza gaitezen, nere Kristauak, eta Ebanjelioko seme ondartzallearen eran biur gaitezen gure Aita onagana.

* * *

Jaunak bere serbitzarientzat prestatu dituan ondasunak, eta atsegin-kontentuak andiegiak dira, nere Kristauak, doarik emateko. Nekatu bear da ondasun oek eskatzen duen bezala; baña neke au erraza, ta ariña da, ongi begiratzen badiogu. Ala dio Jesu-Kristok berak. *Onus meum leve.* Ez dezu sinis-

ten, Kristaua? Atoz bada egia au ekustera. Jaunaren lege Santak agintzen digun lenengo gauza da Jaun bera adoratzea, ta serbitzea. *Adoratuko dezu zure jaun Jaungoikoa, ta bera bakarrik serbituko dezu*, esaten zaku Eskritura Santan. Ta zer neke da gure egillea, gauza guztien asiera, ta iturburua, guztien iraupena, ta fiña ezagutzea, ta dagozkan agur umillak egitea? Erregeen jauregietan arkitzen diran zaldunak, eta erreñuko andiak ez due neke anditzat artzen Erregeren aurrean beren agur umillak egitea, ez eta serbitzea ere. Ta neke andia izango da au egitea Errege guztien Erregerekin? Errege aiñ on, eta maitagarriarekin?

Agintzen digu gañera serbitu dezagula. Egia da, serbitze onek baditu bere aldapak, baditu kontrako aizeak, ta baditu perill latzak munduaren, Demonioaren, eta aragiaren aldetik; ta eskatzen du, kontuz, eta arretarekin jarraitzea gure egn bide guztiai. Baña denbora berean egia da, neke andiagoa dala munduaren, eta gure griña, ta pasio txarren mendean bizitzea; ta barrengo pakea, ta pozik beñere gustatu, ta progatu gabe batek bere egunak bukatzea. Jaunaren serbitzean arkitu ditekean neke guztia arintzen due, Jaunak bere maitatzalleai ematen diezten,

laguntza, ta grazia ugariak. Arintzen due biotzeko pakea gozoak, ta betiko ondasunen usteak. Arintzen da atzenean, zeren gure eginbide guztiak biurtzen diran bi gauzatara, Jaungoikoa ta Jaungoikoagatik lagun urkoa amatzera. Egiaz, eta biotz osoz amatzen duanak bere Jaungoikoa, nekerik gabe adoratuko du sarritan Jaun bera, umilki eskerrak emango diozka argandik artu, eta egun oro artzen dituan ontarte guztiaz, ta oei nolerebait erantzun naiez, eskeñiko diozka bere itz, pensamentu, ta lan guztiak aren onra, ta gloriarako. Sinistuko ditu aisa fedeko misterio guztiak; eta uste oso-umil bat izango du Jaunagan. Ez du juramenturik egingo, egiarekin, eta premiak ala eskatzen duanean baizik. Ez du jai egunik ausiko, ta Eliz Ama Santaren aginduak egingo ditu Jainko berarenak bezala.

Era berean lagun urkoa benaz, eta biotz osoz amatzen duanak, onratuko ditu bere gurasoak, ez dio lagun urkoari gatzik opako; ez dio bere anima, ta gorputza loitzeko biderik emango ez itzez, ez keñada zikiñakin, ez bestela. Ez dio ezer ostuko; ez dio bidegaberik egingo bere onran, eta izen onean. Itz batean, lagun urkoari dagozkan gauza guztiak, ta bere estaduko eginbideak aisa, ta pozik egiten ditu

Jaungoikoaren, eta lagun urkoaren amorio andia duanak; ta kontuz ukatzen ditu bere griña ta pasio txarrak. Baldin Jakob Patriarkak morrontzan amalau urte igaro bazituan, egun gutxi baziran bezala, Rakeli zion amorioagatik, ta igaro Laban bezeñ gizon eskergabegozakaitzaren etxean; zer egingo ez du Kristauak, Jaungoikoaren, eta lagun urkoaren ongina, ta amorio andia iristen duanean? Ongina, ta amorio andiak samintasunak berak goisatzen ditu, azukreak fruta samiñak goisatzen dituan eran; ta arintzen ditu nekerik andienak-ere, dio S. Agustiñek gauz onen berri ongi ziakianak bezala. *Laborat nullus amor magnus: Quidquid difficile est in praecepto, leve est amanti?* Ona zergatik, eta zein bidez dion gure Salbatzalleak, ariña dala beraren Lege Santaren karga.

* * *

Ar ezazue nere legearen uztarria zeren gañean, eta zuek arkituko dezue zeren animentzat pakea, ta sosegua, esaten digu Salbatzalle berak. Nai dezu bada, Kristaua, zure Jaunaren lege Santa erraz gordezteko bidea ikasi? ta nai dituzu lege onen gozotasun, eta atsegin-kontentuak iritxi? Ara bada onetarako

bide erraza. Garbi ezazu benik bein biotza bekatuen loi, ta lia zikiñetatik konfesioko iturrian; artean alabaña etzera gai, Jaunak bere lege Santa gordetzen duenai eman oi diezten, pakea gozoa, ta atsegin-kontentuak dastatzeko. Oitu zaite gero goiz arratsetan, Jaunaren aurrean jarririk, Jaun bera umilki adoratzera, egin dizkitzun ontarteaz eskerrak ematera, zere itz, pensamentu, ta lanak beraren onra, ta gloriarako eskeintzera. Oitu zaite goiz arratsetan asmo oso bat artzera geiena ausitzen dezun mandamentua kontuz gordetzeko, ta zure griña, ta pasio nagusiena ukatzeko, ta ezitzeko; ta goiz-arratsetako jaiera au buka ezazu fede, esperanza, karidade, ta kontriziozko afektoakin. Atzenean zure nekeak, eta lan guztiak izan ditezen Jaunaren gogokoak, ta Zerurako irabaziak, noizean beiñ berri ezazu, goizean artu zenduan, nai ta intenzio ona. Asko da onetarako Jaunagana biotza altxatzea esanaz zeregan: *Jauna esana esan: goizzekoan bertan arkitzen naiz: zure izenean, zure onra, ta gloriarako izan bedi nere neke, gurutze, edo lan au. Zure griña, ta pasio txarren batek egiten badizu, edo ustekabean perillen batean zere burua ekusten badezu: lenbait len oroi zaite Jauna begira dagokizula, ta zuri laguntzeko prest arkitzen dala. Ots egiozu*

zere biotzean, eta esan: *Atoz Jauna, atoz laster, gorde nazazu perill ontatik*: naiago det bertan iltzea, zure begietan bekatu egitea baño. Ez due, nere Kristauak, gauz oek neke andirik, eta dan ez jakiñenak-ere erraz txit egin ditzakeanak dira. Alaere oek kontuz, eta egun oro egitea da birtute guztien zimendua, Zerurako irabazien gordallua, ta jaiera, edo debozio guztien gaña, ta lore ederra. Ta sinisturik nago, gure jende prestu-garbien artean askok artuko duela gauz oek goiz arratsetan egiteko jaiera, baldin begien aurrean ipintzen bazate argiro, zer, ta nola egin bear dan. Siniste onek mugitu nau jaiera au alik ongiena letraz ezartzera. Ta zuek ikasi dezazuen, nola bakoitzak bere bakarrean, eta nola gurasoak bere mendekoakin egin ditzakeen debozio oni dagozkan gauzak, asmo det, zenbait jaietan gai, edo lan oni ekitea. Zuekin batean esango det debozio oni dagokana; ta gañera egingo det gauza bakoitzaren gañean dotrina eder bat. Atozte, nere Kristauak; atozte, Zerurako bidean sartu nai dezuen guztiak. Egin dezagun guztiok, azken kontuen ordu ikaragarria datorkigun baño len alegiña bizitza zuzentzeko, ta beti beti iraungo duan Zeruko gloria iristeko. Amen.

OGEI TA AMALAU GARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da lenengo lekuan,
zeñ andia dan gure Jaungoikoa*

*Bigarren lekuan, zeñ andia beraren al, eta eskua.
Atzenean, zeñ andia beraren Jakiundea.*

Ambula coram me, et esto perfectus. Genes. 17.

*NOTA: Aurrena esango dira goizeko jaieran dau-
den gauzak, Komunioko liburuko laugarren par-
tean, ogeita zortzigarren Erakusaldian arkitzen
diran eran; ta ondoren egingo da platikatxo au.*

Aditu dezue, Kristauak ta batez-ere etxeetako buruak goizetarako artu bear lukeen jaiera. Nai nuke jaiera onen oitura zabaldu litekean etxe guzietara, baña ez det onenbat on iritsi uste, lenago ongi ezagutzen ezpadezue jaiera au, ta onen puska bakoitza, ta au ezagutu ondoan Jaunaren laguntzarekin batean benaz asitzen ezpazerate Zerurako bideari jarriatzen. Goizeko jaieran esaten diran gauzak ain dira bearrak,

ta balio andikoak, non ezinutzi nitzakean banaka, ta al dedan ongiena, ta argiroena adirazi-gabe.

Goizetik Kristauak aurrena egin bear duan gauza da: honestidadearekin, ta orazioren batzuek esanaz jeiki, ta Jaunaren aurrean jartzea, esaten duala: *Oroi zaitez nere anima Jaunaren aurrean arkitzen zerala, ta begira dagotela zure itz pensamentu, ta gauza guztiai*. Ta gurasoak, edo gurasoaren ordezkirik bere etxekoekin jaiera au egiten badu, esan dezake: *Oroi gaitezen Jaunaren aurrean arkitzen gerala, ta begira dagotela gure itz, pensamentu, ta gauza guztiai*. Jaunaren aurrean gaudela, ta Jauna begira dagokigula leku guztietan, ongi sinistek guztiz asko laguntzen du egiten ditugun gauzak onak ongi egiten, Jaunak bidaltzen dizkigun neke, ta gurutzeak ongi eramaten, ta bekatuagandik aldegiten. Argatik goizeko jaiera asitzen da, Jaunaren aurrean gaudela oroitzetik.

Goizeko jaietan bezala, beste gauzak egitean ere oitu zaitezenezu, kristaua, Jaunaren aurrean zaudela, ta Jauna begira dagokizula, sinistek: gaur egia onen gañean itzegin nai dizuet. Onetarako adiraziko dizut. 1.a Zeñ andia dan gure Jaun Jaungoikoaren izate miragarria. 2.a Zeñ andia beraren al, ta eskua. 3.a

Zeñ andia beraren jakiundea. Iru gauz oek zuk ongi ezagutzen, ta sinisten badituzu, aisa ezagutuko dezu, edozeñ lekutan zaudela zuk beti arkitzen zerala zere Jaunaren aurrean, edo obeto esateko zure Jaunagan beragan: beti zaudela Jaunaren eskutik zinzilika bezala: ta beti Jaun beraren begi ekusleak ekusten zaituela. Enzun nazazu arretarekin.

§ I.

Gure sinistek erakusten digun gauza da, gure Jaun Jaungoikoaren izate miragarria ain dala *Andia* non ez neurrik, ta ez mugarik izan dezakean. *Andia da, ta andia neurrik, ta bukaerarik-gabe dio Baruk Profetak*. Au nolerebait ezagutzeko, begira giezu Jaun onek egin ta begien aurrean dauzkagun gauzai. Andiak dira itsasoaren osiñak, ta bazterrak: andiak dira lurreko zelaiak, aldapak, mendiak; andiak dira gure gañean arkitzen diran odeiak, izarrak, ta eguzkia. Andiak dira Zeru eder oriek. Baña zer dirala uste dezu gauza oek guztiak, diran bezeñ andiak izan dazere, Jaungoikoaren izate andiaren aldean, edo pare ipintzen badituzu? Ezer ezpalira bezala dira guztiak

Jaunaren izatearen aldean. Zerua erpiña baño goragokoa da Jaungoikoa: infernuaren ondo baño ondoragokoa: igarotzen ditu lurraren bazter, ta muga guziak, ta itsasoa baño zabalagoa da, dio Job Santuak.

Ekusten ditugun gauza oezaz gañera, nai izate utsarekin egin litzake zure egille andiak beste gauza berriak, ta berriak beñere nekatu, ta bere eskua, ta indarra gutxitu gabe: egin litzake Zeru berriak, itsasoak, izarrak, eguzkiak, ta aek guztiak-ere ezer ez bezala izango lirake Jaunaren izate andiaren aldean.

Izate guztiz andi onek bada betetzen ditu berak egin dituan leku oek guztiak, ta era berean beteko lituke leku berriak ta berriak egiten eternidade guttian ariko baliz ere. Ez da bada, Kristaua, ez da, ez Zeruan, ez lurrean, gure Jaunaren izate andia ez dagoan lekurik ez txikirik, ez andirik, ez illunik, ta ez argirik. Ain da andia, ain da neurrik, bazterrik, edo mugarik ez duana. Emendik atera-ezazu, Kristaua, edozeñ lekutan zaudela zu, naiz bakarrik, naiz lagunakin, naiz etxean, naiz soroan, naiz mendian, beti beti arkitzen zerala zure Jaungoikoaren aurrean, edo obeto esateko, Jaunaren izate andi-baztergabekoaren barrenen, itsasoan arraiak urez inguratuak arkizen

diran baño askoz obeto, ta era miragarriagoan inguratzzen zaituala Jaunak. Egia au, beste askoren artean, ederki agertu zien S. Paulo Apostoluak Athenasko jendeai. Eraman zuen oek Apostolua Arkopago deitzen zioen Tribunal batera (au zan gaitz gilleak juzgatzen zituen Juezen Tribunalala) ta an guztien aurrean esan zien: Athenasko jendeak: ekusten zaituet gauza guztietan beste jendeak baño superstizio, edo bear ez diran adorazioetara jarriak, bada idolo, edo Jaungoiko gezurrezkoak adoratzea gutxi baliz bezala, or igarotzean ekusi det nola daukazuen aldare bat ezagutzen ez dezuen Jaungoikoarentzat ipiñia; an letraz ezarriarik dago: *Ez dakigun, edo ezagutzen ez degun* Jaungoikoarentzako Aldarea. *Ignoto Deo*. Zuek bada, Athenasko jendeak, zuek ezagutu gabe adoratzen dezuen Jaungoiko onen berriak orain ematen dizkitzuet. Ez da ez Jaungoiko au gugandik urruti arkitzen; beragan bizi gera, beragan mugitzen gera, ta beragan gaude. *In ipso enim vivimus movemur et sumus* (Acta Apost. 17).

§ II.

Au onela da, nere Kristauak: ta alaere bizitu gera gure Jaungoikoaz ain aztuak? Jaungoiko beraren aurrean, ta Jaungoikoaren izate guztiz andi, ta baztergabekoaren barrenen, ta erraietan bezala bizi gera, mugitzera, ta gaude: ta alaere izan degu ausardia beraren kontra bekatu egiteko? Baña geiegi luza ez gaitezen. Goazen ekustera zeñ andia dan Jaungoikoaren esku eta ala.

Andia leku guztiak betetzen dituana, ta baztergabekoa da Jaungoikoaren izatea, ta izate oni dagokan bezalakoa da beraren al, eta eskua; da alabaña gure Jaungoikoa, gauza guztiak egin zituan egille andia, ta egin zituana ezer ezetik, ta iñoren laguntza gabe, nai izate utsarekin. Da egin zituan gauza guztiai beren izatea gordetzen, ta dan gauzarik txikienarenari-ere kontu egiten dion Jaungoikoa.

Bai, nere Kristauak: gure Jaungoiko maitagarria da gauza guztien Egille andia. Jaungoikoak egiñak dira Zeru oriek diran bezeñ andiak, ederrak, zabalak. Jaungoikoak egiñak dira Zeru orietan ekusten ditugun eguzkia, illargia, ta izarrak. Jaungoikoak egiñak dira itsasoak, ibaiak, iturriak. Jaungoikoak egiñak aizeak, sua, mendiak, zelaiak, lurra, ta itz batean esateko mundu guztia, ta Zeruairen goienetik asi ta lurraren

ondoraño arkitzen diran gauza guztiak: ta oek egin zituan bezeñ erraz, edo aisa egin ditzake, berak nai izatera, beste munduak, ta munduko, oraingoa bañore andiagoak, ta ederragoak. Onetarako duan al, ta eskua batere laburtu, ta nekatu gabe. Egia au ezpadakizu, Kristaua, galde egin giezu astoai berai, dio Job Santuak, ta erakutsiko dizue: galde Zeruko egaztai, ta esango dizue: galde itsasoan dabiltzan arraiak, ta aditzera emango dizue. Nork ez daki, Jaunaren eskuak egiñak dirala gauza oek guztiak.

Gauza oek guztiak egiteko, etzuan izan Jaungoikoak gairik-batere, baizik egin zituan ezer-ezetik, ta au da Jaungoiko guzieldunak bakarrik dagikeana. Egin dezakee Aingeruak, ta egin dezakee gizonak-ere lore baten antz, edo itxura zurean, olean, urrean, edo zillarrean; baña ez au, ta ez beste gauzarik egin dezakee onetarako gairik ez duela. Gure Jaungoikoak guzieldunak bezala egin zituan bada gauza guztiak ezer ezetik, ta batere gairik gabe. *Ex nihilo* (Macha. 7). Etzuan ez iñoren laguntzaren bearrik izan onetarako: Nork lagundu zion, dio Isaias Profetak, edo nor izan zan Jaunaren konsejari, ta erakutsi zion zer ta nola egin? (Isaiae 40) Asko izan zan, dio Dabid Erregeak, egin bide au, eginbedi ura esatea, bereala egi-

nik agertzeko. *Ipse dixit et facta sunt: ipse mandavit et creata sunt.*

Gure Jaun Jaungoikoak bere al, ta esku miragarri au agertzen digu gañera egin dituan gauza guztiai beren izatea gordetzen diela, ta guztien kontua daukala. Ez luke mundu onek, ez eta munduan diran gauzetatik batek-ere puntu edo instante batean-ere iraungo Jaunaren al, ta eskuak gordeko ezpalu. Guztia bere anziñako ezer-ezera biurtuko lizake. Ala dio Jakintsuak Eskritura Santan. Nola iraun lezake, Jauna, ezerk-ere zuk nai ez izatera? *Guomodo autem posset aliquid permanere, nisi tu voluisses?* (Sap. 11). Gauza guztiak bada Jaungoiko Guzti-aldunaren eskutik artu izan due beren izatea, ta iraungo badue, puntu, edo instante bakoitzean berriro artuaz dijoaz, ta esku altsu-ongille artatik zinzilika arkitzen dira. Gañera egin dituan gauza guztiaz, ta dan txikienaz kontu dauka. Begira Zeruko izarrai, begira itsasoan diran are aleai, lurreko arbola, ta belarrai: begira aideko egaztiai: oek guztiak egiñak dauzka berak nai duan neurrian, berak nai duan adiña, ta berak ongi iritzi dio pisuan (Sap. 11). Ta guztiaz berdin dauka bere kontua, dio Eskritura Santak (Sap. 6).

Begira oraiñ Kristaua zen andia dan gure Jaungoikoaren al, ta eskua! ta zeñ esker gabeak, ta geren galgarriak izan geran oraindañokoan! Jaungoiko Guzialdun-ongille onen eskutik artu degu degun izatea: izate au ezer-ezera biurtuko da Jaun berak gordetzen ezpadigu: instante oro, ta leku guztietan beraren eskutik zinzilika arkitzen gera; ta alaere ez degu nai Jaungoiko maitagarri onezaz oroitu, ta berak eman ta gordetzen digun izateaz baliatzen gera beraren kontra bekatu egiteko. Zentza bagindez oraiñ bederik!

§ III.

Ekusi degun bezeñ andia, edo obeto esateko ezin ekusi ta ezin adirazi ditekean bezeñ andia da gure Jaungoikoaren ala ta eskua. Ta ez da batere laburragoa beraren Jakiundea. Begira dagoka beti gure Jaungoikoa bere izate on maitagarriari, ta izate onetan prefekzioai. Ekusten du nola dan Jaungoiko bakar bat, ta iru Persona Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Ekusten du nola dan Aitagandik Semea, ta Aita ta Semeagandik Espiritu Santua. Bere izate-andi-ederra, ta

bere perfekzioak ekustez gañera, guztiz argiro ekusten ditu, beste gauza guztiak igaroak, gertatzen diranak, gertatuko diranak, ta gerta alditezkeanak. Beti beti, ta batetan ekusten ditu, dio Eskriturak, eternidadetik eternidaderañoko gauza guztiak (Eccle. 39). Berdin da Jaunaren begi ekusleentzat gaua nola eguna: berdin argitan, edo illunbean, bakarrik, edo lagunakin; zokoan, sasian, gelan, mendian, edo beste edozeñ lekutan gauza egitea. Au ongi sinisten zuanak bezala, Jauna, esaten zuan Dabidek. Nora aldegingo det zure jakiunde orregandik? «Nora iges egingo det zure aurpegitik? Zeruaren goienera banoa, an zaude zu: infernura jeisten banaiz, an arkitzen zaitut, ta egazia bezala, goizean egoak arturik, joaten banaiz itsasoaren urrutieneko bazterretara, *ezin alaere zugandik ezkutatuko naiz*» (Psal. 138).

Ekusten dezu orain, Kristaua, zeñ andia dan Jaunaren jakiundea? Ekusten dezu nola begira dagoten gure asmo, gure naikunde, gure gauz on ta gaizto guztiai? Eguzkia bera baño askoz argiagoak dira Jaunaren begiak, dio Eskritura Santak; alde guztietatik begiratzeko, ta ekusten ditue gizonen bide, ta ibillera guztiak baita itsasoaren ondarrean ta gure biotzetako zokorik ezkutatuenean zer dagoan-ere. Ni, nerau

naiz testigu, ta Juez, dio Jeremiasen aoaz (Jerem. 29)). Sinistu ote degu oraindañokoan egia au? Ez noaski bear dan eran; au ongi sinistra alabaña ezin egin gintzakean egin ditugun adiña utsegite, ta bekatu: ta ezin izan gindezkean izan geran bezeñ nagiak, ta zabarrak Zerurako bidean. Sinistu dezagun bada fede bizi batekin, nere Kristauak, Jaunaren aurrean arkitzen gerala beti, ta edozeñ lekutan: Jaunaren aurrean, zeren Jaunaren izate andi baztergabekoa leku guztietan dagoan. Jaunaren aurrean, zeren bera- ren al, ta esku neurri guztiak baño andiagoa leku guztietan guri degun izatea ematen, gordetzen, ta guri bere laguntza, ta ondasunak emateko prest dagoan. Jaunaren aurrean gaude atzenean, zeren begira dagoten leku guztietan gure itz, pensamentu, ta gauza guztiai.

Nai dezu bada zuk, Kristaua goizeko jaiera, ta egiten dituzun lanak ongi egitea? Oroi zaitetz maiz, maiz, maiz Jaunaren aurrean arkitzen zerala, ta begira dagokizula beti; ta leku guztietan, ta mugituko zera kontuz, ta ongi egiten dituzun gauz onak egitera. Ala gertatu zitzaion Dabid Santuari. Gorde ditut Jauna esaten dio zure aginteak, ta legea, zeren nere bide, ta ibillera guztiak zure aurrean ta begietan arkitzen

ziran. *Servavi mandata tua, et testimonia tua, quia omnes viae meae in conspectu tuo* (Psalm. 118). Nai dezu bekatuaren perilletik ateratzea, ta bekatura beñere ez biurtzea? Oroi zaitetz sarritan Jauna begira dagokizula, oitu zaitz biotz ori beragana jasotzera. Ala Susana Andre prestuak egin zuan, zar berde bik elkar artuta bekatura amilderazteko bidean, ta bizitza galtzeko perillean bere burua ekusirik. Obeago det, esan zion zuen atzaparretan bizitza galtzea, Jaunaren aurrean, ta begietan bekatu egitea baño. *Melius est mihi absque opere incidere in manus vestras, quam peccare in conspectu Domini* (Daniel 13). Nai dituzu atzenean atzeratu gaitzerako zure griña txarrak? Sarritan bada fedearen argiarekin gogora ekartzu begira dagoala zure Jaun Jaungoikoa, ta beragana biotza jasorik dei zaiozu S. Pedroren eran; gorde nazazu nere Jaun maitagarria, galdua naiz bestela. Itz batean. Zabiltza, esan zion Jaunak Abrahami, eta esaten digu guri-ere, zabiltza nere aurrean, ta zu izango zera bear bezalakoa, edo birtute, ta santidadez jaun-tzia. *Ambula in conspectu Domini, et esto perfectus*. Jaunari nai dakiola gure biotzak jaiera onetara mugitzea, ta beraren laguntzarekin batean bizitza on bat

egitea, iristeko gero beti iraungo duan Zeruko gloria.

Ad quam &

OGEI TA AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da, zer gisatan erraz, edo aisa ikasi dezakegun Jaunaren aurrean ibiltzea.

Ambula coram me, et esto perfectus. Genes. 17

Ekusi genduan leneko egunean Jaunaren aurrean ibiltzeak zeñ ongi laguntzen duan naiz bekatuan ez erortzeko, naiz egin bear ditugun gauz onak kontuz egiteko. Au onela izan, ta alaere mundua galdurik, ta bekatuen osin izugarrian ondaturik arkitzen da egungo egunean! Zergatik ote? Zeren gure griña ta pasio txarren lañoak alde guztietatik inguraturik, begiratzten ez diogun gure aurrean, ta gurekin beti beti dagoen Jaungoikoa Ekusle maitagarriari: ta berari begiratu bearrean, edo ordean, naiago genduke noaski fedearen argiak animako begien aurrean ipintzen ezpaligu Jaun bera. *Loiak, ta nazkagarriak dira bekatariaren lanak*, dio Dabik Santuak: zeren begiratzten ez dion bere aurrean dadukan Jaun Jaungoikoari. *Non est Deus in conspectu ejus: inquinatae sunt*

viae illius in omni tempore (Psalm. 9). Au gertatu ez dakigun emendik aurrera, ekusi bear degu gaur, zer gisatan erraz, edo aisa ikasi dezakegun Jaunaren aurrean ibiltzen. Aditu kontuz.

§ I.

Jaunaren aurrean, ta begietan ibiltzea da gure lanak, ta gure bizitzako pausoak egitea. Jaun andi au begira dagokigula oroituaz, ta beraganontz biotzak mugitzen ditugula. Ta nork eztakus, nere Kristauak, zeñ gauz errazak diran bi gauz oek edozeñ Kristaurantzat, onek biotzetik bere Jaungoikoa serbitu nai badu? Baña zeñ errazak diran bi gauz oek obeto ezagutzeko, begiratu bear diegu biai banaka.

Jaunaren aurrean ibiltzea da beñik beiñ gure lanak, ta gure bizitzako pausoak egitea, gure Jaun Jaungoikoa begira dagokigula oroituaz. Ezagutzen det, nere Kristauak, zeñ erraz gure gogo, ta biotzak munduko arazo, kontu, ta aurkerien ondoren dijoazen, ta zeñ laster aztutzen geran gure Jaun andiaz. Baña denbora berean ezin ukatu dezakegu, dan Kristaurik ezjakiñenak-ere erraz bere gauzak egingo

dituala Jaunaren aurrean dagoela oroituaz, baldin oitutzen bada maiz, edo sarritan sinistra Jaun andi au arkitzen dala munduaren bazter guzietan, ta gu gauden edozeñ lekutan bere izate eder baztergabe-koarekin, bere Esku, edo Al guztiarekin, ta bere Jakiundearen begiakin guztia ekusten duala. Idiki itzatzu, Kristaua, zure animaren begiak, begira giozu fedearen argiarekin zure Jaungoikoari. Ekusiko dezu ain andia dala beraren izate ederra, non ez duan, ta ezin izan-ere dezakean neurrik, bazter, edo mugarik. Betetzen ditu Zeru-lurrak, ta oetan arkitzen diran gauza guztiak, ta era berean beteko lituke mundu berriak, eta berriak egingo balitu. Andia da bai, dio arriturik Baruk Profetak, ta andia bukaerarik gabe. Ez da ez gure arteko bakoitzagandik urruti arkitzen: beragan bizi gera, beragan mugitzen gera, ta gaude esaten zien S. Paulok Athenasko jendeai. Begira giozu berriz ere zure Jaungoikoari, ta ekusiko dezu bere esku edo al guztiarekin arkitzen dala edozeñ lekutan; Guzalduna da alabaña beti, ta toki guztietan, ta nai izate utsarekin gauza guztiak egin zituana, guztiak desegin ta berriro egin ditzakeana. Begira atzenean Jaun berari, ta ekusiko dezu, bere Jakiundearekin begira dagotela gertatu diran, gertatzen, ta gertatu-

ko diran gauza guztiai. Ez da Jaunarentzat gaurik, ez da illuntasunik, ez da zokorik. Au adirazten digu Eskritura Santak, esaten digunean, *Eguzkia bera baño argiagoak dirala Jaunaren begiak*. Atozea orain, Kristaua, ez da gauza erraza dan ezjakiñenarentzat-ere maiz Jaungoiko Andi au gogora ekartzea? maiz sinistea Jaun bera arkitzen dala munduaren bazter guztietan, ta gu gauden edozeñ lekutan? Ez da gauz erraza lanen bat asitzean, edo bukatzean, neke, edo estusasuren bat datorkigunean, Jaun au begira dagokigula oroitzea? Oroitzen gera aisa edozeñ lekutan, ta edozeñ denboratan, beñere oroitu bear ez gendukean gauzaz: ta ez da erraz izango, gure Jaun Jaungoikoa gure Egille andia, gure Aita maitagarria begira dagokigula, ta beraren aurrean arkitzen gerala, oroitzea?

Onetarako batzuek, beñ gogoratzen due Jaungoikoa itsaso andi bat baliz bezala, ta beren buruai begiratzen dieza itsaso onek alde guztietatik inguratzen balitu bezala. Etzaitetzela zuek onelako antz, edo imajiñak zeren buruetan ezin moldaturik nekatu; au lizake alabaña askorentzat burua alferrik nekatzea. Gañera gure Jaungoikoa Espiritu uts-garbia da, ta beragatik ezin guk molda dezakegu beraren antz edo imajiñarik. Beste batzuek gogora ekartzen due Jesu-

Kristo gure Jauna, ta egiten ditue beren gauzak, Jesu-Kristo beren aldamenen baleuke bezala. Atzeneran besteak beren gogoan artzen due Jesus maitagarria bere Pasioko pausoren batean egon zan eran, egin dezagun kontu Jesezaniko baratzan odolezko izerdia lurreraño zeriola. S. Bernardo, ta S. Buenabentura gogoz, edo pensamentuz joaten ziran Jesusen kostadura, ta an sarturik zeudela egiten zituen beren lanak, ta gordetzen ziran etsaiaren peril guztietatik. Era onetan Jaunaren aurrean ibiltzea jaiera guztiz ederra, ta gure animentzat ondasun andiak ekarriko lituakeana da; baña ez da guztientzat egokia; zeren geienak moldatuko ez lirakean Jesusen pauso oek maiz bear dan eran begien aurrean ipintzeko, edo Jesus beraren kostaduari gogoz begiratu, an sartu, ta gorderik egoteko, denbora berean beren bizimoduko lan guztiak kontuz egiten dituela. Ta onezaz gañera Jesu-Kristo gure Jauna, gizona danez, Zeruan, ta Aldareko Sakramentuan bakarrik arkitzen da. Mundu guztian, ta gu gauden, edo gabiltzan lekuetan. Jaungoikoa bakarrik da munduaren bazter guztietan, arkitzen dana: ta Jaun onen aurrean, ta begietan ibiltzeko modurik errazena, da sarritan sinistea egia au,

sarritan gogoratzea nola begira dagokigun, ta berari begiratuaz gure lan, ta eginbideai jarraitzea.

§ II.

Ona da, nere Kristauak era onetan, edo Jauna begira dagokiola oroituaz bakoitzak bere lanak egitea; onela ari danak alabaña nai ta ez kontuzago egingo ditu gauz onak, ta lotsatuko da askotan, Jaungoiko beraren aurrean bekatuari, edo bekaturako bidea ematen duen txorakeriai bere barrenen leku emateaz. Baña zuk, Kristaua, ez dezu onetan geratu bear, ez: baizik, zure Jaunaren aurrean zaudela, ta begira-begira dagokizula oroitzeaz gañera, alik mai-zena begira dagokizun Jaunagana jaso bear dezu zure biotza, ta aoaz ezpada biotzez bederik agertu beraganako onginaia, esker ona, beraren laguntzaren premia, zure bekatuen damua, itz batean eman giozu berari aldezun eran zure biotza. Ez da onetarako irakurtzen jakin bearrik, biotza altxatzea bear da gurekin ta guri begira dagoan Jaungoikoaganontz. Ongi, nere Kristauak: ez da au gauza guztiz erraza dan ez jakiñarentzat-ere? Zenbait Kristau onentzat asko da

zelai bat lore ederrez betea ekustea, gauza guzien Egille andiaren edertasun paregabea gogora ekartzeko, ta S. Agustiñekin esateko: *O edertasun anziñakoa, baña beti berria!* Batzuek ekusten baditue labore ederrak, altxatzen due biotza Jaunagana, ta esaten dioe: *O nere ongille maitagarria! ni zuzaz azturik: ni bekatua bekatuaren gaiñ egiten, ta zu onenbat ontarte niri egiten? Milla esker Jauna. Besteak neke andiren bat datorkienean, esaten dioe: Jauna geiago, eta geiago merezi due nere utsegite, ta bekatuak: egin bedi zure borondatea! Batzuek lanean ari diranean, edo tentazioren batek estutzen dituanean, bereala begiratzen dioe beren Jaungoikoari, ta biotzez otsegiten dioe: *Atoz, atoz, Jauna, laster niri laguntzera.* Baña ez da itz oek gogoan artu bearrik: asko da aldan eran, ta bakoitzak bere modura biotz on, ta prestu batekin begira dagokan bere Jaungoikari zerbait esatea.*

Nekatzen dira asko irakurtzen ikasten, obeto, ta errazago ezagutzeko birtutearen bidea; ta ongi egiten due. Ikasten ditue beste zenbaitek liburuetan arkitzen diran orazio, edo erregu egokiren batzuek. Gauz ona da au ere. Atzenean asko dira berengan ansiatzen diranak, zeren irakurtzeko, ta orazio piska

bat egiteko denbora egokirik ezin iritsi duen; baña ez due Kristau oek zer estutu orregatik: naiz ez jakin irakurtzen, naiz ez izan bakardadean irakurtzeko dertxarik; baldin arretaz oitutzen badira, sarritan begiratzera leku guztietan, ta gu gauden tokian bertan dagoan Jaungoikoari, ta oni begiratuaz, ta oni noizean beiñ biotza jasoaz, beren lanak, ta nekeak egiten baditue, au, nere Kristauak, izango da irakurtze guztiak, ta orazio guztiak baño ondasun geiago emango diena, edo obeto esateko orazioa egiteko modurik onena, errazena, ugariena. Begira ezperen anziñako Patriarka Santuai. Etzuen egiaz oek oraiñ guk ditugun deboziazko liburu oenik, ta ala ere igo ziran Santidade goi-miragarri batera; nola uste dezue? Jaunaren aurrean zebiltzala, edo berbera dana, sarritan oroiatuaz begira dagoan Jaungoikoaz, ta sarritan beragana biotza jasoaz. Au da Eskritura Santak ematen dien alabantza andia aetatik batzuei. *Ibilli zan Enotx Jaungoikoarekin, ta ezkutatu zan,* zeren Jaungoikoak kendu zuan, dio Eskritura Santak, Patriarka aren gañean itzegiten duanean. *Ambulavitque cum Deo, et non apparuit, quai tulit eum Deus* (Genes. 5). S. Basiliok, neke, gurutze, ta tentazio guztien sendagaitzat ematen du Jaunaren aurrean ibiltze au. Oitu gai-

tezen bada, nere Kristauak, Jaunaren aurrean, ta begietan ibiltzera. Maiz sinistu dezagun munduaren bazter guztietan, ta gu gauden edozeñ tokitan arkitzen dala gure Jaun Jaungoikoa bere izate andi baztergabekoarekin bere esku, ta al guztiarekin guri laguntzeko zai bezala, ta atzenean bere Jakiundearen begiak ekusten dituala guk egiten, ta gogoan igarotzen ditugun gauza guztiak. Ni naiz testigu, ta denboran berean ni nerau naiz Juez dio Jaun berak. Baña egia au sarritan gogora ekarri, ta sinisteaz gañera, noizean beiñ biotzak jaso bear ditugu beraganontz. Onela zuzenduaz joango da bekataria bere bizieran, ta aurreratuaz onak birtutearen bide ederrean. *Ambula coram me, et esto perfectus.* Au da guztioi opa dizuedana emen, ta beti betiko atsegin kontentutak Zeruan. Amen.

OGEI TA AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

*Jaunaren aurrean gaudela leku guztietan; eta non
nai, ta noiz nai begira, dagokigula sinistearen
gañean.*

*Dominum Deum tuum adorabis;
et illi soli servies. Deuter. 6 et Math. 4*

Gure lan, eta egiteko guztien artean andiena, edo obeto esateko bakar bakarra da gure Jaun Jaungoikoa ezagutzea, adoratzea, ta serbitzea. *Adoratuko dezu zure Jaun Jaungoikoa, ta ura bakarrik serbituko dezu,* esaten zaku Eskritura Santan. Alaere egiteko au da guztien artean aztuena, ta beti geroko uzten deguna. Ta gauza negargarria! Egiteko oni benaz ekiñ baño len etorri oi da eriotza, ta galtzen dira betiko ezin konta al anima. Au gerta eztakigun, eta denbora berean Jauna serbitzean arkitu ditekean neke guztia gozatzeko, ta arintzeko da, egun oroko asi degun jaiera, edo debozioa. Ongi begiratzen badiogu jaiera

oni, ta jaiera onetarako ipintzen diran gauzai, au da Kristauari dagokan bizitza onaren zimendua bezala; ta beragatik alik ongiena agertzea, azaltzea, adirartea dagokana. Jaiera onen lenengo gauza da Jaunaren aurrean jartzea, edo sinistea Jaunaren aurrean gaudela, ta begira dagokigula; ta onen gañean itzegingo dizuet gaur. Aditzera emango ditluet lenbizia: zer dan Jaunaren aurrean jartzea. Bigarrena: nola egin bear dan Jaunaren aurrean jartze au. Ta atzenean, zeñ ondasun andiak gorderik dauden Jaunaren aurrean jartze onetan, siniste bizi batekin au egiten bada.

* * *

Edozeñ lekutan gaudela, nere Kristauak, beti arkitzen gera gure Jaun Jaungoikoaren aurrean, eta begietan, munduaren bazter guztietan arkizen da alabaña Jaun bera bere izate, bere esku, edo al, ta Jakiunde bazterrik, mugarik, eta neurririk ez duanarekin; eta nora nai goazela, beti egongo gera Jaunaren aurrean, eta begietan. Ez dezu ongi aditzen egia au? Enzun nazazu bada gutxi batean, eta uste det, aditu-

ko dezula. Asi gaitezen Jaunaren izatearen anditasu-
netik.

Begira giezu begien aurrean dauzkagun gauzai. Andiak dira itsasoak, andiak lurreko zelaiak, aldapak, mendiak. Andiak dira gure gañean arkitzen diran odeiak, izarrak, eguzkia, ta Zeruak. Baña ezpalira bezala dira oek guztiak, Jaunaren izatearen anditasu-nari begiratzen badiozu. Betetzen ditu Jaunak leku oek guztiak, eta era berean beteko lituke milloika leku berriak eta berriak egingo balitu, egin litzakean bezala. Argatik arriturik dio Baruk Profetak: *Andia da, ta andia mugarik, eta bukaerarik gabe. Zeruaren erpiña baño goragokoa da; infernuaren ondoa baño ondoragokoa; igarotzen ditu lurraren bazter, eta muga guztiak, eta itsasoa baño zabalagoa da*, dio Job Santuak. Jaungoikoaren beraren barrenen bizi gera, mugitzen gera, ta gaude esaten zien S. Paulok Athesnasko jendeai. *In ipso enim vivimus, movemur, et sumus.*

Jaun onen eskua, edo ala beraren itzateari dago-kana da. Nai izate utsarekin, eta ezer ezetik egin zituan Zeruak, eta oetan arkitzen diran izarrak, eguzkia, ta illargia. Nai izate utsarekin, eta ezer ezetik egin zituan lurra, ta lurreko gauza guztiak. Asko izan

zan egin bedi au, egin bedi ura esatea, bereala egiñik agertzeko, dio Dabid Erregeak. *Ipse dixit, et facta sunt: ipse mandavit, et creata sunt.* Nai izate utsarekin egin zituan eran, gordetzen-ere die eman dien izatea gauza guztiai. Au onela ez izatera, biurtua lizake bereala mundua anziñako bere ezer ezean. Atze-nean Jaunaren Jakiundea ez ta batere laburragoa Jaun beraren izatea, ta eskua baño. Ekusten ditu argiro gauza guztiak, gertatuak, gertatzen diranak, eta gertatuko diranak; eta ekusten ditu bat batetan diran bezala bere betiraunde, edo eternidadetik. *A seculo usque in seculum respicit.* Oro bat da Jaunarentzat gauza bat gertatzea gauaz, nola egunaren erdian; illunbean nola argitan; bakarrik, edo lagunakin, zokotan, sasian, gelan, edo plazaren erdian; pensamentuz, edo lanez; Jauna bera da alabaña neurrik ez duan argia, gauza guztiak diran eran agertzen dituana; ta Jaunaren begiak eguzkia bera baño argiakoak dira, dio Eskritura Santak: ez zeren Jaunak guk bezala lurrezko begiak dituan, baizik zeren guztia argiro dan bezala dakusen. Argatik esaten zion Dabid Santuak Jaunari: *Non ezkutatuko naiz, Jauna, zure Jakiunde miragarri orregandik? Nora zure aurpegi ta begietatik igesi joango naiz? Joango banintz-ere Zeruairen goie-*

neraño, an zaude zu: *jatxiko banintz infernura, oro bat zaude zu an-ere; eta joan albanindeke egazti baten eran itsasoaren beste aldeko bazterretara, ezin alaere zugandik ezkuta nindeke.* Aditzen dezu orain, Kristaua, nola gure Jaun Jaungoikoa arkitzen dan munduaren bazter guztietan, ala bere izate guztiz andiarekin, nola bere esku, ta Jakiunde bazter gabe-koarekin? Ekusten dezu, edozeñ lekutan gaudela gu, nai ta ez arkitzen gerala Jaun beraren aurrean, eta begietan? Au da egia bat ezaguera duen guztiak aitortzen duena. Baña ez dezu uste izan bear, oro bat dala Jaunaren aurrean arkitzea, nola Jaunaren aurrean jartzea, ta ibiltzea. Jaunaren aurrean, eta begietan arkitzen dira arriak, belarrak, aritzak, eta zentzurik ez duen gauza guztiak ere, baña ez dira oek ez jartzen, ez ibiltzen Jaunaren aurrean, eta begietan. Zer ote da bada *Jaunaren aurrean jartzea, ta ibiltzea?* Da *fedearen argiarekin gogora ekartzea, ta sinistea* gaudela leku guztietan Jaunaren aurrean, eta non nai begira dagokigula; ta siniste onekin Jaunagana biotz osoaz geren lanak egitea. Zabilta nere aurrean, eta begietan, eta zu izango zera bear bezalakoa, esan zion Jaunak Abraham Patriarkari. *Ambula coram me, esto perfectus.* Ala guk egin bear genduke; ta beste-

rik izango lizake gure bizitza. Baña ez gaitezen geiegi emen geratu. Goazen ekustera, nola egin bear dan Jaunaren aurrean, eta begietan jartze au, emendik atera ditezkean, ondasun andiak guk ez galtzeko.

* * *

Jaunaren aurrean, eta begietan jartzeko ta ibiltzeko jaiera ongi egiteko, bear dira iru gauza. Lenengoa da fedearen argiarekin gogora ekartzea, ta sinistea, arkitzen gerala gure Jaun Jaungoikoaren aurrean, ta begietan. Batzuek nekatzen due, ta berotzen burua Jaunaren antz, edo imajiña beregan sortzen, eta mol-datzen: egin dezagun kontu *Argitasunezko itsaso bat baliz bezala*. Baña etzaitzela nekatu zu, Kristaua, Jaunaren antz, edo imajiñen billa; alde batetik alabaña Jaungoikoa da izate bat esan, eta gogora al ditezkean beste gauza guztiak baño andiagoa, goiagoa, eta miragarriagoa, ta beste aldetik Espiritu uts garbia; ta beragatik ezin gerengan sortu dezakegu bera- ren antz, ta imajiña egokirik. Beste batzuek gogoz, eta pensamentuz joaten dira Jesu-Kristoren saietseko llagara, ta guganako amorioak idiki zuan ate artatik sartzen dira: an sarritan eskatzen diozkee Salbatza-

Ileari bere laguntzak ongi bizitzeko; an milla esker ematen diozkee egin diezten mesedeaz; ta an ezkututzen dira edozein perill, edo tentaziok ekiten die-nean. Ala egiten zuen S. Bernardok, eta S. Buenabenturak. Eta S. Franzisko Salesek-ere nai du, tentazio leiaturen batek ekitean, gogoz, eta biotzez laster egi-tea Jesus gurutzefikatuagana, ta an bertan begien aurrean ekusten balu bezala, berari eldutzea perilla igaro artean. Onak dira gauz oek guztiak; baña bi gauza kontuz gogoan artu bear dituzue. 1.a era one-tan Jesu-Kristoren saietsera joatea, edo begien aurrean balego bezala berari eldutzea da gogo, eta pensamentu utsezko gauza; Jesu-Kristo alabaña, gizona danez, ezta arkitzen leku guztietan; baizik Zeruan, eta Aldareko Sakramentuan. 2.a Jesus guru-tzefikatuakin, eta Jesusen pasioko pauso, edo llaga-ren baten gañean sarritan, eta benaz pensatu izan duanak, aisa edozeiñ perilletan, edozeiñ ordu ta leku-tan gogoz, eta biotzez laster egingo du, Jesusen llage-tara, edo pasioko pausora; baña gauz oek gogoan erabiltzeko oiturarik izan ez duana nekez moldatzen da. Atzenean beste batzuek bakar-bakarrik fedearen argiarekin gogora ekartzen due, ta sinisten, leku guz-tietan dagoan Jaun Jaungoikoaren aurrean, eta begie-

tan daudela, beste gauza, ta pensamentu zallagotan sartu gabe. Eta au da era ta modurik errazena guztientzat, jakintsuentzat, eta ez jakiñentzat.

Jaunaren aurrean jartze, ta ibiltze au ongi egiteko, ez da asko gogora ekartzea, ta sinistea Jaun baeraren aurrean, eta begietan arkitzen gerala. Baldin, egia au gogora ekarrita sinistu ezkeru, geratzen bazera len bezala; ezpadiozkatzu begira dagokizun Jaun Andiari zere agur umillak egiten; edo ezpadezu konturik, eta arretarik biotza beragana jasotzeko: esan gidazu, Kristaua, zertarako da Jaunaren aurrean zaudela sinistea? Ez dezu ekusten, siniste au dala siniste antzua? Argatik bada Jaunaren aurrean, eta begietan gaudela sinistu ondoan, altxa bear degu biotza beragana, aldian aldiari dagokan eran. Batzuetan edertasun baztergabearen aurrean gaudela gogorarik, esan dezakegu: *O edertasun anziñakoa, baña beti berria! Non nabill zuzaz azturik, ta zeren billa? izanik zu ondasun guzien jabea ta iturburua?* Besteetan bera- ren kontra ainbeste bider altxa gerala, ezagaturik, esan dezakegu: *Ta zuk, Jauna, ekusirik nere eskergabekeria itsusiak, nere bekatu izugarriak, ez nazu alaere betiko su, eta garren artera bidaldu? Nola erantzungo diot zure ontasun, eta miseriardiari?*

Batzuetan eskerrak eman bear zaizka beti egiten dizkigun mesedeaz; besteetan eskeñi bear diogu asitzen degun lan, edo egitekoa. Neke, gurutze, edo naigaberen batek ekiten digunean jaso bear degu biotza, ta esan: *Zure izenean izan bedi, Jauna, nere neke au: bedeikatua izan bedi zure izen Santua*. Tentazioren bat datorrenean lenbait len gogo, ta biotzez joan bear degu bertan begira dagokigun Jaunagana, aur bat, otsoa ekustean, bere Aita, edo Amaren besoetara lasterka dijoan eran. Esan degiokegu orduan S. Pedrok Jesu-Kristori esan zion eran, itsasoa aserratuta galtzeko perillean zebillenean. *Jauna gorde nazazu*, galdua naiz bestela. Baña kontu, Kristaua; ez dezu uste izan bear, itz oekin, edo bete onelakoakin bakarrik biotza altxa bear dala Jaunagana. Eztabill Jauna itz polit-ederren billa; eta ez dira itz ikasiak ain onak, nola Jaunaganako mugimentuak eralkitzen dituanak. Jaungoikoak nai duana da biotz oso-prestu bat: jaungoikoak nai duana da biotza beragana jasotzea; naiz itzik ez esan, edo itz politik ez jakin.

Atzenean Jaunaren aurrean jartzeko, ta ibiltzeko ejerjizio au ongi egiteko gauza bearra da arretarekin, eta sarritan, Jaunaren aurrean, eta begietan gaudela, sinistea, ta sarritan biotza beragana jasotzea, batez-

ere orduren bat aditzean, lanen bat asitzean, edo bukatzean, mesederen bat egiten digunean, neke, gurutze, edo tentazioan arkitzen geranean. Era onetan gu oraindanoan saiatu izan bagina, etzan izango, ez, gure bizitza izan dan bezen txarra, ta negargarria. Nekatzen dira batzuek (eta ongi egiten due): nekatzen dira irakurtzen liburuak, ikasteko orazio egiten; baña ez due guztiak onetarako era. Nekatzen dira beste batzuek, liburuetan arkitzen dituen, orazioren batzuek gogoan artzen. Ongi egiten due oek-ere; baña ez due guztiak aukera oetan ibiltzeko era; ta bestetik gerta diteke erraz, orazio oek gogoan arturik, loroak bezala esatea biotzaren mugimenturik gabe. Ala egun oro gertatzen zaku Aita gurearekin, orazio guztien artean onena bada-ere. Baña Jaunaren aurrean jartzeko, ta ibiltzeko jaiera au da guztiontzat erraza, edozeñ lekutan, naiz etxean, naiz bidean, naiz lanean ari geranean, egin ditekeana: ta esan diteke jaiera au gogotik artuta egiten duana egun guztian orazioan dagoala. Au zan anziñako Patriarka Santuen orazioa; Abraham, Isak, Jakob, Jose, ta beste anziñako Santuak etzuen alabaña izan Jaungoikoaren aurrean fede bizi batekin jartzea, ta beraren aurrean ibiltzea beste libururik. Au da atzenean jaiera bat

ondasun andiak berekin dakartziana, orain ekusiko degun bezala .

Jaunaren aurrean jartzeko, ta beraren begietan ibilteko jaiera onetatik atera ditzakegun ondasunak, bitara biur ditezke. Oetatik bata da bekatutik gordeztea. Andiak dira, ta asko, inguratzen gaituen bekatu-rako perillak. Perillak aurtasunean, perillak gaztetasunean, perillak zartzean. Perillak barrendik, perillak kanpotik. Perillak lagun artean, perillak bakardadean. Perillak etxeetan, perillak plazetan, bideetan, soroe-tan, eta leku guztietan. Beteak daude leku guztiak perillez, beteak sarez, eta lazoaz, dio S. Gregoriok. *Plena omnia periculis, plena laqueis*. Nork gorde gaitzake perill, eta lazo oen guztien artean? Nork, ezpada S. Pedro itsasoaren baga aserreen artean gorde zuanak? Nork, ezpada Babiloniako labe erazekian iru gazte Israeldarrak erre gabe gorde zituanak? Gurekin dago leku guztietan: Guztialduna da, ta nai izate utsarekin gorde gaitzake bekatuan erortzetik. Begira dago, ta zai bezala guri laguntzeko; baldiñ gu gerok geren naiez sartzen ezpagera bekatuan amiltzeko bideetan. Oitu gaitezen bada fede bizi batekin, eta sarritan sinisterra, Jaun onen aurrean arkitzen gerala, ta begira begira dagokigula. Oitu gaitezen perill guz-

tietan biotza beragana jasotzera, bere laguntza eskatzen: ta aizerik gogorrenak ifar gozotan biurtuko, perill guztiak desegingo dira. Baldin Erregeren zaldunak, Errege begira dagoala, ezpada gauza gaiztora atrebitzen, berenez errebesak diranak-ere: baldin ume bat ezpada trebe bere gurasoaren aurrean esateko, ta egiteko, bestela esan, eta egin oi dituan gaiztakeriak nola guk izan dezakegu ausardia Jaungoikoaren aurrean bekatuari leku emateko, baldin fede biziarekin sinisten badegu, beraren aurrean gaudela, ta begira dagokigula? Au osotoro sinisturik gera gaitzen, begira dezagun, zer gertatu zan Jose Patriarkarekin, eta Susanarekin.

Jose, Jakob Patriarkaren seme guztiz eder, eta maitea, bere senideen enbidiak saldu zuan. Erosi zuen aurrena Ismaelita merkatari batzuek, eta gero Ejiptoko Erregeren ejerzituen buru, ta agintari Futibar zeritzanak. Egiten zituan Josek bere nagusiaren aginduak leialki, ta bere kontura utzi ziozkeen gauza guzia, irteten zitzaizkan nagusiak nai zuan bezala. Ekusirik onek Joserren leialtasuna, ta doai ederrak, bere kontura eman ziozkan etxea, ta gauza guztiak; ta bereala ugaritu ziran Joserren eskuetan. Onela bizi zan Jose bere nagusiaren borondatearen, eta biotza-

ren jabe, ta bere Jaun Jaungoikoak begiratzen ziola gauza guztietan Aita onaren begiak. Baña prestatu zion etsaiak lazo ikaragarri bat, Joseren izen ona, ta anima galerazteko txit perill andikoa, eta limuria. Jarri zitzaion egun batean etxeko andrea begira, ta Joseren edertasunarekin lilluraturik, ekin zion bear ez diran gauzetarako bidea ematen. Ekin zion ez beiñ bakarrik, baizik askotan, baña beti alferrik. Egund batean sartzen da Jose etxera, ta asitzen da bere bakarrean lanen bat egiten. Sartzen zaio etxeko andre ez garbia, ta kaparen erzetik elduta ekiten dio Jose tentatzeari. Zer egin zuan onek? Zer? utzirik kapa irten zan etxetik. Elizaren gurasoetatik askok, ekusirik Josek egin zuana, geiago dala au, dioe, iru gazte Israeldarrak Babiloniako labe gorian erregabe geratzea baño. Ta zerk perill onen andietan gorde zuala, uste dezu Kristaua? Jaunaren aurrean, eta begietan zegoala fede bizi batekin sinisteak. Atozea, esan zion bere tentatzalleari: nere nagusiak zu ez, beste gauza guztiak utzi ditu nere eskuetan. *Nola bada egin dezaket nik desleialtasun onen itsusia nere Jaungoikoaren aurrean, eta begietan? Quomodo ergo possum hoc malum facere, et pexxare in Deum?*

Ezta gutxiago Susanarekin gertatua. Susana Helziasen alaba ederra bere egituran, eta oraindik ederragoa bere animan, ezkondu zuen gurasoak Joakin zeritzan gizon aberats batekin. Nabuko-Donosor Erregeak desegin, eta preso eraman zituanean Juduak Babiloniara, besteakin batean joan bear izan zuan Susanak-ere, Judatarra zanak bezala. Nola Juduen usadioak, eta izkuntza berdiñak etziran Babiloniakoakin, eman izan zien Juduai Erregek eskua, aututzeko beren artean bi Juez, erabaki zitzeen oek Juduen auziak, ta beste gauza Juezen eskuetara oi diranak. Autu zituen Juduak bi gizon zar zintzoak, elduak, eta errespetokoak zirudienak. Bi Juez oek biltzen ziran Susanaren etxean Juduen gauzak aditzera, ta erabakitsera, ta onetan zeuden denboran, irten oi zan Susana etxearen ondoan zuan berjera batera. Ekusten zuen bi Juez aek, ta ekusi ezezik begiratzen ere zioen, ekustean artzen zuan atsegin, eta pozagatik. Ta oi dana: aztu ziran Juez zar oek beren adiñaz zuen karguaz, eta Jaungoikoaz. Lotsatzen ziran aurrenean zar madarikatu biak, batak beteari agertzeko kolkoan zedukeen sua; baña nola aziaz, eta egunetik egunera erazekiaz zijoan, ausi zuen aurreneko lotsa piska ura, agertu zion batek besteari bere gogo lizuna, ta gera-

tu ziran Susana galtzeko elkar ongi artuak. Ekiten dioe Zar nazkagarri biak andre prestua tentatzeari, bakarrik, eta, leku artan usatzen zan bezala, urean sarturik maiñuan zegoan garaiean. Itxiak dadue berjerako ateak, esaten zioen; ez dago iñor-ere begira, ta ezpadezu zuk guk gura deguna egin nai, guk esango degu arkitu zaitugula gazte batekin ezkontza zikintzen duan gaiztakerian. (Ta gaiztakeria onetan arkitzen zana arrika iltzen zuan Juduak, lege zarrak ala agindurik). Ezta gogora besterik, zer kezka, zer pena, ta naigabeak inguratuko zuan tranze onetan Susanaren barrena. Ekusten zuan alde batetik, tentatzalle lizun aek nai zuena egiten ezpazuan, galduko zioela bere onra, ta ipiñiko zuela eriotza gogor baten atzaparretan. Ekusten zuan beste aldetik, begira zegoala Jaungoikoa, ta gauza izugarria zala Jaunaren aurrean, eta begietan bekatu egitea; ta oni begiraturik, erabaki zuan lizunkeriarik ez ematea, naiz kosta zekiola bere onra, eta bizitza. Obe da neretzat, esan zien, bekatu egin gabe zuen bengantzaren atzaparretan erortzea, ezen ez Jaungoiko beraren begietan bekatu egitea. *Melius est mihi absque opere incidere in manus vestras, quam peccare in conspectu Domini.* Au esanda, deadar egin zuan etxerantz, eta

agure zikiñak-ere asi ziran deadarrez Susanaren kontra. Egin zuen oek alegiña Susanari onra, eta bizitza gal erazteko; barreatu zuen gaiztakerian arkitu zuela; baña Daniel Profetak agertu zuan Susanaren inozentzia; ta zar berde-madarikatuak ill ziran Susanari eman nai zioen eriotza-motarekin berarekin, edo arrika. Ekusten dezu, Kristaua, nola bekatuan erortzetik gorde zituan Jose Patriarka, eta Susana, Jaungoikoaren aurrean, eta begietan arkitzen zirala, sinistreak?

Jaiera onetatik datorren beste ona da gauz onak berak, bestela egingo lirakean baño kontu, ta arreta obearekin egitea. Baldin soldaduak arreta geiagorekin egiten baditu dagozkan gauzak Agintaria begira dagoala ekustean; baldin au bera gertatzen bada mirabeakin, eta beargilleakin, begira dagotenean nagusiaren begia, Zenbatez obeto egingo ditugu gure eginbideai dagozten lanak eta beste edozeñ gauz on fede biziarekin, eta sarritan sinisten badegu, begira dagokigula gure Jaun Jaungoikoa? Onela igo zan Henotx birtute, ta Santidade andira. *Ibilli zan*, dio Eskriturak, Jaunarenkin, au da Jaunaren begietan, eta Jaunarn naiari begiratuaz. Henotx ujaldiaren aurretik bizitu zan, eta etzuan izan guk ditugun adiña gauz onetarako laguntza; etzan alabaña orduan Sakra-

menturik, etzan sermoi, ta dotriñarik; etzan deboziozko libururik, ta alaere Jaunaren aurrean, eta begietan ibiltzeko oiturarekin iritxi zuan birtute miragarri bat; ta oraindik bizi zala, ezkutatu zuan Jaunak gizonen artetik, eta gorderik dauka berak dakian gauzetarako. Oro bat Noe Jaunaren aurrean ibiltzeko jaiera onekin izan zan gizon zuzen, eta Santua. Oitu gaitezen bada, nere Kristauak, jaiera onetara. Zabiltza nere aurrean, eta zu izango zera bear bezalakoa, esaten dio Jaunak gutatik bakoitzari, Abrahami esan zion bezala. *Ambula coram me, et esto perfectus*. Sarritan, ta fede biziarekin sinis dezagun Jaunaren aurrean arkitzen gerala, ta begira dagoala, zer egingen, zer esaten, eta zer pensatzen degun. Bera izango da egun batean testigu, ta Juez. Baña ez gaitezen kontentu geratu siniste utsarekin; altxa dezagun biotza sarritan begira dagokigun Jaungoiko guztiz on, eta ongille andiagana, dala lanen bat asitzean, edo bukatzean; dala neke, edo naigaberen bat datorkigunean; dala tentazioen denboran, itz batean, sarritan, sarritan, sarritan. Jaunari nai dakiola, nere Kristauak, zuek, eta nik, jaiera onetan gorderik dauden, ondasunak ez galtzea, ta oekin batean iristea betiraunde guziko gloria. Amen.

OGEI TA AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da lenengo lekuan Jauna
adoratzeko degun zor andia.*

Urrena Jaun berari eskerrak emateko deguna.

*Dominum Deum tuum adorabis,
et illi soli servies. Deuterom. 6, et Math. 4.*

Gure lan, eta egiteko guztien artean andiena, edo obeto esateko bakar bakarra da gure Jaun Jaungoikoa ezagutzea, adoratzea, ta serbitzea. *Adoratuko dezu zure Jaun Jaungoikoa, ta ura bakarrik serbituko dezu,* esaten zaku Eskritura Santan. Alaere egiteko au da guztien artean aztuena, ta beti geroko utzitzen deguna! Ta gauza negargarria! Egiteko oni benaz ekiñ baño len etorri oi da eriotza, ta galtzen dira betiko ezin konta al anima! Au gerta ez dakigun, eta denbora berean Jauna serbitzean arkitu ditekean, neke guztia gozatzeko, ta arintzeko da, egun oroko asi degun, jaiera, edo debozioa. Ongi begiratzen badiogu jaiera oni ta jaiera ontarako ipintzen diran gauzai, au da

Kristauari dagokan bizitza onaren zimendua bezala; ta beragatik alik ongiena agertzea, azaltzea, adirartea dagokana. Jaiera onen lenengo gauza da Jaunaren aurrean jartzea, edo sinistea, Jaunaren aurrean gaudela, ta begira dagokigula. Gai onen gañean zan aurreko dotrina. Bigarrena da Jaun bera umilki adorartzea, ta egin dizkigun ontarte, ta mesedeaz eskerrak ematea ta onen gañean izango da gaurko dotrina. Ekusiko degu aurrena: Jauna adoratzeko degun zor andia. Ekusiko degu urrena Jaun berari eskerrak emateko deguna.

Gure Jaun Jaungoikoa da gauza guztien Asiera, ta Iturburua, guztien Iraupena, ta Fiña, ta Exzellenzia, edo Gainde onegatik zor diogu onore, ta onrarik garaiena, goiena, ta andiena. Onra au ematen zaio Jaunari era askotan, eta era oetatik batari deitzen zaio *adorazioa*. Adoratzeko guk Jauna egiaz, eta bear dan eran, bear dira iru gauza. Lenengoa da: ezagutzea Jauna dala guztiaren Asiera; ta Iturburua, guztiaren Iraupena, ta Fiña. Baña ezaguera ezer ezta ezaguera utsean geratzen bagera. Bigarren gauza da: biotz umill batekin aditzera eman nai izatea Jaunaren *Exzellenzia*, edo *Gainde* au, ta gure ezer eza, ta Jaunari zor diogun mendetasun osoa. Au da adorazioa-

ren biotza, ta anima bezala. Atzenean biotzaren sasoi on au aditzera eman bear da gorputzaren siñaleren batekin: egin dezagun kontu auspez, edo belauniko Jaunaren aurrean jartzen gerala, edo burua markurtuaz. Iru siñale oek usatzen ditu Eliz Ama Santak Jauna adoratzeko, ta anziñako Patriarkak-ere usatu zituen. Ezagutzeko orain guk Jauna adoratzeko degun zor andia, asko da begiratzea zein dan gauza guztien Asiera, ta Iturburua? Nork gordetzen dien duen izatea gauza guztiai? Zertarako egiñak dauden guztiak? Goazen iru gauz oek banaka ekustera.

Orain bederatzi milla urte danean Jaungoikoaz osterontzean etzan ezer-ere. Etzan Zerurik, etzan izarrik, etzan eguzkirik, etzan illargirik, etzan Aingerurik. Etzan, lurrik, arririk, arbolarik, ez eta gizonik-ere, sei milla urte bezala dira alabaña gizon jakintsuen kontuetan mundu au izaten asi zala, lau milla Jesu-Kristoren jaiotzaraño, eta bi millaren aldean Jesu-Kristo jaio zanetik gaurdaño. Ezer-ezaren illunbean beraz arkitzen ziran Jainkoaz osterontzeko gauza guztiak orain bederatzi milla urte danean, eta geroztik-ere. Nork atera ditu gauz oek beren ezer-ezetik? Nork egiñak daude, galdetzen digu Isaiak Profetak? *Quis creavit haec?* Nork Zeruak, izarrak, Eguzkia, ta illargia? Nork

Aringeruak? Nork lurra; ta lurrean arkitzen diran gauzak? arraiak, egaztiak, arbolak, ganaduak, itsasoak, ibaiak, iturriak, gizonak? *Quis creavit haec?* Egiñ, edo agertu ote dira berenez? Baña ezer-ezak eztu al, edo eskurik, eztu indar, eta kemenik ezer egiteko. Nor bada gauza guztiak atera ditu ezer-ezaren illunbetik? *Quis creavit haec?* Nork ezpada gure Jaun Jaungoiko Guzieldunaren eskuak? Gauzen asieran egin zituan Zerua, ta lurra, ta oetan arkitzen diran gauzak, dio Moisesek. Gizon batetik gizonaren jatorria zabaldu du lurraren gaiñ guztian dio S. Paulok. Nork lagundu zion Jaunari gauz oek guztiak egiten? Nork erakusi zion zer ta nola egin, dio Isaiak Profetak? *Quis adjuvit Spiritum Somini? aut quis consiliarius ejus fuit, et ostendit illi?* Etzuan ez Jaunak gauz oek guztiak egiteko nai izatea besterik bear. Esan zuan egin bedi au, egin bedi ura, ta bereala agertu zan guztia egiña. Ekusten dezu, Kristaua, zein dan guaza guztien Asiera, ta Iturburua? Ekusten dezu nola guztiak datozen gure Jaun Jaungoikoagandik?

Ta munduari, ta munduan arkitzen diran gauzai nork gordetzen ote die duen izatea? Nork ote dauka gauza guztien, eta bakoitzaren kontua? Nork, egin zituan Jaungoikoak berak baizik? Jaun onen nai, eta

Letart edo Probidenziaren aritik itxikirik, eta txintxilik arkitzen dira gauza guztiak. Ezin iraun dezakee, dan unerik, eta denboraren punturik txikienean-ere, Jaunaren nai, eta esku indartsuak gordetzen ez dituala. Guztiak bereala biurtuko lirake aziñako beren ezer-ezean. Argatik Jakintsuak esaten dio Jaunari Eskritura Santan: Nola ezerk-ere iraun lezake, Jauna, zuk nai ez izatera? *Quomodo posse taliquid permanere, nisi tu voluisses?* Jaunak beraz gordetzen gaitu, edo puntu oro berriro ematen digu gauza guztioi degun izatea, Jaunak dauka gauza txiki, ta andien kontua; ta Jauna da guztien iraupena.

Zertarako egin ote zituan Jaunak mundua, ta munduko gauza guztiak? Egin zituan Jaun beraren naia egiteko, bakoitzak bere eran: egin zituan beraren onra, ta gloriarako. *Universa propter semetipsum operatus est Dominus.* Argatik Dabid Santua, bekatariai ez, beste gauza guztiai otsez dagote, ta deitzen die guztiai Jauna laudatzera. Deitzen die Aingeruai, eguzkiari, illargiari, izarrai, ta oen argiari. Deitzen die dragoiai berai, suari, abazuzari, elurrari, ta izotzari. Deitzen die mendiai, arbolai, abereai, ta egaztiai. Deitzen die gizon birtutetsu guztiai, Errege, Prinzipe, ta lurreko Andiai, gazteai, eta zarrai. *Hymnus omnibus*

Sanctis eius. Ona, Kristaua, ona nola gure Jaun Jaungoikoa dan gauza guztien Asiera, ta Iturburua; guztien Iraupena, ta Fiña, ta ona nondik datorkigun Jaun bera adoratzeko zor andi bat.

Sinisten ditugu egia oek! eta alaere izan gera gu, izan geran bezalakoak? Zenbat, eta zenbat egun joan zaizkigu, Jaungoikoa danik-ere ongi oroitu gabe? Zenbat, eta zenbat denbora, Jaun oni agur umillik egin gabe? Ta Jaunaren etxean, edo Elizan bertan gaude-nean-ere, kontuz, eta biotz umillarekin egin ote diozkagu, dagozkan agurrak? Zenbat bider gorputzez Elizan egonagatik, gogoz, eta biotzez Jaunagandik urruti ibilli gera? Zenbat egoten dira Elizan bertan, au zabalka, erdi lo, edo nagiak ateratzen? Zenbat meza-tako denboran bertan zokoetan belaunikatu-ere gabe, edo geienaz belaun bata lurrean duela? Zenbat gazte Eliz inguruan ibiltzen dira pelotan, edo bestela deadarka, Meza denboran bertan? Ta zenbat bider egoten dira ostatuetan jendeak, Jaunaren alabanzen denboran? Zenbat emakume mezatan, edo meza ondoan erausian, asteko ipuiak, eta Jaungoikoaren etxeari ongi ez dagozkan, gauzak kontatuaz? Au da, nere Kristauak, gure Jaun Jaungoikoa adoratzea? Ez ote da au iseka egitea jaun berari? Lotsa gaitezen,

nerre Kristauak, onenbeste gure utsegitez. Oitu gaitezzen, Jauna sarritan adoratzera. Oitu gaitezzen Elizan umiltasun, eta errespeto andiarekin egotera, Jaunari noizean bein agur umillak egiñaz. Aiena bitez betiko Elizako erausiak, eta modu dongeak. Egin bezee Erriko buruak, ta erakusleak dagoten eran kontu, galezteko, Jaunaren onra, alabanza, ta errespetoa gutxitzen duen, oitura, ta usadio gaiztoak. Onela eranzungo diogu ongi, gure Jaun Jaungoikoa adoratzeko degun, zor andiari. Goazen orain, Jaunari, egin dizkigun, eta egun oro egiten ari zakun ontarte, ta mesedeaz, eskerrak emateko degun, beste zor, eta egin bideari begiratzera.

Ontarte, edo mesedeak artu dituan baten eginbide, ta zorrak asko dira, ta oetatik bat da ontarte berak gogoan idukitzea, ta ongillari biotz ezaguera onez beterikako batekin eskerrak ematea. Ala erakusten digu fedearen argiak, izan zaitezten esker onekoak, esaten digu S. Paulok. Ala erakusten digu, gizonari Jaunak eman zion, ezaguera, eta argiak; ta ala erakusten digue atzenean zentzurik ez duen abereak, eta egaztiak berak; oroitzen dira alabaña abereak beren eran, ongillearen eskuak egin zien, onaz; ta egaztiak egun oro eguantzaren zai daude beren

egille ona laudatzen asitzeko, eta eskerrak berari emateko. Ta ontarte, edo mesederen bat artu duan edozeñek eskerrak zor badiozka bere ongileari nola-koa, ta zeñ andia izango ote da, gure Jaun Jaungoikori eskerrak emateko degun, Zorra? Au nolerebait ezagutzeko iru gauzari begiratu bear diogu: Nor dan gure ongille au? Zenbat eta andiagoa, goiagoa, ta argiagoa dan alabaña ongille bat, anbat andiagoa da, ta balio geiago du ontarte, edo mesedeak. Nor gerangu? Ta zer ontarte, edo mesedeak egin dizkigun ongille maitagarri onek? Iru guaz oei kontuz begiratu ezkerro, erraz ezagutuko degu, zeñ andia dan, Jaunari eskerrak emateko degun, zorra. Asi gaitezen lenengotik.

Nor ote da gure ongille au? Da ongille au Jaungoiko guzalduna bera, gauza guztien Egille, Jaun, ta jabea; betikoa, iñoren bearrik ez duana, berez, eta beregan beti doatsua. Da Errege guztien Erregea. Da arako izate ezin geiagoraño eder, eziñ geiagoraño on, eta maitagarri ura, zeñaren edertasuna ekustek betiko doatsu egiten dituan Zeruko Aingeruak, eta anima onak. Ta Jaun andi onek nai izan du gure ongilletzat jarri? Jaun andi onek egin dizkigu ainbeste on, eta mesede? Baldin gauza, berenez andiak ez dira-

nak-ere, anditzen, ta balio goienekora igotzen badira Erregeren eskutik datozenean zer esango degu, Errege guztien Erregeren eskutik artu ditugun, anbat ontarte, ta mesedez? Ta zein andia izango da, Jaun andi oni eskerrak emateko emendik datorkigun, zorra?

Ta nor gera gu, edo zer, Jaun au era onetan guzaz oroitzeko? Zer da, Jauna, gizona, zuk ainbesteraño gizona altxatzeko esaten dio Job Santuak Jaungoikoa-ri. *Quid est homo, quia magnificas eum?* Zer, ezpada lurreko auts piska bat, gorputzaren aldetik begiratzen bazaio? Zer ezpada loiez, zikinkeriaz, eta arrez beterikako ontzi nazkagarri bat? Ontzi bat egun oro loa sortzen duana, loa gabe ezin iraun dezakeana? Zer, ezpada goizean jaiota arratsaldeko igarturik dagoan lorea? Ta animaren aldetik begiratzen badiogu, zer da gizona, sortzen daneko Jaunaren etsaiaren siñalea, edo bekatu jatorrizkoa berekin dakarren, gauza besterik? Ta alaere guzaz oroitu da Jauna? Egin dizki-gu ainbeste ontarte, ta mesede?

Ta nolako ontarte, edo mesedeak? Au ongi ezagutzeko banaka ekusi nai lirake mesede oek; baña errazago kontatuko lirake itsasoan arkitzen diran ur tanta, ta are-aleak: lenago lurraren gañean diran

belar, eta arbolak, Jaunaren esku ongilleak egin dizki-
gun mesedeak baño. Argatik oetatik batzuei bakarrik
begiratuko degiekegu. Idiki, ta zabaldu itzatzu bada,
Kristaua, zure animaren begiak, ta osotoro aitu ezpa-
da zure ezagueraren argia ekusiko dituzu, zure Jaun
Jaungoikoak egin dizkitzun, ta beti egiten ari zatzun
mesede andiak. Zure Jaun, ta ongille onek atera zin-
duan ezer-ezetik utzirik beste ezin konta al beren
ezer-ezean. Non ziñan oraiñ milla, oraiñ berreun, edo
oraiñ eun urte? iñon-ere ez, edo ezer-ezaren illun-
bean? Non ziñan, esaten dizu Jaunak, non, lurraren
zimenduak ezarten ni ari nintzanean? *Ubi eraz, quan-
do ponebam fundamenta terrae?* Jaun onek egin zin-
duan bere antzera, ta berarekin batean Zeruan bizi-
tzeko, ta prestatu zizun Zeruko erri zoragarria. Jaun
onek gordetzen du zure bizitza; ta emen bizi bear
dezun arteko prestatu zuan zuretzat munduko etxe
eder galant au, zuk bear dituzun gauza guztiakin.
Badira etxe onetan urre-zillarrak, diamanteak, arri
fiñak: badira beiak, ardiak, ta illez, edo lumaz janzirik
dabiltzan beste gauzak. Badira iturriak, ibaiak, itsaso-
ak, eta oetan arraiak. Ta leku batean arkitzen ez
dana, arkituko da bestean. Bearrean, edo premian
arkitzen bada norbait, ori da edo zeren nekatu nai ez

duan, edo zeren ori dagokion bere onerako. Jaun au egin zan gizon, zu bekatuaren, eta etsaiaren mendetik ateratzeko; eta eman zuan bizitza gurutzean. Jaun onek bataioko Sakramentuarekin kendu zizun Adanen bekatuaren, edo bekatu jatorrizkoaren mantxa; ta egin zinduan bere Elizaren ume, utzirik beste asko fedearen argirik ez duen jendeen artean. Jaun onek eman dizkitzu ainbeste laguntza Sakramentuen, liburu on, edo dotrinen bidez. Jaun au jarri zan aldareko Sakramentu guztiz Santuan, zure animaren janari, ta edari egiñik zuri emateko bere gorputza, bere odola, bere anima, bere biotza, ta bere Jaungoikotasuna bera. Jaun au da atzenean zu ainbeste bider bekatuan erortzetik gorde, ta, zu irintsitzeko zabaldurik zegoan, infernuaren eztarritzar izugarritik atera zaituana. Itz batean ezta zure bizitzaren denboran unerik, eta punturik izan, zeñean zuk Jaun Ongille onen eskutik mesede andiren bat artu ez dezun. Beti ta leku guztietan iduki zaitu itsasoan arraia urez inguratua dagoan eran, bere ontarte, ta mesedez alde guztietatik inguratua. Esan gidazu orain, Kristaua, baldin edozeiñ ongilleri eskerrak zor bazaizka: nolakoa izango da, gure Jaun Jaungoiko, ta Ongille onen andiari eskerrak emateko degun, zorra? Alaere, gauza mira-

garria, ta ekusten ezpaliz, sinistu ezin litekeana! Jaunari eskerrak eman ordean, aztu gera egin dizkigun mesedeaz! Ta aztutzea gutxi baliz bezala, mesede beraz baliatu gera Ongille maitagarriaren kontra altxatzeko! Atozea zu, aditzen zauden Kristaua, zenbat bider begi oriez, zenbat bider belarriaz, zenbat bider esku-oñaz, zenbat bider zure gorputzaz, zenbat bider misto zorrotz orrezaz baliatu zera zure Jaun Jaungoikoaren kontra bekatu egiteko? Zenbat bider, Jaunak eman zizun osasuna, itxura, ta ondasunak: zenbat bider Sakramentuak berak, dotrinak, eta beste gauz onak biurtu dituzu zure animaren puzoi, eta zure Ongille Andiaren kontrako lanza? Au da gure Jaunari zor diogun eranzuera? *Haecce reddis Domino, popule stulte, et insipiens?* Noiz-ere bait biur gaitezen gerengana, nere Kristauak: ezagutu dezagun Jaunari eskerrak emateko degun zor andia, ta eman degiozkagun sarritan, batez-ere goiz-arratsetan. Egunaz-ere maiz oroi gaitezen Jaun beraz, ta egiten dizkigun mesedeaz. Onela iristeko oraindañoko eskergabekerien barkazioa, ta ongi aurrera bizitzen gerala, betiko gloria. Amen.

OGEI TA EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Jaun Jaungoikoari zor diozkagun esker
on-humillen gañean.*

Artu ditugun ontarte edo mesedeen ezaguera ona.

Memento creatoris tui in diebus juventutis tuae. Ecclesiastes 12.

Artu ditugun ontarte, edo mesedeen ezaguera ona da birtute bat Jaungoikoak berak gizonari eman ziona esker onekoa izateko bere ongilleakin. Birtute onen mallak dira: 1.a gogoan idukitzea egin zaizkigun mesedeak. Ongilleari dagoka egiten duan mesedez aztutzea, ta artzalleari beñere, ez aztutzea, esan zuan Senekak. *Hoc inter duos Beneficii lex est, alter statim oblivisci debet dati, alter accepti nunquam* 2.a Eskerrak ematea ongilleari. 3.a denbora egokia datorrenean aitortzea egin zakun mesedea, ezagutua izan dedin ongillea. Ongilleak ez du ezkillu jotzen ibilli bear, ta era onetan ibiltzeak adirazten du ez duala mesedea egin, lagun urkoaren onagatik, baizik beste

fin zimurren bategatik, ta itsusten, ta ezer ezera biur-
tzen du mesedea, edo mesede izan zitekean gauza;
baña ontartea edo mesedea artu duanak deretxa
egokia datorrenean aitortu bear du bere ongilleak
egin dion mesedea, ta ongille beraren prestutasuna.
4.a Ongilleari ongi nai izatea, ta al dan eran ordañ-
tzea, edo argatik alegiña egitea. 5.a Mesedeari eran-
tzun da ere, erantzun ezpalitzaio bezala, gogoan idu-
kitzea, ta ongilleari borondate eskerdun bat gorde-
tzea; au da biotz prestu bati dagokan gauza.

Birtute onen kontra bizioa da eskergabekeria, ta
baditu onek-ere bere mallak. Lenengoa da egin zakun
mesedeaz aztutzea, ta au da ganaduak, edo zentzu-
gabeko animaliak berak egiten ez duena. 2en malla
da eskerrik ez ematea, edo esker gaiztoak ematea.
Ain dira zenbait gai onen gañean esker gaiztokoak,
non egiten zaten mesede guztia ezertan ez daukeen.
3en malla da denbora egokian antustez, edo sober-
biaz ez aitortzea artu degun mesedea. Badira ongille
mota batzuek egin dituen mesedeak, edo mesedeen
iduripenak leku guztian erausitzen dituenak, baña isi-
lirik uzten dituela mesede apur aen ordaiñ artu dituen
esker onak; ta era onetan badira mesedeak artu
dituenen artean batzuek ain antuste andikoak, ain

arroak, non uste duen geiegi beeratuko lirakeala egin zaizten ontarteak aitortu, ta ongillea alabatzearekin.

4.a Artu ditugun ontarteai ez erantzutea erantzun genezakeala. 5.a Gure ongilleentzat afektorik ez gordetzea. Emendik ezagutu dezakegu mundu onetan ongille egiazko gutxi arkitzen dala, eta esker gabez beterik daudela leku guztiak. Ta zer izango da begiratzan badiegu alde batetik gure ongille andi Jaun Jaungoikoak egin dizkigun ontarteai, ta beste aldetik zer gisatan erantzun diegun ontarte oei? Ai! nere Kristauak! izanik gure Jaungoikoa gure ongille ezin andiagoa, alaere doi doia arkitzen du gure artean, egin dizkigun ontarteaz ongi oroitzen danik! Espadasunez beterik arkitzen da mundua eskergabeen kontra; baña begiratzan badegu, zenbat ontarte, ta zeñ andiak egin dizkigun Jaunak, non arkituko degu gu gerok baño eskergabe andiagorik? Ezagutu dezazunbada, Kristaua, zure Jaunari zor diozuna, ta oitu zaitezzen sarritan esker on-humillak berari ematera oroi zaitez. 1.a nola ezer ezetik atera zaituan, ta zertarako. 2.a zu jaio orduko nola prestatu zizun zure bizi lekua, ta bear dezun guztia. Oroi zaitez atzena, nolako Jauregi eder-zoragarria apaindu dizun Zeruan, munduko etxe onetatik ateratzen zeraneko.

§ I.

Asi zaite, Kristaua, zure sortzearen aurreko denbora guztiai begiraldi bat ematen, ta zuk ekusiko dezu ezer ezaren illuntasunean egon zerala oraindik denbora gutxi dan artean. Zer ziñan ezperen mundu au Jaunak egin zuan arteko eternidade guztian? ezer ez zu, ezer ez zure gurasoak, ta zure aurreko guztiak. Zer ziñan zu, ta zer giñan gu guztiok, gure Jaungoiko gauza guztien Egille andiak mundu au egin zuan denboran? Ezer ez. *Non ziñan*, esaten dizu Jaunak, *Ubi eras quando ponebam fundamenta terrae?* (Job cap. 38). *Non ziñan*, *lurraren zimenduak ezartzen ni ari nintzanean?* Baziñakian zuk orduan jaioko ziñanik, edo zenbat egunean iraungo duan zure bizitzak? Zer giñan orain lau milla, orain milla, edo orain bost eun urte-ere? Ezer ez, etzan munduan gure berririk-ere. Zer giñan atzenean orain eun urte danean? Ezer-ez oraindik. Nork atera ginduan bada ezer-ezaren illunbe onetatik? Ez gerok egiaz; ezer-ezak alabaña ez du ezer egiteko eskurik. Ez gizonak, ta ez Aingeruak-ere; oek-ere alabaña ezer-ezarekin ezin dan gauzarik txi-

kiena molda dezakee? Nork atera gaitu bada gure ezer-ezetik? Nork ezpada gure Jaun Jaungoiko guzialdunak?

Gu geren ezer-ezean utzirik, egin zitzakean Jaunak beste ezin konta al anima gu ez bezalakoak, ta guztiz leialki beren Egille ona serbituko zuenak. Ta alaere aek utzi zituan beren ezer-ezean, ta egin ginduan gu! Oraindik amaren sabelean sortu baño len, ezagutu zindudan, ta nere ongina betikoarekin begiratu, ta maite izan zindudan, esaten digu Jaunak. Jeremias, Profetari esan zion eran. *Priusquam te formarem in utero novi te* (Jerem. c. 1) *In charitate perpetua dilexi te* (cap. 31).

Ekusten dezu, Kristaua, nola oraindik orañago ezer-ere ez giñan? ta gure berririk batere munduan etzan? Ekusten dezu nola ezer-ez onetatik nai izate utsarekin atera gaituan gure Jaun Jaungoikoak? Ta atera, beste ezin konta al utzitzen dituala betiko beren ezer-ezean? Ta zertarako ezer-ezetik atera, ta ipiñi ote gaitu munduan gure ongille maitagarriak? Ez gaitu egiaz emen ondasunak biltzeko ipiñi, Ebenjelioko aberats kutiziosoak erakusten digun bezala. Ez gaitu egin gure gogo, ta biotzak ipintzeko munduaren atsegin loi, arrotasun, ta zorakerietan. Ez, ez, Kris-

taua: gauza goiago, andiago, ta miragarriagoetarako egiñak gera: au da emen ezagutzeko, ta amatzeko gure Jaun Jaungoikoa, ta beraren Seme, ta gure Salbatzallea, ta gero bizitzeko beti betiko atsegin kontentuen artean Zeruan. Onetan dago gizonaren izate guztia, ta gure doatasuna. Izan zaitez Jaungoikoaren beldurrekoa, ta gorde itzatzu beraren aginteak; au da alabaña gizonaren izan guztia, esaten digu Eskritura Santak. *Deus time, et mandata ejus observa: hoc est enim omnis homo* (Ecclesiastes cap. 12).

Atozea oraiñ Kristaua, zu ezer ezetik atera, ta gauza añ andietarako egin zaituan zure Jaungoikoari, ez diozu zor dezun izatea, ta zu zeran, ta izan al zaitzkean guztia? Ez diozu zor sarritan beraz oroitzea, ta esker on humillak ematea? Baña au are obeto eza-gutu dezazun oroi zaitez bigarren lekuan, nola zu jaio orduko emen prestatu zizun zure Egille onak zure bizi lekua, ta bizitzeko bear dezun guztia.

§ II.

Egin zinduan zure Jaunak emen bera ezagutzeko, amatzeko, ta beraren aginteak gordetzeko: ta bizi

zeran denborarako prestatu zizun etxe eder-galant bat, ta bear dezun guztia. Nai dezu ekusi nolako etxea prestatu zizun? «Zabalitzatzu bada zure begiak, ta begira eguzkira, begira illargira, begira izarrez betea dagoan gañ orretara: begira-ezazu lurarren lau bazterretara: begira aizera, begira itsasora, ta alde guztietara. Orra zure Egille onak zuretzat prestatu zuan etxe eder-galanta. Etxe onen tellatuak, izarrez beteak dauden Zeruak dira. Etxazpia da, zere oñpean dadukazun, mundu guztia. Pareteak elementuak dira, ta gelak erriak. Etxe onetako kriseluak, edo argiak, egunaz eguzkia, ta gauaz illargia, ta izarrak dira. Tellatuak ez dira beñere urratzen; txutik daude beti pareteak, ta etxeko argia Jaungoikoaren kontura dago».

Etxe eder galant au zaitzen du beraren Egille Jaungoikoak. Jaun andi onek airean bezala dauzka, Isaias Profetak dionez. «Egiak, aldapak, mendiak, itsasoak, ta mundu guzi guzia iru beatzekin. Iru beatz oek dira Jaunaren Jakiundea, ontasuna, ta eskua. Noiz, nola, ta zertako gauzak egin bere jakiundeak erakutsi zion Jaungoikoari. Bere ontasunak eragin ziozkan bear zan garaiean; eta egin zituan bear bezala bere esku ongillearekin.

»Etzan gure Jaungoikoakontentu geratu, guretzat etxe eder galant au apaindurik ipintzearekin. Baziakian Jaunak, ezurrez, ta aragiz jantziak, egin ginduala, ta etxeaz gañera beste gauza asko bear genituala. Orregatik etxea egin orduko, egin zituan lurpean urre zillarrak, diamanteak, ta arri fiñak; lur gañean beiak, ardiak, eperrak, ollaskoak, ta illez, ta lumaz jantzirik dabilzan egaztiak, ta gauzak. Egin zituan iturriak, egin zituan ibaiak, egin zuan itsasoa, ta au, ta ibaiak arraiez beteak. Au guztia ezer ezpaliz bezala, eman zien gure Jaungoikoak lurrari, aizeari, suari, ta urari bear adiña indar berenez, edo laguntzen zaie-la egiteko gure jan-edanerako, soñerako, ta beste gauzetarako bear degun guztia. Emen gure bazterretan arkitzen ez diran gauzak arkitzen dira besteetan, ta andik ekartzeko, legorrez ekartzekoak diranean, badira bideak, zaldiak, mandoak, edo idiak: ta itsasoz ekartzekoak diranean badira ontziak, eta ontziak. Bearrean arkitzen bada norbait, ori izango da berak egin gabez egin bear duena; edo zeren ori dan orduan ari ongiena dagokan Zerurako bidea».

Idiki itzatzu bada noizbait-noizbait, Kristaua, zure begiak, ta ekusirik zure Egille onak zuretzat apaindu zuan etxe eder galant au, ta etxe onetako gauzak,

lotsa zaite, zeren Jaunaren ontarte oez aztu, edo beraren kontra bekatua bekatuaren gain egiteko baliatu zeran. Ezagutu ezazu ongi, nolako eskerrak zor diozkatzun.

§ III.

Etzaitezela ordea munduko etxe eder oni begira lilluraturik geratu. Oroi zaitez erbestean bizi zerala: ta erbesteturik gauden denboran onen etxe edergalanta, ta ainbeste gauza guretzat prestatu baditu gure Egille onak nolako Jauregia, edo bizilekua izango da Zeruko Jerusalem, ta Jaungoiko beraren Erri zoragarrian guretzat prestatu duana? Ai! baña nork au adierazi? Ala ere alde onetatik zere jaunari diozun zor andia zerbait ezagutu dezazun, Kristaua, altxaitzatu zure begiak Zeru orietara. Zeñ eder ematen due oriek gau argi batean izarrak beren lekuetan distiatzen, ta argi egiten duela? uste dezu oriek dirala Jaungoiko beraren Erria? Oriek doatsuen Jauregia? Utsegiten dezu, engañatzen zera. Zeru oriek Jaunaren bizi lekuaren ataria besterik ez dira.

Zoaz bada, Kristaua, goorago, ta goorago, ta ekusiko dezu Erri bat añ andi-eder-zoragarria, non gure adimentuak ezin ongi iritsi lezakean. Ekusiko dituzu Erri onen murallak, ta ez dezu jakingo zer esan aen edertasuna dakusazunean. Muralla oen lenengo arri errenkada da jaspea, baña ez emengo jaspe illun oen antzekoa, baizik kristala bera baño garbiagoa, ta argia igarotzen zaiona. Ala dio S. Juan Ebanjelistak. Bigarren errenkada da *Saphiro* deritzan Zeru koloreko arri eder bat, ta au ere kristalaren eran argia. Iruugarrena Txalzedoniako arri eder baten antzekoa, au da brasa erazekia dirudiana. laugarren errenkada da esmeraldazkoa. Bostgarrena da S. Juanek *Sardonix* deitzen dion arri zuri-gorritara ematen duan bat. Seiugarren arri errankada da *Sardio* deritzan beste arri eder batekikoa. Zazpigarrena da *Krisolito* esaten zaion arria, au da urrezkoa, ta kristalak bezala argi ematen duana. Zortzigarren errenkada da *Berilo* deitzen dioen berdetara ematen duan arri eder bat. Bederatzeigarrena da *Topazio* esaten zaion beste arri mota bat. Amargarrena errenkada, S. Juanek dionez da *Txysofraso*, berdetara, ta urrekolorera ematen duana. Amaikagarren da *jazintoa*, jazmin kolorekoa. Atzenean gañeko arri errenkada da *amethysto* esa-

ten zaion arri mota prezioso bat, ta guztiak kristalaren eran argi egiten duenak. Muralla eder onek goora duan neurria da eun, ta berrogeita lau beso. Atozea orain, Kristaua, zeñ gauz eder miragarria izango ez da Zeruko gure erria murallak onen argiak, ederrak, ta zoragarriak diranean? Ai ene! ta au ala izanik azturik zorioneko gure erri artzaz, munduko gauza lauso, ta loietan ondaturik bezala bizi gerade! Zer da au, nere Kristauak, non da gure sinistea?

San Juan Ebanjelistak Zeruko erriaren murallak arri eder-preziotsu aekin egiñak daudela, adirazten digunean, ez degu sinistu bear arrizko murallak dirala; baizik arri eder aek izendatzen dituala guri nolere bait agertzeko zeñ miragarria dan Zerua murallaren eran inguratzen duan edertasuna.

Amabi ate ditu Erri onek: sortaldetik, edo Eguzkia sortzen dan aldetik iru; nortaldetik iru; eguerditik iru, ta eguzkia sartzen dan aldetik beste iru. Ez dira ate oek puskaz egiñak, baizik margarita deritzan arri bat-osoarekin bakoitza, ta kristalik ederrenak, ta garbienak baño geiago argi egiten, ta distiatzen due. Zoaz Kristaua, zoaz gogoz, ta biotzez ate oetatik barrena. Beti zabalak daude Jaungoikoaren bildots Jesus Jaungoiko-gizonaren odolean beren animak garbitu dituen

guztientzat. Ekusiko dezu erri artako plazak, ta kaleak, ta doatsuen Jauregiak urrezkoak dirala, edo urre guztiak baño ederragoak, ta kristalik garbienak baño argiagoak. *Platea civitatis aurum mundum, tanquam vitrum pertucidum.* Ekusiko dezu Jaungoikoaren, ta Jaungoiko gizon Jesus maitagarriaren jarlekutik irteten, ta zabaltzen dala erri guztian atsegin, gusto, ta kontentu guztien ibai bat, doatsu guztiak atsegiñez betetzen dituana beñere gogoan jo gabe, ta beñere aspertu gabe. Ekusiko dituzu ango plazaren erdian, ta ibaiaren erz bietan arbola aiñ ederrak, ta aiñ ugari fruta ematen duenak, non ill oro fruta berria dakarten. Deitzen zaio arbola oni bizitzaren arbola. Asko lizake arbola onen fruta, ta naiz ostorik txikiena probatzea, munduan diran eritasun, ta gaizmota guztiak, ta eriotza bera aienatzeko. *Et folia ligni ad sanitatem gentium.* Ekusiko dezu atzenean, ez dala an eguzkiaren, illargiaren, ta izarren argi bearrik. Zori onekoak, edo doatsuak alabaña eguzkiaren eran argi egingo due, S. Matheok dionez: ta nola argi egingo du Jaungoikoaren Ama Birjiña guztiz Santak? nola Jaungoikoaren bildots Jesus maitagarriak? Nola atzenean Jaungoiko beraren izate ederrak? *Claritas Dei illuminavit eam* (Videsis cap. 21 et 22 Apocalipsis).

Ona nere, Kristaua, ona zure Egille onak zuretzat prestatu duan jauregi ederra. Esan gidazu orain, esan gidazu arren. Zer eskerrak ez diozkagu zor onenbat ontarte egin digun gure Jaun Jaungoikoari? Nola egon algaitezke sarritan esker umillak eman gabe gure ongille andiari? Askok da gure oraindako zabarkeria: asko da eskergabekeria: oitu gaitzen goiz arratsetan Jaunari eskerrak ematera, Zerurako bideari jarraitzera, iristeko beti iraungo duan ango bizitza doatsua. Amen.

OGEI TA EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da lenengo lekuan gure pensamentu, itz, lan eta nekeak Jaunari eskeintzeko degun zor andia. Bigarren lekuan, eskeintze oetatik atera ditzakegun ondasun andiak.

*Dominum Deum tuum adirabis,
et illi soli servies. Deuter. 6 et Math. 4.*

Gure lan, eta egiteko guztien artean andiena, edo obeto esateko bakar bakarra da gure Jaun Jaungoikoa ezagutzea, adoratzeari, ta serbitzeari. Adoratuko dezuzure Jaun Jaungoikoa, ta ura bakarrik serbituko dezuz, esaten zaku Eskritura Santan. Alaere egiteko au da guztien artean aztu-ena ta beti geroko utzitzen deguna! Ta gauza negargarria! Egiteko oni benaz ekin baño len etorri oi da eriotza, ta galtzen dira betiko ezin konta al anima! Au gerta eztakigun, eta denbora berean, Jauna serbitzean arkitu ditekean, neke guztia gozatzeko, ta arintzeko da egun oroko asi degun jaierra, edo debozioa. Ongi begiratzen badiogu jaierra oni,

ta jaiera onetarako ipintzen diran gauzai, au da Kristauari dagokan bizitza onaren zimendua bezala; ta beragatik alik ongiena agertzea, azaltzea, adiraztea dagokana. Jaiera onen lenengo gauza da Jaunaren aurrean jartzea, edo sinistea, Jaunaren aurrean gaudela, ta begira daokigula. Bigarrena, Jaun bera umilki adoratzera, ta egin dizkigun ontarte ta mesedeaz eskerrak ematea. Oen gañean itzegin nizuen aurreko dotrinetan. Irugarrena da gure pensamentu, itz, lan, eta nekeak Jaunari eskeiñtzea, ta au izango da gaurko dotrinaren gaia. Aditzera emango dizuet, lenengo lekuan: gure pensamentu, itz, lan, eta nekeak Jaunari eskeintzeko degun, eginbide, ta zor andia. Bigarren lekuan, eskeintze onetatik, ongi egiten dala, atera ditzakegun ondasun andiak. Aditu kontuz.

* * *

Ezagutzeko zuk, Kristaua, zure pensamentu, itz, lan, eta nekeak Jaunari eskeiñtzeko dezun, eginbide, ta zor andia, ez dezu neke andiren bearrik. Asko da onetarako zuk kontuz begiratzea, norenak diran zure izatea, ta beste, bekatuaz osterontzean, zuk dituzun, ta izan al ditzakezun gauza guztiak, ta zertarako

eman dizkitzun gauz oek, gauza beren Jaun, eta Jabeak. Zabal itzatzu bada, Kristaua, zure animaren begiak, eta begira-ezazu benik bein, norenak diran zure izatea, ta beste bekatuaz osteronzean dituzun, eta izan ditzakezun gauza guztiak. Ekusiko dezu, zuk dezun gizonaren izate ori ez dala zurea baizik zure Egille onarena. Jaunarenak dira zure gorputza, ta gorputzaren sentiduak: Jaunarenak zure anima, ta animaren kemenak, edo *Potenziak*, oropena, adimentua, ta borondatea. Jaunarenak gera, esaten digu S. Paulok. *Domini sumus*. Ekusiko dezu, zure izate ori, iraungo badu, gauz askoren bear dala, ta gauz oek guztiak dirala gure Jaun Jaungoikoarenak, ez zureak. Jaunarenak dira Zeru eder oriek, Jaunarenak eguzkia, illargia, izarrak, gaua, ta eguna. Jaunarenak lurra, sua, ura, aizea. Jaunarenak egaztiak, ganaduak, arbolak, belarrak, loreak, frutak. Jaunarenak iturriak, ibaiak, itsasoak, arraiak. Zureak dira, Jauna, Zeruan, eta lurrean arkitzen diran gauza guztiak, dio Eskritura Santak, *Cuncta enim, quae in Coelo sunt, et in terra, tua sunt*.

Ekusiko dezu, Zeruko atsegin-kontentuen, eta erreñuaren gai izateraño goratua arkitzen bazera au dala Jaunaren ontarte, ta doai miragarri bat, Jaun

berak bere ontasunez, ez zure ederragatik egin dizuna. Ekusiko dezu, Adan gure lenbiziko gurasoak galdu zuala Zerurako esku, ta deretxa au, ta galdu berekin bere ondorengo guztientzat: eta geratu giñala guztiok Jaungoikoaren aserre, ta madarikazioaren azpian, eta etsaiaren mendean. Ekusiko dezu, Jaungoikoaren semeak, gizon eginta gurutzean bizitza ematen zuala erosi zinduala beretzat; ta bere odol preziotsuaren kostuz idiki zituala Adanen, eta gure bekatuak itxi zituen Zeruko atea. Argatik esaten digu S. Paulok: *etzerate, ez zerenak; erosiak zerate alabaña, ta erosiak prezio andian*. Ekusiko dezu, bataioko Sakramentuarekin atera zaituala Jaunak bekatu jatorrizkoaren, edo orijinalaren loietik; apaindu zaituala graziaren soñeko ederrarekin; egin zaituala Jaungoiko beraren Seme, Jesu-Kristoren senide, ta Zeruko erreñuaren jabegai, edo erederu. Ekusiko dezu, etzerala zerez gai Zerurako irabazirik txikiena egiteko, ez eta pensamentu on bat sortzeko-ere, ematen ezpadizu Jaunak onetarako Zeruko bere lagunza, indarra, edo grazia. Ala esaten digu S. Paulo Apostoluak. Ekusiko dezu atzenean, dezun guzia Jaunarena dala, ez zurea; ta zerbait izan al badezakezu, ura guztia bear dezula Jaun beraren eskutik. Ta gure

izatea, gure indarrak, gure gauza guztiak Jaunarenak badira, norenak, eta norentzako izan bear due gure pensamentuak, itzak, lanak, nekeak? Baldin gauzaren jabearenak badira gauzaren frutuak: norenak izan bear due gure lanak? Norenak, gure Jaun Jaungoikoarenak baizik? Ta ona, Kristaua, nondik datorkigun, gure pensamentu, itz, lan, eta nekeak Jaunari eskeintzeko, edo berbera dana, Jaunaren onra, ta gloriarako egiteko eginbide, ta zor andia.

Eginbide, ta zor andi au ezagutuko dezu gañera, begiratzen badezu, zertarako eman dizkitzun Jaunak dezun izatea, ta beste gauza guztiak. Ez dizkitzu eman, Kristaua, gauz oek, zere gura, ta naikunde txarrai jarraitzeko. Ez dizkitzu eman, abereak, edo zentzugabeko animaliak bezala bizitzeko; baizik zere Jaun on-maitagarria ezagutzeko, amatzeko, ta zor diozun onra, ta gloria emateko Jaun berari. Gauza guztiak egin zituan beragatik, edo bere onra, ta gloriarako, dio Eskritura Santak. *Universa propter semetipsum operatus est Dominus*. Au da onra bat Jaungoikoari bakarrik gauza guztien jabe, ta fiñari bezala zor zaiona. Onra bat eziñ Jaun berak-ere besterentzat utzi dezakeana. Emendik atera-ezazu, Kristaua, zein zor andia dezun zure pensamentu, itz, lan, eta

nekeak Jaunaren onra, ta gloriara zuzentzeko, ta eskeintzeko. Ta oraindik-ere geiago aditu nai badezu egia onen gañean, adiezazu, zeñ neke, ta kastigu izugarriak adirazten dituan Jaunak zor oni erantzun nai ez dionarentzat. Ipiñi zuan Jaunak masti eder-bikaiñ bat, dio Isaias Profetak. Inguratu zuan masti au esiz, eta paretez. Egin zion erdian torre bat, eta emen ipiñi zituan tolareak. Egon zan mats gozoen ustean zai, edo itxedoten; baña alferrik; zeren eman etzuan mats garratz-basatiak baizik. Aserratu zitzaion mastiaren jabeari, eta esan zuan: Kenduko diozkat esiak, eta pareteak; artu dezan edozeñek alduena, ta oiñ-pean guztia trinkatu dezeen. Utziko bet etze; ezta geiago iñausiko, eta podatuko; ez du beregan geiago ekusiko aitzurrik; ta estaliko due guztia sasiak, larrak, aranzak. Aginduko diet odeiai, ez dezeela euririk egin masti eskergabe onen gañera. Mastiaren izenez aditzen da emen Israelgo jendea, baita gutatik edozeñen anima-ere. Ezpadiozkagu Jaunari eskeintzen obra onen frutu gozoak, kenduko ditu, gure animak inguratzen dituen ainbeste laguntza, dotrina, ta ejemplo on. Utziko gaitu lur, etze baten eran; igoko dira, ta estaliko gaitue griña, ta pasi gaiztoen larrak, sasiak, aranzak; eta ezta gugana jetxiko Zeruko indar, lagun-

za, ta grazia indartsu-eragilileen inz gozoa. Asma diteke, Kristaua, pena, ta kastigu izugarriagorik? Eta ez dira txikiagoak Jesu-Kristok aditzea ematen dituanak morroi zabarraren, eta piko alferraren hipui, edo paraboletan. Morroi zabarra bidaldu zuan bere nagusiak, irabazirako eman zion dirua kendurik, betiko su, ta garren artera. Ta piko alferrari esan zion Jesu-Kristok. *Jaio ez dedilla igandik sekulan frutarik batere.* Doi doia esan zuan au Jesu-Kristok, igartua geratu zan pikoa. Ezagutu dezagun, nere Kristauak, obra onen frutu gozoak Jaunari eskeintzeko degun zor andia, ta izan gaitezen kontuzkoak zor oni erantzutean, ala Jaunari zor diogunari, nola eskeintze onetan gorderik dauden, ondasun andiai begiraturik. Goazen orain ondasun oen gañean itzegitera.

* * *

Baldin guk kontuz, eta bear bezala eskeintzen badiozkagu Jaunari gure pensamentuak, itzak, lan, eta nekeak; baldin gure asmo, ta intenzio ona berri-tuaz, Jaunari agradatzeko, edo Jaunaren onra, ta gloriarako zuzentzen, eta egiten baditugu gure lanak; andiak dira, ta ugariak Kristauarentzat onetan gorde-

rik dauden ondasunak, eta irabaziak. Baña gauza negargarria da gai onetan degun zabarkeria, ta arretaren falta. Batzuek eztakie nola, ta zein aisa eskeñi degiozkeen bere nekeak Jaunari; besteak jakinda-ere, ezdue ezertan artzen lan au; ta onela galtzen ditue nortaki zer ondasunak. Enzun ezazu, Kristaua, zur lanen eskeintze au nola egin bear dezun; ta au ekusi ondoan ekusiko ditugu onetan zuretzat dauden ondasun andiak.

Esnatzen geranean, nere Kristauak, gure lenbiziko pensamentua, lenbiziko biotzaren mugimentua, ta aoko itza zuzendu bear degu Jaungoikoaganon; jauntzi bear degu honestidadearekin, esaten ditugula bitartean *Aita gurea, Abe Maria, Salbea*, edo beste orazioren batzuek. Zor diozkagu Jaunari gure biotz guztia, ta biotzaren afekto guztiak, baña geiena agradatzen zaizkanak dira lenengoak. Ene seme, esaten digu esnatzen geranetik, indazu biotz ori. *Fili, praebe mihi cor tuum*. Eztakizu, o gizona, zure biotz, eta miñgañaren premiziak, edo lenengo frutuak egun oro zor diozkatzula zure Jaungoikoari? *An nescis, o homo, quod primitias tui cordis, ac vocis quotidie Deo debeas?* Au egin ordean, esnatu orduko gogoz, eta biotzez joaten bagera munduko arazoetara, edo are

gaiztoago dana gosarian, edo anima loitzeko diran gauzetan pensatzera: au izango da, Jaunari eskeñi bear diogun biotza, aurrena munduari eskeintzea, ta munduaren barautsez loitzea, ta zikintzea. Au izango da ganadu beltzen eran, esnatu orduko askara begiratzea, edo zikinkerietan muturka asitzea. *Oculos suos statuerunt declinare in terram.* Kontu andia ipiñi bear degu bada, nere Kristauak, esnatzen geranetik biotza, ta pensamentua Jaunagana altxatzean, baldin Jaunari agradatzea nai badegu. Lenengo pensamentua, lenengo biotzaren mugimentua, lenengo itza izan bedi Jaunaren alabanza, esaten digu S. Lorenzo Justinianok. *Prima cogitatio, primus affectus, prima vox divinam resonet laudem.* Au egin ondoan jarri bear degu Jaunaren aurrean, adoratu ta eskerrak eman bear diozkagu egin dizkigun ontarte, ta mesedeaz; ta eskiñi egun guztiko pensamentuak, itzak, lan, eta nekeak, ez nola nai, baizik Jauna amatzeko, Jaunari agradatzeko intenzioarekin, edo berbera dana Jaunaren onra, ta gloriarako. Eta nola Jaunaren graziaren, eta karidadearen bizitza gauza bearra dan, gure nekeak Zerurako irabaziak izan ditezen, gauz ona izango da karidade, ta kontriziozko afektoak egitea; ta onetarako lagunduko due jaiera onetan ipiñi-

rik dauden fede, esperanza, karidade, ta kontriziozko aktoak. Atzenean gauz ona da gure lan guztiak Jaunari eskeintzea Jesu-Kristoren irabazi guztiakin; eta bere Aitari zion amorio baztergabeko arekin betean. Argatik esaten digu S. Paulo Apostoluak: egiten dezuen guzia, dala itzez, dala lanez, guztia egizue Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean. *Omnia quaecumque facilis in verbo, aut in opere, omnia in nomine Domini nostri Jesuchti. facile.* Era onetan gure lan, eta nekeak, berunezkoak dirudiela-ere, urre eder biurtzen dira, altxatzen dira asko, eta distiatzen due era miragarrian Jaunaren begietan. Atozea, Kristaua, baldin zuk erosi al bazentzake aitzur bat, kolpe bakoitzean ukuitzen duan guztia, dala arria, dala lurra, urre, edo zillar biurtzen duana; zer egin edo emango etzenduke, aitzur ura iristeagatik? Salduko zinduke dituzun gauza guziak, eta etziñake geratuko ura zere-tu artean. Ongi: ta zure pensamentu, itz, lan, eta neke guztiak biurtu baditzakezu Zerurako irabazien urre eder-distiatzallean; ta au zure lanak Jaunari, Jaun beraren onra, ta gloriarako, Jesu-Kristoren merezi-mentuakin batean eskeintze utsarekin: nolako arreta, ta kontuarekin ekin bear ez diozu jaiera oni? Ona nola eskeñi bear diozkatzun goizetik Jaunari egun guztiko

zure pensamentuak, itzak eta nekeak. Ezta egiaz arazo, ta neke andia lan au egitea; ez du eskatzen jakiunde andirik; bakar bakarrik eske du biotz ona, ta arreta piska bat. Baña zenbatere neke gutxiko egitekoa dan, kontuz egiten dala, berekin dakarzi ondasun andi-ugariak, eta frutu miragarriak.

Frutu oetatik bata da egun guztiko lanak, eta egitekoak bakoitza bere denboran, eta bear dan eran egitea, baldin goizetik benaz, eta biotzetik asmoak artzen badira Jaunaren amorioz, eta beraren gloriarako egun guztiko nekeak egiteko. Gizon jakiunde, ta birtute andikoak goizetik egiten due egun guztiko lanen traza, ta aututzen due bakoitzarentzat denbora egokia. Baña Kristaurik geienak zabartzen dira onetan, eta galtzen ditue, gauzak bear dan eran egin gabez, ondasun andiak. Bigarren frutua da; goizeko Demonioari biotzaren ateak itxitzea. Beti ernai, ta gure inguruan dabill gure etsai amorratua leoi aserre baten eran, gu bekatuan amilderazteko deretxaren billa, S. Pedro Apostoluak adirazten digun bezala; baña bere sareak, lazoak, eta bizkak prestatu oi ditu konturik andienarekin, esnatzean, jan ondoan, eta lotarakoan. Bada gure etsaien artean bat gu esnatzen geraneko *aurrera bidaldua*, edo *Prekursorea*, dio

S. Juan Klimakok: ta onek bere alegin guztiak ipintzen ditu gure lenbiziko pensamentua loitzeko, eta Jaungoikoagandik biotzari alderagiteko. Batzuetan esnatzen geran baño len prestatuko ditu ames gaiztoak, esnatzean zabartu ote gaitzkean; besteetan saiaturko da, bereala oroi erazteko etxeko arazoaz, edo munduko txorakeriaz, lagun urkoak egin dizkigun txarkeriaz, edo beste onelako gauzaz. Baña zuk, Kristaua, itxiko diozkatzu etsaiari biotzaren ateak, baldin jaiera onetan erakusten dan bezala, oitutzen bazera, esnatzen zeranean bereala Jaunari begiratzera, bera-gana biotza jasotzera, ta orazioren batzuek esanaz honestidadearekin jauntzitzera. Au egin gabez zenbat kalte ote dator animetara? Zenbat, eta zenbat, bear ez diran, edo esan-ere ezin ditezkean, gauzetan esnatzen diranetik asitzen dira gogoaz, ta biotza loitzen, zikintzen, lardatzen? Zenbat... Baña ez goazen aurrerago. Jaunari goizetik gure biotzak, eta lan guztiak eskinzetik datorren irugarren frutua da gure bekatuai dagozten pena, ta nekeak gutxitzea, edo osotoro barkatuak geratzea. Laugarren frutua da egun guztian egiten diran lan guztiak, andiak, et txikiak, Zerurako irabaziak izatea; baldin Jaunaren grazian arkitzen bagera, ta badirau, goizean artu dan,

asmo, ta intenzio onak. Ez dio gure jaun Jaungoikoak ainbeste begiratzen eskeintzen zaion, doai, edo gauzari, nola borondateari, ta borondatea da Jaunaren aurrean gure irabaziaren neurria, esan zuan S. Ambrosiok. Bostgarren frutua da: gauza berenez ez onak, eta ez gaiztoak diranetan-ere Zerurako irabaziak egitea, baldin *ongi*, ta fiñ onarekin egiten badira, ta denbora berean badiraue goizeko asmo, eta intenzio onak. Emendik atera ezazu, aitzurrean, arean, ardatzean aritzea, ogia egitea, jatea, edatea, ta beste onelako gauzak izango dirala Zerurako irabaziak, edo merezimentuak, baldin gauz oek goizetik eskeñi badiozkatzu Jaunari beraren onra, ta gloriarako, ta intenzio onek dirauela; ongi, ta bear dan fiñarekin egiten badituzu. Naiz jaten dezuela, naiz edaten, edo beste edozeñ gauza egiten, egizue guzia Jaungoikoaren gloriarako, esaten digu S. Paulo Apostoluak. *Sive manducatis, sive bibitis, sive aliud quid facitis, omnia in gloriam Dei facite.* Baña kontu emen; gauz oek nola diran jatea, edatea, ibiltzea, ta beste onelakoak, egiten badira gaizki, egin dezagun kontu bear ez dan denboran, edo neurrian, edo geren naikunde txarrai atsegin egiteagatik, orduan gauz oek ez dira ongi egiñak, eta onak, baizik alferrak, errenak, gaiztoak; eta

beragatik ez dira gai Jaunari onra, ta gloria emateko, ta Zerurako irabaziak izateko. Atzenez Jaunari goizetik gure biotzak, eta lan guztiak eskeinetik datorren frutu gozoa da biotzeko pakea, ta uste, ta konfianza andia bere Jaunagan. Pakeatsua da Jaungoikoa, dio S. Bernardok, ta gure lanetan berari begiratzeari asko da biotza paketan, eta esnetan bezala geratzeko. *Tranquillus Deus, tranquilla omnia, et ipsum aspicere quiescere est.*

Ekusten dezu oraiñ, Kristaua, zein ondasun andiak dauden Jaunari gure lan, eta nekeak eskeinezan? Ekusten dezu, zein aisa egin ditzakean Zerurako irabazi andiak Kristau ez jakituenak-ere? Florenziako mendietan bizi zan eremutar batez dioe gizon jakintsu askok, gogora zitzaiola mundu guztian ziran, anima onen artean bera onena ote zan? Jatxi zaite, esan zion Jaunak, Florenziara, eta zuk arkituko dezu an Pedro deritzan zurradore bat zu baño askoz ohea. Jatxi zan Jaunak esan zion bezala, arkitu zuan Pedro, eta galdetu zion. Atozea, zer barau ateratzen dituzu? Zer zilizio daramazkizu zere gorputzean? Zenbat ordu igarotzen dituzu egun oro orazioan? Eranzun zion Pedro zurradoreak: *Ez det nik gauz orietatik batere egiten. Nik egiten dedana da goizean jeikita bereala*

belauniko jartzea, eskerrak Jaunari biotz osoz ematea egin dizkidan mesede guztiaz, eta zeren egun au eman didan. Gero eskeintzen diot nere biotza osotaro egun guztiko nere pensamentu, itz, eta lan guztia-kin batean, Jaun bera gauz oetako bakoitzean alegi-ñean amatzeko, ta berari agradatzeko deseoarekin. Au eginda bereala ekiten diot nere nekeari. Au aditurik, ezagutu zuan gure penitente eramutarrak Pedro zurradorearen birtute andia, ta etorri zitzaion gogorazioaren txorakeria. Aditzen dezu, Kristaua? Ekin bada gogotik, ekin benaz, et biotzetik jaiera oni. Ezta, ez, Indietako bazterretan arkitzen zillar, urre, edo diamanteen meatze aiñ aberats, aiñ ugari, ta baliotsurik, nola dan guri gure Jaun onak egun oroko lanetan utzi digun meatzea. Jaunari nai dakiola, egi au gure gogobiotzetan ongi sarturik geratzea, ta egia onek erakusten diguna kontuz guk egitea. Onela egingo ditugu egun oro Zerurako irabazi andiak, eta iritsiko degu atzenean ango betiko gloria. Amen.

BERROGEIGARREN ERAKUSALDIA

Ordikeriaren gañean.

*Sicut in die honeste ambulemus, non in commesationibus,
et ebrietatibus. Roman. 13*

Galde egin bide zioen bein norbaiti, zar batentzat zer gauza ziran onenak? Erantzun zuan: ardo gozoa, Jaungoikoaren itza, ta konzienzia garbia; iru gauz oek baña zer gauz obeagorik, ta gozoagorik izan diteke. *Dulce merum, verbum Domini, mens conscia recti. Quid tribus his senibus dulcius esse potest?* Ederki esana, nere Kristauak. Eskritura Santak berak esaten digu: ardoak, ta musikak poztutzen du gizonaren biotza. *Vinum et musica laetificat cor*, au bera dio Dabid Santuak-ere, *Vinum laetificat cor hominis*. Ekusiko dezue, ta ekusi-ere dezue iñoiz gizon adiñean sartu bat bere neke, kezka, ta egin bearrakin moteldua, ta illundua, ta ardo gutxi batekin aztutzen zaizkala bere nekeak, aienatzen illuntasunak, ta jartzen dala gogotsuago nekeari ekiteko, baita Jaungoikoaren guazeta-

rako-ere. Argatik zarrentzat, ta zerbait eri diranentzat ardoa modu onean edatea gauza ona da. Ez oraindik urik edan: edan-ezazu ardo gutxi bat, zure estomago-ari, ta zure eritasunai begiraturik, esaten dio S. Pablo Apostoluak bere Timoteori karta batean. *Noli adhuc aquam bibere, sed modico vino utere propter sthomacum tuum, et propter frequentes tuas infirmitates* (1 ad Timoth. c. 5).

Izanik ardoa berez ain gauz ona, ta gure onerako gure Jaungoikoak utzia, nork sinits zezakean au gure animen puzoi biurtuko genduala? Etzan erraz sinis-tea, baña gertatzen dana da ardoaz baliatzea gizona bere osasuna, bere anima, ta bere Jaungoikoa galtze-ko, aztutzen dala bere Jaungoikoaz, ta Jaungoikoaren lekuan adoratzen duala bere ordikeriarekin ardoa, edo onen ordeko beste edariren bat. Anziñako denbo-ran Españian ez omen zan testigotzat artzen orditzea gertatu zitzaionik, Aita Lohner jakintsuak esaten digunez. *Hispani ne in testem quidem admittunt illum, qui semel ebrius extiterit* (Verb. Ebrietas). Ain gauz itsusia, ain gauza nazkagarria zan orduan ordi-keria. Baña egungo egunean zabaldurik ekusten degu miñantze lotsagarri au zarretan, ta gazteetan, itsatsirik azkenean emakumezko zenbaiti-ere. Griña

lotsagarri au artzen duenak ez oi due ezertan artu bekatu au, ezauzi egiten due iñoiz Predikadore-ren batek deadarren batzuek egiten baditu gauz onen gañean. Onela bizi dira gerotik gerora geiago gogortuaz beren bekatuan, ta beti illak, ta gortuak Jaunaren itzak mella egiteko: beren gogo, ta biotz guziarekin daude beren kutun, ta adiskide laztan ardoagan: oni bialtzen diozke beren neke guziak, oni beren ansia, ta suspirioak: oni inzensu guziak.

S. Agustin gloriatsuak esaten digu: onela edanean igarotzen, ta orditzen dira gizonak, zeren uste duen ordikeria edo gaitz txikia, edo ez txikia, ta ez andia dala; baña kontu estua eman bearrak dira Apai-zak uste gaizto onezaz, dio Santuak, baldin beti, ta geratu-gabe aditzera ematen ari ezpadira beren kontuko animai, zer gaitzak, ta kalteak, ta zein andiak jaiotzen diran ordikeriatik. *Tanta infelicitate se inebriant homines, quia putant ebrietatem aut parvum, aut nullum esse peccatum. Sed pro ista ignorantia maxime Sacerdotes in die iudicii redituri sunt rationem, si commissis sibi populis, quae, quanta mala de ebrietate nascantur asidue notuerint praedicare* (Serm. 232). Griña onen mendean bizi diranak ongi ekusi dezeen beren bizitza, ta ekusirik artu dezeen

Jaunaren Legeak agertzen digun bidea, gai onen gañean itzegingo dizuet gaur... Itzegingo det garbiro, baña ez uste izan itzegiten dedala urliatatik, ta sandiatatik, zenbait misto gaiztok erausi oi duen eran: baizikan itzegingo det bekatu onetan erori diranak jeiki ditezen, ta txutik daudenak erori ez ditezen. Aurrena ekusiko degu *zer dan orditzea*, ta au ekusi ondoan ekusiko ditugu edanean igarotzeko *makurtasunetik jaiotzen diran ondoren gaizto, ta kalte andiak*. Aditu arren kontuz.

§ I.

Santo Tomas Doktore Aingeruak, ta onekin gizon jakintsu guziak erakusten duenaz orditzea da Jaungoikoak bakoitzari eman dion ezaguera galtzea bere naiez, ta zer egiten duan dakiala. *In eo quod homo sciens, et volens privat se ussu rationis* (2.2. ae q. 150). Bekatu au berez bekatu larria, ta mortala da. Au sinistu nai ez padezu bekataria adiezazu zer dion Isaias Profetak. Ai! zuek ordikeriari jarraitzera goizean jeikitzen zeratenak, deadar egiten du Profet onek, ta ai! onekin aditzera ematen du gaiztakeria au

dala bekatu andia, ta bekatu berekin betiko su, eta garrak dakaizkiana. *Vae qui consurgitis mane ad ebrietatem sectandam* (c. 5). Adiezazu S. Pablo Apostolua, onek esaten dizu ez duela ordiak zer egiñik izango Zeruko Erreñuan. *Neque ebriosi regnum Dei possidebunt*. Emendik, uste duanak, esaten du S. Agustiñek, uste duanak orditzea bekatu txikia dala, ezpadu beste bizimodurik artzen, ta orditzeaz penitentzia egiten, betiko neke-pena, ta betiko su, ta garren artean egon bearra da onelakoa besteren gizon, edo emaztearekin bekatura ziranakin batean, ta eralleen artean. *Qui credit ebrietatem esse parvum peccatum, si se non emendaverit, et pro ipsa ebrietate paenitentiam non egerit, cum adulteris, et homicidis aeterna illum paena cruciabit* (Serm. 232).

Ordikeriako bekatu onetan erortzen dira 1.a ardoarekin, sagardo, mistela, ta edozeñ edarirekin moskortzen diranak ta orobat beren naiez tabakoarekin ezaguera galtzen duenak ere. (Vide super hoc disputatiunculam post doctrinam n. 1) 2.a ardoa, sagardoa, ta beste edariak ematen dieztezenak ordiko dirala ezagutzen diranai. Bear bada usteko dezue estu itzegiten dedala gai onetan, baña zaute jakiñean au dala jakintsu guzien iritzia S. Tomasekin batean.

Egia da, edaria saltzen duanari kalte andiren bat etorri bear bazaio edaria ukatzetik, egin dezagun kontu bizona, edo osasuna galtzea, edo beste kalte andiren bat orduan ez dala bekatu edaria ematea ordiko diranai-ere: *baña esatea gutxi bestela salduko lizakeela: beste lekuren batean joango, ta an arrapatuko lukeela: erriertan, ta erausian egingo lukeela*, au da nere Kristauak aitzakiak, ta apukoak billatzea Jainkoaren legearen kontra. *Gutxi salduko lizake bestela?* ta zuk or izan dezakezun irabazi piska orregatik nai dezu lagun urkoaren anima galtzea? Irabaziaren ona lagun urkoaren animaren kostuko irabazia. *Beste lekuren batera joango lirake? ta an orobat ordiko lirake?* Nondik dakizu zuk? Zuk egizu Jaunaren legeak agintzen dizuna, ta bestek gaizki egiten badu, ez dizu aren gaizkiaz Jaunak konturik eskatuko. *Erriertan asiko lirake, iñork ez luke burutuko*. Ain beldurtia zera erriertaren? ain ikakorra? Atozea kontuan gutxiago ematen badizue, edo pagatu nai ezpadizue eman dezun edaria, ez diezu eskatzen, naiz errierta egin dezeela? Bai noaski: ongi; ta txanpon bat, edo lau kuarto-gatik jasotzen badezu edaten duenen erausia, ta errierta, atozea ta ez dezu jasoko lagun urkoaren anima ez galtzeagatik?

Irugarrena: Bekatu onetan erortzen dira lagun urkoari orditzeko bidea ematen dioenak. Ekusten dezu zure adiskide bat Tolosan, errian, edo edozeñ lekutan nai adiña kargarekin, ta bide zabalak-ere estu asko dituala: ta mesede andiren bat egiten bazenio bezala asitzen zataizka konbidatu bearrean: *primo, cuñado vecino, hermano zer dioe arreok, ta ederkok?* Atoz edan dezagun aen *osasunara kuartillu bat*. Badaramazu gisa onetan edatera, ta len erdi galdua bazegoan uzten dezu gero osotoro galdurik. Egiten dezu bekatu larria, nere Kristaua, zeren kentzen diozun zure lagun urkoari bere animako bizitza. Ekusten dezu beste adiskidea ongitxo jarria, esan oi dan bezala, ta osotoro galtzeko ez duala askoren bearrik izango: ezagutzen dezu brindiska asitzen bazatzaizka erantzun naiko dizula basoa jasotzeko kemena duan arten, ta au guzia dakusazularik arizatzaizka brindiska: *Brindo pariente, señor vecino. Alcalde, Regidor*, ta beste tristea zuri erantzun bearrik zabaltzen da guzia. Egiten dezu bekatu, zeren lagun urkoa bearitzen dezun bere anima galtzera. Mediku jakintsuren batek brindisetan edaten diran osasuna oen gañean ederki esan bide zuen. *Quo tibi potarum plus est in ventre salutum. Hoc minus a potis hisce salutis*

habes. Zenbat eta zure sabelean edandako osasuna geiago diran, anbat osasuna gutxiago izango da zugar, esan nai du. Onela bere lagun urkoa beartzen duanagatik dio gisa onetan S. Agustiñek: *Lagun* urkoa beartzen duanak bear baño geiago edatera, ta onela orditzera, etzion ez ainbeste kalte egingo ezpata batekin eritzearekin nola egiten dion ordikeriaren bekatuz anima iltzearekin. *Qui alterum cogit: ut se plus quam opus est bibendo inebriet, minus malum ei erat, si carnem ejus vulneraret gladio, quam si animam ejus per ebrietatem necaret* (serm. 231 de temp). Beste batzuek eman oi dioe lagun urkoari edanean igarotzeko bidea edo zorakeriaren batzuek ekusteagatik, edo aditzeagatik, edo beren bizarrotasuna agertu bearrean. Au gerta diteke edozeñ denboraz, baña batez-ere egur zaleak diranak, festa denboran, edo iñuterian. Ea! ta gizonaren doakabetasuna, dio S. Agustiñek: zenbat dira edale, ta lujuriosoak bear baño geiago edatera beartzen dituenak, ta atee-tan eske daudenai baso bat-ere ematea gogorako etzatenak! *Eh! infelicitas generis humani! Quam multi inveniuntur, qui ebriosos, et luxuriosos amplius quam oportet cogunt bibere, et ante ostium pauperibus petentibus vel unum calicem disimulant dare! ibi-*

dem. Atzenean bekatu mota onetan erortzen dira zenbait jokalaria, ta tratugille, egiten duela alegiña laguna orditzeko, onela zabar-erazteko jokoan, edo tratua merkeago eragiteko.

Edanean igarotze au bekatu larria izateko bear dira iru gauza. Lenengoa da ezagutzea batek zer egiten duan, ta ezaguera onekin zenzua galtzeko perillean jartzea. 2.a bere naiez ezaguera galtzea, edo galtzeko perillean jartzea. Bi gauz oek txit ederki oi duan bezala aditzera ematen ditu S. Tomas Ainguruak. Iru gisatan gertatzen da orditzea, dio Santuak. *Tripliciter contingit ebrietas*. Lenbizia gerta diteke ez ezagutzea batek geiegi edaten duanik, ez eta edaten duanak orditzeko-diña indar duanik-ere, ta ustekabean ezaguera galtzea, ta onela orditzea izan diteke bekatu-rik-gabe, dio S. Tomasek. *Et sic ebrietas potest esse sine peccato*. Ala gertatu zitzaion Noe gizon Jaungoikoaren adiskide andiari. Gañera gerta diteke batek ezagutzea bear baño zerbait geiseago edaten duala, baño uste ez izatea edaten duana orditzeko diña dala, ta onela orditzea izan diteke, dio Santuak, bekatu benial utsarekin. *Et sic ebrietas potest esse cum peccato veniali*. Atzenean gerta diteke, gertatzen dan bezala, ezagutzea batek geiegi, ta orditzeko

diña edaten duala ta ezaguera onekin edaten aritzea, ta onela orditzea, edo orditzeko perillean jartzea da bekatu larria, edo mortala dio Santuak berak: onela alabaña galtzen du batek bere ezaguera bere naiez, ta zer egiten duan dakiala. *Et sic ebrietas est peccatum mortale, quia secundum hoc homo volens, et sciens privat se ussu rationis* (2.2. ae q. 150).

Bitor, esango due oraiñ edanerako oitura duenak, nere gaiztakeria guzia au da, ez det ezer ostutzen: ez iñor iltzen; jakiña da nere bekatua, ta au ur bedeikatuak daramana; ni alabaña ez naiz nere naiez sekulan orditu; galanki edatea nai izan det, baña orditzerik ez. Ona etsaiaren engaño anima galgarria. Nere Kristaua, edanerako oitura ez duan bati, edariaren berri-rik ez duan bati gerta dakikeo orditzea ustekabeen, ta bere borondatearen kontra, Noeri bezala, baña ordiari? ez, geienez beintzat: onelakoa orditzen bada orditzen da bere naiez, ta orditzen da zer egiten duan dakiala, badaki alabaña lenago zer gertatu zaion, ta jakin beer du gutxi bat gora bera aurrera zer gertatuko zaion. Ezin izan diteke maiz orditzea bat, ta ez orditzea bere naiez, ta zer egiten duan dakiala, esaten du S. Tomasek. *Non potest esse quod homo*

asidue inebrietur, quin sciens, et volens ebrietatem incurrat.

Edanean igarotzea bekatu larri, edo mortala izateko orditzeak bear du izan osoak, au da osotoro ordi bear da, edo osotoro orditzeako perillean jarri bear da. Noiz dan ordikeria osoa, noiz bitartekoa, edo erdimerdi esaten zaiona ez da beti erraz ezagutzen. Edaten dezu ongitxo, ta jartzen iztun, edo mututurik; edo mingaña asitzen zatzu tillipillit, tillipillit egiten dizula olio geiegiarekin; belaunak jartzen zaizkitzu kargapean dardaraz, iduritzen zatzu bat bi, lurra, ta etxeak mugitzen dirala uste dezu: aldeskoan gabiltza. Edan da egin dituzu, edo esan edan gabe zaudenean egin, edo esan ez oi dituzun gauz loiren batzuek: etzera oroitzen norekin egon ziñan, non, ta nola: etzera oroitzen zer esan, zer egin, ta nola etxera ziñan? Arrasto oetatik atera ditekeala, dioe Doktoreak, otso zarra, edo otsakumea zan. Baña emen, emen ongi gogoan artu bear didazue gauza bat: naiz ordikeria ez osoa izan, baldin edanerako makurtasun, ta oitura orretatik kalte andiren bat badatorkizu zuri, edo zure emazteari, edo umeai, edo beste lagun urkoren bati dala osasunan, dala animan, edo ondasunetan, orduan oitura ori kalte oekgatik izango da bekatu larria.

Argatik oitura onen mendean jartzen diranak geienak bizi dira bekatu larrian, bizi dira konfesio onik egin gabe, ta atzenean Sakramenturik ezin artu dezakeen bezala, griña onetatik jaiotzen diran kalteakgatik.

Ekusirik zer dan orditzea, ongi ezagutzeko zein lotsagarria dan ordikeriaren griña, ekusi bear ginduke onen ume onak, edo garbiroago esateko edanera-ko makurtasunetik jaiotzen diran ondoren gaizto, ta kalte arrigarriak. Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan *aurreneko kalte*, ta ondoren gaiztoa da Jaungoikoak gizonari eman zion bere antz, ta imajiña ederra illundurik, itsusturik, loiturik, ta zikindurik uztea. Fedeak erakusten digun gauza da, gizona egin zuala bere Egille andi, ta Jaungoiko onak bere antzera: egin dezagun, esan zuan Trinitade guziz Santak, gizona gure antzera. *Faciamus hominem ad imaginem, et similitudinem nostram*. Argatik eman zizun zuri, bekataria, zere animan esku-indarra gauz on asko egiteko: eman zizun adimentua ona, ta gaitza, ta zere Egille ona ezagutzeko: eman zizun oroipena beraz oroitzeko, ta borondatea bera maite izateko. Onela ipiñi zinduan bere antz, ta imajiña eder egiñik. Ongi: ta non da Jainkoaren antz, ta imajiña eder au edanarekin galtzen zeranean? non da gauz onetarako esku-

indar ura? non ezaguera? non oroipena? ta non borondatea? ez da ya ezagun Jaunaren antz, ta imajiña ederra, ta ez da ezagun zentzugabeko animalien arteko zeran, edo ez. Esazu, o gizona, dio S. Basiliok, zer gauzatan zentzu gabeko animalien goitik ipiña zeran? etzera arkitzen zentzurik ez duen guzien gañetik gauza guzien Egille andiagandik artu zenduan ezagueraren doaiarekin, etzera arkitzen guzien jabe, ta agintari egiñik? Baña zure ezagueraren doai, ta argi au galdurik zere ordikeriarekin, ongi konta zaitzke zentzugabeko animalien artean, ta aen antzeko idurin dezakezu. *Qua in re, homo miser, a brutis differs? nonne rationis munere, quan a Deo omniun Conditore accepisti, reliquae creaturae factus Dominus, et imperator? hoc igitur te mentis lumine per ebrietatem privans inter bestias ratione carentes numerari poteris et illis similis videri* (D. Basil. Homil. inebrietatem). S. Juan Krisostomok dio zentzugabeko animaliak baña ere gaiztoago biurtzen dala gizona ordikeriarekin zenbatez ohea da astoa gizon ordia baño, zenbatez zakurra? Zentzurik ez duen animalia guziak asko duen janariaz, ta edariaz gañera ez dira igaroko, naiz milla gizonek onetarako tenta ditzala. Zentzugabeko animaliak baña-ere bada gaiztoagoak

zerate zuek edanean igarotzen zeratenak, dio Santuak. *Quanto melior asinus ebrioso est? quanto expertes sunt, cum bibunt, aut cogere, ultra quam salis est, etiamsi mille homines cogere, nunquam elabuntur: peiores igitur irrationabilibus vos estis, qui inebriamini* (Homil. 58 in Math). Orobat esaten du S. Agustin gloriosoak (serm. 231). Emen ongi gogora ekarri, ongi ezagutu ezazu, Kristaua, orditzearekin zere Jaungoikoari egiten diozun bidegabe ikaragarria. Esan gidazu baldin gure Errege Jaunaren antz, ta imajña bat ekusiko bazendu nork-ere bait oiñ pean darabillela, ta loiez, edo txistuz loitzen, da zikintzen zer esango zenduke? Bidegabe ikaragarria Erregeri egiten zaiola esango zenduke, ta pena andia dagokana. Zer izango da Trinidad guztiz Santaren antz, ta imajña ederra zuk edanarekin ipintzen dezun eran ipintzea? guzia loitua, illundua, zikindua, ta zentzugabe animalien antz egiñik? Edanerako oitura, ta makurtasunetik jaiotzen dan 2.ren ondoren gaizto, ta kaltea da osasunaren, ta bear bada bizitzaren galtzea. Edanean igarotzea osasunaren galgarria dala, esaten du Hipokrates, Medizinare Gurasoak. Espiritu Santuak berak dio, asko bukatu dirala edan geiegiarekin. *Propter crapulam multi obierunt* (Eccl. 37). S. Juan

Krisostomok dio, edanerako makurtasun onetatik jaiotzen dirala gaiz senda ezin ditezkeanak, edo sendatzen txit gaitzak diranak, eta ezpaliz infernurik-ere dakaizkian eritasunak-gatik berak-gatik utzi bear liza-keala. *Etiamsi nulla esset gehena, nullumve alius incommodum propter morbos, merito esset fugienda* (D. Chrisost. hom. contra crapul. t. 5). Atozea, Kristaua, zenbat bider aditzen dezun egia au zeregan ezagutu dezu? astean zere nekean ari zerala ongi arkitzen zera, azkar edozein guzatarako, baña onera etorri, ta arrapatzen dezunean geratzen zera motel-dua, buru pisuarekin, ta asterdiraño bear bada bearrerako gauz etzerala. Zenbat berri gaizto izaten dira urte bakoitzean edanagatik?

Edanerako oitura, ta makurtasunetik jaiotzen dan 3.ren ondoren gaizto, ta kaltea da ezertako ez dala bat uztea. Asko gizon dira berenez zintzoak, ta gauz askotarako azkarrak, baña beren edanerako makurtasunarekin ezertarako ez biurtzen diranak. Zertarako izan diteke erri batean edanari jarritako gizon bat? Ezin onelakoari erriko kargurik eman dakikeo, zeren bere oitura gaiztoarekin berekin beste askoren animak galduko litukean. Zer kontu egingo luke onelako Alkate batek taberna goiz itxi-erazteko, ta ordu

onean bakoitza bere etxera bialtzeko? Zer kontu Meza nagusiko, edo bezperetako denboran ardoa saltzen duenai, ta jokalariak beren etxeetan idukitzen dituenai dagoten pena emateko? Bera guziak baño gaiztoago izango lizake. Ta zer izango lizake onelakoak Errejidore, edo Diputadu egingo balira? Zer? trago bategatik beren animak bear bada etsaiari ematea. Kontu, kontu karguak aututzeko eskua izaten duenak; bada onelako aukera makurretatik oker, ta kalte asko etortzen dira, ta guziak karguak ematen dituenen gañean.

Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 4ren ondoren gaizto, ta kaltea da etxeari dagozkan gauzetan zabartzea, ta alferkeriari ematea; ta nekazari batek alferkeriari eder-etsitzera ezkeru zer uste izan diteke, ezpada emaztearen, da umeen negarra, biraba, larrugorritasuna, ta guziaren gabea? Ardoa adiskide duana ez da aberastuko, dio Espiritu Santuak. *Qui amat vinum, et pingua non dilabitur.* Nekazari edalea ez da aberastuko, dio beste leku batean. *Operarius ebrius non locupletabitur* (Eccles. 19). Athenas deritzan erri andi batean zuan guzia garbitu zuan edanean Kalias zeritzan batek: neguaren erdian ekusten du norbaitek kaleetan larrugorrian, ta badio ise-

kaz: Kalia ardoak lumarik gabe, ta mutildurik utzi du. *Hic a vino deplumatus est.* Zenbategatik au bera esan diteke, nere Kristauak, egungo egunean? Au guzia ederki adirazten digu Arsdekin deritzan gizon jakinsu batek era onetan: gizon edalea da, dio, anzararen antzekoa: anzarak nai du beti mokoa iduki bustian, nai du egon deadarka, ta nekerik-gabe, ta au bera nai oi du gizon edaleak. Baña zer gertatzen zaio atzenean? gertatzen zaio antzarari gertatzen zaiona bera: antzara gaixoari kentzen diozke atzenean dituan luma guziak, sartzen due burruntzian batean, ta erretzen due; eta ori da gizon edalearen bukaera, edalea bere edan bearrarekin, ta alferkeriarekin zorrez betetzen da, uzten due lumarik gabe artzekodunak, eramaten due etsaiak betiko su ta garren artera, ta an erretzen due, ta erreko due Jaungoikoa Jaungoiko dan artean. *Sicut anser in fine deplumatur, et ad ignem asatur, ita ebriosus tamdem omnibus bonis deplumatur a creditoribus, et positus in inferno assatur a Daemonibus.* Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 5ren ondoren gaizto, eta kaltea da guzien farragarri, edo obeto esateko guzien lotsagarri egitea; edanak eragiten ditu alabaña, ta erasaten gauza lotsagarriak. Argatik Konzilio batean esaten

da: orditzea Kristabarentzat gauz itsusi, ta lotsagarria dala. *Ebrietas dedecus est cuique Chtiano*. (Conc. Aquisgran. Sub Greg. IV). Noe Eskritura Santak esaten digunaz batean, zan Jaunaren adiskide andia, bere adiñagatik, bere bizitza, ta oitura onagatik gizon guziz beneragarria: seieun urte urarekin igaro ondolan ipiñi zuan mastia, egin zuan ardoa, ta uura bezala zalako ustean edan zuan bear baño geiago, ta galdu zuan bere ezaguera. Edanaren kontua: seieun urtean ain beneragarria izan zan gizona jartzen da guzia erauntzirik, agerturik, ta lotsatzeko eran, ta bere umeetatik batzuek iseka egiten dioela. Emendik etorri zan gero Noeren aserrea bere ume lotsagabe oen kontra, emendik ume oek, ta oen jatorria madarikatua izatea. Noe gizon ain beneragarriarekin au edanak egin zuanean, zer egingo ez du berenez ariñak, zentzu gutxikoak, edo Jaunaren beldur gutxikoak diranakin? Agrijento deritzan leku batean jarri ziran egun batean edaten mariñel batzuek: edaten due galanki, ta edaten, due arrapatzeraño. Edanak eman oi dituan iduripenakin iduritzen zate itsasoan daudela, ta ontzia galtzeko perillean dabillega: etxea zebillen alabaña aen buruan azpikoaz goora irauliaz: iduripen onekin asitzen dira ontziari karga gutxitzen:

artzen ditue oiak, botatzen ditue leiotik bera: artzen ditue koltxak botatzen ditue: artzen ditue kutxak, an dijoaz oek-ere. Etzan alaere ontzia geratzen bere iraultzeko mugimentuan, guzia zegoan alabaña mariñelen buruko zorabian; zer egiten due? etsirik ontzieren galtzeaz erauntzitzen dira guziak, ta larrugorrian jarririk ateratzen dira egunaren erdian, edo beintzat argitan igari itsasoan bazeuden bezala. Begira, nere Kristabak, zer ekuskaria gisa onetan legorrean, ta egunaz gizonak ekustea igari! Farra egiten dezu, Kristaua, ipui au aditzean, baña atozea etzatzu zuri onenbeste gertatu? Atozea, etzera iñoiz bide orietan eraunzi oira zuazelako ustean? Etzera aritz, edo gaztañekin borroka asi gizonen batzuek diralako ustean? Etzera deadarka, ta ojuz ibilli lorretan bazenbiltza bezala? Ai! nere Kristau onak! oek, ta beste leku onetatik ezin adierazi nitzakean gauz asko ekusi dituzue zerok, edo gutxienean aditu.

Edanerako makurtasunetik jaiotzen da 6ren ondoren gaizto, eta kaltea da emaztea, ta umeak naigabez, kezkaz, ta atsakabez igartzea. Gizona ezkontzeko Sakramentuarekin geratu zan beartua bekatu larriaren azpian bere emazteari bizitza pakeazkoa, ta ona bere alegiñean ematera, naigabez, kezkaz, pre-

miaz gogaitzeko biderik batere ematen ez diola. Ongi: ta gizon batek edanerako makurtasun au artu ezkeru zer bizitza emango die bere emazte, ta ume tristeai? zer kezkek, gauak gizonaren zai, ta noiz berri gaiztoaren bat izango duen beldurrak aidean daudela? Zer gogaitzeko bideak betiko billabearrarekin, umeen negar eta larrugorritasunarekin, zorren estutasunarekin? Izan diteke gurutze pisuago, ta martirio luzeagorik bizimodu au baño? Non dira bizimodu onek geieanean ekarri oi dituan birabak, erriertak, ta auzoak asaldatzea? Nork kontatu onelako bizitzak dakaizkian kalteak, ta bekatuak?

Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 7ren ondoren gaizto, ta kaltea da erausia, ta ixillik egon bear lukeen gauzak agertzea. Ez da sekretorik batere ordikeria dan lekuan, esaten digu Espiritu Santuak berak. *Nullum secretum est ubi regnat ebrietas* (Prov. 31). Nork estali, ta gorde du tragoen artean, gorderik iduki nai zuan gauza? esaten du S. Ambrosiok. *Quis inter Cyathos texit quod tacere cupiebat*. Edanean igarotzea da tarantula deritzan puzoia bezala. Tarantularen puzoiak batzuek ipintzen ditu algaraz, lertze-ko zorian, besteak uzten ditu illun, ta beltz; batzuek pozez asitzen dira saltoka, ta ezin iñork gera-erazi

ditu; besteak artzen ditu arrabia latzak guziaz ekiteko ortzka, aginka, ta golpeka. Ala da, edo puzoi onen antzekoa bada edanean igarotzea. Edanaren tarantularekin ekusiko dituzue batzuek, ezeri ez dagokala, eragabeko farra, algara, deadarrak, ta iru oiduak egiten, beste batzuek saltoka, ta lasterka ta iñoiz gauaren erdian zezenka, iñoiz neronek ekusi dedan bezala: batzuek mututurik, ta besteak txit iztun. Ta atzeneko au da geienean eskusten dan edanaren miraria. Edanarekin egiten zaio mingañari ezin ixillik egon bat erlejuari olio geierekin egiten zaion bezala: ardoarekin batean igari asitzen dira biotzean gorderik zeuden gauzak igotzen dira mingañaren puntaraño, ta gero an dioaz guziak. Etzaie orduan barkatzen Apaizai, Predikadore, ta konfesoari; etzate barkatzen etxekoai, eta ez auzoai; etzate barkatzen ezkonduai, ez donzellai, agertzen dira bear bada oekin egindako ibillerak, ta bekatuak.

Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 8ren ondoren gaizto, ta kaltea da aserrea, leia, ta tximera. Auzien Ama deitzen dio S. Buenabenturak. *Parens litium* (De sex alis Cherub). S. Isidorok dio orditzea dala biotzean aserrearen бага gaiztoak eraigitzea. *Cordis furorem* (De summo Bon). Baña gutxi da au

guzia Eskritura Santak dionaren aldean. Jendearen asaldazio, aserre, ta kimerak dakazkian gauza da ordikeria, dio Espiritu Santuak leku batean. *Luxuriosa res vinum, et tumultuosa ebrietas* (Prov. 20). Ardoak, ubari edanda, berekin dakaizki aserrea, ta kalte asko, dio beste leku batean. *Vinum multum potatum irritationem, et iram, et ruinas multas facit* (Prov. 31). Norgan dira aiak! noren gurasoak ditu naigabea, ta negarra? Norgan aserrea ta leia? norgan zuloak, norgan bidegabeko zauri, edo eridak, norgan begietako kataratak, ezpada beren etxea ardoaren lekuan ipintzen, ta beren ansia basoak itzultzen daukeen aetan? Au guzia Espiritu Santuak berak dio. *Cui vae? Cuius. Patri vae? Cui rixae? cui foveae? cui sine causa vulnera? Cui suffusio oculorum? nonne his, qui commorantur in vino? et student calicibus epotandis?* (Prov. 23). Ezagutu dituzue zenbait gizon, edan gabe daudenean, txit pakeatsuak, ongi itzegiñak, ta biotz onekoak, baña, zer lastima! edatearekin dirudi sartzen zatela aserrearen, leiaren, ta tximeraren Demonioaren bat: iduritzen zate zuria nabal: iduritzen zate guziak beren kontra dazaustela, ta emendik zer kalteak! Zer aserreak etxeetan, auzoetan, errietan! Zenbat anima

etsaiaren atzaparretan! Nere Kristau onak, egun oro ekusten da egia au.

Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 9ren ondoren gaizto, ta kaltea da, etxekoai, auzoai, ta errikoai ejenplo gaiztoa ematea. Edozeñ guraso, ta etxetako buru beartua dago bere ume, mirabe, ta gañerakoai Zerurako bidea erakustera ez itz utsakin, baizikan itzez, ta bizitza onez. Onetan zabarra, ta nagia dan gurasoa ez absolbitzeko esaten digu S. Karlos Borromeok; ta S. Pablok dio, onelako gurasoa dala fedegabea, ta fedegabea baño ere gaiztoagoa: *est infidelis, et infideli deterior*. Atozea, gizon edalea, ta nola zuk erakutsiko diezu zere ume, ta mirabeai Zerurako bidea? baldin zerori bide au utzirik bide okerretik bazabiltza? Nola erakutsiko diezu maiz, ta ongi konfesatzen, zerori berandutik berandura, ta gaizki konfesatzen bazera? Nola erakutsiko diezu bekatuaren bideetatik aldegiten, zerorrek aldegiten ezpadezu? Nola goiz etxeratzen, zerori umeen kontu gabe beranduraño tabernan bazaude?

Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 10ren ondoren gaizto, ta kaltea da lujuriaren sua erazekitzea. Nork dio ori? Elizako Konzilioak; *Lujuriaren gurasoa* deitzen dio Remni deritzan erri batean oraiñ

berreun urte bezala egin zan Konzilioak. *Libidinis parens* (Conc. Rem. anno 1589). Nork dio au? Au dioe Elizaren guraso, ta gizon jakiundez, ta birtutez beteak. Edanaren ume nagusia da lujuria, dio S. Ziri-lo Alejandriakoak. Gauza miragarriagoa da edaleentzat garbi bizitzea, edo lujuriaren loikerietan ez erortzea illak piztutzea baño, dio S. Bizente Ferrer-ek. *Ebriosis caste vivere est majus miraculum, quam mortuos suscitarek* (Dom. 2 post oct. Pasch.). Demonio beraa, puzoi dultzea, ta bekatu goixoa da ordikeria, dio S. Agustiñek. *Ebrietas est blandus Daemon, dulce venenum, suave peccatum* (Ad Sacras Virg.). Gauza luzea izango lizake, dio S. Jeronimok, ordikeriak ekartzen dituan kalteak, ta bekatuak banaka ukuituaz joatea, ta zentzugabekeria guziak adiraztea. Asko izan bedi oraiñ esanik uztea: ez det nik iñoiz-ere ordia garbi, edo kastotzat sinistuko. *Longum est ire per singula, et insanias, quas ebrietas suggerit, explicare: Hoc nunc dixisse sufficiat: nunquam ego ebrium castum putabo* (In cap. 1 epist. ad Titum). S. Ambrosiok ez du gutxiago esaten: ez dituzue ekusi zaldiak lujuriaren luarekin nola irrintziaz, ta asaldatuak bere gurarekin egon oi diran? Zaldi onelako biurtzen dira gizonak edan geiegiarekin dio Santuak, zeren bere-

nez duen berotasunaz gañera ardoarekin erazekirik ezin eskura ditue beren buruak, ta mugitzen dira zentzurik ez duen animalien zikinkerietara: *Per hanc (id est ebrietatem) fiunt ex hominibus equi adhinientes: siquidem naturali vapore corporis calidi, et praeter naturam vini calore flamati, cohibere se non queunt, et in bestiales libidines excitantur* (De Elia et ieun.). S. Basiliok oraindik geiago dio. Askoz gaiztoak deriztet ordikeriak azpian artu dituanai bestia, edo zentzugabeko animaliai baño, dio Santuak. Animaliak alabaña baditue elkarganatzeko lege denbora, ta ordu jakinak, baño edaleak denboren, ta orduen begiramenturik gabe, izan gaba izan eguna, izan bakarrean, edo iñor begira dagoala, edo oartzen dala lujuriaren atsegin loietarako dira. *Ino et bestiis longe peiores existimaverim eos, qui ab ebrietate superantur, com illae coueundi status habeant leges, et horas, hi vero nullius temporis, et horae rationem habentes, negissimis complexibus, et amoribus inter se utuntur* (Homil. in ebriet.). Au guzia asko ezpada zuk sinisteko nik esan dedan egia, adieazazu zer dioan Espiritu Santuak S. Pabloren ezpañaz: etzaitezela ardoan igaro, esaten digu S. Pablok, zeren onetan dagoan lujuria. *Nolite inebriari vino, in quo est luxuria*. Nere

Kristauak, ez da maiz asko ekusten edaleetan au? Ez dituzue ekusi edaleak naiz zarrak, naiz ezkonduak izan itz lasai-loiak darieztezela, keñadak edozeñ emakumeri egiten, edo bearbada geiago? Zer esango det Matrimonio Santuak debekatzen dituan asko kontuz?

Aditu bear dezue Eskritura Santak Lothen gañean dakarren gauz arrigarri bat. Loth bizitu zan urte askoan Sodoma zeritzan erri batean: erri onetako jende guzia txikia, ta andia itsutua, etziña, ta usteldua bizi zan lujuriaren zikinkerietan, gizonak gizonakin, ta emakumeak emakumeakin elkarrekin lotsatzen etziran bezala. Ainbesteraño itsutuak zeuden, zeñ Lothen etxera etorririk Aingeruak zaldun ederren idurian, bildu zan erriko jendea, inguratu zuen Lothen etxea, ta deadarrez eskatzen ziozkeen zaldun aek, aekin beren gura loiari atsegin egiteko. Atzenean Jaunak erria, ta errikoak auts biurtu zituan Zerutik bialtzen zuala sufrez, ta betunezko sua. Erri onetan bizitu zan Loth Jaungoikoaren beldurrean, ta bere emazte, ta umeakin atera erazi zuan Jaungoikoak Loth erriaz kanpora erriaren gañ su, ta garrak bialdu baño len. Atera zan Loth, ta gelditu mendi batean. Bere alaba zarrenak esaten dio gazteagoari. Adiezan gure Aita zartu den ya, ta ez den gizonik geratu lurrean gure-

kin ezkondu ditekeanik. *Pater noster senex est, et nullus virorum remansit in terra, qui possit ingredi ad nos iuxta morem universae terrae.* Uste zuen Lothen alabak Sodoma Gomorra, ta beste iru erri erreka ziranen gizon guziak aitu zirala, edo laster aituko, ta beldur ziran ekzongai geratzeaz. Zer egiten, ta zer asmatzen due? Zer? ezkondu bearrik zuzen, edo oker jartzen diran askok egiten duena, edo bide oker galdua artzea. Ator, esaten dio, aizpa bata besteari, ardoz moskor dezagun, ta lo egin Aitarekin. *Veni inebriemur eum vino, dormiamusque cum eo.* Aita, txurrit, ta txurrit emanaz, moskortzen due, ta gauz arrigarria, nere Kristauak! Sodomana ain jende galdu-ustelduaren artean Jaunaren beldurrean iraun zuan gizona edanean igarorik erori zan bere bi alabakin, biak aurdun uzten zituala (Gen. 19). Ekusten dezu, Kristaua, zer dan edanean igarotzea lujuriarentzat? (Homil. 7 in Lev.) Baña zer diot lujuriarentzat? deitzen badio *vitiorum omnium mater*, bizio guzien Ama; deitzen badio Konzilio batek bizio guzien ardagaia, ta iñudea? *Omnium vitiorum fomes, ac nutrix* (Conc. Agath.). Eta atzenean bizio au utzi nai ez duana eskomikatzeko agintzen badu Mogunziako Konzilio batek.

Atzenean, noiz-ere bait doktrina au bukatzeko, edanerako makurtasunetik jaiotzen dan ondoren izugarriena da animako gorreria, gogortasuna, eta erioztza gaiztoa. Ez uste izan, bekataria, zu ikaratzeagatik nere burutik ateratzen dedala au, ez, ez; au da egia bat Elizako Doktoreak aditzera ematen diguena. Eskritura Santak esaten du bekatuaren bidez dabil-tzanak-gatik: Dagroien beazuna oen ardoa, ta suge lotariaren puzoi ezin senda ditekeana. *Fel draconum vinum eorum, et venenum aspidum insanabile* (Deut. 32). Eskritura Santaren itz oei dagotela esaten du S. Anbrosiok gisa onetan: ederki dio Eskritura Santak puzoi ezin senda ditekeana; asko sendatzen dira alabaña beste suge, edo bekatuen puzoietik, baña ordikeriaren puzoietik iñor ere, dio Santuak. *Pulchre additur insanabile; multi enim a reliquorum serpentum veneno curantur nemo ab ebrietate* (De Elia, et ieiun. c. 14). Geiago oraindik aditu nai badezu, galde giozu S. Juan Krisostomori, zer dan gizon ordia, ta zer ordikeria? gizon ordia da, erantzungo dizu, ill oraindik animarekin arkitzen dana, bere naiez Demonio biurtu dana: *Homo ebrius est mortuus animatus, Daemon voluntarius*. Ordikeriarako makurtasuna, da, esango dizu animaren tisika, edo minantze kurarik, ta barka-

ziorik ez duana. *Morbus veniam non habens, ruina excusatione carens, commune generis nostri oprobium* (Hom. 1. ad Pop. Anthiochen.). Badakizue nondik jaiotzen dan minantze au onen gaiztoa izatea? Ara nondik: gazterik artzen du askok ardorako, ta edanerako griña au; Jaunaren graziarekin aisa gazteak garai lezake bere griña au, baña ezauzi egiten da denbora aetan; zartzen da gizona, ta bere zartasuna alde batetik, ta bere griña beste aldetik eske, ta eske dagozka edariaren berotasuna, ta ezin daude ya beren buruak galdu arte. Ustai gaia berde dan artean, okertu arren, erraz zuzenduko da, baña zartu bada, ta legortu upelari dauskiola ez da geiago zuzenduko. Gerrietako miñarekin gizon gaztea zenbait denboran makurturik ibilli arren, uste izan diteke zuzentzea, baña baldin gaztetanik zartzeraño kakoturik, ta makurturik egon bada, nola zartzean zuzenduko da?

Zer bada, esango dezue, ez da onelako bekatarientzat sendatzeko, ta Jaunaren legeko bide zuzenean sartzeko usterik? Etsirik egon bearrak ote dira Zeruaz? Nere Kristau onak ez nuke nai esan iñor geiegi izutzeko gauzarik, baña alaere aditzera emango det gaiak eskatzen duana. Oitura onetan sartu ez diranak, ekusirik, ta ezaguturik berekin duen perill

andia, egin bezee alegiña iges-egiteko makurtasun onen mendean jartzetik, aldegiten duela edaleen batzarre guzietatik. Baña miñantze onekin arkitzen diranak zer egingo due? egin bear duena da zerbait denbora artzea negar egiteko, ta ezagutzeko beren bekatuak, beren utsegiteak, ta egin dituen kalteak, ta ongi prestaturik egin gobada on bat, zeren lenekoak onak izan ez diran. 2.a Aldegin tabernetatik; aldegin edanean igarotzeko perilletatik. 3.a Iñoiz nai ta ez lagunakin bildu bearren bat tabernan, edo beste lekutan gertatzen bazaio, edo ez edan, edo edan urarekin, edo beintzat ez igaro on egingo dioela dakian trago aetatik. Premiarik ez danean lagunakin egoteko aldegin arras, ta osotoro sendatu nai duanak. 4.a egunean bein gogoan erabilli Jesusen neke oñazeak, ta batez-ere gure jan-edan geiegiagatik gurutzean igaro zuan egarria, ta eman zitzaion edari samiñ beazunez nastua, onela egun oro saiatzen dala, maiz konfesatuaz, ta bere animaren sendatzalleak esaten diona egiñaz, mugituko du onelako bekatariak bere Jauna bere graziaren indar-laguntzeak ubari ematera, mugitzeko bekatu guzien barkazioa, ta grazian irauteko indarra ez ukatzera. Au egin nai duanak, nere kontu, bere etsaiaren gorri gaiztoan-ere, izango du

eriotz on bat, ta atzenean eriotza onaren saria betiko glorian. Au opa dizuet guziori Jesu-Kristoren Pasio Santuaren bitartekoz Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

BERROGEI, TA BATGARREN ERAKUSALDIA

Kastidadeko birtutearen gañean.

*Haec est voluntas Dei, sanctificatio vestra;
ut abstinatis vos a fornicatione,
ut sciat unusquisque vestrum vas
suum possidere in sanctificatione et honore.*

Epist. 1. Beati Pauli ad Thes.

Gaur itzegin bear dizuet, nere Kristauak, kastidadeko birtute ederraren gañean, konsideratuaz donzelletan, ezkondu, ta alargunetan. Adu nazazue kontuz; bada ez da alferra izango zuen nekea.

§ I.

Kastidadea, nere Kristauak, da *birtute bat kostunbreai dagotena, ta aragiaren naikunde gaiztoak atzeratzen dituana*. Birtute au donzelletan da txit ederra, eta S. Franzisko Sales gozoak esaten duanez, birtute

guzien Azuzena, edo lirio zuri ederra. Jesus maitagarriak dio, *zakurrak, ta desonestoak izango dirala Zerutik erbestetuak su, ta garren artera; eta zori onekoak dirala biotz garbia duenak, zerren oek ekusiko duen* beren Jaun Jaungoikoa, ta Jaun beraren edertasun, ta atsegin guzia. Zakurren izena ematen die Jesusek bekatari loi desonestoai.

Birtute au da guztietan ederra bere moduan, baña batezere donzelletan. Birtute eder onek dio San Franzisko Salesek, aragiz janzirik dauden gizonak egiten *ditu* Aingeruen anzeko. *Ez da gauza ederrik garbitasuna gabe esaten du Santuak, ta gizon, ta emakumeen garbitasuna da Kastidadea.* Oraindik askoz goraago jasotzen du birtute eder au San Juan Krisostomok: *Zenbat bentaja egiten dion Zeruak lurrari, ta Aingeruak gizonari, anbat dio Santuak, egiten dio donzellen garbitasunak ezkonzari.* Ta oraindik geiago esaten du Santu andi onek: *Aingeruak ezpadira ezkonzen, ez dira aragiz, ta odolez egiñak: ez dira lurrean beren bizitza duenak: ez dira asaldatuak izaten garbitasunaren kontrako baga, ta deseo gaiztoakin.* *Ez due janaren, ta edanaren bearrik: eziñ mellarrik egingo die ez kanta suabeak, ez munduko etxura, ta arpegi ederrak, ta ez beste perillak. Baña garbita-*

sun osoari jarraitzen dioen Kristauak munduko lazo, perill, ta tentazio guztien artean, alde guzietatik erorzeko bideak dituela, Aingeruen garbitasunean ipintzen due beren gogo, ta biotza.

Kastidateko birtutea, nere Kristauak, da guziz ederra, baña denbora berean txit minberaa: Da txit fiña, baña ausikorra, ta txit erraz bere edertasuna galtzen duana. Ederra da kristala, baña asko da norbait bere arnasarekin kristalari alderatzea, bere edertasuna illundu, ta galdurik gelditzeko. Ederra da lirio bat, baña galzen du bere edertasuna eskutartean mirapidean erabilze batekin. Auxe bera gertatzen da kastidateko birtute ederrarekin. Birtute au illunzeko, ta galzeko ez da ez egin bear ganaduai dagoten bekatu andiskoteren bat, asko da pensamenak, edo oroipen loi bati toki ematea: asko da ukitze zikin bat egitea, edo borondatez arzea: asko da deseo, edo gusto txar bat: asko da itztxo bat asmo txarrarekin esatea, edo gozodasunarekin enzutea. Emen, nere Kristauak, egon bear nukean luzeago, ta itz egin garbiro; bada asko zorok nai izaten du modu gaizto oiyeekin atsegin artu, eta gero eskusatu alegiña konfesio-ko Sakramentuan; baña kontentatuko naiz, esateare-

kin donzellai bi gauza, San Franzisko Sales gozoagan irakurtzen diranak.

Lenbizikoa: nai badezue donzellak artu ezkonza-ko Sakramentua, gorde ezazue kontu, ta arreta andiarekin zeren lenbiziko amorioa, lenbiziko senar, edo esposoarentzat. Daukat, dio Santuak, engaño anditzat, biotz oso, ta garbi baten ordean presentatzea biotz usatu, ta mantxatu bat. Bigarrena: baldiñ zuen suerteak deitzen bazaitue, ezkonzera Jesusekin, O! nere Jaungoikoa! gorde ezazue zeren amorioa esposo Jangoikozko onenzat. Bada au izanik garbitasuna bera, ez du beste gauzarik ainbeste maitatzen, non garbitasuna: eta nola zor zaizkan gauza guzien lenbiziko frutuak, batez ere zor zaizka amorioarenak. Orra, nere Kristauak, zeñen ederra dan, donzellai dagoten kastidade, ta garbitasuna, ta orra nolako kontuarekin gorde bear dezuen, ala ezkonzeko asmoa dezuenak, nola beti birjiñidadean bizi nai dezuenok. Guazen ezkonduen kastidadera.

§ II.

Ezkonduai dagoten kastidatea bere moduan ederra da, ta ezkonduak gordetzen badue garbitasun osoa, S. Josek, ta Maria txit Santa, ta beste Santu askok gorde izan duen bezela, da guztiz ederra. Onen gora igotzeko biotzik ezduen ezkonduena ere, da bere moduan ederra, ta kontsideratu diteke matrimonioan, ta matrimoniotik kanpora. Matrimonioan kontsideratzen badegu ezkonduen garbitasuna, ez dago au, beñere matrimonioan aragiaren gustorik ez artzean, ezpada estadu onek dituan nebriak ez igarotzean. Matrimonioak dituan nebriak aditzera ematea, izango lizake, nere Kristauak, gauza luzea, ta gazteentzat peril andikoa: argatik esango dizuet bakarrik Sararekin gertatu zana.

Sara, dama txit birtutetsu, aberats, ta ederra zan. Ezkondu zan zazpi zaldunekin, ta zazpiak ezkonduko arratsean, ill otzak utzi zituan etsaiak, beren emazteagana baño len. Zergatik uste dezue nere Kristauak? zerren zazpi galai oiek etziran ezkondu, ezkonzak eskatzen duan asmo garbiarekin, ez bada animalien eran, ipintzen zuela eren biotza, ta gogoia luxuriako ardoan. Baña etzitzai onela gertatu Tobias gazteari, bildur bazan ere ezkontzeko Sararekin.

Tobias gazteari erakutsi zion Aingeru S. Rafaelek nola portatu Sara ederrarekin, itzegiten ziola modu onetan: *Zu Tobias Sararekin ezkonzen zeranean, biziko zera iru egunean garbitasun, ta kastidadean, Jaunari erregutzea besterik egin gabe, ta iru gabak modu onetan igaro ondoan, arganako zera; baña Jaunaren beldurrarekin, ez aragiaren atsegiñ lizunen ondoren, baizik zere ondorengoak uzteko, Abrahamen jatorrian semeetan Jaunaren bendizioa izan dezazun. Accipies virginem cum timore Dei, amore filiorum magis, quam libidine ductus, ut in semine Abrahae benedictionem in filiis consequaris* (Tobiae c. 6).

Tobiasek egin zuan S. Rafael Aingeruak esan ziona; bada ezkondutako arratsean, sartu zan Sararen gelan, ta esan zion: *Jeiki zaite Sara, ta erregutu degiogun Jaunari iru egun oetan. Guraso onen umeak gera alabaña, ta ezin elkargana gaitezke, Jaunaren ezaguerarik ez duen jendeak bezala. Asi zan Tobias Sararekin batean orazio egiten: Gure gurasoen Jaun Jaungoikoa, esaten zion Tobiasek Jaunari, bedeika zaitzeela Zeruak, ta lurrak, itsasoak iturriak, ta ibaiak, ta oietan zuk ezer ezetik egiñik arkitzen diran gauza guztiak. Zuk Jauna egin zenduan Adan lur piska batetik, ta eman zenion lagunzat Eba; ta orain zuk*

dakizu ez dedala arzen nere emaztetzat Sara, aragiaren atsegiñ lotsagarriakgatik, baizikan bedeikatua izan dedin beti beti zure izen Santua nere ondorengotan. Ejenplo onek, nere Kristauak aditzera ematen du, zeñen asmo garbiakin artu bear dan matrimonio-ko Sakramentua, baita ere Sakramentu onetan ezkonduak bear duen garbitasuna. Zori onekoak zuek onen asmo garbiakin ezkondu bazerate, eta ezkonzari dagokan garbitasunean bizi bazerate.

Matrimonioari dagokan garbitasuna gorde gabez matrimonioan bertan, ikusi zituan Santa Katalina Senakoak, esaten du S. Franzisko Salesek, asko ezkonduen animak infernuan neke, ta oñaze ikaragarrien artean, zeren ausi zuen estadu onek eskatzen duan Santidadea. Au gertatu zitzaten dio Santuak, ez bekatuaren anditasunagatik, bada andiangoak dira eriotzak, ta blasfemiak, ezpada zerren etzuen ezertan artu, ta onela bizitu ziran denbora luzean. Ez ote dira gaurko egunean ere era onetan bizi asko ezkondu? Sartu bezee bakoitzak beren bularrean eskua, ta ikusiko due irteten dala lepraz betea.

Ezkonduen kastidadea konsideratzen badegu, ezkonzaz kanpora, dago oiek garbiak izatean beren egiteko, deseo, itz, pensamentu, eta beste gauza

guzietan. Ezkonduai alabaña debekatuak daude ezkonzaz kanpora, besteai debekatuak dauden gauza guztiak. Ez due noaski onela pensatzen asko ezkondu lasaiek. Baña sinistuko due erremediorik ez dan denboran. Aditu dezue, nere Kristauak nola bere moduan ederra dan ezkonduai dagoten kastidatea. Ikusi dezagun alargunai dagotena.

§ III.

Kastidateko birtutea ederra da, nere Kristauak, alargunetan ere. Oiek nai badue bizi dagoten garbitasunean, bear due izan biotz andi, ta animoso bat, osotoro aienatzeko aragiaren naikunde, ta atsegiñak, ez etorkizunak bakarrik, baita igaroak ere, kentzen duela igarotako lizenzien memoria, ta oroipena, bestela arkitzen dira perill andian, eta gertatuko zate Israeldarrai, Ejiptotik irten da, gertatu zitzatena. Ijitoen mendetik atera zituan Jaunak bere Israeldar maitteak, onetarako egiten zituala eziñ konta al milagro; baña Israeldarrak laster asi ziran espadasun andiakin itzegiten: ta oetatik askok naiago zuen Ejiptoko jana-

ri dongeakin egotea, ezen ez eremuan barrena joa-
tea, Jaunak ematen zien mantenu garbiarekin.

Au bera gertatzen zate asko animari: aspertzen
dira Jaunak garbitasunean ipintzen diezten janari gar-
biaz: aztutzen dira, beren estaduari dagokan kastida-
deaz, ta biurzen dira lenagoko bazka, ta zikinkerieta-
ra. Alargunak duen perill andia, biurtzeko lenagoko
atsegiñetara, ongi aditzera ematen du S. Agustiñek,
ikaratzen danean, ikusirik bere adiskide Alipioren gar-
bitasuna, ta arritzen zan Santua, onek osotoro uzteaz
aragiaren atsegiñak izanik oetara makurtua gazte
denboran.

Eta egiaz esateko, dio S. Franzisko Sales gozoak,
frutak osoak dauden artean erraz konserbatzen dira,
batzuek lastoen gañean; besteak ondar artean, eta
beste batzuek eren ostoetan; baña beñ osodasuna
galdu ezkeru, kasi eziñ izan ditekean gauza da gorde-
tzea, ezpada ezti, ta azukrearekin konfitatu, edo
gozagainduaz. Onelaxe, beñere galdu, edo zikindu ez
dan kastidatea gorde diteke modu askotara, baña
osoa ezdagoana, ezin konserbatu, ta gorde-diteke
debozio andi bat gabe: Debozioa da alabaña animen
ezti, ta azukrea.

Alargunak urrikariak dira, nere Kristauak, oien bakardadeari begiratzen badiogu, baña bizi badira garbiro, ta egiazko Alargundasunean, honratu bear ditugu. S. Pablo Apostoluak esaten du, honra itzazue egiazko Alargunak: *honoras viduas, quae vere viduae sunt* (1. Ad Timoth. 5.3.). Egiaz Alargunak izateko dagozten gauzatxo batzuek esatera noa.

Lenbizia: egiazko alargunak bear due izan alargun, ez gorputzean bakarrik, baita biotzean ere. Au da; egiazko alargunak bear du iduki asmo sendo bat, beti alargun bizitzeko. Ezkonzeko asmoa duen alargunak, arkitzen dira alabaña gizonetatik aparte gorputzez, baña ez biotzez. Bigarrena: alargunen asmo onek bear du izan asmo garbi bat, obeto eren biotza Jaunarenarekin bat egiteagatik. Zeren gelditzen badira alargun, umeak aberats uzteagatik, edo beste munduko motiboren bategatik, izan litezke munduan laudatuak, baña ez Jaunaren aurrean, bada onen aurrean ez due izango laudaziorik, ezpaditue gauzak egiten beraren izenean.

Irugarrena: alargunak egiaz izateko, bear due aldegin borondatez munduko atsegiñetatik. S. Pablo Apostoluak esaten du; Alargun atsegiñetan bizi dana, bizitzan illa dagoala (Ubi supra vers. 6). Baldin alargu-

nak nai badue gizonakin itzegin: gizonen txorakeriak aditu: gusto badue ibilzen festetan, ta munduko atsegiñetan: nai badue ibilli apaiñdurik, onelako alargunak bizi dira gorputzean, baña illak daude animan. Gisa onetako alargunak ez dira egiazko alargunak, ez bada gezurrezkoak.

Laugarrena: Alargunak gelditzen badira umeakin, izan bear due oen kontu andi bat. S. Pablo Apostoluak esaten du, *etxekoen* kontua ez duanak, batez ere bereena, fedegabea baño gaiztogo dala (1. Ad Timoth. 5.4.). Bostgarrena. Orazioa izango da alargunen lan guzia. Bada egiazko alargunak gorde bear due Jaunarentzat beren biotz, ta amorio guztia, eta beragatik ez due itzik ere bear besterentzat. Nola alargunak libre gelditzen diran senarren ilzearekin, esan bear dioe beren Jaunari. O! Jauna, oraiñ guztia nerea naizanean, artu nazazu guztia zeretzat: eraman nazazu zure ondora: jarraituko dizut zure unguentu usai ederrezkoen ondora. Itz batean egiazko alargunak bear due izan marsoko biola, lore ederrak bezela, zabalzeko birtueen usai gozoa leku guztietan: bear due egon ezkutatuak munduko atsegiñ, konbersazio, ta onretarako, ta onela beren denbora

igarotzen duen alargunak, izango dira zori onekoak, esaten du Apostolu Santuak (1. Ad Cor. 7.8.).

Kastidateko birtutea, nere Kristauak; aditu dezuen bezela ederra da donzelletan, ezkonduetan, ta alargunetan, bai ta erraz galzen duana ere bere edertasuna. Orregatik ez da zer biotza galdu. Eman digu Jaunak Maria txit Santagan bitarteko andi bat, guri lagunzeko edozeñ tranzetan, edozeñ estutasun, eta tentaziotan. Goazen bada guztiok Ama maite onengana, ta eskatu degiogun uste andi batekin, iritsi degigula bere Seme Jesusegandik birtute eder au gordetzeko grazia, baita ere ongi bizi, ta ilzeko bear degun laguntza, gero egon gaitezen berarekin Zeruan beti betiko atsegiñetan. Amen.

BERROGEI TA BIGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da lenbizia:

*Zer aditzen dan dotrinaren izenez, eta zeñ gauza
bearra dan Zerurako.*

*Bigarrena: Eliz Ama Santaren alegiñak dotrina guri
ikas-erazteko.*

*Irugarrena: Askoren aitzakiak dotrinara ez etortzeko,
eta emendik datozen kalteak.*

*In mansuetudine suscipite verbum insitum,
quod potest salvare animas vestras. Jacobi 1.*

Noizbait, noizbait asitzera noa, nere Kristauak, aspaldi nai izan dedan lanean, edo Kristau aziai dotri- na azaltzen, eta adirazten. Kristau zerbait adiñean aurreratu dirañak obeto jakin, eta aditu bear ditue dotrinako gauzak aurrak baño; eta jakiunde oen argiarekin jarraitu bear dioe Zerurako bideari, beka- tutik, eta bekatuaren bideetatik aldegiñaz, eta Jesu- Kristoren Lege eder-garbia gordeaz. Kristau aziai argitasun au ematea, eta Zerurako bidean arretare- kin ibiltzeko esnatzea da Eliz Ama Santak animen

arzaiai eskatzen dien gauza bat; eta ona zergatik sail
oni ekitera noan. Ez naiz dotrinako gauzak ukitzeare-
kin kontentatuko, baizik aditzera emango ditut gañe-
ra Jauna amatzeko, eta serbitzeko ditugun bide, edo
motibo andietatik zenbait. Enzun ezazue bada biotz
manso, ta umill batekin zuen animak salbatu ditza-
kean, Jaunaren itza, esaten digu Santiago Aposto-
luak: *In mansuetudine suscipite verbum insitum,*
quod potest salvare animas vestras; eta au bera
eskatzen dizuet nere aisera onetatik. Onetara kutur-
tu ditezen zuen biotzak, aditzera emango dizuet
gaur, lenbizia: zer aditzen dan dotrinaren izenez, eta
zein gauza bearra dan. Bigarrena, Eliz Ama Santaren
alegiñak dotrinako gauzak guri ikas-erazteko. Iruga-
rrena, askoren aitzakiak dotrinara ez etortzeko, eta
emendik datozen kalteak. Enzun nazazue kontuz.

* * *

Dotrinaren izenez aditzen da Jesu-Kristoren lege
Santa galde, ta erantzute laburretara biurtua, eta era
onetan arkitzen da Aita Asteteren liburu ederrean.
Bere sarreran itzegiten du Kristauaren izate, izen, eta
siñalearen gañean. Gero lau partetan erakusten diz-

kigu, Kristauak jakin bear dituan, gauzak. Lenengoan zer sinistu bear degun, eta onetarako dira Kredoak, ta Artikuluak. Bigarrenen erakusten digu, *zer Jaunari eskatu bear diogun*, eta onetarako dira *Aita Gurea, Abemaria, ta Salbea*. Irugarrenean erakusten digu, zer egin bear degun Zerurako, eta onetarako dira Jaunaren legeko amar Aginteak, Elizako bostak, eta Miserikordiazko obrak. Gañera animaren etsaien, bekatuaren, eta birtuteen gañean dakartzian gauzak laguntzen due asko, zer egin bear degun jakiteko. Laugarren Partean erakusten du, zer artu bear degun, edo zazpi Sakramentuak, eta oen ondoren ukitzen ditu zenbait gauz on.

Ezagutzeko, zeñ gauza bearra dan Zerurako dotrina jakitea, begira Kristaua, zertako egin zinduan Jaunak? Zenbat gauza bear diran zuk zuri dagokizuna egiteko, eta nola guzia erakusten dizun dotrinak bere lau Parteetan. Zertako egiñ zinduala Jaunak uste dezu? Egin zinduan bera ezagutzeko, eta ezaguturik amatzeko, eta serbitzeko, eta gero betikotasun guzian berarekin batean doatsu izateko. Emendik atera ezazu, zure lan, edo egitekorik andiena, ta bearrrena, edo bakarra dala zure Jaungoikoa ezagutzea, ta ezaguturik amatzea, ta serbitzea. Zenbat gauza

bear dira zuk zure lan au ongi egiteko? Iru gauza, eta irurak iristeko bidea ederki erakusten dizu doktrinak bere lau Parteetan. Lenengoa da ezagutzea fedearen argiarekin zein maitagarria dan gure Jaungoikoa, eta ezaguera onekin esnatzea bera amatzeko, eta serbitzeko, edo bera amatu, ta serbitu-nai egiazko bat sortzea biotzean. Esan gidazu, nola amatuko, ta serbituko dezu zure Jaungoikoa, ta beraren Seme Jesus, ezpadezu ezagutzen, zein ona, eta maitagarria dan? Eta nola, zure biotzean sortzen ezpada gogo, ta nai egiazko bat? Ezin datekean gauza da ori. Eta nondik, eta nola ezagutuko dezu Jainkoaren ontasun, eta maitagarritasun paregabea? Dotrinaren lenengo Partea, edo zer sinistu bear dan jakitearekin. Gauza guziak nolerebait ari dira guri adierazten, zein maitagarria dan gure Jaungoikoa; baña ezaguera au ezta asko guk bear dan eran bera amatzeko, ta serbitzeko. Jaun au da gu Zerurako egin ginduana. Jaun au da, gu Adanen bekatuarekin galduak ekusirik, gizon egin zana, gurutzean bizitza eman zuana. Jaun au da bere Eliza ainbeste nekerekin altxa zuana, bere umeen artean artu gaituana, eta Zerurako bidea berriro prestatu diguna. Zein on, eta maitagarria ez da, au guzia gure alde egin duan, Jauna? Baña maitagarritasun au da

fedearen argiak bakarrik erakusten duana, sinisteko erakusten dizkigun, gauzetan, batezere Kredoan, eta fedearen Artikuluetan. Eta ona zein gauza bearra dan Kredoan, ta fedearen Artikuluak ongi jakitea, ezagutzeko Jaunaren maitagarritasuna fedearen argiarekin, eta ezaguera onekin mugitzeko bera amatzera, ez bakarrik gauza guzien Egillea bezala, baita ere zeren fedea erakusten digun aldetik dan ezin geiagoraño on, eta maitagarria.

Jaungoikoa amatzeko, ta serbitzeko ezta asko bera ezagutzea, ta amatu, ta serbitu nai izatea, bear da gañera artarako eskua, ala, edo indarra. Izan dezakezu zuk Jerusalengo leku Santuak ekusteko nai andi bat, baña ezpadezu oñetan indarririk pausorik emateko, eta ezpadezu gañera ez zaldirik, ez ontzirik, etzera ara joango beñere. Era berean ez dezu zuk zure Jaungoikoa bear dan eran amatuko, beraren maitagarritasuna ezagututa-ere, ezpadezu artarako esku, al, eta indarririk, edo berbera dana Jaunaren grazia, ta Zeruko laguntza, ta indarra. Jaunaren grazia-zen izenez aditzen da arako Espiritu Santuak animari bataioan, edo konfesioko Sakramentuan, edo beste edozein Sakramentuan ematen dion doai miragarri ura. Au da animaren bizitza, eta santutasuna, eta dei-

tzen dio Jesu-Kristok eztaietako soñekoa. Au da gu Jainkoaren Seme, Jesu-Kristoren senide, eta Zeruaren jabegai egiten gaituana. Grazia au gabe egiten diran obra guziak, berenez onak diranean-ere, dira illak, zeren sustraia illa dagoan: eta emendik gauza bearra grazia au guk gure Jaungoikoa amatzeko, ta serbitzeko. Gañera graziaren izenez aditzen dira Jaunak bekatutik aldegitiko, ta obra onak egiteko adimentura bidaltzen dituan argiak, eta biotzari egiten diozkan ukitzeak; deitzen zaio grazia oni Zeruko laguntza, ta indarra, eta grazia au-ere gauza bearra da guk gure Jaungoikoa amatzeko ta serbitzeko. Au gabe ez gera gai, edo ez gera gauza pensamentu on bat-ere egiteko, ez eta Jesus esateko-ere, dio S. Paulok. *Nemo potest dicere Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto*. Eta nondik, eta nola jakingo du Kristauak Zeruko grazia oek iristeko bidea? Nondik? Dotrinaren bigarren, eta laugarren Partetik. Bigarren Partean erakusten zaku, zer eskatu bear diogun Jaunari, eta nola eskatu bear diogun, eta onetarako da *Aita gurea*, arako Jesu-Kristok berak bere Elizari utzi izon erregu miragarri ura. Erregu onetan eskatzen diozkagu Jaunari betiko bizitza doatsua, animako grazia, eta emen bizitzeko bear ditugun gauza guziak. Eta nola gure erreguak asko-

tan izan oi diran edo epelak, edo gaizki egiñak, Eliz Ama Santak erakusten dizkigu *Abe Maria*, eta *Salbea*, Birjiña txit Santaren bitartekotasunarekin iristeko bear deguna. Laugarren partean erakusten zaku, *zer artu bear degun*. Bazekusan Jesu-Kristok, bataioko Sakramentuan guri graziaren bizitza eman arren, gu izango giñala argalak, onerako nagiak, eta gaitzera makurtuak, eta eman zigun grazian iraun, eta aurre-ratu gindezen ipiñi zituan beste Sakramentuak, batez ere Komuniokoa. Au da bizitzako arbolaren fruta egiazkoa, eta au sarritan, eta debozioz artzen dala bizi diteke Kristaua, bekatuaren eriozaren atzaparretan erori gabe, Jesu-Kristok berak esana utzi zuan bezala. Bazekusan gañera Jesu-Kristok, Kristaurik geienak galduko zuela bataioan artu zuen graziaren bizitza, eta geratuko zirala animaren aldetik illak, eta piztu zitezen ipiñi zuan Konfesioko Sakramentua. Ona, nola dotrinaren bigarren, eta laugarren Partea jakitearekin dakian Kristauak, nola, ta zer bidez iritsiko dezakean Jauna amatzeko, ta serbitzeko bear duan, grazia, al, eta indarra.

Ezta hau-ere asko guk gure Jaungoikoa amatzeko, eta serbitzeko. Egizu kontu, ezagutzen dezula zuk gure Jaun Erregea, eta badezula bera serbitzeko nai,

edo deseoa andi bat, baita artarako modua-ere. Ezta asko au zuk Errege serbitzeko; jakin bear dezu onetarako, zer zuk egitea nai duan Erregek, eta au jakiñik ederki serbi dezakezu. Au bera gertatzen da Jainkoa amatzearen, eta serbitzearen gañean. Ez da asko ezagutzea, zein on, eta maitagarria dan Jauna, ez eta bera amatzeko nai utsa ere. Ezta asko zuk artarako bear dan esku, al, eta indarra izatea; jakin bear dezu gañera, zer zuk egitea nai duan Jaun onek. Eta nola jakingo dezu au? Dotrinaren irugarren Partetik. Parte onetan erakusten dira, guk egitea Jaunak nai duan gauzak; emen Jaunaren Legeko amar Aginteak, Elizako bostak, eta miseriak obrak. Oen ondoren erakusten digu dotrinak aldegin bear diegun animaren etsaiak, zer dan bekatua, bekatu kapitalak, oen kontrako birtuteak, eta beste zenbait gauza egoki Jauna serbitzeko zer egin bear degun jakiteko.

Oraindaño ukitu ditugun gauzak jakitea Kristau guziaz dagotena da. Oez gañera jakin bear ditu bakoitzak bere estatu, ta karguari dagozkan eginbideak. Ala esaten digu Santo Tomasek: *Singuli autem tenentur scire ea, quae ad eorum statum, cel officium spectant*. Ekusten dezu, Kristaua, zein gauza bearra dan dotrina? Zein bearra onek bere lau Parteetan daka-

rena jakitea? Jakiunde au da Jaungoikoaren, eta aren Seme Jesu-Kristoren ezaguera ematen diguna, eta ezaguera onetan dago betiko bizitza doatsua, dio S. Juanek, au da betiko bizitza doatsua iristeko bidea: *Haec est vita aeterna, ut cognoscant te solum Deum verum, et quem misisti Jesum Christum.* Jakiunde au da, guri agertzen diguna gure Jaunaren ontasun neurririk, eta bazterrik ez duana Kredoan, eta Artikuluetan. Jakiunde au da Zerurako bidean bear degun argitasun guzia ematen diguna. Jakiunde au da Erregeak, Prinzipe, ta gizon andiak, Obispo Jaunak, eta Aita Santuak-ere, Zerurako badira, guk bezala ikasi, beren biotzean gorde, eta obretan erakutsi bear duena. Jakiunde au da Eskritura Santak ainbeste laudatzen, eta aiñ gora altxatzen duana. Nai izan nuan, eta eman zat zentzua, dio jakintsuak Eskrituran. *Optavi, et datus est mihi sensus.* Eskatu nion Jaunari, eta etorri zan nigana jakiundearen espiritua. Erreñuak, eta Erregeen jarlekurik andienak baño geiago estimatu nuan, eta onen pare ipiñirik munduko ondasun guziak ez nituan ezertan iduki. *Divitias nihil esse duxi in comparatione illius.* Arri eder-preziotsuak ez nituan ezertan artu onen aldean. Urrea, dan garbiena, eta fiñena-ere, ondar ale bat bezala da jakiundearen

pare, eta loa iduringo du onen aurrean zillarrak. *Omne aurum in comparatione illius arena est exigua, et tanquam lutum aestimabitur argentum in conspectu illius.* Ongi: eta au onela bada, dan bezala, etzera saiatuko, Kristaua, dotrina ederki ikastera? Dotrinara etortzera aldezun guzian, eta zere mendekoak bidaltzera? Baña asko degu gaurko. Uste nuan baño geiago luzatu naiz lenengo puntuan, eta beste biak ukituko ditut urrengo Erakusaldian. Enzun ezazue, nere Kristauak, biotz manso, ta umil batekin, zuen animak salbatu ditzakean, Jaunaren itza. *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod salvare potest animas vestras.* Jaunari nai dakiola Zeruko jakiunde au guk iristea, eta onekin bizi gerala Jaunaren grazian gure egunak bukatzea. Au da nik opa dedana guziontzat Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

BERROGEI TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten dira aurreko erakusaldian
utzi ziran gauzak, eta oek dira.*

*Lenbizia: Eliz Ama Santaren alegiñak
dotrina guri ikas-erazteko.*

*Bigarrena: askoren aitzakiak dotrinara ez etortzeko,
eta emendik datozen kalteak.*

*In mansuetudine suscipite verbum insitum,
quod potest salvare animas vestras. Jacobi 1.*

Lenengo Erakusaldian aditu zenduen, zer aditzen dan dotrinaren izenez, eta zein gauza bearra dan Zerurako. Gaur aditzera emango dizut lenbizia: Eliz Ama Santaren alegiñak, dotrina guri ikas-erazteko. Bigarrena, askoren aitzakiak dotrinara ez etortzeko, eta emendik datozen kalteak. Asi gaitezen bi gauz oek ekusten.

Eliz Ama Santaren nai guziz irazekia, eta ansia andia da bere umeak betiko bizitza doatsura giatzea; eta nola ezin bizitza ura iritsi ditekean dotrina jakin gabe, artu izan ditu au guri ikas-erazteko neurri ederrak, eta asko. Elizaren aurreneko denboretan Obispo Jaunak berak ari oi ziran beren kontuko animai dotrina erakusten. Oen artean izendatu ditezke S. Atanasio, S. Zirilo Jerusalemgo Obispoa, S. Agustin, eta beste asko. Iñoiz besteri utzitzen bazioen egiteko au, izango zan ura gizon jakiunde andiskoren bat, eta oetatik izan ziran Alejandrian Panteno, ta Orijenes. Gerozko denboretan ere aritu izan dira lan onetan gizon andiak, naiz Obispoetatik, naiz besteetatik, nola diran Gerson, S. Ignazio Loiolakoa, S. Karlos Borromeo, ta beste ezin konta al. Kristauak ugarituaz joan ziran eran egin bear izan ziran Eliza berriak, eta oetan ipiñi ziran, eta ipintzen diran Arzaiai agindu zitzen, erakutsi zegiezala Kristauai Zerurako jakin bear dan dotrina. Zer penak ez ditu ipiñi gai onetan nagiak diran Arzaien kontra? Gañera agindu die eskola-maisuak egiteko au bera, eta agindu die gurasoak, erakutsi degiezala beren umeak dotrina, edo bidal ditzeela ikasi dezakeen lekura. Eta dotriñetatik, eta Jainkoaren itza entzutetik igesi ez dabillen jendea, ez

du nai Eliz Ama Santak aldean dauden hermitetan Mezarik esatea animen Arzaiak Jainkoaren itza adirazi dezan artean; eta urrutian badago hermita, ez du nai an Mezarik esan dedin dotrina gabe.

Ez dira onetan geratzen Elizaren alegiñak. Anziñako denboran Elizatik botatzen zituan iru igandetan beren Elizara gabe geratzen ziranak. Etzitzaion iñori Meza entzuteko lekurik ematen, beste Eliza, edo Parrokiakoa bazan; aditzen da bidezkoa etzanean. Eliza bakoitzean, Meza asitzeko denboran, galdetzen zan: *ote da emen Eliz onetakoa ez danik?* Onelakoren bat bazan, ateratzen zuen Elizatik. Aiñ kontu estuak artzen ziran orduan, Kristau bakoitzak bere Arzaiaren dotrinatik iges egin etzezan. Obispadu onetako legeak agintzen zuan, erakarri zitezela Kristau guziak Meza nagusietara eta Trentoko Konzilioak aginduzien Obispo Jaunai, aditzera eman zegiezala bere mendekoai, nola beartua dagoan bakoitza alduanean bere Elizara etortzera Jainkoaren itza entzuteko. *Ad audiendum verbum Dei.* Atzenean debekatzen du dotrina eztakianari lenbiziko Komuniorako baimena ematea; debekatzen du onelakoak ezkontzea, eta deiak egitea ere bai, itz batean debekatzen du dotrina eztakienai Sakramentuak ematea. Ekusten dezu,

Kristaua, zer neurriak artu, eta zer alegiñak egin dituan Eliz Ama Santak dotrina guri ikas-erazteko? Eta alaere arkitzen dira Kristauen artean dotriñetatik igesi dabiltzanak? Arkitzen dira, urte guzian Jainkoaren itza entzun gabe, bizi diranak? Eta gero? Bukatu oi ditue eren egunak Zeruko argiaren berririk gabe, ontzak bukatu oi dituan bezala. Dakuskun oraiñ, ze aitzakiak ematen dituen dotrinara ez etortzeko, eta zer kalteak datozen emendik.

* * *

Gutxitan gertatzen da bekatariak aitzakiaren batekin bere burua edertu nai ez izatea. Ala gertatu zan Adan, eta Ebarekin, eta ala gertatu oi da oen umeakin-ere, eta oetatik dira dotrinak, eta Jainkoaren itza entzuteko nagitasunean bizi diranak. *Ez gera aurrak dotrinara joateko, esango due batzuek, bada-kigu gure diña. Egingo bagendu dakigun onek erakusten diguna?* Kristaua, nola itzegiten dezu era orretan, eta ainbeste dijoakizun gauzaren gañean? Ez gera, diozu, *aurrak dotrinara joateko*. Atozea, ta aurrak bakarrik dira dotrina, eta Jaunaren itza enzun bear duenak? Ez dezu aditu, nola Eliz Ama Santak agintzen

duan, Kristau aziai-ere aditzera eman dakiztela jakin bear dituen gauzak? Eta nola aditzera emango zaizkitzu etortzen ezpazera? *Ez gera aurrak*, eta eztakizu, aurren antzeko biurtzen ezpazera, etzerala Zeruan sartuko? Ala dio Jesu-Kristok berak: *Nisi conversi fueritis, et efficiamini sicut parvuli, non intrabitis in regnum Coelorum*. Badakigu gure diña, diozu. Au esango balu S. Ambrosio batek, sinistu liteke, baña ez dio Santuak onelako gauzarik, eta onen ordezt dio, ez dala iñor-ere ikastearen premia ez duanik: *Nemo est qui doceri non indigeat*. Eta zuk diozu, badakizula zuri dagokizun adiña? Ote dakizu zuk, ongi konfesatzeko nola prestatu bear dezun? Ote dakizu, Akto fedekoak, esperantza, karidade, ta kontriziozko afektoak noiz, eta nola egin bear dituzun? Ote dakizu etsaiaren tentazioak garaitzeko zer egin bear dezun? Ote dakizu dotrina liburutxoak dakarren piska ori ere? Gurasoa bazera, ote dakizu zer kontu, eta nolako neurriak artu bear dituzun zure umeak Zerurako bidean erabiltzeko, eta bekatuaren bideetatik kenerazteko? Erriko gauzetan nastutzen zerana bazera, ote dakizkitzu guzien onerako Erriak dituan ordenanzak? Ote dakizkitzu dezun karguak dituan egin-bideak? Ez noaski; gutxi dira alabaña gauz oetan zabartzen ez diranak;

eta geienak bizi dira borondatezko ez jakin negargarri batean, eta ala iltzen-ere dira zabarkeriazko bekatu onetan. Ai! zuek, dio Isaias Profetak, ai zuek zeren begietan jakintsuak zeratenak! *Vae qui sapientes estis in oculis vestris*. Baña egin dezagun kontu, badakizula zuk zuri dagokizuna; eztakizu ezin gauz onik egin dezakezula Jaunaren laguntza gabe, eta laguntza oek askotan ugari eman oi dituala Jaunak beraren itza Santua umilki, eta biotz onarekin entzuten danean? Eztakizu, dotrina bat entzutean egon dala iñoiz zenbait betiko ez galtzea?

Ezpagendu beste egitekorik, etorriko giñake dotrinara, dioe beste batzuek; baña aste guzian aunatzen gera, jaiean-ere milla arazo baditugu, eta nola etorriko gera Meza nagusietara, eta gero berriz beste dotrinara? Aste guzian aunatzen zera, Kristaua, ez dizut ukatuko, baña aunatzen zera gorputzak bear duanaren billa, eta animak ez due ezer bear? Etzera zu bakarrik nekatzen, zu bezala nekatzen dira beste asko-ere, eta badatoz Meza nagusietara; zergatik etzera zu-ere etorriko? Zergatik txanda ez dezu egingo etxeoakin? Jakiña dago zergatik. Zuk oraindaño ez dezu bururik ausi animaren onari dagozkan gauzetan, eta orain aldapa gogor bat arkitzen dezu Meza

nagusietara etortzeko. Baña gauza bearra da, edo betiko doatsu, edo betiko doakabe izatea: gauza bearra da doatsu izate zuk animaren egitekoari gogotik ekitea, eta arretarekin jarraitzea: *Porro unum est necessarium*. Animaren egitekoaren aldean zer dira gañerako guziak? Zeretu ezazu zure neke oriekin mundu guzia; bildu ezazu urre eta zillar guzia: egin zaite ardi, bei, lur, baso, eta beraze guzien jabe? Zer probetxu dezu gauz oriekin, baldin guzia utzi bear badezu denbora gutxiren barrunbean? Zer probetxu, baldin zure anima galtzen badezu? esaten dizu Jesu-Kristok: *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur*. Utzi bada, Kristaua, aitzakia oek, eta oitu zaite Meza nagusietara txandaka bada-ere.

Meza nagusietara etortzea guziok egin dezakegun gauza da, dio beste batzuek, eta ez datozenak alferkeriaz egiten due au, geienak beintzat; arratsaldeko dotrinara nola etorri al gaitzke? Elkar aditu dezagun poliki, Kristaua. Dotrina Meza nagusietan nik egiten dedana, da Kristau azientzat, eta Asteteren liburutxoak dakarrena ikasi duenentzat, edo artan ari diranentzat. Ezta neke au asko dotrina aurrai, ta len batere eztakienai erakusteko. Oentzat beste modurik

bear da. Autu bear da ordu egoki bat, edo arratsaldean, edo goiz mezan, edo beste denboraren batean, edo galdetuaz, eta esanaz urte bakoitzean Abendutik Abendura igaro ditezke dotrinaren lau Parteak. Esan gidazu orain, Kristaua: badakizkitzu, edo ez dotrinaren parte oek? Ezpadakizkitzu, ikasi bear dituzu, edo Elizara zatozela, edo liburuaz edo bestez baliatzen zerala. Badakizkitzu dotrinaren lau Parteak, eta neke andia badezu arratsaldean etortzeko, atoz kontuz Meza nagusietara, eta jende gazteak bidal itzatzu beste dotrinara, egin dedilla au naiz arratsaldean, naiz goizean. Egizu alegiña etxean sarritan esan erazteko dotrina gazteai. Baña baldin oraiñ-ere zere aitzakiakin dotrinetatik igesi ibilli nai badezu, entzun itzatzu emendik etorri oi diran, eta erraz etorri ditezkean kalteetatik zenbait.

Lenengo kaltea da gu Zerurako bidean giatu bear gaituan fedearen berri ongi ikasi gabe asko, eta asko bizitzea, eta iltzea. Eta gure bekatuen penan gertatuko baliz auzoan gertatu dan naspillaren antzeko bat, zer izango da dotrina ikasteko nagi bizi diran oekin? Zer? An zenbait lekutan gertatu dana bera. Ekusi dira an erri osoak, Jainko egiazkoa utzirik, gizon gaiztoerrebes baten idoloa adoratzen, edo aren antz, eta

imajiñaren aurrean belauniko, eta inzensu erretzen. Ala gertatu zan Brest deritzan erri andian, gizon bat bakarra ez, beste bildu ziran guziak jarri ziran Mra-bouren imajiñaren aurrean belauniko. Nondik, eta onenbesteraño Katolikoak itsutu ote dira? Zeren gure fede Santaren ezaguera azaleko bat besterik etzuen; eta zeren beren Arzaiak erakusten zuen dotrina ongi aditzkeo arretarik ipiñi nai etzuen. Au bera gertatuko lizake emen-ere dotrina ikasteko gogorik ez duen geienakin, edozeñ gaiztakerietara kuturtuko litukee agintari, eta buru gaiztoak.

Bigarren kaltea da, Jesu-Kristoren lege Santak, eta bakoitzaren estaduak, edo karguak dakartzian egin-bide, edo obligazioak ez jakitea, eta ez jakiñ onetan bizitzea, eta iltzea asko. Zer esango degu onelako Kristau gaixoaz? Zer, ezpada, begiak estaliak dauzkeela, jakitzen dirala betiko su, eta garren artera? Egizue kontu, sartzen dala bat San Franziskoren ordenan; ez duala arretarik batere ipintzen jakiteko, zer agintzen duan Santuaren erregelak; eta zabarkeria onetan bizi dala, eta iltzen dala. Zer esango genduke onelako Erlijiosoaz? Esango genduke, etzuala izan Erlijiosoaren jantzia, eta izena baizik, eta eraman zuela etsaiak, zeren artu zuan erregelako egin-bideak

ezagutzeko konturik egiñ etzuan. Ongi: eta guk Kristautu giñenean ez genduan geren gaiñ artu Jesu-Kristoren lege Santa? Ez genduan lege au osotoro gordetzkeo itza eman gizonen, eta Aingeruen aurrean? Eta lege Santa au ikasteko alegiñarik egin gabe bizi, eta iltzen diran Kristauaz, zer esango degu Erlijioso gaizto artzaz esan deguna bera baizik?

Irugarren kaltea da, Jesu-Kristok utzi zituan, graziaren iturri ugarietatik, edo Sakramentuetatik fruturik ez ateratzea, eta frutuaren lekuan gure animen puzoi biurtzea. Nola ori? esango dezu. Zeren dotrina ez dakiana ezin ongi prestatu ditekean Sakramentuak artzeko, batezere konfesioko, ta Komuniokoa. Zenbat onelako Kristau arkituko dira? Zenbat examina nola egin eztakienak? Zenbat bekatuen damu egiazko, eta ontzeko asmo osoa nola artu bear dan ikasi ez duenak? Zenbat, bekatu guziak esan ezkerro barkatuak daudela, uste duenak? Zenbat... baña geiegi luzatuko nintzake emen ongi letorkean guzia esan bear banu.

Ekusten dezu, Kristaua, zer alegiñak egin dituan, eta egiten ari dan Elzi Ama Santa guri Jesu-Kristoren lege Santa, eta Zeruko dotrina erakusteko. Ekusten dezu, zer kalteak datozen gure zabarkeria, ta aitzakietatik. Entzun ditzagun bada emendik aurrera dotri-

nak, eta Jainkoaren itza kontuz, eta, Santiagok dion bezala, biotz manso, eta umill batekin. *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras.* Onela ikasiko degu Zerurako bide ederra, bizi gaitezke Kristauak bezala, eta iritsi dezakegu betiko bizitza doatsua.

BERROGEI, TA LAUGARREN ERAKUSALDIA

Adierazten da lenbizia:

*Zeiñ marka gaiztoa dan dotrinak,
eta Jainkaoren itza ez entzutea, eta nor diran
marka onekin dabiltzanak.*

*Bigarrena: zeñ marka, edo siñale ona dan dotriñak,
eta Jainkoaren itza ongi entzutea, eta nor diran
marka onekin arkitzen diranak. Zer frutu emendik
atera bear degun.*

*In mansuetudine suscipite verbum insitum,
quod potest salvare animas vestras. Jacobi 1.*

Enzun ezazue biotz umill, eta manso batekin, zuen animak salbatu ditezkean, Jainkoaren Itza, esaten digu Santiago Apostoluak. Gure biotzak sasoi eder onetan ipiñi naiez, lenengo bi Erakusaldietan itzegin dizuet zerbait dotriñak, eta Jainkoaren itza entzutearen gañean. Aditu zinduen azkenekoan Eliz Ama Santaren alegiñak dotrina guri ikas-erazteko. Aditu zinduen gañera askoren aitzakiak dotrinetara

ez etortzeko, eta emendik datozen kalteak. Gaur aditza eman nai dizuet, lenbizia, zein marka gaiztoa dan dotrinak, eta Jainkoaren itza ez entzutea, eta nor diran marka onekin dabiltzanak. Bigarrena, zein marka, edo siñale ona dan dotriñak, eta Jainkoaren itza ongi entzutea, eta nor diran marka onekin arkitzen diranak. Bukaeran ukituko det emendik atera bear dan frutua. Entzun nazazue kontuz.

* * *

Zer marka ote da dotrinak, eta Jainkoaren itza ez entzutea? Marka guziz gaiztoa, et izugarria, au da alabaña infernuko unaiak bere mendean, eta beretzat daukan taldearen marka. Ala esana utzi zigun Jesu-Kristok Ebanjelioan. Argatik zuek, esan zien bein Juduai; argatik zuek entzuten ez dituzue Jainkoaren itzak, zeren Jainkoarenak etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis*. Jesu-Kristoren itz oetatik argiro ezagutzen da, dotrinak, eta Jainkoaren itza entzun litekeala, ez entzutea dala infernuko unaiak beretzat bildu duan taldearen marka, edo siñalea.

Nor ote dira marka izugarri onekin dabiltzanak? S. Gregoriok iru taldetan ipintzen ditu, eta talde bakoitzak badu dagokan marka. Lenengoa da dotrinak, eta Jainkoaren itza entzun litzakeala entzuten ez dituenen taldea. *Non audientium*. Eta, zuek ongi dakizuen bezala, andia izan oi da erri bakoitzean talde au. Ez dira noaski izango emen ere lautatik bat dotrinetara, eta Jainkoaren itza entzutera etortzen diranak, eta oek geienean batzuek berak; gañerakoak, gaixo, edo eri arkitzen diranak ez, beste guziak iges egin oi due dotrinetatik, eta Jaunaren itzagandik, eta bizi dira etsai galgarrien markarekin, eta aren lenengo taldean, S. Gregorik dionez: *Non audientium*. Ez da au gauz izugarria, nere Kristauak? Nola gertatzen ote da au Kristauen errietan? Entzun ezazue, nola.

Batzuek iges egiten due dotrinetatik, eta Jainkoaren itzagandik, zeren biotzik ez duen bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitoko, eta Jainkoaren itzak onetara deituko dien. Gertatzen da gurekin S. Agustiñi gaizki bizitu zan denboran gertatzen zitzaiena. Ezagutzen zuan Santuak, zein gauz ederra zan birtutea; baña etzuan biotzik bekatuaren atsegiñ lizunak betiko utzitzeko, eta beldur zan Jaunak bereganatu, edo atxitu zezan, eta ekusi zezan bere burua ain-

beste maite zituan atsegin, eta kontentu gabe. Ala esaten dio berak Jaungoikoari: *Timebam, ne caperes me*. Onen antzeko gauza bat gertatzen da bada asko bekatarirekin, batezere oitura gaiztoetan ondatuak bizi diranean. Ezagutzen du litxarrerian bizi danak, ezagutzen du adiskidetasun gaiztoetan nastua dagoanak, ezagutzen du gorrotoan dagoanak, gauz ona, eta ederra dala Jaungoikoa serbitzea, eta beraren lege santa gordetzea, baña ez du biotzik oraindik orretarako bear dana egiteko; eta Jaunaren itza entzutera badator, beldur da, estutu, ta beartu dezan itz onek, utzi nai ez litukean, oitura txarrak utzitzera.

Beste batzuek igesi dabilta dotrina, eta Jaunaren itz santua enzutetik, zeren oituak dauden, goizeko Mezaren bat entzun da, jai egunak nola nai igarotzera, edo etxean, edo edanean, ta lasaikerietan, edo basoak, ardiak, eta beiak ekusten, ta idoloak bezala adoratzen. Onelakoak dira ontzak bezala. Ontzak iges egiten du argiagandik, eta ozta agertzen da eguantzaren argitasuna, ezkututzen da tellatuetako zulotan, edo aritz, edo gaztaña-zarren baten barrunbean, eta ez da andik irtengo arratseraño. Ala bizi dira asko Kristau beren denbora guzian: iges egiten due ariako argiagandik, eta iltzen dira Zerurako bidearen

berririk ongi ikasi gabe. Zeiñ gauza ikaragarria era onetan Jaungoiko aserratuaren aurrean agertzea!

Beste batzuek ez dira etortzen dotrinak, eta Jainkoaren itza entzutera araso, eta egitekoen aitzakiarekin. Baña aitzakia onek ez du batere edertzen Jaunaren begietan beraren itz santua entzuteko zabarkeria, eta gogoaren flata. Inoiz, edo berriz gerta ditekete egitekoak egiaz eragozteia Elizara etortzea Jaunaren itza entzuteko denboran, baña sarritan, eta oituraz? Au ezin datekean gauza da. Zeer? Ez degu denbora arkitzen nai degun gauza guzirako? Ez degu denbora arkitzen feriara, ostatura, basora joateko? Nola ez degu arkitzen dotrinak, eta Jainkoaren itza entzuteko? Gañera, zertarako egin zinduan, Kristaua, zure Jaunak? Etzinduan egiñ bera ezagutzeko, amatzeko, ta serbitzeko, eta gero betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko? Beraz zure egitekorik andiena, ta bearrena, edo obeto esateko bakarra da zure Jaungoikoa ezagutzea, amatzea, ta serbitzea; gañerako egiteko guziak onen pare ipintzen badituzu, ez dira aurren jolasak besterik, S. Agustiñek esan zuan bezala. Bildu itzatzu, nai badezu, lurrak bere sabelean ezkutaturik dauzkan urre, zillar, eta ondasun guziak; egin zaite lurraren gañean arkitzen diran

ardien, beien, basoen, ta berazeen jabe: zer probetxu aterako dezu ondasun oetatik guzietatik galtzen badezu zure anima? Esaten dizu Jesu-Kristok: *Quid prodest homini si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur.* Ona nor diran etsaiak bere markarekin lenengo taldean darabiltzanak. *Non audientium.* Jesu-Kristok berak aditzera ematen digu oekin egingo duana, ezpadira zentzatzzen. Guraso prestu batek prestatu zuan afari andibat, dio Jesu-Kristok: deitu zituan asko. Gauza guziak prest arkitzen ziran denboran, gaztigatu zien, zijoazela afaritara; baña etzitzaikan joan, ematen zuala bakoitzak bere aitzakia. Batak esan zuan, erosi det baserri bat, eta urase ekustera joan bear det. Besteak esan zuan, bost idi-ustarri erosi ditut, eta aek progatzera noa. Besteak esan zuan, ezkondu naiz, eta ezin noake. Aditurik aitzakia oek, esan zion guraso prestu ark morroiari: oa kale, ta plaza orietara, eta ekarritzak arkitzen dituan beartsu, eri, urgun, ta itsu guziak. Ala egin zuan morroiak. Maia bete zanean esan zuan nagusiak: Nik esaten dizuet: *Dico autem vobis, nik deitu ta etorri ez diran orietatik batek-ere ez duala progatuko nere afaria. Nemo virorum illorum, qui vocati sunt, gustabit caenam meam.* Itz

oetan aditzera ematen digu, ez degula progatuko Zeruko atsegin-kontentuen afari andia, aitzakiakin iges egiten badegu dotrina, eta Jainkoaren itzagan-dik.

Etsaiak beretzat markatua darabilen, bigarren taldea da, S. Gregoriok dionez, dotrinak, eta Jainkoaren itza entzun arren, Jaunak adierazten dienari biotzean lekuri ematen ez dioenena. *Non acceptantium*. Nere Kristauak, ez degu ezer egiten dotrinak, eta Jainkoaren itzak entzutearekin, Jainkoak adirazten diguna egiten ezpadegu; ez dira justuak Jaunaren begietan beraren lege santa nola nai aditzen duenak, dio S. Paulok: *Non enim auditores legis justi sunt apud Deum*, baizik justu ta onak izango dira lege onek erakusten duana egiten duenak: *Sed factore legis justificabuntur*. Eta Jesu-Kristok berak esaten digu: Zori onekoak Jaunaren itza entzuten duenak: *Beati, qui audiunt verbum Dei, et cutodiunt illud*. Emendik, Jaunaren itz santua aditu ta, biotzean leku ematen ez dioenak, ez due Jesu-Kristoren artaldeko marka, baizik etsaiaren bigarren taldekoa: *Non acceptantium*: ta talde au ere ez da noaski txikia, ongi begiratzen badegu, nola entzuten duen askok

Jaunaren itza. Nai dezu, Kristaua, aditu au? Zaude bada kontuz, eta adiezazu esatera noana.

Batzuek entzuten ditue dotrinak, eta Jainkaoren itzak, eta entzuten ditue gustoz azaletik dijoazenean, eta Birjiña txit Santaren bitartekotasun, eta urriki-mentuaren, eta betiko bizitza doatsuaren gañean itzegiten danean. Nork alabaña gauz oek gustoz adituko ez ditu? Baña dotrinak argiro begien aurrean ipintzen baditue gertatu oi diran, edo erraz gerta ditezkean okerrak, orduan ez ditue gustoz aditzen, gai artan erren egiten duenak, eta onela aditu lekuan, beren gogoia, ta biotza itzultzen ditue beste aldetara, aurpegiko mantxak, eta zimurtuak agertzen zituan ispilluagandik emakume batek begiak kendu oi zituan bezala. Onelako Kristauak dira, Isaias Profetak dionez, Jaunaren lege ederra dan bezalakoia aditu nai ez duenak; *Filii nolentes audire legem Dei*, eta berengan esaten duenak: ez guri orrelako gauza gogorrik esan, baizik gauza beratxoak, eta gustokoak: *Loqui-mini nobis placentia*. Beste batzuek gustoz entzuten ditue dotrinarik zorrotzenak-ere giarrean ukituak izan ditezen artean. Itzegin bedi kutiziaren kontra, deadar egin bedi tratu gaiztoen, eta lagun urkoa odol ustutzeko asmatu diran bideen kontra; nolako gustoare-

kin ez dago edalea gauz oek aditzen? *Emen ote dira urlia, eta sandia*, dio beregan. Itzegin bedi edanean igarotzeko oitura lotsagarriaren kontra; agertu bitez, erriai, etxeai, umeai, eta animai emendik datozkien kalteak, esan bedi oitura au sartzen bada, dala minantze bat ezin sendatu ditekeana, edo txit nekez sendatzen dana. Gauz oek entzuten ditu kutiziaren suarekin erkitua dagoanak poz andiarekin, eta duan damua da, sandia, ta berendia Elizan ez arkitzea. Au bera gertatzen da beste bekatu askoren gañean itz egiten danean. Gustoz entzuten ditue beren txanda datorkien artean; baña au datorrenean, eta Jaunaren itzak giarra ukitzen dienean, sumintzen dira, aienatzen due biotzetik Jaunaren itza, eta bear bada ase-ratzen zate Predikariaren kontra. Egiten due onelakoak zezenak plazan suzko banderillakin beiñ baño geiagotan egiñ izan duana. Egozten diozkee susko banderillak, eta bere miñarekin botatzen ditu askotan beregandik lepardatzari dardar eragiñaz. Au bera egiten due askok Jaunaren itzarekin, giarreraño igarotzen bazate; botatzen due berengandik suzko banderilla baliz bezala. Au askotan gertatzen da baña batezere esaten danean, biurtu bear dala erriari, edo lagun urkoari sisatu zaiona; utzi bear dala gorrotoa,

itzegin bear dala etsaiarekin, Jaunak agintzen duan denboretan, modu onean, utzi bear dirala betiko bekaturako bide, eta perillak, onelako etxetan sartzea, urliarekin, edo sandiarekin itzegitea. Beste batzuek ain dira beren iritzirai itsatsiak, non beren uste okerra argiro agertu arren, ezin sinistu duen, eta arkituko dira noaski zenbait ain zakarrak, ain moldakabeak, eta jakiñezak, non fede gauzak-ere sinistuko ez dituen, bere uste, eta usanzaren baten kontra badira. *Gaur aditu deguna egia bada, etzeagok guretzat Zerurik*, dio batek, eta erantzuten dio bere antzeko batek: *Ah! txoroa; ara igo ezkerro zerbait esan bear die*. Zer esango degu onelakoaz? Zer, egunaren erdian estropozoka dabiltzan itsuak dirala baizik? Isaiasek zion bezala: *Impegimus meridie quasi in tenebris*. Au gertatu oi da ez gutxitan batezere amarreren, gorrotoaren, eta besterena biurtu bearraren gañean itz egiten danean. Enzun ezazu, Kristaua, Españako erri batean gertatu zan Jaunaren kastigu izugarri bat. Arrats batean kaleetan predikatzen zijoan Misionari bat, eta etxe baten parean igarotzean otsegin zuan: *Ah! emakume doakabea! Ai! beldur naiz, ogei ta lau orduren barrunbean auts biur zaitezzen*. Balkoian zegoan neskatxa bat guraso prestuen

umea, baña gazte batekiñ adiskidetasun gaiztoan bizi zana. Predikariaren itz oek igaro zioen biotza batetik bestera; sartu zan barruna, ta asi zan damu andi batekin negar egiten. Andik laster an zan beste urlia, eta jakiñik gertatu zana, asi zan Predikariaren kontra erausian, eta atzenean bekaturako bideak ematen. Ekusirik ezin kuturtu zuala neskatxa, atera zuan puñal bat, onez ezpazan gaitzez nai zuana eragiteko. Orduan esan zion neskatxak, zoaz gelara, eta itxozu an. Geratu zan Birjiña txit Santaren imajiña baten aurrean; asi zan negarrez eskatzen gorde zezala arren perill artatik. Onela igaro zuan gaua; eta nola gazte aren deirik izan etzuan, sartu zan gelan, eta gauz arrigarria! arkitu zuan illa, eta auts biurtu zan guzia. Orra zer dan Jainkoaren itz Santua, aditu ta, biotzetik aienatzea, ta orra nola txikia ez dan etsaiak bere markarekin darabilen taldea: *Non acceptantium*.

Etsaiak beretzat markatua daukan irugarren taldea dira S. Gregoriok dionez, Jaunaren itza entzunik Zerurako bidea artu duenak, baña atzera bekatura, eta etsaiaren aldera biurtu diranak. *Recibivantium*. Marka au da guzien artean izugarriena, zeren berekin daraman eskergabekeria guziz itsusi bat. Argatik S.

Pedrok dio, onelakoak dirala gorakoak bota, eta atze-
ra jaten dituan zakurra bezala: *Canis reversus ad
suum vomitum*, edo lokazdi batean irabiatua dagoan
zerria bezala: *Et sus lota in volubrato luti*. Etsaiak
marka onekin darabilen taldea da guziz ugaria; gutxi
dira alabaña Jaunaren itzak, Zerurako bidean iñoiz,
edo berriz ipiñi ez dituanak garizuma edo Misioren
batean bederik, ta oetatik geienak nekatzen, eta
asperten dira Jaungoikoa serbitzeaz, eta igarotzen
dira berriro bekatuaren mendera, eta etsaiaren talde-
ra. Kontentu izango nintzake, dio Aita Kalataiudek,
Misioetan Jaunaren grazian jarri diranetatik amarreta-
tik bik iraungo balue bizitza onean. Baña gai onetan
ez det nai zuek zerok beste testigurik. Zuek ezagutu
dituzue biraugilleak, ta juramentuak nola nai egiteko
oitura duenak. Ezagutu dituzue jai egunetan bea-
rrean aritzeko, eta dotrinetatik iges egiteko oitura
duenak. Ezagutu dituzue edanean igarotzeko griña
lotsagarria duenak. Ezagutu dituzue itz loi-desonesto-
ak esateko, eta ipui zikiñak kontatzeko erraztasuna
duenak. Ezagutu dituzue errikotik, eta auzoetatik
litxarrerian gau, ta egun ari diranak. Ezagutu dituzue
lagun urkoaren izen onari, edo famari ozka, ta aginka
ari zaizkanak. Ezagutu dituzue gurasoak, errietako

buru, eta kargudunak zabarrak bere egin-bideetan. Oek guziak, edo geienak noizbait esnatu zituan Jaunaren itzak garizuma, edo misioren batean, eta sartu ziran konfesio onaren bidez Jesu-Kristoren artaldean. Esan gidazue orain oetatik zenbat ezagutu dituzue bekatuaren berrizkaturan erori gabe iraun duenak? Ez dezazuela esan, nik gogor itzegin dizuedala; baizik zerengan deritzazuena, eta aitortuko dezue, gutxi dirala Jaunaren grazian dirauenak, eta guziz ugaria dala etsaiaren irugarren taldea. Ekusi degu, nere Kristauak, zein marka gaiztoa dan dotrinak, eta Jaunaren itza ez entzutea, eta nor diran marka onekin dabiltzanak. Ukitu dezagun orain, zein marka, edo siñale ona dan dotrinak, eta Jainkoaren itza ongi enzutea, eta nor diran marka onekin arkitzen diranak.

* * *

Dotrinak, eta Jaunaren itz Santua ongi entzutea da Jainkoaren ume autuen, eta Jesu-Kristoren artaldearen marka; eta ezta asko au jakitea, zein ederra dan marka au, ezagutzeko? Da benik bein Jainkoaren ume autuen marka, ala dio alabaña egia bera dan Jesus maitagarriak: Jainkoarena danak entzuten ditu

Jainkoaren itzak, esaten digu: *Qui ex Deo est, verba Dei audit*. Da gañera Jesu-Kristoren artaldearen marka, eta berak au ere esana utzi zuan. Ni naiz, dio, Arzai ona: *Ego sum Pastor bonus*. Nik ezagutzen ditut nere ardiak, eta oek ere ezagutzen naue ni. *Cognoscunt me*. Baditut beste batzuek oraindik artaldean arkitzen ez diranak; ekarri bear ditut aek ere, eta entzungo due nere deia, eta guziak egingo due artalde bat, eta izango due Arzai bat: *Vocem meam audient, et fiet unum ovile, et unus Pastor*. Ona zeñ marka ona dan dotrinak, eta Jaunaren itza ongi entzutea? Baña zeñ ote dira marka onekin arkitzen diranak? Oek dira Jaunaren itzaren gose, eta egarria duenak, al duenean entzuten duenak, eta Jaunak adirazten diena kontuz egiten duenak. Irauten badezue nere itzean, edo itz onek erakusten duana egitean, zuek egiaz izango zerate nere ikasleak, dio Jesu-Kristok. *Si vos manseritis in sermone meo, vere discipuli mei eritis*. Zori onekoak; dio berriz Jainkoaren itza entzuten, eta gordetzen duenak: *Beati, qui audiunt verbum Dei, et custodiunt illud*.

Zer frutu emendik atera bear degu? Lenengo frutua sortzea biotzean dotrinak, eta Jaunaren itza enzuteko nai andi bat, eta al dezunean etortzea. Jateko

gogorik batere gabe arkitzen dana, ez dago ongi bere osasunan; eta era berean ez dago ongi bere animan Jaunaren itz Santauren nai, edo gogorik ez duana. Bigarren frutua biotza prest ipintzea Jaunak aditzera eman nai diguna ongi entzuteko. Itzegizu, Jauna, ta emen dago zure serbitzaria, zuk diozuna entzuteko, ta egiteko, esaten zion Samuel Profetak Jaunari. *Loquere Domine, quia audit servus tuus.* Au bera esan bear diogu Jaunari, beraren itz Santua entzuteko jartzen geranean, eta ez degu begiratu bear nor dan Predikaria, baizik noren izenean datorren. Irugarren frutua, Jaunak aditzera ematen diguna gogoan ongi erabiltzea, eta egiteko arreta artzea. Au izango da Jaunaren itza entzuea Santiagok dion bezala, edo biotz mansoarekin: *In mansuetudine.* Au izango da etsaiaren marka gaiztoa kendurik, Jesu-Kristoren artaldeko marka ederra artzea: eta onekin irauten badegu, iritsiko degu, guretzat ainbeste nekerekin gure Arzai onak irabazi zuan, Zeruko gloria. Amen.

BERROGEI TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da lenbizia:

Zer aditzen dan Jaunaren Itz Santuaren izenez, eta nolako mesedea dan, Jaunak bere Elizari itz au utzi dion, eran utzitzea.

Bigarrena: Nolako aserrea agertu digun Jaunak beraren itz Santua entzuten ez duenen, eta gaizki entzuten duenen kontra.

Irugarrena: zer frutu emendik atera bear degun.

*In mansuetudine suscipite verbum insitum,
quod potest salvare animas vestras. Jacobi 1.*

Enzun ezazue biotz umill, eta manso batekin, zuen animak salbatu ditzakean Jaunaren itza, esaten digu Santiago Apostoluak. Gai onen gañean itzegin dizuet iru Erakusalditan, eta azkenekoan aditu zenduen, zeñ marka gaiztoa dan dotrinak, eta Jainkoaren itza ez entzutea, eta nor diran marka onekin dabiltzanak. Aditu zenduen gañera, zeñ marka, edo siñale ona dan dotrinak, eta Jainkoaren itza ongi

entzutea, eta nor diran marka onekin arkitzen diranak. Baña zeren batzuek ez dakien oraindik zer aditzen dan Jainkoaren itzaren izenez, gaur aditzera eman nai dizuet, lenbizia: zer aditzen dan itz Santu onen izenez, eta nolako mesedea dan, Jaunak bere itz au Eliz Ama Santari utzi dion eran utzitzea. Bigarrena, nolako aserrea agertu digun Jaunak beraren itz Santua entzuten ez duenen, eta gaizki entzuten duenen kontra. Irugarrena, zer frutu emendik atera bear degun. Asi gaitezen bertatik.

* * *

Jaungoikoaren itz andia da Jainkoaren Semea bera, edo Trinidadeko bigarren Persona, Aitaren antz ederra, Aitaren adimentutik betikotasun guzian jaiotzen dana, eta ez degu oraiñ itzegiten onen gañean. Jaungoikoaren itzaren izenez aditzen da bada emen Jaunak moldatzen duan ots, eta dei bat guri adierazteko Zerurako bidean jakiñ, eta egiñ bear ditugun gauzak. Egiñ zuan Jaunak gizona bera ezagutzeko, amatzeko, ta serbitzeko, eta gero berarekin batean Zeruan beti beti doatsu izateko. Eziñ egiñ zezakean, eta eziñ egiñ dezake gizonak betiko bizitza doatsua

iristkeo egiñ bear dana, ezpadaki nork, eta zertako egiñ zuan. Zeiñ on, eta maitagarria dan Egille andi au? Nola iritsi ditzakean bere lana ongi egiteko bear diran gauza guziak, zer eta nola egiñ bear duan Jauna amatzeko, ta serbitzkeo, nola aldegin bear duan bekatutik, eta bekatuaren bideetatik? eta au guzia adierazten dio Jaunak gizonari bere itz Santuaren bidez, eta erakustez gañera ukitzen du, eta mugitzen ongi entzuten duanaren biotza arretarekin ekiteko bere animaren egiteko andiari.

Bazekusan Jaunak, nori nai ematen bazitzaion beraren itz Santau adi-erazteko eskua, izango zirala Erakusle, ta Profeta gezurtiak, gogoak ematen ziena erausiko zuenak, Jaunak esana bezala, eta beragatik munduaren asieratik Jesu-Kristo etorri zan bitartean, eta Jesu-Kristo etorri ezkerro artu izan ditu neurri ederrak engañatuak izan ez ditezen bera serbitu nai duen animak. Adani, eta beste Patriarka batzuei berak itzegin zien. Lege zarrean adierazi oi zuan bear zana Profeten autik. Lege berrian Jesu-Kristok berak itzegin zien Apostoluai, eta Judatarrai, eta erakutsi zuan Zerurako bidea; eta bere Elizari, au da Apostolu Santuai, oen ondorengo Obispo Jaunai, eta oek bidaltzen, edo egiteko onetarako ipintzen dituenai eman

zien bere itz Santua adierazteko eskua. Eta norbaitek agertzen, edo aditzera ematen ezpadu itz Santu au Eliz Ama Santak bere buruagandik, edo Jesu-Kristo gandik artu duan eran, kentzen da onelako Predikari dongea lan onetatik. Onela utzi dio Jaunak bere itz Santua Eliz Ama Santari. Emendik Eliz Ama Santak ipintzen dituan Predikariak dira Jaunaren itz Santua gugana igarotzeko bideak, eta Jaunaren itza da bide oetatik gure adimentura, eta biotzera igarotzen dana. Predikariaren otsa ez da belarrietaraño baizik iristen; baña Jaunaren itza, ongi prestatua dagoanean bat, barrena dijoa.

Ezagutzeko orain *Nolako mesedea dan* era onetan Jaunak bere itz santua Eliz Santari utzitzea, begira, Kristaua, *nor dan* guri itzegiteko neurri onen ederrak artu dituana? Nondik datorkigun onenbeste onra guri, eta ez beste askori? Zer ondasunak ekarri dituan, eta egun oro dakartzian Jaunaren itzak? Nor ote da guri itzegiteko neurri aiñ ederrak artu dituana? Esan degu, Jauna bera dala neurri oen artzallea; baña ongi, ta betaro gogoan erabilli ote degu, Nor dan guri itzegiteko ainbeste neurri artu dituana? Jaun au da iñoren, eta ezeren bearrik ez duana. Jaun au da bera beregan ezin geiagoraño doatsua, eta doatsuna bera.

Jaun au da gauza guzieren Egillea, Jabea, ta guzieren kontua daukana. Jaun au da Errege, ta Agintari guzieren Erregea. Ta Jaun andi onek artu izan ditu ainbeste neurri gurekin itzegiteko? Izan bedi Predikaria S. Pedro, Jaun onek itzegiten dio ongi entzuten duanari; izan bedi Judas, Jaun onek itzegiten du ark bere Maisuaren itz santua adirazten duanean. Izan bedi S. Juan Krisostomo, Jaun onek itzegiten du eta au bera gertatzen da Elizako beste edozein Predikarik itzegiten duanean ere. Etzerate zuek itzegiten dezuena, baizik nere Aitaren Espiritua da zuetan itzegiten duana, esan zien Jesu-Kristok bere Apostolui: *Non estis vos, qui loquimini, sed Spiritus Patris mei, qui loquitur in vobis.*

Nondik guri onenbeste onra? Jaunaren itzaren egia partitzen da Eliz Ama Santaren barrutietan bizi diranen artean bakarrik; gañerako guziak, itz santu onen lekuan, aditzen ditue etsai galgarriak erakutsi, eta zabaldu dituan gauzak. Nondik bada onra onen andia? Nondik, Jaunaren ontasun, eta urrikimentu andiagandik baizik? Au ongi ezagutu bagendu, ez giñan Jaunaren itza entzuteko izan geran bezain zabarrak izango.

Zer ondasunak ez ditu ekarri Jaunaren itz Santuak? Oroi zaite nolakoa arkitzen zan mundua Jesu-Kristok bere lege santa adierazteko bidaldu zituanean Apostoluak munduaren lau bazterretara. Juduak ez, bete jende guziak etzuen ezagutzen Jainko egiazkoa lenagoko denboretan-ere, Dabidek zionez. Ezagutua da Judean Jaungoikoa, zion. *Notus in Judaea Deus*. Gañerako bazter guzietan adoratzen ziran idoloak, edo arriz, zurez, eta beste gairen batekin egindako iduri, edo figurak, eta oetan Demonioa. Erreñu bakoitzean bazituen nortaki zenbat Jainko farragarri. Eta nolako bizitza izan al zitekean Jainko egiazkoa ezagutzen etzan lekuetan arkitzen ziranean bizitza? Naita ez guziz loi, eta itsusia, geienetan beintzat. Argatik zion Dabidek aldegin due guziak Jaunagandik, galdu dira Jaunarentzat: *Omnes declinaverunt, simul inutilis facti sunt*; ezta gauz onik batere egiten duanik, bear bezala beintzat. *Non est qui faciat bonum, non est usque ad unum*. Eta Judatarrak berak nola bizi ote ziran? Oek ere gaizki, zenbait atera ezkerro; bada etzuen ezagutu nai izan beren Mesias, edo Salbatzailea, eta ezagutu ordean gurutzean illerazo zuen. Ona nolakoa zegoan mundua Jesu-Kristok bere legea adieraztera bidaldu zituanean Apostoluak. Mundu guzira

Joan da aditzera eman giezue jende-mota guziaz nere legea, esan zien Jesu-Kristok. *Euntes in mundum universum praedicate Evangelium omni creature*. Gauza miragarria! Arrantzale batzuek ziran Apostoluak, eta alaere urte gutxiren barrunbean desegin ziran idoloak, ezagutzen ziran erreñuetan beintzat, asi ziran jende guziaz Jainko egiazkoa adoratzeko, eta Jesu-Kristoren gurutzea egiñ zan siñale guziaz onragarri: S. Pedrok berak Judatarrai predikatu zien lenengo egunetan bertan iru millari arrerazo zien Jesu-Kristoren legea. Ekusten dezu, Kristaua, zer ondasunak ekarri dituan Jaunaren itz Santuak? Itz onek Asia, Afrika, ta Europa ipiñi zuan Jesu-Kristoren legean. Itz onek Italia, Alemania, Ingalaterra, Franzia, ta España fedearen argiz bete zituan. Itz onek Amerikako bazterretan aienatu zuan idolatriaren gau illuna. Eta denbora oetan ere zer ondasunak ez dakartzi itz Santu onek bear bezala entzuten dan errietan? Itz onek argitzen ditu adimentuak, desegiten ditu bekatuaren gelak, eta berotzen ditu Kristauak, Zerurako bidean gogoz ibiltzeko. Argatik deitzen dio Eskriturak: *Sua bezalako: Quasi ignis*, eta Jaunaren ots indartsua: *Vox Domini in virtute*. Itz onek ateratzen ditu bekatuaren bideetatik, beste gisatan zentzatu ezin diran asko bekatari, gari-

zumako denboran, eta Misioetan iñoiz ekusten dan bezala. Itz santu onek askotan desegiten, biguintzen, eta gozaten ditu biotzik gozakaitzenak, eta arri biurtuak zirudienak. Argatik Jeremiasek ipintzen du arraiak puskatzen dituan malluskaren pare: *Sicut malleus conterens petras*. Ekusten dezu, Kristaua, nolako mesedea dan Jaunak bere itz santua Eliz Ama Santari utzi dion eran utzitzea? Ta ala ere itz au entzuteko bidetik iges egin dezu ainbeste bider? edo egon zera gogo gaiztoarekin, edo lo? Eskergabekeriaren itsusia! Au ezagutu dezazun, goazen ekustera nolako aserrea agertu duan Jaunak beraren itz santua entzuten ez duenen, eta gaizki entzuten duenen kontra.

* * *

Zeñ-ere andia, eta baztergabea dan Jaunaren ontasan, eta miserikordia, ez da txikiagoa beraren zuzentasun, edo Justizia, eta aserratzen da askotan, ekusirik gure eskergabekeriak, eta ez gutxiena oek beraren itz Santuaren kontra diranean, era askora agertu digun bezala. Nolako aserrea agertu ote du bada Jaunak beraren itz Santua entzuten ez duenen,

eta gaizki entzuten duenen kontra? Au aisa ezagutu-ko degu, begiratzen badegu, zer esaten duan Eskritura Santak, eta zein kastingu izugarriak egin dituan Jaunak eskergabekeria onegatik.

Baldin begiratzen badegu, zer dion gai onetan Eskritura Santak, arkituko degu beñik bein Isaias Profetagan mastiaren parabola. Ipiñi zuan Jaunak masti bat; itxi zuan, eta erdian egin zuan torre bat bere tolareakin. Egon zan mats gozoen ustean, baña oen lekuan eman zituan basa-matsak, edo gaziak. *Expectavit, ut faceret uvas, et fecit labruscas*. Ekusirik au esan zuan Jaunak: Nik masti eskergabe oni kenduko diot esia, sartu dedin nai duan edozein, eta artu dezan gogoak ematen diona. Botako ditut egin niozkan pareteak, eta erabilliko due oñen azpian. Utziko det etze; ezta moztuko, edo inausiko, ez eta atxurtuko-ere. Estaliko due sasiak, eta arantzak, eta aginduko diet odeiai, ez dezeela masti eskergabe onetan euririk batere egin. *Nubibus mandabo, ne pluant super eam imbrem*. Zer aditera ematen ote digu Jaunak masti onekin? Zer, bere itz santua, ta bere laguntzak kenduko dizkigula baizik, baldin entzun nai ezpa-ditugu bearen Zeruko dotrina, eta lege santa? Arkituko degu gañera Amos Profetagan, nola aditzera ema-

ten dituan Jaunak gose izugarri baten berriak. Nik bidalduko det lurrera gosea, dio Jaunak: *Emittam famem in terram*: ez ogiaren gosea, eta ez uraren egarria, baizik nere itzaren gosea.

Non famem panis, neque sitim aquae, sed audienti verbum Domini. Ibilliko dira jendeak batetik bestera itz onen billa, eta ez due arkituko. *Circuibunt quae- rentes verbum Domini, et non invenient.* Aditzen dezu, Kristaua, zer esaten zakun Eskritura Santan? Ekusten dezu, nolako aserrea agertu digun beraren itz santua entzuten ez duenen kontra?

Baña are obeto ezagutuko degu au, egiñ dituan kastigu izugarrietara begiratzen badegu. Begira Orienteko bazterretara; denbora baten predikatu zan an Jaunaren itz santua ederki. An predikatu zuen Apostoluak berak, eta gero S. Zirilok Jerusalemen, S. Basiliok Zesarean, S. Gregorio Nazianzikoak, S. Juan Krisostomok Konstantinoplan. Nola arkitzen dira bazter aek? Mahomaren lege zatarra gordetzen duela. Begira Afrikara, an predikatu zuen S. Atanasio Alijan- driako Obispoak, S. Ziprianek, S. Agustiñek, eta beste gizon andi askok, eta gaur arkitzen da Afrikako jen- dea, edo Mahomaren zorakeriai jarraitzen diela, edo idolatriaren illunbean. Atoz Europara, ekusiko dezu

Rusia, Prusia, Olanda, ta Ingalterra herejiaren azpian, len gure Erlijio Santan bizi baziran-ere. Baña zertako nekatuko gera anziñako gauzai begiratzen baldiñ oraiñ bertan Jaunaren aserreak egiñ baditu kastigurik izugarrienak gure auzoan, edo Franziko Erreñuan? Emen ugari ereiten zan Jaunaren itz santuaren azia. Nola arkitzen da gaurko egunean? Itz santu onen gosete negargarri batean. Ez due Apaiz Katolikoak an bizitzeko-ere eskurik, eta beragatik ainbeste milla katoliko gaixo daude Jaunaren itz gabe, Sakramenturik gabe, eta fedea galtzeko perill andian. Nondik etorri zaio Franzinari gose izugarri au? Etorri zaio, zeren Jaunaren itz santuak frutu gutxi ematen zuan, ugari ereiten bazan-ere, gizon jakintsu batek dionez. Ezta oraindik berrogei urte onek Franzian bere sermoietan deadar egiten zuala, etorriko zala Jaunaren itzaren gosetea, anziñatik Amos Profetak esaten zuan bezala, ezpazuan frutu geiago ematen ereiten zanak; eta ura beldur zan eran gertatu zaio Franzinari. Au da, nere Kristau onak, gerok ekusten degun kastigu izugarria. Ez ote da au bera gertatuko gurekin ere? Ezta-kigu zer gertatuko dan, baña badakigu, gutxitu dala Jaunaren itz santua entzuteko gure aurrekoak zuen gogoia; gutxitu dala Jaunaren etxean egoteko erres-

petoa. Badakigu Jaunaren itzak ez dituala ematen lengo eran frutu ugariak. Badakigu, oztuaz dijoala fedea, Jaungoikoari ta lagun urkoari zor diogun amorioa. Badakigu atzenean, ezpagera zentzutzen, gure gañean eroriko dala Jaunaren aserrea.

Zer frutu emendik atera bear degu? Lenengo frutua, Jaunaren aurrean umillatzea, eta ezaguturik gure eskergabekeria andia beraren itz santuari dagokan gaiean, erregutu bear diogu, ez gaitzala arren utzi beste Erreñu asko utzi dituan eran. Bigarren frutua entzutea Jaunaren itz santua biotz umill, eta mansoarekin Santiagok esaten digun bezala: *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras*. Irugarren frutua oraindañoko utsegiteen loietatik biotza garbitzea, eta aurrera kontuz bizitzea Kristauari dagokan eran. Onela iritsiko degu Jaunaren miserikordia, eta uste izan dezakegu betiko gloria. Au opa det zuentzat, eta neretzat, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

BERROGEI TA SEIGARREN ERAKUSALDIA

Adierazten da lenbizia:

*Zer prestaerarekin etorri bear degun
Jaunaren itz santua entzutera.*

Bigarrena: Nola entzun bear degun.

*Irugarrena: zer egiñ bear degun
itz santua entzun ezkerero.*

*In mansuetudine suscipite verbum insitum,
quod potest salvare animas vestras. Jacobi 1.*

Entzun ezazue biotz umill, eta manso batekin, zuen animak salbatu ditzakean, Jaunaren itza, esaten digu Santiago Apostoluak. Azkeneko Erakusaldian aditu zenduen, zer aditzen dan Jaunaren itzaren ize-nez, eta nolako mesedea dan, Jaunak bere Elizari itz au utzi dion, eran utzitzea. Aditu zenduen gañera, nolako aserrea agertu digun Jaunak beraren itz santua entzuten ez duenen, eta gaizki entzuten duenen kontra. Gaur, gai oni dagokan bukaera emateko, aditzera emango det, lenbizia, zer prestaerarekin etorri

bear degun Jaunaren itz santua entzutera. Bigarrena, nola entzun bear degun. Irugarrena, zer egiñ bear degun itz santua entzun ezkeru. Goazen iru gauz oek banaka ekustera.

Jaunaren itz Santua da, animaren soroan Aita Zerukoak ereiten duan, azi ederra, eta izen au ematen dio Jesu-Kristok berak: *Semen est verbum Dei*: Aziak, dan onenak, eta bikañenak-ere, frutu ugariak emateko, eskatzen du lur ongi prestatua, eta maneatua. Ereiñ ezperen artoa, garia, edo beste edozeiñ azi etze dagoan lur batean arantzak, eta belar gaiztoak atera gabe, eta beste maneadurak eman gabe; zer frutu aterako dezu? Zure frutua izango da ereiñ zenuan azia galtzea, eta urte guziko gosea. Au bera gertatuko da, eta gertatzen da Aita Zerukoak gure animen soroetan ereiten duan itz Santuaren aziarekin, zeren bear dan prestaerarekin etortzen ez geran. Au ederki aditzera ematen digu Jesu-Kristok ereillearen parabolari. Erein zuan ereille onek azi ederra, baña puska bat erori zan bidearen aldean, eta oñpean galdu zuen andik zebiltzan bidezkoak. Beste puska bat erori zan arrien gañera, eta igartu zan. Beste puska bat erori zan arantzen artera, eta berea-

la ito zuen oek. Bakarrik frutua eman zuan lur onean erori zanak.

Zer egiñ bear ote da bada prestaera eder batekin Jaunaren itz Santua entzutera etortzeko? Iru gauza, Kristaua. Lenengo lekuan egiñ bear dan gauza da biotzeko sorotik lar, arantza, ta belar gaiztoak kentzea, au da, aldebat utzitzea arazo, irabazi, eta munduko beste gauzen gogorazio, ta kezka. Au ez egitera, Jaunaren itz Santua eroriko da lur etzean, eta arantzen artean, eta ez du fruturik emango. Jesu-Kristok berak arantzen izena ematen dio munduko ondasun, irabazi, eta beste gauzen gogorazioai. Doktrinak, eta sermoiak enzutera etorteko egiñ bear dezun bigarren gauza da, zertara etorri bear dezun begiratzea. Au kontuz egiten badezu, nai ta ez gogoratuko zatzu Jaunak erakutsi, ta aditzera eman nai dizuna enzutera etorri bear dezula; au da Errege guzien Erregeak, zure ongille andiak zure onerako itzegin nai dizuna entzutera. Baña au egiñ ordean baldiñ bazatoz zertara zatozen begiratu gabe, edo gauza berriren batzuek aditzeko pozarekin, nola nai dezu dotriñetatik, eta sermoietatik frutua ateratzea? Dotriñak eta sermoiak enzutera etortzeko egiñ bear dezun irugarren gauza da sortzea zere biotzean gogo, eta egarri andi bat,

Jaunak biotzera esan nai dizuna aditzeko eta egiteko. Gosea gorputzeko osasunaren siñalea izan oi dan bezala, era berean Jaunaren itza gogo ta egarri andiarekin enzutea da animako osasunaren siñalea dio S. Juan Krisostomok. *Sicut esurire est sanitatis corporalis inditium, ita et studio magno audire divina eloquia bonae animae valetudinis certissimum est argumentum.* Olloak, txitak, eta beste egaztiak bazka botatzen zatenean gogo andiarekin, eta alkarren leian joan oi dira bazkagana; ardiak era berean joaten dira gatzagana baldiñ au artetxean txintxilik ipintzen bada zakutxoren batean, zeren gatzak gaitz askotatik sendatzen, eta gordetzen dituan. Eta zu Kristaua, etzera gogoz etorriko Jaunaren itz Santua, eta dotri-nak entzutera? Eztakizu, itz Santu au dala animen bazka? Au dala animak sendatzeko, eta bekatuaren eritasunetatik gordetzeko gatza? Egizu kontu, leku onetatik datorren guziarentzat astean beiñ botatzen dirala perlak, diamanteak, belarritako, eta ebilla ederrak; atozea, etziñake gogo, eta egarriarekin etorriko? Uste det baietz. Atozea, eta dotrinetan, ta sermoietan Jaunak isurtzen dituan ondasunen aldean zer dira emengo perlak, diamanteak, eta apainduria guziak? Zer gorotza baizik? eta ez dezu begiratu

bear, nor dan predikatzen duana, zure gogokoa, espi-
ritu gutxikoa, edo aundikoa dan, baizik zer eta noren
partetik aditzera ematen dizun. Denda batera zoaze-
nean ez dezu begiratzen saltzen dagoana nolakoa
dan, baizik erosi nai dezun oiala, edo tela ona, edo
gaiztoa dan, merkea, edo garestia dagoan. Ona nola-
ko prestaerarekin etorri bear dezun dotrinak, eta ser-
moiak enzutera. Prestaera onen faltaz zer ondasunak
ez ditugu galdu oraindano? eta mirestsitzen gera
mundua dabillen eran ibiltzea? Baña ez gaitezen
geiegi onetan luzatu. Dakuskun, nola enzun bear
degun Jaunaren itz Santua, edo berbera dana, dotri-
ñak eta sermoiak.

§ II.

Azia ereiteko lurra prestatzea gauza bearra da,
baña ezta asko frutuak iristeko; ereiñ bear da gañera
azia, eta ereiñ bear da aziari dagokan eran, eta den-
boran. Eta era berean Jaunaren itz Santua enzuteko
biotza prestatu-ondoan, entzun bear da ez nola nai,
baizik ongi. Zer aditzera eman nai ote du Jaunaren
itza ongi enzuteak? Enzutea Jainko beraren itza beza-

la, enzutea Jaungoikoaren itzari zor diogun begiramentu, eta errespetoarekin; enzutea atzenezan biotz manso, ta umill batekin. Aditzen dezu, nola enzun bear degun Jaunaren itz Santua? Aditzen dezu itzen otsa, baña asko geiago ez. Atoz nerekin enzun dituzun itz oek aditzera eman nai duena ekustera.

Jaunaren itz Santua ongi enzuteko enzun bear da benik beñ Jainko beraren itza bezala. Dotrinetan, eta sermoietan esaten zakuna da Jaunak bere lege santan aditzera eman diguna, eta Predikarien bidez itzegiten digu Jaunak berak. Izan bedi dotrinak, eta sermoiak egiten dituana S. Pedro, S. Pablo, San Juan Kriostomo, S. Ambrosio, itzegiten du onen autik Jaunak. Izan bedi Judas bezalakoa, ala ere Jaunak itz egiten du predikatzen duanak Jaun beraren lege Santa aditzera ematen duanean. Etzerate, ez, zuek itzegiten dezuena, baizik zuen Aita zerukoa da zuetan itzegiten duana, esan zien Jesu-Kristok Apostolui. *Non estis vos, qui loquimini, sed Spiritus Patris vestri qui loquitur in vobis.* Baldiñ era oentan enzuten ezpaditugu dotrinak, eta sermoiak, zer frutu atera dezakegu? Frutu atera ordean erraz gerta liteke kalte andia ateratzea, dala ezertan arzen ez dala Jaunak aditzera ematen diguna, dala gerengan esaten degula: etxe-

rako-ere ona lizake au. Jaunarren itz Santua ongi enzuteko enzun bear da gañera zor diogun begiramentu, eta errespetoarekin. Baldin sermoia asitzean lo jartzen bazera, eta noizean beiñ au zabalka batzuek egitera atzera lotsatzen bazera; baldiñ dotri- nan, edo sermoian erausian bazaude, edo Elizatik irtenda joaten bazera zimitoriora, edo bazterren bate- ra, au da nolerebait Jainkoaz, eta beraren itz santuaz iseka egitea. Au da adiraztea etsaiarena, eta etsaia- rentzat markatua zaudela; eta beldur izan zaite, orre- la Jaunaren itz santuagandik igesi zoazenen batean eraman etzaitzan berekin gorputz eta anima. Nere Kristauak, nork sinis lezake, Katolikoen artean au ger- tätzen dala? Elizaren aurreneko denboretan aiñ errespeto andiarekin enzuten zan Jaunaren itz San- tua, non emakumeak-ere txutik egon oi ziran San Agustinek dionez, eta Santuak eritxo zeudenai egin- da oi zien eseri zitezela.

Izan dira Santuak Eskritura Santa buru utsean baizik irakurritzen etzuenak, zeren Eskritura Santan Jaunak itzegiten digun. Eta guk eztegu begiramentu, eta errespeto andiarekin enzungo Jaunaren itz San- tua?

Atzenean errespeto andiarekin ezezik biotz manso, eta humillarekin-ere enzun bear da Jaunaren itza ongi eta dagokan eran enzun nai badezu, ala esaten digu Santiago Apostoluak. Ta zer esan nai ote digu biotz manso, eta umillarekin enzute onek? Esan nai du, enzun bear degula Jaunaren itza sinisten degula dotrina, eta sermoietan aditzera ematen zakuna umilki, ta prest ipinzen degula biotza Jaunak aditzera ematen diguna egiteko, izan dedilla au naiz gozoa, naiz samiña, naiz lakatza, naiz leuna. Sasoi onetan arkitzen zan Dabiden biotza zionean. Nere Jaun Jaungoikoa! prest arkitzen da nere biotza zuk aditzera eman nai didazuna egiteko, prest arkitzen da bai. *Paratum cor meum, Deus, paratum cor meum.* Samuelek esaten zion Jaungoikoari, itz egin beza Jauna, et aona ni emen prest berorren itzak enzuteko. *Loquere Domine, quia audit servus tuus.* Era onetan enzun izan bagindu dotrinak, eta sermoiak, zeñ frutu ugariak ez ginduan aterako oraindañoko gure urteetan? baña, nor dira egungo egunean biotz umill, eta mansoarekin dotrinak, eta sermoiak enzuten dituen Kristauak? Askok ezin sinistu due Jaunaren partetik adirazten dana, beren uste, oitura, edo gogoaren kontra bada, eta denbora berean edozeñ gauza sinis-

ten due nork nai esan dezala beren gustokoa danean. Itzegin bedi bear dan eran itz loi desonestoak esateko, keñada lotsagarriak egiteko, gauetan berandu etxeratzeko, jai egunak ausitzeko oituraren kontra. Itzegin bedi, amarren premiziak egiteko, Kristau bakoitzak duan obligazioaren gañean, eta izango dira batzuek, edo batzuek aiñ ezibageak, eta adiurre gaiztokoak animari dagozkan gauzetan, non sinistuko ez duen dotrinetan esaten dana ukitu ditudan gauz oen gañean. Baña itzegin begie beren gogora dan ez jakinienak, ozta dotrina dakien batek, eta sinistuko due S. Anbrosioren, S. Agustiñen, eta Santo Tomasen esana baño obeto. Oei deitzen die Jaunak seme errebesen, edo Jaungoikoaren Lege Santa aditu nai ez duenen izenarekin: *Filii notentes audire legem Dei*. Zuek, nere Kristauak, zuek zerok egia onen testigu ipintzen zaituet. Ekusten dezu, Kristaua, nola enzun bear ditugun dotrinak, eta sermoiak? Dakuskun bada oraiñ, zer egin bear degun oek enzun ondoan.

§ III.

Lurra ondo prestatzea azia ereiteko, eta ondoren kontuz ereitea gauza bearra da fruturik izango bada; baña ezta oraindik asko abustura iristeko. Azia erein ondoan estali bear da erne dedin; erneta-ere gorde bear da kontuz piztietatik, bidezkoetatik, ganadueta-tik, eta gañera denbora egokietan eman bear zaizka bere maneaturak, eta jorrak. Eta ona nere Kristauak, dotrinak, eta sermoiak enzun ondoan guk egin bear deguna Jaunaren itz santuak gugan bere frutu ederrak ematea nai badegu. Estali bear dira biotzean pensamentu onakin eta gogoan erabilliaz dotrinan aditu diran gauzak, erne eta errotu ditezen. Atozea ezperen, baldin Jaunaren itza aditu ondoan bereala utzitzen badiozu zure gogoari nolanai ibiltzen leneko atsegin loien ondoren, edo beste munduko gauzetan; baldiñ Elizatik irtenda bereala etxerako bidean, eta etxean bertan asitzen bazera ergelkerietan, eta itzke-ta alferretan, zer frutu aterako dezu dotrinetatik, eta sermoietatik? Fruturik batere ez, edo txit gutxi, zeren Jaunaren itz Santua erne baño len biotza betetzen dezun munduko gauzen arantzaz, edo gogorazioz. Au gerta ezdakizun emendik aurrera, kontuz biotzean gorde ezazu Jaunaren itz Santua, Elizan, bidean, eta etxean erabilzu gogoan. Eztezu iñoiz ekusi zer egiten

duan ardiak, eta idiak larrean ibilli ondoan? Asitzen da auzmarrean, eta ederki txikituaz len jan duana, igarotzen du urdallera. Au bera egin bear dezu zuk, nik, eta beste edozeñek Jaunaren itz Santua aditu ondoan, San Agustiñek esaten digun bezala: *Quae audistis cogitate... Quae comedistis ruminare, sic enim eritis animalia munda, et apta epulis Dei*. Era onetan asiko da ernetzen, eta errotzen Jaunaren itza zure biotzean, eta kontu egin bear dezu piztiak, bidezkoak, eta ganadua, au da etsaiak, zure griña txarrak eta lagun gaiztoak galdu ez dezeen, eta atze-nean berriz, eta berriz dotriñak eta sermoiak enzunaz, Zerurako bidean saiatuaz lagundu bear diozu Jaunaren itzak zure biotzean asi duan obrari.

Ar ezazue bada, esango dizuet berriz ere Santiago Apostoluarekin, ar ezazue biotz umill, eta manso batekin zuen animak salba ditzakean Jaunaren itza: *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras*. Enzun ezazu itz santua lurra lenago prestatzen dezula; enzun ezazu Jainko bera-ren itza bezala begiramentu, eta errespeto andiarekin; enzun ezazu umilki sinisten dezula, eta prest jarzen zerala Jaunak aditzera ematen dizuna egiteko. Enzun ezazu, eta kontu egin azi on au ez galtzeaz.

Zuk era oentan ekusiko dituzu frutu ederrak, eta iri-
txiko dezu onen ondoren betiko bizitza doatsua.
Amen.

ABENDUKO ETA GARIZUMAKO IGANDEETAKO SERMOIAK

NOTA

Aita Santu Benedikto amairugarrenak agindu izan zuan, sermoien sarreran aditzera eman zezeela Predikariak dotrinako gauzaren bat. Ala egiten da Españan. Abendurako, eta garizumako beste gauz askoren artean ongi izango da adieraztea bekatariak Jainkoagana biurtzkeo duen egin-bide, edo obligazioa, zer dan bekatua, zenbat eratakoa dan, nola prestatu bear degun Konfesioko Sakramentuan gure animak garbitzeko, ta beste onelako gauzak. Orain ipiñiko ditut Obispadu onetako, Aginte gai oni dagozkanak.

«Ordenamos asi mismo á nuestros Párrocos, y á todos los demas Predicadore de nuestra Diocesi, tanto Seculares, como Regulares, que en las saluciones, de todos sus Sermones de cualquiera asunto, misterio, ó festividad que sean, espliquen cathequisticamente un punto de doctrina Cristiana: con estilo

facil, llano, y perceptible: *Littera Pastorales D.D. ab Irigoyen Episcopi Pompolonensis. pag. 65*».

LENENGO DOTRINA

*Bekatariak bere Jaungoikoagana
biurtzeko duan, eginbidearen gañean.*

Anziñatik ipiñia dauka Eliz Ama Santak *Abendua* esaten diogun denbora Santu au. Batzuek dioe S. Pedroren, besteak S. Gregororen denboran asi zala, baña dana dala asiera onezaz, guk dakiguna da, Eliz Ama Santak ipiñi zuala *Abendua*, Jaunaren itza adi-tuaz esna ditezen bekatariak bekatuaren lo pisutik, eta biur ditezen lenbait len ain gaizki utzi zuen Jaun Jaungoikoagana. Izan bedi bada gaurko dotrina, bekatariak Jainkoagana biurtzeko duan, egin-bide, edo obligazioaren gañean.

Utzi dezu, Kristaua, zure Jaun Jaungoikoa? Erori zera bekatuan? Beartua zaude beraz lenbait len, edo beintzat asko luzatu gabe beragana biurtzera, edo konfesatzen zerala, edo egiaz, eta biotzetik damutzen zerala onezko damuarekin, edo berbera dana kontrizioarekin: betiko utzitzen dituzula bekatua, ta bekatuaren bideak, etxeak, adiskidetasunak. Ala era-kusten dizu dotrinak. *Bekatu mortalean erortzen dan*

guzian, bereala konfesatu bear du (bekatariak) barka dakion? galdetzen du dotrinak, eta erantzuten du: On lizake baña premiaskoa ezta. Galdetzen du berriz: Zer egin bear du bada? Erantzuten du: Bere bekatuen egiazko damua emendatzeko proposituarekin iduki, eta Eliz Ama Santak agintzen duanean konfesatu. Beartua zaude beraz, bekataria, utzi zenduan zere Jaun Jaungoikoagana biurtzera lenbait len, edo beintzat asko luzatu gabe: eta onetan asko zabartzea da bekatu berria.

Beartua zaude, Jaunak bere Profeten autik esaten digunari begiraten badiogu. Ar ezazue begitan gaiztakeria, ta bekatua: *Odite malum*; amatu ezazue bizitza ona, dio Amos Profetak. *Diligite bonum*. Garbi zaitzte, eta zaute sendoro zeren garbitasunean: *Lavamini, mundi estote*; ken itzatzue gogorazio gaizto oriek, gera zaitzte gaizkiz gaizki, ta bekatuz bekatu ibiltzetik, esaten digu Isaias Profetak. *Auferte malum cogitationum vestrarum, quiescite agere perverse*. Ken itzatzue, eta zerengandik bota egin dituzuen bekatu oriek guziak: *Projicite a vobis omnes praevaricationes vestras, in quibus praecarivati estis*: eta egizue biotz, eta espiritu berri bat, deadar egiten du Ezekiel Profetak: *Et facile vobis cor novum, et spiri-*

tum movum. Ona, bekataria, nola Profeta oen autik agintzen dizun Jaunak, biur zaitezela beragana.

Beartua zaude gañera zere Jaunagana biurtzera bera biotz osoz amatzeko Aginte andiari begiratzen badiogu. Amatuko dezu dio Jaunak; amatuko dezu zure Jaun Jaungoikoa zure biotz guziaz, zure anima guziaz, eta zure indar, ta alegin guziaz. «Nere Aginte onen itzak gordeko dituzu kontuz zure biotzean; kon-tatuko dieztezu zure umeai, gogoan erabilliko dituzu etxean eserita zaudenean, bidean zabiltzanean, *oian zaudenean, eta oietik jaikitzen zeranean*». Itz oetan aditzera ematen digu Jaunak, zein egin-bide andia dan bera amatzeko degun egin-bidea; eta zein arreta andia izna bear degun beraganon z biotza jasotzeko, ta onginei, ta amoriozko afektoak egiteko. Eta, beka-tari ainbeste denbora onetan bekatuan oatu bezala bizi zerana, nola Jaungoikoa amatzeko Aginte andi oni erantzungo diozu, zeregandik aienatzen ezpade-zu bekatua, eta biurtzen ezpazera Jaun beragana? Eztakizu, eziñ amatu dezakezula zure Jaungoikoa begitan artzen ez dezula bekatua? Eziñ serbi ditzake-zula bi nagusi, bekatua, ta Jaungoikoa?

Beartua zaude, bekataria, Jaunagana biurtzera, norena zeran, kontuz begiratzen badezu. Atozea,

etzera Kristaua? Eta eztakizu, *Kristauak* esan nai duala *Kristoren gizona*? Ala erakusten zaku dotrinan. Etzerate ez zerenak, esaten digu S. Paulok: *Non estis vestri*; baizik Jesu-Kristorenak: *Vos autem Cristi*. Beraz zu, Kristaua, etzera zerea, baizik Jesu-Kristorena, zeren Jesu-Kristok Jainkoa dan bezanbat ezerezetik egin zinduan; zeren gañera bere odol preziotsuarekin erosi zinduan. Emendik atera ezazu, etsaiari eman diozunean zure anima, kendu diozula Jabe egiazkoari eskergabekeria itsusi batekin, eta beragatik beartua zaudela kalte ori desegitera, ta zere Jabe onagana biurtzera. Ala egiñ zuan Ebanjelioko Seme ondatzalleak. Ezagutu zuan bere gaizkia, ta esan zuan: joango naiz nere Aitagana. *Ibo ad Patrem meum*. Artu zuan Aitak ongina, ta amorio andi batekin; barkatu ziozkan bere bekatu guziak; biurtu, edo berriro eman ziozkan Aita Zerukoaren Seme bati zegozkan doai, ondasun, eta deretxo guziak. Zergatik ez dezu zuk-ere au bera egiñ bear, bekataria?

Beartua zaude onetara, begiratzen badiozu bekatu barkatu gabeak, bekatu berrietarako dakarren perillari. Damuz desegiten eztan bekatuak bere kargarekin bekatu berrietara darama, dio S. Gregoriok. *Peccatum, quod mox per paenitentiam non deletur,*

suo pondere ad aliud trahit. Eta Santo Tomasek dio, Jaunaren grazian arkitzen ez danak ezin luzaro iraun dezaleala berriro bekatuan erori gabe. Au da egia bat, Kristaua, egun oro ekusten, eta gertatzen danak argiro erakusten dizuna. Errazago arkituko dezu bekatu larrietan beñere erori ez dana beñ bakarrik erori dana baño. Ta zer izango da, baldiñ bekatuan erorita arretarik ezpadu bekatariak Jaunagana biurtzeko? Zer, mendiaren erpiñetik amiltzen asi dan arriarekin gertatzen dana baizik? Atzenean beartua zaude, bekataria, zere Jaun Jaungoikoagana biurtzera, ez nolana, baizik lenbait len, edo asko luzatu gabe; zeren bestela betiko su, eta garren artera amiltzeko perillean egongo zeran. Ill bear dezu, bekataria, ta eztakizu noiz. Eztakizu aurten, edo urrengo urtean, aste onetan, edo urrengoan, gaur, edo bigar etorriko zatzun erioa; baña badakizu ez diola iñori-ere barkatzen, ta lapurraren eran, usterik gutxiena danean datorrela. Ta etortzen bazatzu bat batetan bekatuan zaudela, zer izango da zuzaz? Argatik esaten digu Jaunak: Ez luzatu egunetik egunera zure Jaun Jaungoikoagana biurtzea: *Non tardes converti ad Dominum Deum tuum, et ne differas de die in diem;* zeren bat batean zure gañean izango dan beraren aserrea.

Subito enim veniet ira illius. Eta Jesu-Kristok berak beiñ, ta berriz, eta askotan agintzen digu, gaudela ernai, zeren eztakigun noiz etorri bear duan Jaunak kontuak artzera. *Vigilate ergo, quia nescitis, qua hora Dominus vester venturus sit.* Zenbat gaur infernuan arkitzen ote dira Jesu-Kristoren esan au ezertan artu gabez? Pensa ezazu, bekataria nolako perillean zauden eta biur zaite lenbait len zure Aita onagana; eta egitzu berarekin pakeak. Bizi zaite Kristauari dagokan eran, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

ABENDUAREN LENBIZIKO IGANDERAKO 1.a

*Bakoitzak eriotzaren une edo puntuan
igaro bear degun juizioaren gañean.*

Erunt signa in sole et Luna, Luc. 21

Abenduaren lenbiziko igandea degu gaur, Kristaua; eta beartua nago zuri denbora onen berriak ematera. Eliz Ama Santak Pazkoaren aurretik ipiñi zuan berrogei eguneko baraua, guk argenzan Jesus bildots mantxarik gabea biotz garbiarekin, eta denbora ari deitu oi diogu *garizuma*. Era berean ipiñi zuan eguerriren aurretik beste garizuma bat, Jesusen jaioztarako presta gindezen gure bekatuen damuarekin, barau, Konfesio ta Komunioarekin, eta deitzen zaio denbora oni *Abendua*. Batzuen iritzian ipiñi zuan usanza eder au S. Pedro Apostoluak berak; baña Aita Santu Benedikto XIV dionez, ipiñi zuan S. Gregorio andiak.

Garizuma au leku batzuetan atsitzen zuen S. Martin egunetik, besteetan Santu guzietatik: leku

batzuetan barautzen zan egun oro, beste batzuetan
astean iru egunez; eta zenbait lekutan Pasioko den-
boran bezala aldareak estalzen, ta janzi beltzakin
esaten ziran Mezak: orain ere utzitzen du Elizak Glo-
ria kantatzea, eta Mezak esaten dira janzi moreare-
kin. Eta gañera Komunio Santua artzen zuen Kris-
tauak gutxienez igandeetan. Ona, Kristaua, zer dan,
eta zertarako ipiñi zuan Eliza Ama Santak Abendua.
Nai luke orain ere Eliz Ama Santak, denbora santu
onetan guk utzitzea betiko bekatua, ta bekatuaren
bideak, eta Jesusek erakutsi digun Zerurako bideari
jarraitzea arreta andiarekin. Onetarako gaur itzegiten
digu, azken-kontutako egunaren aurretik agertuko
diran, siñaleen gañean. Agertuko dira, dio S. Lukase-
kin, eguzkian eta illargian egun aren siñale oek: *Erunt
signa in sole et luna*. Asiko da itsasoa orroaz, eta
guziak ibilliko dira arriturik, erkiturik eta beldurturik,
zer ekusi bear ote dan munduarekin. Emendik artu oi
da azken-kontuetako edo juizioko egunaren gañean,
gaurko egunean itzegiteko bidea. Baña bi dira, nere
Kristaua, zuk eta nik eta guziok igaro bear ditugun
kontuetako egunak, edo juizioak. Batari deritza
bakoitzarena, eta au izango da, eta izaten da eriotza-
ren une, edo puntuan bertan. Orduan ongi irteten

dana, gerokoan ere ongi irtengo da. Bigarrenari deritza *guziena*, eta au izango da, munduaren bukaeran. Autsetan biurtuko dira etxeak, erriak, erreñuak, basoak eta ganaduak. Auts biurtuko dira gizon eta emakume guziak. Agertuko da Zerutik Aingeru bat, eta tronpeta batekin otsegingo du: altxa ill guziak, eta atozte kontuak ematera. Adituko da ots au Zeruan, infernuan eta bazter guzietan. Anima onak jatxiko dira Zerutik, eta sartuko dira bere goreputzetan atsegin andiarekin; baña gaiztoak irtengo dira infernuko su eta garren artetik eta sartuko dira beren gorputzetan gogoaren kontra eta madarikazioa dariela, eta utziko ditue ordutanik erretzen eta kiskaltzen. An bilduko dira gizonak ezezik Aingeru onak eta gaiztoak ere. Agertuko da Jesu-Kristo guzien Juez, eta kontu arzailea bere Ama maitagarriarekin; emango die guztiai dagoten sententzia; idikiko da lurra; eta amilduko dira guziak infernuan, Luzifer eta Aingeru gaiztoakin batean. Itxiko dira orduan infernuko ateak, eta betikotasun gustian ez dira idikiko. Igoko da Jesus onakin Zerura: *atozte, esango die, nere Aitaren bedeinkatuak*, atozte, arrezazue munduaren asieratik zuentzat prestaturik dagoan Zeruko Erreñua.

Bi juizio oek maiz eta kontuz gogoan erabili bagindu, etzan ez, izan dan bezalakoa izango gure bizitza, eta etziran izan diran adiña izango gure bekatuak; baña gertatu zakuna da munduko iduripen, eta utsaren ondoren lilluraturik gere egunak igarotzea eta kontuetako egunean ondo irteteko bear dan eran ez bizitzea. Aurrera ere au bera gerta eztakigun, bekataria, itzegin nai dizut gaur, bakoitzak eriotzaren une, edo puntuan igaro bear degun juizioaren gañean, eta aditzera emango dizut, *zeñ izugarria dan bekatariarentzat*.

Birjiña txit Santa bekatarien Ama gozoa, ekusten dezu zuk zeñ kontu estuak eman bearrak geran erioztzako une izugarria datorkigunean. Ekusten dezu, zeñ aztuak bizitu geran geroko kontu oez, eta zeñ ongi irten gaitezkeala, bizita on, eta eder bat artzen ezpadegu. Baña nola zuzenduko gera gu onetarako zuk ez laguntzera? Zu zera, Ama maitagarria, gure esperanza, *spes nostra*; argitu itzazu bada gure adimentuak, erioztzako orduan igaro bear degun juizioaren izugarritasuna ezagutzeko: esna itzazu gure biotzak garai onean gure kontuak zuzentzeko, eta emengo egunak ongi bukatzeko; egin dezakezu bai au guzia, ta geia-go iristen dituzula guretzat onetarako bear ditugun

Zeruko laguntza ugariak. Au da gaur eskatzen dizugun mesedea, Aingeruarekin batean esanaz: Abe Maria.

Ill bearrak, eta Jaunaren aurrean kontuak eman bearra gera, bekataria. Ala erakusten dizu zure fede santak, eta sinisten degu Katoliko guziok. Erabakia dago gizonarentzat beñ illzea, eta ondoren kontuak ematea: guziok agertu bearrak gera Jesu-Kristoren jarleku, edo Tribunalaren aurrean dio S. Paulok. Beraz zu ere, bekataria, iltzen zeranean, agertuko zera Jesu-Kristoren jarlekuaren aurrean, eta juzgatua izango zera zure bizitzari dagokan eran. Eztakizu Jesu-Kristo gizona danez jatxiko dan, edo ez anima bakoi-tza juzgatzero. Baietz dio Aita Santu Inozenzio III, beste askok uste due ezetz; baña berdin da zuretzat Jesu-Kristo gizona danez jatxitzea, edo ez jatxitzea zu juzgatzero, zeren Jaungoikoa danez arkituko dan zu iltzen zeran lekuan, eta an bertan juzgatuko zaituan. Zein izugarria izango dan juizio au bekatariarentzat ezagutzeko, begira zaiezu arretaz, orduan igaroko zaizkitzun gauzai. Asi zaite nerekin batean.

Egizu kontu, bekataria; jartzen zerala azkeneko asnasetan; ordua datorrenean irteten dala gorputzetik zure anima. Utziko dezu orduan zure gorputz ori arren bazka izateko. Utziko dituzu zure adiskideak, onrak, arrotasun, eta apaindurak; utziko dituzu emengo izan, edo ondasunak ainbeste nekerekin bildu dituzunak; utziko dituzu gorputzaren atsegin mota guziak, eta igaroko zera denboratik betikotasunera. Pauso au utsegiten badezu betiraunde guziko utsegiña izango da. Arkituko dezu zere burua bakar-dade ikaragarri batean, egin zinduan obra on eta gaiztoak bai, baña beste lagunik ez dezula. Asiko zera alde guzietara begiratzen. Ekusiko edo ezagutuko dezu zure goien dagola Jauna bere jarlekuan zuri kontuak artzeko, zure azpian infernua, zure alde batean infernuko dragoia, zu irintsitzeko prest; eta bestean Aingeru guardakoa. Nork esan ta adiratzi, bekataria, sarrera onetan zuk igaroko dituzun kezkek, beldurrak, eta estutasunak? Non dira denbora batean Jaungoikoren lekuan amatzen zinduan idolo, edo adiskide aek? Non dira zure anima galerazten zizuen urlia aek? Asiko da infernuko dragoia, edo deabrua, zu salatzen. Bekatari au esango dio Jaunari; bekatari

au izan da soberbia bera; onek nai zuana egiten etzuenen kontra, bere biotzean gorderik iduki du beti gorrotoaren, eta bengantzaren sua; ez dio onen mingaÑak barkatu lagun urkoaren onrari, ta bazter guzietan zabaldu ditu gorrotoaren txingarrak. Bekatari onek, bere denbora igaro du aragiaren atsegin lizunenen ondoren. Ez dio barkatu bere buruari loitzen zuala eskuka zikiÑakin; ez dio barkatu ez ezkongaiari, ez ezkonduari; ez die barkatu abereari berai ere; eta bere losentxakin galdu ditu ainbeste anima. Alferrak izan dira onentzat zure Sakramentuak eta itz Santua; alferra zure odol preziotsua. Bekatari au izan da besteren gauzari askotan atzaparra egotzi diona; salduerosi itsusietan sartu dana; zure legeak agintzen zionik, edo ez du eman, edo eman du txarrena gogoaren kontra. Bekatari onek bataioko egunean eman zuan nigandik aldegiteko, eta zu biotz osoz amatzeko itza; eta bere denbora guztian izan da nere serbitzari eta adiskide andia. Onek eman zuan bekatutik eta bekatuaren bideetatik aldegiteko itza, eta bere egunak igaro ditu gaiztakeriaren bideetan. Onek eman zuan munduaren arrotasun eta zorakeriak utzitzeko itza, eta bizitu da arrotasun eta zorakerien ondoren. Juez guziz zuzena, anima au bere bekatuakgatik nerea

izan da oraindano; eta erabaki ezazu nerea izan bear duala aurrera ere betiko. Au ta geiago dio S. Agustiñek gai onetan, ta S. Bizente Ferrerrek kontatzen digu, gazte bat espirituz eraman zuala Jaunak juizio-ra. Bereala asi zitzaizkan demonioak begien aurrean ipintzen egin zituan bekatuak. Añ andia izan zan artu zuan ikara, non beregana zanian egin zituan penitentzia txit gogorak.

Eta zuk, bekataria, dakusazunean zere burua gisa onetan, noronz itzuliko dituzu zure begiak? Aingeru guardakoagana? Baña Aingeru guardakoa bera izango da zure bigarren salatzailea. An agertuko du zenbat alegiña egin duan zu bekatuaren bide, eta lagun gaiztoetatik ken-erazteko; zenbat gogorazio, edo pensamentu on bidaldu dizkizun bizitz on bat artzkeo, eta guzia izan dala alferra. Jauna, esango dio Jesu-Kristori: Zuk dakizu iseka egiten zuela zure urrikimientuaz, eta baliatu nai izan ez duala zure odol prezioitsuaz: altxa zaitez Jauna zure Zuzentasunaren ezpartekin, eta eman zaiozu dagokan saria: *exeat condemnatus*.

Irugaren salatzailea izango da zure barrengo eza-guera bera, edo konzienzia. Aditurik demonioak, eta Aingeru guardakoak zure kontra esan duena, izaturik,

eta ezertako kemenik gabe geratuko zera, eta nai ta nai ez zure barrenak esango dizu, zuriak dirala agertu dituen bekatuak: eta oen oroipena izango da zuretzat oñazerik andiena, eta infernuko ar ozkariaren anz bat. Naiago izango zenduke une onetan, mendi guziak zure gañera erortzea, eta oen artean lerturik ezer ezera biurtzea, ezen ez estutasun onetan zere burua ekustea; baña ezin diteke au, eta nai ta ez aditu bear dituzu Juezak egingo dizkitzun karguak.

§ II.

Eta zein da Juez au? Jesus, Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, ezin geiagoraño jakintsua, eta zuzena. Juez bat bakoitzari emango diona bere saria, egiñ dituan obra on, edo gaiztoai dagoten eran. Juez onen aurrean ez due ezer balioko, ez ondasunak, ez jakiundeak, ez bitartekoak; eta esaten dizu Ezekiel Profetaren autik: juzgatuko zaitut zure bizitzaren eran eta begien aurrean ipiñiko dizkitzut zure bekatu nazkagarriak. *Judicabo te juxta vias tuas, et ponam contra te omnes abominationes tuas* (Ezech. 7). Begiratuko diot, esaten digu Sofoniasen autik, Jerusaleni, edo

animari argia arturik, au da nere jakiundearen argia-
rekin. *Scrutabor Jerusalem in lucernis* (Sophon. 1).
Begiratuko die bada Jaun onek, bekataria, zure utse-
gite guziaz, eta etzaio ezkutatuko batere. Ekusiko ditu
zure animaren ezkutuenean lotsaz gorderik dauden
bekatu oriek; ekusiko ditu zure zabarkeriaz egin ditu-
zun utsegiteak. *Scrutabor Jerusalem in lucernis*. Eku-
siko du nola eranzun diezun zure estadu, edo kargua-
ren egin bideai. Ekusiko ditu zuk bekatu txikitzat
artzen zinduan ergelkeriak, erausi eta itz alferrak, eta
guzien kargua artuko dizu, S. Matheok dionez. Ekusi-
ko ditu zure obra onak, eta begiratuko die nola eta
zergatik egiñak diran. *Scrutabor Jerusalem in lucer-
nis*.

1. Ekusirik era onetan zure itz, pensamentu, eta
obra guziaz asiko zatzu bere karguak egiten. Nik,
esango dizu, nere ontasunez egin zindudan ezereze-
tik, eta egin zindudan ni ezagutzeko, amatzeko, eta
betiraunde guzian nerekin batean Zeruan bizitzeko.
Nola erantzun diozu mesede oni?

2. Nik prestatu munduko etxe eder au, lurrean
egon bear zenduan bitartan zure bizileku izateko, eta
ornitu nuan zuk bear zinduan gauza guziaz, eta
emendik irteten ziñaneko prestatu nuan Zeruko erri

eder ori. Nola erantzun diozu mesede oni? Ah! Eskergabea, lurreko gauzaz baliatu zera nere kontra altxatzeko.

3. Nik eman nizkitzun oroipena, adimentua, ta borondatea nizaz oroitzeko, ni ezagutzeko, ta amatzeko, eta oez baliatu zera bekatuaren bideak, eta atsegin lizunak amatzeko.

4. Nik eman nizkitzun begiak, belarriak, mihia, eskuak, oñak Zerurako bideari kontuz jarraitzeko, eta oez baliatu zera, bekatua bekatuaren gañean egiteko.

5. Ni, ekusirik zu Adanen bekatuarekin galdua, jatxi nintzan Zerutik, egin nintzan gizon, ta gurutzean eman nuan zugatik nere bizitza: begira zaiezu, eskergabea, nere esku-oñetan, eta saietsean arkizen diran siñale oei. Zer geiago egiñ bear nuan zugatik? Eta nola erantzun diezu mesede oei?

6. Nik utzi nizkitzun Elizan zazpi Sakramentu zu nere graziaz eta birtutez betetzeko. Eta zuk biurtu dituzu zure puzoi. Zenbat bider egin dituzu konfesio gaiztoak edo lotsaz, edo zeren bekatuako bideak uzteko biotzik etzenduan.

7. Ni, zугanako ongina, ta amorioz geratu nintzan Aldareko Sakramentuan zuri emateko nere gor-

putza, nere odola, eta naizan guzia. Nola eranzun diozu nere onginei ta amorio oni? Ah! doakabea, Judasen eran jartzen ziñan nere maian.

8. Nik bidaldu nuan nere Aineruetatik bat zu gordetzeko, eta Zerurako bidean giatzeko; nik ipiñi nituan nere Elizan zuri Sakramentuak, eta nere itzaren ogia emateko eskudunak: nik deitu dizut ainbeste bider Zerurako bidera, eta ez dezu aditu nai izan nere deirik. Ez da zugan arkitzen obra onik, eta zure bizitza guzia loitua dago bekatuz. Eta au gutxi baliz bezala galdu dituzu ainbeste anima nere bizitzaren kostuz erosi nituanak. Au da niri zor zeñidan eskerra? Bekataria, zer eranzungo diezu kargu oei? Mututurik geratuko zera, eta begiratuko dezu alde guzietara, urrikimentuaren billa bezela: baña nor urrikituko da zuzaz dio Jeremiasek. *Quis miserebitur tui Jerusalem* (cap. 15). Ez zure Aingeru guardakoa, ez zure izeneko Santua, ez, bekataria, Ama Birjiña guziz Santa, zeren denbora zanean, enzun gor egin diezun. Begiratuko ote diozu zure kontra leoi aserre baten eran dagoan Juez ari? Baña nork izan ausardia onetarako? Job Santuak oroiturik Jaunaren ordu onetako aserrearaz dio: *Nork eman lekikedan infernuko su, eta garren artean ezkutaturik egotea, zure aserrea igarotzen*

dan bitartean? (Cap. 14): eta S. Juan Krisostomok dio, errazago irozo litezkeala eziñ konta al oñaztar, edo arraio, ezen ez Jesusen aurpegia aserraturik ekustea. *Infinita satius est fulmina sustinere, quam illam miten faciem nos aversantem videre* (Homil. 47 ad populum). Ez dago bada, bekataria, zuretzat iñondik ere laguntzarik, eta aditu bearra zera zure bizitza don-geari dagokan sententzia.

§ III.

Oraindaño ixillik egon naiz, esango dizu; baña oraiñ etorri da alde-aldetik nere aserrea zure gañean ixurtzeko ordua: eta juzgatuko zaitut zure bizitzari dagokan bezala. *Nunc de proponquo effundam iram meam super te... et iudicabo te juxta vias tuas* (Ezech. 5). Zuk ez dezu gorde nai izan nere lege garbia: nik orain uzten zaitut Satanasen mendean, *betiko*. Zuk ez dituzu ezertan artu, nik zuretzat irabazi nituan Zeruko bizitza doatsua, eta atsegin-kontentuak, eta nik bidaltzen zaitut betiko su eta garren artera; *in sempiternum*. Zoaz madarikatua, nigandik,

zoaz: *in ignem aeternum*. Itsatsiko zaio infernuko dra-
goia eta amilduko dira infernuan.

§ IV.

Aditzen dezu Kristaua, zeñ izugarria izango dan guretzat eriotzako puntuan igaro bear degun *juizioa*? Zer egin al dezakegu guk orduan ongi irteteko? Ez dago, ez dago beste biderik ezpada oraiñ denbora degunean Jaunagana biurtzea, eta bizitza berri garbi bat egitea. Oraiñ gure alde degu Aingeru guardakoa: orduan izango da gure salatzaile. Oraiñ gure alde da Birjiña txit Santa: orduan ez digu balioko beraren bitartekotasunak. Oraiñ Jesus Aita urrikaritsua bezala deiez dagokigu: orduan Juez zuzenaren eran dagoki-
gun sententzia emango digu. Au onela izan, eta ez dituzu gaurdanik urratuko bekatuaren kate oriek? Ez dezu artuko Zerurako bide ederra?

Bekataria, zer gaitz egin dizut nik zuri, zuk orren-
beste bidegabe niri egiteko? Esaten dizu Salbatza-
llean. *Quid feci tibi?* Gaitz egitea ote zan zu ezereze-
tik egitea? Gaitz egitea ote zan zugatik gizon egitea,
eta gurutzean bizitza ematea? Gaitz egitea ote zan

zugatik Aldareko Sakramentuan geratzea? Zer gaitz egin dizut bada zuk utzitzeko, eta bekatuaren bideai jarraitzeko? *Quid feci tibi?*

Nere Salbatzalle maitagarria, asko da: aitortzen det nere eskergabekeria itsusia: erabaki det gaurdanik utzitzea bekatua, eta bekatuaren bideak. Lagunzakizkit, Jauna, zu amatzen, eta serbitzen; onela iristeko zuk neretzat irabazi zenduan betiko bizitza doatsua. Amen.

ABENDUAREN LENDABIZIKO IGANDERAKO 2.a

Azken juizioko egunaren gañean.

Erunt signa in sole et Luna, Luc. 21

Noiz artean enzungor egingo diezu, bekataria, zure Jaun onak bidaltzen dizkitzen gaztiguai? Noiz artean iseka egin bear dezu Jaun beraren ontasun, pazientzia, eta urrikimentuaz? Noiz artean zure Jainkoaren ordean maite izan bear dituzu emengo gauza zirzillak, onrak, izanak, eta aztu bear dezu zure zori onaz? Noiz artean lau oñekoen eran bizi nai dezu aragiaren atsegín lizunen ondoren? Zaude gutxi bat, eta enzun itzatzu Eliz Ama Santaren deiak. Deitzen dizu, eta begien aurrean ipintzen denbora onetan mundu guziaren Juez Jesu-Kristoren etorrera. Agertuko dira, esaten dizu S. Lukasekin; agertuko dira etgorrera onen siñaleak eguzkian, illargian, izarretan; eta itsasoaren bagen orroakin izango da lurrean jendeen asaldazio, eta ikara. Erkituko, ta igartuko dira gizo-

nak, zer mundu guziari gertatuko ote zaion begira daudela; izarrak berak-ere alabaña beren lekuak, eta ibillera ederra galdurik orpoetatik atera dirala iduringo due. Orduan ekusiko du mundu guziak gizonaren semea, edo Jesu-Kristo odei batean datorrela esku, eta majestade andian. Gauz oek asitzen diranean begira goronz, eta altxa buruak, zeren aldean arkitzen dan zuen erredenzioa, eta Zeruko Erreñua. Begira pikoari, eta arbola guziaz: frutua ematen asitzen diranean, ezagutzen dezue, aldean dala uda. Era berean gauz oek gertatzen dirala dakutsuenean, jakin ezazue, alderatu dala Zeruko Erreñua. Egiaz esaten dizuet, Juduen jatorria aitu baño len gertatuko dirala gauz oek. Ona, Kristaua, zer berriak ematen dizkitzun gaur Eliz Ama Santak S. Lukasekin. Berri ikaragarriak bekatariarentzat, baño berri Jesu-Kristok berak emanik S. Lukasek letraz ezarriak.

Jesu-Kristoren abendu, edo etorrerak dira bi; igarozan bata, etorkizun arkitzen da bestea. Aurrenekoan agertu zan jaunzi umillean, gugatik gurutzean bizitza ematera, ta gure, ta bere Aita Betikoaren arteko pakeak egitera. Bigarren etorreran agertuko da mundu guziaren Jaun, eta Juezari dagokan anditasun, eta gloria guzian. Begiratzen dio Eliz Ama Santak alde

batetik Jesu-Kristoren aurreneko etorrerari, eta poztutzen da, abenduko Meza, ta errezoak adierazten duen bezala. Begiratzen dio beste aldetik Jesu-Kristoren bigarren etorrerari, eta Kristaurik geienen bizitza lotsagarriari; ta ekusirik oen gañera datozen betiko suak, eta garrak; betiko nekeak, eta negarrak, naigabetzen da, ta uzten du gloriaren kantatzea eta zenbait lekutan beltzez jauntzierazo oi zituan aldareakere, aste santuaren aurretik egiñ oi dan bezala. Argatik asitzen da gaur bere ume guziai otsegiten, azkenkontuetako egun ikaragarira begien aurrean ipintzen diela. Zertarako egiten ote du au Eliz Ama Santak? Zertarako, gu bekatutik, eta bekatuaren bideetatik kenerazteko baizik? Eliz Ama Santak nai duana eitera mugi zaitezzen zu Kristaua, itzegingo ditzut gaur azken-kontuetako, edo juizioko egun andiaren gañean. Aditzera emango dizut lenbizia, munduaren bukaeran etorriko dala Jesu-Kristo guziok juzgatzera, ta bakoitzari dagokan saria ematera. Bigarrena, zertarako dan Jesu-Kristoren etorrera andi au. Irugarrena, zer siñaleak agertuko diran etorrera onen aurretik. Enzun nazazu kontuz bekataria.

§ I.

Bagabiltza oraiñ mundu onetan bakoitza bere bidean, eta geienak Jaunaren egun andiaz aztuak. Batzuek onra, antuste, eta arrotasunaren aizeai darraiztela; besteak ondasun, eta irabazien ondoren, usura, tratu zikiñ, eta kutiziaren gogorazioetan erkituak bizi dirala. Besteak gorputzaren atsegiñ lizunen billa usarrean bezala. Baña erabakia dago gizonarentzat iltzea beiñ eta ondoren juzgatuak izatea, dio S. Paulok: *Statutum est hominibus semel mori; et post hoc iudicium*. Jesu-Kristo Jainko, ta gizon egiazkoa da gure kontu artzalle, eta Juez guztiz Jakintsu, zuzen, eta Guzialduna; ez zeren Aita, eta Espiritu Santua-ere Juez izango ez diran, Trinitadeko iru Personak alabaña esku, eta podere bat due, eta irurak Juez izango dira; baizik zeren juez izatea jakiundeari dagokan gauza dan, eta era onetako gauzak Semeari berezkiro ditxeozkanak bezala aditzera ematen diran Eskritura Santan. Gañera Jesu-Kristo izango da bada gure kontu artzalle, ta Juez, ez Jainkoa dan bezanbat bakarrik, baita gizona danez-ere. Jesu-Kristo ipiñia dago bizen, eta illen Juez, dio S. Pedrok: *Ipse est, qui constitutus est a deo iudex vivorum, et mortuorum*. Eman

zior Semeari juzgatzeko eskua, zeren gizona, edo gizonaren Semea dan, dio Jesu-Kristok berak: *Potestatem dedit ei iudicium facere, quia filius hominis est.* Itz oetan aditzera eman zuan Jesu-Kristok, S. Agustiñek dionez, zala gure Jueza Jainkoa dan eta gizona dan bezanbat.

Itzen zeranean, bekataria, zure gorputza geratu-ko da obian arren baza izateko, baña anima joango da Jesu-Kristori bizitza guziko kontuak ematera. Bere jakiundearekin, argia bere eskuetan artuta bezala, miratuko ditu zure obra onak, eta gaiztoak, zure itzak, pensamentuak, eta lan guziak; zure zabarke-riak, eta bekatu itsusiak. Ala adirazten du berak Sofonias Profetaren autik: *Scrutabor Jerusalem.* Era oetan miraturik zure bizitza guzia, emango du dagokizun sententzia, S. Juanen autik esaten digun bezala: *Dabo unicuique vestrum secundum opera sua;* ta zu joango zera irabazi dezun lekura. Ill zan aberats kutiziaz betea, ta jatxi zan aren anima infernura; ill zan Lazaro beartsua, ta joan zan onen anima Abrahamen aldera. Onela bakoitzaren anima eriotzaren ondoren Jesu-Kristoren aurrean agertzea, eta juzgatua izatea da *bakoitzaren juizioa, eta partikularra* deitzen diogu-

na; eta juizio au ezta betikotasun guzian ez aldatuko, ez desegingo.

Bakoitzaren juizio onez gañera izango da munduaren bukaeran beste bat *guziena* esaten zaiona. Bukatuko da mundu au bere iduripen, zorakeria, losentxa, eta tranpa guziakkin; eta orduan munduaren Salbatzallea, bere Ama maitagarriak, Zeruko Aingeru ta doatsu guziak inguratzen duela, odei eder batean etorriko da biziak, eta illak, edo onak, eta gaiztoak juzgatzera. Au anziñatik aditzera eman zuen Isaiasek, Zakarias, Habakuk, Dabid, eta beste Profetak. Au adizera eman zuan S. Juan Bautistak. Au aditzera eman zuan beiñ, berriz, eta askotan Jesu-Kristok berak. Au atzenean aditzera eman zuen Apostoluak, Kredoaren zazpigarren Artikuluan esan zue-nean: *Andik etorriko da biziak, eta illak juzgatzera*. Eta dotrinak Jesu-Kristoren gizatasunari dagozkan Artikuluen artean zazpigarrena ipintzen du gaurko misterio onen gañean, diola era onetan: *Zazpigarrena sinistea, etorriko dala biziak, eta illak juzgatzera, esan nai du: onai gloria ematera, zeren aren mandamentu Santuak gorde zituen, eta gaiztoai pena betikoa, zeren gorde etzituen*. Ona, bekataria, misterio bat zuk, nik, eta guziok siniten deguna. Baña siniste

oni dagokan eran bizitu gera? Eta gaur bertan nola bizi ote gera? Baña goazen aurrera. Dakuskun, zertarako dan Jesu-Kristoren etorrera andi au.

§ II.

Baldiñ eriotzaren une, edo puntuan bertan juzgatu izango bada bakoitza; baldiñ orduko juizio, eta sententzia ezpada betiraunde, edo eternidade guzian aldatuko, edo desegingo, zertarako ote da bigarren juizio *guziena* deritzana? Eta zertarako azkeneko egun andi artan Jesu-Kristo zerutik lurrera etortzea? Gauz andi, eta askotarako izango da Jesu-Kristoren etorrera au, eta benik beiñ mundu guziari adierazteko, zeñ Letart, edo Probidentzia jakintsu, eta zuzena izan duan gauza guzietan. Ala dio S. Agustiñek: *Facturus publicam justitiae suae fidem*. Oraiñ ekusten, aditzen, eta gertatzen diran gauzakkin miretsitzen gera, eta bear bada esaten degu: *Nola du Jaunak pazienza? Nola gertatzen dira gauza oek?* Ekusten degu, Katolikoek errietan ugari ereiten dala Jainkoaren itzaren azia, ta geiena erne-ere gabe galtzen dala, eta denbora berean Asian, Afrikan, Amerikan

bazter andiak arkitzen dirla nork itz Santu au aditze-
ra eman ez duela. Ekusten degu gaiztakeriak, lapu-
rretak, urdakeriak gañez egiñ duala munduan. Ekus-
ten ditugu erri asko galduak, erriaren onari dagozkan,
neurriak artu gabez. Ekusten degu, beldur gabe egi-
ten dirala bekatuak, zeren Jaunak bereala ematen ez
duan geienean bakoitzari dagokan sententzia, Eskritu-
ra Santan esaten zakun bezala: *Quia non profertur
cito contra malos sententia, absque timore ullo filii
hominum perpetrant mala*. Ekusten dira munduan
zenbait gizon, eta emakume etxean guztiz bearrak,
eta adiñik onenean iltzen dirala, utzirik umeak buru
gabe, eta bizimodurik ikasi gabe; eta denbora berean
beste gizon edo emakume bat etxean, eta errian kal-
tea besterik egiten ez duana, adiñ andira iristen dala,
ta bultzaka-ere ezin beste mundura bidaldu duela.
Ekusten dira beiñ baño geiagotan Kristau onak neke,
gurutze, eta samintasun andien artean, eta gau, ta
egun nekatzen dirala-ere ezin iritsi duela arto puska
bat beren, eta umeen gosea iltzeko; ta beste
batzuek, bekatuaren bideetan baizik nekatzen ez
diranak, eta ejemplo gaiztoa ematen duenak; eta
alaere osasunan, eta ondasunetan nai bezala arki-
tzen diranak, eta bear bada munduak alabatzen

dituala. Itzen danean, artzen du oetako bakoitzak irabazi duan saria, baña eztakigu, zer igarotzen dan orduan eta ekusten diran gauzak arrituak bezala utzitzen gaitue. Ala gertatu zitzaion Dabidi, ekusirik gaiztoak eraz, eta ondasunez beteak. Ala gertatu zitzaion Job Santuari-ere, eta zion: Zergatik bizi dira gaiztoak, eta izan dira ondasunez beteak? *Quare ergo vivunt impii, et sublevai sunt, sonfertatique diviliis.* Argatik etorriko da Jesu-Kristo azken kontuetako egunean, eta aditzera emango dio mundu guziari, nolako jakiundez, eta zein neurri zuzen, eta miragarriakin iduki duan guziaren kontua.

Etorrera au izango da gañera mundu guziaren aurrean biur dakion Jesu-Kristori zor zitzaion, eta gaiztoak ainbeste eratan galdu dioen onra. Nork ezta-ki, nere Kristauak, zenbat alegiña egin, eta egiten duen Satanasek, Juduak, herejeak, Kristau gaiztoak Jainkoaren Seme, eta munduaren Salbatzalle Jesus maitagarriari dagokan onra kentzeko? Esan bezee ezperen emen gizonen artean ekusi zituan bidegabeak. Esan bezee eman ziozkeen azoteak, arantzazko koroak, eta gurutzeko eriotzak. Esan bezee gurutzean zegoan denboran, eta gero egin ziozkeen iseka, ta desonrak. Esan bezee atzenean geroztik hereje, ta

Kristau gaiztoetatik ekusi dituan txarkeri, ta bidegabek. Orain ixillik dago, baña egun andi artan agertuko da mundu guziaren aurrean gure Jaun, Errege, ta Jueza bezala, ta alatzat ezagutuko, ta adoratuko due, ez onak bakarrik, baita gaiztoak-ere gogoaren kontra bederik. Begiratuko dioe gurutzean illerazo zuenari, eta geratuko dira mutuen eran: *Omnis iniquitas opprobabit os suum.*

Jesu-Kristo gure Jaunak bere onrari ezezik begiratu nai dio bere adiskide, eta serbitzarien onrari ere; eta beragatik Jesu-Kristoren azkeneko etorrera izango da onen onrarako, eta gaiztoen lotsatzeko. Bizitza au da gau illun bat bezala, eta onek dirauen artean ez dira askotan ezagutzen onak, eta gaiztoak. Sartzen da Elizan bere denbora birauen, gorrotoaren, kutiziarren, murmurazioaren bekatuetan garotzen duan emakume bat, ta jartzen da andre, modestia, errespeto, eta beste modu ederretan bizi dan, baten aldean. Sartzen da beste emakume, edo neskatx ergel ura. Sartzen da arako askorentzat bekaturako biska, ta lazo izan dan neskatx ez garbi ura, ta jartzen da birtutearen bidean bizi dan baten ondoan. Sartzen da gizon erriaren, eta lagun urkoaren gauzetan beti sisetzenari dan bat. Sartzen da arako, otsoaren eran

animak galtzen dabillen, mutil ura, eta jartzen da Jaunaren beldur santuan bizi diran gizon, eta mutill presuren batzuen aldean. Eztakigu nor dan, eta askotan onra, ta alabanzarik andienak daramazki gaiztoak, eta ona geratzen da zokoan aztua. Baña bizitza onetako gaua igarotzen danean, agertuko du Jesu-Kristok nor nor geran; ta agertuko du alako eran, non bakoitzak argiro ekusiko duan bere bizitza guzia, eta bestena: bere eta beste guzien obra on, eta gaiztoak, baita biotzeko lekurik illunen, eta ezkutatuena-ere. Ala esaten digu S. Paulok: *Illuminabit abscondita tenebrarum, et manifestabit consilia cordium*. Baldin noizbait utsegiteren batzuek gertatu bazitzaizkitzun, eta gero Jaunagana biurtuik bizitza onari jarraitu badiozu, ez dezu lotsarik batere ekusiko, zeren ondorengo damuaren, negarren, konfesio, ta obra onen edertasunak estaliko dituan zure bekatuak ta estaliko ez nola nai, baizik txit eder dirudien eran. Ala ekusi zuan Marina Eskobar beneragarriak Santa Maria Magdalena. Zori onekoak, dio Dabidek, beren utsegiteak barkatuak, eta estaliak dauzkeenak. *Beati, quorum remissae sunt iniquitales, et quorum tecta sunt peccata*. Baña baldin enzungor egin badiezu Jaunaren gaztiguai; baldin bekatuaren bideak ez utzitzeagatik

igesi ibilli bazera Jaunaren itzagandik; orduraño biotzean korapillatua, eta ezkutatua iduki arren zure gaiztakeria, ekingo dizue erditzeko miñak, Oseas Profetak dion bezala, eta zure lotsa andiarekin agertuko, ta ekusiko dira zure bekatuak mundu guziaren aurrean. *Colligata est iniquitas Ephraim, absconditum peccatum ejus. Dolores parturientis venient ei.* Ai! zu gizon erriaren gauzak ixillka sisatzen bizitu zerana, edo kargudun izan zeranean zere lanari baizik begiratu ez diozuna! Ai! zu zar berde, edo mutill zañ-ezurretaraño gaiztakeria igarorik zaudena! Orain ixillik, eta ezkutuan daude zure sisatzeak, zure zabarkeriak, eta emendik etorri diran kalteak; orain estaliak bezala daude zuk zere bakarrean, eta bein batarekin, gero bestearekin egin dituzun bekatu zikiñak; baña badator kontuen egun andia, ta ezta gauza ain estalirik, non ta agertuko eztan, ain ezkutaturik non jakingo eztan dio Jesu-Kristok. *Nihil enim est opertum, quod non revelabitur, et occultum quod non scietur.* Ai! zu emakume, edo neskatx, aurtasunetik ergelkeriari, jolas, eta ibillera lizunai ederretsi zeniena; itsusiak, eta nazkagarriak dira zuk zere bakarrean, zuk zure lagunakkiñ, zuk urliarekin, eta sandiarekin egin dituzun lanak. Ezkutuan daude orain lan oriek, baña

badator guzia agertuko duan ordua: *Nik agertuko ditut*, dio Jaunak, zur lan itsutsi oriek, eta ipiñiko ditut mundu guziaren begietan: *Revelabo pudenda tua in facie tua, et ostendam gentibus nuditatem tuam*. Ain andia izango da bekatariak orduan artuko duan lotsa, non naiago izango lukean infernuko zokorik illunean ezkutatua egotea.

Ezta onenbesterekin kontentatuko Jesu-Kristo. Onen artean izango dira asko berak onak izateaz gañera beste asko Zerurako bidean ipiñi zituenak, dala erakuste ederrakkin, dala ejemplo onakkin: egin dezagun kontu Apostoluak, Elizako gurasoak, Erlijioko ordenen buru-nagusiak, Predikari, ta konfesoreak, ta guraso kontuzkoak. Ill ziran oetatik asko, ta illko dira betiko azkeneko eguna baño len, baño utzi zuen Zerurako azi ederra, ta azi au erneaz, errotuaz, zabalduaz joango da; eta eztaki munduak noraño ugaritu diran, edo ugarituko diran azi onen frutuak. Era berean gaiztoen artean asko, edo geienak izango dira, berak gaiztoak izateaz gañera beste askori infernurako bidea erakutsi ziezanak, edo liburu gaiztoekin, edo itzez, edo ejemplo gaiztoz: oetatik dira herejeen buruak, aur inozenteai bekatua erakusten diezanak, guraso, eta errietako kargudun zabarrak, beka-

turako biska, eta lazoak prestatzen dituen mutill, neskatx, eta beste bitartekoak. Oek illta-ere geratuko da infernurako azia; ta azi au erneaz, eta zabalduaz joango da, eta ezta kigu norañoko kalteak ekarriko dituan. Baña Jesu-Kristok, onai dagoten onra guzia emateko, eta gaiztoak osotoro lotsatan ipintzeko, mundu guziaren aurrean agertuko du, zenbat anima irabazi zituen batzuek, zenbat galdu besteak, zenbat mesede egin zuen onen erakuste, ta ejemplo onak, zenbat kalte gaiztoenak.

Atzenean Jesu-Kristoren etorrera au izango da onak atsegin-kontentuz, ta gaiztoak penaz beterik utzitzeko, ez bakarrik animaren aldetik, baita gorputzaren aldetik-ere. Egin bazituen onak Zerurako irabaziak, eta gaiztoak infernurakoak, gorputzak-ere lagun izan zituen irabazi oetan, eta beragatik nai du Jaunak, denbora betetzen danean piztu ditezen oek, eta animakin batean parte izan dezeen edo atsegin-kontentuetan, edo penetan, eta eman nai die sari au mundu guzia begira dagoala. Zeiñ poz andia anima onentzat egia oek gogoan erabiltzea! Baña denbora berean zer pena! Zer illuntasuna, eta tristurak gorputzaren atsegin lizunak, ibillera gaiztoak, eskuka loiak, keñada lotsagarriak, itz desonestoak utzitzeko biotzik

ez duan, bekatariarentzat! Orra, Kristaua, zertarako izango dan bigarren juizio *guziena* deritzana, eta azkeneko egun andi artan Zerutik lurrera Jesu-kristo etortzea. Noiz izango ote da etorrera au? Galde au egin zioen Jesu-Kristori Aposloluak, baña atzeratu zien beren jakin-naia esaten ziela: eztagokizue zuei Aita Zerukoak beregan gorderik dauzkan denborak jakitea; Aitak berak baizik eztu egun, eta ordu aren berririk, ez eta Zeruko Aingeruak berak-ere. Alaere Jaunak aditzera eman zituan Eskritura santan zenbait siñale, ta oek orain ukitu bear ditugu, laburtxo bederrik.

§ III.

Jesu-Kristo gure Jauna munduari kontuak artzera etorri dedin baño len agertuko dira asko siñale. Entzun itzatzu oetatik batzuek. Lenengo siñalea, baña urrutikoa. Altxako dira jendeak jendeen, Erreñuak Erreñuen kontra; izango dira gerrak, gosea, izurria. Siñale au aditzera eman zigun Jesu-Kristok berak, baña siñale onekin ezta mundua konturako. Bigarren siñalea: ugarituaz joango da Kristauen

artean gaiztakeria, ta bekatua, eta oztuaz Jainkoaren, eta lagun urkoaren ongina, ta amorioa. Zabartuko dira gurasoak, eta umeak izango dira eskergabeak. Zabartuko dira, dio S. Hypolito anziñako martiriak, animen arzaiak, eta jendeak izango dira errebesak beren artzaiantzat. Siñale au ere eman zigun Jesu-Kristok berak. Irugarren siñalea: munduaren bazter guzietan, Erreñu, Probinzia, eta erri guzietan aditzera emango da gure Lege Santa. Oraindik leku, ta bazter asko dira, batezere Amerikan, ezagutzen ez diranak, ta gure legearen berririk ez duenak, baña munduaren bukaera baño len aditzera emango zate guziaz. Siñale au ere aditzera eman zigun Jesu-Kristok. Laugarren siñalea: Ante-Kristoaren, arako Jaungoikoaren, Jesu-Kristoren, eta Eliz Ama Santaren etsai ikaragarri aren etorrera. Etsai au agertu baño len Kristau-talde andiak aldegingo due, S. Paulok dionez Eliz Ama Santagandik: *Veniet discessio primum*. Eztakigu, Kristaua Eliz Ama Santagandik aldegitte au igaro dan, edo etorkizun dagoan; dakiguna da, goizaldeko bazter guziak, edo orientekoak aldegin zuela, eta Mahomaren zorakeriai darraiztela. Guk dakiguna da txit anziña ez danean, aldegin zuela Prusiak, Sueziak, Dinamarkak, Inglaterrak, Olandak, eta Alemaniako bazter askok.

Guk dakiguna da, gure egunetan aldegin duala Franziako Erreñuak. Era onetan ainbeste nekeren kostuan Jesu-Kristok ipiñi zuan Eliza gutxituaz, eta bakardade negargarri batean geratuaz dijoa. Ai! ene! eta zer izango ote da Españaz oraingo eran badiraue gaiztakeriaren ujaldeak! Gañera Ante-Kristo etorri baño len, edo denbora aetan utziko zaio kateatik infernuko dra-goitari, edo Aingeru gaiztoen, eta bekatari guzien Errege Satanasi. Jesu-Kristo ill zanean jetxi zan Zerutik Aingeru bat katea andi bat eskuan zuala, eta gaiztoen Errege au loturik ipiñi zuan infernuaren ondoan, S. Joanek dion bezala: *Et ligavit eum*, eta ala egongo da azkeneko denboretaraño; baña orduan utziko zaio bere sareak, eta lazoak zabaltzen. Sartuko da Ante-Kristoagan, eta onek aren laguntzarekin egingo ditu, nortaki zer kalteak? Egingo ditu Ante-Kristoak bere laguntzallearekin gauza miragarriak, ta mirari, edo milagroen iduripenak. Aterako ditu lurraren, eta itsasoaren azpitik urrea, zillarra, perlak, diamanteak, eta era onetan izango ditu bere eskuan jendeak lilluratzeko, eta engañatzeko bide egoki guziak. Engañatuko ditu batzuek losentxakin, eta ondasunakkin; engañatuko ditu besteak nekeen, eta eriotzaren beldurrez. Ain denbora negargarriak izango dira oek, non

Zerurako autuak diran animak berak-ere engañatuak izateko perill andian egongo diran. Ala esan zuan Jesu-Kristok berak. Kenduko ditu Sakramentuak; kenduko ditu Meza Santa, Elizetako kantu, errezo, eta gauz on guzia: aginduko du, ezagutu, ta adoratu dezeela Jainkotzat; baña Jesu-Kristok denbora danean utziko du ill otza; eta amilduko da infernura sufre erazekizko ainzira, edo osin batera, dio S. Joanek: *In stagnum ignis ardentis sulfure*. Iru urte, ta erdian iraungo du, Damielek dionez, Elizaren neke onek, eta askoren iritzian Ante-Kristoa illa izango da Olibeteko mendian, nondik Zerura igo zan Jesu-kristo.

Bostgarren siñalea: agertuko dira Henok, eta Elias Profeta, eta predikatuko due Ante-Kristoaren kontra, eta onek illko ditu. Oen gorputzak kale, edo plazetan etzango dira obirik gabe iru egun, ta erdian, dio S. Joanek, eta denbora onen ondoren piztuak izango dira. Seigarren siñalea: Juduak etzuen ezagutu nai izan Jesu-Kristo Mesias, edo Salbatzalletzat, eta illerazozu zuen gurutzean. Bekatu onen penan bizi dira itsutuak, eta gogortuak, eta Mesias, edo Salbatzalle berri baten ustean, baña aditurik Eliasek emango diezten berriak eta ekusirik Munduan gertatzen diran gauzak, ezagutuko due beren itsumena, eta darameen bide

okerra, eta biurtuko dira Jaunagana, artzen duela gure lege Santa. Au anziñatik aditzera eman zuan Malakias Profetak, eta Jesu-Kristok dio: etorriko da Elias, eta gauza guziak biurtuko ditu beren lekura: *Elias venturus est, et restituet omnia*. Azken kontuetako egunaren siñale oekin elkarren leian eren bekatuak damuz, eta negarrez desegiten ariko dirala bekatariak, esan liteke, baña ezta ala gertatuko. Iltzera dijoan eriak bere argi, edo alai uneak izan oi dituan eran izango ditu bear bada munduak-ere bere argi uneak, eta au asko adiña izango da bekatariak beren gura-txarren ondoren ibilteko; eta batzuek isekaz galdetuko due, dio S. Pedrok: Non da ainbeste bider esan zakun Jesu-kristoren etorrera: *Ubi est promissio aut adventus ejus?* Jesu-Kristok berak esaten digu, gaiztoak Noeren denboran munduaren urezko bukaera sinistu etzuen eran, ez duela ezagutuko, ta sinistuko azkeneko egun andiaren etorrera ere. Aiñ andia da bekatuak, eta griña txarak animaren begietan zabaldu oi duen lañoa, edo gandua!

Zazpigarren siñalea: aserratuko dira bekatarien kontra Zerua, lurra eta gauza guziak. Illunduko da eguzkia, eztu argirik emango illargiak, izarrak galduko due eren ibillera ederra. Eroriko dira izarrak, edo

izarren antza duen suak, eta ibaiak, ta iturriak samin-
duko, ta galduko ditue. Itsasoa asiko da orroaz
mundu guzia irintsi bear balu bezala. Asaldatuko da
aizea, eta erasoko die bekatariak turmoiakin, tximis-
ta, oñaztar, eta arri ikaragarriakin; lurrerako ditu
asko etxe, ta torre, eta arbolak sustraietatik aterako
ditu. Lurra, bekatariak bere gañean idukitzez asper-
tua balego bezala, asiko da dardaraz; erdiratuko, edo
askatuko da asko lekutan, eta irintsiko ditu etxeak,
erriak, eta an arkitzen diran gauza guziak. Asiko da
infernua lurraren zulo oetakoren batetik kea dariola;
botako ditu beregandik langosta mota batzuek aña
amorratuak, eta puzoitsuak, non bost illabetean ibilli-
ko diran bekatariak darraiztela. Zulatuko ditue, eta
oek emango duen oñazea izango da dio S. Juanek,
arrubioak ematee duanaren antzekoa. Zoratuen eran
ibilliko dira jendeak, nora iges egin eztakiela; erki-
tuak, eta igartuak iduringo due. Begiratuko dio auzo-
ak auzoari, senarrak emazteari, gurasoak umeari, eta
batak besteari, eta arrituak geratuko dira elkarren
itxura dakustenean.

Zortzigarren, eta azkeneko siñalea: agertuko da
suzko ibai, edo ujalde bat bazter guzietara zabalduaz
joango dana. Au aditzera eman zuen Isaiasek, Dabi-

dek, eta beste Profeta batzuek. Jaunaren aurretik agertuko da sua, inguratu, eta erreko ditu beraren etsaiak, dio Dabidek. *Ignis ante ipsum praecedet, et inflamabit in circuitu inimicos ejus.* Igesi ibilliko dira su onegandik gizonak. Sartuko dira torre, eta gazteluetan; igoko dira mendien gañera, ezkutatu dira lize-zuloetan, baña alferrik, zeren, noranai dijoazela, eta non nai ezkuta ditezela, atxituko dituan su erretzalle ark. Erreko, ta auts biurtuko ditu gizon guziak ala onak, nola gaiztoak; oek oñaze andiak, baña onak edo oñazerik gabe, edo noizbait izan zituen utsegiteai dagoten neurrian bakarrik nekatzen dituala. Auts biurtuko ditu erriak, jauregi, ta torre guziak. Auts biurtuko ditu urrea, zillarra, perlak, diamanteak. Auts biurtuko ditu arraiak, onziak, portuak. Auts biurtuko ditu ganaduak, egaztiak, arbolak, eta atzenean mendiak berak, eta aitzak-ere auts biurtuko ditu. Lurra, ta lurrean arkitzen diran gauza guziak erreko dira, dio S. Pedrok: *Terra autem, et quae in ipsa sunt opera exurentur.* Au izango da mundu onen bukaera, eta orduan etorriko da Jauna bizien, eta illen juzgatzera.

Ekusten dezu, Kristaua, nolako berriak ematen dizkigun gaur Eliz Ama Santak? Aditu dezu, mundu

onen bukaeran etorriko dala Jesu-Kristo guziok juzgatzera, ta bakoitzari dagokan saria ematera. Adu dezu, zertarako dan Jesu-Kristoren etorrera andi au. Adu dituzu atzenean etorrera onen aurretik agertuko diran siñaleak. Au onela izan, eta oraindañoko gure urteak igaro ditugu munduko gauza zirzill, eta aurkerien ondoren? ta galdu ditugu gure animak; galdu gure Jaungoikoa, ta betiko ondasunak? Esna gaitezen, eta lenbait len biur gaitezen gure Aita onagana. Biur zaite esaten digu: *Revertere*: zai dago, dio Isaiasek, guzaz urrikaldutzeko: *Expectat, ut misereatur vestri*. Ekin bada, bekataria, zure egiteko oni batere luzatu gabe; iristeko era onetan Jaunaren grazia, eta beraren grazian irauten dezula betiko gloria. Amen.

ABENDUAREN BIGARREN IGANDERAKO 1.a

Bekaturako bide, eta perillaren gañean.

*Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi,
mittens duos de discipulis suis ait illi:*

Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. c. 11

San Juan Bautistak, kartzelan kateakin zegoala, aditu zituan Jesusek egiten zituan gauz andi, ta miragarriak: eta bidaldu ziozkan bere ikasleetatik bi galde onekin: *Zu ote zera etortzeko zaudena, edo besterik ote da guk uste deguna?* Aditu zuan Jesusek S. Juanen mandatua, eta eranzun baño len, mandatariak begira zeudela, egin zituan zenbait mirari, eta esan zien: *zoazte, eta aditzera eman giozkatzue Juani aditu, eta ekusi dituzuen gauzak:* Itsuak ekusten due, errenak errenerarik gabe dabilta, lepradunak garbitzen dira, gorrak aditzen due, illak piztutzen dira, eta biotz umildunak ongi entzuten, eta artzen ditue Zeruko erreñuaren berriak. Berri oekin joan ziran S. Juanen mandatariak, eta orduan asi zan Jesus an arkitzen ziranen aurrean S. Juan alabatzen. Nor, edo zer ekus-

tera irten zerate eremura? esan zien. Gizon aldakor, kañabera bezala edozeñ aizerekin beñ batera, gero bestera dabillenen bat? edo gizon janzi eder-leunakin agertzen danen bat? Baña onelakoak bizi oi dira, ez eremuetan, baizik Erregeen Jauregietan. Zer ekustera joan zerate bada eremura? Profetaren bat? Baña nik esaten dizuet, Profeta baño ere geiago dala Juan. Onez esana, eta letraz ezarria dago: *Nik bidalduko det zure aurretik nere Aingerua, eta onek prestatuko ditu zure etorrerarako bideak.*

Ona noraño altxa, eta laudatu zuan S. Juan Jesu-Kristok berak. S. Juanek Jaunaren Aingeruak bezala, egin zuan alegiña, gizonen biotzak presta zitezzen Salbatzallearen etorrerarako beren utsegiteen damuz, eta urratzen zituela bekatuaren bide, eta sareak; baña añ andia da bekatuaren bide, eta sareetan bizi danaren lilluramentua, eta itsumena, non asko izan etzan zenbaitentzat, bekatuaren bideak utzierazteko, S. Juanen alegiñ guzia. Oetatik ziran Herodes, eta Herodias. Herodes Erregeak kendu zion bere anaia Feliperi Herodias bere emaztea, ta onekin bizi zan gaizki, eta esanmesa andietarako bidea ematen zuala. Joan zitzaion S. Juan Erregeri eta bere aurpegi-ra esan zion, ezin egin zezakeala alako guazarik. Eta

zer atera zuan S. Juanek? Herodesek etzuan izan biotzik bekaturako bidea urratzeko: eta Herodiasi aintbesteraño erazeki zitzaion S. Juanen kontra, non etzan sosegatu Santua karzelan katez beterik ipiñerazi zuan artean. Atzenean kendu zioen Santuari lepoa Herodiasen gorrotoari atsegin egiteko. Aditzen dezu, bekataria, zeñ nekez uzten diran bekaturako bide, eta perillak, oetan itsutzen bada bat? Au bera gerta eztakizun zuri ere, itzegin nai ditzut bekaturako bide, eta perillaren gañean. Aditzera emango dizut, lenbizia: zer, eta zenbat gisatakoa dan bekaturako bide, ta perilla. Bigarrena, nola lilluratzen, eta itsutzen duan bekataria, andik irten ez dedin. Atzenean ukituko ditut bekatariari emendik etorri oi zizkan ondoren negargarrietatik batzuek. Baña billa dezagun lenago Espiritu Santuaren argia, bitarteko ipintzen degula Birjiña txit Santa, Aingeruarekin batean agur egiten diogula. *Abe Maria.*

§ I.

Asko dira Kristauen artean bekaturako bide, eta perill urkoan bizi diranak, eta alaere ezagutzen ez,

edo ezagutu nai ez duenak. Oek nekez irtengo dira bekatuaren mendetik, erakusten ezpazate argiro, zer, eta zenbat gisatakoa dan bekatuako bide, eta perilla; eta au da, bekataria, zuk oraiñ aditu bear dezun gauza kontuz, eta bekatuaren kateak urratze-ko asmoarekin.

Bekaturako bide, eta perillaren izenez aditzen da artarako bidea ematen digun edozeñ gauza. Orregatik ez da Zeruan, eta ez da lurrean guretzat bekatu-rako bidea, eta perilla ekarri ez lezakean gauzarik; ainbesteraño alabaña gaude gaitzeronz makurtuak, non edozeñ edozeñ gauzak kuturtu gintzakean beka-tuan erortzera, edo gogoz, edo bestela. Alaere ez dira berdiñak bekatuako bide, eta perill guziak. Bata da *urrutikoa*, eta onela deitzen zaio, zeren beregandik urruti daukan bekatua, eta gutxitan amilderazo oi duan artan. Bazatoz Elizara, eta ekusten dezu gizon, edo emakume bat ongi janzia. Ekuste au uts-utsik, edo beste salsagarririk ez duala, bekatuako bide, eta perill *urrutikoa* da, eta etzaude onelakoetatik iges egitera beartua; bestela irten bearrak giñake mundu onetatik. Bekaturako beste bidea da *urkoa*, edo *urre-koa*. Deitzen zaio *urkoa*, zeren bide, ta perill onetan dagoana, edo jartzen dana sarritan erori oi dan beka-

tuan, edo beintzat erortzeko perill andia dan saiets guzietara begiratu ezker. Egizu kontu, an, edo emen jai egunetan biltzen dirala arako etxe artan mutillak, eta neskatxak: aritzen dira denbora puska batean karta-jokoan, eta ondoren, edo bitartean izan oi dira izketa loiak, keñada lotsagarriak. Batzarre onetara joatea da bekaturako bide, eta perill urkoa. Eta alae-re badira etxeetako buruak onelako gazteen batzereari leku ematen diezanak! Etxeetan gertatzen dana bera gerta diteke iñuteriko triska ez garbietan, festa denboran, eta basoan ermiten aitzakian egiñ oi diran gazteen batzarreetan: eta gisa berean urliarekin, edo sandiarekin izketan egotearekin. Itz batean, baldin alde guzietara begiraturik, bekatuan erortzeko perill andia bada, orduan bekaturako bide, eta perilla izango da *urkoa*. Eta kontu: *bekatuaren* izenez ez da obrazkoa bakarrik aditzen, baizik gogoz, itzez, eskuz, edo beste edozeñ gisatan egiten dana. Emendik dator gazte ergelak gaitzera kolokatzen asitzen diranetik zentza ditezen artean, bekaturako bide eta perill urkoetan bizitzea, asko beintzat, zeren gogoz, itzez, eta eskuz erortzeko bideetan pozik ibilli oi diran; eta ezertan artzen ez ditue onelako gauzak. Galde bekie zenbaiti, *badezu ezer seigarren manda-*

mentuaren kontra? eranzungo due: ez Jauna. Beldurtzen da Konfesorea, zerbait izan litekeala, eta galdeztzen dio: *izan da onelako gauza? Bai, Jauna. Alako gauza? Bai, Jauna.* Nola bada esan dezu ez dezula ezer seigarrenaren kontra? Jauna, orrelako gauzak ez ditut ezertan artu. Emendik dator onelako ergelen konfesioak geienez gaiztoak izatea, zeren bekaturako bideak uzteko asmo egaizkorik ez oi duen.

Bekaturako bide, ta perill urkoa izan diteke, ez seigarren mandamentuko gauzetan bakarrik, baita beste mandamentuai dagoztenetan ere. Ala zenbaitentzat izan oi da jai egunetan ostatura, edo beste edariak saltzen diran tokira joatea orditzeko, eta pakea galerazteko bide, eta perill urkoa. Beste batzuentzat jokoa. Batzuentzat saldu-erosia, besteentzat beste gauzaren bat. Orregatik bekaturako bide, eta perillaren gañean esaten dana ez da seigarren mandamentuaren kontra gaizki bizi diranentzat bakarrik aditu bear, baizik edozeñ mandamenturen kontra bekatu egiteko bide, edo perill urkoan bizi diran guzientzat.

Bekaturako bide, eta perill urkoa batzuetan da *borondatearen kontrakoa*: esan nai det, ezin batek utzi dezakeana, ala nai balu ere. Badijoa bat itsasoan,

eta an arkitzen da bekaturako bide urkoan, edo sei-
garren, edo beste mandamenturen baten kontra.
Bekaturako bide oni deitzen zaio borondatearen kon-
trakoa, zeren ezin, nai balu ere, aldegin dezakean
bide onetatik, itsasoan dihoanak. Au bera gerta dite-
ke karzelan dagoan batekin. Era berean borondatea-
ren kontrako bide, eta perillaren izena eman oi zaio,
baldin kalte andi gabe ezin utzi baditeke; baña asma
alditezkean kalte guziak etorri bear balue ere, utzi
bear du bekataria bekaturako bide ta perill urkoa,
utzi gabe ezin garaitu badu; lenago da alabaña anima
beste gauza guziak baño. Bekaturako beste bide, ta
perill urkoa da *borondatezkoa*, zeren ala nai duanak
kalte andi gabe utzi dezakean: eta onelakoak izan
dira geienak.

Gerta diteke gauza bat berez gaiztoa ez izatea,
eta giaztoa izan ordean ona izatea, eta ala ere asko-
rentzat bekaturako bide, eta perill urkoa izatea. Ala
eguzkiaren, eta izarren edertasuna ona da, eta alae-
re anziñako denboran askorentzat izan zan idolatria-
rako bidea. Era berean gauz ona da ezkonza, errieta-
ko kargudun izatea, baña askorentzat dira bekatura-
ko bide, eta perill urkoa. Orregatik aldegin bear dezu,
Kristaua, zuretzat bekatura bide, ta perilla dakarten

lagun gaizto, izketa, eta jolasetatik, *besteak badijoazela* aitzakiatzat eman gabe. Bearbada ez da aentzat zuretzat adiña perill, edo ezagutzen ez due: eta nolainai, dijoazela, edo ez dijoazela besteak, zu beartua zaude bekaturako bide, eta perill urkoetatik aldegiterra. Añ gauza bearra da au, non bekaturako bide, ta perill urkoan bere naiez bat jartzea bera bekatu dan, perillari dagokan bekatua egitea zerbaitek eragotziko balio ere. Egin dezagun kontu urliarentzat jai arratsetan ostatura joatea dala orditzeko bide, ta perill urkoa. Badijoa alaere, baña biurtzen da etxera ardorik ukitu gabe, zeren aitu dan. Ez da ordi, baña ordi baliz bezala bekatu egiten du, zeren bere naiez artarako bide urkoan jarri dan.

Bekaturako bide, eta perill *urkoa* izateko ez da sarritan bekatuan erori bearrik, baldin era danean erortzen bada bat. Urtean beñ da iñuteria: urtean beñ izan oi dira erri bakoitzeko festak. Urtean beñ leku batzuetan ermiten aitzakian egiñ oi diran mutill, eta neskatxen biltze, edo batzarreak. Alaere askorentzat denbora oek dira bekaturako bide, eta perill urkoak, zeren erori izan diran, eta erortzen diran, edo gogoz, edo itzez, edo keñadaz, edo bestela. Erri batera etorri oi omen zan Santuren baten argiarentzat eskatze-

ra urtean beñ ermitaño bat aker batek baño bizar andiagoa zuana. Artzen zuen etxe batean eskea bukatu artean, eta etxeko alaba, edo urliaren batekin igarotzen zan ermitaño bizar atsa bear ez lirakean gauzetara. Au gertatzen zan urtean beñ bakarrik; alaere etxe artako sarrera bizar-atsarentzat zan bekaturako bide, eta perill urkoa, zeren era zetorre-nean erortzen zan. Baña ezertan artzen dira bekaturako bide, eta perill urko oek? Ez noaski. Igarotzen da iñuteria, igarotzen dira festa denborak, eta gazte ergelak prest egongo dira denbora datorrenean, leneko bide, eta perill urkora joateko, eta urte barrunbean egin dituen konfesioak izango dira geienean gaiztoak, zeren ez duen asmo egiazkorik bekaturako bide, eta perill urkoak utzitzeko.

Atzenean bekaturako bide, ta perilla izan diteke urkoa bekaturik egiñ baño ere lenago, baldin saiets guzietara begiraturik, erortzeko perill andia bada. Josef anziñakoa, Jakoben semea, etzan bere etxeko-andrearekin bekatuan erori, baña zegoan etxean egon zan baño geiago egotea izango zan bekaturako bide, ta perill urkoa, zeren orpoz orpo zerraikion emakume gaizto ura bekatu eragiteko, eta onen atzaparretan kapa utzirik iges egin zuan etxetik. Au bera

gerta diteke serbitzen dabiltzanakin zenbait aldiz. Suerteak ematen dio bati nagusi bat atsegin lizunetara itsutua, ollakoia, eta fruta guziak dastatu nai ditua: ekiten dio, gerra eman ez garbitasunaren kontra, baña sendoro aienatzen ditu tentaldi guziak. Ez da oraindik erori, baña denbora luzean onelako etxean egotea izango litzake bekaturako bide, eta perillurkoa, gizon jakintsu askoren iritzian.

Ekusten dezu, Kristaua, zer eta zenbat gisakoa dan bekaturako bide, ta perilla? Ta gauz onela badira, diran bezala zenbat izango dira bekaturako bide, eta perillurkoan bizi diranak? Eta perillonetatik lenbait len irten ordean lilluraturik, eta itsuturik eren egoera gaiztoan dirauenak? Au nola gertatzen dan, dakuskun oraiñ.

§ II.

Anima bat bekatuaren bide, eta perilletan nastutzen danean, illuntzen zaio adimentua, eta gogortuaz dijoakio biotza. Baditu begiak, eta ez du ekusten betiko su, eta garren artean amiltzeko zorian dagoala: eta bekatuaren bide, ta saretik irten ordean, an dago

Illurraturik, eta itsuturik, eta andik ez irteteko milla aitzakia asmatzen, eta billatzen ditu. Entzun itzatzu bekataria oetatik batzuek.

Lenengo aitzakia: egia da, urlia nere etxean egoitea, edo onara etortzea neretzat dala bekatuako bide andia; baña ezin nik etxea utzi dezaket, eta ez eskurik det aren etortzea eragozteko. Atozea, urlia, orrek gorputzaren bizitza kendu nai balizu, zer egingo zenduke? etzenduke alegiñean iges egingo? Etzenduke deadar egingo? Etziñake, ala bear baliz, kontu emango zure gurasoari? Ori bera egin bear dezu bada animaren bizitza kendu nai dizun ori zeregandik aienatzeko. Iges egizu orregandik infernuko otsoagandik bezala. Egizu deadar, ala bear bada. Esangiozu, ezpadizu pakean utzitzen, kontu emango diozula gurasoari, edo besteren bati. Atzenean au asko ezpada bekatuako bideak urratzeko, esan giozu gurasoari zer gertatzen zatzun urliarekin, eta gurasoak artuko ditu bear diran neurriak. Jauna, gurasoari esaten badiot, galduko du urliak bere izen ona, edo fama gurasoarekiko. Galtzen badu, ori gertatuko zaio bere kulpaz, zeren zuk kontuan ipiñi zenduan.

Bigarren aitzakia: aitortzen det Jauna, oraindaño bizitu naizala bekatuako bide, eta perill askotan:

denbora batzuetan joaten nintzan etxe batera jokatzeke aitzakian, eta oraiñ ere joaten naiz batzuetan. Urte askoan joan naiz iñuteriko dantzetara, eta era berean erriko, eta inguruetako festetara. Gañera bi urliarekin izan det adiskidetasun andia, eta oraindik ere batarekikoak badirau. Denbora orietan izaten ziran itz loiak, keñadak, musukak era zetorrenean. Konfesoreak iñoiz esan dit, aldegin dezadala bekaturako bide, eta perill oetatik; baña ez det arretarik ipiñi konfesoreak esan didana egiteko; oraiñ asmoarekin nator berorrek agintzen didana egiteko, eta eman bear dit absoluzioa. Zer diozu bekatari itsua? Elizak, Rituala esaten diogun, liburuan dio: bekaturako bide, eta perill urkoa utzi nai ez duenai etzatela eman bear absoluzioa. S. Karlos Borromeok esaten digu, len konfesoreak kontuan ipiñi ondoan, bekaturako bideak utzi ez dituan bekatariari etzaiola absoluziorik eman bear, bide gaiztoak utzi, eta bizitz onaren siñale egiazkoak eman artean. Utzi itzatzu bada beñ betiko bekatuaren bideak; presta zaite konfesio on bat egiteko, ta orduan egongo zera absoluzioa artzeko sasoian.

Irugarren aitzakia: *joango naiz arako etxe artara, non neretzat arkitzen dedan bekaturako bidea: joan-*

go naiz arako lagun, eta toki aetara; baña ez det bekatulik egingo; lenago lepoa eman. Engañatzen zera, bekataria. Bekaturako bidean bere naiez jartzen danak, jartzearekin berarekin nai du bekatua, itzez ezpada, obraz: *Perilla nai duana perillean bukatuko da*, esaten dizu Espiritu Santuak. Zuri gertatuko zatzu tximirrika, edo ingumari gertatu oi zaiona. Badabil tximirrika argiaren inguruan ariñ ariñ: begiratzen dio, eder deritza, eta zenbat eta geiago begiratzen dion, anbat geiago lilluratzen, eta txoratzen da. Alderatzen zaio argiari beñ, ta berriz, eta erretzen zaio oraiñ egoa bat, gero zankoak. Ezta alaere zentzutzen, eta atzenean erretzen da guzia, eta geratzen da illik. Ah zu bekatari, inguma, edo tximirrika guziak baño txoroago egin zerana! Zenbat aldiz au bera gertatu zatzu? Eta alaere *joango naiz, diozu, bekatura?*

Laugarren aitzakia: *joango edo egongo naiz oraindaño bekaturako bidea neretzat izan diran urlia aekin, baña uste det emango didala Jaunak bekatuan ez erortzeko laguntza, eta grazia.* Engañatzen zera bekataria; zeren Jaunak ematen dizkigu bekatuaren bideetatik aldegitiko laguntzak, baña aldegiñ ordean geren naiez sartzen bagera bekaturako bideetan, utziko gaitu gure griña txarren atzaparretan. Atozea,

zere naiez sartzen bazera karobi erazeki batean, naiko dezu erre gabe Jaunak gordetzea? Ez dezu ekusten, au dala zorakeria bat? Eta zorakeria au egin dezu, bekaturako bideetara joan zeranean, zeregan esaten dezula: *Uste det, emango didala Jaunak bekatuan ez erortzeko laguntza*. Oroi zaite zer gertatu zatzun gero. Oroi zaite iñuterian, eta festetan igaro zatzunaz, edo dantzan bertan, edo dantza ondoan ezkaratzetan, eskalleretan, zokoetan, etxerako bidean. Oroi zaite bai, eta nai, ta nai ez zure barrunbeak esango dizu, zer dan bekaturako bidean jartzea.

Bostgarren aitzakia: *urliaren etxera joaten naiz, baña ez gauza gaiztoetarako: sandiarekin egoten naiz, baña aspaldi da gure artean gauz okerrik gertatu ez dala*. Izan bedi egia ori guzia, eta demagun, egoten zerala errosarioa esaten; alaere baldin zure egoerak, ibillerak, eta modu guziak ematen badue esanmesa gaiztoetarako bidea, utzi bear dezu jaiera ori; S. Paulok esaten digu alabaña, utzi bear ditugula, gauza gaiztoak ezezik, gaiztoen antza duenak ere.

Seigarren aitzakia: *albanu utziko nuke bekatu-ko bide au; baña zertan nago urliarekikoa galtzen badet?* Atozea, eta zertan zaude, galtzen badezu betiko zure anima? Anima bat bakarra dezu; ori gal-

tzen badezu, non arkituko dezu orren ordaña? Zer protxu du gizonak mundu guzia irabaztearekin, gal-tzen badu bere anima bakarra? dio Jesu-Kristok.

Zazpigarren aitzakia: *zer esango due etxe artatik irteten banaiz? edo ara joaten ezpanaiz? Atozea, edo badakie, edo eztakie zure bizitza gaiztoaren berri? Ezpadakie, ez due ezer esateko biderik, zeren etxe batetik irteteko, edo besteren batera ez joateko non nai izan oi dira milla modu, eta ez du orregatik iñork ezer esateko biderik. Baña baldiñ badakie errian batzuek, edo askok, nola bizi zeran, poztuko dira oek, bide zuzenean sartu zerala ekustean. Eta ez sinistu ez dakiela inguruko etxeetan bizi diranak zure kontuen berri; galde ezperen iturriai, galde labe-aurreai, galde sukaldeetako laratzai, eta esan albalezee, esango lekee zuri gertatu zatzun guzia, eta geiago. Zuri gertatzen zatzu Midasen bizargille, edo barberoaren ipuiak diona. Midas Erregeak omen zituan belarritzar batzuek, astoarenak zirudienak, eta iñork ez ekusteagatik estaltzen omen zituan kontuz illearekin. Egun batean bizargilleak ekusi ziozkan, eta asi zan farraz. Esan zion Erregek eriotzaren pena ipintzen ziola, itzik esaten bazuan gauz aren gañen. Irten zan barberoa Erregeren etxetik, eta eztanda egin nai*

zion barrenak ekusi zuana esateko gogoz, baña izutzen zuan eriotzak. Joan zan erritik kanpora, eta soro, edo zelai batean egin zuan zulo bat, sartu zuan burua, eta aspertu zan arte guzian aritu zan esaten ekusi zuana: *Midasek asta-belarriak ditu, zion; Midasek astabelarriak ditu.* Aspertu zanean itxi zuan zuloa. Gero an jaio ziran kañaberak, eta oek, aizeak zerabiltzkianean, otsegiten omen zuen barbeorak ereiñ zuan kanta: *Midasek asta belarriak ditu.* Au bera gertatzen zatzu zuri ere bekataria. Nork, edo nork jakindu zure bizimoduaren berri: onek, eztanda egiteko zorian zeukan bere burua, eta esan dio zer-bait bere adiskide bati; ark beste batzuei, eta Midasen asta belarriak bezala agertu dira inguruan zure pausoak.

Zortzigarren aitzakia: *bekaturako bideak utzitzea aña gauza bearra dan ezkerro, esango diot urliari, bukatu dirala gure kontuak, egin dezala konfesio on bat.* Atozea, ta aitzakia onekin bizi nai dezu bekaturako bide, eta perill orretan? Egizu kontu, itotzeko zorian iduki duala otsoak ardiren bat. Andik laster badijoa ardi txorrea otsoagana, eta esaten dio: *Agur otso jauna egun on. Gauza bat zuri esan bearrean nago, eta da oraiñ adituko dezuna: etzaitezela izan*

oraindño bezeñ ardikoia; gaizki itz egiten due zuzaz: arrezazu bizimodu on bat. Uste dezu, orrenbesterekin onduko dala otsoa? Ondu ordean, ardi txoroari egoztziko diozka atzaparrak, eta egingo du artzaz gura duana. Au bera gertatuko zatzu zuri ere, bekataria, aitzakia oriekin geratzen bazera bekaturako bide, eta perillean: eta beldur naiz, etorri ditezen zure gaiñ bekaturako bidean dirauenai etorri oi zaizten ondoren negargarriak. Ukituko ditut oraiñ oetatik batzuek.

§ III.

Bekaturako bidean bizi danari datorkion lenengo ondorena da Jaunak ukatzea, bekatuan ez erortzeko, eta beragana biurtzeko bear diran, Zeruko laguntzak: eta oek gabe geratuko zera zure gura txarren atzaparretan, Zeruko inz, eta euri gozoak gozaten ez duen lur elkor bat bezala. Au da ondoren izugarria, eta bekatuaren bidean bizi danak beregan dakusana; Jaunak alabaña ematen ditu bekatuaren bideetatik aldegiteko laguntzak, baña aldegin nai ez duanari utzitzen dio bere gura txarrai jarraitzen neurria bete

artean. Atozea, bekataria, eta alaere ez dezu biotzik, bide gaizto orietatik aldegitiko?

Bigarren ondorena da zuretzat alferrak izatea Sakramentuak, eta Jesusen odol preziotsua; zeren bekaturako bide, ta perill urkoak uzteko biotzik ez dezun bitartean, ezin Sakramenturik ongi artu dezaitezun. Au da egia bat Katoliko guziak aitortu bear duena, utzi ditezkean bide, ta perillen gañean itzegiten dala.

Irugarren ondorena izan oi da eriotza gaiztoa; zeren, edo batetan illko da onela bizi dana, edo pretaera txararrekin. Ala gertatu zitzaion Toledoko inguruan bekaturako bidean bizi zan ezkutari bati. Izan zuan noizbait Birjiña txit Santaren jaiera andia, baña urteetan zerbait aurreratu zanean, asi zan atsegin lotsagarrien ondoren, eta bizi zan gaizki, etxean zuan, aide batekin. Bazan erri artan anima birtutetsu bat, eta egun batean otoiz, edo orazioan zegoala, agertzen zaizka Jesu-Kristo, Birjiña txit Santa, eta Aingeru asko. Asitzen dira gure ezkutariaren bizitza gaiztoaren gañean itzegiten. Jesu-Kristok eman zuan batetan bizitza kentzeko sententzia; baña Birjiña txit Santaren erreguz eman zion ogei, ta amar egunen epean. Birjiña txit Santak esan zion anima birtutetsu

ari, zijoala onelako Erlijiosogana, eta esan zegiola ekusi, ta aditu zuana. Ala egin zuan anima ark, baña Erlijiosoak etzion sinistu bereala. Anima birtutetsuak beiñ ezezik iru bider ere ekusi zuan len esan dana bera, eta orduan sinistu zuan Erlijiosoak, eta itz egin zion ezkutariari. Aditzera eman zion gertatu zan guzia. Aitortu zuan bere bizimodu gaiztoa, eta damu andiz egin zuan bere konfesioa. Baña etxapean arkitzen zan bekaturako bidea, eta ezin bota zezakean, eta bera ezin kanpoetara joan zitekean. Orregatik agindu zion konfesoreak, alda zedilla beste gela batera, eta itxi zezala atea barrendik. Urليا joan zan arratsean, eta ekusirik itxia zegoala, eragin zuan gilza berri bat. Sartu, eta kuturtu zuan bekatura. Berriro konfesatu zan, eta agindu zion konfesoreak, atea barrendik giltzatzen zuanean, etzegiola giltza kendu. Ala egin zuan, baña urliak idiki zuan berriro atea, eta biurtu ziran bekatura. Konfesatu zan berriro, eman ziozkan konfesoreak penitenzia sendo, eta samiñak; baña aspertu zan oekin, eta esan zion konfesoreari, utzi zegiola pakean, atsoen ipuiakin zebillela. Etorri zan ogei, ta amargarren eguna, eta gau erdian otsegin zioen konfesoreari. Laster joan zan, et arkitu zuan bizirik, deadarrez ziola: *Ay! arpoi batekin igaro bidee*

biotza. Egin zuan konfesoreak al zuan guziabekatari ura Jaunagana biur erazteko; baña alferrik. Ill zan damu egiazkoaren siñalerik gabe. Ona bekatuaren bide, eta perillean itsutzeak dakartzian ondorenak.

Nere Jaun, eta Jaungoikoa! zeñ andi, ta miragarria zure ontasuna gurekin! Ainbeste bider eman dizugu bidea bekataria doakabe ura utzi zenduan eran utzitzeko, eta alaere itxedon dezu, noiz bait zentza ote gaitzkean. Urra itzatzu, esaten diguzu, bekatuaren kate oriek. *Solve vincula colli tui, captiva filia Sion*. Begira bekataria, zer egiten dezun: denbora egokian aditu nai ezpadezu Jaunaren deia, galduko zera, eta betiko. Ea bada urra itzatzu bekatuaren bide oriek, eta biur zaite zure Aita onagana: artuko zaitu seme ondatzallea artu zuan eran, eta irauten dezula bera- ren grazian, emango dizu zuretzat prestaturik daukan betiko bizitza doatsua. Amen.

ABENDUAREN BIGARREN IGANDERAKO 2.a

Bekatuaren oituraren gañean.

*Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi,
mittens duos de discipulis suis ait illi:*

Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. c. 11

San Juan Bautistak, Herodes Erregearen agintez kartzelan katez beterik zegoala, aditu zituan Jesusek egiten zituan mirari, edo milagroak, eta bidaldu ziozkan bere ikasleetatik bi galde onekin: *Zu ote zera etortzeko zaudena, edo besterik ote da guk uste deguna?* Aditu zuan Jesusek S. Juanen mandatua, eta eranzun baño len, mandatariak begira zeudela, egin zituan zenbait mirari, eta esan zien: *zoazte, eta aditzera eman giozkatzue Juani aditu, eta ekusi dituzuen gauzak:* Itsuak ekusten due, errenak errenerarik gabe dabilta, legendarrez beterik zeudenak garbitzen dira, gorrak aditzen due, illak piztutzen dira, eta biotz umilla duenak ongi entzuten, eta artzen ditue Zeruko erreñuaren berriak. Joan ziran berri oekin S. Juanen mandatariak, eta orduan asi zan Jesus an arkitzen

ziranen aurrean S. Juan laudatzen. Nor, edo zer ekustera irten zerate eremura? esan zien. Gizon aldakor kañabera bezala edozeñ aizerekin beñ batera gero bestera dabillenen bat? edo gizon janzi eder-leunakin agertzen danen bat? Baña onelakoak bizi oi dira, ez eremuetan, baizik Erregeren jauregietan. Zer ekustera joan zerate bada eremura? Profetaren bat? Baña nik esaten dizuet, Profeta baño ere geiago dala Juan: onez esana, eta letraz ezarria dago: *Nik bidalduko det zure aurretik nere Aingerua, eta onek prestatuko ditu zure etorrerako bideak.*

Ona noraño altxa, eta laudatu zuan S. Juan Jesu-Kristok berak. S. Juanek Jaunaren Aigeruak bezala, egin zuan bere aldetik zegokan guzia presta zitezten gizonen biotzak Salbatzallearen etorrerarako, uzten zituela bekatuaren bideak, eta oiturak; baña añ andia da bekatuaren oituran datzanaren itsumena, non asko izango ez litzakean zenbaitentzat S. Juan bera- ren alegin guzia ere. Ala gertatu zan Herodes, eta Herodiasekin. Herodesek kendu zion bere anaia Feli- peri Herodias bere emaztea, ta onekin bizi zan gaizki. Joan zitzaion S. Juan Erregeri, eta bere aurpegira esan zion, eziñ egin zezakeala alako gauzarik; baña Hero- des oatua bezala arkitzen zan bekatuaren oituran,

eta etzuan izan biotzik andik irteteko: Herodias
mindu zan S. Juanen kontra alako eran, non artu zuan
Santuari bizitza kentzeko asmoa. Sartu zuen karze-
lan, bete zuen burniz eta atzenean lepoa kendu
zioen. Orra zer dan bekatuaren oituran itsutzea. Oitu-
ra onen gañean itzegin nai dizut gaur, nere Kristaua;
erori etzaitezen gaitz izugarri onetan, eta erori baze-
ra esnatu zaitezen lenbait len irteteko. Aditzera
emango dizut, lenbizia: zer dan bekatuaren oitura.
Bigarrena, nolako miñanzea dan. Atzenean ukituko
det emendik atera bear degun frutua. Billa dezagun
onetarako Espiritu Santuaren argia, bitarteko ipintzen
degula Birjiña txit Santa, Aingeruarekin batean agur
egiten diogula. Abe Maria.

§ I.

Zer aditzen ote da bekatuaren oituraren izenez?
Aditzen da bekatuaren batean erortzeko erraztasuna.
Asitzen da urlia juramentuak, eta birauak egiten; asi-
tzen da sandia ordikeriari ederretsitzen, asitzen da
berendia eskuka loiak, keñada itsusiak egiten, edo
gurasoai zor zaten begiramentu, edo errespetoa gal-

tzen. Lenengo bekatu oek ez dira bereala oitura biurtzen, eta bear dan arreta artzen baliz, erraz sendatuko lirake bekatu oen kalteak. Baña gertatu oi dana da, beñ artu duan bide gaiztoan sarritan erortzea bekataria: eta onela ari dala erantsitzen dio bere buruari bekatuan erortzeko oitura, edo erraztasun bat bekatu berriak eta berriak egiteko perill urkoan ipintzen duana. Emendik atera ezazu, Kristaua, bekatuaren oituraren ama bezala dirala len sarritan egin diran bekatuak. Atera ezazu gañera, bekatariak igerriko balu, aurreratxo dijoala bere bizitza gaiztoan, eta beste bizimodurik ez artzera, eroriko dala bekatuaren oituran: ta alaere jarraitzen badio bekatuaren bideari, orduan ez litzake asko konfesioan esatea: *egin det bekatu au onenbeste bider*, baizik esan bear luke gañera: *eta ezagutzen nuan sarritan erori nintzala bekatu onetan, eta berriro eroriaz erantsiko niola nere buruari bekatuako oitura, ta erraztasuna*; baña geienean ez dira bekatariak nekatzen onelako gauzetan.

Bekatuaren oitura batzuetan da bekatu beniale-tan, besteetan bekatu larri, edo mortaletan amildezten duana. Egin dezagun kontu: urliak du orditze-ko oitura; au bekatu larri, edo mortala da, eta bear-

tua dago urlia bekatu larriaren azpian oitura au desegiteko neurri egokiak artzera, eta artzen ezpaditu, aitortu bear du konfesioan bere zabarkeria. Au bera aditzen da gañerako oitura gaiztoaz ere gai andian diranean. Sandiak du gezur txikiak esateko, edo gaiztoari otsegiteko oitura; au ez da berez bekatu larri, edo mortala. Alaere badira bekatu benialen oitura batzuek bekatu mortalaren perill urkoa erraz ekarri lezakeenak gizon jakintsuak erakusten diguenez. Ala juramentu egitea egiarekin baña premia gabe bekatu beniala da, baña sarritan juramentuak premia gabe egitera oitutzen dana, erraz eroriko da juramentu gezurrezkoetan ere. Birauak botatzea, baña gaitzik opa etzaiola lagun urkoari, berez bekatu beniala da, baña oituraz botatzen dituana laster igaro diteke aserrearekin botatzera. Au bera gerta liteke lagun urkoaren kontra erausi egiteko oiturarekin. Aurrenean ez dira falta txikiak baizik aitatuko; gero berotzen da mingaña, eta esaten dira faltarik andienak ere. Eku-sia dago onelako oiturak desegiteko arreta andia ipiñi bear duala Kristauak, eta onetan izan badu zabarkeriarik au ere esan bear du konfesioan, zenbaitek dienez. Eta bekatu benial utsak Jaunaren grazia galarazten ezpadu ere, oartuak gaudela egiten baditugu

ardurarik gabe, eta oituraz, kalte andiak dakartzie, zeren anima lasaitzen, eta prestatzen duen bekatu andietan erortzeko; eta gañera zeren galerazten dituen Aldareko Sakramentuak dakartzian frutu gozotatik asko.

Askotan gertatzen da konfesoreak galdetzea bekatariari: *eta len izan dezun bekatu orretan erortzeko oiturarik?* eta orduan aitortu bear dezun dana dan bezala, eta besterik esatea debekatua dago; beartua dago alabaña konfesoera alegiñean ezagutzera, absoluzioa artzeko sasoi onean zauden, edo ez, eta ezaguera au iristeko gauza bearra da zuk aitortzea galdetzen dizun oitura. Gañera gaitz bat zarra bada, berria danean baño sendagai andiagoak eskatzen ditu, eta beragatik konfesoreak bidez galdetzen dizun, bekatu orretan erortzeko oitura len izan dezun, edo ez. Gañera naiz galde degizula, naiz ez, baldin oitura izan badezu, eta oitura urratzeko arretarik artu ezpadezu, esan bear diozun konfesoerari: *Jauna, bekatu onetan erori naiz onenbeste bider;* ta len ere izan det bekatu onetan erortzeko oitura, baño ez det arretarik ipiñi griña au desegiteko. Zuk onela agertzen badezu zure gaitza, erraz ezagutuko du konfesoreak, zure leneko konfesioak onak, edo gaiztoak izan diran, eta

zer sendagai bear diran zu sendatzeko. Baña au onela egiten ote da? Ez beintzat, asko dira alabaña beren gaitza ezagutuko diezanagandik iges egiten duenak. Dakuskun oraiñ, nolako miñanzea dan bekatuan erortzeko oitura.

§ II.

Zu, bekataria, bazabiltza bekatuaren bideetan, edo ez dezu arretarik griña txar ori garaitzeko: eta arkitzen zera bekatu orretan erortzeko oituran sartua, edo sartzeko zorian; ta alaere bizi zera ardura gabe. Ai! eta baziñaki, nolako perillean zauden! Baziñaki, nolako miñanzea dan bekatuaren oitura! Bear bada ardura andiarekin saiatuko ziñake bekatu orretatik aldegitera, eta negar egingo zenduke oraindano bizitza gaiztoaz. Enzun ezazu bada, nolakoa dan miñanze ori.

Bekatuaren oitura, Elizaren gurasoak dioenez, da miñanze bat ezin sendatu ditekeana, batezere zarra bada. Bekatuak sarritan egiten dala, berekin dakar oitura. Oiturak nolerebait beartzen du anima berriz eta berriz bekatu egitera, eta emendik jaiotzen da

ezin utzia, dio S. Bernardok. Gertatzen ote da au, zeren ezin garaitu litekean oiturarik zarrena, eta errebesena ere? Ez; ezta alabaña oitura añ zarrik, non Jaunaren laguntzarekin ezin garaitu litekean; baña oiturak lotutzen du bekatariaren borondatea, alako eran, non osotoro, eta benaz nai ez duan bekatua utzitzea. Orregatik izango dira zenbait, bekaturako gogorik, eta tentaziorik gabe arkitzen diranean ere, bekatu egitera dijoazenak oitura utsagatik; izango dira beste batzuek, bekatuak nazkatuak bezala utzi dituanak, eta alaere uzteko biotzik ez duenak. Eskritura Santak berak aditzera emateko, nolako miñanzea dan bekatuaren oitura, esaten digu: Etiopiako beltz bat zuritzen danean, eta katamotzak uzten dituanean bere mantxak, utziko dituzue zuek ere gaizkiz gaizki ibiltzeko oiturak: *Si Aethiops mutare potest pellem suam, et pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere, dum didiceritis malum.* Baña nolako miñanzea dan oitura gaiztoa ezagutzeko, asko dezu, nere Kristaia, non nai egunoro gertatzen danari kontuz begiratzea. Atozea, ez dira leku guzietan arkitzen itz loi desonestoak esateko, edanean igarotzeko, alferkerian beren etxearen, eta lagun urkoen kaltean bizitzeko, eta besteren kontra edozeñ gauza

esateko, edo birauak botatzeko oitura zarra duenak? Eta ekusi dezu onelako oetatik batek ere osotoro utzi duala bere oitura zarra? Ez noaski.

Bekatuaren oitura da, S. Agustiñek dionez, bekatariak bere buruari eransitzen dion bigarren izate, edo naturaleza bezala: *Quasi secunda, et affabricata natura*. Egin bedi alegiña zaldiari irrinzia, otsoari ardien, azariari olloen, eta arranoari sarraiskiaren ondoren joatea eragozteko. Nekez kenduko zaizte griña oek, zeren beren izatearekin datozkienak diran, eta au bera gerratzen da, bekatua bekatuaren gaiñ egiñez bekatariak bere buruari egozten dion oiturarekin.

Bekatuaren oitura da miñanze bat bekataria animako gauzetan uzten duana itsuturik, eta gorturik. Aditzen, edo irakurtzen badu zerbait bekatuak berekin dakartzian betiko su, eta garren gañean, bereala kentzen ditu animaren begiak gauz oetatik, eta gogora ekartzen ditu agradatzen zaizkan gogorazioak. Aditzen baditu Jaunak bere serbitzarientzat prestaturik dauzkan, Zeruko atsegin miragarrien berriak, geratzen da iristeko usterik gabe Indietako ondasunen berriak aditzen dituan baten eran. Itsumen onetan bizi da, eta atzenean gertatzen zaio Syriako Erre-

geren gerrariari gertatua. Syriako Erregea gerran zegoan Israelkoarekin. Eliseo Profetak Jaunaren argiarekin ezagutu zituan Siriakoaren asmo guziak, eta aditzera eman ziozkan Israelkoaren Erregeari. Jakin zuan Syriakoak Eliseok egin zuana, eta bidaldu zituan asko armadun, ta zaldizko Profeta atxitzera. Inguratzen due Eliseo zegoan erria, eta jakiten du Profetak zer asmorekin datozen. Badijoaz Profetaren etxera, eta erregutzen dio onek Jaunari, bidal dezala gizon aetara itsumena. Irteten zate Eliseo, eta esaten die: *ez da au zuek billatzen dezuen erria: atozte nerekin, eta erakutsiko dizuet arkitu nai dezuen gizona.* Etzuen ezagutu Profeta, eta jarraitu zioen. Eraman zituan Samariara, Israelko Erregeren errira bertara. An sartu ziranean, erregutu zion Eliseok Jaunari, idiki zitzala gizon aen begiak, eta bereala ekusi zuen oek, arkitzen zirala beren etsaia zan Erregeren atzaparretan. Au bera gertatzen zaio bekatuaren oituran bizi danari. Itsumenaren lañoak inguratzen du: ez du etorkizunari begiratzeko nekerik artu nai; badator eriotza, eta orduan desegiten dira bekatariaren ganduak, idikitzen ditu begiak, eta ekusten du bere burua etsaiaen atzaparretan.

Bekatuaren oitura da biotza gogortzen duan miñanze bat, errementariaren malluak ingudea gogortzen duan eran. Emendik dator, Jaunak onelako bekatariak beregana erakartzeko, neke, ta nai gabereen batzuek bidaltzen badiezte, gaiztoago izatea. Jo zinduan, Jauna, zure zigorrarekin, eta ez due beren gaiztakerien damurik artu: zeatu zinduan, eta ez due ikasi nai izan zuk erakusten zeniena, esaten dio Jeremiasek Jaunari onelako bekatariaz. Emendik dator gañera bekataria ez lotsatzea bere bizitza gaiztoaz, eta emakume gizakoiak izan oi duen aurpegia izatea: kopetaren antzekoa jantzitzea, Jeremiasek dionez: *Frons mulier is meretricis facta est tibi* (Jerem. 3). Emendik sor, eta gor egiñik geratzea bekataria. Badi-ra itsasoak neguan izozten diranak, eta orduan ango arraiak daude igitzen, edo mugitzen ez dirala; baña andik atera, ta parrillean surtan ipintzen diranean, esnatzen dira. Arrai oen eran arkitzen zera bekatari gogortua mundu onetako itsaso izoztuan. Etzera esnatzen Zeruko gauzetarako; baña esnatuko zera etsaiak itsaso onetatik zaramaizkianean betiko su, eta garren artera. Atzenean onela gogorturik dagoan bekataria, beratu, gozatu, eta bigundu ordean Jaunaren itza, eta Sakramentuakin, geiago, eta geiago

elkortzen, eta gogortzen da. Gertatzen da onelako bekatariarekin eguzkiari buztiñarekin gertatzen zaiona. Eguzkiak bidaltzen diozka argizagiari bere argi ederrak, eta berotasuna; eta biguintzen da. Bidaltzen diozka era berean buztiñari, eta au elkortzen, eta gerotik gerora geiago gogortzen da: eta au bera Jaunaren itz, eta Sakramentuai gertatzen zate gurekin: batzuek gozaten, edo biguintzen dira, eta Zeruko gauzetan biotza ipintzen due; baña bekatari gogortuak are geiago elkortzen dira. A! zu bekatari aditzen zaudena: aspaldi da, au zeregan ekusten dezula, zer izango da zuzaz orain zentzutzen ezpazera?

Bekatuaren oitura da miñantze bat, Jaunak bakoitzari barkatuko diozkan, bekatuen neurri, eta mugaz kanpora bekataria amilderazo oi duana. Zeñ gauz izugarria dan au ezagutzeko, jakizu lenbizia, gure Jaunak gauza guziaz ipiñi diela beren neurria, Eskritura Santak esaten digun bezala: *Omnia in mesura, et numero, et pondere disposuisti*. Emendik beregan erabakia dauka zer, ta zenbat bekatu bakoitzari barkatuko diozkan. Iru bekatu barkatuko dieztet Damaskoarrari, baña lautara igarotzen badira ez diet barkatuko esaten zien Jaunak Amos Profetaren autik: *Super tribus scelereribus Dmasci, et super quator non convertam*.

Jakizu bigarrena, bekatuen neurri au ez dala guzientzat berdiña. Zeruko Aingeruentzat antuste, edo soberbiazko bekatu bat asko izan zan betiko su, eta garren artera erortzeko. Ujaldeak mundu guzia estali zuenean, Noe, ta beraren etxeakoak ez, beste guziak ito ziran, eta ito ziranen artean asko izango ziran bekatu bat bakarra zuenak. Beste bekatari askorentzat neurri ugariagoa izan da. Eta nork izango du ausardia Jaunari esateko, *zergatik egiten duan au onela?* Jakizu irugarrena, bekatariak bere neurria igarotzean egiten duan bekatu ura dala zauri bat beñerre ongi sendatuko ez dana: edo dala bekatuen putzua betiko estaltzen duan arria bezala. Putzua idikia dagoan bitartean sokaz bederik irten diteke bat, ara erori arren; baña estaltzen bada eziñ jaso ditekean arri andiren batekin, ez dago andik irteterik. Orregatik zion Dabidek: Ez dedilla, Jauna, itxi nere gañean nere bekatuen putzua: *Neque urgeat super me puteus os suum.* Jakizu atzenean, bekatuen neurria igaro duan bekataria dagoala etsaiaren mendean betiko su, eta garren arterako prestatua. Atozea oraiñ bekataria: badakizu, zer neurri dan zuretzat Jaunak beregan siñalatu zuana? Ez. Badakizu neurriaz kanpora igaro etzerala? Ez ori ere; baña badakizu, beka-

tu asko egiñ dituzula, eta bear bada, bat geiago egi-
ten badezu neurriaz gañetik igaroko zerala. Zertan
zaude pauso ori ematen badezu? Beti-betiko galdua
zera. Ezdizut oraiñ deadar andirik egin nai gai onen
gañean; bakarri esango dizut, egia izugarri oek utzi
erazten ezpadizue bekatua, egia berak izango dirala
ar ozkari bat betiraunde guzian erkitzen idukiko zai-
tuenak.

Bekatuaren oitura da atzenean miñantze bat
beartzen duana Jesu-Kristo bekataria bere griña txar-
ren mendean utzitzera, eta beragandik aldegitara
betiko. Banoa ni, ta nere billa ibilliko zerate, baña
alferrik: illko zeraten zeren bekatuan, esan zien Jesu-
Kristok Judu gogorrai: *Ego vado, et quaeritis me, et
in peccato vestro moriemini*. Au bera esango dio Jesu-
Kristok bekatariari neurriaz kanpora igarotzean: Ai!
eskergabea; egin zindudan Zerurako: eta zu ara zin-
dezen egin nintzan gizon, eta eman nuan bizitza
gurutze batean. Au gutxi baliz bezala, ipiñi nituan
Sakramentuak zuri grazia, eta birtuteak emateko, eta
geratu nintzan Aldareko Sakramentuan zuri emateko
nere gorputza, nere odola, eta ni naizan guzia. Zer
egin bear nuan zugatik, eta egin gabe utzi det? *Auid
ultra debui facere, et non feci?*. Baña guzia izan da

alferrik zurekiñ. Deitu dizut, eta ez dezu aditu nai izan nere deia: gera zaite bada esker gabe gaiztoa; gera zaite zere griña, eta oitura lizunen mendean; banoa ni zugandik betiko: *Ego vado*. Era onetan Jesusek uzten duanean bekataria, aldegingo due beragandik Aingeru guardakoak, eta gure Ama maitagarri Birjiña txit Santak: eta geratuko da bekataria Zeruko inz, eta euri gozoak ukitzen ez duen lur elkorra bezala, eta illko da bere oitura gaiztoen atzaparretan.

§ III.

Aditzen dezu, bekataria, nolako miñanzea dan bekatuaren oitura? Ai! zure doakabea oraiñ aditu nai ezpadezu, Jaunak beragana biurtzeko, ta bizitza berria artzeko bidaltzen dizun, deia. Zure doakabea birauak botatzeko, ta juramentuak nola nai egiteko oitura gaiztoa dezuna! Zure doakabea antustez, eta soberbiaz beterik gurasoak, eta lagun urkoak ezertan ez dauzkatzuna. Zure doakabea edana, ta alferkeria Jaungoikoaren lekuan maite dezuna. Ai! zu lagun urkoen animak atxitzen, eta Satanasi saltzen zabiltzana! Ai! zu itz loi zikiñak esateko oitura zarrean

gogorturik zaudena! Ai! zu lagun urkoen kontra gorrotoan, eta aen falten billa bizi zerana! Zure zori gaiztokoa, ezpazera oraiñ zentzutzen! gogortuaz dijoa zure biotza ingudearen eran, eta beldur izan zaite, zure bekatuak neurriaz kanpora igarotzeko zorian daudela. Igarotzen badira neurritik, betiko galdua zera.

Nere Kristaua, eta zer frutu emendik atera bear degu? Lenengo frutua. Zuk gaztea, aldegizu zu gazte zerala bekatutik, bekatuaren bideetatik, eta lagun gaiztoetatik, eta oitu zaite Sakramentuak sarritan, eta ongi prestaturik artzera, eta nekearen geiena egiña idukiko dezu Zerurako. Eskritura Santak dio: gazteak gazte dala artzen duan bidea ez duala zartzen danean ere utziko: *Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* (Prov. 22). Gerta liteke adiñ zoroarekin irristatzea utsegiteren batean: eta kontu: ez bekatua bekatuari erantsi, zeren erori zindezkean erraz bekatuaren oituran, eta onela erakarriko zenduke Jaunaren aserrea zere gañera. Ala esaten dizu Espiritu Santuak. Bigarren frutua. Zu, Kristaua, arkitzen zera bekatuaren oituraren miñanzean sartua? Gaiz andiarekin zaude, eta galduko zera betiko, ezpadezu txit benaz oitura ori

desegiteko, eta bizitz onari jarraitzeko alegiña egiten. Ekin giozu bada egiteko andi oni gogotik Jaunaren lagunzan zure ustea ipintzen dezula. Presta zaite konfesio on bat egiteko: egun oro irakurri ezazu, eta gogoan erabili S. Ignazioren liburutik zerbait, eta ondoren sortu ezazu biotzetik zure bekatuen damu andi bat, eta aurrera ez egiteko asmoa. Maiz gogora ekarzu zure anima Zerurako bidean sarrerazteko Jesusek gurutzean igaro zuana. Arrezazu zure bitarteko, ta Amatzat Birjiña txit Santa, eta deitu giozu zure estutasunetan. Sarritan konfesa zaite, eta egitzu leialki konfesorearen aginduak. Era onetan garaituko dezu zure miñanze izugarri ori. Ez gaitezen zabartu gure animaren egiteko andi, eta bakarrean: gabiltzan kontuz gure bizitzaren argiak dirauen bitartean, onela iristeko Jesu-Kristok bere eriotzarekin guretzat irabazi zuan betiko bizitza doatsua. Amen.

ABENDUAREN BIGARREN IGANDERAKO 3.a

*Konfesioko sakramentuak eskatzen duan ontzeko
asmoaren gañean.*

*Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi,
mittens duos de discipulis suis ait illi:*

Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. c. 11

Zein ejemplo ederra gaurko Ebanjelioak begien aurrean ipintzen diguna, noizbait gu osotoro bekatutik irteteko eta Jaunagana jartzeko S. Juan Bautista, arako ogeita amaika urtean eremuan, eta bakardadean biziturik Salbatzallearen aurretik Salbatzalle beraren bideak prestatzera etorri zan gizon andi au, asi zan munduari bekatutik irteteko, penitentzia egiteko, ta Salbatzallea zegokan eran artzeko ots andiak egiten. Etzien barkatzen ez txikiyai, ez andiai, ez bearsuai, ez aberatsai, ez eta Erregeri berari-ere. Prest arkitzen zan gizon andi onen biotza, ezergatik ere egi gabe ez utzitzeko Jaunak bere gañean ipiñi zion karguari zegokana. Denbora onetan Herodes Erregea bizi zan gaizki, eta bekatu askotarako bidea ematen

zuala; bere anaia Feliperi kendu zion alabaña Herodias bere emaztea. Bazekusan Santuak zeñ kalte andiak zetozen emendik. Bazekusan gañera, zer gerta zekikeon berari gai onetan argiro itzeginda. Alaere utzirik alde bat begiramentu oek itzezin zion Herodesi bere aurpegira, ta aditzera eman zion bere bekatu itsusia. Ozta jakin zuan au Herodiasek, edo Herodesen emazte ordeak, artu zuan gorroto, eta amorru aiñ andia, non etzan sosegatu Herodesi karzelan sar-erazo zion artean Santua. Atzenean kenerazo zion bizitza-ere; eta Santuaren burua, oraindik odola zeriola, eraman erazo zuan andre ez garbi-amorratu ark Erregerekin jaten zegoan lekura. Ekusten dezue, zer dan Jaungoikoaren itza aditu nai ez izatea? Ekusten dezue, zertaraño amilderazo, ta itsutu gaitzakean bekatuak?

Karzelan zegoan bitartean, aditu zuan S. Joanek Salbatzalleak egiten zituan gauza miragarrien berria, eta bidaldu ziozkan bere ikasle bi galde onekin: Zu zera etortzeko dagoana, edo besteren baten ustean egon bear ote degu? *Tu es qui venturus es, an alium expectamus?*. Artu zuan Salbatzalleak mandatu au, eta erantzun baño len, mandatarien aurrean egin zituan asko gauza andi; eta gero oei esan zien: zoaz-

te orain, eta esan giozue Joani ekusi, ta aditu dezue-
na. Esan giozue, nere itzaren otsera ekusten duela
itsuak, badabiltzala errenak, garbitzen dirala soraio-
ak, edo lepraz beteak, aditzen duela gorrak, piztutzen
dirala illak, eta atzenean beartsuak ikasten, eta
artzen duela erakusten zaten Zerurako bidea. Au
esan ta bidaldu zituan Salbatzalleak S. Joanen bi ikas-
leak; eta orduan egin zuan Santuaren laudario eder
bat. Ebanjelio onek aditzera ematen dizkigu asko
gauza, ta besteen artean, zein biotz prestu-osoarekin
prest arkitzen zan S. Joan ezergatik-ere bere Jaun
Jaungoikoaren agintea ez autsitzeko. Ta au aditzera
ematean begien aurrean ipintzen zaku gure animak
konfesioko Sakramentuan garbitzeko artu bear
degun ontzeko asmoa. Gaur itzegingo det konfesioko
Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmoaren
gañean. Aditzera emango dizuet lenengo lekuan: zer,
eta nolakoa dan gure animak garbitzeko konfesioko
Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmoa, edo
propositua. Aditzera emango dizuet bigarren lekuan,
zein sarritan egiten diran konfesio gaiztoak ontzeko
asmo osoa artu gabez. Baña asi baño len billa deza-
gun Espiritu Santuaren grazia, bitarteko ipintzen

degula Birjiña guziz Santa, Aingeruarekin batean esanaz. *Abe Maria*.

§ I.

Gure animak konfesioko Sakramentuan garbitzeko ezta asko bekatuen kontuak ateratzea, ez eta damutzea-ere. Gauza bearra da gañera ontzeko, edo bekatu larririk beintzat beiñ-ere ez egiteko asmoa. Egia au aditzera ematen digu Jaunak Eskritura Santan, eta Elizak bere Konzilioetan. Ar ezazue, esaten digu Amos Profetak, ar ezazue bekatuaren gorrotoa, eta ama ezazue ona, edo obra onak egitea, onela urrikaldu ote ditekean Jauna. *Odite malum, et diligite bonum, si forte missereatur Dominus Deus* (c. 5). Garbi zaitetze, esaten digu Isaias Profetak, eta zaute sendo berriz zeren animak bekatuz loitu gabe. *Lavamini, mundi estote* (c. 1). Egiñ ezazue biotz eta espiritu berri bat, esaten digu Ezekiel Profetak. *Facite vobis cor novum, et spiritum novum* (c. 18). Eta eku-sia dago Jaunak esaten digun onek guziak gutxienean eskatzen duela ontzeko asmoa. Au bera aditzera ematen digu Eliz Ama Santak Florenziako, eta Trento-

ko Konzilioan, bada esaten digu, damutu bear zakula egindako utsegiteaz, aurrera berririk ez egiteko asmoarekin. *Cum proposito non peccandi de caetero*. Eta zer ote da ontzeko asmo, edo propositu au? Au da munduak uste duan baño gauza andiagoa. Au da batek Jaunaren laguntzan, edo grazian bere ustea ipiñirik, beregan osotoro erabakitzea, ezergatik-ere bekatu larririk beintzat aurrera ez egitea. Itz batean, biotzez bekatuari, ta bekatuaren bideai betiko adio esatea. Esan det bekatu larririk ez egitea; ezta alabaña premiazko gauza bekatu benialak konfesatzea, ta oen barkazioa iritsi diteke konfesio gabe. Baña konfesatzera datorrenak ezpadu aitortzen bekatu benialen batzuek baizik, orduan artu bear du oetan ez erortzeko asmoa konfesioa ona izateko. Ekusten dezu, Kristaua, zer dan konfesioko Sakramentuak eskatzen duan asmoa? Begira ezazu oraiñ nolakoa dan.

Konfesioko Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmo, edo propositua da beñik beiñ asmo bat bekatu larri guzietara, leku guzietara, denbora, eta tranze guzietara begiratzen duana, ta zabaltzen dana. Au da asmo bat, zeñarekin bekatariak erabakitzen duan bekatu larririk batere, iñon-ere, ta iñoiz-ere ez egitea. Emendik asmo au duana prest arkitzen da Jaunaren

Legeko amar Aginteak, Eliz Ama Santarenak, eta bere estadu, eta karguak dituan egin-bide, edo obligazioak ezagutzeko, ta gordetzeko osotoro. Prest arkitzen da bekatu larri, bat bakarrari-ere, biotzean lekurik ez emateko ez etxean, ez kanpoan ez bere bakarrean, ez lagun artean, ez astean, ez jaiean, ez festa denboran; ez bizitzan, ez eriotzan. Era onetako asmoa agertu zuan Dabid Santuak Jaunagana biurtu zanean. Ez naiz Jauna, zion, geiago aztuko zure Lege Santaz. *In aeternum non obliviscar justificationes tuas.* Erabaki det, Jauna, ta erabaki juramentuarekin ez geiago bekaturik egitea, ta zure aginduak gordetzea. *Juravi, et statui custodire judicia justitiae tuae.* Bai, jarri da nere biotza beti beti zuk agintzen dezun egitera. *Inclina vi cor meum ad faciendas justificationes tuas.* Ona nola Dabid Santuak artu zuan asmoa bekaturik bate-re, iñon-ere, ta iñoiz-ere ez egiteko. Konfesioko Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmo, edo propositua da gañera ez asmo erdia, edo laurdena, baizik asmo oso-osoa, eta biotz guzitik jaiotzen dana. Zer ote da asmo oso au? Au da egiaz, eta biotz osoz erabakitzea bekaturik ez egitea ez bizitzan, eta ez eriotzan, ez ondasunen ustean, ez ondasunak galtzeko beldurrez, ez besteren losentxagatik, ez erausien

beldurrez, ez munduaren usteen, ez munduarekikoa galtzeko beldurrez, ez bizitzaren ansiaz, ez eriotzaren beldurrez. Asmo oso au nola artu ederki erakutsi zigun gure Salbatzalleak Jetsemaniko baratzan. Ekusi zituan bere animaren begien aurrean munduaren gaiztakeria guziak, eta asaldatu zan. *Torrentes iniquitatis conturbaverunt me*. Ekusi zituan bekatu oekagatik denbora gutxiren barrenen igaro bear zituan nekeak, eta alaere zein eskergabea izango zan mundua. Illuntasun, eta tristuraz bete zitzaion biotza. *Caepil constrictari*. Eta len ainbeste egarri Pasioko kaliza edateko agertu bazuan-ere, gero gogoan ezin sartu balitzaio bezala arkitzen zan. *Caepit taedere*. Alaere ekusirik bere Aitaren naia, erabaki zuan au egitea, naiz kosta zekiola bere odol guzia ixurtzea, eta bizitza ematea. Egin bedi, Aita nerea, esan zion, zuk nai dezuna, ta zuk nai dezun eran. *Non sicut ego volo, sed sicut tu*. Ona nolako asmoa iduki bear degun guk-ere Jaunak nai duana edo agintzen diguna egiteko, edozeiñ nekeren kostuan ere. Au bera erakutsi zigun S. Pedrok-ere, ostegun santu arratsean aditzera eman zienean Jesu-Kristok bere Apostoluai, zer denbora gutxiren barrenen berarekin gertatuko zan. Ez esan zion S. Pedrok bere Maisuari, ez eta bizitza

kostako bazat ere, ez det berori ukatuko. *Etiamsi oportuerit me mori tecum, non te negabo.* Egia da S. Pedrok alaere ukatu zuala bere Maisua; eta au da gu beldur andi, eta santu batez beterik utzi bear gaituan gauza, baña ez gure asmo erdiak, edo iduripenak edertu ditzakeana. Zeren baldin S. Pedroren biotz bizi, ta prestuak asmo aiñ andiaren ondoren irauñ ezpazuan eman zuan itzean, nola nai genduke guk asmo erdiarekin bekatuan ez erortzea? Atzenean eziñ ederkiago erakutsi digu S. Paulo Apostoluak, ongi konfesatzeko artu bear degun ongitzeko asmo oso-oso au. Asitzen da Apostolu Santua bere biotza progatzen, eta zer sasoietan daukan begiratzen. Nork galerazoko digu Jesu-Kristoren grazia, ta amorioa? galdetzen dio bere buruari. *Quis nos separabit a charitate Chti?* Galerazoko ote dit neke, eta gurutzeren batek? *An tribulatio?* Galerazoko ote dit estutasunen batean nere burua ekusteak? *An angustia?* Galerazoko ote dit goseak? *An fames?* Galerazoko ote dit larrugorritasunak? *An nuditas?* Galerazoko ote dit ezkontza galtzeko, munduarekin aserratzeko perillak? *An periculum?* Galerazoko ote dit laguneren erausiak, edo isekak aditu bearrak? Urliak, edo sandiak egin dezakean txarkeriaren batek? *An persecutio?*

Galerazoko ote dit ezpata nere lepoan ekustea? *An gladius* Onela progatzen du S. Paulok bere biotzaren sasoia, ta au onela progaturik, zer diola uste dezue? Ez, ez, dio Apostolu Santuak, ez eriotzak, ez bizitzak: *neque mors, neque vita*; ez Aingeruak berak, ez gizon andiak: *Neque Angeli, neque Principatus, neque virtutes*; ezerk ere ez dit galerazoko Jesu-Kristoren grazia, ta adiskidetasuna. *Neque creatura alia poterit nos separare a charitate, quae est in Chto Jesu Domino nostro*. Ekusten dezu, Kristaua, nola S. Paulok artua zeukan ezergatik-ere bekaturik ez egiteko asmo osooa? Ta asmo au bera ez geiago, ta ez gutxiago eskatzen digu konfesioko Sakramentuak. Atzenean konfesioko Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmoa ezta asmo antzua edo legorra, baizik eragillea, eta ontzeko bizimodua, eta neurri egokiak arerazten dituana. Egizu kontu, Kristaua, zure zabarkeriaz geratzen zatzula etze zure etxeak duan sororik gozoena. Betetzen da denboraz larrez, sasiz, arantzaz, belar gaiztoz. Bizi zera urtearen erdirako artorik ez dezula, eta iñork eman nai ez dizula, zeren emalleak nekatu diran paguaren usterik gabe ematez. Oroitzen zera zure soro onaz, eta begira jarririk esaten dezu: «Ah! soroa, soroa! soro nere nagitasunez

galdua! Orain orrela bazaude-ere laster beste moduz ekusiko zaitue». Atozea, Kristaua, baldiñ au esanda ezpadezu gero arretarik zure soroko sasiak, larrak, arantzak, eta belar gaiztoak ateratzeko; ezpadezu lurra maneaten, zimaurtzen, eta itxitzen; ezpadezu iñaurkiñik biltzen, zer esango degu zure asmoaz? Zer, ezpada zure asmoa zala antzua, legorra, nai ez nai edo iduripen utsa; etzaitu alabaña mugitu zure sororan laborea ongi egiteko bear diran neurriak artzera. Emendik atera-ezazu, Kristaua, ez dezula izan, ez eta izango-ere konfesioko Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmorik, naiz golpeka urra dezazula bularra, naiz milla bider esan dezazula: *Artzen det bekaturik beiñ-ere ez egiteko asmo osoa*, baldiñ mugitzen ezpazera onetarako bear diran neurriak artzera. Eri batek, sendatzeko neurriak ipiñi nai ezpaditu, zer esango dezu? Zer, sendatzeko asmo egiazkorik ez duala baizik? Au bera esan, eta sinistu bear dezu anima eri dagoanaz, sendatzeko neurriak artzeko biotzik ezpadu. Neurri oek asko dira, ta oen artean bearrinak, eta guzioi dagozkigunak dira oek. Lenengoa: bekatuaren bide, edo perilletatik aldegitia. Bigarre-na, bekatuara amilderazten gaituan gure griña nagusiak, eta oitura gaiztoak ezitzeko, ta ukatzeko alegiña

egitea. Irugarrena: lagun urkoari bekaturako bidea ematen dioen gure itzegite, ta modu dongeak utzitzea. Laugarrena: lagun urkoaganako gorrotoa utzitzea, ta itzegite, ta moduetan ere gorrotorik ez erakustea. Bostgarrena: lagun urkoari ezer ostu, edo kalterik egiñ bazaio dala ondasunetan, dala onran, edo faman biurtzea zor zaiona. Seigarrena: jakitea ongi dotrina, baita gure estadu, bizimodu, eta karguak dituan obligazioak ere. Atzenean zor-artzeko, ta kontu nastuak dituanak oek garbitzeko egiñ bear du alegiña. Neurri oek dira, nere Kristauak, andiai, txikiak, Apaizai, ta Apaiz ez diranai berdin dagozkigunak; eta neurri oek artzera mugitu nai ez duan Kristauak ez du konfesioko Sakramentuak eskatzen duan asmorik. Ekusten dezu, Kristaua, zer, eta nolakoa dan gure animak garbitzeko konfesioko Sakramentuak eskatzen duan ontzeko asmoa?

§ II.

Nork orain aditzera emango du, zein sarritan egi ten diran konfesio gaiztoak ontzeko asmo egiazkoa artu gabez? Arritzeko gauza da gai onetan gure itsu-

mena! Ez du bekatariak berak nekatu nai egia onen begiratzeko, eta bestek begien aurrean ipintzen badio argia, edo kentzen ditu begiak argiagandik, edo aldegiten du au ipintzen dioen lekuetatik. Ala gertatzen da dotrina argiak, eta animetako zauriak ukitzen dituenak egiten diranean: Bear bada premiarik geiena duenak goiz meza entzun da iges egingo due Jau-naren itza aditzetik, beren buruak ispilluan ekusi ditzeen beldurrez. Zuk, Kristaua, begiraldi bat eman giezu ontzeko asmoaren faltaz egiten diran konfesio gaiztoai. Konfesio gaiztoak bide onetatik egiten ditugu lenengo lekuan, baldiñ artzen ezpadegu bekatu-rik, larririk beintzat, batere iñon-ere, eta iñoiz-ere ez egiteko asmo egiazkoa. Eta asko, ta asko dira era onetako asmo egiazko gabe konfesatzen diranak. Ala gertatu oi da guraso zabarrakkin. Izango due bear bada beste bekatuetan ez erortzeko asmoa; baña zabarke-riaren bekatua geratzen zate bere oñean. Ala gertatzen da errietako karguetan nastutzen diran askorekin; izango dira bear bada gañerakoan gizon onak baña ez due izango bear dan asmorik, duen karguak, eta erriaren onak eskatzen duana egiteko. Ala gertatu oi da Mandamenturen bat oituraz ausitzen duenakin. Kutziaren bekatuetan sarritan erortzen danak

erraz artuko du asmoa lujuriako bekaturik ez egiteko; baña tratu zikiñak, usurak, eta tranpak utzitzeko? gutxitan. Lujuriaren atsegin loien ondoren, eta adiskidetetasun, jolas, ta itzegite limurietan dabillenak erraz artzen du asmoa lapurretarik ez egiteko, baña utzitzeko bere lizunkeriak? gutxitan. Gazteak, utzi ezkerro, Jaunaren beldur santua, ederretsi ezkerro itzegite, ibillera, ta beste lujuriaren biskarekin nastutzen diran gauzai, ez oi du izan asmo egiazkorik bekatua osotaro utzitzeko, zentzatu ditezen artean. Orobat edaleak neke andi gabe artuko du asmoa lapurretarik ez egiteko, baña ez bere oitura txarra betiko utzitzeko. Au bera gertatzen da ezkontzeko egarriarekin lilluratuak, eta aizatuak dabilzan zenbait gazterekin, ez due asmorik itzegite loiak, keñadak, edo oei darraizten gauzak betiko utzitzeko. Zer esango det munduaren beldurrez batzarreetan, edo beste edozeiñ lekutan dagotena egiten ez duenaz? Zer esango det azaria olloaren zai dagoan eran lagun urkoari txarkeri egiteko deretxaren zai, eta prest bizi diranaz? Zer esango det beren estadu, edo karguak dituan egin bideai begiratzen ez diezanaz? Zer Eliz Ama Santaren aginteak ezertan artutzen ez dituenaz? eta ezertan ez artzea gutxi baliz bezala Elizaren Mandamentuen

izenik-ere aditu nai ez duenaz? Ah! gauza samiña da esatea, baña egia da, Kristaurik geienak ez duela biotzik betiko utzitzeko bekatua; ez duela bekaturik batere, eta iñoiz-ere ez egiteko asmo egiazkorik eta beragatik egiten dira konfesio gaizto asko, ta asko alde onetatik.

Konfesio gaiztoak egiten ditugu bigarren lekuan ezpadegu artzen ezergatik-ere bekaturik ez egiteko asmo oso-oso; itz batean, ezpagaude geren biotzetan prest ezergatik-ere bekatuari lekurik ez emateko, ez ondasunakgatik, ez onrakgatik, ez munduagatik, ez eriotzagatik, ez bizitzagatik. Ongi. Ta au onela bada, dan bezala, zenbat, eta zenbat konfesio gaizto egingo ez dira ontzeko asmo oso onen faltaz? Zeiñ da alabaña sasoi onen ederrean, eta era onetan prest egon dana konfesatzera etorri danean? Mira ezazu, Kristaua, zure biotza, eta erantzun beza berak, dio S. Agustiñek. *Respondeat cor vestrum*. Prest ote zegoan zure biotza Jaunaren Legea ez ausitzeko edozeiñ nekeren kostuan-ere? *An tribulatio?* Prest ote zegoan onetarako naiz ekusi zere burua estutasunik andienetan? *An Angustia* Naiz ekusi zere burua goseak? *An fames?* Larrugorrian, edo guziaren gabean? *An nuditas?* Prest ote zegoan zure biotza Jaunaren aginduak

egiteko, naiz emendik etorri aideen, adiskideen, ongi-
llleen aserratztea? Naiz lagunena isekak eta burlak? *An
persecutio*? Prest ote zegoan zure biotza bekatuak ez
egiteko, naiz lepoan ekusi ezpata? *An gladius*? Eran-
tzun beze gure biotzak. *Respondeat cor vestrum*. Ai!
nere Kristauak! Beldur naiz nere buruaz, eta beldur
naiz geien geienaz gai onetan. Atozea, Kristaua, nola
asmo, ta sasoi onen prestua izan zentzakean konfe-
satu zeranean: baldin prestatzeko arretarik izan
ezpadezu? Nola izan zentzakean asmo, ta sasoi onen
prestua, edozein bide asko badezu birauak egiteko?
gurasoak naigabetezko? itz desonestoak esateko?
lagun urkoaren kontra nola nai itzegiteko? Nola izan
zentzakean asmo, ta sasoi onen prestua, baldin urliar-
ren losentxa bat, begiratze bat, edo urliarekikoa gal-
tzeko beldur bat asko izaten bada zuk zure Jaungoi-
koa utzitzeko? Nola izan zentzakean asmo oso, eta
sasoi prestu au, baldin asko izan bada, lagunak beka-
tura, perilletara dijoazela, ekustea: egin dezagun
kontu danza zikiñetara, etxeren bateko jende zoroen
ardalletara, zu ere an ondoren lasterka joateko? Ta
au gutxiago edo geiago beti munduan gertatu bada,
zer izango ezta egungo egunean? Zer? ezta egungo
egunean gala egiten jokoaz, berandu etxeratzeaz?

Ezta desprezio egiten gurasoaz, errietako buruaz, Abendu Santuaz? O! denbora doakabeak! denbora ondoren negargarriak ekarriko dituzuenak, ezpagera zentzutzen!

Konfesio gaiztoak egiten ditugu atzenean, baldiñ ontzeko gure asmoak ezpadira *eragilleak*, au da arerazten ezpadizkigue ontzeko bear diran bizimodua, eta neurri egokiak. Au da, nere Kristauak, asmo egiazkoaren marka, ta siñalerik ederrena. Eta siñale au bada asmo egiazkoa ezagutzeko siñale, ta marka, zer esango degu gure ontzeko asmoaz? Non dira alabaña egungo egunean konfesatuta Kristauari dagoan eran bizitzeko neurria artzen dituenak? Non dira bekatuaren bide, eta perillak osotoro, ta betiko utzitzen dituenak? esan bezee gauetako egoerak, iskanbillak, eta jolasak. Esan bezee iñuteriko, eta beste denboretako zalagardak. Esan bezee neskatxa-mutilen billerak. Eta utzitzen ezpadira bekaturako bide, eta perillak, ekusia dago ez dirala izan gure asmoak eragilleak. Non dira konfesatuta saiatzen diranak ongi bere griña nagusiak, jenio, ta oitura gaiztoak ezitzera, ta ukatzera? Itzegin beza bakoitzaren bizitzak, ta esango digu igaz biraugillea zana, ala dala aurtenere. Igaz zabarra zan gurasoa are zabarragoa dala

aurten. Igaz itzegite, ta beste moduetan zikiña, ta desonestoa zana, are zikiñagoa dala aurten. Igaz esku luzea zuanak aurten are luzeagoa duala. Igaz lagun urkoaren kontra erraz itzezin oi zuanak, aurten askoz geiago. Non dira konfesatuta osotoro utzi dituenak lagun urkoari bekaturako bidea ematen dioen gauzak? Zer esango degu, lagun urkoaganako gorrotoan bizi diranaz? zer, lagun urkoari ondasunetan, onran, faman, eta izen onean egindako kalteak zuzentzeko mugitzen ez diranaz? Zer, dotrina, ongi konfesatzeko modua, eta bere estadu, edo karguak dituan obligazioak ikasten ez dituanaz? eta ikasi ordean iges egiten duanaz ikasteko bidetik? Zer esango degu atzenean egin-bide argiak, eta bidezko dudarik ez duenak adituta erausian dabillenaz gauza berrien batzuek nolanai esaten balira bezala? Oek guziak konfesatuta-ere ez due asmo eragillerik; zeren ezduen biotzik ontzeko bear diran bizimodu, ta neurriak artzeko. Ezta borondate osoa, dio Santo Tomasek, deretxa etorrita obraz agertzen ezpada. *Non est perfecta voluntas, nisi sit talis, quae oportunitate data operetur.*

Ekusten dezu, Kristaua, nola gure animen puzo biurtzen degun konfesioko Sakramentua? Ekusten

dezu zein sarritan egiten diran konfesio gaiztoak ontzeko asmo egiazkoaren faltaz? Ta au guzia ezaguturik ez ote degu beste bizimodurik artu bear? Zer atera dezu, Kristaua, zure oraindañoko bizitza gaiztoaz? Zer, ezpada illuntasunak, tristurak, eta arantza gogorak? Zer, ezpada lotsa anima galgarri bat eragozten dizuna konfesatzea? Zer, ezpada zere bizitza gaiztoa osotoro utzitzera eziñ mugitu bat? Noiz zentzatu ote zera? Atozea, eztakizu zein ona, zein beraa, zein miseriakordioa dan zure Aita Zerukoa? Eztakizu zure billa dabillega aspaldiko denboran? Deitzen, eta bere barkazio eskintzen dizu. Zu argana biurtzen zeran puntuan, aztuko dala, dio, zure eskergabekeria guziaz. Biurtuko dizu galdu dezun graziaren soñeko ederra. Biurtuko dizu Zerurako esku, ta deretxa guzia. Berak, berak garbituko du zure anima; berak gau ta egun lagunduko dizu Zerurako bidean; eta ezta beraren graziarekin eziñ dezagun gauzarik. Presta zaite bada, bekataria zere Jaungana joateko, eta egitzu berarekin pakeak. Bizi zaite Kristauari dagokan eran, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

ABENDUAREN LAUGARREN IGANDERAKO 1.a

Konfesioko sakramentu santuaren gañean.

*Factum est verbum Domini super
Joannem Zachariae filium in deserto.
Et venit in omnem regionem Jordanis
praedicans baptismum paenitentiae
in remissionem peccatorum. Luc. cap. 3*

Gaurko Ebanjelioak aditzera ematen digu, noiz, eta nola asi zan San Juan Bautista Salbatzalle Jesus maitagarriari bideak, edo gizonen biotzak prestatzen. Amabostgarren urtea zijoan Tiberio Erromako Enperadore arkitzen zala. Juduen Erreñua Erromatarren mendera zanean lau puska egiñ zan, Judean presidente zegoan Ponzio Pilatos. Galileako Probinzian Prinzipe, edo Errege txiki bat zan Herodes. Iturea esaten zioen beste bazter batean zegoan Pilipe Herodesen anaia Tetrarka, edo Prinzipearen izenarekin; eta Abilina zeritzan beste bazter, edo Probinzia batean zegoan Lisantias. Atzenean Anas, eta Kaifas ziran Juduen Aita Santuak urteka. Denbora onetan irten

zan S. Juan Bautista eremutik, eta asi zan Jordango inguru guzietan deadarrez, egiteko penitentzia, utzitzeko bekatuaren bideak, eta prestatzeko biotzak Salbatzallearen etorrerarako. Aspaldi da gu-ere asi giñala lan onetan fiñ berarekin. Ekusi dezue, nere Kristauak, nola bekatariak bere animaren puzoi biur-tzen duan konfesioko Sakramentua bere aldetik egiñ bear lukeana egiñ gabez, batzuetan esaminaren faltaz, besteetan ongi damutu gabez; beste askotan ontzeko asmo egiazkoa artu gabez. Au bera gertatzen da ez gutxitan bekatuak ongi aitortu gabez; eta argiro ezagutu dezazuen egia au, itz egiñ nai dizuet gaur konfesioaren gañean. Aditzera emango dizuet lenengo lekuan Jesu-Kristok, eta Eliz Ama Santak konfesatzeko ipintzen diguen Agintea. Aditzera emango dizuet bigarren lekuan, zer, eta nolakoa dan agintzen zakun konfesio au. Aditzera emango dizuet irugarren lekuan, zer lazo, ta koloreakin engañatzen dituan etsaiak asko bekatari. Goazen oraiñ Espiritu Santua-ren argiaren billa, bitarteko ipintzen degula Birjiña guziz Santa Aingeruarekin batean esanaz. Abe Maria.

Lege zarraren denboran, edo Moisesen legean etzan konfesioko Sakramenturik. Alaere lege zarrekoak, beren bekatuen barkazioa iristeko, aitortu bear zituen oek, Morino jakintsuak dionez. Zer, eta nola-koa zan Juduen konfesio au? Ez dira Autoreak iritzi batekoak. Guk dakiguna da, konfesio au etzala Sakramentua, eta eziñ lege zarrean iritxi zezakeala bekatariak egiñ zituan utsegiteen barkazioa onezko damuarekin, edo kontrizioarekin baizik. Etorri zan gero munduaren Salbatzallea, ta guganako ongina, ta amorioak mugitzen zuala utzi zizkigun zazpi iturri edo Sakramentu guziz ugariak, ta beñere agortzen ez diranak, eta oetatik bata da konfesioko Sakramentua. Iturri bat animaren loi guziak garbitzen dituana, bekataria ongi prestatzen bada. Iturri bat illik dauden animak itz birekin piztutzen dituana. Ar ezazue, esan zien Jesu-Kristok Apostolu Santuai; ar ezazue Espiritu Santua: zuek barkatzen dieztezuenean bekatuak barkatuak izango dira. *Quorum remisseritis peccata remittuntur eis.* Eta zuek barkatzen ez dieztezuenenak barkatu gabe geratuko dira. *Et quorum retinueritis retenta sunt.* Au da egia bat Katoliko guziok sinisten deguna, eta egia au ukatzen duana, edo onen kontra

darausena eskomikatzen du Trentoko Konzilioak. *Si quis dixerit, in Catholica Eccla. Penitentiam non esse vere, ac proprie Sacramentum... a Chto Domino nostro institutum, anathema sit.* Jesu-Krisok Apostolu Santuai esan ziezten itzetan utzi zion bekatariari bere utsegiteak aitortzeko, edo konfesatzeko agintea. Ala sinistu du Eliza guziak bere asieratik gaurdaño. Ala erakusten du Trentoko Konzilioak, eta ala sinisten degu guziok. Jesu-Kristoren Aginte, edo mandamentu onek bekatu larrian erori dan Kristaua beartzen du konfesatzera eriotzako perillean dagoanean: beartzen du Jauna artu bear duanean: beartzen du konfesioaren laguntza, eta grazia gabe eziñ iraun duanean bekatuan erori gabe, edo eziñ bestela garaitu duanean griña txarren bat. Atzenean beartzen du bekatuan erori dan Kristaua konfesatzera asko asko luzatu gabe. Ona non dezun, Kristaua, Jesu-Kristok konfesatzeko utzi zigun Agintea, eta ona noiz onek beartzen gaituan konfesatzera.

Elizaren lenengo urteetan etzan Eliza beraren Mandamentuaren bearrik izan Kristauak sarritan artzeko konfesioko Sakramentua, orduan alabaña Mezatara zetozen geienak komulgatzen ziran, eta beragatik sarritan konfesioko iturrian garbituko

zitzen beren animak. Onela bizitu ziran Kristauak aurreneko urte urrezko aetan; baña asi zan oztutzen jaiera andi au, ta agindu bear izan zuan Elizak, Kristau guziak iru Pazkoetan bederik konfesatu, ta komulgatu zitezela, au da Eguerrietan, Pazkoa loratuan, eta Espiritu Santuaren etorreran. Baña Eliz Ama Santaren aginte au etzan asko izan, ar-erazteko Kristauai galdu zuen bide ona; eta San Juan Letranen egin zuan Konzilio batean agindu zuan orain bost eun, eta larogei urte danean, urtean bein gutxiena konfesatu, eta komulgatu ditezela ezagueran sartu diran Kristau guziak. Agindu zuan gañera, Mandamentu au gordezten ez duanari debekatu dakiola Elizan sartzea, ta ez dakiola eman iltzen danean Eliz-lurrik. Bazekusan Eliz Ama Santak, bere umeen artean arki zitekeala nor, edo nor sasoi onean egongo etzana bear dan denboran artzeko konfesioko Sakramentua, ta komunio Santua; eta tranze onetarako eman zien animen Arzaiai eskua bekatariari luzatzeko denbora konfesatzeko, eta Jauna artzeko. *Noso forte de proprii Sacerdotis consilio ob aliquam rationabilem causam ad tempus ab ejus perceptione duxerit abstinentum.* Ekusten dezu, Kristaua, zeñ beratasun, eta kontu andia duan Eliz Ama Santak bekatari errenakkin-ere?

Baña guziak saiatu ote ziran, ta saiatzen ote dira Eliz Ama Santaren Mandamentu au gordetzera? Ez, nere Kristauak; batzuek nola nai konfesatu, eta komulgatu izan dira, eta Elizak aditzera eman bear izandu ezta- la konfesatzeko, ta komulgatzeko Mandamentua gor- detzen konfesio, ta komunio gaiztoarekin; besteak igeska ibilli izan dira Elizaren Mandamentuak estutze- ra egin duanean. Argatik Obispadu onetan agindua dago, lenbizia: gaitzarekin onaren ezagueran sartu diran guziak konfesatu ditezela al duen damurik andienarekin urtean beiñ gutxiena garizumako den- boran. Bigarrena: erramu egunetik asita amabost egunen barrunbean komulgatu ditezela komulgatze- ra beartuak daudenak eskomiku nagusiaren, eta lau errearen penan. Irugarrena: erramutik asita urrengo amabost egunen barrunen egin ezpadue nagiren batzuek Elizaren agindua, Erretoreak, edo animen Zaiak Elizan aditzera eman, edo agertu ditzala oek, eta ez degiela utzi egoten ez Mezatan, ez bezperetan. Laugarrena: baldiñ beste amabost egunen barrun- bean ezpadira oek konfesatzen, eta komulgatzen, desobediencia onegatik erortzen dirala eskomiku nagusian. Bostgarrena, urte oro *Korpus* bitartean bidal ditzeela Erretoreak Probisore Jaunagana onela-

ko errenen izenak. Denbora luzeetan aztua bezala egon da lege oek agintzen duena, zeren Kristauak kontuz gordetzen zuen Elizaren Mandamentua; baña ugaritu dira onelako errenak, eta Elizaren Mandamentuak ezertan artzen ez dituenak, eta igaz aginduzan, legeak zion eran bidal ditezela Elizarekin kunplitzen ez duenen izenak. Ekusten dezu, Kristaua, Eliz Ama Santak konfesatzeko ipiñi digun mandamentua? Ekusi-ezazu oraiñ zer, eta nolakoa dan agintzen zakun konfesio au.

§ II.

Egiten dezu, Kristaua, zure bekatuen examiña, aurretik erakutsi zatzun eran. Artzen dezu egiñ dituzun utsegiteen damu egiazkoa eta ontzeko asmo osoa, leneko dotrinetan aditu zentzakean bezala. Bazatoz konfesatzera zere Jaungoikoarekin pakeak egiteko nai andi batekin. Ez dezu ibilli bear besteri bere santxa kendu naiez. Ez dezu etorri bear arrotasuna, ta antustea agertzen dezula jauntzian, eta zere moduetan. Ez dezu belaunikoka, ta arrastaka joan bear konfesatzera, zenbait mutill kaskar joan oi diran

bezala. Ez dezu konfesorearen aora begira jarri bear konfesatzeko, baizik eskuieko, edo ezkerreko belarri-ronz; belarriakkin alabaña, ez aoarekin aditu bearko du zuk esango diozuna. Jartzen zera bada modestia ederrarekin belauniko, ziñatzen zera, eta esaten dezu: *Ni bekataria konfesatzen naitzaio Jainko Guzialdunari, eta zuri nere Aita*, ta asitzen dezu zure konfesioa. *Ni bekataria*, diot, zeren biotzeko damua sortzeko alegiñak lenago egiñ bear dituzu, konfesatzen asitzeko puntu edo unearen zai egon gabe, aurreko dotrinetan esan dan bezala. Era onetan aitortzen diozkatzu konfesoreari, gertatu zaizkitzun utsegiteak, zere konzienzian arkitu dituzun eran, pensamentuak alde batera, itzak bestera, eta obrak beste batera. Au da nere Kristauak konfesioa. Ta nolakoa ote da Sakramentu onek eskatzen duan konfesioa? Autoreak modu, edo kondizio asko dakazte, batzuek konfesioa obeto egiteko diranak, besteak osotoro bearrak, eta premiazkoak. Oetatik batzuek aditzera emango ditut oraiñ begien aurrean ipintzen ditzuedala nola gure bekatuen konfesioa egiñ bear degun.

Konfesatu bear dezu lenengo lekuan humiltasunarekin; au da zere itzetan, eta modu guzietan aditzera ematen dezula, ezagutzen dezula Jaungoikoa-

ganako zere eskergabekeria, eta damaturik arkitzen zerala. Umiltasun au agertu zuan Ebanjelioko seme ondatzalleak bere Aitagana biurtu zanean: *Aita esan zion, egiñ det bekatu zure kontra, ta Zeruaren aurrean: eta ez dagokit geroz zure semearen izena. Pater, peccavi in Caelum, et coram te; jam non sum dignus vocari filius tuus.* Konfesatu bear dezu bigarre-na ixillik. Au izan da Kristauen oitura, ta usadioa Elizaren aurreneko denboretatik, dio Trentoko Konzilioak. Egia da Elizaren lenengo denboretan konfesio ixilla ezezik usatu izan zala konfesio agiria ere egitea Obispo Jaunen, Elizako Ministroen, eta Elizan arkitzen ziran guzien aurrean, edo zeren Obispo Jaunak ala agindu zion bekatariren bati, edo zeren bekatariak berak ala nai zuan; baña onelako bekatari batek Konstantinoplako Elizan, Nektario ango Obispo zan denboran, bere bekatuak aitortzeaz gañera aditzera eman zuan bekatoren batean lagun izan zuana ere: eta emendik artu zan bidea konfesio agirikoaren usadioa kentzeko; ta zori onekoak gu ixillik bederik konfesio onak egiten bagendu. Konfesatu bear degu irugarrena lotsa, ta modestia eder batekin. Bada lotsa bat gaiztoa, eta berekiñ bekatua dakarrena, esaten digu Espiritu Santuak: *Est confusio adducens pecca-*

tum. Onelakoa da bekatariari bere utsegiteak ukarazten diozkan lotsa. Ta bada beste lotsa bat txit ederra Jaunaren begietan: *Et est confusio adducens gloriam, et gratiam*. Au da arako lotsa ura, zeñarekiñ bekataria lotsatzen dan bere Aita Zerukoaren kontra izan dan bezeñ eskergabea izanaz. Konfesatu bear degu laugarrena argiro, eta ipui edo konturik nastu gabe. Ezta konfesioa kontuak kontatzeko; baizik bakoitzak bere utsegiteak garbiro esateko. Bereak, diot, ez besterenak. Eta kontu, ez dezu esan bear nor lagun izan dezun bekatuan. Konfesatu bear dezu bostgarrena ederkatura gabe. Egiñ dezagun kontu: *Bota diozu lagun urkoari birau, edo madarikazio bat: esan ezazu bada: Bota det birau bat era onetan edo artan nere pazienziaren faltaz, eta ez dezazula esan bota dezula zeren emazteak, umeak, edo auzoak aserrerao dizuen*. Konfesatu bear dezu seigarrena egiaz, edo gezurrik esaten ez dezula, eta gezurra esaten badezu, gai larrian beintzat, egiten dezu sakrilejioa. Atzenean konfesatu bear dituzu zeregan arkitzen dituzun utsegite larriak osotoro, naiz galde ditza-la konfesoreak, naiz ez. Osotoro aitortzeko, edo konfesatzeko zure utsegiteak aitortu bear dezu, zer birtute, edo mandamenturen kontra utsegiñ dezun: nola

utsegiñ dezun au da, edo pensamentuz, edo itzez, edo obraz. Zenbat bider utsegiñ dezun. Iñori bekatu-rako biderik eman badiozu, zenbat laguni, eta zenbat bider? Eta oen artean ote zan umerik edo miraberik, eta zenbat? Garbitasunaren kontrako bekatuetan erori danak, aitortu bear du urlia aidea, ezkondua, edo beste estadutakoa zan, edo ez. Baldiñ utsegiteak oiturazkoak eta berrizkaturarekin badira, orduan aitortu bear degu oraiñ geranak len-ere izan gerala (batezere konfesoreak galdetzen badigu). Bekatua-ren bide, edo perill urkoan dagoanak aitortu bear du au; zeren borondatez perillean egotea, edo jartzea bera bekatu dan, eta gañera zeren perill au agertzen ez dala, eziñ konfesoreak ezagutu dezakean zer egin bear duan. Ekusten dezu zer, eta nolakoa dan Peni-tenziako Sakramentuak eskatzen duan konfesioa? Badakus etsaiak, zeñ andiak diran konfesio onetik datozen frutuak, eta oek eragozteko, ta bekatariak engañatzeko prestatzen ditu bere lazoak, eta era onetan eragiten diezte asko konfesio gaizto. Lazo oetatik batzuek begien aurrean ipiñi nai dizkitzut oraiñ Kristaua; oetan erori bazera, irten zaitezten len-bait len, eta erori ezpazera, bizi zaitezten kontuz, eta perilletik aldegiten dezula.

§ III.

Gure Jaungoikoak eman zigun lotsa dio S. Juan Krisostomok, bekatu egiteko, ta eman zigun barkazioaren ustea egiñ ditugun utsegiteak aitortzeko. *Pudorem, et verecundiam Deus dedit peccato, confessioni fiduciam*. Zer egiten du etsai anima galgarriak? Aldatzen ditu bi gauza oek; bekatu eragiteko ematen du barkazioaren ustea, eta bekatua aitortzeko lotsa. *Invertit rem Diabolus: et peccato fiduciam praebet, eta confesioni pudorem*. Etsaiaren lenengo lazoa izan oi da au: *Bekatua* diozu zeregan, Kristaua, bekatua egiñ dedilla pensamentuz, edo itzez, edo obraz, beti da bekatu, eta asko izango da esatea bekatu egiñ dedala pensamentuz onenbeste bider. Zertarako esan nere buruarekin, edo besterekin egiñ *ditudan gauza itsusi oek*? Onela engañatzen dira zenbait bekatari, ta bear bada era onetan dijoaz beste mundura. Bekataria, zuk zure utsegiteen barkazioa iristeko, aitortu bear dituzu zere biotzean arkitzen dituzun eran; pensamentuak pensamentuak bezala, itzak itzak bezala, ta obrak era berean. Bigarren lazoa: *nik*

egiñ nuan gauza itsusi ura, baña ez nuan nai bekatu egitea, ta ez det zer konfesaturik. Atozea, etziñan zere naiez perillean jarri edo egon? Etzenduan bekatu dan gauza egiñ, aldegin zentzakeala, edo beintzat aldegiteko neurriak artu zintzakeala? Zertarako dira bada aitzakia oriek? Irugarren lazoa: *Gauza itsusi oek egiñ nituanean txikitxo nintzan zer niakian nik orduan, zer zan bekatua?* Atozea, ta etzenduan zeregan ezagutzen gauza gaiztoa, edo itsusia zala oriek egitea? Etzenduan gurasoen begietatik aldegiten? Utzi gjezu, Kristaua, aitzakia oriei, ta esan giozkatzu konfesoreari gertatu zaizkitzun gauzak gertatu diran bezala: eta ez esan, zerbait gogortzera egiña ziñan denboran gertatu zitzaizkitzun gaiztakeriak, ezaguerarik batere etzenduan denborakoak dirala. Laugarren lazoa: *Nik ez nukean nai bekatu ura egitea; eta esan nion berak konfesatu bear ko zuala.* Atozea, Kristaua, ta eztakizu konfesioa bakoitzak berak, ez bestez egiñ bear duala? Zuk aitortu bear dezu egiñ dezun utsegitea bere saiets, edo zirkunstanziakin; eta besteak aitortu bear ditu bereak. Ezta urte asko asko, inguru oetan gertatu omen zala oraiñ esatera noana. Neskaxa batek egiñ zituan lotsatzen zuen zikinkeriarren batzuek. Gaixotu zan iltzeko gaitzare-

kin. Konfesatu zan, baña gaizki. Artu zuan Jauna, baita Oleazioa-ere. Aurrera zijoan gaitza, eta alaere etzuan biotzik bere utsegiteak aitortzeko. Jartzen da iltzeko izerdiakin, eta ezaguturik iltzera zijoala, esan zion neskatxa-lagun bati: *Urlia, iltzera noa; gertatu zitzaiztan onako utsegite oek, eta ez ditut konfesatu lotsaz; zuk nere orde z konfesatu itzatzu.* Era onetan iltzan. Ona nola engañatzen dituan etsaiak asko anima! Bostgarren lazoa: *Bekatu au esaten badiot konfesoreari, eramango naue Inkisiziora.* Zergatik? Atozea, eztakizu eziñ konfesoreak agertu dezakeala ezergatik-ere esaten zaion gauzarik? Eztakizu, konfesorea aiñ zakar-anima gabea baliz-ere, eziñ onek esandako gauzaz baliatuko litzakeala ez inkisizioa, ez besterik? Seigarren lazoa: *Jesus, nork esango ditu bekatu onen itsusiak?* Ez nik beintzat. Atozea, txoraiska: ukatu dezu Jesu-Kristo? eta eztakizu ukatu zuala S. Pedrok-ere? eta ala ere da Santu aiñ andia! Egiñ dezu eriotzaren bat? Eta eztakizu Dabidek-ere illerazo zuala Urias, eta gañera zikindu ziola bere emaztea? eta Dabid ala ere da Santu andi bat! Egiñ dituzu Elizaren, eta Elizakoen kontra gauza gaiztoak? Eta eztakizu egiñ zituala S. Paulok-ere era onetako gauzak? Ta ala ere, S. Paulo da Jesu-Kristoren Apostolua,

ta Santu andia; ta berak aitortzen du bere bekatua. Izan zera emakume desleiala zere bizi lagunarentzat? Eta eztakizu, nola Jesu-Kristok barkatu zion emakume zure antzeko bati? Izan zera mutill arro loikerietan ondaturik bizitu zerana, eta nori nai bekaturako bidea eman diozuna? Eta eztakizu S. Agustiñ-ere denbora batean bizitu zala atsegiñ loien ondoren itsutua? baña biurtu zan Jaunagana, eta da guziok dakigun bezalako Santua. Izan zera neskatz ergela, zere ibille-
ra, zere itz egite, eta jauntziarekiñ bekaturako biska, ta lazoak ipiñi dituzuna? Eta eztakizu denbora batean Magdalena batek au guzia egiñ zuala? ta alaere da Santa txit andia. Zergatik bada zuk txorakeria oriekiñ geratu nai dezu etsaiaren mendean, Santu edo Santa bat izan zaitezkeala?

Zazpigarren lazoa: *Eztago neretzat zerurik; ezta-
go barkaziorik, eta miserikordiarik.* Atozea, zer darauskizu tristea? Eztakizu, Jaunak berak diola, ez duala nai bekataria galtzea, baizik beragana biurtzea, ta beraren grazian bizitzea? Eztakizu, berak diola, bekataria argana biurtzen dan puntuan aztuko dala aren gaiztakeriaz? Eztakizu, zuri zure bekatuak barkatzeko gizon egiñ zala, gurutzean bizitza eman zuala, eta deitzen dizula Arzai onaren eran? Eztakizu

zure zauri guziak sendatzeko (diranak dirala) utzi zuala konfesioko iturria? Eztakizu, zenbat epe, edo denbora eman dizkitzun? zenbat bider ukitu dizun zure biotza aspaldiko denboran? Ta, au guzia dakizula, zorakeria oriekiñ zabilta? Billa ezazu zure Aita ona humilki, billa ezazu garai onean; arkituko dezu, eta jarriko zera Zerurako bidean. Zortzigaarren lazoa: *Ikaratuko da konfesorea, esaten badiozkat nere bekatu itsusiak; eta ez dit absoluziorik emango.* Ikaratu konfesorea? Eztu Eskritura Santa irakurtzea besterik, ekusteko zuk dituzun bekatu oriek, eta are itsusiagoak anziñatik munduan gertatu izan dirala. An ekusiko du, Adanen umeai darraiztela bekatua gutxiago, edo geiago, lurrari belar gaiztoak darraion eran. Jakiñ ezazu, Kristaua, ez duala konfesorea izutzen bekatu asko, ta andiak aditzeak, baizik bekatariak ontzeko biotzik ez duala, ekusteak. Presta zaite bada zu ondo, utzi itzatzu bekatuaren bideak, eta ar itzatzu ongi bizitzeko neurriak, eta orduan konfeso-reagan arkituko dezu, zuk nai dezun atsegin-kontentua; ta iñoz esaten badizu, obeto presta zaitezela, ori da zure onagatik, eta Sakramentuak gaizki artu ez ditzatzun. Bederatzigarren lazoa: *Jesus, eta zer bere gogoan idukiko du nere konfesoareak, esaten badioz-*

kat bekatu oek? Oraindaño iritzi onean iduki nau, ta aditzen duanean gertatu zatana zer esango du? Zer esango du diozu konfesoreak? Baldiñ zu ongi prestatu-rik, eta bizitza onaren neurriak artzeko egarriarekin ekusten bazaitu, alde batetik urrikimentu andi bat artuko bere biotzean, eta bestetik len baño-ere iritzi obean idukiko zaitu. Soldadeskan dabillen batek artzen badu erida andi bat, eta lenbait len badijoa sendatzalleagana, esaten diola: *Ea ona ni herida oekin, egin bedi laster sendatzeko bear dana ekin degiodan gero berriro etsaiari*. Atozea, zer esango zenduke soldadu onez? Zer, ezpada biotz andiko soldadu bat dala? Au bera esango du zuzaz konfesoreak, baldiñ zere herida oriekiñ bazoaz ongi prestatua, eta etsaiaren kontra ongi peleatzeko asmoarekiñ. Amargarren lazoa: *Badator garaizuma, edo etorriko da Misioren bat, eta orduan guzia esango det baña artean ez?* Atozea, Kristaua, tan nondik dakizu lekurik izango dezun edo ez? Nondik dakizu, lekua izandare, garaituko dezula zure lotsa, ta atzerapen ori? Ah! Beldur naiz, gerta dakizun Isaias Profetak dion gauza bat: *Etorri ziran, dio, Profeta onek; etorri ziran jaiotzeko zori zoriraño, eta etzuan amak izan erditzeko indarrik. Venerunt filii usque ad partum, et virtus non est*

pariendi. Zure lotsa ori bekataria egunetik egunera aziaz joango da, eta beti geroko utziko dezu zure utsegiteen aitortzea. Franziaiko erri batean aurdun zegoan Kolanba zeritzan emakume bat. Asi zitzaizkan erdiratzeko miñak, baña eziñ erdi zan. Iru urtean iraun zuen miñ oek, eta etzan beñere erdi. Ogei ta bost urtean bizitu zan bere aurra sabelean zuala: il zan, eta askatuta, arkitu zioen narrua arri biurtua. Ah! aditzen zauden Kristaua: ez aditu, edo enzun gor egi-ten diozu oraiñ Jaunaren gaztiguai; gero egingo dezula, diozu, bekatu guzien gobada; baña begira beste askori gertatu zatena, gertatu eztakizun, begira zure bekatu oriek arriaren eran gogortuak gera ez ditezen. Atzeneko etsaiaren lazoa: *Oraindik badet denbora Jainkoari eskerrak, ilzerakoan egingo det bizitza guziko konfesio bat*. Iltzerakoan, Kristaua, iltzerakoan? Egin dezagun kontu, ematen dizula Jaunak denbora. Jakiñ ezazu, eztala ordu ura egokia lan oetarako; jakiñ ezazu, gaitzak, il bearrak, eta betiko infernua begien aurrean ekusteak, uzten duela bekatariaren biotza, ezertarako ez dala, ta gauz onetarako kemenik gabe. Enzun ezazu Españaiko erri batean neskatxa gazte bati gertatua. Neskatxa au zan ederra, ta doai onez apaindua, baña il zitzaizkan gurasoak, eta geratu zan

ume zurtza. Artu zuan gazte batek onenganako jaiera, ta etzan geratu gaitzera kuturtu zuan artean. Konfesatzen zan sarritan, baña etzuan biotzik bere utsegitea esateko: lotsak alabaña garaitzen zuan. Onela bizi zan anima doakabe au, munduaren begietan ongi baña Jainkoarekiko txit gaizki. Erri artara joan zan Misionari jakintsu bat, eta deitu zion oni gaixo egiten zuala bere burua. Joan zitzaion batere luzatu gabe, ta utzirik laguna konfesioko gauzarik eziñ aditu zezakean lekuan, asi zan bekatariari ongi zegozkan gauzak esaten: aditu zion aitortu zuan guzia, eman zion absoluzioa, eta biurtu zan bere lekura. Berekiñ zuan lagunak aditzera eman zion, eria konfesatzen zegoan bitartean ekusi zuala gauza izugarri bat. *Ekusi det, zion*, oiaren bazter batetik agertzen zala noizean beiñ atzapar itsusi-ikaragarri bat; *artzen zuan neskatxa zintzurretik, eta itotzear ipiñtzen zuala zirudian*. Au ekusi det beiñ ta berriz. Aditurik au laster egiñ zuan Misionistak bere bekatariagana; baña, begira zeñ ikaragarriak diran Jaunaren juizioak! osasunarekiñ arkitzen zan neskatxa au ill otza geratu zan konfeso-rea bigarren aldian aren etxean sartzean. Ezta gogorra ekarri besterik, nolako illuntasun, eta tristurarekiñ geratuko zan konfeso-rea. Asitzen da Jaunari erregu-

tzen, eta onetan dagoala, aditzen ditu kateen otsak, ai! eta adia ikaragarria batzuek. Begiratzen du, ta agertzen zaio norbait guzia suz, eta garrez inguratua. *Nor, edo zeñ zera zu?* galdetu zion. Ni naiz, ni zurekiñ konfesatu naizan bekataria, erantzun zion. Atozea, eta etziñan ongi konfesatu? Ez osotoro, ta gertatu zatana zuri aditzera ematera nator. Jakiñ bear dezu, nere ama il zanean geratu nintzala bakarra, ta nola itxura onekoa nintzan, asi zan gazte bat nigana-ko adiskidetasuna artzen. Denboren buruan bere erregu, ta palakkuakiñ eragiñ zidan bekatu. Iru urtean bizitu nintzan, sarritan konfesatzen nintzala, baña beti lotsaz gordetzen nuala bekatu au. Bidaldu zinduan Jaunak zu erri onetara Misioa egitera; aditu nituan zure sermoiak, eta bakoitzak arpoi baten eran igarotzen zidan biotza, eta neritzan neretzat bakarrik itz egiten zenduala. Biurtzen nintzan etxera, ta negarrez eziñ aspertu nintzan. Urlia, esaten nion nere buruari. Gerta diteke zuk betiko galdu nai izatea zere burua? Etzenduan lotsarik izan bekatu egiteko; eta oriañ lotsaz zaude bekatua aitortzeko? Deitu zindudan, gaixo nere burua egiten nuala: ta ai! asi nintzan bekatu txikietatik andienak azkenerako utzitzen nituala; gero etsaiak buruan ipiñi zidan, asko galduko

nuala nere faman aitortzen banuan nere bekatua; orduan osasuna nuala, ta gaixotzean egingo nuala konfesio on bat. Ozta irten ziñan zu nere etxetik, geratu nintzan itz gabe, ta denbora gutxiren barrenen illa. Arritu zan konfesorea, ta onek galdetu zion anima doakabe ari: *Atozea, ta zer da oraiñ zuri pena, ta naigaberik andiena ematen dizun gauza? Ekusteak*, erantzun zion; ekusteak, Jaunak bidaldu zinduala zu leku urrutietatik onera ni bekatutik ateratzeko, eta galdu dedala era aiñ ederra. Au esanda, adia, eta kateen ots izugarriak egiten zituala, ezkutatu zan anima doakabea beti-betiko su, eta garren artera. Ekusten dezu, Kristau beldurtia? Ekusten dezu, zer dakarren lotsa anima galgarri bati emateak?

Aditu dezu, Kristaua, nola Jesu-Kristok utzi zion Eliz Ama Santari Konfesioko Sakramentua gure animak garbitzeko, sendatzeko, ta Zeruko bidean ipintzeko. Aditu dezu Jesu-Kristok, eta Jesu-Kristoren Elizak bere umeai agintzen diena. Aditu dezu zer, eta nolakoa dan agintzen zakun konfesio au. Aditu dezu atzenean, zer lazo, eta koloreakkin engañatzen dituan etsaiak asko bekatari? Atozea oraiñ; zenbat, eta zenbat konfesio gaizto ez ditu eragiten etsaiak era onetan? Atozea zu, neskatxa gaztea: zenbat den-

bora da lotsaz bizi zerala arako bekatu ura garbiro esateko? Atozea zu mutil gaizki oitua, zenbat urte da lotsaz gordetzen dezula arako egiñ zenduan lizunkeria itsusi ura? Eta ez ote dira zarren artean eziñ mugitu diranak beren bekatuak osotoro aitortzera? Utzi itzatzu, Kristaua, txorakeria oriek; presta zaite ongi, ta naiz herejia bazendu-ere, zoaz nai dezun konfeso-reagana, eta aurrenetik esan giozu kezkarik geiena ematen dizun bekatu ori. Zure anima gaixoagatik ez dezazula lotsaz utzi esan gabe egia. *Pro anima tua ne confundaris dicere verum.* Zuk ekusiko dezu, nolako atsegin-kontentua artuko dezun, zere burua bekatua-ren kargatik libre ateratzen dezunean. Zuk ekusiko dezu, zeñ gauza gozoa dan zure Aita Zerukoarekin pakean egotea. Ta pakea au gordetzeko bizimoduan irauten badezu, berak emango dizu zuretzat prestaturik daukan betiko bizitza doatsua. Amen.

ABENDUAREN LAUGARREN IGANDERAKO 2.a

Azken juizioko egunaren gañean.

Et videbit omnis caro salutare Dei. Luc. c. 3.

Gure Salbatzalle Jesus maitagarria jaio zan Belenen, eta jaiotz au aditzera eman ziezan Zeruko Aingeruak, Belenen inguruan artaldeakin zebiltzan, arzaiai. Aditzera eman zien izar eder batek iru erregeai, eta gañera Espiritu Santuak aditzera eman zion Jerusalemgo Elizan Simeoni. Alaere Jesus bizitu zan Nazaretko errian ogei, ta bederatzi urteetaraño, Salbatzallertzat iñork ezagutzen etzuala. Berri au munduari adirazteko, autua zedukan Jaunak San Juan Bautista. Jaio zan S. Juan, Jesus baño lentxeago, eta bizitu zan ogei, ta amar urteetaraño eremu izugarri batean bakarrik: aren soñekoa zan gameluaren illezko zamarra bat: janaria basoko langostoak, eta aitzetan arkitzen zuan ezitia: edaria ur utsa. Agindu zion Jaunak, irten zedilla Salbatzallearen etorrera adiraztera: eta onetarako prestaerazi zitzala gizonen biotzak bekatuen damua-

rekin. Joan zan bereala Jordango ibaiaren inguruetakoa errietara: asi zan penitentsia, edo bekatuen damuaren gañean itzegiten, eta damu au agertzen zuen bekatariak bataiatzen zituan ibaian. Galdetu oi da, bataio au Sakramentu zan, edo ez gure bataioaren eran, eta eranzuten da ezetz; etzuan alabaña bekatuak barkatzeko indarririk, eta besterik esatea debekatzen du Trentoko Konzilioak. Alaere laguntzen zuan, oitu zitezzen bekatariak, Jesu-Kristok gero ipiñi zuan bataiora.

Isaiasek, Profetak bezala, lenagotik ekusi zuan nola S. Juanek deadar egiten zuan eremuan: Presta ezazue Salbatzallearen bidea; *Parate viam Domini*: zuzendu itzatzue aren bideak: *Rectas facite semitas ejus*: orduan goratuak izango dira biotz umillak: *Omnis vallis implebitur; et omnis mons, et collis humiliabitur*: eta mendien eran goitituak dauden arro, eta antustez beteak umilduko dira: *Omnis vallis implebitur; et omnis mons, et collis humiliabitur*: len okerrak ziran biotzak zuzendu, eta len lakatzak ziran bideak leundu, eta zelaituko dira: *Erunt prava in directa, et aspera in vias planas*. Zer geiago? Orduan gizon guziak beren begiz ekusiko due, Jaunak bidaldu dien, Salbatzallea: *Et videbit omnis caro Salutare Dei*.

Egiñ zuan S. Joaneke ederki Isaiasek lenago aditzera eman zuana: agertu zan Salbatzallea nork nai ekusteko eran, eta askok ekusi zuen; baña orduan bizi ziranen artean geienak etzuen ekusi, eta are gutxiago ekusi zezakeen etorkizun zeudenak. Salbatzallea, guziak ekustea gertatuko da azken-kontuen egunean: egun artan argiro ekusiko due Aingeru, eta gizon guziak, ala onak, nola gaiztoak. Beragatik gaur itzegiñ nai dizuet azken-kontuetako egunaren gañean, eta aditzera emango det, zeñ izugarria izango dan bekatariarentzat egun ura. Billa dezagun onetarako Espiritu Santuaren laguntza, bitarteko ipiñirik Birjiña guziz Santa, Aingeruarekin batean esaten diogula. *Abe Maria.*

§ I.

Erabakia dago gizonarentzat beiñ iltzea, eta ondoren kontuak ematea, dio S. Paulok. Au gertatzen da lenengo lekuan eriotzaren unean bertan; baña nola orduan gorputza geratzen dan obian dagokan saria artu gabe, munduaren bukaeran bilduko dira Adanen ume guziak kontuak ematera. Au da egia bat

katoliko guziok sinisten deguna, eta Kredoan bertan Eliz Ama Santak erakusten diguna. Egun onen aurretik ekusiko dira asko siñale, eta azkenean agertuko da suzko ibai bat, mundu au auts biurtuko duana. Auts biurtuko dira gizonak, eta emakumeak. Auts biurtuko dira erriak, gaztelu, eta etxeak. Auts biurtuko dira artoak, gariak, ardiak, beiak, basoak. Auts biurtuko dira urre, zillar, perla, diamante, eta gañerako gauzak. Ala dio S. Pedrok: *Terra autem, et quae in ipsa sunt opera exurentur*. Au gertatzen danean, bereala izango da azken-kontuen eguna. Egun oni deitzen dio Sofonias Profetak Jaunaren egun andia: *Dies Domini magnus: aserre, neke, ta estutasunaren eguna: Dies irae dies illa, dies tribulationis, et angustiae*. Norentzat ote? Bekatarientzat, ez Jaunaren beldur Santuan bizi diranentzat. Au ongi ezagutu dezazun, bekataria, enzun arreta andiarekin egun artan ekusi bear ditugun gauzetatik andienak bederik.

Bukatzen danean mundua, esan degun eran, jatxiko da Zerutik Aingeru bat, eta bear bada S. Migel, askok uste duen bezala. Deituko die ill guziaz, dijoazela kontuak ematera. Ots au añ bizi, indartsu, ta izugarria izango da, non adituko dan munduaren leku aldeetan. Adituko da Zeruan, eta doatsuen animak

atsegin, eta pozez beteko dira, zeren mundu guziaren aurrean emango duan Jaunak aen aldeko sententzia, eta gañera zeren ainbeste denboran auts artean, eta arren bazkatzat egon diran beren gorputzak ekusi bear dituen doatsuen doai ederrez apainduak. Jatxiko dira Zerutik milloika anima doatsuak, edo Adan, eta Ebagandik asi ta munduaren bukaeraraño izango diran anima on guziak: eta prest arkituko ditue, len izan zituen gorputzak berak. Nork esan anima onen orduko atsegin-kontentua? Zuk oraiñ, Kristaua, konfesio on batekin garbitzen badezu zure anima, eta ukatzen badituzu zure griña txarrak, eta jarraitzen badiozu bizitz onari nork esan, zuk artuko dezun poza ekusten dezunean zure gorputza? O nere gorputza, esango diozu, bear bada: denbora batean nekatu ninduzun, eta nekatu ziñan zere gura txarrakin, nekatu ziñan zure begi, belarri, mingañ, eta esku-oñai ukatzean, eskatzen zituen atsegiñ lotsagarriak: nekatu ziñan lagun gaizto, etxe, eta adiskidetasun anima galgarrietatik aldegin zenduanean: nekatu ziñan sarritan, eta prestaera onarekin konfesatzen, lagunnen erausi, ta isekak aditzen, eta bizitza onari jarraitzen; igaro zan neke oen negu gogorra, eta etorri da atsegin-kontentuen betiko udaberria: *jam hiens tran-*

siit (Cantic. 2). Sartuko da anima doatsua bere gorputzean, eta bereala piztuko da au. Piztuko da beñere ez iltzeko: piztuko da tatxarik batere gabe, eta S. Agustiñen iritzian piztuko da gaztetasunean izan, edo izango zuan sasoi ederrean. Gutxi da au: gorputza une artan bertan geratuko da doatsu, edo zori onekoaren doaiez edertu, ta apaindua. Lenengo doaia: alako aro, edo sasoi geratuko da, non ezerk kalterik eziñ egingo dion, ez eritasunak, ez eriotzak: *Mors ultra non erit... neque dolor erit ultra*. Bigarren doaia: añ bizi, ta ariña geratuko da, non begien itxi-idiki batean joan litekean gogorazio, edo pensamentuaren eran nekerik gabe, nora nai. Irugarren doaia: geratuko da añ garbi, ta mea, non espiritu utsa baliz bezala sartu ta irten litekean edozeñ tokitatik, ezerk ere eragozten ez diola. Laugarren doaia: doatsuaren gorputzak argi egingo du, S. Mateok dionez (cap. 13), eguzkiaren eran: *Fulgebunt sicut sol*, Argitasunaren doai au izango da apaindura bat beñere zartu, eta urratuko ez dana: eta era onetan apaindua dakusazunean zere burua, zer esango dezu, Kristaua? Au bera geratuko da beste doatsuakin, eta ekusiko dituzu milloiak, eta milloiak eguzkiak bezala argi egiten duela.

Baña Aingeruaren otsa Zeruan ezezik infernuan ere adituko da. Arrituko dira Luzifer, eta bere Aingeru gaiztoak. Arrituko dira bekatari galduen animak. Naiago izango lukee infernuaren zokorik illunenean ezkutaturik egotea, Jesu-Kristoren, eta mundu guztiaren aurrean agertzea baño; baño nai, ta nai ez irten bearko due Jaunari kontuak ematera. Irtengo dira Luzifer, eta beste Aingeru gaiztoak. Irtengo dira linbotik, bataiorik gabe ill ziran aurren animak, milloiak, eta milloiak: eta geratuko dira gaixoak betiko erbes-tetuak Zerutik. Odolezko malkoakin negar egitea eskatzen duan gauza da au, begiratzen badegu, aur aek gurasoen edo zabarkeriaz, edo gaiztakeriaz Zerutik deserrituak betiko geratuko dirala. O! guraso gogor madarikatuak! zuen gañera eroriko da Jaunaren aserrea. Irtengo dira an beko su, eta garren arte-tik Lutero, Kalbino, eta oekin batean bekatua egiteko bide, eta moduak gazte jakiñezai erakusten bizitu ziranak. Irtengo dira gizon, eta mutil palakuz, eta losentxakiñ, edo ezkontzeko itzaren iduriarekin animak infernura amilderazo zituenak, elkarri darraizkalla, eta elkarren kontra madarikazioa dariela. Irtengo dira emakume, janzian onestidadea gorde nai izan etzuenak, ergelak, eta bekatuako biska prestatzen

zuenak. Irtengo dira errietako kargudun, eta guraso zabarrak. Irtengo dira emengo izan, eta irabazietan biotza ipiñita, saltze, eta eroste itsusietan bizitu ziranak, eta erriari, edo lagun urkoari gaizki eramana itzultzeko biotzik izan etzuenak. Joango da anima bakoitza bere gorputzagana eta nork esan, zeñ iraiñ gaiztoarekin begiratuko dion? Ekusiko du alabaña, aren gura txarrai atsegiñ emateagatik betiko galdu duala bere burua. Sartuko da anima doakabea bere gorputzean, berun, edo menast urtua molde batean sartuko baliz bezala, eta ordutanik asiko da gorputza betiko oñazeakiñ. Eztakigu, norañokoa izango dan doakabe bakoitzaren itsustasuna; baña askoren iritzian, aiñ itsusia geratuko da doakabea, non ekuste utsa asko izango lizakean nor nai ill otza geratzeko. Eta zer izango da onelako milloiak, eta milloiak ekustea? Atozea oraiñ, Kristaua: eta Aingeruak tronpeta-rekiñ kontuetara deitzen duanean, nondik irtengo ote gera? Zerutik, edo infernutik? Ongi begira dezagun oraiñ, denbora degun bitartean.

§ II.

Biltzen diranean Adanen ume guziak, kontuak emateko, Josafateko ibarrean: agertuko da Jesu-Kristoren estandarte, edo siñalea S. Mateok dionez. Siñale au izango da gurutze bat guziz ederra, S. Juan Kristostomok esaten digunez. Ekusiko due Juduak siñale au: oroituko dira, nola gurutzean illerazo zuen beren Mesias, edo Salbatzallea, eta asiko dira adiaz, eta negarrez: *Plangent omnes tribus terrae*. Laster agertuko da Jesus munduaren Kontu artzallea edertasun, eta onrarik andienean, berekin dakartziala Birjiña txit Santa, eta Zeruko Aingeru guziak. Ez da mingañik adierazteko, norañoko edertasuna izango dan Jesusen etorrerarako edertasun au. Odei zuri alde guzietara argi egiten, eta distiatzen duan bat izango da Jesusen jarlekua, eta an eseriko da guziori kontuak artzeko. *Tunc sedebit super sedem Majestatis suae*. Ipiñiko dira beste tronu, edo jarlekuak Birjiña txit Santarentzat, eta Apostoluentzat-ere. Atsegin, eta pozak gaiñez egiten diela egongo dira onak edertasun au guzia ekustean; baña gazitoak arrituak, eta erkitzen. Jesusen aurpegia onentzat agertuko da guziz gozoa; baña gaiztoentzat txit izugarria. Job Santuak, gogora ekarririk Jaunaren orduko aserrea, dio: Nork eman

legikedan, Jauna, infernuan ezkutatua egotea, zure aserrea igaro dedin bitartean? (Job c. 14)

Aginduko die Jaunak bere Agineruai, bereistu ditzeela gaiztoak onetatik; eta ipiñiko ditue onak eskuiko aldean, eta gaiztoak ezkerrean: *Oves quidem a dextris, haedos autem a sinistris* (Math. 25). Bere-ziera au bekatarietzat izango da guziz lotsagarria. Bere-ziko ditue Apaizak Apaizetatik: senarra emazteagandik, gurasoa umeagandik. Ekusiko du arako mutill, edo gizon gaizto, bekatuaren bide, eta ibillerak utzi nai ez dituan ark eskuieko aldera dijoala beste bere laguna, zeren gaiztoa izan bazan ere, aditurik Jaunaren itza, ezagutu zuan bere zentzugabekeria: egiñ zuan konfesio on bat, eta jarraitu zion Zerurako bideari. Ekusiko du arako emakume, edo neskatx ergel desonesta ark, nola dijoan eskuiera doatsuen artera urlia bere neskatx-laguna, zeren ibillera lotsagarrietan partxuel izan baziran ere, Abendu, edo gari-zuma batean, benaz biurtu zan Jaunagana: utzi zituan lagun gaiztoak, eta aurrera bizitu zan Jaunaren beldur Santuan. Arrituko dira bekatariak beren ezagun, eta lagunak eskuieko aldean ekusirik, eta esango due: oek dira denbora batean guk farra, eta iseka egiten giñutenak: *Hi sunt, quos aliquando habuimus in deri-*

sum, et in similitudinem improprietatis: Orduan txorotzat genduzkan guk oek, zeren utzi zituen bekaturako bide, eta perillak, baña izan gera egiaz txoroak, eta zentzugabeak: *Nos insensati* (Sap. 5).

Bereziera onen ondoren asiko da Jesus Jaungoiko gizona itz-egiten. Oraindaño beti ixilik egon naiz dio Isaiasen autik: *Tacui semper* (c. 42); baña orduan itz egingo du, eta ez da izango erantzuteko ausardiarik. Idikiko dira bakoitzaren bizitzaren liburuak, Danielek dionez; *Judicium sedit, et libri aperti sunt* (c. 7): esan nai du: añ argiro ipiñiko dituala Jaunak gauza guziak gure begien aurrean, non ekusiko ditugun diran eran, ala gureak, nola besteenak: ala obra onak, nola gaiztoak. Aditzera emango du Jaunak, nola egiñ zituan Aingeruak, espiritu garbi-ederrak, eta oetatik asko Luzifer buru zuela beren antuste, edo soberbiagatik betiko su, eta garren artan amildu ziran. Aditzera emango du, nola gizona egiñ zuan Zerurako, apaintzen zuala graziaren doai miragarritz, eta nola galdu zuan guzia, Paradisuko arbola baten fruta debekatua janta. Aditzera emango du, nola utsegiteak zuzentzeagatik, eta gizona Zerurako bidean ipiñi naiez jatxi zan Zerutik, eta gizon egiñ zan Birjiña txit Santaren Sabelean, eta eman zuan gurutzean bere bizitza. Adi-

tzera emango du, nola gure onerako ipiñi zituan Sakramentuak, oen artean Komunioko Sakramentua, gurekiñ bizitzeko, gure biotzetara etorteko, eta guri bere ondasun guziak, eta betiko bizitza emateko. Aditzaera emango du, zeñ ederrak, zeñ zuzen, eta miragarriak ziran gure onerako artu zituan neurri guziak. Askotan mundu zentzugabeak, munduko jakintsu arroak nola nai itz egiten due Jaunaren Letart, edo Probidenziaren gañean, baña mutuen eran geratuko dira guziak, nola igaro diran gauzak, dakustenean: *Omnis iniquitas oppilabit os suum* (Psalm. 106). Nai eta nai ez guziak ezagutuko due Jaunaren ontasun, eta Jakiundea, eta adoratuko due Jaungoiko, ta gizon egiazkoa bezala: ez onak bakarrik, baita gaiztoak ere: belaunikatuko dira, dio S. Paulok, Zeruan, lurrean, eta infernuan arkitzen diran guziak: *Omne genuflectetur, Caelestium, terrestrium, et infernorum* (Ad Philip-pens. c. 1).

Agerturik mundu guziaren aurrean gure onerako artu dituan neurri miragarriak, begiratuko die bakoitzaren obra on, eta gaiztoai. Añ zuzena, eta izugarria izango da begiraldi au, non Sofoniasek dion: argiak arturik bezala begiratuko diela Jerusalemenean, edo animaren bazter guziaz: *Scrutabor Jerusalem in lucernis*

(Sophon. 1). Begiratuko die obra onai, eta azal txit ederra izan arren, usteltzat emango ditu, asmo garbiarekiñ, eta ongi egiñak ezpadira: *Ego justitias judicabo* (Psalm. 74). Begiratuko die ala gogoz, edo pensamentuz, nola itzez, eta obraz egindako bekatuai, eta agertuko ditu beren itsustasun guziarekiñ. Zuk, bekataria ixilik egiñ zinduan, edo zere bakartasunean, edo urliarekiñ, lotsatzen zaituen, bekatu oriek, eta bearbada beldurrez ez dituzu garbiro aitortu, edo konfesatu; baña ekusi zinduan Jaunak, eta guziak igaro ziran eran ipiñiko ditu Jaunak mundu guziaren begien aurrean. Bai, dio Jaunak, nik agertuko ditut zure bekatu itsusi-lotsagarriak: *Revelabo pudenda tua* (Nahum 3). Agertuko ditu, egia da, onen utsegiteak ere: agertuko ditu Santa Maria Magdalenaren ergelkeriak, janziera arroak, eta emendik jaio ziran bekatuak; baña denbora berean agertuko dira gero egiñ zituan negar samiñak, eta bizitza eder-garbia, eta onen distiadurak estaliko ditu leneko utsegiteak, eguzkiaren argitasunak bere mantxak estaltzen dituan bezala. Atzenean ezta izango bekatu añ txiki-rik, ez eta itz alper batere, non Jaunak agirian ipiñiko ez duan. Ala esaten digu S. Mateok. Esan zadazu oraiñ, Kristaua, ez da bekatariarentzat gauz izugarria

izango, gisa onetan bekatu guziak munduaren begietan ipiñtzea, eta guzien kontuak ematea? eta ala ere asko bekatari bizi dira beren utsegiteak konfesioan aitortzeko lotsaz? Au da zorakeri andia.

§ III.

Agerturik guzien, eta bakoitzaren obra on, eta gaiztoak, itzuliko da eskuieko alderonz, begiratuko die onai gozotoro, eta esango die: Atozte, nere Aitarren bedekiatuak: arrezazue, munduaren asieratik zuentzat prestaturik dagoan, Zeruko Ereñua: *Venite, benedicti Patris mei, mosidete paratum vobis regnum a constitutione mundi* (Math. 25). Asiko dira Zeruronz igotzen doatsuak: ekusiko due au ezkerreko aldean daudenak, eta naigabez erkituko dira: *Peccator videbit... et tabescet* (Psalm. 111).

Begiratuko die gaiztoai, eta aserrearen ibai bat bere aurpegitik irteten zaiola, esango die: zoazte nigandik, zoazte madarikatuak: zuazte betiko su, eta garren artera: *Discedite a me maledicti in ignem aeternum* (Math. 25). Idikiko da lurra, eta irintsiko ditu infernuaren eztarritzar izugarriak ala Satanas, ta

bere lagunak, nola beste doakabe guziak. Itxiko dira betiko infernuko ateak, eta ez dira beñere idikiko. Igoko da Jesus Aingeru, da doatsu guziakiñ bere Zeruko Erreñura; eta ango bizitza izango da Jaunaren edertasun neurrik, eta mugarik ez duan ura ekustea, amatzea, laudatzea beñere aspertu gabe: eta betikotasun guzian atsegiñ-kontentuen artean egoitea.

§ IV.

Orra, nere Kristaua: orra, zeñ izugarria izango dan bekatariarentzat azken-kontuetako eguna. Zer ote da, orduan ongi irteteko, egiñ bear deguna? Zer, ezpada oraiñ gure utsegiteen gañean negar egitea, eta ongi aitortzea, edo konfesatzea. Onela egun andi artan konfesio onaren edertasunak estaliko ditu, eta ez due lotsarik emango. Zer ote da, guk gañera egiñ bear deguna? Sarritan, eta prestaera onarekiñ Sakramentuak artzea, eta bizitz onari gogoz, eta benaz jarraitzea.

Nere Salbatzalle Jesus maitagarria! *Peccavi!* egiñ det bekatu eziñ konta al bider. *Peccavi:* egiñ det

bekatu, eta galdu det zure grazia, eta Zerurako esku, eta deretxa guzia: ez naiz zure umearen izenez onratua izateko diña. *Peccavi*: egiñ det bekatu, eta irabazi ditut betiko suak, eta garrak; baña erabaki det, Jauna, zugana biurtzea, eta zu serbitzea: ar nazazu arren zure serbitzarien artean: indazu bizitz on bati jarraitzeko zure laguntza ugaria. Au da nik gaur, ta beti eskatzen dizudan ontarte, eta mesedea, onela iristeko nere bekatuen barkazioa, eta gero betiko bizitza. Amen.

GARIZUMAREN LENBIZIKO IGANDERAKO 1.a

Eskandaloaren gañean.

*Ductus est Jesus in desertum ab Spiritu
ut tentaretur a Diabolo. Math. c. 4.*

San Mateok gaurko Ebanjelioan adirazten digu Jesu-Kristo gure Jaunak etsaiarekin eremuan izan zuan gerra, ta pelea. Eraman zuan Espiritu Santuak Jesus eremu batera, etsaiaren gerra, ta tentuak garaitzen guri erakustera. Onetan aditzera ematen zaku, ez degula gerok bekatuaren perillean sartu bear, ez eta tentazioetan-ere Eremuan prestatu zan Jesus etsaiarekin gerran asitzeko berrogei egunean, ta gauean ezer artu gabe zegoala. Onetan erakusten digu prestatu bear degula lendanaz gure etsaiaren ekin aldietan gallenduak geldi ez gaitezen, dala baraez, dala zilizioz, dala noizean beiñ loa, ta jana gutxituaz, Jaunari erregutuaz. Jesus ona prestatu zegoan ez zergatik berak prestatzearen premia zuan etsaia garaitzeko, baizikan zeren guri erakutsi nai zigun nola etsaia garaitu bear genduan; etortzen zaio

etsaia, ta asitzen zaio tentatzen, esaten diola: *Jainkoaren Semea bazera, esazu egiñ ditezela ongi, orrako arri oriek. Si filius Dei es, dic ut lapides isti panes fiant.* Ekusten zuan etsaiak Jesus berrogei eguneko barau gogorrarekin nekatua arkitzen zala, ta emendik mugitu nai zukean janera. Baña Jesusek aienatu zuan etsaia, esaten ziola: ez da gizona ogi utsean bizi, baizikan Jaunaren itzarekin. Onetan aditzera ematen zuan ez gerala gorputz utsak, baizikan gorputzaz gañera degula anima, ta animaren janaria len dala gorputzarena baño, edo lenago dala Jaunaren esanak zuzen egitea gorputzari atsegiñ egitea baño. *Non in solo pane vivit homo, sed in omni verbo, quod procedit de ore Dei.* Mututurik gelditu zan etsaia, ta garaitua bere aurreneko ekin-aldian. Ekusten dezu anima nola aienatu bear dezun zure etsaia zure gogoari janerazi nai dionean gauza debekaturen bat? Ekusirik etsaiak aurreneko pelean etzuala ezer atera, ekiten dio bigarren aldian beste alde batetik, esaten diola: *baldin Jainkoaren Semea bazera salta zaitetz or bera, bada eskribitua dago; agindu zien bere Aingeruai zai zaitzeela, ta artuko zaitue emen erortzean beren eskuetan, oñean miñik ar ez dezazun zuk.* Eragin nai zikeon etsaiak salto Elizaren torre batetik lurreraño,

emendik ekusten zuenen losentxa, ta alabantzakin arrotasunaren tentazioan atxitu ote zezakean. Bigarren tentazio au aienatu zuan Jesusek erantzuten ziola: *Eskribitua dago ez dezu tentatuko zure Jaun Jaungoikoa*. Onetan aditzera ematen digu Jesus onak, ez degula gauz okerretan sartu bear Jaunak aterako gaitualako ustean; au da alabaña Jaungoikoa tentatzea baldin anima bat bere naiez sartzen bada itzegite gaiztoetan, bekaturako perillean, biltzen bada lagun gaiztoakin, uste izatea Jainkoak bialduko diozkala Aingeruren batzuek andik ateratzeko; au da Jainkoa tentatzea. Gallendua, ta mututurik geratu zan etsai gaiztoa bigarren aldi onetan-ere, baña ez alae-re etsia.

Ateratzen du Jerusalendik, ta eramaten du mendi gaiñ guziz goi batera, ta erakusten diozka munduko gauzarik ekustekoenak. Agertzen diozka bazter guziak, ta oetako edertasunak, ta guziak beingoan begien aurrean ipiñirik esaten dio etsai galgarriak: ekusten dituzu gauz oek guziak? bada guziak eman-go dizkitzut, lurrean belauniko jarririk niri zure Jaunari bezala agur egiten badidazu. *Haec omnia tibi dabo, si cadens adoraveris me*. Tentazio gogorra zan au berez Jesusen biotza kutiziara erori albazitekean;

baña leneko aldietan bezala aienatu zuan erantzuten ziola: Oa ortik Satanas ordu gaiztoan; eskribitua zea-gok: adoratuko dek ere Jaun Jaungoikoa, ta ura baizik ez dek serbituko. *Vade Satana, scriptum est enim Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.* Au aditu zuanean etsaiak, aldegin zuan Jesusengandik, ta lotsaz ta arrabiaz joan zan su, eta garren artera; ta Aita Eternoak bidaldu zituan bere Aingeruak Jesus onari bear zuan guzia ematera.

Au da, nere Kristauak gaurko Ebanjelioak daka-rena. Jesusek erakutsi izan digu aurrean jarririk emen gerra, ta tentazioen artean bizi bearrak generala, erakutsi digu nola prestatu bear degun gerra onetan gallenduak ez geratzeko. Etsyagan aditzera ematen da ez bakarrik deabrua, bai eta beste lagun urkoari bekaturako bidea, oña, edo eskandaloa ematen die-zan guziak-ere. Gai ederra izango lizake tentazioak garaitzeko neurrien gañean itzegitea, baña gaur utzi-rik au itzezin nai det bekaturako bidea, ta oña ema-ten duenen gaiñ. Onetarako aurrena aditzera eman-go det zer dan eskandaloa; ta gero zeññ bekatu izuga-rria dan. Eskatu degiogun Jesusen Amari bekatu au ezagutzeko, ta ezaguturik negar biotzetik egiteko grazia Aingeruarekin esaten diogula. Abe Maria.

§ I.

Dabid Errege Santua, bere bekatuaz negar egi-teaz gañera, kezka andiarekin barkazio eske zegokan Jaungoikoari besteen bekatuaz. Jauna, esaten zion, nork ongi ezagutzen ditu bekatuak? garbi nazazu niri gordetzen ta ezkututzen zaizkidan utsegiteetatik, ta barka gizkidatzu besteen bekatuak. *Delicta quis intelligit? ab occultis meis munda me, et ab alienis parce servo tuo* (Psalm. 18). Zeri dagokala, esan lezake, Dabidek Jaunari eskatzen zion barka zegizkiola besteen bekatuak? baña ez da neke andiren bearrik eza-gutzeko Dabid Santuaren erregua zeri zegokan. Dabid zan Errege, ta beragatik bere mendeko guzien burua, giaria, ta gurasoa, ta beldur zan bere mende-koen bekatuak aren gaiñ izan zitezen zabarkeriaren bategatik; edo bere bizitzarekin bekatuako bidea, edo eskandaloa emanik. Argatik kezka andiarekin Jaunari eskatzen zion besteen bekatuen barkazioa.

Eta zer da eskandaloa? da, dio S. Tomas Ainge-ruak, esan, edo egin gaizto, edo gaiztoaren antza duanarekin lagun urkoari bekatuan erortzeko bidea

ematea. *Dictum factum minus rectum praebens alle-
ri ocasionem ruinae.* Esaten dio nagusi batek mira-
beari ekartzu auzoko sorotik arbia, au da eskandaloa
ematea; ematen dio alabaña bekatuan erortzeko
bidea. Bekatuan erortzeko, edo irauteko bidea eman
diteke era askotara, ta beragatik eskandaloa da gai
guzietara zabaltzen dan bekatu mota bat.

Lenbizia gerta diteke, bekataria, zuk lagun urkoa-
ri bekatu benialean erortzeko bidea ematea, ta
orduan zuk ematen diozun eskandaloa berez ez da
bekatu mortala, baizikan beniala. Etortzen da etxe
batera norbait etxeko andrearen, edo nagusiaren gal-
dez, ta esaten dio nagusiak mirabe bati, *esan giozu
ez nagoala etxean.* Eztula etxean, ta nagusia kanpo-
an esan oi dan bezala. Nagusiak ematen duan eskan-
daloa bekatu beniala da. Bigarrena: gerta diteke
lagun urkoari bekatu larri, edo mortalean erortzeko
bidea ematea, ta orduan eskandaloa izango da beka-
tu larria. Egin dezagun kontu, erregutzen diozu bati
Justiziaren aurrean, edo bestela egin dezala juramen-
tu gezurrezko bat, edo egia ez dezala aitortu bear
dalarik. Erortzen zera eskandaloa deritzan bekatu
mortalean, ta gañera zure gañean dira juramentu
artatik etortzen diran kalteak. Emendik konfesioan

garbiro albada aitortu bear da zer mandamenturen kontra bekatu egiteko bidea eman dan, zenbati eman zaten bide au, eta seigarrengo mandamentuaren kontrakoa bada, aitortu bear ere da, ezkonduai, aideai, kastidatea gordetzeko botoa duenai eman bazate.

Irugarrena gerta diteke zuk lagun urkoari bekaturar biderik batere ez ematea, ta bere gaiztakeria utsez artzea. Eskandalo mota oni deitzen dioe Teologoak Fariseoen eskandaloa. Oek Jesu-Kristoren erakuste ederrakin, ta egiten zituan gauza miragarriakin bera-gan sinistu, ta biotzetik maite izan bearrean, artu zuen oña Jesusen kontra ezin-ekusian, enbidian, ta gorrotoan erortzeko. *Ecce positus est hic inruinam... multorum in Israel* (L. 2). Fariseoen anzekoak dira munduan asko. Ekusten due beren gogokoa ez duenen bat, guzian amen esaten ez dakian bat, aldegiten jokotik, tabernatik, danza, ta beste bekaturako bide askotatik, ekusten due maiz konfesatzen, ta beste gauz onetan. Ekusia dago gauz oekin biderik iñori ematen etzaiola bekatuan erortzeko; baña alaere askotan gertatzen da beren gogokoa ez duenak erausian egotea, gauz onak-ere alde gaiztora botatzea: *Urlia maiz konfesatzen da, deboziaz Elizan dago; ez*

du nai festetara, dantzara, lagun artera joan; baña jakizu zer fiñekin dan au guzia; *Iprokresiaz bete da; ori guzia egiten du santatzat iduki dezeen.* Baziñaki zer mingaña duan, baziñaki zer txarkeria egin zidan? Onelako erausiak ez dira, nere Kristauak ezertan artu bear; baizikan aurrera joan bear da gauz onak egiñaz; ta norbaitek emendik erausirako, ta juizio okerrak egiteko oña artzen badu, izango da au bere kulpaz, ta gaiztakeriaz.

Laugarrena gerta diteke zuk lagun urkoari bekatuako biderik ez ematea, ta alaere miseriaz bekatuan erortzea. Emakume bat dagokan eran jauntzirik etxetik Elizara, edo beste lekuren batera irtetea berez ez da bekatuako bidea iñori ematea; baña alaere gerta diteke, ta gertatu izan da beiñ baño geiagotan begira jarri, ta bekatuan erortzea norbait. Gai onetan, ta beste onelakoetan zuek dagokizuen adiña ezaguera izan dezazuen, adinazue kontuz esatera noan puntuetan. 1.a Ezagutzen dezu zuk, nesaketa, zuri dagokizun eran apaindurik irteten bazera Elizara, Tolosara, festara, dantzara, gerta ditekeala nor edo nor bekatuan erortzea, ta zeregan beldur au ezagutzen dezu, ez dakizula nor eroriko dan. Etzaude beartua ez jauntzitzera dagokizun eran; etzaude

beartua etxean egotera beldur onegatik, eta baldin gertatzen bada norbait bekatuan erortzea izango da au erortzen danaren kulpa bakarrik. 2.a Ezagutzen dezu orrela apaindurik irteten bazera, urlia, edo sandia, zure ondoren dabillen ura, ezagutzen dezu, zeren aren berri dakizun, eroriko dala bekatuan; beartua zaude, Teologorik geienak erakusten duenaz, noiz edo berriz etxean geldizera, Meza utziko bada ere, ta are geiago beartua zaude festa, dantza, ta onelako gauzak uztera. Esan det noiz edo berriz, zeren neke andia lizake denbora luzeetan besteren bekatuaren beldurragatik meza, ta beste gauzak uztea. 3.a Ezagutzen dezu, ezkontzeko itzak eman diozkatzun orrekin itzegiten jartzen bazera, batez-ere bakarrik, zero-ri jartzen zerala perill andian, ta bestea erortzen dala bekatuan, dala itzez, dala eskuz, dala gogoz, edo bestela, beartua zaude ezkondu artean modestiarekin aldegitara besteak bere anima galdu ez dezan. 4.a Ezagutzen dezu, onelako lekutara joaten bazera an bear bada zai arkitzen dala zuri darraikizun urlia, zu mugitzeko bear ez dan jolasetara, ta joaten zera bera ekusteagatik, ta berarekin egoteagatik, erori zera eskandaloa deritzan bekatuan. 5.a Ezagutzen dezu urliak itzegin dizula Ernioko gurutzerako, Lezorako,

Aranzazurako, Tolosarako zurekin lasaikiro ibiltzeko asmoan, ezagutzen dezu danzarako lendanaz esan dizunaren gogoia, ta griña gaiztoa; bada beartua zaude aldegitera gauz oetatik, ta bestela ematen diozu lagun urkoari eskandaloa. Eta au onela bada, dan bezala, zer izango da, baildiñ zu zerori bazabiltza lagun urko argalak zeregana mugitzeko, ta lazoan arrapatzeko?

Jauna esan dezake nor baitek: nik ez det orrelako gauzarik; baña egia esan bear badet, ezkontzeko naia, ta aizeak artu nituan ezkeru, alegin guzia egiten det apaintzeko, batez-ere festa denboran, iñuterian, Tolosara noanean; nai nuke nork-ere bait begi onez ekustea, gizonai ederra iritsitzea; ta Jauna, urliarekin edo sandiarekin itzegiteko deretxa arrapatzen deda-dean orduan dira nere atsegin-pozak, ta egunik kon-solatuenak. Ongi, ongi egiten dezu egia aitortzea.

Emakumea dagokan-eran, ta bear dan modestiarekin jauntzitzea, jasoia izatea, ez da bekatu, dio S. Tomas Aingeruak, fin gaiztorik ez danean. *Ornatus simplex servata recta intentione, consuetudine, et conditione status non est peccatum* (In Epist. 1. ad Thimot.). Eta are geiago dana S. Pablo Apostoluak dio gisa onetan: nai det emakumeak lotsa onaren muge-

tatik irten gabe, ta geiegirik gabe jasoak ibiltzea, ez illea kiskurturik, edo enrizaturik, ez urrez, margaritaz, edo soñeko preziotsuz, baizikan Kristauari dagokan modestiarekin. *Volo similiter et mulieres in habitu ornato cum verecundia, et sobrietate ornantes se, non in tortis crinibus, aut auro, aut margaritis vel veste pretiosa, sed quod decet mulieres promittentes pietatem per bona opera* (1. ad Timoth. c. 2). Au bera dio S. Pedrok. 1. P. c. 3. Emakumeak gañera ederra iritzi nai izatea gizonai, ezkontzeko teretxaren ansiarekin, ta emendik zerbait burua arintzea fin gaiztorik gabe, au oraindik izan diteke bekatu mortal gabe dio S. Tomas Aingeruak. *Mulieres appetentes placere viris ex veritate quandoque peccant tantum venialiter*. 2.2. q. 169 art. 2.

Au onela da, nere Kristauak gauzari berez, soil soil begiratzen diogula. Baña gizonai ederra iritzi nai au, ezkondu gura au, ta onetarako iñoiz ekusten diran gauzak dira emakume askoren, edo galtzen diran geienen kondenazioko sustraia. Emendik dator alabaña gerotik gerora geiago biotza itsastea gizonai ongi iritzi bearrari, emendik apaintzea urlia, edo sandia lazoan arrapatzeko, emendik nai izatea onelakogan lujuriaren su erazekitzea, ta atzenean biotza prest

jartzea edozein gauza egiteko ezkontzeko teretxagatik. Onegatik dio gizon jakintsu batek emakume geiago kondenatzen dala gizon baño (Videsis III. Lig. hic.). Begira bada bakoitzak bere animari, begira beregan igarotzen zaizkan asmo, gura, edo naikundeai, ta garbitu konfesio on batekin.

Eskandaloko bekatuan erortzea gerta diteke bostgarrena lagun urkoari lagun egiten diozula bekatuan, lagun egite onekiñ alabaña zerorrek egiten dezunaz gañera zeretzen dezu besteren bekatua ere. Noiz, nola, ta zer gauzatan, edo gaietan lagun egite au bekatu dan ez da erraz denbora gutxian adieraztea, ez eta luzean ere, da alabaña gauza illun, gauza me Teologoai arazo asko ematen diena. Ukuituko ditut zuek aditu ditzakezuen zenbait puntu.

Ezagutzen dezu inñuterian dantzara joaten bazera lendanaz mandatu egiten diozun orrekiñ, jarriko zerala gizartean eseririk, presan bezala alde bietatik estuturik: ezagutzen dezu, batere lotsarik gabe egingo dizkitzula ongi ez dirudien mirapilliak gaztañak, ta sagarrak ateratzeko aitzakiakin, ta zu zerori batere naigaberik erakutsi gabe egongo zerala; ta egoten zerala: laguntzen diozu bada bekatuan ari, ta ematen diezu begira daudenai ejenplo gaiztoa. Lagun egiten

diozu nagusiari arbia, garoa ostutzen: etxeko neskatx ezkontzeko asmoetan dabillenari jolas gaiztoetan ibiltzen meza artean, illun-abarrean: ematen diozu mandatu neskatx orrekiñ ezkontzeko asmoa duan mutillari irten dedilla illun-abarrean onelako lekura, arratsean onelako leiotara, dakizularik zer igarotzen dan, ta alaere egiten dituzu mandatu oek: laguntzen diezu bada bekatu egiten, ta beragatik erortzen zera eskandaloko bekatuan. Au igarotzen da Kristauen artean; au munduaren begietan, ta alaere gurasoak lo, eta lo? Ekartzen dizu etxe bateko neskameak artoa, alabak garia, ta beste gauzak, ta dakizularik ez duela berena, dakizularik ez duela bear adiña bide onetarako estaltzen dituzu lapurreta oek, lapurreta oek, ta estaliaz zugar duen konfiantzarekiñ aurrera dijoaz gari eta arto pilla ostutzen: erortzen zera bada eskandaloa deritzan bekatuan. Jauna, ordea bazuen bidea bekatu gabe gari, edo arto piskaren batez baliatzeko. Atozea nondik dakizu zuk ori? Ekusten dezu zure lagun urkoa edanean ya txit igaroa, ta osotoro galduko dala konbidatzen badezu, brindatzen badiozu, ta alaere esaten diozu *vecino, hermano, cuñado, ez dezu gaur nere konbitea artu gabe etxera bear, brindo cuñado*, onela mugitzen dala bestea

edatera, ta brindis, ta brindis egitera; ematen diozu bada geien geienez eskandaloa, laguntzen diozula bekatuan erortzen. Uzten det tabernariaren gañean itzegitea, zeren Jaunari eskerrak, tabernarik emen dan. Emendik nolere bait ezagutu dezakezue noiz eskandaloko bekatuan erortzen zeraten lagun urkoari gauza gaiztoren batean lagunduaz, ta aditzen ez dezuen galde bakoitzak bere Artzaiari, edo konfeso-reari.

Jauna nik premia batean eskatu niozkan idi, edo bei batzuek bati ezagutzen nuala balio zuan baño askoz geiago pagaeraziko zizkidala, zeren dirurik eskuan ez nuan; ta ala arturik denboraz pagatu niozkan, edo pagatu bearrean nago: jakiñ nai nuke eskatze onetan, edo pagatzean bekatu egiñ dedan. Premia gabe ez da onelakorik egiñ bear, zeren gauza gaizto lizakean, baño premia andia badezu eskatu dezakezu gauza bere balioan, ta balio duan baño geiagoan baizik eman nai ezpadizu, ar dezakezu gauza zere premia estaltzeko, edo beste motibo andiren bategatik. Ala erakusten due Teologoak San Tomas Aingeruarekin. Gañera onela gauza artu badezu, ta juramentuarekiñ agindu badezu pagatzea bear baño geiago, orduan bekaturik gabe paga dezakezu,

ta pagatu bear ere dezu. Baña juramenturik egiñ ezpadezu ere bekaturik gabe paga dezakezu ez pagatzetik kalte andiren baten beldurra bada.

Jauna: nik auzi batean juramentu eragiñ nion egia aitortuko etzuala beldur ninzan bati, ta onetan ez dakit zer egiñ nuan. Premiarik gabe, eta ezeri ez dagokan gauzan bazan juramentua, eman zenduan eskandaloa; baña baldiñ zure deretxoa argitzeko, ta ongi agertzeko asko esan nai bazuen juramentu eragiteak, etzenduan bekaturik egiñ; zuk alabaña eskatu zenduan egia aitor zezala, edo ziakiana esan zezala, eta esan ezpazuan berari egokiko zaio.

§ II.

Eskandalozko bekatuan erori zaitezke 6.a, lagun urkoari bekaturako bidea ematen diozula bekatua, edo gauza debekatua eragiteko gogo, edo asmoarekiñ. Ala eskandalozko bekatuan erortzen zera 1.a lagun urkoari juramentu gezurrezkoa egiteko erre-guak, losentxak, palakuak egiten badiozkatzu. 2.a Umeai, ta mirabeai jai osoetan bear debekatuak eragiten badieztezu bezperan egiñ, edo bigaramoneko

kalte andi gabe utzi litezkeala. Jaietako bearra egitearen gañean, asko egiten dira Aita Santu; bada artzen due eskua jai erdi, edo aste egunak jai oso egiteko, ta jai osoak jai erdira biurtzeko.

O gurasoak! o nagusiak! zenbat ote zerate zeren, ta zuen ume-miraben animai baño naiago diezenak etxeko ganadurik txarrenari! 3.a Eskandaloaren bekatuan erortzen zera ume-mirabeai erakusten badiezu litxarrerietan: *oa ekarritzak urliaren sorotik arbia, basotik garoa, ostoa, egurra, ikatza, sagarrak, artoa*. 4.a Lagun urkoari erakusten, edo mugitzen duanak usura, edo bestela tratu gaiztoak diranak egitera. 5.a Mugitzen duanak lagun urkoa ezkontzeko itza ez kunplitzera. 6.a Aiuntamentuetan elkar mugitzen duenak bidezko gauzen kontra itzegitera, botatzera. 7.a Emazteari umeai, mirabeai, edo besteri konseju ematen diezanak txarkeriren bat egiñ duanari: *ez barkatzeko, arekiñ ez itz egiteko*. Ez det ukuitu nai emen seigarren mandamentuaren kontra nolatan eskandaloa ematen dan; bekatu egiteko asmoa danean; nik esan gabe ere alabaña onelakoa badue bear adiña ezaguera.

Eskandaloaren bekatuan erori zaitezke zazpigarrena asmorik ez dezula lagun urkoari gauza gaiztorik

eragiteko; gogorik ez dezula bekatu eragiteko. Nola
au? esaten dezula, edo egiten gauzaren bat igarri-
tzen dezula, denborari, lekuari, ta alde guziaz begira-
tu ezkerre ipintzen dezula lagun urkoa bekatuan eror-
tzeko perill andian. Argatik alferra da zuk esatea:
Jauna orise zan, edo egin nuanean ez nuan gogorik ta
asmorik lagun urkoari gauza giastorik eragiteko, alfe-
rra badin bekatu eragiteko puzoia duan esana, edo
egiña bada zuk egiten dezuna. Atozea baldin jende
arte batera arri andi bat tiratzen badezu, bekatutik
libratzeko asko izango da zuk esatea: ez nuan tira
iñor jotzera. Onela erortzen dira eskandaloa deritzan
bekatuan. 1.a Seigarren mandamentuaren kontrako
itz zikiñ-nazkagarriak, ta lagun urkoari bekatuen bat
eragiteko perill andia duenak esaten dituenak. Zen-
bat zar gaizto dira gazteen artean era onetan itzegi-
ten duenak! Zenbat ezkonduen arteko zenbait gauza
agertzen dituenak! Zenbat onelako gaztaña biltzean,
itako denboran, laietan, arto zuritzean! Ta nork adie-
razi emendik animetan geratuko diran kalteak? Onela
itzegiteko oitura duenak ipiñi bear lirake mingañean
ferraturik abereak oñetan ferratu oi diran bezala. 2.a
Aide, ta auzo elkarrekin itzezin nai gabe bizi diranak;
emendik dator alabaña ekusten duenak esatea, nik

ez dakit oriek nola konfesatzen diran. 3.a Era onetan erortzen dira eskandalozko bekatuan arako emakume lasai, edo neskatzar ez garbi bularrak, ta gorputzaren geiena agiri duela gizonen artean lotsarik kabe ibiltzen diran aek. Non zera lotsa ona? non zera? 4.a Lagun urkoa bizitza mudatzen asi danari isekaz dagozkionak zeren danzara, bekatuak perilletara joan nai ez duan; bada iseka oek askotan dirala lotsatzen due bestea, ipintzen due leneko pausoetara biurtzeko perillean. 5.a Lagun urkoaren gaizki-egiña alabatzen, ta ontzat ematen duen losentxari gaiztok. *Ederki egin diozu: atsegiñ artzen det orise egiteaz, ta ojala geiago egiñ baziñuka.* Ah! mingaiñ gaizto mada-rikatuak, ta Demonio leunak. Onelakoak kastigu andiagoa merezi due bekatua, edo gaiztakeria egiten duanak berak baño, dio Santu batek: *Collaudare delinquentes longe plus est quoad supplicii pertinet aestimationem, quam delinquere* (Hom. 2 de David, et Saul). Enrike Inglaterrako Errege izen onetako VIII galdetu zion Prijiano bere Ministro bati: *Prijiano, zer bekatu da Ana Bolenarekin gaiztakeria egitea, aren Amarekin lenago au egiñik?* Prijianok erantzun zion: *Jauna, ori ez da beiñ olloa, ta ondoren ollaskoa jatea baño geiago.* Orduan Erregek ezagutzen zuala Minis-

tro gaizto onen losentsa esan zion: egiaz hi aiz Priji-
no, nere infernurako Ministro. *Vere tu es meus infer-
ni Vicarius*

6.a Erortzen dira eskandaloa deritzan bekatuan
bekatu eragiteko asmorik ez duela senar-emazte
pagearik gabe etxekoai, ta auzokoai ejemplo gaiztoa
ematen diezanak. 7.a Edanean igarotzeko oitura due-
nak geienez edo beti ematen due bekatu askotara-
ko bidea edo berandu etxeratzen dirala, edo birauak
botaaz, edo botaeraziaz, edo bestela. 8.a Birauak, ta
juramentuak botatzeko oitura duen nagusi-etxekoan-
dre, ta gurasoak. Onelakoak gutxitan ongi konfesa-
tzen dira, zeren asmo sendorik ez duen oitura mada-
rikatua uzteko. 9.a Adiskidetasun gaiztoren batekin
zer esana ematen duenak. 10 Arako deabruaren
korreo, etxeetako naspilla, gorrotoa, auzia, ondamen-
dia ekarri oi duen misto madarikatu aek. Onelakoak
joango dira etxe batera, ta urdaia, sezena, artoa, edo
zerbait ateratzeagatik, edo adiskidearen papera egi-
teagatik asiko dira: *ez taki milla gauza berorri esan
bearrak banituan, baña gaur ez dago betarik guzia
esateko*. Zale izan bestea-ere jakitearen. Zaude piska
bat, joango zera bereala, eseri zaite. Ez daki urliak
berorrentzat zer ausenzia zeukan: uste du berorrek

bestarik *baña, baña, baña*; zer da bada baña ori? Asitzen da deabruaren berriakin ongi esan zanari aurpegi gaiztoa ipiñiaz, gezurra eransiaz, ta bukatzen du gazeta bustan onekin: ta au utsa da nere kolkoan geditzen danaren aldean, baña ezin esango det ezergatik-ere. Esazu misto madarikatua, bota ezazu, bada kalte gutxiago egingo dezu esanarekin. Onelakoak ez det sinisten, ta ez det sinistuko ongi konfesatzen diranik, ta beren bizkarrean daramee Jainkoaren madarikazioa, ta kondenazioko sententzia. Madarikatu pakea, ta adiskidetasuna gal-erazten duana madarikatua, bada gerran ipiñiko ditu pakean zeuden asko, dio Espiritu Santuak. *Maledictus susurro multos enim turbabit pacem ha abentes* (Ecl. 18). Kontu egin bear due etxeetako buruak onelakoak ordu gaiztoan aienatzeko; ta bestela ezin bada egin bedi goroztizko konjurua; au da alabaña birtute andiko konjuro bat onelako deabruak aienatzeko.

Eskandaloa deritzan bekatuan erori zaitezke, bekataria, beste gisa batean, ta da gauza gaiztorik ez esaten, ta ez egiten dezula, baña bai gaiztoaren iduria, edo antza duana, emendik lagun urkoak artzen duala bekatuan erortzeko bidea. Emendik eskandalozko bekatuan erortzen dira 1.a senar-emazteak,

umeak, ta mirabeak begiradaudela, edo aldean dirala, beren Sakramentuari dagozkan gauzetan. Kontu ezkonduak, bada zer igarotzen dan ongi dakien gizon jakintsuak esaten due, ta eskribitzen kalte andiak datozela emendik. 2.a leku agirietan, ta jendea dabilleanan gobada jotzen duenak era lotsagarrian, edo emendik ezin adierazi nezakean bezala. Onelako emakumeak iduki bear lirake ei batean sarturik. 3.a bijilietan aragia jaten duenak, osasunaren antzean daudela, iñori juizio gaiztorik ez eragiteko, aditzera eman bear due, arkitzen dirala Maisuaren agintez aragia jatearen premian. 4.a Era onetan eskandalozko bekatuan erortzen dira, etxeren bateko sarrera, edo jaierekin erausirako, ta juizio okerrak egiteko bidea ematen duenak. Jauna ez det gogoan igaro-ere etxe artan gauza gaiztorik egitea: ez det denbora itzegiten, ta gauz onak kontatzen igaro besterik egiten. Ez da ezer, zure jaiera orrek-ematen badu zer esana, zure sarrera orregatik munduaren aban bada-bill zurekin bestearen fama, beartua zaude uztera, ta bestela eskandaloa ematen dezu. Beartua zaude, esaten dizu S. Bernardok, uztera ez gaiztoak diran gauzak bakarrik, baita gaiztoaren antza duenak-ere. *Non solum cavere teneris quod malum est, sed qui-*

quid male fuerit coloratum (S. Ber. de Cons. ad Eug.). Atzenean, Kristaua, eskandaloa deritzan bekatu onetan erori zaitezke, dezun karguan zabarra izanez, zerala Errejidorea, Bezinoa, gurasoa-nagusia. Izan zaitezke zerori ona, Jainkozkoa, egin ditzakezu penitentzia andiak; barauak, zilizio, ta beste gorputza menderatzeko nekeak artu itzakezu; baña zabarra bazera zuk umeai, eta mirabeai dotriña, ta Zerurako bidea erakustean, zabarra bazera bekatu bide, ta perilletatik ken-erazteko, zure zabarkeria au bera asko da zure gañean izateko zure umeen bekatuak.

§ III.

Ekusi degu, nere Kristauak, zer dan eskandaloa esaten diogun bekatua, ta au ongi ezagutzeko ukitu ditugu bekatu onetan erortzeko diran gisa asko. Ta bekatu mota au nolakoa dala uste dezue? Gauz ikaragarria Jesu-Kristoren sentenziaz bezanbatean. Ai dio, Jesu-Kristok! Ai! ta munduaren zori gaiztokoa eskandaloagatik. *Vae mundo ab scandalis*. Ez dio Jesu-Kristok zori gaiztokoak kutiziosoak, zori gaiztokoak birau-gilleak, zori gaiztokoak lujuriosoak bakarrik, ez; baizi-

kan ekusirik bekatu mota izurriaren gisa zabaldua leku guzietara, estadu guzietara. Ai dio, ta munduaren zori gaiztokoa. *Vae mundo ab scandalis.*

Zori gaiztokoa mundua, zeren ezagutzen ez du bere gaitza, ta ezagutu gabe ezertan artzen duan. Gaitza ezagutzen ez, ta ezertan artzen ez danean eria perill andian arkitzen da. Ta au da munduari bekatu mota onekin gertatzen zaiona. Eskandaloa gañez egiñik arkitzen da, gazteetan, zarretan, ezkonduetan, ezkongaietan, gurasoetan, ta umeetan, baña ez da ezertan artzen, ez da aienatzeko alegiñarik egiten, eta zer bekatu mota izan diteke bekatu onelakoa baño izugarriagoa? Bekatuak kezka esnatzen duan askotan bekataria mugituko da bere kezkarekin negar egitera, bizitza berria artzera; baña kezkarik ematen ez duanean ez da biotzetik damutuko, ez du negar egingo. Zori gaiztokoa da emendik mundua bekatu mota onegatik. *Vae mundo ab scandalis.* Zori gaiztokoa gañera, bada Jaunaren justiziak eskatzen du, bekatu onetatik datozen okerrak zuzentzea bakoitzak bere aldetik, ta ez da kezkarik, ta ardurarik onetan ere artzen. Gauza jakiña da lagun urkoari kalte egiñ dionak dala ondasunetan, dala onran, dala faman, kaltea desegitera beartua dagoala; ta animan

kaltea egiñ badiozu etzaude Jaunaren begietan kalte ura des-egitera beartua? Baña nork esan, nork adierazi bekaturako bidea ematen duanak, zer kalteak egiten dituan, ta nola desegin kalte oek? Zuk bear bada ukuitze loi batekiñ, keñada batekiñ, itz gaizto batekiñ erakutsi zeñion besteari bekatua; onek beste biri; biak lauri; lauak ogeiri, ta ogeiak millari, ill ziran batzuek, ta oraindik bizi da zuk erakutsi zenduan bekatua, ta aurrera dioa. Gertatzen da eskandaloarekin, edo bekaturako bidea ematearekin gari soro bati su ematearkein gertatzen dana. Erazekitzen diozu soroaren ertz batean lasto bati; onek besteari, besteak besteari, ta onela zabaltzen da, soro guzira, zabaltzen da soro batetik bestera ta uzten du guzia auts biurtua. Ai bekaturako bidea eman dezunak! zuek bati edo biri eman badiezu, oek emanaz joan dira besteai, besteak besteai; kalte oek deadar egiten due Jaunaren begietan, deadar infernura joan diranak, deadar orain galduaz, erreaz bekatuan dijoazek; ta alaere gu kezkarik gabe! *Vae mundo ab scandalis, vae homini illi per quem, scandalum venit.* Zeren bekatu onekin Jesu-Kristoren neke izerdiak, ta gugatik ixuri zuan odol preziotsua alferrak egiten diran. Jaungoikoa eternidade guzian egonda bere

gogoan daukala gure lagun urkoaren anima: ta denboraz egiñ zuan berarekin batean eternidade guzian bizi zediñ Zeruan. Zer egiñ ez du onetarako? Anima ura ez galtzeagatik etorri zan Zerutik lurrera, artu zuan gizatasuna, igaro zan isekeen, gorrotoaren, azoteen, arantzen bidetik; ta atzenean anima argatik ixuri zuan odola, ta artu zuan eriotza, ta eriotza gurutzekoa. *Mortem autem crucis*. Baña zertarako dira gure Jaunaren alegiñ oek guziok, ezertarako baldiñ guk alfer-egiten baditugu? Alferrik anima ari ainbeste nai izan dio Aita Eternoak bere Jauregi, ta Palaziora eramateko asmoan; alferrik Espiritu Santuak nai izan du bere Esposatzat: alferrik semea gizon egiñ zan: alferrik ainbeste neke oñaze igaro zuan; alferrik ixuri bere odola, ta alferrik gurutzean eman bere bizitza, zeren guk gure bizitza gaiztoarekin galdu degun ainbeste kostatako anima ori.

Zer nai dezue, oraiñ nere Kristauak, zer nai dezue bekatu mota onen gañean nik esatea? Ainbesteraño-ko des-leialtasuna deritzat Jesu-Kristori ainbeste kosta zitzaion animak gal-eraztea, ta etsaiari ematea, zeñ ez nuke sinistuko bekatu-mota onek barkaziorik duanik, fedea erakusten ezpalit: ta Jesu-Kristok berak: obe litzake bekatu-rako bidea ematen duana-

rentzat, dio errotarri andi bat lepoan erantsirik itsasoan ondatzea. *Necesse est ut veniant scandala, verum tamen vae homini illi, per quem scandalum venit. Qui autem scandalizaveri unum de pusillis istis, qui in me credunt, expedit ei, ut suspendatur mola asinaria in colo ejus, et demergatur in profundum maris.* (Math. 18).

Jauna, ta ez da bada erremediorik? Bai nere Kristauak, ez gera galduko, galtzen bagera erremedioa gabez. Erremedioa da negar biotzetik egiten dala bakoitzak aitortzea bere bekatuak; erremedioa da penitentzia egitea; erremedioa da Jaunari maiz, ta gogotik erregutzea bekatuak eman diegunakgatik, ta atzenean Dabid Santuak Jaunari esaten ziona: Jauna esaten zion, erakutsiko dieztet gaiztoai zure Legearen pausoak; oraindano zere mingañerakin galdu badituzu asko anima biraba, ta itz nazkagarria dariozula, mingaiñ ori izan bedi emendik aurrera Jauna alabatzeko; oiñ oriek izan badira bekatuak, jolas gaiztoetara laster egiteko, izan bitez oraiñ maiz Elizaratzeko; esku oriek izan badira litxarreriarako, ta zere gorputz-animak loitzeko, izan bitez lagun urkoari laguntzeko; gorputz ori oraindano izan bada atsegin ez garbietan erretzeko, izan bedi emendik aurre-

ra nekearen, ta penitenziaren azpian bizitzeko. Gisa onetan len zugandik gaitzerako bidea artu duenak ikasiko due Jaungoikoaren bidea. *Docebo iniguos vias tuas*; ta zenbait galdu badira betiko, mugituko dezu Jauna oei egiñ diezun kaltea-ere barkatzera, mugituko dezu bere Misericordiak ubari zure gaiñ ixurtzera, ta atzenean eriotz on batekiñ betiko gloria ematera. (Ad quam nos &.)

GARIZUMAREN LENBIZIKO IGANDERAKO

*Bekatari, denbora egokian jaunagana
biurtu oi danaren eriotzaren gañean.*

*Ductus est Jesus in desertum ab Spiritu
ut tentaretur a Diabolo. Math. c. 3.*

Zein ona gure Salbatzalle Jesus maitagarria!
Badakus, gure emengo bizitza guzia dala soldadeska,
ta gerra utsa, Job Santuak zion eran: *Militia est vita
hominis super terram*. Eta au dakusanak bezala jar-
tzen da Salbatzallea bera pelean etsaiaren kontra,
erakusteko guri animaren gerran egiñ bear deguna.
Eraman zuan Espiritu Santuak bakardade, edo eremu
batera. Barautu zan berrogei egun, eta gauean, iga-
rotzen zuala denbora au guzia ezer-ere jan gabe, ta
edan gabe. Gosetu zan, eta ona non datorkion etsaia
tentatzera al duan saiets guzietatik. Etziakian
etsaiak, Jesus zala Jainkoaren Semea, ta munduaren
Salbatzallea, baña bazuan bere beldurra, eta jakiñ nai
zukean au. Argatik iru aldiz tentatu zuan aiñ trebe,
non uste izan zezakean, gizon utsa bazan Jesus,

garaituko zuala erraz; eta Jainkoaren Seme, eta Mesias bazan, agertuko zala nor zan. Lenengo ekiñ aldian esan zion: *Jainkoaren Semea bazera zu, esazu, biur ditezela ongi, orrako arri oriek. Si filius Dei es, dic, ut lapides isti panes fiant.* Erantzun zion Jesu-Kristok: Letraz ezarria dago: ezta gizona ongi utsarekiñ bizi; bizi da (animaren aldetik) Jainkoaren itza entzuten, eta itz onez adierazten diona kontuz egiten duala. Mututurik geratu zan etsaia Jesusen erantzue-rearekin; baña etzuan ala ere etsi berearekiñ irteteaz. Artu zuan Jesus (gure onagatik utsitzen zion alabaña etsaiari tentazio oek prestatzen); artu zuan Jesus, eraman zuan Jerusalemgo Elizaren gañera, eta esan zion: *Jainkoaren Semea bazera, salta zaite or beera; bada letraz ezarria dago: Agindu zien bere Aingeruai zaitu zaitzeela, eta emendik erortzean artuko zaitue beren eskuetan, miñik artu ez dezazun zure oñetan. Si filius Dei es mitte te deorsum.* Eskritura Snatako itzakkiñ ekiñ bazion, Eskriturarekiñ berarekiñ erantzun zion Jesu-Kristok: Eskribitua dago: *Ez dezu tentatuko zure Jaun Jaungoikoa.* Bigarren pelea onetan gaizki irten bazan-ere etsaia, etzuan utzi bere aria. Artu zuan berriz Jesus; eraman zuan mendi guztiz goi baten erpiñera; bat batean erakutsi ziozkan munduko

erreñu guziak, eta begien aurrean ipiñi ziozkan guzie-
tan arkitzen ziran edertasunak, eta esan zion: *Eman-
go dizkitzut ekusten dituzun gauz oek guziak, belau-
niko jarri ta adoratzen banazu zure Jauna bezala. Haec omnia tibi dabo, si cadens in terram adoraveris*
me. Erantzun zion Jesu-Kristok: *Oa ortik Satanas*
*eskribitua zeagok: Adoratuko dezu zure Jaun Jaungoi-
koa, eta ura bakarrik serbituko dezu. Dominum Deum*
tuum adorabis, et illi soli servies. Lotsaturik, eta nai-
gabez betea joan zan etsaia andik bere lekura. Berea-
la etorri ziran Zeruko Aingeruak, eta ekarri zioen
Jesus onari bear zuan jan edana. Au da, nere Kris-
tauak, gaurko Ebajelioak dakarrena. Zenbat gauz
eder ez dizkitzu emen erakusten gure Salbatzalleak?
Erakusten digu, nola gure animak prestatu bear ditu-
gun etsaiarekin peleatzeko. Erakusten digu, ez degu-
la geren naiez bekaturako bide, perill, eta tentazioe-
tan sartu bear, batez-ere garbitasunaren kontrako
perilletan; eta sartzen dana goizago, edo beranduago
loitua geratuko da. Erakusten digu gañera, beinta
berriz garaituagatik etsaia, ez degula zabartu bear,
zeren ura era onaren zai dagoan, gu gaitzera amil-
erazteko. Atzenean adirazten digu, leialki peleatzen
duanari bidaltzen diozkala Jaunak Zeruko laguntzak,

eta indar berriak. Baña egiñ ote degu, ta egiten ote degu gure Salbatzalleak aiñ ederki erakutsi diguna? Au egiñ ordean ederretsitzen die bekatariak bere griña txarrai, eta amilduaz dijoa bekatuaren mallatik mallara, eta arreizkero eztu zer egiñ andirik etsaiak atzeneko tranzeraño. Argatik gaur itzegiñ nai dizuet bekatari, denbora egokian Jaunagana biurtu ez danaren, eriotza ikaragarriaren gañean. Bekatariaren eriotza zeñ ikaragarria dan adierazteko, begien aurrean ipiñiko dizkitzuet lenbizia: bekatariaren biotza inguratzten duen gogorazio samiñak. Bigarrena: tranze artan Jainkoagana biotza jasotzeko bekatariaren nekeak eta etsimen ixill bat. Atzenean eriotza bera. Goazen oraiñ Espiritu Santuaren argiaren billa, bitarteko ipintzen degula Birjiña guziz Santa Aingeruarekin batean esanaz. *Abe Maria.*

§ I.

Ill bearra da gauza bat guziok aitortzen deguna, onak, eta gaiztoak, fededunak, eta fedegabeak. Au aditzera ematen digu alabaña ezaguera zuzenak. Zer? Ez gera bizi lurrezko ontzi batzuetan? Eta ontzi

egun oro loa, ta zikinkeria dariezenetan? Ez gera adiñ batera ezkerro egunetik egunera desegiten, aultzen, usteltzen? Ill bear degu beraz. Au aditzera ematen digu gañera beste guziakkiñ gertatu danak, eta gertatzen danak. Non dira gure lenbiziko gurasoak? Il ziran. Non dira ondorengo Patriarkak? Il ziran. Non dira lege zarreko Patriarkak, Erregeak, Aita Santauk, beste gizon andi, ta txikiak? Il ziran. Non dira geroztik mundura agertu ziranak, oraingoaz osterontzekoak? Il ziran. Il bear degu beraz guk-ere. Bai; eta ez die eriotzak barkatuko, Ez Erregeai, ez oen mendekoai, ez Aita Santuai, ez oen mendekoai; ez andiai, ez txikiak, ez aberatsai, ez beartsuai, ez ederrai, ez itsusiai. Berdiñ sartzen da erioa beartsuen etxoletan nola Erregeen Jauregi, eta torreetan, esan zuan jentil batek. *Palida mors aequo pulsata pede pauperum tabernas, regumque turres.* Au erakusten digu atzeanean gure fede Santak. Adan gure lenbiziko gurasoak ausi ezpalu Jaunaren agintea, Adan eta beraren ondorengoak etzuen ill bearrik; baña etzuan egiñ Adanek Jaunaren esana, eta berekiñ bere ondorengoentzat irabazi zuan eriotzaren pena. Autsa zera, ta auts biur-tuko zera esan zion Jaunak. *Pulvis es, et in pulverem reverteris* (Genes. c. 3). Argatik dio S. Paulok: eraba-

kia dago gizonentzat iltzea, ta iltzea beiñ. *Statutum est hominibus semel mori* (Ad Heb. c. 9.). Justuak sarritan ipintzen du begien aurrean egia; aldegiten du bekatuaren bideetatik, saiatzen da ongi iltzeko bear diran neurri guziak artzera, beti dago prest erio-tza datorreneko; eta datorrenean humilki aditzen du Jaunak guziontzat emana daukan sententzia. *Statutum est hominibus semel mori*. Ekusten du era onetan prestaturik dagoan animak, bukatzen zaizkala emengo nekeak, elkar eziñ ekusia, bekaturako perillak. Ekusten du, etorri zaiola bere errira joateko denbora; eta noizbait utsegiteen batzuek gertatu bazitzaizkan ere, bere barrunbeak esaten dio, nola alegiña prestaturik aitortu zituan, eta geroz nola bizitza onari jarraitu dion, eta emendik sortzen zaio bere biotzean Jaunaren ontasun, eta Miserikordiaren uste, edo esperantz andi bat. Zori onean entzun nituan, dio beregan, arako dotrina, ta sermoi aek; zori onean utzi nituan bekaturako bideak, perillak, jolas gaiztoak, itz egite, ta adiskidetasun limuriak; zori onean utzi nituan usurak, tratu zikiñak, erriko kontu nastuak. Zori onean ekiñ nion Zerurako bideari. Aratzeko ustea ematen dit Jaunak. O! Jesus ona! noiz ekusiko zaitut? Era onetan justuak sosegu andi batekiñ ematen du

bere bizitza Jaunak dionean. Ala eman zuen Santo Domingok, Santa Katalina Senakoak, S. Franzisko Jabierrek, Santa Teresak, eta beste eziñ konta al anima onek, eta Suarez beneragarriak zion: Ez nuan uste izan beñere, onen gauza gozoa zala iltzea. *Numquam putabam esse tan dulce mori.*

Baña ill bearraren berriak atxitzen duanean bekataria bere griña, ta pasio txarren ondoren itsuturik dabillena, nork esan, zeñ illuntasun, eta tristura andiak, zeñ gogorazio samiñak inguratzen duen beraren biotza? Etzuan bekatariak aditu nai izan denbora egokian, zeñ gauza gaiztoa, ta samiña dan guk gure Jaun Jaungoikoa utzitzea, ta zeñ ondoren negargarriak datozen emendik. Eta noizta gutxiena uste duan iltzea, arkitzen da bereala ill bear dualako berriarekin. Orduan nere Kristauak; orduan desegiten dira, munduak, eta pasio txarrak animaren begietan zabaldu ziozkeen lañoak, eta bat batetan ekusten ditu gauzak diran bezala. Ai! dio batzuetan, nik uste nuan nigandik urruti arkitzen zala eriotza, eta ez nituan ezertan artzen konfesore, ta Predikadoreen esanak; eta ona zer tranzean ipiñi dedan nere burua. Ill bear det, eta ill bereala! *Ecce morior!* Gaitz erdi lizake bi aldiz ill bear banu, baña iltzea da beiñ baka-

rrik egiten dan lana. *Statutum est hominibus semel mori!* Ill bear eta ill bear bereala. *Ecce morior.* Egiñ ninduan Jaunak ezer ezetik, eta egiñ ninduan bera amatzeko, serbitzeko, ta berarekiñ betikotasun guzian doatsu izateko; au zan nere lan bakarra, baña au da nik ezertan iduki ez dedan lana: ta oraindik lan oni ekiñ baño len iltzera noa! *Ecce morior.* Ni mundura agertu orduko, ederki prestatu zituan Jaunak, emen bizitzeko bearko nituan gauza guziak, eta gauz oezaz baliatu naiz beraren kontra altxatzeko, eta ezta neretzat izan nere gura txarrak beste Jainkorik. Eta oraiñ iltzera noa, eta iltzera bereala! *Ecce morior.* Deitu ninduan Jaunak bere fede, ta Lege Santara, utzirik beste asko fedearen argirik ez duen jendeen artean; egiñ ninduan Jainko beraren ume, ta Zerua-ren jabegai, edo heredero; eta ontarte, edo mesede onen andiari esker onez, eta bizitza on batekiñ erantzun bearrean, fedegabearen eran, ta askoz gaizkia-go bizitu naiz: ai! ta iltzera noa! *Ecce morior.* Nere onerako utzi ziozkan Jaunak bere Elizari zazpi Sakramentu, eta oen artean konfesioko, ta Komunioko Sakramentua; baña oek biurtu izan ditut nere kalte-tan; ez nintzan alabaña ongi prestatzen; ez nuan esamiñarik egiten; ez nintzan ongi damutzen; ez nuan

biotzik bekatuaren bideak betiko utzitzeko, nere griña txarrak ezitzeko, eta besteren gauzak jabeari biurtzeko; eta nere konfesio guziak izan dira iduripen uts bat. Eta oraiñ iltzera noa? *Ecce morior*. Ni Zerurako bidean sar erazteko, utzi zion Jaunak Elizari bere itz Santuaren sendagai miragarria; baña ni igesi ibilli naiz dotrina, ta sermoietatik, eta enzun ditudanean ere erausian, eta aditzen ez ditudan gauzetan nola nai itzegitea izan da nere frutu guzia: ta oraiñ ill bear nik bereala? *Ecce morior*. Ai! eziñ konta al dira nik egiñ, eta eragiñ ditudan bekatuak, asko dira nigatik betiko galdu diran animak! eta oraiñ ill bear nik bereala? *Ecce morior?* Gogorazio samiñ oek ekingo dioe bekatari gaixoari, eta zenbat alderago daukan bere ill bearra, anbat geiago illuntasunez, eta tristuraz beteko due Antioko Erregeari gertatu zitzaion eran. Antioko Erregea, usterik gutxiena zuanean, artu zuan iltzeko gaitzak bere erritik kanpoan; eta ezaguturik iltzera zijoala, aiñ illuntasun, eta tristura ikaragarriak artu zuan, non geratu zan lorik eziñ egiñ zuala, ta ezertarako etzala. Deiturik bere adiskideak, joan da nigandik loa, esaten zien: *Recessit somnus ab oculis meis*. Zenbat neke, ta tristuraren artean ez det nere burua ipiñi. Oraiñ oroitzen naiz Jerusalemene egiñ

nituan gaizakeriaz. *Nunc reminiscor malorum, quae feci in Hierusalem.* Orain ezagutzen det, emendik datorkidala nere gaitza: ta orra tristuraz iltzera noa leku arrotzean. *Ecce pereo tristitia magna in terra aliena* (Machab. 1. c. 6). Ekusten dezu, Kristaua, zein gogorazio samiñak inguratzen duen bekatariaren biotza, ill bearra datorkionean? Ekusten dezu, zein ikaragarria dan alde onetatik bekatariaren eriotza? Ta asiera besterik ezta au guzia.

§ II.

Badakus bekatariak iltzera dijoala, ta bereala. Badakus, egiaz ta biotzetik Jaunagana biurtzen ezpada galdua dala betiko; baña neke da, eta neke andia, alaere, Jaunaren aserreak era onetan atxitu duan bekatariaren biotza, bear dan eran, Jaun beragana biurtzea. Argatik dio S. Paulok: Gauza izugarria da Jainko biziaren eskuetan erortzea. *Horrendum est incidere in manus Dei viventis* (Ad. Heb. c. 10). Ta ala arkitzen da bekatuaren bide, perill, eta oituretan dabillena; ill bearra datorkion bekataria; atxitua dago gaiztakeriaren bidean bizi dala, ta iltzeko sententzia

bere gañean dauka. *In operibus manuum suarum comprehensus est peccator* (Ps. 9). Eta erraz da tranze onetan bekataria, bear dan eran, Jaunagana biurteza? Ez; nere Kristauk, ta gauz ederra izan ordean da gutxitan gertatzen dana. Alde askotatik datorkio neke au bekatariari. Datorkio benik beiñ bere burua-gandik. Azaldatzen du alabaña bere il-bearrak. Azaldatzen due umeen, etxekoen, eta aideen negarrak. Azaldatzen due eta loturik bezala utzitzen bere gaiztakeriak; ta beste aldetik gaitzak berekin dakartzian nekeakin ez dago ezertarako. Gaiztoa atxitzen due, eta loturik ipintzen bere gaiztakeriak, dio Eskritura Santak. *Iniquitates suae capiunt impium, et funibus peccatorum constringitur* (Prov. c. 5). Baldin osasuna onean gaudela ezin askotan moldatu bagera konfesio on bat egiteko, ta gure utsegiteaz bear dan eran damutzeko; baldin naigabe batek, buruko, edo agiñetako miñ batek ezertarako ez gerala utzitzen bagaitu, zer izango da eriotzaren beldurrak, eta nekeak inguratzen gaituenean? Bekatariaren biotza bere oitura gaiztoakkin gogortua, ta txingude biurtua dago; eta neke da, neke da, era onetako biotza bat batean gozatzea, eta ongi maneatzea. Neke da, nere Kristauak, osotoro usteldua, edo igartua dagoan arbola

batek batetan lore ederrak, eta frutu gozoak ematea. Neke da zalkea ebakitzen danean, ogi biurtzea. Neke da ongi bizitzen, eta ongi iltzeko prestatzen beiñ-ere ikasi ez duanak batetan ikastea. Neke da Etiopiako batek bere larru beltza, eta tigreak bere mantxak utzitzea. Eta neke onen antzekoa da bekatariak iltzeko denboran Jaunagana biurtzeko duan nekea. *Si Aethops mutare potest pellem suam, et pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere, cum didiceritis malum.*

Neke au datorkio gañera bekatariari bere etsaiagandik. Ekusten du etsaiak, ordu artaraño berea izan duala bekataria, eta atzeneko bizitzaren kondoan kontu egiten ezpadio iges egin lekiokela bere atzaparren artetik. Kezka onekin biltzen dira infernuko etsaiak, eta goseak igarorik eizaren zai dauden leoiengan inguratzen due bekatari gaixoa. Ekiten dioe alde guzietatik; batzuek buruan sartzen dioe; ez dala gaitza uste duan bezeiñ andia, ta bear bada igaroko zaiola; besteak ekiten dioe bere denboran erren egin duan alde artatik. Kutiziara, usura, ta tratu zikiñetara makurtua izan danari begien aurrean ipiñiko diozkee irabaz bide berriak. Auzilariari paperak, egiñ oi diran tranpak, eta engañoak. Antuste ta soberbiara etziña

izan duanari soñua joko dioe alde onetatik eta au bera egingo due jolas, ibillera, itzegite, ta adiskidetasun gaiztoetan bizitu danarekin. Eta bere denbora guzian etsaiaren kontra peleatzen ikasi ez duanak, bere griña, eta oitura gaiztoak ezitzera saiatu ez dana, nola bat batetan ikasiko du etsaia garaitzen? Neke da nere Kristauak. Au aditzera eman zion Jerusalem, eta gutatik bakoitzari Salbatzalleak esan zua-nean: Etorriko da egun bat, dio, zeñean inguratuko zaituen zure etsaiak: *Cirbumdabunt te inimici tui vallo*; eta ez dira sosegatuko zu mendera artean; ta au gertatuko zatzu, zeren enzun nai izan ez dituzun nere Aingeruen, konfessore, ta Predikadoreen autik bidaldu dizkitzudan gaztigu, edo abisoak. *Eo quod non cognoveris tempus visitationis tuae.*

Atzenean bekatariaren Jaungoikoagana biurtzeko nekea etorri oi zaio bekatariari, zeren Jaunak bere eskergabekeriaren penan gutxitzen diozkan bere laguntzak. Ekusten du bada bekatariak bere tranze onetan alde batetik bere il bearra; bestetik ezin ongi moldatu duala bere burua Jaunagana biurtzeko. Ekusten du infernua bere eztaRRitzarra zabaldurik, eta iges egin nai luke eriotzagandik, baña alferrik. Eman a dago sententzia, ta nai ta ez joan bear du mundu one-

tatik, dio S. Pedro Damianok. *Manere satagit, ire compellitur*. Nork esan oraiñ zeñ estutasun andiak inguratuko duen bekatari tristea tranze artan? Geratu nai luke emen eta ez dio utzitzen dio S. Pedro Damianok: *Manere satagit, ire compellitur*; Atozea oraiñ, Kristaua, ezta ikaragarria era onetan arkitzen dan bekatariaren eriotza?

§ III.

Baña goazen eriotzari berari begiratzera. Badatorkio lasterka bekatari gaixoari bere ordua. Norgana biurtuko da bekatari tristea tranze onetan. Biurtuko ote da bekataria gure bitarteko, eta Ama onagana, edo Birjiña guziz Santagana? Baña Birjiña guziz Santak ez du adituko. Zoaz eskergabe madarikatua, esango dio bere biotzera; zoaz nere Semearen, eta Eliz Ama Santaren etsaia; zoaz lizunkerien, eta bizitza loiean irabiatzea besterik nai ez dezuna, zoaz dagokizun lekura. Biurtuko ote da S. Migel Aingeruagana? Baña onek lagundu ordean bere aurpegira emango dio, nola Demonioaren banderai jarraitu dien, utzirik Jesu-Kristo. Biurtuko ote da Apostoluetara? Baña oek

esango dioe: Judasek saldu zuan Jesu-Kristo ogeita amar diruan, baña zuk saldu dezu askoz merkeago. Saldu dezu itz deshonesto bategatik; saldu dezu keñada lotsagarri bategatik; saldu dezu ukitze zikiñ bategatik. Zoaz, zoaz Judas zere lagunagana. Biurtuko ote da Zeruko beste Santuetara? Baña oek esango dioe: non dira zuk Jainkotsat adoratu dituzun munduko gauz oriek? Non dira atsegiñ kontentuak? Non dira gauzetako egoerak, esamesa, ta erausirako bidea ipintzen zenduala? Non dira edanean, jokoan meza arteak, eta bezperetako denbora igarotzeak? Non dira zure irabaziak, usurak, litxarrerriak? Non dira zure adiskideak, zure lagunak, eta estalkiak. *Ubi sunt Dii tui, qui fecisti tibi?* Betoz oraiñ, eta atera zaitzeela estutasun orretatik? *Surgant, et liberent te in tempore afflictionis tuae.* Norgana bada itzuliko da bekataria ordu ikaragarri onetan? Bere Jaunagana? Baña esango dio Jaunak: deitu dizut ainbeste bider, baña ez dituzu ezertan artu nere deiak. *Vocabi, et renuistis.* Eman dizkitzut ainbeste ateleka konfesoreen, Predikadoreen, eta liburuen bidez, baña guzia izanda alferra. *Increpationes meas neglexisti.* Dotrina, sermoi, ta Misioetan ibilli nintzan zure billa, nere eskua luzaturik zu bekatutik ateratzeko baña zu eskergabea

ibilli zianan nere igesi. *Extendi manum meam, et non fuit qui aspiceret.* Orain, orain nik ere zuzaz farra egingo det. *Ego quoque in interitu vestro ridebo.* Au egin oi du Jaunak bekatari eskergabearekin Eskritura Santak aditzera ematen digunez. Iltzen da bekataria era onetan, bearbada Sakramentuak arturik, eta munduaren begietan ongi, baña Jaunaren aurrean gaizki, eta amiltzen da beti betiko su, eta garren artean.

Ekusten dezu, Kristaua, zein ikaragarria dan bekatariaren eriotza? O eriotza! dio Eskritura Santak; O eriotza! zein gauza samia dan zure oroipena munduko gauzetan biotza daukanerentzat! *O! mors, quam amara est memoria tua homini pacem habenti in substantiis suis!* Ez gaitezen bada geiago engañatu; utzi ditzagun bekatuaren bideak, baita eskandaloa ematen duen itzegiteak, egoerak ere; egin ditzagun konfesio on batekin pakeak gure Jaun onarekin, eta Birjina guztiz Santa bitarteko degula bizi gaitezen kontuz, iristeko eriotza on bat, eta gero beti betiko bizitza doatsua. *Ad quam nos &*

GARIZUMAREN BIGARREN IGANDERAKO

*Gorputzak izango duan betiko zori on,
eta doatasunaren gañean.*

Domine, bunom est nos hic esse. Math. 17.

Beti aditu bear ote dira leku onetatik bekatarien kontrako gauz illun, eta izugarriak? Ez ote zate zer-bait esan bear, bekatua, eta bekatuaren bideak utzirik Jaunaren lege Santa gordez bizi diran animai? Ez ote zate gozagarriren bat eman bear, alaitu ditezen Zerurako bidean? Baietz dirudi, eta ala egin zuan Jesus onak S. Pedro, S. Juan, eta Santiagorekin.

Aditzera eman ziezten Jerusalemene igaro bear ko zituan nekeak, eta gurutzeko eriotza: eta nai ta naiez illuntasunez beteko ziran berri oekin Apostolu oen biotzak; baña alaitu, ta oraiñ esatera noan eran. Artu zituan berekin, eta joan zan mendigañ batera. Iruren aurrean jarri zan era miragarri batean. Aurpegiak argi egiten zion eguzkiaren eran, eta soñekoak añ ederrak, eta zuriak zeuzkan, non elurra bera zirudien.

Agertu ziran Moises, eta Elias, eta itzezin zuen, Jesusek munduaren onerako igaro bear zuan eriotzaren gañean; joan ziran andik Moises, eta Elias, eta jarri zan Jesus len oi zan eran, edo ezkututzen zuala mirari andi batekin bere doatasunari zegokan edertasun guzia; S. Pedrok esan zion: Jauna gauz ona, eta atsegin andikoa da emen egotea: *Bonum est, nos hic esse*: egin ditzakun iru leku, bata zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasantzat. Ozta au esan zuan S. Pedrok, agertzen da odei guziz argi bat, eta denbora berean aditzen da turmoiaren otsa: eta itzeziten du Aita Zerukoak era onetan: au da nere Seme maitea; onegan izan da betikotasun guzian nere atsegin-kontentua; enzun, eta egiñ ezazue erakusten dizuena: *Hic est filius meus dilectus, in quo mihi bene complacui: ipsum audite*. Turmoiaren otsarekin izutu, eta auspez lurrera erori ziran iru Apostoluak. Jesusek, bere eskuarekin ukitzen zituala, esan zien: *altxa zaitzte, ez ikaratu, eta ez iñori esan ekusi dezuena, piztu nadiñ artean*. Zer aditzera ematen ote digu misterio onek? Aditzera ematen digu, Jesus dala Aita betikoaren seme maitea, gugatik gizon egiñ, eta gurutzean bizitza eman zuana. Aditzera ematen digu gañera, emengo neke, ta gurutzeak Jaunaren izenean

daramaizkianak izango duan betiko zori on, eta doatasuna. Zori on, eta doatasun au bi gisatara da. Bata da gorputzari dagokana, eta au izango da gaurko itzaldiaren gai guzia. Aurrena aditzera emango det, nolako bizi lekua prestatuak daukan Jaunak bere serbitzarientzat. Urrena, nolako doaiakiñ apainduko duan Jaunak zori oneko bakoitzaren gorputza. Atze-nean, nolako atsegiñ-kontentuak izango dituan zori onekoak bere gorputzeko sentidu bakoitzean. Enzun nazazue arreta andiarekiñ zuek, Jesu-Kristoren lege eder garbia gordetzen dezuen anima onak, eta beude besteak utzi nai ez dituen gura gaizto, ta atsegiñ lotsagarrien lokaztian. Baña onetan asi baño len billa dezagun Espiritu Santuaren argia, arturik bitarteko Birjiña txit Santa Aingeruarekiñ batean esaten diogula. *Abe Maria.*

§ I.

Gure fede santak erakusten digun egia da, prestatuak daukala Jaunak bere serbitzarientzat betiko zori on, eta doatasuna, Fedeak erakusten digu gañera, doatasun au izango duala, ez animak bakarrik,

baita gorputzak ere, zeren animaren neke, eta obra onetan lagun izan zan. Ala sinisten degu guziok. Gorputzaren doatasun au nolerebait ezagutzeko, begira, Kristaua benik beiñ nolako bizilekua zuretzat prestatu duan Jaunak.

Zer bizileku prestatu dizula Jauna, uste dezu, nere Kristaua? Bizileku au da Aita Zerukoaren jauregia bera; bizileku au da Zeruko Jerusalem ederra. Bizileku onen anditasunari begiratzen badiozu, ez du neurririk, eta ezer ez da mundu guzia, aren pare ipintzen badezu. O Israel, arriturik dio Baruk Profetak: *Zein andia dan Jaunaren etxea! Zeiñ andia beraren bizilekua!* Andia da, eta ez du bukaerarik: guziz goia eta neurririk, edo mugarririk ez duana: *Magnus est et non habet finem: excelsus, et inmensus.*

Eta bizileku onen edertasunari begiratzen badiozu, ezta adimenturik au ongi ezagutzeko, ta are gutxiago mingañik, dan bezalakoa aditzera emateko. S. Paulo eraman zuan beiñ Jaunak bizileku onetara, eta andik jatxi ondoan eztaki zer esan, eta arriturik dagoan baten eran esaten digu, ez due begiak ekusi, ez due belarriak aditu, ez gizonaren adimentuak iritsi, nolako ondasunak prestatu dituan Jaunak bere serbitzarientzat. Eta beste batean zion, ekusi zituala gizo-

nak ezin adirazi litzakean gauza miragarriak. S. Joani erakutsi ziozkan Aingeru batek Zeruko erria, eta erri onen edertasuna, eta au nolerebait guri adirazteko baliatu zan emengo arri ederren, edo urre, arri, eta kristalaren izenaz, ez zeren onelako gauzarik an arkitzen dan, baizik zeren ezin guk ezagutu dezakegun Zeruko erriaren edertasuna, emengo gauz ederren laguntzarekin baizik. Eta zuek, anima onak, emengo gurutze, ta samintasunen artean Jesusi jarraitzen diozuenak: zuek beartsu, ta emengo erarik gabe bizi zeratenak altxa itzatzue zuen gogo, eta biotzak Zeruronz, eta begira S. Joanekin batean, zuentzat Aita Zerukoak egiñ duan bizileku ederrari.

Txit ederra, eta apaindua dago, agiri dan, Zeru ori. Izarrak, ta eguzkiak argi egiten, eta distiatzan due era miragarrian, eta txit eder ematen due, baña jakizu, ori guzia ez dala zure bizilekuaren ataria baizik. Zoaz, Kristaua, goorago, eta arkituko dituzu Zeruko erriaren murallak. Lau eskiñetara, edo kuadroan egiña dago erri au dio S. Juanek: *Civitas in quadro posita est*: eta inguratzen due muralla guziz eder amabi arri-errenkadarekin egiñak. Lenengo errenkada da jaspe guziz garbia, kristalaren eran argia igarotzen zaiona. Bigarren errenkada da Zeru-kolorea

duana, eta S. Juanek deitzen dio *Safiro*. Irugarren errenkada da brasa erazekiaren anza duana, eta deitzen dio S. Joanek: *Kalzedonio*. Laugarrena da *esmeralda*. Bostgarrena, *zurigorria*, eta deitzen dio S. Juanek *Sardonix*. Seigarrena da S. Juanek *Sardio* deitzen dion arri eder bat. Zazpigarrena urre-kolorea duana, eta deitzen dio Santuak *Krisolito*. Zortzigarrena da berde dirudiana, eta deitzen dio *berilo*. Bederatzigarren arri-errenkada da *Topazio*. Amargarrena da urre-kolorea berdearekin nastua duana, eta deitzen dio S. Juanek *Krisofraso*. Amaikagarrena da kazmin kolorea duana, eta deitzen dio *Jazinto*. Amabigarrenari deitzen dio *Ametisto*. Arri-errenkada bakoitzak izango ditu ezin konta al milloi legua; guziak dira puskaga-beak, edo osoak, eta argi egiten due kristalaren eran. Eta añ ederrak badira murallak, zer izango da erria bera?

Erria bera zer uste dezu? Urre garbia dio S. Juanek, eta ez nola nai urrea baizik, da kristalak bezala argi egiten duana: *Ipsa vero Civitas aurum mundum simile vitro mundo*. Lau eskiñetara egiña da len esan dedan eran, eta bere lau aldeetan ditu amabi ate, au da, alde bakoitzean iru. Ate bakoitza da *margarita* deritzan arri preziotsuz egiña, eta ez puskakin, baizik

arri osoakin, eta distiatzen due guk esan al baño era miragarriagoan. Amabi ate oek beti daude idikiak ala gauzez, nola egunez, Jaunaren graziaren soñeko ederrarekin dijoazen guzientzat. Sar zaite Kristaua ate oetatik. Zer ekusiko dezu? Ekusiko dezu, erria ezezik, erri onetako kaleak, plazak, eta leku guziak dirala urre garbia, S. Juanek dionez: *Et platea civitatis aurum mundum.*

Aditzen dezu, Kristaua, nolako bizilekua prestatu dizun zure Jaun onak? Ez da izan munduan Erregerik Jauregi añ eder, ta galanta izan duanik. Baña zer diot nik añ eder ta galanta? Munduko urre, zillar, diamante, ta beste arri ederrak: munduko erreñu guziak ikaz puska bat, edo gorotza besterik ez dira zure bizilekuaren aldean. Alaere, o Adanen umeen itsumen negargarria! lur piska baten ondoren ainbeste gerra egiten, eta ainbeste odolezko ibaiak ixurtzen dira, eta denbora berean aztutzen gera Zeruko erri zoragarriaz. Noiz artean iraun bear ote du gure zorakeriak? Baña goazen aurrera, ta dakuskun, nolako doaiakin apainduko duan Jaunak zori onekoaren gorputza.

§ II.

Zori oneko, edo doatsua, lurrean bizi dan bitartean ere, da Jaunaren etxea; beraren bizileku, edo Eliza bezala, eta Espiritu Santuak edertzen, eta apaintzen du animaren aldetik bere doaiakin. Zer izango da gorputz, eta anima Zerura daramanean? Zer izango da Jaunak bere edertasun neurrik, ta mugarik ez duana erakusten dionean? Ez da Jauna kontentatuko anima era onetan doatsu egitearekin, baizik gorputza ere janziera guziz eder batekin apainduko du Aita Zerukoaren umeari, Jesu-Kristoren señaide, eta Espiritu Santuaren bizilekuari dagokan eran.

Lau doai izango dira, doatsuaren gorputzaren apaindura au, Elizako gurasoak erakusten diguenez. Lenengoa da argitasunaren doaia. Doai onekin janziko da doatsuaren gorputza, eta argi egingo du eguzkiaren eran, dio S. Mateok: *fulgebunt sicut Sol*: eta au izango da apaindura bat beñere urratuko ez dana, apaindura bat betikotasun guzian beti berri egongo dana: apaindura bat munduak asma ditzakean janziera guziak baño ederragoa. Bildu bitez diamante, eta arri mota eder guziak: bildu urrerik garbiena, et soñeko gai preziotsuenak; egin bedi oraindño agertu diran guziak baño janziera txukunago bat. Alaere jan-

ziera au ezer ez, edo itsusia izango litzake, edozein doatsuk Zeruan izango duan apainduraren aldean.

Doatsuaren gorputza apainduko duan, bigarren doaia da alako aro, ta sasoiean geratzea, non inondik ere eziñ izan dezakean kalte, eta nekerik txikiena ere. Ez due otzak, eta beroak: ez due puzoiak, ezpatak eritasunak, eta eriotzak berak ere indarrik doatsuaren gorputzaren kontra, S. Juanek esaten digun bezala: *Mors ultra non erit, neque luctus, neque clamor, neque dolor erit ultra.*

Irugarren doaia izango da añ bizi ta ariña geratzea doatsuaren gorputza, non begien itxi-idiki batean joan ditekean nora nai nekerik gabe Aingeruak joan oi diran eran. Emendik doai onekiñ joan liteke doatsua, batzuetan Jesus onaren, besteetan Birjiña txit Santaren aurrera, eta milloika igaro litzake leguak gogorazio, edo pensamentuak bezala. Orregatik esan zuan Isaiasek, artuko dituela egoak arranoen eran, eta ibilliko dirala batere aunatu gabe: *Asument pennas, ut aquilae, volabunt, et non deficient.*

Laugarren doaia izango da añ garbi, ta me geratzea, non ezerk eragotziko ez dion edozein lekutan sartzea: Jesus ona Apostoluak arkitzen ziran lekuan, ateak itxiak zeudela sartu zan bezala: eta ala nai iza-

tera sartuko lizake lurraren erraietan, eta an ezkutatirik dauden urre, zillar, eta arri ederrak ekusi ondolan irtengo lizake erraz, eta nai bezala.

Esan gidazu oraiñ, Kristaua, zeñ Enperadorek, zeñ Errege, edo Erregiñak izan du onelako doairik bere apaindura ta janzi ederrakiñ? Eta apaindura au eman-go dio Jaunak doatsu bakoitzari, munduan dan beartsuena, eta aztuena baliz ere. Kristaua, eta apaindura au beste saririk ezpaliz ere ez da asko zu Zerurako bidean gogotik ibiltzeko? Eta zer esango degu, zori onekoak gorputzaren sentiduetan izango dituan atsegiñ-kontentuai begiratzan badiegu? Atoz, Kristaua, eta oei ere eman degiegun oraiñ begiraldi bat.

§ III.

Doatsuaren animak, ekusirik Jaungoikoaren edertasuna, ainbesterañoko atsegiña izango du, non gañez egiñik, zabalduko zaion bere sentidu guzietara, Dabidek dion eran: *Cor meum, et caro mea exultaverunt in Deum vivum*. Baña izango da gañera sentidu bakoitzak, berari berezkiro dagokan atsegiñ, eta kontentua.

Begiak gordetzen ditu doatsuak, bekaturako bidea dakarten gauzak ekustea debekatzen diela: eta neke onegatik izango due begiak sari txit ugaria. Ekusiko due Jaunaren erriko edertasun guzia. Añ miragarria da au, non emendik ekusi albagentzake, arriturik ez giñake jate, ta erateaz ere oroituko dio S. Bizente Ferrer'ek. Ekusiko ditue eziñ konta al doatsu, argi egiten duela bakoitzak eguzkiaren eran? Ekusiko due Birjiña txit Santaren, edertasuna. S. Dionisio Areopajitak ekusi zuan Birjiña txit Santa artean lurrean bizi zala, eta añ argia, ta ederra iritzi zion, non esan zuan andiagorik eziñ ekusi zitekeala zori onekoen artean ere. Eta Marina Eskobat beneragarriak, ekusirik Birjiña guziz Santaren edertasuna, esan zuan, ekuste utsagatik ere nekatu gindezkeala eziñ konta al urtetan. Eta zer izango da Jesus maitagarria ekustea? Ekusi zuanean S. Pedrok Jesus mendiaren gañean, eguzkiak bezala argi egiten zuala, *Jauna, gauz ona, eta atsegiñ andikoa da*, zion, emen gu egotea. *Bonum est nos hic esse*. Eta zer esango zuan, Zeruan duan edertasun guzian ekusi balu?

Belarriai ukatzen die Jaunaren beldur Santuan bizi danak itz loiak, ipui zikiñak, eta lagun urkoaren kontrako elaberriak enzutea, eta neke onegatik adituko

ditu Zeruko Serafiñen, eta Aingeruen kanta gozoak. S. Franzisko Asisi, illuntasunez, edo tristuraz zegoan batean, agertu zitzaion Aingeru bat txerrebataren anza zuan gauzaren batekin. Uztai, edo arkuarekin egin zuan soñua asitzeko keñada bat, eta ainbesterañoko atsegiña artu zuan Santuak, non illko zan kontentuz, utzi ezpalu Aingeruak bere soñu gozoa. Zeruko kanten gozotasunarekin milloika joango dira urteak, denbora piska bat balira bezala. Hau ezagutzeko ongi, enzun ezazu, Kristaua, Nafarroan Erlijioso bati gertatua. Dabidek kanta batean dio: Jauna, milla urte zure aurrean atzo igaro zan eguna bezala dira: *Mille anni ante oculos tuos, tanquam dies hesterna, quae praeteriit* (psal. 89. v. 41). Erlijioso batek eziñ aditu zuan itz oetan Dabidek diona, eta erregutu zion Jaunari, eman zegiola gauz onen ezaguera. Aditzen du konbentuaren aldean karnau edo txori baten kanta txit gozoa, eta txoriaren kanatari zerraikala sartu zan basoan barrena. Gerotik gerora gozoago zeritzan kantari, eta iru ordu bezala igaro zituala zeritzan denboran, biurtu zan konbentura, eta arkitu zan zer gertatzen etziakiala. Konbentua etzan len zana, ez eta Erlijiosoak ere. Abade edo konbentuko buruak galdetu zion, noiz irten zan: eranzun zion iru ordu

bezala izango zirala. Galdetu zion berriz, zeñ zan orduan Abade, edo buru: eranzun zuan, *urlia*. Joan ziran liburuetara, eta ekusi zuen irureun urte zirala, urlia ura Abade izan zala. Agindu zion Abadeak Erlijioso ari ar zezala Jauna: artu zuan, eta bereala ill zan. Eta txori aren kantik anbat atsegin eman bazion esan dedan Erlijiosoari, zer atsegin artuko ez du doatsuak betiraunde guzian Aingeru, ta doatsuen kanta, eta soñuak adituaz?

Belarriai bezala, ukatzen diezte Jaunaren serbitzariak beste sentiduai ere ongi ez diran gustoak, ala sudurrai, ausapaiai, nola eskuai, ta gorputz guziari: eta ildurazio onegatik izango ditu betiko atsegin garbiak.

Orra, Jesusen lege Santa gordetzen dezuen anima onak, orra nolako zori on, edo doatasuna prestatu dizuen Jaun onak, gorputzarentzat. Alai zaitezte bada, alai zaitezte betiko atsegin, eta ondasun oen ustearekin. Igaroko dira laster emengo neke, eta samintasunak. Igaroko dira munduak, Demoniak, eta griña txarrak ematen dituen gurutze guziak, eta sartuko zerate betiko pakea gozoan. Igaro da, esango dizue Jesus onak; igaro da munduko nekea: *Jam*

hiems transiit, eta etorri da zuentzat betiko doatasu-
naren udaberria.

Eta zu, bekatari ainbeste urte aetan zere doatasu-
naz azturik bizi zerana, ez ote zera oraiñ ere esnatu-
ko bekatuaren lozorro orretatik? Gaurdanik betiko
adio esan nai diozu Zeruko edertasun guziari? Betiko
adio Zeruko atsegin guziaz? Ai! ta baziñaki zer galtzen
dezun! Ea nere, Kristauak, denbora da ezagutzeko
zertan dagoan gure zori ona. Billa dezagun arretare-
kin: bizi gaitzen Jesus onak erakusten digun eran,
onela iristeko beti iraungo duan bizitza doatsua.
Amen.

GARIZUMAREN BOSTGARREN IGANDERAKO

Jaungoikoaren itza aditzearen gañean.

Qui ex Deo est verba Dei audit; propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis. Joann. cao. 8. v. 47

Zein da, zein, nere enzunleak, gure artean, esan dezakiana: *ni eskribiturik nago bizitzaren liburuan, salbatu bear duenen artean naiz ni?* Iñor ez gure artean, nere enzunleak. Alaere gaurko Ebanjelioak begien aurrean ipintzen digu señale andi bat batzuentzat Zerurako, besteentzat eternidade guzian iraun bear duen sugarren arterako: au da Jainkoaren itza, ta bere ministroen ezpañaz adieraztera dizkigun egiak aditzea, edo ez aditzea. Puntu onen gañean itzegingo dizuet gaur; baña lenago adierazi nai dizuet Jainkoaren itza aditzeko premia ongi erakusten duen dotrinako puntu bat. Izan bedi gaurko doktrina Kristau guziak, ta bakoitzak jakiñ bear duanaren gañean.

Beartua, ta obligatua dago Kristaua, S. Tomas Aingeruak, ta onekin Teologoak erakusten duenaz jakitera, Jainkoak agintzen diozkan gauzak ongi egite-

ko bear dan adiña doktrina. *Horum autem quaedam aliquis scire tenetur, illa scilicet, sine quorum scia non potest debitum actum exerere* (S. Thom. 1. 2. quest. 78 art. 2). Eta au bekatu mortalaren azpian. Jauna ta zenbaterañoak ote da Kristau guziak bekatu mortalaren azpian jakiñ bear duen dotriña au? Dotriña au guzia lau gauzatara biurtzen du Asteteren urrezko liburutxoak. Arrazoiaren usora Kristaua datorenean obligatua dago jakitera *zer sinistu, zer eskatu, zer egin, zer artu, edo errezibitu bear duan*, dio liburuak. Lenbizioa beartua, ta obligatua dago jakitera *zer sinistu bear duan*, zeren beartuak, ta obligatuak gauden maiz egitera fedeko afektoak, edo ber bera dana maiz sinistera Fedeko misterioak, ta ezpadaki batek *zer sinistu bear duan*, nola bear bezala sinis dezake? Sinisten dezue Zeruko izarrak parezka dirala? ez Jauna esango dezue, zeren ez dakigun ezer gauz orren gañean; nola bada sinistuko du batek *zer sinistu bear dan ezpadaki*? Emendik Zeruan sartu nai duan kristauak jakin bear du, badala Jainko bat onai Zeruko atsegin kontentuek emango diezteena, gaiztoai eternidadeko neke oñazeak. Ala dio S. Pablok. *Accedentem ad Deum oportet credere quia est, et inquiringibus se remunerator sit*. Oro bat jakin bear

du Jainko au Jainko bakarria izanik dala iru Persona Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Jakiñ bear du gañera Trinitadeko bigarren Persona, zeña dan Semea, gizon egiñ zala gu salbatzeagatik. Gauz oek, ta batez ere lenbizikoa, aiñ premiazkoak dira, ze, oek jakiñ gabe, ta sinistu gabe, oraiñ izan dedilla zabarkeriaz, oraiñ batere kulparik gabe eziñ salba ditekean, eta oek ez dakizkiana ezin iñork-ere, ez eta Aita Santuak-ere absolbi dezake.

Misterio oezaz gañera zer sinistu bear dan jakiteko jakiñ bear da Kredoa. Jauna ta obligazio onekiñ kunplitzen ote degu Kredoa gogoan idukitze utsarekin? ez ez. Memoriaz jakiteaz gañera beartuak, ta obligatuak gaude bekatu mortalaren azpian Kredoko artikuluen substantzia bederik aditzera, eta ezagutze-
ra; memoriaz jakite utsa alabaña edozeñ aur zentzugabek, baita loro batek-ere, egin dezakeen gauza da.

Beartua dago, Kristaua bigarrena zer eskatu bear duan jakitera. Au jakingo du Aitagurea, ta beste Elizaren orazioak jakiñaz. Jauna, ta obligatuak arkitzen gera Aitagurearen petizioak kartillak dakaizkian bezala jakitera? Gauz onen gañean asko dala erakusten due Doktoreak jakitea, on guzia Jainkoagandik bear degula, ta Jainkoari eskatu bear zaizkala. Alaere

gauza lotsagarria da kantalak ikasteko, dantzatzeko, ta beste gauzetarako ipintzen dan kontuaren laurdenik ez ipintzea Kristau batek Aitagurean zer eskatzen duan ongi jakiteko. Beartua, ta obligatua dago Kristaua irugarrena zer egiñ bear jakitera: au jakingo du Jainkoaren legeko mandamentuak, Eliz Ama Santarenak, ta Miserikordiazko obrak jakiñaz. Beartua, ta obligatua dago laugarrena zer artu, edo errezibitu bear duan jakitera. Emendik jakiñ bear du lenbizia Bataioko Sakramentua ipiñi zuala Jesu-Kristok bekatu orijinal, edo jatorrizkoa, ta beste bataiatzen danagan arkitzen dan edozeñ barkatzeko edo kentzeko. Bigarrena konfesioko Sakramentuaren gañean jakiñ bear du Kristauak, Sakramentu au ipiñi zuala Jesu-Kristok bataiatu ezkeroko bekatuak barkatzeko. Onetarako bear dirala examiña, edo bekatuak gogora ekartzea, dolorea, propositua, konfesioa, ta satisfakzioa, edo Trentoko Konzilioak dion bezala, aozko konfesioa, biotzezko damua, ta obrazko satisfakzioa. Komunioko Sakramentuaren gañean jakiñ bear da, Apaizak itzak esaten dituan bezala jartzen dala Jesu-Kristo Jainko gizon egiazkoa ala Ostian nola Kalizan, ta Jesu-Kristo Jainko gizon egiazko au errezibitzen degula komunio Santuan: onetarako baraurik, ta bekatu larri, edo

mortal gabe allegatu bear degula; eta onela allegatzen gerla geitutzen digula grazia, ta ematen dituala asko doai. Beste Sakramentuen gañean orobat jakiñ bear da ipiñi zituala Jesu-Kristok, ta nola ta zertarako errezibitzen diran beintzat errezibitzen diranean.

Lau gauza oek Kristau guziak jakiñ bear dituen gauzak dira. Baña ote dakizkie guziak? O nere Jaungoikoa! Odolezko malkoakin negar egiñ bear litzake, gogora ekarririk puntu onetan zenbaitek duen zabarkeria. Galde bekie zenbait umeri, zer, edo zeñ da gure Jaungoikoa? galde bekie, zer esan nai duan Jesus Aitaren eskuiean eserita egoteak? Galde bekie zer esan nai duan Santuen komunioak, bekatuen barkazioak, aragiaren resurrekzioak, bizitza betikoak, eta usteko due beste munduko gauza errebesen batzuek galdetzen zaiztela, eta esango due, ez ni geiago urliagana txartela artzera, doktrina berria, ta okerka galdetzen du. Umeena ez da ainbeste, galde bekizte zenbait gurasori gauz oek, galde bekie nola examiña egiñ bear, nola bekatuen damua artu ditekian, ta ekusi da askotan erreguz-ere ezin gelditu, ezin ixildu diran mistoak mututurik gelditzen dirala. Eta nondik dator onenbeste Zerurako bear diran gau-

zen-ez jakitea? Ara nondik. 1.a guzior Arzaia egiten dituan dotriñak ez aditzetik: izango dira noaski urtean doktriña bat aditzen ez duenak. 2.a etxean doktriña ez esatetik, txartelak estutzen duanean baizik. Irugarrena umeak dotriñara ez bildaltzetik: alde batetik gurasorik geienak ez dakie beren diña baño geiago, edo ez dakie beren umeai ongi erakutsi degiezakeen moduan, ta bestetik ez due konturik beren umeak doktriñara bialtzeko. Ez dezue ekusten emen Arzaia doktriña erakusten egon oi danean ez datorrela umeen zortzigarren partea? Eta zer esatea nai dezue gisa onetako gurasoaz? Eziñ Zerura ditezkeala, eziñ Zerura ditezkeala puntu onetan erremedioa ipiñi nai ezpadue.

Adierazi ditugun lau gauza oezaz gañera, bakoi-tzak bekatu mortalaren azpian jakiñ bear ditu artu duan kargu, ta enpleoari, dagozkan gauzak, eta ezpadakizki jakiteko alegiña egiñ bear du. Ara ejenplotxo bat gauza aditzeko. Nik, izanik Jaunaren miserikor-diaz Apaiza, ta Konfesorea, bekatu mortalaren azpian jakiñ bear ditut Apaiz bati, ta Konfessore bati dagozkan gauzak. Oro bat gurasoak, oro bat Alkateak, oro bat Maisuak, Eskribau, ta beste enpleo guziak. *Bakoi-tza beartua, ta obligatua arkitzen da dio*, S. Tomas

Aingeruak, bere estadu, ta ofizioai dagozkan gauzak jakitera. *Singuli autem tenentur scire ea, quae ad eorum statum vel officium spectant. ut sup.* Jakiteko alegiña egiñ gabez asko bekatu ditue 1.a gurasoak, bere umeen azieraren gañean. Oetatik askok doktriñak aditu gabez, beren konfesoreari bere obligazioa galdetu gabez asko bekatutan erortzen dira, erortzen diranik ezagutu gabe, ta beiñ-ere bekatu oezaz ongi damutu gabe. Bigarrena, obligazioak jakiteko alegiña egin gabez erraz asko bekatutan erori ditezke Alkateak, Errejidoreak, ta Bezino Jaunak. Jauna, utsegiten dala ezagutzen ezpada ez da bekatuorik. Ori da ez oartzete, ta ez ezagutze ori kulpa gabe gertatzen danean; baña ez gertatzen bada zabarkeriaz, galdetzeko lotsaz, edo presunzioz. Jakiteko alegiña egin gabez asko bekatutan erori ditezke, ta erortzen ere dira zenbait Kristau idien, beien, ardien tratuetan, balio duen baño geiagoan ematen dituela zeren batuan ematen dituen, orobat artoan, garian, ta beste gauzetan. Eta bekatu oek dira barkatzen ez diran bekatuak, zeren ezagutzeko alegiña egiten ez dan. Zergatik bait Trentoko Konzilioak agindu zien Obispo Jaunari kontuan ipiñi zitzeela beren ardiak, nola bakoitzak joan bear zuan bere Parrokia, edo Elizara Jainkoaren

itza aditzera, neke, ta kalte andi gabe zijoakeanean. *Moneatque, Episcopus Populum diligenter, teneri unumque Parochiae suae interesse, ubi commode id fieri potest ad audiendum verbum Dei* (Tridenti, ses. 24 cap. 4 de reform. Videatur super hoc Benedict. XIV t. 2 de syno. Dioeces. L. 11. c. 14).

Asko da dotriñarik, goazen sermoiera, eskatzen diogula onetarako Birjiña guziz Santari bere grazia, Aingeruarekin diogula Abe Maria.

Qui ex Deo est verba Dei audit; propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis. Joann. cao. 8. v. 47

Jainkoaren ume egiazkoa danak, esaten digu gaurko Ebanjelioak, Jainkoaren itzak aditzen ditu: argatik zuek aditzen ez dituzue, zeren Jainkoaren umeak etzeraten. *Qui ex Deo est verba Dei audit; propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Sententzia ikaragarri au bota zien Jesusek Fariseoai, zeren erakusten zuan Zeruko doktriña aditu nai etzuen, eta aditu arren aditzen zuenari beren biotzetan tokirik eman nai etzioen. Eta sententzia ikaragarri au bera botatzen digu gaur Jesusek Kristauai. Fariseoak esaten zioen Jesusi zirala Abraham fededunaren jatorrikoak: eta guk esaten degu gerala Kristauak, eta Jesu-

Kristori bere odola kostatako animak: Fariseoak zioen, zirala *Jainko egiazkoaren umeak: Patrem habemus Deum*: eta guk au bera esaten degu, gerala Jainko egiazkoaren umeak, ez herejeak, ez jentillak, ez Juduak, ez Maomarrak, baizikan siniste andia Jainko egiazkoagan degunak. *Unum Patrem habemus Deum*. Baña Jesu-Kristok ematen die gutatik askori Fariseoai eman zien sententzia bera, esaten digula. Jainkoaren ume egiazkoa danak aditzen ditu Jainkoaren itzak: argatik zuek aditzen ez dituzue, zeren Jainkoaren umeak etzeraten: *propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis*. Beraz zu, ta ni, anima bekataria, deabruaren umeen markarekin arkitzen gera, ezpadegu aditzen Jainkoaren itza! beraz zu, ta ni, anima bekataria, eternidade guzian su garren artean egon bear duenen markarekin arkitzen gera, ezpadegu gure biotzetan ongi artzen Jainkoaren itza, ezpadegu egiten itz onek adierazten diguna! Marka ikaragarria, nere enzunleak! Orain ekusi bear degu, norgan arkitzen dan etsaiaren umeen marka ikaragarri au; marka onekiñ arkitzen dana esna dedin, ta Jainkoaren umeen marka iristeko bear dana egiñ dezan.

§ I.

Iru jende motak due etsai galgarriaren umeen marka, ta señaleara: S. Gregoriok, ta Santo Tomasek erakusten duenez (S. Greg. homil. 18 in Evangelia. S. Thomas in cap. 8. Joann.). Oek dira Jainkoaren itza adi lezakeela aditzen ez duenak: aditurik biotzean tokirik ematen ez diezanak, ta atzenean Jainkoaren itza biotzean artu, ta berriz bekatuetara biurtzen diranak. *Non audientium, non acceptantium, residivantium.* Aurrenekoak ez due aditzen Jainkoaren itza: bigarren-goak ez dieze biotzean tokirik ematen: eta au da ez aditzea bezala, ta bear bada gaiztoago; atzenekoak Jainkoaren itza aditzen, eta biotzean artzen due, baña, zeren gordetzen ez duen, ez due bear dan eran aditzen. Eta iru jende mota oek etsaiak marka onetan bere arditzat ezagutzen ditu, Arzai batek bere ardiak markan ezagutzen dituan eran.

Etsaiaren umeen marka duen animetatik lenbizi-koak dira Jaunaren itza adi lezakeela aditzen ez duenak. *Non audientium.* Jainkoaren itza adi lezakeela uzten due batzuek beren bekatua ekusteko, ta ezagutzeko beldurrez, badakie alabaña bekatua fedearren argiarekin ongi ekusi, ta ezagutu ezker bereala

asaldatzen duala konzienzia, ta ongi konfesatu artean ez diola pakearik ematen: baña nola biotzik ez duen zenbait bekatarik gaiztok bekatua, ta bekatuaren oitura gaiztoak osotoro uzteko, zer egiten due anima doakabe oek konzienziaren zaunka izugarriak ez aditzeko? iges egin konfesatzetik, iges egin Jesusen biotzeko platiketatik, sermoi, ta doktriñetatik. Eta zer marka due anima oek? ez due ez Jesu-Kristoren ardien marka, oek alabaña aditzen due Jesu-Kristoren itza, ta txistua, berak dion bezala: *oves meae vocem meam audiunt* (Joan. cap. 10. v. 27); beraz due etsai galgarriaren umeen marka: *Vos ex Patre diabolo estis* (Joann. cap. 8. v. 44). Eta gisa onetan Jainkoaren itza aditzetik igesi ibiltzea etsaiaren umeen marka bada, zenbat izango dira nere enzunleak? Zenbat gure artean marka onekin arkitzen diranak?

Aspaldi da noaski, guraso birau gillea, igesi zabiltzala konfesatzetik, sermoietatik, ta dotriñetatik, Konfesoreak, edo zure Arzaiak zauri orretan ukuitu zaitzan beldurrez. Zer marka da au? etsaiaren umeen marka. Argatik aditu nai ez dezue esaten dizu Jesu-Kristok, Jainkoaren itza, zeren Jainkoaren umeak etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis*. Aspaldi da noaski, neskatx ergel, edo mutil buru

arroa, deabrua gurutzeagandik bezala igesi ibilli zera-
la konfesatetik, sermoi, ta zure Artzaiaren dotriñeta-
tik, adiskidetasun anima galgarri ori, ukuitze lizunen
oitura ori uzteko beldurrez: ta orain pasadatxo bat
arturik len ezagutzen etzaituanen batekiñ, etorriko
zera, bataioan artu zenduan Jaunaren graziarekiñ
arkitzen baziña bezala. Zer marka, zer siñale ote da
au? Ez da Jesu-Kristoren umearen marka, bada igesi
zabiltza Jaunaren itza aditzetik. *Propterea vos non
auditis, quia ex Deo non estis.* Aspaldi da noaski ema-
kume antustez, ta soberbiaz betea, sierpearen, ema-
kumearen baño antz geiago dezuna, aspaldi da noas-
ki, zer egiñ asko ematen ez dezula konfesionarioetan
aditzen ez dezula Jesusen biotzeko platikarik, sermoi,
ta dotriñarik; konfesoreari edo Jainkoaren Ministroari
adi dezaiozun beldurrez Zerua nai duan emakumeak
amatu bear duala bere konpañia, utzi bear dituala
pakea galerazten duen ziplak, ta koplak, ta beste
erausiak. Zer marka ote da au? Etsaiaren umeen
marka. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non
estis.* Aspaldi da noaski, gizon edanean, ta jokoan jai
egunak igarotzen dituzuna, iges egiten dezula zure
konfessore artuagandik, zure Arzaiaren dotriña, ta pla-
tiketatik zure konfessore, edo Artzaiari adi degiozun

beldurrez ez dagoala Zerurik zuretzat, ezpadezu utzi nai edanerako, edo jokorako oitura madarikatu ori: ezpazera saiatzen bearra galanki egitera, umeak, ta familia mantentzeko: ezpadezu etxean pakea ematen, ta zure konpañia amatzen. Zer marka da au? Etsaiaren umeen marka. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

Jainkoaren itza, adi lezakeela, aditzen ez due beste batzuek, beren gurasoen zabarkeriaz, edo kontugabeaz. Emen toki onetan burua ausitzen egon da Arzaia dotriña esplikatzen jai arratsaldeetan, emendik irakurtzen dira Jesusen biotzeko platikak; baña etortzen dira, gurasoak, zuen umeak? Etortzen dira mirabeak? Eta etortzen zerate zerok? Dotriñara etorri bearrean batzuek joaten dira plazara pelotara, besteak auzoetara jokora: batzuek albiraka, besteak zenbait etxetako ardallan. Zer da au gurasoak? Zer marka? Etsaiaren umeen marka. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

Kontatzen du Biatriako deritzan Kardenal batek nekazari batez, nola bere Artzaiaren dotriñetatik iges egiten zuan: batzuetan etxean gelditzen zan, bestee-tan plazara joaten zan, edo soroak ekustera. Iltzan gizon au, eta obirako ofizioan Apaiza, *Parce mihi*

Domini: kantatzen asitzean, aldarean zegoan Santo Kristoak, eskuak iltzeetatik libratuak belarriak itxi zituan, adierazten zuala: gizon onegatik egiten zitzaizkan erreguak etzituala adituko, zeren onek aditu nai izan etzizkan bere Artzaiaren ezpañaz adierazi nai ziozkan dotriña onak.

§ II.

Etsaiaren umeen marka berekiñ daraman bigarren jende mota da, Jainkoaren itza aditurik, itz berrari biotzean tokirik ematen ez diona. *Non acceptantium*. Tokirik ez emate au, iru gisatan geratzen da lenbizioa Jainkoaren itzari iskintxo, aitzakiak billatuaz, egiten diogula. Bigarrena, Jainkoaren itzari, edo Ministroai aitzakiak billatzen dieztegula; irugarrena Jainkoaren itza ez gerentzat, baizikan besteentzat aditzen degula. Jainkoaren itzari biotzean tokirik ez ematea lenbizioa geratzen da, iskintxo aitzakiak billatuaz, egiten diogula. Zuk gurasoa, beiñ baño geiagotan, aditu dezu eragotzi bear diezula zure umeai berandu etxeratzea, urliarekiñ edo sandiarekiñ itzegiea: erakutsi bear diezula dotriña, ta onetarako bialdu dotriña, ser-

moi, ta platikak aditzera. Ta gauz oetan asko zabar-
turik bizi zerala, eziñ ongi konfesa zaitezkeala, baña
zer egiñ dezu zuk? Egiñ dezuna da, konzienzia ixile-
razteko, zere buruarekiñ esatea; *Andia da Jaunaren*
miserikordia, begiratuko al du guzaz ere. Siñale gaiz-
toa; bada ez da zugan agiri Jesu-Kristoren umeen
marka. Zuk gazte zentzugabea, beiñ baño geiagotan
aditu dezu, ez dagoala zuretzat Zerurik, ez dagoala
bekatuen barkaziorik, ez dagoala konfesio onik,
sarrera ori utzi dezazun artean. Baña zuk bereala utzi
bearrean sarrera ori, batzuetan gogora ekartzen dezu
Jainkoaren Miserikordia, besteetan gero uzteko asmo-
ak artzen dituzu; ta au guzia, Jainkoaren itzak gja-
rrean ukuitu zaituan artean iskintxo egiteagatik zure
konzienziaren deadar latzak gera ditezen. Zer siñale,
zer marka da anima gaiztoa? Ez da zugan agiri, ez da
ezagun Jainkoaren umeen markarik, baizikan etsaia-
rena. Zu gizon edanean igarotzen zerana. Jai egu-
nean edanean, ta jokoan umeentzat bear litzakeana
garbitzen¹ dezuna, asko bider aditu dezu, ez dagoa-
la zuretzat Zerurik, etxe ori utzi dezazun artean, ta
bearrera saia zaitezzen artean; baña zuk eziñ adiski-
deakiñ bildu gabe bizi zaitezkealako aitzakian, eta
Jaunaren miserikordia andia dalako aitzakian, aiena-

tzen dezu zere biotzetik Jainkoaren itza, ta gisa onetan aurrera zoaz zere oitura madarikatuan. Zer siñale ote da au? Zer marka? Siñale, ta marka guziz ikaragarria! *Propterea &*.

Jainkoaren itzari biotzean tokirik ez ematea gertatzen da bigarrena, Jainkoaren itzari, ta ministroai aitzakiak billatzen dieztegula. Jainkoaren itzaren gañean geratzen da askotan Maisuarekiñ, ta eriarekiñ beiñ baño geiagotan gertatu izan dana. Bear bada eri bat arkitzen da andidura batekiñ iltzeko perillean: ezagutzen du maisuak lanzetaz ez idikitzero barrena emango diola andidurak, ta ilko dala. Ebakitzen dio lanzetaz, ta ipintzen du senda ditekean eran. Nork ez dakus eriak miñ artu badu ere, esker asko zor diozkala maisuari, zeren senda ditekean eran ipiñi duan? Baña askotan gertatzen da era altxatzea maisuaren kontra, eta gogora datorkion guzia esatea. O! zenbat bider au gertatzen dan Jaunaren itzaren gañean! Jainkoaren ministroak asko aldiz zauriaren erdi erdian ukuitzen ditue asko bekatari bekatuan buka ez ditezen, ta eskerrak eman bearrean idikitzen ditue beren auak Jaunaren itzaren, ta Ministroen kontra. Ala egiñ zuen Fariseoak ere. Jesusek egia garbiro esaten ziela, ukuitu zituan zauriaren erdian, ta mindurik altxa ziran

Jesusen kontra, ta izan zuen Jesusi arrika emateko ausardia. Ez ote da, nere Kristauak, egungo egunean asko bider au gertatzen? Ez ote zaio Jesusi, ez ote zate Jesusen Ministroai, eskuz ezpada, miztoz arrika ematen? Eta zer marka da au? Ez egiaz Jainkoaren umeen marka. *Qui ex Deo est verba Dei audit: propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

Jainkoaren itzari biotzean lekurik ez ematea gertatzen da irugarrena Jainkoaren itza aditzen degula ez guretzat, baizikan besteentzat. Asko dira jana maneatzen duenen gisakoak. Jana maneatzen duenak partitzen due jana maierako puska au aurreneko platorako, bestea bigarreneko; ta berenaz ez da konturik. Eta zer besterik gertatzen da sermoietan? Zarrak gazteentzat aditzen due, gazteak zarrentzat: gurasoak umeentzat, umeak gurasoentzat: nagusiak mirabeentzat, mirabeak nagusientzat: senarrak emazteentzat, emazteak senarrentzat. Ah! zeñ ongi datorren orise urliarentzat, zeñ ongi beste ura sandiarentzat; eta zuretzat? Zu baraurik etxera. Siñale txarra, bada ez da ezagun Jesu-Kristoren umeen marka. Jainkoaren ume egiazkoa danak beretzat aditu bear ditu Jainkoaren itzak. *Qui ex Deo est verba*

Dei audit: propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.

§ III.

Etsaiaren marka berekin daraman irugarren jende mota da, Jainkoaren itza bein biotzean arturik, leneko bekatuetara berriz biurtzen dana. *Recidivantium*. Ikaragarriak dira berrizkatura onen gañean Eskriturak berak adierazten dituan gauzak. Gisa one-tako bekatariak toki batean konparatzen ditu txakur-rakin: aotik bota duana jatera biurtzen dan txakurra bezala da, dio Espiritu Santak, berriz bere bekatu-tzen dan zentzugabea: *dicut canis, qui revertitur ad vomitum suum, sic imprudens qui iterat stultitiam suam* (Prover. 26). Beste toki batean madarikatzen ditu esaten duala: ai iraupena galdu duenak: ta bide zuzenak utzi dituenak, ta gaiztoetara aldegin duenak! *Vae his, qui perdiderunt sustentiam, et qui dereliquerunt vias rectas, et diverterunt in vias pravas*. Jaunaren itzegite oek adierazten due, Jaunaren itza biotzean bein arturik berriz bekatu-tzen danak, ez duala ez Jesukristoren umeen marka, baizikan etsaia-

ren umeena. Marka onekin zenbat ote dira gure artean? Urteak dira guraso birau gillea, birauesko bekatu oriek bein botatzen dituzula, giarrean ukuiturik Jainkoaren itzak garizumako denboran ta egun gutxiren barrenen orietaratzen zerala, txakur baten eran. Zer marka da au anima gaixoa? Zer izango da, ezpada etsaiaren umeen marka? Urteak dira neskatx ergela, urteak dira mutil zentzugabea iraunerazten diozula adiskidetasun anima galgarri orri, garizuman zerbait uzten dezula itzegitea aditurik zenbait egia, ta beherda Pazkoetan absoluzioa uka ez dakizun, au arturik laster lenekora biurtzen zerala. Zer señaile da au? zer marka? etsaiaren umeen marka. Urteak dira anima bekataria, beiñ uzten dizula zerekiko lizunkeria oriek egitea noiz edo berriz Jainkoaren itza aditurik, berriz biurtzen zerala zere oitura gaiztora, txerria urtan garbitu ondoan loitara biurtzen dan bezala. Zer marka da au? etsaiaren umeen marka.

Urteak dira emakume sierpearen antzekoa, zere soberbiaren, zipla, ta koplen artean bizitza gaizto batean bizi zerala, beiñ jeiki, beiñ erori, ta beiñ ere denbora luzeko enmienda gabe. Marka gaiztoa! Etsaiaren umeen marka. Urteak dira gizon edanean igarotzen zerana, urteak dira edanerako, ta alferke-

riarako oitura orretan bizi zerana: zenbait aldiz bear bada jeiki zera aditurik misio bat, edo sermoiren batzuek, baña berriz ta berriz biurtu zera anziñako oitura orretara. Zer marka da au anima doakabea? Marka gaiztoa! Etsaiaren umeen marka, Jauna, ta iru jende mota oek guziak etsaiaren umeen markarekin arkitzen badira, zeñ arkitzen da Jainkoaren umeen marka, ta señalearekin. Galde giozu Jesu-Kristori, ta esango dizu, oek dirala Jainkoaren itzak aditurik biotzean ongi gordetzen duenak, edo kontuz Jainkoak adirazten diena egiten duenak. *Beati qui audiunt verbum Dei et custodiunt illud* (Luc. 11). Lau sorotan erein zuan Jesu-Kristok bere itz santua, Ebanjelioen ereillearen parabolan adierazten duan bezala, ta soro batek baizik etzion fruturik eman. Zer naigabe izango lizake nekazari batentzat, lau soro ereiñik, batek bakarrik frutua emango balio? Eta zer naigabea izango da lau jende motatik batek bakarrik badu Jesu-Kristoren umeen marka? Besteak etsaiaren umeena? Batek Jainkoaren umeena, zeren Jainkoaren itza kontuz aditu, ta kontuz biotzean gordetzen duan; beste irurak etsaiarenak, zeren edo aditzen ez duen Jainkoaren itza, edo aditurik biotzean tokirik ematen ez dioen, edo atzenean biotzean arturik aienatzen duen

bekatura bihurturik. *Non audientium, non acceptantium, recidiventium.*

Jauna: ez da bada guretzat erremediorik? ez da Jainkoaren umeen marka iristeko modurik? Ai! Jesusen anima! Badira, bai, zurekiñ neretzat, erremedioak, ta asko alare! erremedioa da bizitza berria, bizitza berria; baña bizitza berria artzen dago gure lana, ta nekea. *Hoc opus, hic labor.* Guk nai genduke Jesu-Kristoren umeen marka gurekiñ izatea, baña nai genduke etsaia, eta etsaiaren lanak utzi gabe. Guk nai genduke gu onak izatea, baña nai genduke batere nekerik kosta gabe. Eta au da eziñ gerta ditekean gauza. Nai dezu Jesusen anima, bizitza berri bat artu? Gisa onetan Jesu-Kristoren umeen marka izan dezazun? Ara bada artu bear dituzun erremedioak. Lenbiko erremedioa. Orain ongi prestatzea konfesio on bat egiteko; ta onetarako Jaunak zure miseriaz urrikaldurik, eman degizun bere grazia, egiñ penitentzia. Penitentzia egiñ nai duanarentzat badira barauak, badira zumeak, badira beste moduak. Bigarren erremedio jakiña, edo beintzat jakiñ bear lizakeana: bekaturako okasio ta perillak utzi; utzi urliarekiko adiskidetasun anima galgarri ori: utzi etxe ori, non galdu dezun zere anima. Egon zaitez, nai badezu anima

bekataria, gau ta egun belauniko negarrez Jaunari barkazioa eskatzen! egon zaitezke akto kontriziozkoa akto kontriziozkoaren gañean egiñaz: egon zaitez zere burua zeatzen emendik Pazkoa arte guzian bur-niazko azotez. Konfesa zaitez; uste dezu ezer egin dezula? Bada jakiñ ezazu gauz oek guziak utsa dirala, alferrak dirala, ezbadituzu bekaturako toki, okasio, ta perill oriek uzten. Irugarren erremedioa; maiz konfesatzea, ta are lasterrago, baldiñ zure miseriaz bekatoren batean erortzen bazera. Laugarren erremedioa, aditu kontuz, ez maisian egoteko, ta erausian, baizikan Jainkoak biotzera adierazi nai dizuna zuzen egiteko gogoz, aditu diot zure Arzaiak, ta Jainkoaren ministroak egiten dituen doktriñak, ta Jesusen biotzeko platicak. Ea, nere Kristauak, asko degu etsaiaren markarekiñ bizitzerik, asko degu etsaia serbitzerik; erremedio oek artuaz egiñ gaitean Jesu-Kristoren ardi egiazkoak, gero gure Arzai Jainkozko onekiñ bizitzeko beti iraungo duan Zeruko glorian. Amen. Amen.

**IRU DOKTRIÑA
GRIÑA ETA PASIO
GAIZTOEN GAÑEAN**

LENENGO DOKTRIÑA

GRIÑA TA PASIO TXARRAREN GAÑEAN

Qui sunt Christi, carnem suam crucifixerunt cum vitiis et concupiscentiis. Ad Galat. cap. 5

Gure griña, ta pasioak, berenez ez dira ez onak, ez gaiztoak; baña Adan bekatuan erori zanetik gertatu ziran gaitzeron z etziñak, eta makurtuak, ta beti kontu egiñ bear diegu bekatu amilderazi ez gaitzaten, batez-ere gure griña, ta pasio nagusienai, edo indartsuenai. Au egiñ gabez gertatzen dira munduko oker guztiak. Atoz nerekiñ, Kristaua, ta ekusiko dituzu oker oetatik batzuek. Enzun arretaz.

Begira ezazu munduaren edozeiñ bazterretara, ta ekusiko dituzu leku guztietan asko, ta asko berak nai duena egiteko guraz beteak, ta beren gura au ukatzeko, ta garaitzeko neurriak artu gabez, bizi dirala bekatu askotan erortzeko perill andian, ta erortzen ere dirala sarritan. Ekusiko dezu emakume bat guzia agindu bear duana, guztia berak nai duan eran egiñ gura dana; ta kontra egiten bazaio, galerazten duala

etxeko pakea, zapuzturik jartzen zaiola gizonari. Ekusiko dezu mirabe bat, aginduak egiñ nai gabe dabilena, muturka, ta lotsagabekeria andiak egiten dituana; zeren festara, danzara, edo urliarekin itzegitera joaten utzi etzaion. Ekusiko dituzu errietako batzarreetan batzuek, erriko gauza guztietan buru, ta agintari izan bear duenak: erriaren izan, edo ondasunak nai duen eran iragazitzen, ezkututzen, edo ondatzen dituenak: auzietarako bideak ematen dituenak; ta norbaitek itzegiten badu aen kontra, edo ukatzen badie botoa, geratuko dira betiko gorrotoan botoa ukatu duanagana. Bekatu oen iturburua, ta ama da *gura dana egiteko nai, edo borondate gaizki oitura*, ta ukatugabea.

Begira-zazu, Kristaua, berriz munduaren bazterretara, ta ekusiko dituzu beste asko beren iritzari itsatsiak, olagarroa aitzari itsasia egon oi dan bezala. Griña onek, ezpada bera garaitzeko alegiña egiten, berekiñ dakar utsegite, ta bekatu askoren perill andia. Ai! zuen zori gaiztokoak, zeren begietan jakintsuak zeratenak, deadar egiten du Isaias Profetak *Vae qui sapientes estis in oculis vestris*. Era onetan beren iritzari itsatsiak bizi diranen artean ekusiko dituzu batzuek sartzen dirala gauza pisuetan itsumen

andiarekiñ, ta bide zuzena erakutsi dezakenai galde-
tu gabe. Ta zerbait galdetzen badue, ez due gogoz
adituko beren erara, ta gustora itzegiten diena baizik.
Ekusiko dezu nola konseju ematen diezan lagun urko-
ai auzitarako, edo beste gauza okerretarako. Ekusiko
dezu atzenean, bere buruz, eta iritziz puztutako oek,
ongi aditzen ez dituen gauzetan ere, lotsatzen dirala
besteri galdetzeaz. Emendik zenbat bekatu? zenbat
kalte errietan, eta etxeetan? Bekatu oen guztien ama
da gure iritzia ukatzeko zabarkeria andi bat, antuste,
ta soberbia madarikatu batera biurtzen dana.

Begira giozu berriz-ere munduari, ta ekusiko ditu-
zu beste asko onra, ta puntura aiñ itsutuak, aiñ etzi-
ñak, eta itsatsiak, non gura au ukatu, edo ezi gabez,
txit erraz galtzen duen beren anima, ta Jaungoikoa.
Ez da gauza gaiztoa onra, puntua, ta izen ona; baizik
gauz ona, ta bear dan neurrian amatzen dala, asko
laguntzen du Zerurako bidean kontuz, ta arretaz ibil-
tzeko. Baña onra, eta puntuan ipintzen bada biotza,
itsutzen da onrazalea, ta geratzen da aiñ minberaa
onrari dagozkan gauzetan, non aisa amiltzen dan
bekatuan, saiets onetatik ukuitzen badue, edo ukui-
tzen duela, iduritzen bazaio. Emendik dator onelako
onra, ta puntu zaleak aide, ta auzoakin erraz pakea,

ta adiskidetasuna galtzea: emendik lagun urkoaren faltak agertzea, gauz onak-ere alde gaiztora botatzea, edo gutxitzea. Emendik aurrekoen kontu, eta ipui egiazkoaz, edo gezurrezkoak nastutzea, lagun urkoaren izen ona itsusten, ta zikintzen dala. Emendik aren okerrak, edo gertatzen zaikan kalteak aditzea gozotoro, ta musikarik ederrena baña atseginkontentu geiagorekiñ. Emendik atzenean onra zalea, iroso ditzakean baño, gastu geiagotan sartzea, jan, edanean, eta jaunzi modakoetan, onra, eta puntuaren idolo, edo momoa adoratzeko. Bekatu oen guztien iturburua da onra, ta puntuaren gura ez *ukatzea*, ta ez *ezitzea*.

Zoaz aurrera, Kristaua, munduari begiratuaz, ta topatuko dituzu beste asko, bengantzaren txingarra kolkoan duela bizi diranak, zeren auzoak, aideak, edo adiskideak aen gustora itzegin etzuan, botoa ukatu zien, edo beste mesederen bat egiñ etzien. Ez daukeela gorrotorik, esango due konfesatzean; baña ongi miratzen badira oen biotzak, prest arkituko dira lagun urkoari, deretxa datorrenean, txarkeriaz eranzuteko. Emendik dator espiritu zimur oek lagun urkoari beti kontra egitea batzarreetan, edo beste edozeiñ tranzetan. Emendik aren kontra itzegitea, deretxa ager-

tzean. Emendik lagun urkoaren oker, edo kalteren baten berria aditzean, barren guztia gozatzea, ta zabaltzea. Bekatu oen ama da, biotzean estalirik dagoan, gorrotoaren txingarra, ta bengantzarako sasoia.

Arkituko dituzu gañera beste asko gorputzaren era, ta sentiduen atsegin-kontentuetan lilluraturik, ta itsuturik bizi diranak, batzuek jan-edanean, besteak ara ona ibillian, utzirik umeak, mirabeak, ta etxea kezkarik, ta konturik gabe; besteak atzenean ez dagozten jauntzi, ta apaindurietan. Ezta gorputzaren erak nai izatea bekatu andia, era oek Jaunaren legearen kontra ezpadira gauza larrian; baña baldiñ biotza itsasten bazaio oen gurari, txit erraz jarriko da erazalea bekatu larrietan erorteko perill andian. Ala ekusiko dezu, Kristaua, jan-edanera itsutu ezkerro bat, erraz amiltzen dala ordikerian, itzegite loietan, keñanda zikiñetan, ixillik egon bear duen gauzak agertzean; ta ez dala zentzutzen ez etxea ondatzearekin, ez emaztearen, ta umeen negar, eta larrugorritasunarekin. Ekusiko dezu, oitutzen bada etxeko andre bat, bere etxea utzirik, ara ona ibiltzera, (bisitetara), ez dio ardurarik umeak, eta mirabeak gaizki azitzeaz, ta oitura gaiztoak ikasteaz. Ekusiko dituzu asko, ta

asko emakume, agertzen diran jauntzi mota berriak jarraitzen, naiz etxea gaizki geratu, naiz etxeko pakea galdu, eta naiz Jaunaren legea era askotara ausi dedilla. Bekatu oen sustraia da gorputzaren era, ta sentiduen atsegin-kontentuetara biotza itsatsia egotea.

Etzaitezela onenbesterekin geratu, Kristaua, munduari begiratzean. Begira ondo berriz etxe andi onetan bizi diranai: ta arkituko dituzu eziñ konta al gizon, eta emakume, zar, eta gazte, itsatsiak,itsuak, ta lilluratuak bizi diranak seigarren mandamentuaren kontra itzez, pensamentuz, edo bestela erorteko perill andia duan bizimodu ergel, lasai, edo zoro bati. Ez det esaten onelako oek guztiak seigarrengo mandamentuaren kontrako lizunkeria andiengan erori nai duela; au izango lizake geiegira igarotzea; baizik diot, onelakoen bizitzari alde guztietara begiratzen bazaio, arkitzen dirala itzez, pensamentuz, keñadaz, edo bestela bekatuan erortzeko perill andian, perill urkoan, ta borondatezkoan. Perill andi-urkoan; zeren bizimodu ergel, lasai, edo zoro bati darraizkan bitartean, goizean, edo arratsean, egun onetan, edo bestean, nolakoak diran deretxak ala izango dira lizunkeriak. Perill au da borondatezkoa, zeren borondatez bizimodu oni

jarraitu nai zaion. Goazen ezperen gertatzen danari begiratzera. *Quae hic dicuntur, semper prae oculis habenda mihi videntur.* Asko dira mutillen artean gaiztakeria andienetan erortzeko asmorik ez duenak, baña beti prest daudenak deretxa danean, festan, dantzan, ta zorakerietan ibiltzeko emakumeakin: beti prest emakumeakiñ egoteko, itzegiteko, jolasteko. Eziñ esan diteke mutill oen itzegite, ta ibillera guztiak bekatu larriak dirala; baña denbora berean eziñ ukatu diteke bizimodu lasai au dala bekatu askotan erortzeko perill andi-urkoa; ta ala onelakoak eroriko dira, batzuetan pensamentu loietan, besteetan itzegite zikiñetan; batzuetan begiratze goixoetan, besteetan tentaniak, keñadak, ixill-mandatu gaiztoak, eskukak egitean. Asko dira emakumeen artean, ezergatik-ere azken-azkeneko bekatu itsusian erori nai ez lukeenak, baña denbora berean ergelak, ibilkariak, edo beintzat mutillakin itzegitea, ibiltzea, jolastea, eder, eta arro agertzea asko gustatzen zatenak. Eziñ oek-gatik-ere esan diteke, bekatu larrian erortzen dirala itzegite, ta ibillera, edo gauza guztian; baña esan diteke, ta esan bear-ere da, era onetan ergelkeriari, ta bizitza lasai oni ederetsirik bizi diran bitartean, arkitzen dirala bekatu larri askotan erorteko perill

andi, ta urkoan: esan diteke, ez oi duela konfesio onik egiñ noizbait noizbait zentza ditezen artean. Bitartean ibilliko dira bekatutik bekatuta amilduaz; oraiñ pensamentu batean, geroseago itz loiak gozotoro aditzean: oraiñ eskuka, edo keñada batean, gero musu edo laztanetan: oraiñ ipui zikiñak kontatzen, gero dantzan, edo dantza ondoan alberdanean. Ezkonduen artean-ere asko dira, gizon jakintsuen iritzian, aragizko atsegin-kontentuetan biotza ipiñi duenak, ta abererik zikiñenak baño abereago biurtzen diranak: ta itsumen onek dakar berekiñ bekatu askotarako perill andia. Emendik zikinkeria berrien billa ibiltzea: aurren, ta mirabeen ondoan, edo oek oartuko diran denboran, eta lekuan elkarganatzea. Emendik... baño asko da. Sararen aurreneko zazpi gizonak Demonioak ito zituan. Judas Patriarkaren seme bi Her, eta Onan zeriztenak ill zituan Jaunak. Sararen senarrak, S. Rafaelek Tobiasi aditzera eman zionez, ito zituan Demonioak, zeren Jauna bere gogo, ta biotzetik kendurik, zentzugabeko animalien eran gura lizunean biotza ipiñi zuen. Ta Judas Patriarkaren bi semeak bukatu zituan Jaunak zeren nazkagarriak ziran Jaunaren begietan, ta batak beintzat bekatu guztiz itsusiak egiten zituan emaztea aurdun ez gera-

tzeagatik. Bekatu oen guztien ama da, gazteetan, bizitza lasai-berdea: ezkonduetan, atsegiñ zikiñetan biotza ipintzea; ta ezkondu nai, eta nai asi diranetan beren gura txarrari atsegin emateko egarria. Eztago onela itsuturik bizi diranentzat Zerurik, zentzatuta bizitza on bat benaz artu artean.

Atzenean ekusiko dituzu, Kristaua, asko munduko ondasun, eta izanen ondoren osotoro itsutuak, kutiziaren idoloaren aurrean auspez, edo belauniko jarri-rik. Ondasunak nai izatea konbeni zakun neurrian, ta bide onez, ez da bekatu; baña ondasunai biotza itsas-tea ta itsastea neurririk, eta mugarik-gabe, au da gauza bat osotoro illuntzen duana adimentua, elkor-tzen, ta arri biurtzen biotza, ta galerazten duana Jaungoikoa. Onelakoari, dituan ondasun guztiak, biur-tzen zaizka bere puzoi, eta arantza, Jesu-Kristok berak esan zuan bezala: ta ez dituanen egarriak erki-turik, eta igarturik dauka doakabea. Ekusiko ditu lagun urkoen nekeak, eta premiak, ta guztiak alferke-riak dirala usteko du. Sartuko da saldu zikiñetan, eta ezta arentzat musika aiñ gozorik: nola dan irabazia-ren izena. Aberatsa Zeruan sartzea baño errazago da bagasoka bat jostorrazaren begian sartzea, dio Jesu-Kristok berak. *Facilius est camelum per foramen acus*

transire, quam divitem intrare in regnum Coelorum
(Math. 19).

* * *

Ekusten dezu, Kristaua, zer dakarren gure griña, ta pasio nagusiak ez ukatuak, ez ilduratzeak, ez ezitzeak? Ekusten dezu, zein bekatu asko gertatzen diran gure zabarkeria, ta nagitasun onegatik? Alaere bekatu oek, edo beintzat oen ama izan oi da guztiz ezkutatua, estalia, ta kolore ederrakin apaindua, ta emendik jaiotzen diran bekatuak izan oi dira beinere, ez Pazkoetan, ez Misioetan, barkatzen ez diran bekatuak. Bere naia egiteko, bere setarekin irteteko, ta guztian agintari, ta buru izateko griña agintari duanak, ta au ukatu, ta ezigabez amiltzen danak etxeko aserreetan, ta auzoakin, aideakin, ta besteakin gorrotoan, birau, ta madarikazioetan, auzi, ta naspilletan: erraz ezagutu ditzake bekatu oek, ta bear bada konfesioan aitortuko-ere baditu. Baña oen ama, ta sus-traia? Bere naia egiteko, bere setarekin irteteko, ta guztian agintari, ta buru izateko griña? Ta griña au ukatzeko, ta ezitzeko zabarkeria? Au estaliko, ezkutatuko, ta apainduko du jauntzi ederren batekiñ. Bere

iritziari itsatsi danak, naiz asma al ditezkean okerrak egiñ, edo egiteko perillean jarri, gordeko du, ta edertuko bere antustea, ta itsumen artoa. Onra, ta puntuaren aizez puzturik dagoanak, ezagutu bear du, asko utsegitetan erortzen dala, gura au ezi, ta neurri onean ipiñi gabez: ezagutu bear luke zabarkeria au oraindaño izan dala, ta aurrera ere izango dala bekatu askotarako perill andia. Alaere soñeko txuriz jauntzirik ipiñiko du bere onra, ta puntuaren eragabeko gura, ta au ukatzeko, ta ilduratzeko nagitasuna, esaten duala beregan: *Ez du agintzen Jaungoikoak, onrarik, eta punturik gabe bizi gaiteala*. Egia da au; baña era berean egia da, agintzen digula, uka ditzakula gure gura, ta pasioak, edo geren buruak; ta au guk ez egitera eziñ sar gaitezke Zeruan. *Abneget semetipsum*. Gañera agintzen digu, gaudela alako aro, ta sasoiean, non prest egon bear degun onra, ta puntu guztiak utzitzeko, ta atzenean bizitza bera-ere emateko bekatuan ez amiltzeagatik; ta ez da sasoi eder onetan arkitzen onra, ta puntuan biotza ipiñi duana. Bengantzaren sua kolkoan gorderik bizi danak badauki, bere su gaizto au osotoro itzalita bere lagun urkoa egiaz eta biotzetik amatu artean, eziñ bekatutik irten ditekeala, baña alaere estaltzen du kolkoan daukan

xingar gaiztoa, esaten duala: *Nere buruari adiña gaitz opa diot urliari, baña ona da zentzatzea, ongi irabazia zuan aren ausardiak, ta aren ibillerak oraiñ gertatu zaiona: gutxitxo izateaz det damu.* Era onetan edertzen du bere bengantzaren espiritua, ta deretxa datorrenean ez dio barkatzen lagun urkoari, ez itzez, ez lanez. Bizitza ergel, edo lasaiera oiturik dauden gizon, eta emakumeak, ala zarrak nola gazteak, nai ta ez ezagutzen due gaiztoak dirala bizimodu orretatik datozen kontuak, nola diran itz loiak, keñada zikiñak, begiratze lotsagarriak, alberdaniak; baña ez due sinisten bizimodu ergel, edo lasaia dala bekatu oen iturburua, edo obeto esateko ez dira batere begiramendu oetan nekatzen, ta esaten due: *Ez giñan jaio paret artean ezkutaturik, urdindurik, edo oriturik egoteko: gazteak bear du bere jolasa,* ta aitzaki oekiñ geratzen dira lengo bizitza lasaiaren, ta bekatu askotarako perill andian; naiz gaizki konfesatu, naiz etsaiak eraman. Au bera gertatzen da kutiziak erkiturik, ta itsuturik daudenakiñ.

Era onetan griña, ta pasioak ukatzeko, ilduratze-ko, ta ezitzeko zabarkeria andian bizi diran, Kristauen bekatuak izan oi dira gañera beñere barkatzen ez diran bekatuak. Au ezagutu, ta sinistu dezazun ongi,

zun itzatzu, Kristaua, egia oek. 1.a Egia: ezta bekatariak iristen bekatuen barkaziorik, biotzik ezpadu utzitzeko bekatuaren bide, eta perill andi urkoak, ta borondatezkoak. Au da Kristau guztiak, eta ezaguera ona duen guztiak-ere dakien gauza. Perillean bizi nai duena, perillean bukatuko da, esaten digu Espiritu Santuak. 2.a Egia: bere nai, ta borondatean, bere iritzian, onra, eta puntuan, bengantzan, bizitza lasi-berdean, kutizian, ta beste gura larrietan itsuturik dagoana, ta gura berak ukatzeko, ta ezitzeko konturik, eta arretarik ez duana, arkitzen da bekatu askotan erorteko perill andi-urkoan, ta arkitzen da bere naiez, ta zabarkeriaz. Zaldi ezi gabe, bere zoroak agintzen dion eran dabillen, baten pare ipintzen du onelakoa S. Anbrosiok. *Qui dominari nescit cupiditatibus, quasi equus raptatus indomitus.* Zergatik bait esan zuan Jesu-Kristok: etorri nai badu norbaitek nere ondoren, uka beza bere burua. *Abneget semetipsum.* Irugarren egia: bere griña, ta pasio larri-gaiztoetan itsuturik, ta aetara itsatsirik bizi danak ez du biotzik ukatzeko, ilduratzeko, ta ezitzeko griña, ta pasio berak ta bera-gatik ez du biotzik, eta almenik bekatuaren bide, eta perill andi urko onetatik irteteko. Argatik bekatu mota oek geratu oi dira barkatu gabe, ez egiaz zeren bar-

kaziorik eziñ izan dezakeen, baizik zeren bekatariak biotzik ez duan bere griña, ta pasioak ukatzeko, ta bizitza berri ona artzeko. Ez dago beraz, Kristaua, ez dago bekatuen barkaziorik, ez dago konfesio onik, ez da Zerurik gure griña, ta pasio gaiztoak ukatzera, ta ilduratzera saiatzen ezpagera kontuz, eta arreta andiarekiñ. *Qui sunt Chti, carnem suam crucifixerunt cun viliis et concupiscentiis* (Ad. Galat. cap. 5).

* * *

1. Begira-ezazu oraiñ, Kristaua, nola examinatu bear dezun zure konzienzia konfesio on bat egiteko asmo osoa artzen dezunean. Atera ezazu kontua: zenbat denbora onetan bizi zeran griña, edo pasio gaiztoaren batean biotza ipiñirik: edo zere borondate, ta iritzian: onra, edo puntuan: bengantzan, bizitza lasai-berdean, kutizian, edo beste guraren batean; zenbat bekatu, ta utsegitetan amildu zeran griña, ta pasio oek ukatu gabez? Atzenean zenbat denboran bizitu zeran Jaungoikoaganako amoriozko afekto egiazko egiñ gabe.

2. Presta zaite arreta onarekiñ, eta zoaz zere Aita Zerukoagana, eta artuko zaitu biotz bera urrikaritsu

batekiñ, eta zu nor bazera, emango dizu betiko bizi-
tza doatsua. Amen.

BIGARREN DOTRIÑA

GRIÑA TA PASIO TXARRAI EMAN BEAR ZAIEN ILDURA, EDO MORTIFIKAZIOAREN GAÑEAN

*Si quis vult post me venire,
abneget semetipsum. Math. cap. 16*

Ekusi degu aurreko dotriñan zenbat bekatu, zein estaliak, ta gutxitan barkatzen diranak gertatzen diran, guk gure griña, ta pasio txarrak ukatzeko, ta ilduratzeko arretarik izan gabez. Gaur ekusi bear degu zer dan, eta zenbat eratakoa gure griña, ta pasioen ukatzea, ildura, ta eziera au. Au ekusi ondolan begiratuko du bakoitzak, zer utsegiñ duan alde onetatik bere Jaun ona amatzeko aginte andiaren kontra. Enzun arreta andiarekin.

* * *

Ez da Kristauaren egiñ bide guztien artean estuagorik gure griña, ta pasioak ukatzeko, ilduratzeko, ta ezitzeko egiñ bidea baño. Nai duenarekin irten artean

ez due pakearik eman nai: beti ari dira palakutzen, eta losentxan gure borondatea, ta au berenganatzen badue, are gaiztoago, ta indartsuago egiten dira. Argatik arreta, ta kontu andiarekin artu bear dira griña, ta pasio txarrak ukatzeko, ilduratzeko, ta ezi-tzeko neurri onak: ta neurri oek artzeari deitzen zaio *ildura, edo mortifikazioa*. Bi eratan da au, S. Agusti-ñek dionez; bata kanpokoa, ta gorputzari dagokana; bestea barrengoa ta espirituari dagokana.

Egiñ zuanean Jaunak gizona, egiñ zuan gorputza animaren lagun, ta jauregi ederra izateko, ta apaindu zuan, Jaunak berak baizik eziñ asma zitzakean adiña edertasunekin; ta atzenean prestatu ziozkan Zeruan atsegiñ-kontentu guztiz andi, ta zoragarriak. Baña erori zan Adan bekatuan, ta Adanen gorputz eder ura bertatik geratu zan abereen antzeko egiñik. *Comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis*. Len ezaguera onaren mendean umil arkitzen zana, geroztik da gure etsairik errebesena. Da Mun-dua, Demonioa, ta infernua bera baño gaiztoagoa. Da gertatzen diran gaiztakeria guztien, edo geienen sutegia. Da Jaungoiko beraren Seme bakar Jesus Jaungoiko-gizona gurutzean illerazi zuana. Da atze- nean mundu guztia nasturik, engañaturik, lilluratu-

rik, edo zoraturik, nai duan eran, darabilen etsaia. Etsai izugarri au ilduratzea, ezitzea, ta menderatzea da Kristauaren egiteko andia, ta ildura, edo mortifikazio mota aurrenekoa. Au ikasi nai badegu, ez degu kontuz begiratzea besterik, zer gisatan ilduratu, ta mendera ekarri izan dituen beren gorputzak Santuak, eta anima birtutetsuak. Ekusiko ditugu oek, batzuetan loa ukatzen beren buruai, Jaunaren aurrean beillan, beren utsegiteen gañean negarrez, edo Jaungoikoaganako amorioz erazekiak. Ekusiko ditugu besteetan; oi biguiña kendurik, lur otzaren, arbazten, edo ol utsaren gañean lo egiten. Ekusiko ditugu batzuetan soñeko zakar-lakatz bat besterik gabe, naiz izan jatorri guztiz prestukoak. Ekusiko ditugu besteetan zurdaz, edo auntz illez egindako soñekoa larruaren urrena jauntzirik, ta au zan anziñako zilizioa: ta oraiñ onen ordean ipintzen due askok larruaren kontra alanbrezko katea bat barrenontz puntak dituala. Zilizioaren ildura usatua izan da txit anziñatik andien, eta txikien, aberatsen, eta beartsuen artean. Jakob Patriarkak, Dabid Erregeak, Makabeoak, S. Juan Bautistak erabili zuen zilizioa. Jeremias Profetak deadar egiten zien jendeai: *jaunzi zaitetze zilizioz: egizue negar, eta adia: Accingite vos cilicio, plangite, et ulu-*

late. Judith andre prestu, pijo, ta ederrak, alargundu zanean, aldegin zuan munduaren zorakerietatik, gelditu zan bere etxean, garbitasun, eta penitenzian bere egunak bukatzeko: jaunzi zuan zilizioa, Eskritura Santak esaten digun bezala. Au bera egiñ due Lege berriko Santu eta anima on birtutetsu askok. Ekusiko ditugu batzuetan beren buruak azotez zeatzen soñekoak, eta pareteak odolez betetzeraño, besteetan barau gogorak ateratzen, doi doia bizirik egoteko diña jaten, eta edaten duela. Esan gidazu, Kristaua, baldin denbora guztietako Santuak, edo anima birtutetsuak, ta aen artean batzuek bataioan artu zuen graziaren soñeko zuri-ederra galdu etzuenak, onenbat alegiñarekin ilduratzen bazuen gorputza zer egiñ bear ez genduke guk, egiñ ditugun adiña bekatu, ta gaiztakeriaren ondoren? Ta ezpadegu biotzik gorputza ilduratzeko, ta ezitzeko nola iritxi uste ditugu, Santuentzat, edo anima onentzat prestaturik dauden, Zeruko atsegiñ-kontentu miragarriak? Baldiñ ainbeste kostatzen bazaizte oek anima onai: guk nai ginduke doarik? Geiegi balio due, Kristaua, aiñ erraz, eta merke iristeko. S. Paulo Apostoluak esaten digu: Jesu-Kristorenak diranak ilduratu, ta gurutzefikatu duela gorputza bere gura ta naikunde txarrakin. *Qui sunt*

Chti, carnem suam crucifixerunt cum vitiis, et concupiscentiis. Ta bere buruaz dio: kastigatzen det nere gorputza, ta ipintzen det ezaguera onaren mendean, erakutsirik besteai Zerurako bidea, nerau galdu ez nadiñ. *Castigo corpus meum, et in servitutum redigo, ne forte, cum aliis praedicaverim, ipse reprobus efficiar.* Ekusten det, nere Kristauak, ez dirala guztientzat egokiak aditzera eman ditudan ildura, ta penitentzia andiak; ekusten det gañera gutxik duala aek eskatzen duen bezeiñ espiritu andia. Ekusten det atzean asko dala Kristauarentzat bere gorputza ilduraztea, ezitzea, ta menderatzea, Jaunaren Lege Santa, ta gañerako bere eginbideak gordetzea eragotzitzen dituala bere griña ta pasioak galanki nekatuaz, dala apainduriak utziaz, barautuaz, edo beste eratan. Gorputzari ildurarik asko ematen dioe gure nekazari prestuak geienak beintzat; baldin egiten dituen nekeak Jaunari eskeñiaz, ta Jaun beraren onra, ta gloriarako egingo balira; ta jai egunetan Jainkoaz aztuko ezpalira zenbait. Ildura, ta mortifikazio mota onen premia geiago due aisian, eta eraz bizi diran jendeak; ongi badu alabaña potxok zaldalea, ta nekatzen ezpada, edo etxean, edo kanpoan, zertan, edo artan, ez dira faltako ostikokak, arrantzak, eta oitura gaizto-

ak. Ala gertatu da oraindañokoan, ta ala aurrera-ere gertatuko da munduak dirauen artean. Itz batean: Zerura nai badegu, era batera, edo bestera gorputza nekatu, ta mendean iduki bear degu, amilderazi ez gaitzan bekatuen zingiretan. Jesu-Kristorenak diran anima, ilduratu, ta gurutzefikatu due aragia bere gura, ta naikunde txarrakin, dio S. Paulok: *Qui sunt Chti, carnem suam crucifixerunt cum viytis, et concupiscentiis.*

* * *

Ona da, ta ona ezezik guztiz bearra gorputzaren ildura, edo mortifikazioa, ekusi degun bezala, baña askoz ohea da, dio S. Agustiñek, askoz prezioetsua-goa, ta goiagoa bigarrena, edo *barrengo mortifikazioa. Pretiosius, et sublimius.* Barrengo ildura, edo mortifikazio guztia biurtu diteke iru gauzatara. Lenen-goa da gure gorputzari, sentiduai, griña, ta pasioai ukatzea eskatzen dituen atsegin-kontentuak, ta ongi eraman Jaunagandik, edo lagun urkoagandik egun oro datozkigun, samintasunak, eta gurutzeak. Bigarrena: gure griña, ta pasioetatik jaiotzen dan, gogo, ta nai guztia utzitzea. Irugarrena gure lan, ta gauza

guztietan giari artzea Jaunaren nai, edo borondatea. Ez dezu zuk aditzen noaski, Kristaua, gauz oen otsa baizik; ta zuri dagokizun adiña aditu ditzatzun, enzun ezazu kontuz oraiñ adieraztera noana.

Iru gauz oetatik lenengoaren gañean esaten digu S. Bernardok gauz eder bat. Geren buruakin egiñ bear degula, dio Santuak, eri baten kontua artuta zai dagoanak egiten duana. Onelako kontua daukanak ukatzen dio eriari kalte egingo dion guztia, naiz negar egin dezala; baña on egingo dioen gauzak arrerazten diozka alegiñean, naiz eriaren gustoak ez izan. Au bera da guk geren buruakin egin bear deguna. Ukatu jan-edan gaiztoak: ukatu begien begiratze arroak, edo ariñak; ukatu belarriai kanta zikiñen, itz anima galgarrien, ta erausi gaiztoen aditzea; ukatu eskuai keñada, ta ukitzen bear ez diranak. Ukatu soñekoen arrotasun, ta apainduria ez dagozkigunak, dantza, jolas, eta ibillera zoroak. Eta egun oro naiz etxean, naiz kanpoan arkitzen ditugun, samintasunak artu bear ditugu, gure animaren eritasunak sendatzeko datozkigun sendagaiak, ta edariak bezala. Ona barrengo ildura edo mortifikazioaren malla bat. Baña nor da egungo egunean bere anima eriari era onetan kontu egiten diona? Nor era onetan ukatzen diozkana

bere buruari gorputzak, sentiduak, griña, ta pasioak gure dituen atsegin kontentuek? Nor, Jaunagandik, edo lagun urkoagandik datozkigun gurutzeak ongi artzen, ta biotz prestuarekin daramaizkiana?

Barrengo ildura, edo mortifikazioak eskatzen du gañera gure griña, ta pasioetatik datorkigun gogo, eta naia osotoro ukatzea, utzitzea, gurutzefikatzea. Au da geren amorio, ta borondatea, esan oi zaion gai-xoaren ukatzea. Au iristeko guk jarraitu bear diogu Santuak, eta gizon jakintsuak ederki erakutsia utzi diguen bideari. Ara nolakoa dan bide au. Gure griña ta pasioak batzuetan nai due debekatua dan gauza larria, egiñ dezagun kontu edanean osotoro igarotzea, lagun urkoari kalte andiren bat etortzea, seigarrengo mandamentuaren kontrako atsegiñ loiak. Eku-sia dago, beartuak gaudela bekatu larrairen azpian gauz oetan gure gogo, ta naia osotoro ukatzera, ta gurutzefikatzer a Jaunaren beldur Santuarekin. Nor-baitek niri jarraitu nai badit, uka beza bere burua, dio Jesu-Kristok. *Abneget semet ipsum*. Gure griña, ta pasioak nai due beste batzuetan debekaturik dagoan gauzaren bat, baña berez larria ez dana. Egiñ deza-gun kontu gere buruak edertzeko gezur txiki bat esatea, gurasoai bizitasun piskaren batekin erantzutea,

lagun urkoaren falta barreatuak kontatzea, apaintze-ko kontu geiegi ipintzea. Gauz oetarako gogo, ta naia ukatu bear du Kristauak, bere griña, ta pasioen mendean bizi nai ezpadu. Gauza txikietan, ta egun oro, edo sarritan gertatzen zaizkigunetan ukatzen badegu gure gogo, nai, edo borondate txarra, erraz gero garaitzen da gauz andietan; baña jarraitzen badiogu gure gogoari gauza txikietan, txikiak diralako aitzakian; laster au bera gertatuko da andietan-ere. Ala esaten digu Espiritu Santuak. Ala erakusten digu egun oro gertatzen danak. Aurrenean asi oi dira utsegiterik andienak-ere gauza txiki batetik. Begiratze goixo bat, sarritxo itzegite bat: apaindu nai geiegi bat, berandutxo etxeratze bat, lagun urkoren utsegite txikien gañean erausian egote bat, ta beste onelako milla gauza, aurrenean txit erraz utzi zitezkeanak, ekarri izan ditue ondoren guztiz negargarriak. Argatik gauza txikiak dirudienetan-ere kontuz ukatu bear degu, gure griña, ta pasioetatik datorkigun, gogo, ta nai txarra.

Gure griña, ta pasioak nai due batzuetan berez bekatu ez dan gauzaren bat. Egiñ dezagun kontu bergera batean loreak, frutak, belar usai gozodunak ekustea, ta miratzea: lagun artean ipui, edo kontu

garbiak gatzarekin esatea, ta beste onelako gauza asko ez dira gaiztoak, eta bear dan fiñ onarekiñ egi-ten diranean, izan ditezke onak. Alaere bere gogo, eta nai txarrak ukatzen, eta gurutzefikatzen ikasi nai duanak, saiatu bear du, batzuetan bederik, bekatu ez diran gauzetan-ere bere gogoak eskatzen diona ez egitera. Ala egiñ zuan Dabid Erregeak beiñ batean. Gerran zebillen Filisteoen kontra, ta egarriak estutu-rik esan zuan bere soldaduen aurrean: *O! ematen balit norbaitek Belengo putzuko ura!* Au aditu zuenen artetik irten ziran iru zaldun txit indartsuak, ta Filisteoen erditik igaro ziran Belengo putzura, eta ekarri zuen, Dabidek ainbeste nai zuan, ura. Ekusirik Dabidek zenbat kosta zan ur ura, etzuan edan, baizik eskeñi zion Jaunari. Etzan gauza gaiztoa ura edatea, egarriak zegoan edan nai zuana, ta Errege zan; baña alaere ilduratu, ta garaitu nai izan zuan bere gogo, ta naia. Era onetan saiatzen bagiña gure gogoetak, ta naikundeak ukatzera berenez bekatu ez diran gauze-tan, kemenik gabe geratuko lirake gure griña, eta pasioak, edo beintzat erraz garaituko ginduke gauza debekatuen eske asitzean.

Gure griña, ta pasioak eskatzen due beste batzuetan berez gauz ona, ta Santa dana. Egiñ deza-

gun kontu sarritan, eta ongi prestaturik konfesatzea, sermoiak aditzea, meza nagusiak entzutea. Nork eztakus gauz oek dirala txit onak? ta oetarako jenioa, ta griña txit ederra? Alaere ukatu bear degu gauz oetarako gogo, eta naia, gauza berak egitea utzi gabe. Badakizu, edo jakiñ nai dezu nola? Egiten ditugula gauz on oek, ez gure gogo, ta naiagatik: ez gure jenioari atsegiñ emateagatik, baizik Jaunaren borondateari, ta gure animen onari begiraturik.

* * *

Era onetan ukatu ondoan gure griña, ta pasioetatik datozkigun gogoak, ta naikundeak ez da besterik bear barrengo ildura, ta mortifikazioa ederki egiteko, ezpada artutzea Jaunaren nai, ta borondatea gure lan, eta gauza guzien giari. Ez degu ezer-ere egiñ bear, ez degu nai izan bear, lenik begiratu bage zer nai duan gure Jaun onak, ta beraren borondatea ezagutzean itsu itsuan jarraitu bear diogu, dala guretzat samiña, edo dala gozoa Jaunak nai duana. Jauna da alabaña gure Jabea, gure Egillea, gure Eroslea, ta Ongille andia. Jaun au leku guztietan arkitzen da guri laguntzeko, ta gure onari begirutzen. Nork ez du bada

Jaun onen borondatea bere giari ipiñiko? Nere Jaun Jaungoikoa! Non izan da oraindaño, non nere fedea? non nere zentzua? Ez det nik oraindaño nere gogo, nere naia beste giaririk ezagutu! Joan dira nere urteak kearen eran, eta Zerurako bidea ongi ezagutu gabe! Erakusi gidazu, zure borondate santua egiten: egiñ bedi au Zeruan, egiñ bedi lurrean, eta mundu guztian. Amen.

Begira-zazu oraiñ, Kristaua, zer utsegiñ dezun zere griña, ta pasio txarrak ilduratu, ta gurutzefikatu gabez. Begira bigarrena: zenbat denbora onetan bizi zeran zabarkeria onetan, eta Jaungoikoaganako onginai, ta amoriozko afektoak egiaz, eta biotzetik egiñ gabe. Eta beragatik saia zaite oitura, griña ta pasio txarrak ilduratu, ta gurutzefikatzeko; presta zaite konfesio on bat egiteko; au egiñaz, eta aurrera Jaunaren laguntzarekin bizitza onari jarraitzen diozula, iritsiko dezu Zeruko gloria. Amen.

IRUGARREN DOTRIÑA

GRIÑA, TA PASIO NAGUSIAREN GAÑEAN

*Si quis vult post me venire,
abneget semetipsum. Math. cap. 16*

Ekusi genduan aurreko dotriñan, zein gauza premiazkoa dan gure griña, ta pasioak ukatzea, ilduratztea, ta ezitzea, guk gure Jaun Jaungoikoa biotz osoz amatu nai badegu. Ekusi genduan gañera zein erraz gai onetan utsegiten degun. Gaur itzegiñ nai dizuet gure griña, ta pasio nagusienaren gañean. Adiraziko dizuet, 1.a zer dan griña, ta pasio nagusiena esaten dioguna. Adiraziko dizuet 2.a zein kontu, ta arreta andiarekin griña, ta pasio-mota au ukatu, ta ilduratu bear dan. Atzenean begiratuko du bakoitzak, zer, ta nola utsegiñ duan alde onetatik Jauna amatzeko Agintearen kontra. Enzun arretarekiñ Kristaua.

Baldiñ guk gerengan igarotzen zakuna aitortu nai badegu, nai ta ez esan bearko degu arkitzen dirala guran gura, gogo, naikunde, ta zaletasun batzuek gure ona iristeko, ta gaitza aienatzeko. Zori onekoak izateko, ta zori gaiztotik aldegitako. Gura, ta gogo au eman zion Jaunak gizonari, arreta geiagorekiñ ibilli zediñ bere Zerurako bidean. Baña zer gertatu zan? Zer ezpada gizonak bere Jaunaren agintea ausitzea, jaten zuala Jaun berak debekatu zion sagarra; ta gal-tzea berekiñ bere ondorengo guztientzat justizia edo zuzentasun orijinala deitzen zaion doai miragarria. Emendik gure zori onaren gogo, gura, ta egarria gera-tu zan guztiz epeldua animari dagozkan gauzetarako, ta osotoro etziña, ta makurtua munduko gauza, ta atsegiñ zirzilletara. Makurtua bere naia egitera, ta bere iritzi itsuai jarraitzera. Makurtua emengo onda-sun, irabazbide, ta oen naspilla guztietara. Makurtua gorputzaren atsegiñ loietara, dala janean, ta eda-nean, dala jaunzian, dala jolas, ta ibillera lotsagarrietan. Makurtua bere ona begi onez ekustera, ta lagun urkoarena illuntasun, eta tristuraz. Makurtua; baña zertarako aurrera igaroko gera, banaka ukuituaz gure gura txarrak? Asko da esatea bekatu eginta geratu zala gizona gaitzerako zaletasunez inguratua, ta zen-

tzugabeko animalien antzeko egiñik. *Comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis.* Gizonak bada berekiñ dituan *gura, gogo, naikunde*, ta zaletasun oei deitzen diegu *griñaren* izenez; ta oetatik jaiotzen diran *asaldazioak*, bagak, ta mugimentuak dira *pasioak*.

Griña, ta pasioak, edozeñek beregan ekusten duan bezala, ez oi dira izan berdiñak indarretan, ta agintean. Gertatzen da batzuetan, griña batek beste guztiak bere mendean ipintzea, ta guztien gañetik tontorra jasorik, guztien alkate, ta agintari bera gertatzea. Gertatzen da beste batzuetan, bi edo geiago griña, ta pasiok elkar artzea: egiñ dezagun kontu *kutiziak*, ta biotzaren gogortasunak; jan-edanerako gurak, ta lujuriak; ta elkar arturik beste guziak menderatzea. Griña ta pasio agintari oei derizte: *griña, ta pasio-nagusienak*; ta aginte au datorkie bide askotatik. Batzuetan gorputzaren sasoi, aro, edo temperamentutik. Ala Esaturen griña nagusiena zan gogortasuna, ta gozakaitzkeria, bere sasoi, ta temperamentu lakatzak griña oni indarrak ematen ziozkala. Denbora berean Jakob'ren griña nagusiena zan pakeatsua, ta Jainkotia izatea, bikiak, ta sabelaldi batekoak ziralarik Jakob, ta Esau. Beste batzuetan gure griña, ta pasio-

ren bat guztien agintari izatea, dator adiñetik. Ala ekusten da, agintari dirala aur denboran griña, ta pasio batzuek, gaztedasuna sartzean beste batzuek, ta zartzean beste batzuek. Aur denboran griña nagusienak izan oi dira *geldirik ezin egona, erausia, enbidia. Gaztedasunean arrokeria, batetik bestera ibiltzea, dana, ta ez dana arduragabe gastatzea, apaindu naia, ta jolas, ta atsegiñ txarren gura*. Badator zartasuna, ta geienean agintari jartzen dira beste griña, ta pasio batzuek. Kutizia, onra, era on, ta estimazioen ansia: anziñako gauzak laudatzea, denbora oeta-koak ezertan ez idukitzea: idurikortasuna, ta iñorgan eziñ fiatzea; oek dira, zartasunean geiena nabarben-tzen diran, griña, ta pasioak. Batzuetan gure griña, ta pasioaren batek besteen artean geiena tontorra altxatzea etorri oi da azieratik; besteetan lagun gaizto, edo onakiñ biltzetik, edo oitura gaiztoak, edo onak artzetik. Ezpadu semeak, edo alabak jaio zanetik adi-tzen, madarikazioa, ta juramentua baizik; ezpadu ekusten keñada zikiñak, ta eskuka loiak besterik; erraz onelako seme, edo alabaren griña, ta pasio nagusiena izango da, birauak egiteko, ta atsegin loie-tarako griña, ta pasioa. Atzenean gure griña, ta pasio-ren bat besteen artean agintari, ta nagusiena izatea

etorri oi da idurimendu, edo imajinazioaren aldetik. Idurimendu, edo imajinazio guztiak ez dira berdiñak, ta era batera moldatuak, ta gerta diteke griña batari besteari baño su, ta indar geiago ematea. Ala ekusten da jenio illun baten imajinazioak geiago laguntzen diola tristuraren griña, ta pasioari besteai baño: ta au bera gertatzen da jenio mota bakoitzean. Gañera; zer nolako antz, ta imajiñakiñ betetzen dan imajinazioko ispillua, alako griña, ta pasioak; au da antz, ta imajiña aei dagozten pasioak geiena esnatzen dira, ta nabarbentzen; ta geratzen dira oek agintari, ta nagusi egiñik. Egizu kontu, Kristaua, kendurik zure gelatik Ama Birjiñaren antz, ta imajiñak, gelaren lau aldeak betetzen dituzula pintura gaiztoz, ta nornai bekatura amilderazeko egokiak diran, imajiña zikiñez. Ekusia dago, zein pasio, ta griña izango dan zure agintari, ta nagusi pintura ta imajiña zikiñ aek aienatu, edo bota artean. Ta ona zer gertatzen dan egun oro, ta puntu oro, idurimentu, edo imajinazioaren ispillua, edo liburu miragarria antz, ta imajiña gaiztoz, edo ez onez betetzearekin. Aurtasunetik bear bada urlia oitu zan, bear ez diran gauzak ekustera, aditzera, ukuitzera, ta bete zuan bere idurimentuaren, edo imajinazioaren gela antz, ta imajiña zikiñez. Gero aei

begiratuaz, lilluraturik, ta txoraturik egonaz, gerezten dira imajiña berak imajinazioan sendoro ezarriak; ta emendik dator, urligan griña, ta pasiorik sutuena, eta nagusiena izatea zikinkerietarako griña, ta pasioa. Emendik sarritan agertzea animaren begietan gauza loien, ta nazkagarrien antz, edo imajiñak, dala bakarrik dagoanean, dala norbaitekiñ itzegitean, Meza enzutean, edo edozeiñ gauza egitean. Emendik batzuetan bizitza guztiko gurutze nekagarria, ta beiñ baño geiagotan burua galtzea. Txit nekez miñanze au sendatzen da; sendatzeko alabaña, kendu, edo desegiñ bear lirake imajinazioan ezarririk dauden antz, eta imajiña loiak, ta aen lekuan ipiñi Jesus gurutzefikatua, infernuko penak, edo beste onelako gauzen imajiñak; ta au da gauza, denbora, gogo ona, ta Jaunaren laguntza andia eskatzen duena. Gertatu da iñoiz leku andiren bat, edo ezkontza bat ainbesteraño deseatzea, ta aiñ bizi, ta sendoro imajinazioan gauz oen antz, ta imajiñak ezartzea, non sinisturik geratu izan diran ansia oek zituenak, Obispo, edo Kardenal egiñ dituela, edo ezkontzeko itzak eman zitzaiztela, eta egingo lukee noiz-ere nai juramentu, egia dala au guztia. Ezta oraiñ kontu ateratzea besterik, nolako indarra duan idurimendu, edo imajinazioak gure

griña, ta pasioai su emateko, ta nola oetakoren bat egiñ ditekean beste griña, ta pasioen buru, ta agintari.

* * *

Baderitzat, Kristaua, esan dedanarekin ezagutu dezakezula, zer dan *griña*, edo *pasio nagusiena* esaten dioguna. Orain adierazo nai nuke, zein kontu, ta arreta andiarekiñ griña, ta pasio-mota au ukatu, ilduratu, ta ezi bear degun. Ez det emen itzegiten griña, ta pasio onera garamatzienen gañean. Onelako doai prezioetsua duenak, eman bear diozkee milla esker Jaunari, ta Jaun beraren onra, ta gloriarako zuzendu bear due beren griña, ta pasio ona. Ala egiten zuen Abelek, Jakob, Job, ta beste Santu askok. Kontu egiñ bear due onelakoak, egiten dituen, gauz onak egiteaz ongi, au da, ez beren griña, ta pasioari atsegiñ egi-teagatik, ez beren naiari, ta kontentuari begiraturik; baizik Jaunaren onra, ta borondatea begien aurrean ipintzen duela. Onetan bear dan, arreta artu gabez, zenbat Zeruko ondasun galtzen dira? Itzegiten det bada, gaitzera garamatzien, edo gaitzera amiltzeko perillean ipintzen gaituen, gure griña, ta pasio nagu-

sienen gañean: diranak dirala oek, edo andiustea, edo kutizia, ira, gorputzaren atsegin lizunen gura, edo beste edozeiñ.

Aurreko dotriñan ekusi genduan, zeñ gauza bearra dan guk gure griña, ta pasio txarrak ukatzea, ilduratzea, ta ezitzea. Ta gauza bearra bada griña, ta pasio gaizto guztiakiñ au egitea: zer izango da, gure griña, ta pasio nagusienari begiratzan badiogu? Zeñ kontu, ta arreta andia ipiñi bearko ez degu au ilduratzeko, ta ezitzeko? Au da alabaña gure etsaien artean andiena, ta alaere geiena maitatzen dana. Au da geiena ezkututzen, ta jauntzi ederrez apaintzen dana. Au da atzenean griña ta pasio bat, mugaz ilduratzan, ezitzen, ta garaitzen ezpada, eriotzaraño jarraituko diguna; ta garaiturik dagoala uste izan arren, deretxa datorkionean, berriro ekiten duana animaren kontra.

Gure griña, ta pasio nagusiena da beñik beiñ gure etsai guztien artan andiena, edo gure etsaien buru, agintari, ta erregea; ta beragatik, gure egiñ al guztian, burua kendu bear genioke ilduratuaz, ta nai duana egiten utzitzen ez diogula. Baña gure itsumenaren izugarria! Etsai izugarri au izan oi da guk geiena maitatzen deguna; oni barkatzen diozkagu, egiten, ta eragiten dituan, okerrak; ta beldur gera griña,

ta pasio nagusiena muzindurik, ta begitarte gaiztoa-
rekin jarri dakigun. Begira ezperen egun oro ekusten
danari. Begira gazte jolas, ta ibillera dongeetan dabil-
tzanai; begira ezkontzeko usteakin zoraturik, ta Jau-
naren beldur santua utzirik bizi diranai. Oen griña
nagusiena batzuetan da jolas ez garbien, itzegite, ta
keñada lotsagarrien gura, ta besteetan era gabeko
ezkondu nai bat, prest ipintzen dituana asko utsegite-
tan amiltzeko. Ta alaere ez due biotzik griña, ta pasio
nagusien oek ilduratzeko, ta ukatzeko; maiteegi
ditue, onen gogor artzeko, griña berak. Agindu bekie
beste edozeiñ gauza, barauak, errezoak, belauniko
egotea, ta ala bear bada, izotzturik dagoan, erreka
batean leporaño sartzea, ta egingo due pozik utzitzen
bazate beren griña nagusiena ukuitu gabe. Au bera
gertatzen da kutiziosoarekiñ, ta edanerako griña dua-
narekiñ. Egiñ oi degu onetan Saulek Amalezitakin
egiñ zuana. Agindu zion Jaunak Saul Erregeari
Samuel Profetaren bidez, desegiñ, ta osotoro urratu
titzala Amalezitak, andiri, ta txikiri, ez eta ganaduai-
ere, barkatzen etziela. Irten zan Saul gerrara berreun
milla ta geiago soldadurekiñ. Garaitu zituan Amalezi-
tak: bukatu zuan jende txeguztia, ta gauza txit pre-
ziotsu etziranak desegiñ zituan. Baña etzuan biotzik

izan Agag Amaleziten Erregeari, ta artalde ederrai bizitza kentzeko (1 Regnum cap. 15). Barkatu zien, ta aserrerazi zion Jaunari. Ona guk egiten deguna animaren gerran. Agintzen digu Jaunak gurutzefikatu ditzagula gure griña, ta pasioak. Garaitzen ditugu geren gogokoak ez ditugunak, baña gure griña nagusienak? Oek geiegi amatzen ditugu, bereala desegiteko, ta ukatzeko. Barkatzen diegu, ta gurekiñ dijoaz obiraño. Ala ekusten da edaleakin, ala itz loi zikiñak esateko, ta keñada lotsagarriak egiteko oitura duenakiñ: ala ezkondu bear, bear ta bear asi diranakiñ, ta ala kutiziari, ta irabazi ez garbiai ederretsi diezana kiñ.

Gure griña, ta paso nagusiena etsairik andiena izateaz gañera da, ezkututzen, ta kolore ederrez jauntzirik, ta apaindurik, agertu oi dana. Urliaren griña, ta pasiorik indartsuena, ta agintariena izango da, egiñ dezagun kontu: *andi ustea; ta bere borondatez, ta iritziz* dan guztia betea, ta puztua egongo da. Emendik dator, urlia norbaitek ukuitzen badu, edo ukuitu duela, iduritzen bazaio, onra, ta puntuari dagozkan gauzetan, edo egiten ezpazaizka gura dituan agurrak, ta naikuntzak; ezpadu auzoak, edo aideak ark nai duana egiten, aren alde itzegiten:

artzen du urlia suak, eta garrak, ta ez da aren aotik agertzen, biraua, madarikazioa, lagun urkoaren onrari, aren aurrekoai, ta aideai ozka, ta aginka aritzea besterik. Oker oen guztien iturburua, oen ama, ta sustraia da andi ustearen, ta soberbiaren griña, ta pasio nagusiena; ta alaere eztu aitortuko urliak egia au: ezkutatuko du zauri au, ta esango du aserrearen su aldi batean egiñ zituala onenbeste birau, ta ainbeste erausi. Sandiaren griña, ta pasio nagusiena izango da kutizia, edo ondasunen egarri beñere eziñ ill, ta eziñ aspertu dan bat; ta berak ez, beste guztiak ezagutzen due au, ta esaten. Egarri onetatik dator saldu erosian zuzen ez ibiltzea: jende bear guztia alferra, burugabea, ta besteren kostuz bizi nai lukea-la iritzitzea. Emendik biotzaren gogortasuna, ta emengo gauzetatik gogoia eziñ kendua. Ala ere ez du kutiziosoak ezagutu nai bere minantze, eta griña nagusien au: *gauzarik ez dala, esango du, konturik, ta arretarik, ez dan lekuan*. Berendiaren griña, ta pasio nagusiena da enbidiaren griña zimur-lotsagarria. Emendik dator auzoaren, aidearen, ta ezagunaren berri onak aditzean, barrena illundurik geratzea, ta aren kalteren bat jakitean biotza zabaltzea, ta esatea: *ederki egiñ zaio, ongi irabazia zuan aren ibille-*

rak. Alaere ez du aitortuko berendiak enbidiaren griña, ta pasioa. Ezkutatuko du, ta edertuko beste koloreren batekiñ. Aurrak esan oi duen bezala, esan lezake. *Buruban sabeleko miña duala.* Urliaren griña, ta pasiorik indartsuena, ta nagusiena da mutillakiñ, edo neskatxakiñ atsegiñ artzea, ta jolastea, ta eziñ dago jolas gabe. Emendik dator itz loy, keñada, ta eskuka zikiñetan erortzea. Emendik festa, ta dantza lotsagarrietan ibiltzea, alberdanian ganaduen eran iñauterian, erriko, ta auz errietako festetan, ta dere-txa dan guztian. Alaere urliak ez du osotoro aitortuko bekatu oen guztien sustraia, eta pasio nagusia. Ez du aitortuko neskatxakiñ edo murillakiñ jolasean ibiltze-ko egarri, ta apasioa; ta gertatu diran bekatuak aitor-tzen badira, aitortuko dira erdizka, ta ustekabekoak bezala. Au bera gertatzen da beste griña nagusi asko-reakiñ. Onetan egiten da, Rakel Jakob'ren emazteak Laban bere Aitari ostu ziozkan, idoloakin egiñ zuana. Jakob bere emazte, mirabe, ta gauzakiñ irten zan ixilik Aita giarabaren etxetik, ta Rakelek berekiñ era-man zituan Aitaren idoloak. Jakiten du Labanek Jakob'ren irteera, ta ez ditu arkitzen bere idoloak. Bereala irten zan suiaren ondoren, ta atxiturik, esan zion oni: Zergatik ostu dituzu nere Jainkoak? *Cur fura-*

tus es Deos meos? Erantzun zion Jakobek: Zure idolo edo Jainkoakiñ zuk arkitzen dezun edozeñi, kendu bekio guztien aurrean bizia. Etziakian Rakelen lapurretaren berririk, ta ezjakiñean itzegiten zuan onela. Miratu zituan Labanek Jakob beraren, ta beste batzuen egon lekuak, ta etzitian arkitu bere idoloak. Badijoa Rakelen gelara, edo estalpera, ta Rakelek ezkututzen ditu idoloak gameluen txalmapean, ta esertzen da gañean. Miratu zituan Labanek txalmape ura ez, beste lekuak, ta orduan esan zion bere alaba Rakelek: Ez dedilla aserratu Jauna, berorren aurrean txutik eziñ jarri naitekealako: arkitzen naiz alabaña emakumeak izan oi duen miñanze arekiñ (Genes. 31). Onela engañatu zuan Rakelek bere Aita, ta geratu zan bere idoloakin. Esan gidazu oraiñ, Kristaua, ez dezu zuk au bera, edo onen antzeko gauza bat egiñ zure biotzeko idolotxo oriekiñ? Zure idoloa da zure griña, ta pasio nagusien ori. Zure idoloa da zure andi ustea zure aizezko puntu ori. Zure idoloa da ondasunen, edo irabaziaren egarri ori. Zure idoloa da edanerako oitura ori. Zure idoloa da *ezkondu bear, bear, ta bear ori*. Zure idoloa da neskatakiñ, edo mutillakiñ enaskerian ibilli nai ori. Ta idolo oek osotoro utzi bearrean ekusi ez dezazun zere burua, estaltzen dituzu

alik ongiena, ez Rakelek bezala gameluaren txalma-kiñ, baizik beste soiñ ederragoakiñ.

Atzenean gure griña, ta pasio nagusiena da griña, ta pasio bat, mugaz ukatzen, eta ilduratzen ezpada, gu illarte guzitan iraungo duana: ta garaitua dagoala idurin arren, berriro ekiten duana animaren kontra, deretxa datorkion puntuan. Noiz ekusi dezu, Kristaua, mugaz ukatu, ta ilduratu ez diran griña, ta pasio nagusiak eriotzaraño iraun ez duela? Noiz kutizia-tsuak, noiz onra, ta puntuan biotza ipiñi duanak; noiz edanerako itsumena duanak; noiz itz loiak esateko, keñada, ta eskuka zikiñak egitera oitua dagoanak; noiz utzi ditu ill artean bere griña, ta pasio nagusien oek? Baña egiñ dezagun kontu mugaz ukatzen, eta garaitzen dituzula griña, ta pasio nagusiak. Ez dezu zabartu bear alaere zeren berriro ekingo dizu denbo-ra, ta deretxa ona datorkionean. Sinits gidazue, esaten digu S. Bernardok: *Credite mihi*: iñausita ere berriz agertzen dira: *Et putata repullulant*. Aienatuta, edo uisatuta atzera gurekiñ dira: *Et effugata redeunt*. Itzalita berriro piztutzen, ta erazekitzen dira. *Et reac-cenduntur extincta*. Loak artuak, ta sortuak daudela ere berriz esnatzen dira. *Et sopila denuo excitantur*. Gutxi da, dio Santuak berak, beiñ iñaustea gure

griña, ta pasioak. Sarritan iñausi bear dira, ta sarritan ezezik, albada beti onetan jardun bear lizake. Eta asko baratza-zai batek belar gaiztoak beiñ, edo berriz jorran ebakitzea: beti kontuan egon bear du, ta jorraia sarritan erabilli. Nai duanak nere ondoren etorri, ukatu beza bere burua, au da, bere griña, ta pasioak, esaten digu Jesu-Kristok. *Siquis vull post me venire, abneget semeptisum*. Ekusten dezu, Kristaua, zein kontu, ta arreta andiarekiñ ukatu, ta ilduratu bear dan griña, ta pasio nagusiena?

Begira ezazu bada oraiñ, onetan izan dezun zabarkeriarekin zer utsegite egiñ dituzun Jaunaren lenengo mandamentuaren kontra. Zenbat denbora onetan bizitu zeran zere jaun Jaungoikoa egiaz, ta biotz osoz amatu gabe, zere griña, ta pasio gaiztoak ukatu, ta garaitu gabez. Eta atzenean saia zaite Jaunaren laguntzarekiñ zere griña, ta pasio txarrak ukatu ta garaitzera, ta bekatuaren bideetatik aldegiterra, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.